

ANDRE HORI:

EXCMA. SRA.:

Honako hau jakinarazten dizut: Eusko Jaurlaritzak, 2013ko martxoaren 12an egindako bilkuran, **Euskal Autonomia Erkidegoko 2013. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen LEGE PROIEKTUA** onartu du.

Tengo el honor de comunicar a V.E. que el Gobierno Vasco, en Sesión celebrada el día 12 de marzo de 2013, ha procedido a la aprobación del **PROYECTO DE LEY por el que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para el ejercicio 2013.**

Hori ziurtatu egiten dut eta, Jaurlaritzak erabakitakoa betez, horren berri ematen dizut, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean exijitutakoaren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko otsailaren 3an hartutako Erabakian -lege proiektuekin batera Eusko Legebiltzarrera bidali behar diren agiriak zehazten dituen xedatutakoaren arabera.

Lo que certifico y, en cumplimiento de lo acordado por el Gobierno, traslado a V.E., de conformidad con lo exigido por la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y con lo dispuesto en el Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno el día 3 de febrero de 2004, por el que se determinan los documentos que deberán remitirse al Parlamento Vasco junto con los Proyectos de Ley.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 14a.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 2013.

JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO

SECRETARIO DEL GOBIERNO
JAURLARITZAKO IDAZKARIA

**EXCMA. SRA. PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO/
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA**



PROYECTO DE LEY POR EL QUE SE APRUEBAN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, PARA EL EJERCICIO 2013.
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUENA
LEGE PROIEKTUA.

**DOCUMENTOS QUE SE ACOMPAÑAN /
HONEKIN BATERA AURKEZTEN DIREN AGIRIAK**

- I. OFICIO DE REMISIÓN / BIDALKETA-IDAZKIA.
- II. TEXTO DEL PROYECTO DE LEY BILINGÜE / LEGE PROIEKTUAREN ELEBIDUNAREN TESTUA.
- III. RESÚMENES / LABURPENAK
- IV. MEMORIAS EXPLICATIVAS / AZALPEN MEMORIAK.
- V. INFORME DE ASESORÍA JURÍDICA / AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN TXOSTENA.
- VI. INFORME DEL IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO / GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA.
- VII. INFORME DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER / EMAKUNDEAREN TXOSTENA.
- VIII. INFORME DE LA DIRECCIÓN DE NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS/HERRI ADMINISTRATIOETAN HIZKUNTZA NORMALITZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA.
- IX. INFORME DE LA JUNTA ASESORA DE LA CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA/ KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOKO AHOLKU BATZORDEAREN TXOSTENA.
- X. INFORME DE LEGALIDAD / LEGEZKOTASUN TXOSTENA
- XI. INFORME DE CONTROL ECONÓMICO-NORMATIVO / EKONOMIA- ETA ARAU-KONTROLAREN TXOSTENA
- XII. MEMORIA USB (PEN DRIVE) DE LA LIQUIDACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA CAE CORRESPONDIENTES AL EJERCICIO 2011. / EAeko 2011. EKITALDIKO AURREKONTUEN LIKIDAZIOAREN USB (PEN DRIVE) MEMORIA.
- XIII. PREVISIÓN DE LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE LA CAE CORRESPONDIENTE AL 2012 / EAeko 2012. EKITALDIKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIO AURREIKUSPENA.
- XIV. MEMORIA USB (PEN DRIVE) DEL PROYECTO DE LEY POR LA QUE SE APRUEBAN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA CAE PARA EL EJERCICIO 2013. / EAeko 2013. EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGE PROIEKTUAREN USB (PEN DRIVE) MEMORIA.
- XV. LISTADOS A EFECTOS DEL APARTADO 4 DE LA DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA DEL TEXTO REFUNDIDO DE LA LEY DE PRINCIPIOS ORDENADORES DE LA HACIENDA GENERAL DEL PAÍS VASCO.

I

OFICIO DE REMISIÓN / BIDALKETA-IDAZKIA

PROYECTO DE LEY POR EL QUE SE APRUEBAN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, PARA EL EJERCICIO 2013.
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN
DITUENA LEGE PROIEKTUA.

ANDRE HORI:

EXCMA. SRA.:

Honako hau jakinarazten dizut: Eusko Jaurlaritzak, 2013ko martxoaren 12an egindako bilkuran, **Euskal Autonomia Erkidegoko 2013. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen LEGE PROIEKTUA** onartu du.

Tengo el honor de comunicar a V.E. que el Gobierno Vasco, en Sesión celebrada el día 12 de marzo de 2013, ha procedido a la aprobación del **PROYECTO DE LEY por el que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para el ejercicio 2013.**

Hori ziurtatu egiten dut eta, Jaurlaritzak erabakitakoa betez, horren berri ematen dizut, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean exijitutakoaren eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2004ko otsailaren 3an hartutako Erabakian -lege proiektuekin batera Eusko Legebiltzarrera bidali behar diren agiriak zehazten dituen xedatutakoaren arabera.

Lo que certifico y, en cumplimiento de lo acordado por el Gobierno, traslado a V.E., de conformidad con lo exigido por la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y con lo dispuesto en el Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno el día 3 de febrero de 2004, por el que se determinan los documentos que deberán remitirse al Parlamento Vasco junto con los Proyectos de Ley.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 14a.

Vitoria-Gasteiz, a 14 de marzo de 2013.

JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO

SECRETARIO DEL GOBIERNO
JAURLARITZAKO IDAZKARIA

**EXCMA. SRA. PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO/
EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA**



TEXTO DEL PROYECTO DE LEY /
LEGE PROIEKTUAREN TESTUA.

PROYECTO DE LEY POR EL QUE SE APRUEBAN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, PARA EL EJERCICIO 2013.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN
DITUENA LEGE PROIEKTUA.

2013

PROIEKTUA
PROYECTO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

GAI OROKORRAK



TEMÁTICA GENERAL

LEGE-PROIEKTUA • PROYECTO DE LEY

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

2013

PROIEKTUA
PROYECTO

**EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOAREN
AURREKONTU
OROKORRAK**

PRESUPUESTOS
GENERALES
DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA
DE EUSKADI

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS


Lege-proiektua Proyecto de Ley

0 Alea
Tomo 0

Aurkibidea / Índice :


-	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGE-PROIEKTUA.....	1
	<i>PROYECTO DE LEY POR LA QUE SE APRUEBAN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2013</i>	
-	I. TITULUA: EUSKADIKO 2013. URTEKO AURREKONTU OROKORREN ONARPENA ETA EDUKIA	3
	<i>TITULO I: APROBACIÓN Y CONTENIDO DE LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2013</i>	
-	II. TITULUA: GASTUEN EGOERA-ORRIA.....	13
	<i>TITULO II: EL ESTADO DE GASTOS</i>	
-	I. kapitulua: Kreditu-motak. Bereztasunak.....	15
	<i>Capítulo I: Tipos de créditos. Especialidades</i>	
-	II. kapitulua: Kredituen arauak. Aldaketak	21
	<i>Capítulo II: Régimen de los Créditos. Modificaciones</i>	
-	III. kapitulua: Lansarien eta hartzeko pasiboen arauak.....	25
	<i>Capítulo III: Régimen de retribuciones y haberes pasivos</i>	
-	IV. kapitulua: Itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-modulua	37
	<i>Capítulo IV: Módulo económico de sostenimiento de los centros educativos concertados</i>	
-	III. TITULUA: DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA	41
	<i>TITULO III: EL ESTADO DE INGRESOS</i>	
-	I kapitulua: Foru aldundien ekarpenak.....	43
	<i>Capítulo I: Aportaciones de las Diputaciones Forales</i>	
-	II. kapitulua: Zerga-izaerako arauak	47
	<i>Capítulo II: Normas de carácter tributario</i>	
-	IV. TITULUA: KONTRATATZEKO ETA GASTUA BAIMENTZEKO ARAUAK	51
	<i>TITULO IV: NORMAS DE AUTORIZACIÓN DEL GASTO Y DE CONTRATACIÓN</i>	
-	V. TITULUA: LEGEBILTZARRARI EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA	55
	<i>TITULO V: INFORMACIONES AL PARLAMENTO</i>	
-	XEDAPEN GEHIGARRIAK	59
	<i>DISPOSICIONES ADICIONALES</i>	
-	XEDAPEN INDARGABETZAILEAK	67
	<i>DISPOSICIONES DEROGATORIAS</i>	
-	AZKEN XEDAPENAK.....	71
	<i>DISPOSICIONES FINALES</i>	
-	I. ERANSKINA: KONPROMISO-KREDITUAK	79
	<i>ANEXO I: CRÉDITOS DE COMPROMISO</i>	
-	II. ERANSKINA: SOZIJATE PUBLIKOEN AURREKONTUAK.....	105
	<i>ANEXO II: PRESUPUESTOS DE LAS SOCIEDADES PÚBLICAS</i>	
-	III. ERANSKINA: KREDITU HANDIGARRIAK	109
	<i>ANEXO III: CRÉDITOS AMPLIABLES</i>	
-	IV. ERANSKINA: ITUNPEKO IKASTETXEEN GASTUEI AURRE EGITEKO EKONOMIA-MODULUA.....	117
	<i>ANEXO IV: MÓDULO ECONÓMICO DE SOSTENIMIENTO DE LOS CENTROS CONCERTADOS</i>	
-	LABURPENAK	149
	<i>RESÚMENES</i>	
-	ADMINISTRAZIO OROKORRAREN GASTUEN LABURPENAK.....	151
	<i>RESÚMENES DE GASTOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL</i>	
-	ADMINISTRAZIO OROKORRAREN DIRU-SARREREN LABURPENAK	195
	<i>RESÚMENES DE INGRESOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL</i>	

-	ERAKUNDE AUTONOMOEN GASTUEN LABURPENAK	209
	<i>RESÚMENES DE GASTOS DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS</i>	
-	ERAKUNDE AUTONOMOEN DIRU-SARREREN LABURPENAK.....	213
	<i>RESÚMENES DE INGRESOS DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS</i>	
-	ERAKUNDE, SOZIJETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOEN AURREKONTUEN LABURPENAK.....	217
	<i>RESÚMENES DE PRESUPUESTOS DE ENTES PÚBLICOS, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS</i>	
-	ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK	219
	<i>ENTES PÚBLICOS DE DERECHO PRIVADO</i>	
-	SOZIJETATE PUBLIKOAK	223
	<i>SOCIEDADES PÚBLICAS</i>	
-	FUNDAZIO PUBLIKOAK.....	231
	<i>FUNDACIONES PÚBLICAS</i>	
-	“EUSKAL IRRATI-TELEBISTA” ERAKUNDE PUBLIKOA ETA KUDEAKETA-SOZIJETATEAK. BATERATUA	235
	<i>ENTE PÚBLICO “RADIO TELEVISIÓN VASCA” Y SOCIEDADES DE GESTIÓN. CONSOLIDADO</i>	
-	EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN GASTUEN LABURPENAK.....	239
	<i>RESÚMENES DE GASTOS DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i>	
-	EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN DIRU-SARREREN LABURPENAK	243
	<i>RESÚMENES DE INGRESOS DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i>	



**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013. URTEKO
AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGE-
PROIEKTUA**

***PROYECTO DE LEY POR LA QUE SE APRUEBAN LOS
PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2013***



**I. TITULUA: EUSKADIKO 2013. URTEKO AURREKONTU
OROKORREN ONARPENA ETA EDUKIA**
***TITULO I: APROBACIÓN Y CONTENIDO DE LOS
PRESUPUESTOS GENERALES DE EUSKADI PARA EL
EJERCICIO 2013***

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013.
URTEKO AURREKONTU OROKORRAK
ONARTZEN DITUEN LEGEAREN
AURREPROIEKTUA**

**I. TITULUA: EUSKADIKO 2013. URTEKO
AURREKONTU OROKORREN ONARPENA ETA
EDUKIA**

1. ARTIKULUA

ONARPENA

1.- Onartu egiten dira Euskal Autonomia Erkidegoko 2013. urteko Aurrekontu Orokorrak, betiere lege honek ezartzen duen eran eta moduan.

2.- Eusko Legebiltzarraren aurrekontua ere lege honen barruan sartzen da, hala ezartzen baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zenean), 25.2.a artikuluan.

3.- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren aurrekontua ere lege honen barruan sartzen da, hala ezartzen baita otsailaren 5eko 1/1988 Legearen 24. artikuluan.

4.- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrekontua ere onartzen da eta lege honen barruan sartzen da, hala ezartzen baita Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikuluan.

5.- Lege hau aplikatzekoa izango zaie lege honen beronen onarpenaz geroztik sortzen diren erakundeei eta dagozkien aurrekontuei.

2. ARTIKULUA

**EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOAREN AURREKONTUA**

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuan jasotako gastuen kopurua 9.316.657.000 eurokoa da ordainketa-kredituetarako. Konpromiso-kredituei dagokienez, berriz, 1.067.555.942 eurokoa; azken kreditu horiek 2013az geroztik izango duten urtekako aurrekontu-banaketa I. eranskinean zehazten da.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuan jasotako diru-sarreraren kopurua 9.316.657.000 eurokoa da.

**PROYECTO DE LEY POR LA QUE SE APRUEBAN
LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL
EJERCICIO 2013**

**TÍTULO I: APROBACIÓN Y CONTENIDO DE LOS
PRESUPUESTOS GENERALES DE EUSKADI
PARA EL EJERCICIO 2013**

ARTÍCULO 1

APROBACIÓN

1.- Se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2013 en los términos establecidos en la presente Ley.

2.- Se incorpora, a los efectos contemplados en el artículo 25.2.a) del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, el Presupuesto del Parlamento Vasco.

3.- Se incorpora, a los efectos contemplados en el artículo 24 de la Ley 1/1988, de 5 de febrero, el Presupuesto del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

4.- Se aprueba e incorpora, a los efectos contemplados en el artículo 13 de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, el Presupuesto de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

5.- La presente Ley será de aplicación a las entidades que puedan crearse con posterioridad a su aprobación y a su correspondiente presupuesto.

ARTÍCULO 2

**PRESUPUESTO DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI**

1.- El estado de gastos del presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi asciende en cuanto a los créditos de pago a la cantidad total de 9.316.657.000 euros y en cuanto a los créditos de compromiso a la cantidad total de 1.067.555.942 euros, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores al 2013 será el que se detalla en el anexo I.

2.- El estado de ingresos del presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi asciende a la cantidad total de 9.316.657.000 euros.

3.- Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 90.etik 93.era bitarteko artikuluek xedatutakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoak Euskal Herriko Unibertsitaterako bereizten duen aurrekontu-zuzkidura eurokoa da, honela banatuta:

- Ekarpen arrunta: 238.446.000 euro gastu arruntetarako eta 3.000.000 euro kapital-eragiketarako.

- Programa-kontratuak finantzatzeko ekarpen gehigarria: 25.389.896 euro.

- Inbertsio eta azpiegituretako urte anitzeko programa hornitzeko kredituak: 7.971.469 euro.

- Banakako ordainsari-osagarriak finantzatzeko kredituak: 16.143.389 euro.

3. ARTIKULUA

ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTUAK

1.- Erakunde autonomoen aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan ordainketa-kredituak eta konpromisokoak onartzen dira; azken kreditu horiek 2013az geroztik izango duten urtekako aurrekontu-banaketa lege honen I. eranskinean zehazten da:

3.- La dotación presupuestaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, de conformidad con lo que disponen los artículos 90 a 93 de la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, se fija en la cantidad de euros, que se desglosa en los siguientes conceptos:

- Aportación ordinaria por importe de 238.446.000 euros para gastos corrientes y de 3.000.000 de euros para operaciones de capital.

- Aportación complementaria para la financiación de contratos-programa por importe de 25.389.896 euros.

- Créditos para dotar el programa plurianual de inversión e infraestructuras por importe de 7.971.469 euros.

- Créditos para la financiación de complementos retributivos individuales por importe de 16.143.389 euros.

ARTÍCULO 3

PRESUPUESTOS DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS

1.- En los estados de gastos de los presupuestos de los organismos autónomos se conceden créditos de pago y de compromiso por los siguientes importes, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores a 2013 será el que se detalla en el anexo I de esta Ley:

Erakunde autonomoak Organismos autónomos	Ordainketa-kredituak Créditos de pago	Konpromiso-kredituak Créditos de compromiso
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos	39.100.000	22.510.000
Policía eta Larrialdetako Euskal Akademia Academia Vasca de Policía y Emergencias	11.630.000	5.451.000
Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea Instituto Vasco de Administración Pública	21.731.000	753.100
Euskal Estatistika Erakundea Instituto Vasco de Estadística	12.101.000	4.710.000
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer	6.543.000	1.352.316
Osalan – Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erak. Osalan – Inst. Vasco Seguridad y Salud Laborales	15.035.000	2.133.333
Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua Kontsumobide – Instituto Vasco de Consumo	6.555.000	1.009.643
Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua Lanbide – Servicio Vasco de empleo	586.259.000	44.013.073
Lehiaren Euskal Agintaritza Autoridad Vasca de la Competencia	1.158.000	

2.- Aipatutako erakunde autonomoen diru-sarrerei dagokienez, berriz, erakunde horietako bakoitzerako izendatutako ordainketa-kredituen guztizko zenbateko bera jasotzen da diru-sarreraren egoera-orrietan ere. Bereziki, ondoren zehazten diren kopuruak sartu dira erakunde horietako bakoitzaren diru-sarreraren egoera-orrian, eta kopuru horiek, hain zuzen ere, diruzaintzako gerakin berekiei dagozkie:

2.- Los estados de ingresos de los presupuestos de los organismos autónomos mencionados ascienden al mismo importe total que los créditos de pago consignados para cada uno de ellos. En particular, se incluyen en el estado de ingresos de cada uno de estos organismos las cantidades que se detallan a continuación, correspondientes a remanentes de tesorería propios:

Erakunde autonomoak Organismos autónomos	Diruzaintzako gerakinak Remanentes de tesorería
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de Adultos	1.200.000
Policía eta Larrialdetako Euskal Academia Academia Vasca de Policía y Emergencias	3.000.000
Herri Ardulararitzaren Euskal Erakundea Instituto Vasco de Administración Pública	2.103.933
Euskal Estatistika Erakundea Instituto Vasco de Estadística	1.966.111
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer	455.000
Osalan – Laneko Segurtasun Osasunerako Erak. Osalan – Inst. Vasco Seguridad y Salud Laborales	3.499.294
Kontsumobide – Kontsumoko Euskal Institutua Kontsumobide – Instituto Vasco de Consumo	434.954
Lehiaren Euskal Agintaritza Autoridad Vasca de la Competencia	9.996

4. ARTIKULUA

ARTÍCULO 4

ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN AURREKONTUAK

PRESUPUESTOS DE LOS ENTES PÚBLICOS DE DERECHO PRIVADO

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoen ustiapen-aurrekonturako eta kapital-aurrekonturako, ondorengo taulan zehazten diren zenbatekoak dituzten zuzkidurak onartzen dira, eta diru-baliabideak zenbateko berekoak izango dira. Gerorako konpromisoen egoera, berriz, ondoren zehazten diren zenbatekoetara iristen da; azken kreditu horiek 2013az geroztik izango duten urtekako aurrekontu-banaketa lege honen I. eranskinean zehazten da.

En los presupuestos de explotación y de capital de los entes públicos de derecho privado se aprueban dotaciones por los importes que se detallan en el cuadro siguiente, estimándose los recursos en idénticas cuantías. Por su parte, el estado de compromisos futuros asciende a los importes que también se detallan a continuación, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores a 2013 será el que se establece en el anexo I.

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak Entes públicos de derecho privado	Ustiapen-aurrekontua Presupuesto de explotación	Kapital-aurrekontua Presupuesto de capital	Gerorako konpromisoak Compromisos futuros
Euskal Irrati-Telebista Radio Televisión Vasca	109.353.959	1.000.000	
Energiaren Euskal Erakundea Ente Vasco de la Energía	89.624.474	172.559.544	
Osakidetza – Servicio Vasco de Salud Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua	2.399.683.425	41.433.093	12.172.960

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak Entes públicos de derecho privado	Ustiapen- aurrekontua Presupuesto de explotación	Kapital- aurrekontua Presupuesto de capital	Gerorako konpromisoak Compromisos futuros
Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentzia Unibasq – Agencia de Evaluación de la Calidad y Acreditación del Sistema Universitario Vasco	963.035	29.411	
Euskal Trenbide Sarea Red ferroviaria Vasca	50.367.306	49.662.892	
Uraren Euskal Agentzia Agencia Vasca del Agua	22.973.519	10.709.641	
Finantzen Euskal Institutua Instituto Vasco de Finanzas	2.451.554	250.307.067	
Ettxepare Euskal Institutua/Basque Institute Instituto Vasco Ettxepare Euskal Institutua/Basque Institute	1.980.000	20.000	
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo	32.326.630		8.088.000

5. ARTIKULUA

SOZIE TATE PUBLIKOEN AURREKONTUAK

1.- Sozietate publikoen ustiapen-aurrekontuan eta kapital-aurrekontuan, guztira, 547.786.683 euroko eta 177.436.164 euroko zuzkidurak onartzen dira, eta gerorako konpromisoen egoerari dagokionez, berriz, 73.402.489 euro; azken kreditu horiek 2013az geroztik izango duten urtekako aurrekontu-banaketa lege honen I. eranskinean zehazten da.

2.- Sozietate publiko horientzat aurreikusitako diru-baliabideek sozietate bakoitzerako onartutako zuzkiduren guztizko zenbateko bera izango dute.

3.- Sozietate bakoitzaren ustiapen-aurrekontuan eta kapital-aurrekontuan aurreikusitako zuzkiduren eta diru-baliabideen zenbatekoak II. eranskinean zehazten dira.

6. ARTIKULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO FUNDAZIOEN AURREKONTUAK

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazioen ustiapen-aurrekonturako eta kapital-aurrekonturako, ondorengo taulan zehazten diren zenbatekoko zuzkidurak onartzen dira, eta diru-baliabideak zenbateko berekoak izango dira. Gerorako konpromisoen egoera, berriz, ondoren zehazten diren zenbatekoetara iristen da; azken kreditu horiek 2013az geroztik izango duten urtekako aurrekontu-banaketa lege honen I. eranskinean zehazten da.

ARTÍCULO 5

PRESUPUESTOS DE LAS SOCIEDADES PÚBLICAS

1.- En los presupuestos de explotación y de capital de las sociedades públicas se aprueban dotaciones por un importe total de 547.786.683 euros y de 177.436.164 euros, respectivamente, y por un importe total de 73.402.489 euros en cuanto al estado de compromisos futuros, cuyo desglose en ejercicios posteriores al 2013 será el que se detalla en el anexo I.

2.- Los recursos estimados de las citadas sociedades públicas ascienden al mismo importe total que las dotaciones aprobadas para cada sociedad.

3.- El importe de las dotaciones y de los recursos estimados en los presupuestos de explotación y de capital de cada sociedad se especifican en el anexo II.

ARTÍCULO 6

PRESUPUESTOS DE LAS FUNDACIONES DEL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

En los presupuestos de explotación y de capital de las fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se aprueban dotaciones por los importes que se detallan en el cuadro siguiente, estimándose los recursos en idénticas cuantías. Por su parte, el estado de compromisos futuros asciende a los importes que también se detallan a continuación, cuyo desglose en ejercicios presupuestarios posteriores al 2013 será el que se establece en el anexo I.

Fundazio publikoak Fundaciones públicas	Ustiapen- aurrekontua Presupuesto de explotación	Kapital- aurrekontua Presupuesto de capital	Gerorako konpromisoak Compromisos futuros
Musikene Fundazioa Fundación Musikene	8.627.000	31.308	
Euskal Burdinbidearen Museoa Fundazioa Fundación Museo Vasco Ferrocarril	508.227	6.000	
Bio Euskal Fundazioa Fundación Vasca Bio	18.889.293	368.311	
HAZI Fundazioa Fundación HAZI	16.042.016	2.596.591	
Elika Fundazioa Fundación Elika	629.304		
EHko Gazte Orkestra Fundazioa Fundación EHko Gazte Orkestra	261.000		
Euskadi Kirola Fundazioa Fundación Euskadi Kirola	1.586.000	13.000	
CNIE Fundazioa Fundación CNIE	572.300	27.700	

7. ARTIKULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOKO HAURRESKOLAK PARTZUERGOAREN AURREKONTUAK

1.- Haurreskolak partzuergoaren aurrekontuaren gastuen egoera-orrian honako ordainketa-kreditu hauek ematen dira: 55.211.000 euro

2.- Aipatutako partzuergoaren aurrekontuaren diru-sarreraren egoera-orria partzuergo horretarako izendatutako ordainketa-kredituen guztizko zenbateko bera da. Bereziki, Haurreskolak partzuergoaren diru-sarreraren egoera-orrian sartu da diruzaintzako gerakin berekiei dagokien kopuru hau: 2.256.000 euro.

8. ARTIKULUA

EUSKAL IRRATI-TELEBISTA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA IRRATIKO ETA TELEBISTAKO ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO SOZIETATE PUBLIKOEN AURREKONTU BATERATUA

Euskal Irrati-Telebista Erakunde Publikoa sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 44. artikulua arabera, onartu egiten da Euskal Irrati-Telebista erakunde publikoaren eta irrati eta telebistako zerbitzu publikoak kudeatzeko sozietate publikoaren aurrekontu bateratua. Zuzkiduretan, 121.687.598 euro dagozkio ustiapen-aurrekontuari eta 4.000.000 euro, berriz, kapital-aurrekontuari, eta, aurreikusitakoaren arabera, diru-baliabideak zenbateko berekoak izango dira.

9. ARTIKULUA

ARTÍCULO 7

PRESUPUESTO DEL CONSORCIO DEL SECTOR PÚBLICO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI HAURRESKOLAK

1.- En el estado de gastos del presupuesto del consorcio Haurreskolak se conceden créditos de pago por importe de 55.211.000 euros.

2.- El estado de ingresos del presupuesto del consorcio mencionado asciende al mismo importe total que los créditos de pago consignados para el mismo. En particular, se incluye en el estado de ingresos del consorcio Haurreskolak la cantidad de 2.256.000 euros correspondiente a remanentes de tesorería propios.

ARTÍCULO 8

PRESUPUESTO CONSOLIDADO DEL ENTE PÚBLICO RADIO TELEVISIÓN VASCA Y DE LAS SOCIEDADES PÚBLICAS DE GESTIÓN DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS DE RADIO Y TELEVISIÓN

De conformidad con el artículo 44 de la Ley 5/1982, de 20 de mayo, de Creación del Ente Público Radio Televisión Vasca, se aprueba el presupuesto consolidado del ente público Radio Televisión Vasca y de las sociedades públicas de gestión de los servicios públicos de radio y televisión, que asciende, en cuanto a las dotaciones, a la cantidad total de 121.687.598 euros correspondientes al presupuesto de explotación y de 4.000.000 euros correspondientes al presupuesto de capital, estimándose los recursos en idénticas cuantías.

ARTÍCULO 9

BERMEAK EMATEA ETA BIRFINKATZEA

1.- 2013ko ekonomia-ekitaldian zehar, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo, hala dagokionean, Finantzen Euskal Institutuak, gehienez, 400.000.000 euro erabili ahal izango dituzte, edozein motatako eragiketatarako bermeak emateko.

2.- 2013ko ekonomia-ekitaldian zehar, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo, hala dagokionean, Finantzen Euskal Institutuak birfinkatu ahal izango dituzte elkarren bermerako sozietateek euskal enpresei emandako abalak, eta bermatu Luzaro KFE sozietateak euskal enpresei emandako maileguak, abal eta maileguok laguntza-tresna baitira enpresek berezko funtsak edo finantzaketa lortzeko, betiere erakunde horiekin izenpetutako bidezko hitzarmenen esparruan.

Birfinkatze-eragiketa horiek, era berean, estaldura eman ahal izango diete banako enpresariei, autonomoei, enpresa txiki eta ertainei finantzaketa emateko urte anitzeko zernahi lerrori, zirkulatzaila gisa dituzten beharrezanean erantzuteko, zorra epe laburrera berritzeko, epe laburreko zorra epe ertain eta luzerako zor gisa egokitzeko eta, hala dagokionean, inbertsio-planak azeleratzea dakarten finantza arloko jarduketak gauzatzeko, baldin eta plan horiek 2013. urtean zehar gertatzen badira euskal enpresei finantzaketa eskuratzen laguntza emateko programen bidez.

Zenbaki honetan aipatzen den birfinkatzearen gehienezko zuzkidura 600.000.000 eurokoa da.

3.- Orobat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo, hala dagokionean, Finantzen Euskal Institutuak bermatu ahal izango dute Europako Inbertsio Bankuak edo Europako Inbertsio Funtsak edo beste finantza-erakunde batzuek Luzaro KFERi edo erakunde laguntzaileei emandako finantzaketa, baldin eta azken hartzaileak euskal enpresak badira, betiere erakunde horiekin izenpeturik bidezko hitzarmenen esparruan.

10. ARTIKULUA**ZORPETZE- ETA FINANTZA-ERAGIKETAK**

1.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak formalizatutako zorpetzea, edozein agiri motatan gauzatzen dela ere, gehitu ahal izango da, muga honekin: ekitaldiaren amaierako saldoak ezingo du gainditu ekitaldiaren hasieran dagokion saldoa, ez behintzat 672.867.666 eurotik gora.

2.- Zuzenbide pribatuko erakundeen kanpo-zorpetzea ere, edozein agiri-motatan gauzatzen dela ere, gehitu ahal izango da, muga honekin: ekitaldiaren amaierako saldoak ezingo du gainditu ekitaldiaren hasieran dagokion saldoa, ez behintzat 225.000.000 eurotik gora.

PRESTACIÓN DE GARANTÍAS Y REAFIANZAMIENTO

1.- Durante el ejercicio económico 2013, la Administración de la Comunidad Autónoma o, en su caso, el Instituto Vasco de Finanzas podrán prestar garantías por razón de operaciones de cualquier naturaleza por un importe máximo de 400.000.000 de euros.

2.- Asimismo, durante el ejercicio 2013, la Administración de la Comunidad Autónoma o, en su caso, el Instituto Vasco de Finanzas podrán reafianzar los avales otorgados por las sociedades de garantía recíproca y garantizar los préstamos concedidos por la sociedad Luzaro EFC a las empresas vascas como instrumentos que les faciliten la consecución de fondos propios o financiación, en el marco de los correspondientes convenios suscritos con esas entidades.

Las operaciones de reafianzamiento podrán también dar cobertura financiera a cualesquiera líneas plurianuales de financiación a empresarios individuales, autónomos, pequeñas y medianas empresas para atender necesidades de circulante, renovación de deuda a corto plazo, la adecuación de deuda a corto plazo en deuda a medio y largo plazo y, en su caso, aquellas actuaciones de naturaleza financiera que supongan una aceleración de sus planes de inversión que tengan lugar a lo largo del año 2013 a través de los programas de apoyo al acceso a la financiación de las empresas vascas.

La dotación máxima del reafianzamiento al que se refiere este número será de 600.000.000 euros.

3.- Igualmente, la Administración de la Comunidad Autónoma o, en su caso, el Instituto Vasco de Finanzas podrán garantizar la financiación otorgada por el Banco Europeo de Inversiones, el Fondo Europeo de Inversiones u otras instituciones financieras a Luzaro EFC o entidades colaboradoras y cuyo destinatario final sean las empresas vascas, en el marco de los correspondientes convenios suscritos con esas entidades.

ARTÍCULO 10**OPERACIONES DE ENDEUDAMIENTO Y FINANCIERAS**

1.- El endeudamiento formalizado por la Administración de la Comunidad Autónoma, cualquiera que sea la forma en que haya sido documentado, podrá incrementarse con la limitación de que el saldo al cierre del ejercicio no supere el correspondiente saldo al comienzo del mismo en más de 672.867.666 euros.

2.- El endeudamiento externo formalizado por las entidades que se rijan por el derecho privado, cualquiera que sea la forma en que haya sido documentado, podrá incrementarse con la limitación de que el saldo al cierre del ejercicio no supere el correspondiente saldo al comienzo del mismo en más de 225.000.000 de euros.

3.- Zenbateko horiei ez zaizkie egotziko diru-zaintzako aldi baterako premiei aurre egiteko kreditu-eragiketak, urtebeterako edo gutxiagorako badira.

4.- Aurreko paragrafoetan xedatutakoa Euskal Autonomia Erkidegoaren 2013. urterako Zorpetze Programan erabakitakoari kalterik egin gabe ulertuko da. Programa hori Ekonomia Itunaren 62 b) artikuluan xedatutakoaren babesean erabaki da.

3.- A dichos importes no se imputarán las operaciones de crédito, por plazo no superior a un año, destinadas a necesidades transitorias de tesorería.

4.- Lo dispuesto en los párrafos anteriores se entenderá sin perjuicio del Programa de Endeudamiento para el año 2013 de la Comunidad Autónoma del País vasco acordado al amparo de lo dispuesto en el artículo 62 b) del Concierto Económico.



II. TITULUA: GASTUEN EGOERA-ORRIA
TITULO II: EL ESTADO DE GASTOS





I. kapitulua: Kreditu-motak. Berezitasunak
Capítulo I: Tipos de créditos. Especialidades



II. TITULUA: GASTUEN EGOERA-ORRIA

TÍTULO II: EL ESTADO DE GASTOS

I. KAPITULUA: KREDITU-MOTAK. BEREZITASUNAK

CAPÍTULO I: TIPOS DE CRÉDITOS. ESPECIALIDADES

11. ARTIKULUA

ARTÍCULO 11

KREDITU HANDIGARRIAK ETA FINANTZABIDEAK

CRÉDITOS AMPLIABLES Y MEDIOS DE FINANCIACIÓN

1.- Euskadiko aurrekontu-erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginaren (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zenaren) 24, 25 eta 26. artikuluetan ezarritakoaren aurka jo gabe, 2013. urtean handigarri izaera izango dute, aitortzea nahitaezko duten obligazioen kopuru bateraino, kreditu hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, bere erakunde autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko partzuergoen aurrekontuetan sarturik egonik, lege honen III. eranskinean zehazten direnak.

1.- Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 24, 25 y 26 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, durante el 2013 tendrán carácter ampliable, hasta una suma igual a las obligaciones cuyo reconocimiento sea preceptivo, los créditos que, incluidos en los presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de sus organismos autónomos y de los Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se detallan en el anexo III de esta Ley.

2.- Handigarriztat jotzen diren kredituen eta aipatzen diren gainerako kredituen gehikuntzek honako finantzabideak izango dituzte:

2.- Los incrementos de los créditos calificados de ampliables, así como del resto de los créditos que se citan, serán financiados de la siguiente manera:

a) Xede batera atxikitako eskubideen benetako bilketaren araberrako gehikuntzak finantzatzeko, hasieran aurreikusitako diru-sarrerez gain jasotako diru-sarreren soberakinak izango dira oinarri.

a) Los que estén en función de la efectiva recaudación de derechos afectados se financiarán en función del exceso de ingresos percibidos sobre los inicialmente previstos.

b) Lurralde historikoek Estatuari ordaindu behar dioten kupoa neurri berean gutxiagotzea ekartzen duten gehikuntzak finantzatzeko, lurralde historikoek berek finantzatzeko dute gutxitu den kopuru bera, betiere 2013rako ezarritako ekarpen-koefizienteen arabera.

b) Los que produzcan una correlativa disminución del cupo a pagar al Estado por los territorios históricos serán financiados por éstos por igual importe al de aquella disminución, de acuerdo con los coeficientes de aportación establecidos para 2013.

c) Finantza-modu zehatzik ez dutenak finantzatzeko, Gobernu Kontseiluak erabakiko du nola egin, betiere Ogasun eta Finantza Sailak proposatu ondoren.

c) Los que no tengan asignada una forma específica de financiación serán financiados de la forma que disponga el Consejo de Gobierno, a propuesta del Departamento de Hacienda y Finanzas.

3.- Horrez gain, Gobernu Kontseiluak diruzaintzako gerakinen kontura handitu ahal izango ditu "Zenbait sailen gastuak" sekzioko gastuen egoera-orrian azaltzen diren kreditu handigarriak, baita, hala badagokio, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onartutako finantza-laguntza emateko plan eta programetatik sortutako finantza-premiak ere.

3.- Adicionalmente, la ampliación de los créditos ampliables que figuran en el estado de gastos de la sección "Gastos Diversos Departamentos" y, en su caso, las necesidades de financiación derivadas de la ejecución de planes y programas de apoyo financiero aprobados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, podrá llevarse a cabo por el Consejo de Gobierno con cargo a remanentes de tesorería.

12. ARTIKULUA

ARTÍCULO 12

KONPROMISO-KREDITUAK

CRÉDITOS DE COMPROMISO

2013ko ekitaldian, Ogasun eta Finantza Sailak, beharrezko diren aldaketak eginez, aurreko urteetan sortutako konpromiso-kredituen zenbatekoa egokitu ahal izango du, baldin eta kredituok finantza-eragiketak edo arriskuen estaldura-eragiketak gauzatzearekin zerikusia duten lankidetzeta-hitzarmen eta kontratuei badagozkie eta eragiketaren zenbatekoa interes-tasaren edo antzeko beste adierazlearen bilakaeraren arabera bada.

13. ARTIKULUA

AURREKONTU-PLANTILLAK

1.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 20. eta 21. artikuluetan xedaturikoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta erakunde autonomo administratiboen behin-behineko langile, funtzionario eta lan-kontratuko langileen plantillak onartzen dira, taldeka, kidegoka, eskalaka eta kategoriaka sailkatuta, eta hasiera batean aurrekontu hauen "Langileriarri buruzko eranskinean" xedaturikoaren arabera aurrekontu-programa eta -sektioei atxikita.

2.- Euskadiko aurrekontu-erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginaren (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zenaren) 22. artikuluan xedaturikoaren ondorioetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta erakunde autonomoen administratiboen aurrekontu-plantillak izaera mugatzailea izango du, eta gehienezko muga erakunde horietako guztietako funtzionarioen, lan-kontratuko langile finkoen eta behin-behineko langileen kopuru osoa izango da.

3.- Orokorrean, aurrekontu-plantillak langile-zuzkidura berriak sortuz aldatzen badira, behar beste zuzkidura amortizatu egin beharko dira horren ondorioz, urteko kostu gordina handiagoa izan ez dadin.

4.- Aurreko paragrafoan ezarritakoa alde batera utzita, Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Finantza Sailaren proposamenez, langile-zuzkidura berriak sortzeko baimena eman ahal izango du lanpostuen zerrendak honako arrazoi hauengatik aldatzen badira: eskumenen transferentziak benetan gauzatzen direlako, organo eta zerbitzu berriak sortzen direlako, kanporatutako eta azpikontrataturiko zerbitzuen kudeaketa zuzena egiten delako, lege-mailako arauak aldarrikatzen direlako, edo Gobernuak koiunturakoak ez diren planak, programak eta jarduerak garrantzitsuak onartzen dituelako. Horretarako, finantzazio egokia eta funtzio publikoaren arloan eskumena duen organoaren alde aurreko aldeko txostena beharko da beti. Txostenean adierazi beharko da ezinezkoa dela premia berriei aurre egitea lanpostuak berratzikita, langileak berrizendatuta edo giza baliabideak arrazionalizatzeko eta antolatzeko bestelako baliabideak erabilita.

Durante el ejercicio 2013, el Departamento de Hacienda y Finanzas podrá adecuar, mediante las modificaciones que fueran precisas, el importe de los créditos de compromiso generados en ejercicios anteriores correspondientes a convenios de colaboración y contratos relacionados con la instrumentación de operaciones financieras o de cobertura de riesgos cuyo importe anual esté en función de la evolución de los tipos de interés o de otros indicadores similares.

ARTÍCULO 13

PLANTILLAS PRESUPUESTARIAS

1.- De conformidad con lo dispuesto en los artículos 20 y 21 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se aprueban las plantillas del personal eventual, funcionario y laboral de la Administración de la Comunidad Autónoma y de los organismos autónomos administrativos, clasificados por grupos, cuerpos, escalas y categorías, con adscripción inicial a los programas y secciones presupuestarias conforme a lo dispuesto en el "Anexo de personal" a estos presupuestos.

2.- A los efectos de lo dispuesto en el artículo 22 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, el carácter limitativo en lo concerniente a la plantilla presupuestaria de la Administración de la Comunidad Autónoma y de los organismos autónomos administrativos se entenderá referido al total agregado de plazas de personal funcionario, personal laboral fijo y personal eventual y para el conjunto de dichas entidades.

3.- Con carácter general, la modificación de las plantillas presupuestarias mediante la creación de nuevas dotaciones de personal requerirá la consiguiente amortización de las dotaciones necesarias de manera que no represente superior coste anual bruto.

4.- No obstante lo establecido en el párrafo anterior, el Consejo de Gobierno, a propuesta del Departamento de Hacienda y Finanzas, podrá autorizar la creación de nuevas dotaciones de personal en el supuesto de modificaciones en las relaciones de puestos de trabajo derivadas de la efectiva realización de traspasos de competencias, la creación de nuevos órganos y servicios, la asunción de la gestión directa de servicios externalizados o subcontratados, la promulgación de normas con rango de ley o la aprobación por el Gobierno de planes, programas y actuaciones significativas de carácter no coyuntural, siempre que cuenten con la adecuada financiación y previo informe favorable del órgano competente en materia de función pública en el que se haga constar la imposibilidad de atender las nuevas necesidades con la readscripción de puestos de trabajo, la reasignación de efectivos u otras medidas de racionalización y ordenación de recursos humanos.

5.- Ogasun eta Finantza Sailari baimena ematen zaio langileen gastuen kredituetan beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak egiteko, artikuluko honetan xedaturikoaren arabera onartzen diren plantilla-aldaketetara egokitze aldera.

6.- Zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, eta Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko partzuergo eta fundazioen langile-zuzkiduretan 2012ko abenduaren 31n indarrean dauden zuzkiduren gainetik egiten den edozein aldaketa, baldin eta erakunde horien aurrekontua lege honen aplikazio-eremuan sartuta badago, artikuluko honek aipatzen dituen arauekin bat etorri baimendu beharko da.

14. ARTIKULUA

LANGILERIAREN ARLOKO KREDITUAK

Euskadiko aurrekontu-erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginaren (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zenaren) 66.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta 2013. urterako bakarrik, sekzio bakoitzerako, lotura-izaera izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren, haren erakunde autonomo administratiboen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko partzuergoen aurrekontuen I. kapituluko 122, 123, 131, 132, 161 eta 162. kontzeptuen barruan dauden gastuek, kontzeptuaren mailan, eta 16111 azpikontzeptuaren barruan dauden gastuek, azpikontzeptuaren mailan.

15. ARTIKULUA

FUNTZIONAMENDU-GASTUETARAKO KREDITUAK

1.- Euskadiko aurrekontu-erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginean (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zenean) 66.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta 2013. urterako bakarrik, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko partzuergoen aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan sartutako ordainketa-kredituek izaera mugatzailea eta loteslea edukiko dute kapituluaren mailan, sekzio eta programa bakoitzerako, ekonomiako sailkapenari dagokionez; aurrekontu horiek II. kapitulari dagozkio, hain zuzen ere, funtzionamendu-gastuak, aurrekontuaren gastu-xehetasunean ezkutuko gastu gisa sailkatutakoak izan ezik. Ez dira beharrezko izango, beraz, kapituluaren mailaren azpitik dauden kreditu-transferentziak.

2.- Aurreko paragrafoan ezarritakoa hori izanik ere, "osasun-finantzaketa eta -kontratazioa" 4112 programako 241 kontzeptuan bildutako gastuek izaera loteslea izango dute kontzeptu mailan.

5.- Se autoriza al Departamento de Hacienda y Finanzas para realizar en los créditos de gastos de personal las modificaciones presupuestarias que sean necesarias para su ajuste a las alteraciones de las plantillas que resulten aprobadas con arreglo a lo dispuesto en el presente artículo.

6.- La modificación en las dotaciones de personal de los entes públicos de derecho privado, sociedades públicas, consorcios y fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma cuyos presupuestos estén incluidos en el ámbito de aplicación de la presente Ley, por encima de los vigentes a 31 de diciembre de 2012 deberá ser autorizada de conformidad a las reglas a las que se refiere este artículo.

ARTICULO 14

CRÉDITOS DE PERSONAL

A los efectos señalados en el artículo 66.3 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, y con vigencia exclusiva para el ejercicio 2013, para cada sección, tendrán carácter vinculante a nivel de concepto los gastos comprendidos en los conceptos 122, 123, 131, 132, 161 y 162, y a nivel de subconcepto, los gastos comprendidos en el subconcepto 16111 correspondientes al capítulo I de los presupuestos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de sus organismos autónomos administrativos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

ARTICULO 15

CRÉDITOS PARA GASTOS DE FUNCIONAMIENTO

1.- A los efectos de lo dispuesto en el artículo 66.3 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011 de 24 de mayo, con vigencia exclusiva para el ejercicio 2013, tendrán carácter limitativo y vinculante a nivel de capítulo para cada sección y programa, en cuanto a su clasificación económica, los créditos de pago incluidos en los estados de gastos de los presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma, de sus organismos autónomos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi correspondientes al capítulo 2, gastos de funcionamiento, excepto los calificados como gastos reservados en el pormenor de gastos del Presupuesto, no siendo necesarias, por tanto, transferencias de crédito a nivel inferior a capítulo.

2.- No obstante lo establecido en el párrafo anterior, tendrán carácter vinculante a nivel de concepto los gastos comprendidos en el concepto 241 correspondientes al programa 4112 "Financiación y Contratación Sanitaria".

16. ARTIKULUA**ERAGIKETA ARRUNTETARAKO ETA KAPITAL-ERAGIKETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZETARAKO KREDITUAK**

1.- Euskadiko aurrekontu-erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginean (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zenean) 66.3 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta 2013. urterako bakarrik, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren, haren erakunde autonomo administratiboen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko partzuergoen aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan sartutako ordainketa-kredituek izaera mugatzailea eta loteslea edukiko dute artikulua mailan, sekzio eta programa bakoitzerako, ekonomiako sailkapenari dagokionez; aurrekontu horiek IV. eta VII. kapituluari dagozkie, hain zuzen ere gastu arruntetarako transferentziak eta diru-laguntzak, eta kapital-eragiketarako transferentziak eta diru-laguntzak biltzen dituzten kapituluari.

2.- Aurreko paragrafoan ezarritakoa hori izanik ere, "Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena" 7111 programako ordainketa-kredituek izaera loteslea izango dute kapitulu, sekzio, zerbitzu eta programa mailan.

3.- Era berean, Enplegua 3211, Prestakuntza 3231 eta Gizarteratzea 3121 programetako ordainketa-kredituek izaera loteslea izango dute kapitulu, sekzio, zerbitzu eta programa mailan.

ARTÍCULO 16**CRÉDITOS PARA TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPERACIONES CORRIENTES Y DE CAPITAL**

1.- A los efectos de lo dispuesto en el artículo 66.3 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, con vigencia exclusiva para el ejercicio 2013, tendrán carácter limitativo y vinculante a nivel de artículo para cada sección y programa, en cuanto a su clasificación económica, los créditos de pago incluidos en los estados de gastos de los presupuestos de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de sus organismos autónomos administrativos y de los consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi correspondientes a los capítulos IV y VII, transferencias y subvenciones para gastos corrientes y transferencias y subvenciones para operaciones de capital, respectivamente.

2.- No obstante lo establecido en el párrafo anterior tendrán carácter vinculante a nivel de capítulo, sección, servicio y programa los créditos de pago correspondientes al programa 7111 "Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral".

3.- Asimismo, tendrán carácter vinculante a nivel de capítulo, sección y programa los créditos de pago correspondientes a los programas 3211 Empleo, 3231 Formación y 3121, Inclusión Social.



II. kapitulua: Kredituen arauak. Aldaketak
Capítulo II: Régimen de los Créditos. Modificaciones



II. KAPITULUA: KREDITUEN ARAUAK. ALDAKETAK

17. ARTIKULUA

KREDITUEN TRANSFERENTZIEEN ARAUAK. BESTE ALDAKETA BATZUK

1.- 2013ko ekitaldian zehar, Euskadiko aurrekontu-erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu batekin (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zenak) arautuko ditu Euskal Autonomia Erkidegoko, bere erakunde autonomoetako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko partzuergoen aurrekontu orokorretako kreditu-transferentzien erregimena, ondorengo paragrafoetan adierazten diren berezitasunen kalterik gabe.

2.- 2013ko ekitaldian zehar, aurrekontuen arloan eskumena duen sailari ahalmena ematen zaio beharrezko diren aurrekontu-aldaketak baimentzeko, are beste programa batzuk sortuz ere, aurrekontu egitura ekitaldian zehar onartzen diren egiturazko eta eginkizunezko dekretuetatik ondorioztatzen den behin betiko antolaketa-konfiguraziora egokitzeko. Hiru hilean behin horrelako aldaketen kontu emango zaio Legebiltzarrari.

18. ARTIKULUA

AURREKONTUETAKO ALDAKETAK

USTIAPEN AURREKONTUA/PRESUPUESTO DE EXPLOTACION		121.688							
GASTUAK GASTOS	PERTSONAL-GASTUAK <i>GASTOS DE PERSONAL</i>	57.024							
	FUNTZIONAMENDU-GASTUAK <i>GASTOS DE FUNCIONAMIENTO</i>	64.603							
	GASTU FINANTZARIOAK <i>GASTOS FINANCIEROS</i>	60							
DIRU-SARRERAK INGRESOS	NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA <i>IMPORTE NETO DE LA CIFRA DE NEGOCIOS</i>	16.404							
	USTIAPENEN TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK <i>TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES DE EXPLOTACION</i>	105.134							
	SARRERA FINANTZARIOAK <i>INGRESOS FINANCIEROS</i>	150							



**EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN GASTUEN
LABURPENAK**

**RESÚMENES DE GASTOS DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR
PÚBLICO DE LA CAE**



ADMINISTRAZIO OROKORRA ETA ERAKUNDE
AUTONOMO ADMINISTRATIBOAK
ADMINISTRACION GENERAL Y ORGANISMOS
AUTONOMOS ADMINISTRATIVOS

ERAK. ETA KAPITULUEN ARABERAKO LABURP. - GASTUA
RESUMEN POR INSTITUCIÓN Y CAPÍTULO - GASTO

ORGANIKOA / ORGANICA

EKONOMIKOA / ECONOMICA

FUNTZIONALA / FUNCIONAL

MILA / MILES

ERAKUNDEA INSTITUCION		GUZTIRA TOTAL	KAPITULUAK CAPITULOS								
			1 Langile gastuak Gastos de personal	2 Funtzion. gastuak Gastos funciona.	3 Finantza gastuak Gastos financie.	4 Transf. arruntak Transfe. corrientes	6 Inbertsio errealak Inversio. reales	7 Kapital transf. Transfe. capital	8 F-aktiboen gehikuntza Aumento act.finan.	9 F-pasiboen gutxitzea Dism. pas. financier.	
5	EAEko SEKTORE PUBLIKOAREN PARTZUERGOAK CONSORCIOS DEL SECTOR PUBLICO DE LA CAE										
00250	Haurreskolak Partzuergoa Consortio Haurreskolak	55.211	53.217	1.369				625			
	GUZTIRA TOTAL	55.211	53.217	1.369				625			



**EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN DIRU-SARREREN
LABURPENAK**
**RESÚMENES DE INGRESOS DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR
PÚBLICO DE LA CAE**



ADMINISTRAZIO OROKORRA ETA ERAKUNDE
AUTONOMO ADMINISTRATIBOAK
ADMINISTRACION GENERAL Y ORGANISMOS
AUTONOMOS ADMINISTRATIVOS

ERAK. ETA KAPITULUEN ARABERAKO LABURP. - SARRERA
RESUMEN POR INSTITUCIÓN Y CAPÍTULO - INGRESO

ORGANIKOA / ORGANICA

EKONOMIKOA / ECONOMICA

FUNTZIONALA / FUNCIONAL

MILA / MILES

ERAKUNDEA INSTITUCION		GUZTIRA TOTAL	KAPITULUAK CAPITULOS							
			2 Zeharkako zergak Impuestos indirectos	3 Tasak eta salneur. Tasas, prec.públ.	4 Transf. arruntak Transfe. corrientes	5 Ondare sarrerak Ingresos patrimon.	6 Inb. err. besterentz Enaj.inver reales	7 Kapital transf. Transfe. capital	8 F-aktiboen gutxitzea Dism.acti. financie.	9 F-pasiboen gehikuntza Aumento de Pasi.Fin.
5	EAEko SEKTORE PUBLIKOAREN PARTZUERGOAK CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE									
00250	Haurreskolak Partzuergoa Consortio Haurreskolak	55.211		12.461	40.494					2.256
	GUZTIRA TOTAL	55.211		12.461	40.494					2.256



www.euskadi.net/presupuestos

2013

**EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOAREN
AURREKONTU
OROKORRAK**

PRESUPUESTOS
GENERALES
DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA
DE EUSKADI

TEMÁTICA GENERAL



GAI OROKORRAK

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

IV

MEMORIAS EXPLICATIVAS / AZALPEN MEMORIAK.

PROYECTO DE LEY POR EL QUE SE APRUEBAN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA
COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI, PARA EL EJERCICIO 2013.
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN
DITUENA LEGE PROIEKTUA.



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN 2013KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORREN LEGEARI BURUZKO MEMORIA

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren zatia diren aldetik, Autonomi Estatutuaren 44. artikuluan honakoa aipatzen dira: *“Eusko Jaurlaritzak prestatuta, orotariko herri-ekintzako diru-eskuraketak eta gastuak jaso behar dituzte, eta Eusko Legebiltzarrak ontzat eman behar ditu, berak ezarritako arauen arabera”*.

Aurrekontuak landu eta kudeatzeko prozedura, nolana ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaietako bat da, horrela xedatzen baita Euskal Autonomi Elkarteko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Bateratutako testuak, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 1. artikuluan onarturikoak.

Hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak, edo Euskadiko Aurrekontu Orokorrak, honela taxutzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei Legean: *“Euskal Autonomia Erkidegoak ekonomiako edo aurrekontuetako ekitaldi bakoitzean egin behar duen ekonomi jarduera programa baten bidez zuzenduta dago, eta programa hori osatzen duten erabakiak batu ondoren, adierazpide formala ematen zaie agiri bidez, bai finantzen aldetik, bai kontabilitatearen aldetik azalduta egoten dena. Adierazpide horiek dira, bada, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak”, eta, era berean, “Euskal Autonomia Erkidegoko baliabideak ondo administratzen diren kontrolatzeko tresna dira”*. Horrela, bada, Euskadiko Aurrekontu Orokorrak izaera eta autonomia berezkoak dituzte, diru-sarrerak eta irteeren esparru meharra alde batera utzita betiko.

Ikusmolde horren arabera, Autonomia Erkidegoa osatzen duten entitateetako aurrekontuak, hau da, diru-sarrerak eta irteerak jasotzen dituztenak, Euskadiko Aurrekontu Orokorraren barruan daude denak ere, baina horrek ez du esan nahi izaera bera dutenik. Euskadiko Aurrekontu Orokorra ez da, beraz, diru-sarreraren edo irteeren azalpen hutsa, horrez gain, bermeak eskaintzeko eta zorpetzeko mugak ere biltzen ditu, kontu horiek erkidegoko ekonomi jardueraren parte direlako berez, Euskadiko Ogasun Orokorraren Antolarauei buruzko Legeak halako izaera eman baitie.

Aurrekontu Orokorraren osaera zehaztu ondoren, bada, Zuzenbidearen arabera taxutzea egokitzen da, eta horretara dator, hasiera batean behintzat, Aurrekontu Orokorraren Legea. Lege horren lehenengo zeregina, beraz, aurrekontu orokorrak onestea da, hain zuzen ere.

Baina herrialdearen ekonomi egoera bera ikusirik, eta gizarte barruko ekonomi harremanak nolakoak diren kontuan hartuta, herri-aginteei, batzuetan, bestelako neurriak hartu behar izaten dituzte, nahiz aurrekontu orokorraren edukien gainean oraintsu zehaztu dugunarekin bat ez etorri. Badira, gainera, beste xedapen batzuk zenbait gai atzera aurrekontu orokorraren legeetara bidaltzen

MEMORIA EN RELACIÓN CON LA LEY DE PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2013

Los Presupuestos Generales de Euskadi, como parte integrante de la Hacienda General del País Vasco, son enunciados en el Estatuto de Autonomía al disponer en su artículo 44 que “contendrán los ingresos y gastos de la actividad pública general, y serán elaborados por el Gobierno Vasco y aprobados por el Parlamento Vasco de acuerdo con las normas que éste establezca”.

El procedimiento de elaboración y gestión presupuestaria, no obstante, tal y como dispone el artículo 1 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, constituye una de las materias propias de la Hacienda General del País Vasco.

En efecto, los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, o Presupuestos Generales de Euskadi, son configurados por dicha norma como “la expresión formal documental, en términos financieros y contables, del conjunto integrado de decisiones que constituyen el programa directivo de la actividad económica a realizar por la Comunidad Autónoma de Euskadi en cada ejercicio económico o presupuestario” y, a su vez, como “el instrumento de control de la correcta administración de los recursos de la Comunidad Autónoma de Euskadi”. De esta manera, los Presupuestos Generales de Euskadi adquieren dimensión y autonomía propia, desligándose definitivamente del estrecho marco de los estados de ingresos y de gastos.

De acuerdo con esta concepción, los presupuestos de las entidades que componen la Comunidad Autónoma, constitutivos de los correspondientes estados de ingresos y gastos, forman parte del contenido de los Presupuestos Generales de Euskadi pero sin que ello suponga una identidad de naturaleza entre éstos y aquéllos. Los Presupuestos Generales de Euskadi, como algo cualitativamente distinto de los meros estados de ingresos y gastos, integran en su seno, también, los límites de prestación de garantías y de endeudamiento, por constituir aspectos propios de la actividad económica de la Comunidad, en congruencia con la naturaleza que les atribuye a aquéllos la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Determinada así la configuración de los Presupuestos Generales, surge la necesidad de articularla con el mundo del Derecho, a cuya finalidad responde, en principio, la existencia de la Ley de Presupuestos Generales. Por tanto, el primer cometido de esta Ley es, precisamente, el de aprobar los Presupuestos Generales.

Sin embargo, la propia situación económica del país y la naturaleza de las relaciones económicas existentes en la sociedad, requieren a veces de la adopción de una serie de medidas por parte de los poderes públicos, que no encajan en el contenido de los Presupuestos Generales delimitado anteriormente. Además, existen multitud de disposiciones que reenvían a las Leyes de Presupuestos Generales la



dituztenak, edukiaren aldetik aurrekontu horietan egokitu ez arren; lege horiek, aldi baterako direla eta, eguneratze etenik gabea lortzeko tresna egokiak direlakoan, agian. Horregatik guztiagatik, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak beste eduki-mota bat eman die Euskadiko aurrekontu orokorren legeei, aurrekontu horien onespen hutsa baino haragokoa, eta, horrela, *“berez Euskadiko Ogasun Nagusiari dagozkion edo ogasun horrekin zerikusia daukaten beste gai batzuk ere arau ditzakete haraino zabaldua, esate baterako: langileen ordainsarien araubidea eta aurrekontu orokorren barruko kredituei dagozkien alokairu pasiboen araubidea; aurrekontu-araubidea eta aurrekontu horietako gastu publikoa exekutatzeko araubidea; berez autonomia-erkidegoarenak diren tributuen araubidea; eta zorpetzeko baldintzen araubidea”*. Eta aurreikuspen hori zabalik utzi beharra dago, beste xedapen batzuetatik zer igorriko kontuan izanda eta, batez ere, gizarte eta ekonomiaren esparruan ageri diren gorabehera guztiak –asko baitira– kontuan izanda. Era berean, aurrekontu orokorren legeen ezaugarri horiek kontuan izanda, arlo horiei buruzko arauak, haien barruan datozenek, eta Euskadiko aurrekontu orokorretako legeen barrukoak aldatzeko edo osatzeko legegintzazko arauak, denek ere, izaera eta araubide berbera edukiko dute, horien indarraldia, arrunta nahiz luzatua, edozein izanda ere.

Finean, Euskadiko Aurrekontu Orokorretarako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak eta Euskadiko Aurrekontu Orokorreko buruzko Legeak eratzten duten sistemak ez dauka izaera estatiko edo zurruna. Ostera, malgutasuna eta dinamikotasuna ditu bereizgarri, bere funtzionalitatearen ondorioz. Tresna konbinatu honek EAEko administrazio publikoaren barne-eremua gainditzen du eta politika ekonomikoko tresna ezin hobea da.

Printzipio horietatik abiatuta, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuak onartutako Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden Lege Xedapenen testu bateratuak aurrekontu orokorrak eta aurrekontu orokorreko buruzko legeak arautzea du xede, eta bereziki horien edukia, egitura, egiteko era, kudeaketa eta betearazpena, kitapena eta, hala badagokio, luzapen-erregimena. Eta dekretu honen xede izan daitezkeen beste arlo batzuk alde batera utzita, berezko eta espezializazio handiko aurrekontu-antolaketa bat lortzera jo da, kontuan izanik sistema demokratiko eta parlamentario baten oinarritzko printzipioak eta Ekonomi Itun bat izateak dakartzan finantza eta aurrekontuen berezitasunak oinarri dituen Euskal Autonomia Erkidegoaren egitura berezira egokituta, Autonomi Estatutuan agintzen denaren ondorioz Erkidegoaren aginpide eta/edo zerbitzuen mailan Estatuarekiko eta Lurralde Historikoekeko izan daitezkeen aldakuntzak aurreikusiz.

Esparru horretan kokatzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren 2013ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Legea, bere testu artikulatuan, funtsean, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurreko aurrekontu orokorren legeak ezarri zuten egite-era berari eusten diola. Testuaren egiturari

regulación de una serie de materias no comprendidas en el contenido de éstos, en la idea, quizá, de que dada la temporalidad de dichas Leyes, constituyen un instrumento adecuado para una actualización permanente. Por todo ello, la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco atribuye a las Leyes de Presupuestos Generales de Euskadi otro contenido, diferente al de la mera aprobación de los mismos, de manera que puedan “extender su objeto a la regulación de otra serie de cuestiones propias de la Hacienda General del País Vasco o relacionadas con ésta, tales como el régimen de las retribuciones del personal y de los haberes pasivos correspondientes a los créditos pertenecientes a los Presupuestos Generales, el régimen presupuestario y de ejecución del gasto público de los mismos, el régimen de los tributos propios de la Comunidad Autónoma, y el de las condiciones de endeudamiento”, lo que constituye una previsión abierta en consonancia con las remisiones de otras disposiciones y, sobre todo, con las múltiples circunstancias concurrentes en el campo socio-económico. Asimismo, en consonancia con tal configuración de las Leyes de Presupuestos Generales, las normas referentes a dichas materias, contenidas en aquéllas, así como las normas legislativas de modificación o complemento de las contenidas en las Leyes de Presupuestos Generales de Euskadi, con independencia de cual sea el período de vigencia, ordinario o prorrogado, en que incidan, tienen la misma naturaleza y régimen que éstas.

En definitiva, el sistema configurado por la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco para los Presupuestos Generales de Euskadi y las Leyes de Presupuestos Generales de Euskadi escapa a cualquier configuración encorsetada y estática, para disponer de la flexibilidad y dinamicidad como características propias determinadas de su funcionalidad, constituyendo un instrumento combinado que trasciende el ámbito interno de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma para convertirse en una herramienta idónea de política económica.

Partiendo de tales principios, el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, tiene por objeto establecer una regulación propia de los Presupuestos Generales y de las Leyes de Presupuestos Generales, del contenido, estructura, procedimiento de elaboración, gestión y ejecución, liquidación y, en su caso, régimen de prórroga, de los mismos, una regulación que, al margen de la de otras materias que pueden constituir su objeto, persigue la consecución de un aparato presupuestario propio y altamente especializado, teniendo en cuenta los principios informantes de un sistema democrático y parlamentario, y que se ajusta tanto a la especial configuración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, basada en las peculiaridades de carácter financiero y presupuestario que supone la existencia del Concierto Económico, como a la previsión de modificaciones en el nivel de competencias y/o servicios de la Comunidad en relación con el Estado y con los Territorios Históricos como consecuencia de lo dispuesto en el Estatuto de Autonomía.

En este marco se encuadra la Ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2013, cuyo texto articulado sigue básicamente la sistemática, instaurada por las anteriores Leyes de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma y



dagokionez, bost tituluk, 33 artikuluk, hamaika xedapen gehigarrik, bi xedapen indargabetzailek, lau azken xedapenek eta lau eranskinek osatzen dute legearen testua.

I. titulua hamar artikuluk osatzen dute, eta Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzeko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak, Jaurlaritzaren politika ekonomikoa taxutzen duen "erabaki bateratuen multzoaren" eskemaren barrutik, aurrekontu-baterakuntza zehazteko ezartzen duen irizpidearen gauzatze zehatza izan nahi du. Laburbilduta, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak (Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatzeko aurrekontu-araubidea arautzen duenak) agintzen duenaren indarren, Euskadiko aurrekontu orokorrak, hain zuzen ere, Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde bakoitzaren aurrekontuen multzoa dira. Horrela, lege-aurreproiektuak 2012rako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onestea xedatzen du (legearen 1. artikulua). Hau da, honako hauen diru-sarreraren eta gastuen egoerak onesten dira: administrazio orokorrarenak (2. artikulua), erakunde autonomoenak (3. artikulua), zuzenbide pribatuko erakunde publikoen zuzkidurenak (4. artikulua), Sozietate Publikoenak (5. artikulua), Fundazioenak (6. artikulua) eta Haurreskolak Partzuergoarenak (7. kapitulua), Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarenak. Fundazioetarako aurrekusi den araubidea berdin-berdina da gaur egun sozietate publikoetarako aurreikusten den araubidearekin, eta partzuergoetarako araubidea ere, erakunde autonomoei aplikatzen zaien bera da. Titulu hori I. eranskinak emandako informazioarekin osatzen da (2013ren ondorengoak izango direnentzat etorkizuneko konpromiso-kredituak), baita II. eranskinak emandakoarekin ere (sozietate publikoen ustiapen- eta -kapital-aurrekontuetan balioetsitako diru-hornidura eta balia bideak).

Ekitaldi honetan iaz abiarazitako irizpide bati eutsi zaio, hau da, erakunde mota beraren aurrekontuak artikulua bakar batean taldekatzea, argitasun eta zehaztasun handiagoa lortze aldera.

Berritasun moduan, ekitaldi honetan Lehiaren Euskal Agintaritza erakunde autonomoaren aurrekontuen onarpena sartu da 3. artikulua barruan.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoak Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitateari esleitutako aurrekontu-zuzkidura ere sartu da (2.3 artikuluan), otsailaren 25eko Euskal Unibertsitate Sistemaren 3/2004 Legearen arabera osatuta.

Bermeak ematearen eta birfinkatzearen alorrean, 9.1 artikulua 400.000.000 eurotan ezartzen du autonomia-erkidegoko administrazioak edo, hala badagokio, Euskal Finantza Erakundeak, bermeak emateko muga.

Halaber, Jaurlaritzak euskal enpresen alde aurrera daraman politikaren barruan, aurreikusten da gaikuntza ematea bai Administrazioari, bai Finantzen Euskal Institutuari, elkarren bermerako sozietateek emandako abalak indartzeko eta Luzaro KFE sozietateak emandako maileguak bermatzeko; euskal enpresak finantzatzen edo

consta de cinco títulos, 33 artículos, once disposiciones adicionales, dos disposiciones derogatorias, cuatro disposiciones finales y cuatro anexos que lo complementan.

El Título I, integrado por diez artículos, pretende ser el fiel reflejo de lo que el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, establece como criterio definitorio de la integración presupuestaria, en su esquema de "conjunto integrado de decisiones" que configura la política económica del Gobierno. En resumen, en virtud del Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por la que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, los presupuestos generales de Euskadi están integrados por los correspondientes a cada una de las entidades que componen el sector público de la Comunidad Autónoma. Así el anteproyecto dispone la aprobación de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2012 (artículo 1 de la Ley), es decir, de los estados de ingresos y gastos de la Administración General (artículo 2), de los Organismos Autónomos (artículo 3), de las dotaciones de los entes públicos de derecho privado (artículo 4), de las sociedades públicas (artículo 5), de las Fundaciones (artículo 6) y del Consorcio Haurreskolak (artículo 7), del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La regulación prevista para las Fundaciones es idéntica a la vigente para las Sociedades Públicas y la correspondiente a los Consorcios es la misma que la aplicable a los Organismos Autónomos. Este Título se completa con la información facilitada por el Anexo I (créditos de compromiso para ejercicios posteriores al 2013) y el Anexo II (dotaciones y recursos estimados en los presupuestos de explotación y capital de las sociedades públicas).

En el presente ejercicio se mantiene el criterio introducido el pasado año de agrupar en un único artículo los presupuestos de un mismo tipo de entidad, a efectos de una mayor claridad y concisión.

Como novedad en este ejercicio se incluye dentro del artículo 3 la aprobación de los presupuestos del organismo autónomo Autoridad Vasca de la Competencia.

Asimismo, se incluye la dotación presupuestaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco a la Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea (artículo 2.3), conformada de acuerdo con la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco.

En materia de prestación de garantías y reafianzamiento, el artículo 9.1 fija en un importe de 400.000.000 euros el límite para la prestación de garantías por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma o, en su caso, del Instituto Vasco de Finanzas.

Asimismo, en el contexto de la política del Gobierno de apoyo a las empresas vascas, se contempla la habilitación tanto a la Administración como al Instituto Vasco de Finanzas para el reafianzamiento de los avales otorgados por sociedades de garantía recíproca, así como para garantizar los préstamos concedidos por Luzaro E.F.C., en



funts propioak lortzen laguntze aldera erakunde horiekin izenpetuko ditugun lankidetzak-hitzarmenen barruan (9.2 artikulua). Ekitaldi honetan, indartzeko eragiketen bitartez enpresaburu indibidualei, autonomoei eta ETEei zuzendutako urte anitzeko finantzaketa-lerroak estaltzeko aukera izango da, betiere zirkulatzaila-premietarako, epe motzera zorra berritzeko, zorra egokitzeko eta bestelako jardunetarako baldin bada, eta gehienez ere 600.000.000 euro bideratu dira 9.2 artikuluan aurreikusitako birfinkatze horretarako.

Epe luzeko zorpetzeari dagokionez (10. artikulua), 2013ko ekitaldirako aurreko ekitaldietarako baino bolumen txikiagoa aurreikusi da, ekitaldi honetarako defizitaren helburua BPGaren % 0,7 ezarri izanaren ondorioz.

II. titulua, "Gastuen egoera-orria" izeneko titulu honek 16 artikulua ditu, lau kapitulutan banatuta ("Kreditu-motak. Berezitasunak", "Aurrekontuen aldaketak", "Lansarien eta hartzeko pasiboen arauak" eta "Itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko ekonomia-modulua"). Euskadiko Diruegitamuen Jaurpideei buruzko abenduaren 20ko 31/1983 Legeak aurrekontuak antolatzeko modua ezarri zuen, eta, ondoren, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginak (irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuaren bidez onartu zen) berretsi egin zuen, eta, hemen, II. titulua jarraitu egiten dio modu horri.

Lehenengo kapituluak (11 – 16 artikulua) ordainketa-kredituei buruzko zenbait berezitasun jasotzen du Horrela, bada, 11. artikulua, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bategineko 24.1.b) artikuluaekin bat (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuaren bidez onartu zenak) kreditu handigarritzat jotzen ditu legearen III. eranskinean zehazten diren kredituak, eta hor adierazten da kreditu horiek handitu ahal izango direla, aurreko ekitaldietako eskema berbera erabiliz, betiere nahitaez aitortu beharreko obligazioen zenbatekoraino. Kapitulu honetan ezartzen da zein diren zabalkuntza hori egiteko behar diren finantza-baliabideak.

Horrez gain, aurreikusita dago Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak onetsitako finantza-laguntza emateko planak eta programak betetzetik eratorritako finantzazio-beharrak diruzaintzako gerakinen kontura gauzatu ahal izango direla.

12. artikulua, konpromiso-kredituen gain, gaitasuna ematen dio Ogasun eta Finantza Sailari, aurreko urteetan sorturiko hainbat konpromiso-kredituen zenbatekoa egokitzeko, eta hauek dira, hain zuzen ere, aipatutako konpromiso-kredituak: lankidetzak-hitzarmenen ondorioz sorturikoak; edo finantza-eragiketen eraketarekin zerikusia duten kontratuen ondoriozkoak; edo urteko zenbatekoa korritu-tasen edo antzeko adierazleen gorabeheren mende duten arriskuak estaltzearekin zerikusia dutenak.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta bertako erakunde autonomoetako behin-behineko langileen, funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen aurrekontu-plantillak onartzen dira (13.1. artikulua), aurrekontuetako "*Langileei buruzko eranskinean*" jasota, Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legean aurreikusitakoaren arabera.

Ildo horretan, aipatzeko da Euskal Autonomia

el marco de los convenios de colaboración que se suscriban con las referidas entidades, al objeto de facilitar la consecución de fondos propios o la financiación de las empresas vascas (artículo 9.2). En el presente ejercicio se posibilita que las operaciones de reafianzamiento puedan dar también cobertura financiera a líneas plurianuales de financiación a empresarios individuales, autónomos y PYMES para atender necesidades de circulante, renovación de deuda a corto plazo, adecuación de la deuda, así como otras actuaciones, y se establece una dotación máxima de 600.000.000 euros para el reafianzamiento previsto en este artículo 9.2.

En relación con el endeudamiento a largo plazo (artículo 10), se contempla para el ejercicio 2013 un volumen inferior al de ejercicios precedentes como consecuencia de haber considerado como objetivo de déficit para este ejercicio el 0,7 % del PIB.

El Título II, denominado genéricamente "El Estado de Gastos", agrupa 16 artículos en cuatro Capítulos que bajo los epígrafes de "Tipos de créditos. Especialidades", "Régimen de los créditos. Modificaciones", "Régimen de Retribuciones y Haberes Pasivos" y "Módulo económico de sostenimiento de los centros educativos concertados", sigue en su ordenación la sistemática instaurada por la Ley 31/1983, de 20 de diciembre, de Régimen Presupuestario de Euskadi, y confirmada por el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo.

El Capítulo Primero (artículos 11 a 16) contiene ciertas especialidades relativas a diferentes créditos de pago. Así, el artículo 11, de conformidad con el artículo 24.1.b) del texto refundido de las disposiciones legales vigentes Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, procede a la calificación de ampliables, hasta una suma igual a las obligaciones cuyo reconocimiento sea preceptivo, a los créditos que se detallan en el Anexo III de la Ley, siguiendo el esquema de los ejercicios anteriores, y a establecer los medios de financiación para llevar a cabo dicha ampliación.

Asimismo, se incluye la previsión de que las necesidades de financiación derivadas de la ejecución de planes y programas de apoyo financiero, aprobados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, podrán llevarse a cabo por el Consejo de Gobierno con cargo a remanentes de tesorería.

El artículo 12, en relación con los créditos de compromiso, faculta al Departamento de Hacienda y Finanzas para adecuar el importe de los créditos de compromiso generados en ejercicios anteriores en virtud de los convenios de colaboración o contratos relacionados con la instrumentación de operaciones financieras o de cobertura de riesgos cuyo importe anual esté en función de la evolución de los tipos de interés o de otros indicadores similares.

Asimismo, se procede a la aprobación de las plantillas presupuestarias del personal eventual, funcionario y laboral de la Administración de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos (artículo 13.1), que se relacionan en el "Anexo de personal" a los presupuestos, de conformidad con lo previsto en la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.

Destaca, en este sentido, la consideración del carácter



Erkidegoaren eta bere administrazio-erakunde autonomoen aurrekontu-plantillak duen izaera mugatzailea, halako izaera ematen baitio Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginaren (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuaren bidez onartu zen) 22. artikulua. Eta mugakizun hori, hain zuzen ere, aipatutako erakundeen funtzionario, behin betiko eta aldi baterako lan-kontratuko langileen lanpostuen kopuru osoari dagokio (13.2 artikulua).

Nolanahi ere, langileria-gastuetako zuzkidurek hazkunderik izan behar ez dutelako irizpide nagusia baztertu gabe, 13,4. artikuluan hortxe diraute eskumenak transferitzearen, organo eta zerbitzu berriak sortzearen, kanporatutako eta azpikontrataturiko zerbitzuen kudeaketa zuzena egitearen, lege-mailako arauak aldarrikatzearen edo Gobernuak koiunturakoak ez diren plan, programa eta jarduerak esanguratsuak onartzearen ondorioz lanpostu zerrendetan eratortzen diren aldaketek.

13. artikulua azken aurreikuspen bat aurreikusten du 6. paragrafoan, eta aipatzen du Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko, sozietate publiko, fundazio eta partzuergoen inguruan ere irizpide berak aplikatuko direla eta langile-zuzkiduretan 2012ko abenduaren 31n indarrean dauden zuzkiduren gaintik egiten den edozein aldaketa irizpide horiekin bat etorritik baimendu beharko da.

14. eta 15. artikulua, berriz, honi buruzkoak dira: izaera mugatzaile eta loteslea kapituluaren mailan, sekzio eta programa bakoitzerako, I. kapituluari dagozkion aurrekontuko gastu-egoeretan sartutako ordainketa-kredituetan, eta loteslea, kapituluaren, sekzioaren eta programaren mailan, II. kapituluaren (funtzionamendugastuak). Ez dira beharrezkoak kapituluak baino maila baxuagoko kreditu-transferentziak.

Aurreko ekitaldietan bezala, kapital-eragiketarako eta eragiketa arruntetarako diru-laguntzei eta transferentziei (16. artikulua) dagokienez, handitu edo murriztu egiten dira, ekitaldi honetarako bakarrik, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruzko indarreko lege-xedapenen testu bateginaren (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuaren bidez onartu zen) 66.3 artikuluan ezartzen diren mugak, eta hantze edo murrizte hori, oro har zein programa jakin batzuetarako egingo da. Jokabide hori aurrekontu-kudeaketa errazteko hartu da.

Titulu honetako bigarren kapituluak (17.etik 18.erainoko artikulua) kredituen erregimenaren aldaketa eta horien 2013. urteko berezitasunak artikulatzen ditu. Kredituen transferentzien arloan, 17. artikulua maiazaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak ezarritako araudi orokorrera igortzen gaitu, hori bai, hortik kanpo utzita ekitaldi osoan onartzen diren egiturazko eta eginkizunezko dekretuen ondoriozko behin betiko antolamendu-osaeraren arabera aurrekontu-egitura aldatzeko beharra dela-eta egin beharreko aurrekontu-aldaketak.

Era berean, sozietate edo baltzu publikoen aurrekontua aldatzeko malgutasunak bere horretan iraungo du, betiere baltzu publikoa eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen aurrekontuaren aldaketak badira (18. artikulua).

Hirugarren kapituluak (19.etik 25.erainoko artikulua) lansarien eta hartzeko pasiboen erregimenari buruzkoa da.

limitativo de la plantilla presupuestaria de la Administración de la Comunidad Autónoma y de los Organismos Autónomos administrativos, dispuesto por el artículo 22 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, como referido al total agregado de plazas de personal funcionario, personal laboral fijo y personal eventual y para el conjunto de dichas entidades (artículo 13.2).

No obstante, sin perjuicio de mantener como criterio general el crecimiento cero de las dotaciones para gastos de personal el artículo 13.4 contempla, como excepción, aquellas modificaciones en las relaciones de puestos de trabajo derivadas de la efectiva realización de trasposos de competencias, la creación de nuevos órganos y servicios, la asunción de la gestión directa de servicios externalizados o subcontratados, la promulgación de normas con rango de ley o la aprobación por el Gobierno de planes, programas y actuaciones significativas de carácter no coyuntural.

El artículo 13 incluye una previsión final en su párrafo 6 para señalar que en relación a los Entes Públicos de Derecho Privado, Sociedades Públicas, Fundaciones y Consorcios se aplicarán los mismos criterios y que cualquier modificación de las dotaciones de personal por encima de las existentes a 31 de diciembre de 2012 deberá ser autorizada, de conformidad a dichos criterios.

Los artículos 14 y 15 se refieren al carácter limitativo y vinculante a nivel de capítulo para cada sección y concepto de los créditos de pago incluidos en los estados de gastos de los Presupuestos correspondientes al Capítulo I y vinculante a nivel de capítulo, para cada sección y programa, al Capítulo II, gastos de funcionamiento. No siendo necesarias transferencias de créditos a nivel inferior a capítulo.

Al igual que en anteriores ejercicios, en lo que respecta a los créditos para transferencias y subvenciones para operaciones corrientes y de capital (artículo 16), se aumentan o restringen, con vigencia exclusiva para este ejercicio, las limitaciones que se establecen en el artículo 66.3 del texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por el Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, ya sea de manera genérica o para determinados programas, todo ello con el ánimo de facilitar la gestión presupuestaria.

El Capítulo Segundo (artículos 17 a 18) de este título articula el régimen de modificaciones de crédito y sus especialidades para el año 2013. En relación con el régimen de transferencias, el artículo 17 se remite a la regulación genérica del Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, salvo en las modificaciones presupuestarias que puedan derivarse de la necesidad de adaptar la estructura presupuestaria a la definitiva configuración organizativa resultante de los decretos de estructura y funciones que se aprueben a lo largo del ejercicio,

Asimismo, se conserva la flexibilización presupuestaria cuando se trate de variaciones de presupuestos de los Entes Públicos de derecho privado, de las Sociedades Públicas y de las Fundaciones del Sector Público de la Comunidad Autónoma (artículo 18).

El Capítulo Tercero (artículos 19 a 25) se ocupa del régimen de retribuciones y haberes pasivos y al igual que



Aurreko urteetan bezalaxe, funtzionarioen (19.9 artikulua) nahiz Euskal Herriko Poliziaren langileen (21.1 artikulua) destino-osagarria ere jasotzen du kapitulu honek.

Lansari horiek, oro har, ezingo dira inondik ere igo 2012. urteko lansarien aldean.

Era berean, lan-araubideari atxikita ez dauden langileek jaso beharreko oinarrizko lansariak jasotzen dira (19.7. artikulua), eta oinarrizko lansari horien egokitasuna, orain arte Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 43. artikuluan aurreikusitako titulazioko taldeei eta azpitaldeei erreferentzia egiten dietenena, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 2ko 7/2007 Legeko 76. artikuluan eta hirugarren xedapen iragankorrean ezarritako lanbide-sailkapeneko taldeetara doitzen da. Sailkapeneko bi sistema horien arteko baliokidetzak ere jasotzen dira (19.8 artikulua).

Beste aukera bat ere jaso dugu (19.4 artikulua): dela lanpostuaren edukia aldatu egin delako, dela programa bakoitzari atxikitako langile-kopurua aldatu egin delako edo dela programa bakoitzari jarritako helburuen betetze-mailarengatik, derrigorrezkoa bada, baliteke ordainsari osagarriak aldatu behar izatea, baina kasu berezietan eta salbuespen modura.

Azkenik, 19.11 artikulua ezartzen du etenda geratzen dela 2013ko ekitaldirako lansari-gehikuntzarik dakarren zernahi akordio, hitzarmen edo itunen aplikagarritasuna, hau da, haien aplikaziotik lansari-gehikuntzak ondorioztatzen dituenik. Zehaztu da etendura horrek Autonomia Erkidegoko sektore publikoari dagozkion erakunde guztietako enplegatu guztiei eragiten diela, eta, era berean, aplikazioan etenda geratuko direla, honako gai hauek: borondatez erretiratzegatik primak arautzen dituzten artikulua eta klausulak, eta adinagatik orduak hartzeko ematen ziren baimenak, haiek lanaldia aldatu baina soldatetan murrizketarik ekartzen ez duten kasuetan. Bukatzeko, Gobernuari baimena ematen zaio gaixotasun arruntak eragindako aldi baterako ezintasun-egoeretan borondatezko hobekuntzako kontzeptupean osagarriak ordaintzeko baldintzak erregelamendu bidez arautzeko.

Era berean, 20. artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek gizarte-aurreikuspeneko sistemei eragindako ekarpenen murrizketa ezartzen du.

Bestalde, gobernuko kideen, goi-kardugunen, behin behineko langile berdinetsitakoak, eta sozietate publiko eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako zuzendaritza-langileen lansariak ez dute inolako gehikuntzarik izango, 2012n indarrean dauden lansarien aldean, (19. eta 23. artikuluetako 12. eta 1. paragrafoak, hurrenez hurren).

Aurreko ekitaldietan bezala, taula bat erantsi da, eta hor goi-kargudunen lansarien urteko zenbateko gordina agertzen da.

22. artikulua, berriz, honetara mugatzen da: lan-baldintzen akordioak eta hitzarmen kolektiboak izenpetzeko eskakizun jakin batzuk ezartzera, eta, bereziki, horiek izenpetu aurretik, Ogasun eta Finantza Sailaren, eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren aldeko txostenaren nahitaezkotasuna ezartzera. Eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sozietate publikoak,

en años anteriores, se incluye la cuantía anual del complemento de destino tanto del personal funcionario (artículo 19.9) como del personal de la Policía del País Vasco (artículo 21.1).

Con carácter general se establece que dichas retribuciones no podrán experimentar ningún incremento con respecto a las establecidas en el ejercicio 2012.

Asimismo, se incluyen también las retribuciones básicas del personal no sujeto a régimen laboral (artículo 19.7), acomodando la correspondencia de dichas retribuciones básicas, hasta ahora referenciadas a los grupos y subgrupos de titulación previstos en el artículo 43 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, a los grupos de clasificación profesional establecidos en el artículo 76 y disposición transitoria tercera de la Ley 7/2007, de 2 de abril, del Estatuto Básico del Empleado Público, de forma que se recogen las equivalencias entre ambos sistemas de clasificación (artículo 19.8).

De igual modo, se reserva (artículo 19.4) la posible adecuación en las retribuciones complementarias que con carácter singular y excepcional resulten imprescindibles por una modificación en el contenido del puesto de trabajo, por la variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados al mismo.

Por último, el artículo 19.11 establece la suspensión de la aplicabilidad de cualesquiera acuerdos, convenios o pactos de los empleados públicos de los que puedan derivarse incrementos retributivos para el ejercicio 2013. Se precisa que tal suspensión afectará a los empleados públicos de todas las entidades pertenecientes al sector público de la Comunidad Autónoma y que, así mismo, quedarán suspendidos en su aplicación los artículos y cláusulas en los que se regulen las primas por jubilación voluntaria y los permisos horarios que por razón de la edad den derecho a modificaciones de jornada sin disminución de retribuciones. Por último, se autoriza al Gobierno para regular reglamentariamente las condiciones de abono de los complementos en concepto de mejora voluntaria en situaciones de incapacidad temporal por enfermedad común.

Igualmente se prevé en el artículo 20 una reducción de las aportaciones realizadas a sistemas de previsión social por las entidades pertenecientes al sector público de la Comunidad Autónoma.

Por su parte, las retribuciones de los miembros del gobierno, altos cargos, personal eventual asimilado y personal directivo de los Entes Públicos de derecho privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del sector público de la Comunidad Autónoma no experimentarán tampoco incremento alguno en relación con las vigentes en 2012 (párrafos 12 y 1 de los artículos 19 y 23, respectivamente).

Al igual que en el ejercicio anterior se ha introducido una tabla en la que consta la cuantía bruta anual de las retribuciones de los altos cargos.

El artículo 22, por su parte, se limita a establecer determinados requisitos para la firma de acuerdos de condiciones de trabajo y convenios colectivos en particular, la preceptividad, con carácter previo a su firma, del informe favorable de los Departamentos de Hacienda y Finanzas y de Administración Pública y Justicia y cuando se refieran al personal dependiente de Entes Públicos de derecho



fundazioen edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoen mendeko langileen kasuan, erakunde bakoitzeko gobernu-eta administrazio-organismoek sinatu aurretik, nahitaezkoa izango da, era berean, aipatutako sailen aldeko txostena. Horren ondorioz, erabat deusezak dira txostenaren izapidea egin gabe edo aurkako txosten baten kontra hartzen diren akordioak, bai eta hurrengo ekitaldietarako soldata-gehikuntzak dakartzaten itunak ere, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren etorkizuneko legeek finkatzen dutenaren kontrakoak badira.

III. kapituluan jasotzen den lansari-erregimenari buruzko araudiaren aplikazioa ahalbidetze aldera, Administrazio Orokorrak, erakunde autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek sindikatu-antolakundeekin izenpetu dituzten akordio guztien ahalgabetze partziala zehazten du 25. artikulua.

Títulu honen laugarren kapitulua (26. artikulua) IV. eranskinak osatzen du, eta, Heziketari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat, itunpeko ikastetxeen modulu ekonomikoa ezartzen du; izan ere, lege organiko horrek Aurrekontu Orokorren urteko legeetara igortzen gaitu.

III. tituluak diru-sarreraren egoerarekin zerikusia duten xedapenak biltzen ditu. Horrela, azaroaren 25eko "Autonomia-Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundearen Arteko Harremani" buruzko 27/1983 Legearekin eta martxoaren 23ko 2/2007 Legearen bidez onartutako metodologiarekin bat, 27. artikuluan foru-aldundiek 2013. urterako egin beharreko ekarpenak zehazten dira, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak onartutakoak. Ondoren, 28. artikuluan, lurralde historiko bakoitzeko ekarpen-koefizienteak jasotzen dira, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluak onartuak horiek ere, aipatutako metodologia arabera.

Bestalde, II. kapituluak, zerga-izaerako arauak buruzkoak, 29. artikuluan, Euskadiko Ogasun Nagusiaren tasei dagokienez, 2012ko ekitaldian indarrean dagoen zenbatekoa %1,027 gehitzea xedatzen du.

Aurreko urteetako antzeko egite-moduari segida emanez, diru-sarrera eta gastuen egoerak baino jorratzen ez dituen kapituluaren ondotik, 2013. urteko Aurrekontu Orokorren Legearen IV. tituluak, 30. eta 31. artikuluetan, kontratazioa eta gastua baimentzeko arauak erregulatzen ditu eta baimena zein zenbatekotarako behar den zehazten du.

Amaitzeko, V. tituluak (32. eta 33. artikuluek, alegia) Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari bere ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruz zein informazio igorri behar dizkion zehazten du.

Amaiera aldean, legeak hamaika xedapen gehigarri dauzka. Xedapen horiek, egituratu gabe, zenbait espezialitate ezartzen dituzte aurrekontua betearazteko araubide orokorrari buruz; beste arau batzuek Aurrekontu Orokoretako Legearen gain utzitakoak osatzen dituzte, jarduketa jakin batzuk baimentzen dituzte edo bazterreko kontuak arautzen dituzte.

Lehenengo xedapen gehigarriak, aurreko ekitaldietan egin

privado, Sociedades Públicas o Fundaciones del sector Público de la Comunidad Autónoma, requerirán, con carácter previo a su firma por parte de los órganos de gobierno y administración competentes de cada entidad el informe favorable de los citados departamentos. Se considerarán nulos de pleno derecho los acuerdos adoptados en esta materia con omisión del trámite de informe o en contra de un informe desfavorable, así como los pactos que impliquen crecimientos salariales para ejercicios sucesivos contrarios a los que determinen las futuras Leyes de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En aras a posibilitar la aplicación de la normativa referente al régimen de retribuciones contemplado en el Capítulo III, el artículo 25 determina la suspensión parcial de todos los acuerdos firmados entre la Administración General, Organismos Autónomos, Entes Públicos de derecho privado, Sociedades Públicas y Fundaciones y Consorcios del sector público de la Comunidad Autónoma con las organizaciones sindicales.

El Capítulo Cuarto de este Título (artículo 26), completado por el Anexo IV, establece el módulo económico de los centros educativos concertados, de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, por cuanto la misma remite a las leyes anuales de Presupuestos Generales.

El Título III integra las disposiciones relacionadas con el estado de ingresos. Así, en concordancia con la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, y la metodología aprobada por la Ley 2/2007, de 23 de marzo, en el artículo 27 se consignan las aportaciones de las Diputaciones Forales para el ejercicio 2013, aprobadas por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas. A continuación, en el artículo 28, se recogen los coeficientes de aportación de cada territorio histórico, también aprobados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas de conformidad con la referida metodología.

Por su parte, el Capítulo II, relativo a normas de carácter tributario, procede, en el artículo 29, y en relación a las tasas de la Hacienda General del País Vasco, al incremento de un 1,027 % respecto a la cuantía exigible en el año 2012.

Siguiendo una sistemática similar a años anteriores, tras los capítulos de índole netamente presupuestaria referentes a los estados de ingresos y de gastos, el Título IV de la Ley de Presupuestos Generales para el ejercicio 2013 regula en sus artículos 30 y 31 las normas de autorización del gasto y de contratación, determinando los importes para los que se precisa autorización.

El Título V (artículos 32 y 33), por último, engloba las informaciones que el Gobierno deberá ir enviando al Parlamento Vasco como consecuencia de su gestión económico-presupuestaria.

En su parte final, la Ley contempla once Disposiciones Adicionales que, de una manera no estructurada, establecen determinadas especialidades respecto al régimen general de ejecución presupuestaria, cumplimentan la remisión que a la Ley de Presupuestos Generales efectúan otras normas, autorizan determinadas actuaciones o regulan aspectos marginales.

La Disposición Adicional Primera, en términos similares a



den antzera, alde batetik, etxebizitza-arloko finantza-eragiketen zenbatekorik handiena ezartzen du, 2013ko ekitaldian formaliza litzakeen deskontu-lineez baliatuz. Eta, bestalde, baimena ematen dio Ogasun eta Finantza Sailari etxegintza- eta lurzoru-gaietako finantza-itunetatik eratorritako ordainketa-obligazioak birmoldatzeko edota segurtatzeko finantza-eragiketak hitzartzeko, betiere Jaurlaritzaren Kontseiluak ezarritako eran.

Bigarren xedapen gehigarriak sektore industrialak, ikus-entzunezkoak sortzeko enpresak eta ikerlan, garapen eta berrikuntzarako egitasmoak sustatzeko hainbat neurri jasotzen ditu. Hainbat mailegu eta aurrerakin itzulgarri dira neurri lagungarri horiek, eta dagozkion programak erregulatzeko arauetan jartzen duena aintzat hartuta, finantzaketa izango dute, baina dakarten kostuari eta aurreikusitako arriskuari dagokienez baino ez. Bi xedapenotan kontuan izan dira Finantzen Euskal Institutuari agindutako eginkizunak.

Hirugarren Xedapen Gehigarrian biltzen denez, Gobernuari baimena ematen zaio aurreikusi gabe zituen eta helburu estrategikoa jada beteta duten industria-arloko sozietateetan dituen partaidetzen besterentzearen bidez lortu dituen diru-sarrerak eta finantza-baliabideak eragiketa-finantzetara bideratzeko; eragiketa horiek Finantzen Euskal Institutuarean bitartez gauza daitezke.

Laugarren xedapen gehigarriak honako hau aurreikusten du: herri-onurako aitortzea Euskal Autonomia Erkidegoak, inbertsioetarako kredituen kontura finantzatuta, irriariaren, telebistaren eta, oro har, gizarte-komunikabideen arloan eta babes zibileko eta segurtasun zibileko zerbitzuen arloan dituen eskumenez baliatzeko onartzen diren azpiegituretako proiektuak.

Bosgarren Xedapen Gehigarrian administrazio-kontratuak aldatzeko aukera aurreikusten da, interes publikoko arrazoiengatik eta aipatzen da interes hori egongo dela aldaketak aurrekontu-egonkortasuna lortzeko asmoz egiten direnean. Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 219. artikuluan aurreikusitako ahalaren babespean txertatu da aukera hori eta, horren arabera, Administrazioak ez du egiaztatu beharrik interes publikoaren legezko betekizuna betetzen duela, baina horrek ez du esan nahi aplikatzeko garaian lege horren 105. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa bete behar ez denik.

“1.- Durante el ejercicio económico 2013, la Administración de la Comunidad Autónoma o, en su caso, el Instituto Vasco de Finanzas podrán prestar garantías por razón de operaciones de cualquier naturaleza por un importe máximo de 400.000.000 de euros.”

-Se ha modificado la Disposición Final Segunda 1, a fin de dar nueva redacción al art. 6.4 de la Ley 14/1994 introduciendo la aclaración “en los términos que se establecen en el párrafo 1 de este artículo”. La redacción queda como sigue:

“4.- Las demás entidades del sector público de la Comunidad Autónoma que formen parte de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en los términos en que se establecen en el párrafo 1 de este artículo, estarán sujetas al régimen de contabilidad pública o al régimen de contabilidad empresarial según se rijan preferentemente por derecho público o privado respectivamente, salvo que su norma de creación establezca un régimen específico aplicable. ”

Igualmente, en el sentido que sugiere el Informe, se ha sustituido la referencia de la Disposición Final Segunda 2 al “párrafo primero del artículo 17”, por al “párrafo 1 del artículo 17”

Firmantes del documento electrónico

Nombre	Departamento	Cargo	Fecha de la firma	Estado
ANE URKIOLA ALUSTIZA	HACIENDA Y FINANZAS	DIRECTOR/A	12/03/2013 10:11:40	Firmado

Zerbitzu Zuzendaria/Directora de Servicios

Ane Urkiola Alustiza



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGITEARI BURUZKO MEMORIA

Ogasun eta Finantzetako sailburuaren 2013ko otsailaren 6ko Agindu bidez erabaki da Euskal Autonomia Erkidegoko 2013. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea.

Agindu horren bitartez egiten hasi den Lege Aurreproiektuaren helburu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoko 2013ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzea da, aurrekontu-luzapeneko egoera amaituta; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legearen indarraldia luzatu denez, aurrekontuak ere luzatu egin baitira. Horretarako, hasierako aginduaren bitartez lege-aurreproiektuak bete beharko duen lege-esparrua adierazi behar da. Edukiei dagokienez, azpimarratzekoak dira, garrantzi handikoak baitira, diru-sarreraren aurreikuspena eta 2013ko ekitaldian egin daitezkeen gastuen baimena, izan ere, gutxieneko, ezinbesteko eta xedaezinezko edukia osatzen dute. Era berean, diru-sarreraren aurreikuspenekin, gastuen gaikuntzarekin edo politika ekonomikoko irizpideekin zerikusi zuzena duten gai edo arlo batzuk landu daitezke, baldin eta politika ekonomikoa bera eta aurrekontuak errazago ulertu eta gauzatzeko beharrezkoak badira.

Dokumentu honen bitartez, adierazitako agindua betetzeko idatzitako xedapen-aurreproiektua arrazoitu eta oinarritu nahi da azken batean. Xede horretarako, araudi- eta doktrina-aurrekarien zerrenda laburra egin eta gero, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) horrelako xedapen bat egiteko eskumenaren oinarriak eta Euskadiko aurrekontu orokorretako legee aplikatu beharreko araubide juridikoa aztertuko dira. Horrela, ondoren, aurreproiektuaren edukia aztertuko da eta aurreproiektuaren testuan egindako aldaketak eta kontsultak aipatuko dira, egindako ohar eta iradokizunei egokitze helburuarekin. Amaitzeko, xedapen aurreproiektua behin betiko onetsi arte bideratu beharreko jardueren azalpen laburra egingo da.

AURREKARIAK

Xedapen-aurreproiektua egite aldera, hurrengo araudi- eta doktrina-aurrekariak kontuan izan dira:

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
- 1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena.
- 8/1996 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Autonomi Elkarteko Finantzena
- 6/2011 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituena.
- 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa.
- Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia.
- 1/1988 Legea, otsailaren 5ekoa, "Tribunal Vasco de Cuentas Públicas" / "Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari" buruzkoa.
- 2/2004 Legea, Otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.
- 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.
- 209/2006 Dekretua, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarritzko ordainsari-osagarriei buruzkoa.
- 94/2008 Dekretua, maiatzaren 20koa, Euskal Herriko Unibertsitateari egin beharreko ekarpen arrunta zehazteko irizpideak ezartzen dituena.

- 27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremani buruzkoa.

- 2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa, eta, bertako azken xedapena baliatuz, hurrengo ekitaldietan ere, ez bada hurrengo ekitaldietarako metodologia onartzen duen lege berririk sortu.

- 17/2012 Legea, abenduaren 27koa, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa; irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaren bitartez aldatu zen.

- 5/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoa sortzeari buruzkoa.

- 1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.

- 3/2007 Legea, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzekoa, eta 88/2008 Dekretua, maiatzaren 13koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institutuaren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duena.

- 9/2007 Legea, ekainaren 29koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzekoa; eta 159/2011 Dekretua, uztailaren 12koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketari buruzkoa, eta 160/2011 Dekretua, uztailaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide pertsonalak eta materialak Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari atxikitze baldintzak arautzen dituena.

- 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa, eta 139/2012 Dekretua, uztailaren 17koa; horren bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera noiz hasiko den zehazten da, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren giza baliabideak erakunde autonomo horri atxikitze baldintzak arautzen dira.

- 5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapen Lankidetzarako Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena.
- 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa.
- 7/2007 Legea, apirilaren 2koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena.
- 14/1988 Legea, urriaren 28koa, Goren-kargudunen lantsariei buruzkoa.
- 130/1999 Dekretua, otsailaren 23koa, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen estatutu pertsonala arautzeko dena.
- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina, irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia.
- 136/1996 Dekretua, ekainaren 5koa, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzkoa.
- 8/2008 Legea, ekainaren 25koa, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren Legea aldatzen duena.
- 7/1993 Legea, abenduaren 21koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sorrerari buruzkoa.
- Gobernu Kontseiluak onetsitako jarraibide ekonomikoak (2013ko urtarrilaren 22ko erabakia) eta Ogasun eta Finantza Sailak onetsitako jarraibide teknikoak, Gobernu Kontseiluak sailei jakinarazitakoak.
- Konstituzio Auzitegiaren doktrina aurrekontu orokorren legeei buruz.
- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren doktrina Euskadiko aurrekontu orokorren legeei buruz.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMENAK

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren osagai dira, eta Autonomia Estatutuaren 44. artikulua honela dio haiei buruz: *"Euskal Herriko aurrekontu orokorrek jarduera publiko orokorraren diru-sarrera eta gastuak hartuko dituzte, eta Eusko Jaurlaritzak prestatuko ditu, eta Eusko Legebiltzarrak onartuko, berak finkatuko dituen arauekin bat."*

Autonomia Estatutuaren 40. artikulua zera dio: *"Euskal Herriak autonomia-ogasuna izango du bere eskumenak egoki gauzatu eta finantzatzeko"*. Horrenbestez, aurrekontuen lege baten izapidetzea gauza arrunta izateaz gain, haren eduki zehatz bakoitza onestea baimentzen duen eskumena gastua sortzen duen jarduerari dagokion eskumen zehatza izango da, edo legearen eduki artikulatuari dagokion gai zehatza, edozein izanik ere: haren autoantolaketa, funtzio publiko propioa, ondare autonomikoa, gizarte urgazpena, kultura, sektore publiko propioa, sustapen eta garapen ekonomikoa, industria, hirigintza eta etxebizitza, eta abar.

EAEren estatutu-gaikuntza, bere ogasuna edukitzeko eta bere jarduera publikoaren gastuak eta diru-sarrerak biltzen dituzten aurrekontuak egiteko eta onesteko, halere, estatuko beste xedapen batzuek osatu dute, eskumen berdinak betez eman direnak. Ildo beretik, *"aurrekontuen egonkortasunari"* buruzko legeetan jarduteko oinarritzko hainbat printzipio ezartzen dira, baina printzipio hori gure Autonomia Erkidegoan modulatu aplikatu behar da, Autonomia Estatutuaren 41. artikuluan onartutako Ekonomia Itunaren araubidea dela-eta, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren Azken Xedapenetatik Hirugarrenaren 2. paragrafoari jarraikiz.

Bestalde, estatuak jardun ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrietan eta koordinazioan daukan eskumenaren itzalpean emandako legeria ere aipatu behar dugu (Konstituzioaren 149.1.13a artikulua). Bereziki aipatu behar ditugu sektore publikoan lanean ari diren langileen gastuak, ordainsarien eta plantillen gehikuntza mugatuz. Alor honetan, halaber, gogora ekarri behar dugu Estatuko legeriaren arabera funtzionarioen oinarritzko ordainsarien zenbatekoak eta ordainsari osagarrien zenbateko orokorren gehikuntzak eta lan-kontratuko langileen soldata-masaren gehikuntzak aurrekontuei buruzko lege egokiaren bidez islatu behar direla aurrekontuko ekitaldi bakoitzean; gainera, ezin izango da ordainsari-gehikuntzarik erabaki, baldin eta Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean urtero langileentzat finkatzen diren

mugak gainditzen dituen soldata-masaren gehikuntza badakar (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 2ko 7/2007 Legearen 21. artikulua). Ildo berean, oinarrizko ordainsariak (soldatak eta hirurtekoak) Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean finkatzen dira, eta ordainsari osagarriak administrazio publiko bakoitzaren lege egokien bidez ezartzen dira (apirilaren 2ko 7/2007 Legearen 23 eta 24. artikulua). Horri dagokionez, Estatuko 2013. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak, III. tituluko I. kapituluaren langileria-gastuei buruzkoan, sektore publikoan lanean ari diren langileen gastuei buruzko aurreikuspenak dakartza (22 eta 23. artikuluetan, hain zuzen ere).

Bestalde, EAEren gastu-gaitasunari aplikatu beharreko araubidea ez du soilik bere eskumen-eremuak mugatzen (bai estatuari dagokionez, bai lurralde historikoei dagokienez), estatuko xedapenek ere zer esana baitute; baina diru-sarreraren alorra, ordea, foru-aldundien ekarpenen araubideak (lurralde historikoei EAEko aurrekontu gastuei egiten dieten ekarpenari dagokionak, alegia) baldintzatzen du (Autonomia Estatutuaren 42. artikulua). Araubide hori azaroaren 25eko 27/1983 Legeak (Autonomia Elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoak) arautzen du; ekitaldi honetarako, berriz, martxoaren 23ko 2/2007 Legeak (Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa) arautzen du. Azken Lege horren aplikazioa, hasieran 2007-2011 aldirako aurreikusita, 2012ko ekitaldirako hedatu da, bai eta 2013. urterako ere, haren Azken Xedapenean ezarritakoa baliatuz. Izan ere, ez da datozen ekitaldietarako metodologia onartzen duen lege berririk sortu. Araubide hori dela bide, beraz, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak erabaki du Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko helburuarekin foru-aldundiek egin behar dituzten ekarpenak zehaztea 2013ko ekitaldirako.

EUSKADIKO AURREKONTU OROKORREN LEGEEI APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA

Euskadiko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen arau-esparrua ondoko hauek eratzen dute: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua, eta

Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onetsia.

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak, edo Euskadiko Aurrekontu Orokorrak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen arabera antolatzen dira: *"Euskal Autonomia Erkidegoak ekonomiako edo aurrekontuetako ekitaldi bakoitzean egin behar duen ekonomi jarduera programa baten bidez zuzenduta dago, eta programa hori osatzen duten erabakiak batu ondoren, adierazpide formala ematen zaie agiri bidez, bai finantzen aldetik, bai kontabilitatearen aldetik azalduta egoten dena"* (adierazitako lege testuaren 5.1 artikulua). Halaber, *"Euskal Autonomia Erkidegoko baliabideak ondo administratzen diren kontrolatzeko tresna dira"* adierazten da.

Kontzeptu horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak berezko dimentsioa eta autonomia dituzte behin betiko diru-sarreraren eta gastuen egoeretako esparru estutik banandurik geratzen direlarik. Horrela, Autonomia Erkidegoa eratzen duten erakundeen aurrekontuak, diru-sarrera eta gastu egoeren eratzaille, Euskadiko Aurrekontu Orokorren edukiaren parte dira. Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi hauen eta horien artean berdintasunezko izaera dagoenik. Halaber, diru-sarrera eta gastu egoera soiletatik kualitatiboki haratago doan zerbait bezala agertzen da. Aurrekontu Orokorra eratzen dute berme eta zorpetzea onartzeko mugek ere, Erkidegoaren jardun ekonomikoaren alderdiak direlako, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauen Legeak haiei emaniko izaerarekin bat etorri.

Aurrekontu Orokorren osaera zehaztu ondoren, bada, edukiari lege-estaldura emateko beharrezana sortzen da, eta horretara dator, hasiera batean behintzat, Aurrekontu Orokorren Legea. Lege horren lehenengo zeregina, beraz, aurrekontu orokorrak onestea da, hain zuzen ere. Hala ere, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak beste alderdi batzuetara zabaltzen du aurrekontu orokorreari buruzko legeen eremua, aurrekontuen araubide hutsaz haratago, lege horiek helburu ekonomiko eta sozialak hobeto erdiesteko tresna juridiko bihurtu arte. Halere, aurrekontuko araubidearen alorrean kokatzen ditu, alor horrekin bat baitatuz.

Hain zuzen ere, batzuetan herriaren egoera ekonomikoak eta gizartean dauden harreman ekonomikoen izaerak eskatzen dute botere publikoek hartu ditzatela Aurrekontu Orokorren edukiari dagokienez lehenago zehaztu den edukiaren baitan sartzen ez diren neurriak. Badira, gainera, beste xedapen batzuk zenbait gai atzera aurrekontu orokorren legeetara bidaltzen dituztenak, edukiaren aldetik aurrekontu

horietan egokitu ez arren; lege horiek, aldi baterako direla eta, eguneratze etenik gabea lortzeko tresna egokiak direlakoan, agian. Horregatik guztiagatik, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak beste eduki-mota bat eman die Euskadiko aurrekontu orokorren legeei, aurrekontu horien onespén hutsaz bestelakoa, eta, horrela, *"berez Euskadiko Ogasun Nagusiari dagozkion edo ogasun horrekin zerikusia daukaten beste gai batzuk ere arau ditzakete haraino zabaldua, esate baterako: langileen ordainsarien araubidea eta aurrekontu orokorren barruko kredituei dagozkien alokairu pasiboen araubidea; aurrekontu-araubidea eta aurrekontu horietako gastu publikoa exekutatzeko araubidea; berez autonomia-erkidegoarenak diren tributuen araubidea; eta zorpetzeko baldintzen araubidea"*. Eta aurreikuspen hori zabalik utzi beharra dago, beste xedapen batzuetatik zer igorriko kontuan izanda eta, batez ere, gizarte eta ekonomiaren esparruan ageri diren gorabehera guztiak —asko baitira— kontuan izanda. Era berean, aurrekontu orokorren legeen ezaugarri horiek kontuan izanda, arlo horiei buruzko arauak, haien barruan datozenek, eta Euskadiko aurrekontu orokorretako legeen barrukoak aldatzeko edo osatzeko legegintzazko arauak, denek ere, izaera eta araubide berbera edukiko dute, haien indarraldia, arrunta nahiz luzatua, edozein izanda ere.

Finean, Euskadiko Aurrekontu Orokorretarako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak eratzen duen sistemak ez dauka izaera estatiko edo zurruna. Ostera, haren ezaugarriak malgutasuna eta dinamikotasuna dira, daukan funtzionalitatearen ondorioz. Tresna konbinatu horrek EAEko administrazio publikoaren barne-eremua gainditzen du eta politika ekonomikoko tresna ezin hobea da.

Bestalde, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak Euskadiko aurrekontu orokorren beste lege-proiektuei buruz egin dituen irizpenetan azaldu duenez, aurrekontu orokorretako legeen berezitasuna Konstituzio Auzitegiak zehaztu zuen (besteak beste 195/1994 epaiaren bidez), hiru elementuan oinarrituta: (i) haien funtzioa; (ii) haien parlamentuko izapidetzea, Legebiltzarrean proposatzeko, aztertzeko eta zuzentzeko ahalmenari zenbait muga ezartzen dizkiona; eta (iii) Konstituzioaren 9.3 artikulua segurtasun juridikoaren printzipioaren galdekizunak, zuzenbidearen ziurtasun gisa ulertuta, honelako arau batek ziurgabetasuna sortzen baitu. Aipatutako ziurtasun horrek eskatzen du aurrekontuen legeak ez ditzala izan bere funtzio konstituzionalari dagozkion xedapenak baino gehiago.

Eduki hori, *"konstituzionalki definitua"*, Konstituzio Auzitegiak zehaztu du, bereizketa bat eginez: batetik gutxienerako, ezinbesteko eta xedaezinezko edukia dago, diru-sarreraren aurreikuspenaren eta gastuen gaikuntzaren adierazpen zifratuak osatua,

eta, bestetik, beharrezkoa ez den eduki posiblea edo balizkoa (besteak beste, Konstituzio Auzitegiaren 109/2001 epaia). Doktrina konstituzional horren arabera, beharrezkoa ez den edukiak (balizkoa) hiru baldintza bete behar ditu: (i) hemen sartzen den gaiak zuzeneko zerikusia izan behar du aurrekontuko diru-sarrera eta gastuekin; (ii) hemen sartzeko, beharrezkoa da aurrekontu zehatzak tresnatzat daukan politika ekonomikoaren irizpideen osagarria izan dadila gaia; eta (iii) hemen sartzeko, halaber, aurrekontua hobeto ulertzeko eta betearazteko ezinbesteko osagarria izan behar da.

Balizko edukitik, gainera, "zuzenbide kodetuko" ohiko arauak baztertuta daude, bide hau erabiliz arau horiek aldatzeak segurtasun-falta juridikoa dakarrelako. Era berean, aurrekontuen legeei berariaz debekatutako eremuak aipatzen dituzten konstituzio aginduak aplikatuz gero kanpoan utzi behar den edukia ere baztertuta dago (adibidez, Konstituzioaren 134.7 artikulua zergak sortzea debekatzen die aurrekontuei buruzko legeei).

Doktrina hau Konstituzio Auzitegiak sortu zuen hasiera batean, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak aztertzearen ondorioz. Halere, Euskadiko aurrekontu orokorrei buruzko lege-proiektuen inguruan Aholku Batzorde Juridikoak eman zituen lehenbiziko irizpenetan azaltzen denez (irizpen horietako argudioak doktrina konstituzionalak berretsi du, zehazki 3/2003 epaiak, hain zuzen ere Eusko Legebiltzarraren lege bati buruz emana), doktrina hori Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontuei buruzko Legeei aplikatu beharra argia da.

Hain zuzen ere, Aholku Batzorde Juridikoak azaltzen duenez, beharrezkoa ez den (edo balizko) edukiari dagokionez, antolamendu juridikoa aztertzen badugu, baieztatu dezakegu jurisprudenzialak ezarritako irizpideak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen legeei ere aplikatu behar zaizkiela. Izan ere, hala ondorioztatzen da (i) EAEn aurrekontuei buruz indarrean dagoen arauditik (laburbilduta: EAeko Autonomia Estatutuaren 25.1 artikulutik, 44. artikuluari dagokionez; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginetik, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onetsitik; eta Euskadiko Aurrekontu Araubidearen alorrean indarrean dauden lege xedapenen testu bateginetik, maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onetsitik); (ii) Legebiltzarrean berariazko prozedura bat egotetik (Eusko Legebiltzarreko Araudiaren VI. Tituluaren laugarren kapitulua), eta (iii) Euskadiko Aurrekontu Orokorren Legeak

bere edukirako segurtasun juridikoaren printzipiotik eratorzen diren mugak nahitaez bete beharretik (Konstituzioaren 9.3 artikulua).

Horrenbestez, ondorio gisa, esan dezakegu aurrekontuen legeek gutxieneko, ezinbesteko eta xedaezinezko edukia daukatela. Eduki hori diru-sarreraren aurreikuspenak eta egin daitezkeen gastuen baimenak osatzen dute. Badago aukera behin-behinean beharrezko eduki horri bestelako eduki bat gehitzeko baina baldin eta honako hauetara mugaturik badago: diru-sarrerei buruzko aurreikuspenak lotura zuzena duten gaiak edo arazoak, gastu-gaikuntzak eta politika ekonomikoko irizpideak, aurrekontuak eta politika ekonomikoa bera errazago ulertu eta gauzatzeko beharrezko osagarri direnak, hain zuzen. Zentzu horretan, aurreikuspen horietan sartzen ez diren gaiak aurrekontuen legeaz kanpoko gaiak dira; hala dira ere Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenarekin bat ez datozen gaiak, lehenago azaldu dugunez.

AURREPROIEKTUAREN EDUKIA

Lehen aipatu dugun eskumen- eta arau-esparruaren barruan, aurreproiektu honek Europar Batasunak defendatzen duen egonkortasun-printzipioarekiko errespetua hartu du aintzat, eta gastu eta diru-sarrera egoera jakin batzuk onesten ditu, 2013ko ekitaldiko aurrekontuak osatzen dituztenak. Zenbait xedapenekin osatzen dira, gastu eta diru-sarrera egoera horietan aldaketarik eragiten ez dutenak eta aurrekontuaren betearazpenaren arauketa osatzen dutenak (indarrean dagoen aurrekontu-araubidearen abaguneko aldaketa orokorrak, ordainsarien eta hartzeko pasiboen araubidea, itundutako ikastetxeetako modulu ekonomikoak, gastua baimentzeko arauak, eta abar).

Zentzu horretan, gogorarazi behar dugu hasiera-aginduaren arabera lege aurreproiektuak, bere edukirik garrantzitsuenetakoak diren aldetik, diru-sarreraren aurreikuspena eta 2013ko ekitaldian egin daitezkeen gastuen baimena hartu behar dituela barnean; izan ere, gutxieneko, ezinbesteko eta xedaezinezko edukia osatzen dute. Era berean, diru-sarreraren aurreikuspenekin, gastuen gaikuntzarekin edo politika ekonomikoko irizpideekin zerikusi zuzena duten gai edo arloak landu daitezke, baldin eta politika ekonomikoa bera eta aurrekontuak errazago ulertu eta gauzatzeko beharrezkoak badira.

Euskadiko Aurrekontuen Araubideari buruzko abenduaren 20ko 31/1983 Legetik finkatutako sistematikari eusten dio aurreproiektuaren idazkuntzak. Sistematika hori Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren aurreko legeetan jasota dago.

Beraz, aurreproiektua egiterakoan, aurreko ekitaldiko aurrekontuen lege-proiektua hartu da oinarritzat.

Jasotako iradokizunak eta aipatutako arau eta doktrina aurrekariak aztertu ondoren, lege-proiektuak bost titulu, 33 artikulua, hamaika xedapen gehigarri, bi xedapen indargabetzaile, lau azken xedapen eta testu artikulatuaren osagarri diren lau eranskin dauzka. Aurreproiektuaren egitura aurreko ekitaldietako aurrekontu legeek zeukaten egitura berdina da. Jarraian, xehetasun handiagoz aztertuko da haren edukia.

1) I. titulua (1 – 10 artikulua).

I. tituluaren, Euskadiko 2013ko Aurrekontu Orokorren edukiari eta onespenerari buruzko epigrafean, diru-sarreraren eta gastuen egoera guztiak onesten dira, EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Araudiak Euskadiko Aurrekontu Orokorrei ematen dizkien ezaugarriekin bat etorriz, hau da, gobernuaren politika ekonomikoa taxutzen duen erabaki-multzo integratu gisa.

Maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bitartez onartu eta indarrean dauden Euskadiko aurrekontu-araubidearen lege-xedapenen testu bateginaren 2. artikulua honako hau ezartzen du: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako bakoitzari dagozkion aurrekontuek osatzen dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onesten dira 2013ko ekitaldirako (1. artikulua). Hau da, administrazio orokorraren (2. artikulua), erakunde autonomoen (3. artikulua), zuzenbide pribatuko erakunde publikoen (4. artikulua), eta sozietate publikoen (5. artikulua) diru-sarreraren eta gastuen egoerak onesten dira; aurreko urteetan bezalaxe. Horren osagarri, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari dagozkion Fundazioen (6. artikulua) eta Haurreskolak Partzuergoaren (7. artikulua) aurrekontuak txertatu dira, eta Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen Testu Bateginaren 2.2 artikulua e) eta f) paragrafo moduan gehitu dira.

Berritasun moduan, 2013ko ekitaldian Lehiaren Euskal Agintaritzaren erakunde autonomoaren aurrekontuen onarpena sartu da 3. artikulua barruan; Lehiaren Euskal Agintaritzaren otsailaren 2ko 1/2012 Legearen bitartez sortu zen eta 2012ko

uztailaren 17an ekin zien jarduerari, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera noiz hasiko den zehazten duen, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren giza baliabideak erakunde autonomo horri atxikitzeko baldintzak arautzen dituen uztailaren 17ko 139/2012 Dekretuaren bitartez.

Titulu honen egiturari dagokionez, aurreko ekitaldian bezala, erakunde mota berdineko aurrekontu guztiak artikulua bakarrean bildu ditugu, argiago geratzearren. Hori horrela izanik, beste urte batzuetan Erakunde Publiko bakoitzak artikulua bat izaten zuen; baina orain, aurreko horietan ez bezala, 4. artikuluan Erakunde Publikoen zuzkidurak eta etorkizuneko konpromisoak bildu dira taula baten bidez, erakunde publiko bakoitzari dagozkion zenbatekoak zehaztuta. Taula formatu hau Erakunde Autonomoen eta Fundazioen aurrekontuak jasotzeko ere erabili da. Era berean, argiagoa izate aldera, ezabatu egin da 2012 baino lehenagoko ekitaldietan Euskal Irrati Telebistari ematen zitzaion trataera indibiduala aurrekontuak islatzerakoan. Hala ere, artikulua berezi bat erabili da (8. artikulua) Euskal Irrati Telebista erakunde publikoaren eta irrati- eta telebista-zerbitzu publikoak kudeatzeko sozietate publikoen aurrekontu bateratua adierazteko, Euskal Irrati Telebista herri-erakundea sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 44. artikuluan xedatzen den moduan.

Bestalde, 1.2 artikuluan Eusko Legebiltzarraren aurrekontua txertatzea (soilik horren berri emateko, horrek ez du esan nahi formalki onartuta dagoenik) koherentea da gure ordenamendu juridikoarekin, Legebiltzarrak bere burua antolatzeko gaitasuna finkatuta baitago, Autonomia Estatutuan bertan bereizten delako bere aurrekontu-eginkizun orokorra, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak (44. artikulua) onartzeari dagokiona, bai eta bere aurrekontua onartzeko eginkizuna ere (25.1 artikulua).

Bere aldetik, 2.3 artikulua bete egiten du Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 90.etik 93.era bitarteko artikuluetan ezarritako aurreikuspena eta Euskal Autonomia Erkidegoak Euskal Herriko Unibertsitaterako bereizten duen aurrekontu-zuzkidura jasotzen da, lau kontzeptutan (ohiko ekarpena, Programa-kontratuak finantzatzeko ekarpen gehigarria, Inbertsio eta azpiegituretako urte anitzeko programa hornitzeko kredituak eta banakako osagarriak finantzatzeko kredituak) xehatzen dena. Zentzu berean, Euskal Herriko Unibertsitateari egin beharreko ekarpen arrunta zehazteko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 20ko

94/2008 Dekretuaren aurreikuspenak ere kontuan izan dira. Dekretu horren 4.3 artikuluan xedatu zenez, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Lege Proiektuetan izen hau daukan zuzkidura global bat sartu behar du: *"Euskal Herriko Unibertsitatearentzako zuzkidura, bere jarduera egin dezan"*. Horri buruz gogora ekarri behar dugu Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsari-osagarri gehigarriei buruzko urriaren 17ko 209/2006 Dekretuaren 3. artikuluan honakoa xedatu zela: *"Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektuak berariazko zuzkidura jasoko du banakako ordainsari-osagarriak finantzatzeko"*.

Egin den aurreproiektuaren testuan ez dira diru-zenbatekoak jasotzen, oraindik behin betiko kopuruak ez baitira zehaztu.

Bestalde, 9. eta 10. artikulua bermeak emateko eta birfinkatzeko mugak ezartzeko eta zorpetze-eragiketen mugak ezartzeko dira, hurrenez hurren.

Horrela, bada, 9.1 artikuluan 400.000.000 euroko muga ezarri da Autonomia Erkidegoko administrazioak edo, hala badagokio, Finantzen Euskal Institutuak bermeak emateari dagokionez.

Hala ere, aurrekoa alde batera utzi gabe, Jaurlaritzak euskal enpresen alde aurrera daraman politikaren barruan, elkarren bermerako sozietateek emandako abalak indartzeko aukera dago, bai eta Luzaro KFE sozietateak emandako maileguak bermatzeko ere; euskal enpresak finantzatzen edo funts propioak lortzen laguntze aldera erakunde horiekin izenpetuko ditugun lankidetzeta-hitzarmenen barruan (9.2 artikulua) eta betiere Finantzen Euskal Institutuak betetzen duen egitekoa kontuan izanik, Autonomia Erkidegoko administrazioaren kreditu publikoko eta finantza-politikako tresna den aldetik. Ekitaldi honetan, indartzeko eragiketen bitartez enpresaburu indibidualei, autonomoei eta ETEei zuzendutako urte anitzeko finantzaketa-lineak estaltzeko aukera izango da, betiere artikulua horretan aipatzen diren jardunei eta premiei aurre egitearren, eta gehienez ere 600.000.000 euroko zuzkidura ezarri da bigarren lerrokada horretan aurreikusitako indartze horretarako. Hori guztia Jarraibide Ekonomikoetan bildutako helburuei jarraikiz, EAEko enpresareari laguntzeko neurri sorta bat prestatzearekin loturik.

10. artikulua, bestalde, epe luzerako zorpetzearen mugak zehazten ditu, bai autonomia-erkidegoaren administrazioarentzat, bai zuzenbide pribatuaren bidez arautzen diren bere administrazio instituzionaleko erakundeentzat. Horri dagokionez, 2013ko ekitaldian zorpetzearen baliabidea nabarmen murriztuko da 2012ko ekitaldiarekin alderatuta; izan ere, 2013ko urtarrilaren 22an onartutako 2013ko

aurrekontuak egiteko Jarraibide Ekonomikoei jarraikiz, ekitaldi honetarako defizitaren helburua BPGaren % 0,7n ezarri baita.

Titulu hau, azkenik, aurreproiektuko I. eranskinak (2013ko ekitaldiaren ondoko ekitaldietarako konpromiso-kredituak jasotzen dituen) emandako informazioarekin eta II. eranskinarekin (sozietate publikoen kapital eta ustiapen aurrekontuetan zenbatetsitako zuzkidurak eta baliabideak dauzkana) osatzen da.

2) II. titulua (11 – 26 artikulua).

II. titulan, aurrekontuen edukiari dagokionez, gastu egoerari buruzko zenbait xedapen daude: horrela, I. kapituluan (11-16 artikulua), zenbait kreditu-motari buruzko zenbait espezialitate daude.

11. artikulua zabalgarritzat jotzen ditu lege aurreproiektuaren III. eranskinean aipatzen diren kredituak, nahitaez aintzatetsi behar diren obligazioen baturaren kopuru berbereraino gehienez. Era berean, artikulua horrek zabalkunde hori egiteko finantzazio-bideak finkatzen ditu, Euskadiko Aurrekontu Araubidearen alorrean indarrean dauden lege xedapenen testu bateginaren 24.1.c) artikuluaekin bat etorritik (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onetsia). Aipatutako azken artikulua horretan xedatuenez, ordainketa-kredituak zabalgarriak izango dira; baldin eta, printzipioz izaera mugatzailea izanik, beren zenbatekoa gehitu ahal badute, aurrekontu orokorretako legeek ekitaldi bakoitzerako ezartzen dituzten muga eta baldintzen arabera.

Aurreko ekitaldian bezala, 12. artikulua ia ez du espezialitaterik aurreikusten konpromiso-kredituak arautze orokorrari buruz. Salbuespena aurreko ekitaldietan sortutako konpromiso-kredituei dagokie, betiere ulertuta kredituok finantza-eragiketarik edo arriskuen estaldura-eragiketarik gauzatzearekin zerikusia duten lankidetzaren hitzarmen eta kontratuei dagozkienak direla, eta eragiketa horien urteko zenbatekoa interes-tasaren edo antzeko beste adierazleen bilakaeraren arabera dela.

13. artikulua, bestalde, bere lehenbiziko paragrafoan Autonomia Erkidegoko administrazio eta haren administrazio erakunde autonomoetako aldi baterako langileen, funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen aurrekontu-plantillak onesten ditu, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 20. eta 21. artikuluetan xedatutakoa betez. Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean

diren lege-xedapenen Testu Bategineko (testu hori maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen) 22. artikuluan, bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, EAEko administrazioaren eta administrazio-erakunde autonomoen aurrekontu-plantillak izaera mugatzailea izango du, eta gehienezko muga erakunde horietako guztietako funtzionarioen, lan-kontratuko langile finkoen eta behin-behineko langileen kopuru osoa izango da. Horiek horrela, lehenbizi (13.3 art.) irizpide orokor moduan ezartzen da aurrekontu-plantillak langile-zuzkidura berriak sortuz aldatzen badira, behar beste zuzkidura amortizatu egin beharko direla horren ondorioz, urteko kostu gordina handiagoa izan ez dadin. Bigarrenik, (13.4 art.) Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Finantza Sailaren proposamenez, langile-zuzkidura berriak sortzeko baimena eman ahal izango du, irizpide orokor hori bete gabe (hau da, aurrekontu-plantillen aldaketak ez dezala urteko kostu gordina gainditi), lanpostuen zerrendak honako arrazoi hauengatik aldatzen badira: eskumenen transferentziak benetan gauzatzen direlako, organo eta zerbitzu berriak sortzen direlako, kanporatutako eta azpikontrataturiko zerbitzuen kudeaketa zuzena egiten delako, lege-mailako arauak aldarrikatzen direlako, edo Gobernuak abagunekoak ez diren planak, programak eta jarduera garrantzitsuak onesten dituelako. Horretarako, finantzazio egokia eta funtzio publikoaren arloan eskumena duen organoaren alde aurreko aldeko txostena beharko da beti. Txostenean adierazi beharko da ezinezkoa dela premia berriei aurre egitea lanpostuak berraxikita, langileak berrizendatuta edo giza baliabideak arrazionalizatzeko eta antolatzeko bestelako baliabideak erabilita. Bere aldetik, 5. artikulua honetan xedatutakoa betez onesten diren plantilla-aldaketei egokitzeko helburuarekin langileria-gastuen kredituetan beharrezko diren aurrekontu-aldaketak egiteko Ogasun eta Finantza Sailari emandako baimena jasotzen da azken lerrokadan. 2013ko ekitaldian, Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeei ere aplikatuko zaizkie Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Erakunde Autonomoen aurrekontuetako plantilletan aplikatu beharreko irizpide berdinak, langileentzako zuzkidura berriak sortzeko mugei dagokienez.

Azkeneko horri dagokionez, aurreproiektuak, aurrekontuak egiteko arau ekonomikoekin bat, ez du aurreikusten ezelako hazkunderik.

14., 15. eta 16. artikuluen helburua da Euskadiko Aurrekontu Erregimenaren alorrean indarrean dauden lege xedapenen testu bateginaren 66.3 artikulua (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onarturikoak) izaera orokorrarekin ezarritako lotura-mailaren aldaketa, langileen kredituetarako, funtzionamenduko

gastuetarako, eta eragiketa arrunt eta kapital-eragiketen transferentzia eta diru-laguntzetarako, hurrenez hurren.

“Kredituen araubidea. Aldaketak” izeneko II. kapituluan lerrokada berezi bat txertatu da 2013. urte honetarako; hain zuzen ere, 17.2 artikulua, Jaurlaritzaren egitura berriaren ondorioz aurrekontuetan egin beharreko aldaketak egitea ahalbidetzeko.

Aurreko ekitaldietan bezala, sozietate publikoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sektore publikoko Fundazioen aurrekontuen aldaketari dagokion aurreikuspen erlatiboa mantentzen da, Gobernuak onartutako plan eta proiektuen ondorioz (18. artikulua).

Titulu horretako III. kapitulua ordainsarien eta hartzeko pasiboen araubideari buruzkoa da.

19. artikulua Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikorako, Erakunde Autonomoetarako, zuzenbide pribatuko Erakunde Publikoetarako eta Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko Partzuergoetarako lanean dabilen langileriaren ordainsariak ditu aintzako. Lan arloko araudiari lotutako zein ez lotutakoa eta, Fundazioetako langileria barne hartzen duelarik. 21. artikulua Ertzaintzaren langileriari dagokiona da.

Honi buruz gogoratu behar da funtzionarioen ordainsarien jardunbideak, oro har, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 2ko 7/2007 Legearen 21.etik 30.era arteko artikuluetan bildutako oinarrizko araudiari jarraituko diola.

Horrela, adibidez, lege-arau horretako 21. artikuluan xedatzen denez, *“estatuko legeriaren arabera funtzionarioen oinarrizko ordainsarien zenbatekoak eta ordainsari osagarrien zenbateko orokorren gehikuntzak eta lan-kontratuko langileen soldata-masaren gehikuntzak aurrekontuei buruzko lege egokiaren bidez islatu behar dira aurrekontuko ekitaldi bakoitzean”* eta *“ezin izango da erabaki Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean urtero langileentzat finkatzen diren mugak gainditzen dituen soldata-masaren gehikuntza dakarren ordainsari-gehikuntzarik”*.

23. artikulua, bestalde, ezartzen ditu oinarrizko ordainsariak (soldata eta hirurtekoak) *“Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean ezartzen direla”*, eta 24.

artikuluak gehitzen du *“funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa eta egitura administrazio publiko bakoitzari dagokion legeak ezarriko dituela”*.

Horri dagokionez, 2013rako Estatuako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legean xedatutakoari erreparatu behar zaio eta, zehazki, sektore publikoaren zerbitzura ari diren langileen gastuen alorreko jardun ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriari eta koordinazioari buruzkoa den 22. artikuluari, oinarritzkoa den aldetik. Horrexegatik, aurrekontuak egiteko arau ekonomikoekin bat, era orokorrean honako hau ezartzen da: arestiko langileriaren urteko ordainsariak ez dute ezelako igoerarik izango 2012ko ekitaldian ezarritako ordainsarien aldean.

Aurreproiektuak, arestikoarekin eta uztailaren 6ko 222/2006 STC delakotik eratorritako dotrinarekin bat, oinarritzko ordainsarien zenbatekoa txertatzen du (19.7 artikulua) 2013rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Lege Proiektuaren 22.5 artikulua bosgarren paragrafoan ezartzen den bezalaxe.

Era berean, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 79.1.a) artikuluan xedatutakoa eta Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 74.1.a) artikuluan xedatutakoa betez, funtzionarioen (19.9 artikulua) eta Ertzaintzaren (21.1 artikulua) destinoagatiko osagarrien urteroko zenbatekoa ezartzen da, baita langileriaren ordainsarien osagarrien zenbatekoek ez dutela ezelako hazkunderik izango 2012ko abenduaren 31n indarrean dauden zenbatekoen aldean ezarri ere.

Halere, zenbait salbuespen ezartzen zaizkio ordainsariak eguneratzeko mugari. Salbuespen horietatik, funtzionarioei zuzendutakoak 19. artikuluko 4. lerrokadan azaltzen dira, eta lan-kontratuko langileentzat direnak, artikuluko 10. lerrokadan. Jasotako kasuak dira Estatuaren oinarritzko aurreikuspenak errepikatzen direlarik ordainsarrietan eginiko egokitzapenei buruzkoak. Egokitzapenok dira lanpostuaren edukian izandako aldaketengatik, programa bakoitzari atxikitako langile-kopuruan izandako aldaketengatik edo programa horiei ezarritako helburuen betetze-mailarengatik.

Amaiera aldean (19. artikuluko 12. eta 13. lerrokadak) xedatzen denez, gobernuko kideen, goi-kargudunen eta antzekoen ordainsariak, haien pareko diren aldi

baterako langileen eta zuzendarien ordainsariek ez dute ezelako igoerarik izango 2012ko abenduaren 31n indarrean dauden zenbatekoen aldean.

Aurreko ekitaldian bezalaxe, 2013an lerrokada berezi bat txertatu da 19. artikuluan (11. lerrokada) eta, horren arabera, etenda geratzen da ekitaldirako lansari-gehikuntzarik dakarren zernahi akordio, hitzarmen edo itunen aplikagarritasuna, hau da, haien aplikaziotik lansari-gehikuntzak ondorioztatzen dituenik; 25. artikuluan ere neurri hori aipatzen da, modu orokorragoan. Halaber, adinagatik orduak hartzeko ematen ziren baimenei buruz eta borondatez erretiratzeagatiko primak arautzen dituzten akordioak eteteari buruz urte honetan edo artikuluan honetan bildutako aurreikuspenei eutsi egiten zaie, eta, kasu honetan honako hau zehazten da: 2013ko ekitaldian gertatutako erretiroak hartzen dituela eraginpean. Azkenik, Gobernuari baimena ematen zaio gaixotasun arruntak eragindako aldi baterako ezintasun-egoeretan borondatezko hobekuntzako kontzeptupean osagarriak ordaintzeko baldintzak erregelamendu bidez arautzeko, eta gaiari buruzko akordioak eteteari buruzko esanbidezko aipamena desagertu egin da.

20. Artikuluak % 50eko murrizketa ezartzen du Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitate guztiek kontingentzia erretiroa barne hartzen duten gizarte-aurreikuspeneko sistemei egin beharreko ekarpenetan, 2010eko ekainaren 1era arte aplikatutakoan aldean.

22. artikuluan, hitzarmen kolektiboak eta lan-baldintzei buruzko akordioak sinatzeko betekizun batzuk finkatzen dira; bereziki, edozein hitzarmen sinatu aurretik Ogasun eta Finantza Sailaren, eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren aldeko txostena nahitaezkoa dela. Txosten hori egiteko izapidea bete gabe edo txostena aurkakoa izanik hartzen diren erabakiak zuzenbide osoz deusezak izango dira; baita ondoko ekitaldietarako soldatak gehitzea dakarten akordio, hitzarmen edo itunak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretako etorkizuneko legeek zehazten dituztenekin bat ez badatoz.

23. artikuluan, Goi-kargudunen Ordainsariei buruzko urriaren 28ko 14/1988 Legearen 4. artikuluko xedapenak betetz, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta Sozietate Publiko, Fundazio eta Partzuergoen zuzendarien ordainsarien mugak ezartzen dira. Haien araubidea otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak osatzen du, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekideen estatutu pertsonala arautzeko denak. Dekretu horrek ezartzen dituen irizpideak,

halaber, Fundazio eta Partzuergoen kasuan ere aplika daitezke. Hala eta guztiz ere, aurretiaz aipatu diren zuzentarauei jarraituz xedatu da ordainsari horiek ezin izango direla inola ere igo 2012ko abenduaren 31n indarrean daudenekin alderatuz, taldekako aseguruen kontratuak finantzatzeko helburua duten zenbatekoak salbuespenak direlarik, eta antzinatasunagatik dagozkienei inolako kalterik eragin gabe. Azkenik, 24. artikulua hartzeko pasiboengatik pentsioak eguneratzen ditu, eta haiek ere ez direla handituko ezartzen da.

Kapitulu honetan bildutako ordainsari-araubideari buruzko araudia aplikatzea ahalbidetzearen, 25. artikuluan sektore publikoko erakundeen eta sindikatuen artean sinatutako akordio, hitzarmen eta/edo itun guztien etete partziala xedatzen da, bai eta lanaldiaren eta ordutegiaren gaineko guztiak ere, administrazio orokorreko langileentzat 2013an indarrean dagoen urteko lanaldia bete dadin.

Titulu honetako IV. kapituluan (26. artikulua), IV. eranskinak osatzen duena, itundutako ikastetxeen modulu ekonomikoa ezartzen da, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Izan ere, lege horrek agintzen du aurrekontu orokorren bidez ezarriko dela eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomikoa, ikastetxe itunduak mantentzeko erabiltzen diren funts publikoen zenbateko orokorra banatzeko ondorioetarako.

Aurreko ekitaldian bezala, langileen gastuei dagokienez, ikastetxe publikoetako langileen ordainsariak aldatzearen ondorioz moduluak aldatzeko aukera biltzen da. Alabaina, 2012. urteko idazkerarekin alderatuta, kasu honetan beste modu batera idatzita dago, honako hiru alderdi hauek zehazteagatik: zenbatekoaren aldaketa sare publikoko ordainsarien murrizketaren kasura mugatzea (ez bailitzateke bidezko izango aurrekontuen legeak ikastetxe pribatuetako langileen ordainsarrietan igoera agintzea); horregatik, lerrokada berri batean (5. lerrokada) txertatu da iaz aurreikusitako kasua, hau da, langile-gastuetako osagaien zat moduluetan ezarritako zenbatekoak gaintzen dituzten ordainsariak aldatzearen kasua; bigarrenik, artikulua eraginpean daude ikastetxe publikoak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak kudeatzen dituenak soilik izango direla zehaztu da (izan ere, bai baitira beste ikastetxe publiko batzuk titulartzat beste administrazioen bat dutenak), eta azkenik, segurtasun juridikoa sendotzearen, 4. lerrokadan paragrafo berri bat txertatu da eta, besteak beste, murrizketa aplikatuko duen organoa organo eskudun bat izatea eskatzen da.

3) III. titulua (27 – 29 artikulua).

III. titulua diru-sarreraren egoerarekin zerikusia duten xedapenak biltzen ditu. I. kapituluan, batetik, foru-aldundien ekarpenak azaltzen dira, lurralde historikoen autonomia-erkidegoaren aurrekontuetako gastuetarako egiten dituzten ekarpen gisa. Horrela, azaroaren 25eko 27/1983 Legearekin bat etorritik (Autonomia Elkartea osorako erakundearen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundearen arteko harremanei buruzko legea), martxoaren 23ko 2/2007 Legearekin bat etorritik (Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldira aplikatuko den metodologiari buruzkoa –baita 2013an ere, bere luzapena dela eta), eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak erabakitakoarekin bat etorritik, 27. artikuluan organo horrek onetsitako ekarpen orokorren zenbatekoa azaltzen da. 28. artikulua, bestalde, lurralde historiko bakoitzaren ekarpen koefizienteak jasotzen ditu, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak onetsiak, azaldutako metodologia aplikatuz.

Bestalde, zerga izaerako arauari buruzko II. kapituluan, 29. artikuluan zehatz esanda, Euskadiko Ogasun Nagusiaren zenbateko finkoko tasak eguneratu dira. Horrela, 1,027 koefizientea aplikatuz suertatzen den zenbatekora arteko igoera ezarri da oro har 2012ko ekitaldira eskatzen direnekin alderatuta eta, era berean, eguneratze horretatik erator litekeen biribiltzea ere aurreikusi da. Azken Xedapenetatik Hirugarrenean berariazko eguneratzearen eraginpeko tasak aipatzen dira, logikari jarraikiz, haiei ez baitaie aplikatuko eguneratzeko koefizientea orokorra.

4) IV. titulua (30. eta 31. artikulua).

IV. tituluaren barruan, aurreproiektuaren 30. artikulua Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onarturikoaren) 113.1 artikuluan du bere funtsa, gastuaren aurrekontuaren betearazpena arautzeari dagokionez. Artikulu horren arabera gastua egiteko baimena ematea Jaurlaritzarentzat gordetzen da, baldin eta izaeragatik eta zenbatekoagatik, kontratazioari buruzko arauak eta lege mailako beste xedapen batzuk hala eskatzen badute. Zentzu horretan, aurreko ekitaldira aurrekontuen legeak ezarritako zenbatekoak errepikatzen dira. Horrela, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko dute 5.000.000 eurotik gorako gastu guztiek, gastua

egiteko erabiltzen den kredituaren izaera edozein izanik ere, salbuespen hauekin: Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan integraturik dauden erakundeei transferentziak egitean sortzen diren gastuak, Administrazioaren berezko bitartekoak diren erakundeei egindako kudeaketa-gomendioak, eta aurrekontuetan esleitzen diren diru-laguntza izendunak; kasu hauetan baimen hori ez da beharrezkoa izango. Horixe gertatzen da, halaber, gastua Autonomia Erkidegoko sektore publikoko Partzuergoek eta Erakunde Autonomoek egiten badute, baina 1.000.000 eurotik gorako gastu oro egiteko dagokion sailburuaren baimena behar izango da.

Bestalde, 31. artikulua kontratazio araubideari buruzko aldeak jasotzen ditu. Gai hau Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiari ere badagokio, eta Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak helburutzat hartu dezake. Horrela, herri-administrazioen kontratuei buruz indarrean dagoen legediaren esparruan (Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzko ekainaren 5eko 136/1996 Dekretua), Gobernu Kontseiluaren baimena ezinbestez eduki behar duten kontratuak zehazteko zenbateko jakin bat ezartzen da, Administrazio Orokorra, Erakunde Autonomo eta Partzuergoekin gastua baimentzeko ezarrita dauden parametro berberetan.

5) V. titulua (32. eta 33. artikulua).

32 eta 33. artikuluetan, azkenik, Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrari bidali behar dizkion informazioak jasotzen dira, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketatik eratorritako zenbait eragiketari buruzkoak. Horrez gain, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz (maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onetsiari buruz) indarrean dauden legezko xedapenen testu bateginean galdatzen diren informazioak ere bidali behar dizkio. Artikulu horiek, finean, arauaren arauketaren osagarritzat jo ditzakegu, aurrekontua betearazteko prozedurari dagokionez. Ekitaldi honetan, Legebiltzarrari jakinarazi beharreko eragiketen bi blokeak beste ordena batean bildu dira (32.1 art.), bloke bakoitzaren eta bloke bakoitzean jasotako informazioaren garrantzi-maila nabarmenago egiteko.

6) Xedapen gehigarriak.

- 1.6. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA



Informazio zehatzagoa nahi izanez gero, sarean kontsulta daiteke honako webgune hauen bitartez:

- **Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2011, Emakunde.**

http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/eu/contenidos/informacion/cifras_ant/eu_emakunde/adjuntos/cifras_2011_eu.pdf

- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, Eustat.**

http://eu.eustat.es/ci_ci/estadisticas/opt_0/tipo_10/arbol.html#axzz2MshoCtkU

Iturri hauek ere erabili dira:


- Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko Txosten Sozioekonomikoa
- Emakumeak eta gizonak Euskadin. 2012. Eustat
- Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2012. Eusko Jaurlaritza



1. DEMOGRAFIA: EAE

EAEko BIZTANLERIA
2.178.339

Emakumeen % 7,5
gizonen % 7,2
Estatutik kanpo jaio dira



Bizi-itxaropena:

EMAKUMEAK 85,5 URTE
GIZONAK 78,5 URTE

2010eko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 2.178.339 biztanle daude eta horietatik 1.113.631 emakumeak dira, hau da, % 51,1. Jatorriz atzerriko biztanleak 179.583 dira (% 8,2).


EINek etxeko en unitatearen batez besteko tamainari buruz argitaratutako datuen arabera. 2009. urtean Euskadin 852.263 etxeko en unitate zeuden eta, batez beste, etxeko en unitate bakoitzean 2,49 kide zeuden. 2008an 2,5 kide ziren.

2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA.

2.1 EKOIZTE-LANA ETA AUTONOMIA EKONOMIKOA

2.1.1 JARDUERA TASA


Jarduera-tasaren bilakaera




Ekoizte-lanaren eremuko egoerak pertsonen autonomia ekonomikoaren maila baldintzatzen du. 1995. urteaz geroztik, emakumeen jarduera-tasa igo egin da —41.3 puntutik 48.3 puntura—; aldiz, gizonen tasa ia ez dela aldatu esan dezakegu —64.8 puntu 1995ean eta 64.0 puntu 2010ean—.

Iturria: EUSTAT. BJA

Jarduera-tasa adinaren arabera



Jarduera-tasa ikasketen arabera




Ikasketa-mailaren eta adinaren aldagaia aztertuta, lan-merkatuan emakumeek eta gizonak duten egoera uler daiteke. Izan ere, lan-merkatuan dauden edo egon nahi duten eta goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean ia ez dago generoaren araberako alderik. Aitzitik, lehen-mailako ikasketak dituztenen artean, gizonen jarduera-tasa emakumeenaren bikoitza da.

2.1.2 ENPLEGU TASA²


EAEko enplegu-tasari dagokionez, emakumeek enplegurako sarbide txikiagoa dutela ikus daiteke. 16-64 urteko gizonetzkoen artean, gizon landunen proportzioa % 65,2 da, hau da, emakumeen adierazlea (% 57,5) baino 7,7 puntu gehiago. **Iaz, gizonen tasa % 73,8 zen eta emakumeena % 61,7; horrek esan nahi du gizonetzkoen tasan izan den jaitsiera emakumeen tasaren bikoitza izan dela.**

Lan egiten duten emakumeen % 86,9 zerbitzuen sektorean dabilta lanean, eta sektore horretan landunen % 58 inguru emakumeak dira. Zerbitzuetan lan egiten duten gizonen proportzioa % 54,5ekoa da. Emakumeek presentzia txikia dute eraikuntzan, % 12 baino ez, eta industrian eta lehen sektorean ehuneko hori zertxobait handiagoa da, (% 22 eta % 30, hurrenez hurren).

Enplegu-tasa ikasketen arabera



Enplegu-tasa adinaren arabera




Iturria: EUSTAT. BJA2012

Enpleguan, generoaren araberako aldea murriztu egin da emakumeen okupazioak gora eta gizonenak behera egin duelako (krisialdi ekonomikoak gizonengan eragin handiagoa izan baitu). Ikasketa-mailak badu eraginik generoaren araberako aldean; izan ere, ikasketa-maila zenbat eta txikiagoa izan, aldea orduan eta handiagoa da. 2011. urtean lehen mailako ikasketak dituzten gizon landunen kopurua emakumeen bikoitza da eta alde hori eutsi egiten zaio erdi-mailako ikasketen kasuan ere, baina goi-mailako ikasketei dagokienez, aldea ia desagertu egiten da; beraz, hezkuntza-prestakuntza txikiena eskatzen duten lanak gizonetzkoengana bideratuta daude. Adina ere generoaren araberako aldea azaltzen duen aldagaia da, okupazioari dagokionez. 16-24 urtekoen eta 25-34 urtekoen kasuan ia ez dago generoaren araberako alderik; izan ere, emakumeak eta gizonak neurri berean hasten dira lanean, baina hurrengo belaunaldietan (35-44 urte eta 45-54 urte) alde nabarmena dago: portzentajezko 19.5 puntu.

² Testuinguru honetan, enplegu-tasa zera da, erreferentziako biztanleen arteko landunen proportzioa. Adierazle horri okupazio-tasa ere esaten zaio.


2.1.3 LANGABEZIA TASA.

Langabezia-tasaren bilakaera



Okupazioa

■ Emak. ■ Gizonak




Generoaren araberako aldea txikiena duen adierazlea da langabezia-tasa, bai Espainiako nazionalitatea dutenen artean, bai atzerritarren artean. Atzerritarrei dagokienez, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino 4 puntu txikiagoa da eta fenomeno hori berria dela esan dezakegu langabezia generoaren ikuspegitik begiratuta aztertuz gero, aurreko bi urteekin alderatuta.


Alabaina, lan-merkatuan emakumeek eta gizonak dituzten baldintzak oso bestelakoak dira: gainokupatuta dauden pertsonen (egunean 8 orduetik gora lan egiten dutenei esaten zaie horrela) ia % 75 gizonak dira; okupatu hertsien (8 ordu lan egiten dutenei esaten zaie okupatu hertsia) % 55 gizonak dira; eta okupatu edo landunen gainerakoan, 8 orduetik behera egiten dutenen artean, gizonak ez dira % 20ra ere iristen. Lanaldi partzialeko lana emakumeen lana da: **kontratu partziala duten pertsonen % 82,3 emakumeak dira**. Horrez gain, 2010ean soldatapean lanean zeuden 18.600 pertsona zenbatu ziren kontraturik gabe, eta 10etik ia 9 emakumezkoak ziren, hau da, 16.400.

2011. urtean langabezia-tasa % 11,2 gizonen kasuan eta % 10,2 emakumeen kasuan, baina 2012an ehuneko horiek handitu egin ziren % 12,1era eta % 11,5era, hurrenez hurren; bestela esateko, gizonen kasuan % 0,9ko iguera izan da eta emakumeenenean, aldiz, % 1,3koa. Iturria: EUSTAT. BJA

Emakumeak



Gizonak




Lan-merkatuaren ohiko irudia da zenbait sektore maskulinizatuta egotea, hala nola industria eta eraikuntza, eta beste batzuk, aldiz, feminizatuta, zerbitzu-sektorea esaterako. Zerbitzu-sektorean lan egiten duten 10 pertsonatik 6 emakumeak dira. **Krisi ekonomikoak zerbitzu-sektoreari eragiten badio, kalte handia egingo dio emakumeen okupazioari, emakumeen % 86,9k sektore horretan egiten baitu lan.**



2.1.4 ERRENTA PERTSONALA

Laneko errenta pertsonala lanbidearen arabera- 2006




I turria: EUSTAT.

Erosteko ahalmenari dagokionez, generoaren arabera aldea izugarria da oraindik ere. Ikusienez, **emakumeen batez besteko guztizko errenta pertsonala 11.857koa den bitartean, gizonena ia bikoitza da, 23.224koa**. Egia da lana duten emakumeen tasa txikiagoa dela eta emakumeen artean gehiago direla lan partzialak dituztenak, baina generoaren arabera aldea gehiegizkoa da lan-errentan. Lan-errentaren ondoriozko diru-sarrerari dagokionez, gizonen diru-sarrerak emakumeen diru-sarreraren bikoitza baino gehiagokoak dira. Hori horrela, 2006an (argitaratutako azken datua urte horretakoa da), zuzendari gerente baten laneko batez besteko urteko errenta 65.739 euro zen eta emakume gerente batena, ordea, 42.376 euro.

2.1.5 SOLDATA DESBERDINTASUNAK, LANEKO KOLOKATASUNA ETA EZ-AKTIBOTASUNA

Ez-aktibotasunaren arrazoiak



Laneko kokatasunak emakumeengan gizonengan baino eragin handiagoa izaten jarraitzen du. BJAren arabera, aldi baterako kontratua duten edo kontraturik ez duten soldatako emakumeak % 26,5 dira eta, gizonen kasuan, aldiz, % 19,1. EINen azken datuari jarraiki, 2007. urtean **emakumeen soldata gizonena baino % 26,5 txikiagoa da EAEn**. 2010ean, ez-aktiboak % 60 emakumeak ziren. Ez-aktibotasun horren arrazoi nagusia etxeko lanetan aritzea da (emakume ez-aktiboak % 43), eta arrazoi horren atzetik, erretiroa ez beste pentsioen bat jasotzea (% 19.9). Aitzitik, pertsona ez-aktiboak % 40 baino gutxiago dira gizonak, eta 10etik 7 erretiroa edo aurre-erretiroa hartu dutelako daude egoera horretan. Alde horretatik, azpimarratu behar da gizon ez-aktiboak % 4,3 soilik daudela egoera horretan etxeko lanetan dihardutelako.

2.1.6 ETXEBIZITZA ETA GAZTEEN EMANTZIPAZIOA ETXETIK

Etxebizitza, Herri lan eta Garraio Sailak 2010. urteko Etxebizitzen beharrei eta eskariari buruzko inkesta egin zuen eta, horren arabera, etxebizitza-premia handienak 18-44 urtekoen artean gertatzen dira, gizon nahiz emakume. Adin-tarte horretan 108.131 eskatzaile daude eta horietatik 48.029 emakumeak dira eta 60.102 gizonak; beraz, % 44,4 emakumeak dira eta % 55,5 gizonak.

Eskaerari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko alderik handiena 35-44 urteko tartean gertatzen da. Baina premia 25-34 urterekin, bi kasuetan. Prestakuntzari dagokionez, etxebizitza eskatzen dute emakume eta gizonen artean ezberdintasun handiak daude. Ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, gizonak % 72,3 dira; aldiz, unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen artean, % 40,3 baino ez dira gizonak.

15-29 urteko gazteen ohiko etxebizitza, sexuaren eta adin-taldearen arabera. 2012

15-29 urteko gazteen ohiko etxebizitza, sexuaren eta adin-taldearen arabera.	Guztira		Gizonak				Emakumeak			
	15-29	T	15-19	20-24	25-29	T	15-19	20-24	25-29	
Adina										
Familiarekin (gurasoak, neba-arrebak...)	73,8	78,4	97,0	86,7	59,9	68,9	93,2	80,7	44,3	
Familia bizi ez den beste etxebizitza batean	23,9	20,5	2,7	11,6	39,0	27,4	1,9	17,1	51,6	
Lanegunetan beste etxebizitza batean; asteburuetan eta oporretan familiarekin	1,8	0,8	0,3	1,7	0,4	2,7	4,9	2,2	1,8	
Beste egoera bat	0,6	0,3	0,0	0,0	0,7	0,9	0,0	0,0	2,3	


Nabarmentzekoa da erabilgarri dauden azken datuen arabera, familiarekin bizi diren gizon gazteen ehunekoa (% 78,4) familiarekin bizi diren emakumeen ehunekoa (% 68,9) baino handiagoa dela, baina kasu bietan gehienak familiarekin bizi direla.

Aldiz, familia bizi ez den beste etxebizitza batean bizi diren emakumeen ehunekoa (% 27,4) gizonen ehunekoa (% 20,5) baino pixka bat handiagoa da, baita astegunetan familiaren etxetik kanpo bizi diren emakumeena ere (emakumeak % 2,7 eta gizonak % 0,8). Beraz, 15-29 urteko nesken artean emantzipatutakoen proportzioa handiagoa da mutilen artean baino.

Urteak bete ahala, neskak nahiz mutilak emantzipatu egiten dira eta, oro har, adin handieneko taldeetan (20-24 urte eta 25-29 urte) jatorrizko etxetik kanpo bizi diren gazteen proportzioak gora egiten du.

2.2 UGALTZE-LANA

2.2.1 SEME-ALABAK ZAINTEKO ESZEDENTZIAK ETA MURRIZKETAK




2012ko datuen arabera, gizonen artean soilik % 3,1ek eskatu du diru-laguntza seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartzeagatik; 2009an % 3 izan ziren. Aldiz, lanaldi-laburtzeak eskatu dituzten gizonak % 7,7 baino ez dira eta 2009an % 6,28 izan ziren.

Bateragarritasunera bideratutako neurrien erabilera feminizatuta dagoela argi ikusten da eta esan gabe doa ez direla eraginkorrak izan lana sexuaren arabera banatzen duen gizarte-eredua aldatzeko. Neurri horien feminizazioaren oinarria, azken batean, ordena sozioekonomiko patriarkala da, non, alde batetik, ugaltze-lana emakumeengan uztea sustatzen den eta, bestetik, prestasuna eta presentzia lehenesten dituen produkzio-ereduari eusten zaion. Horren guztiaren ondorioz familia eta lana bateragarri egiteko neurrien fenomeno gaiztoa sortzen ari da.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

2.2.2 ETXEKO EKOIZPENA ETA BPGarekiko ERLAZIOA



Euskal Autonomia Erkidegoko etxeko ekoizpenaren balioa 19.296 milioi eurokoa izan zen 2008an, eta horrek esan nahi du urte horretako Barne Produktu Gordinaren (BPGd) % 28,40 izan zela. Azpimarratzekoa da etxeko ekoizpenak BPGd-an duen partaidetzaren ehunekoa gero eta txikiagoa dela, % 47,5koa izan baitzen 1993an, eta % 28,40koa 2008an.

Iturria: EUSTAT

2.2.3 ETXEKO LANGILEAK DITUZTEN FAMILIAK

EAEko 105.000 familiek lana ematen diete Euskadin dauden ia 90.000 etxe-langileri.

Iturria: Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak etxeko lanari buruz egindako azterlana – 2011. urtea (oharra: prentsan argitaratutako datuak dira, azterlana ez da argitaratu oraindik)

2.2.4 18 URTETIK BEHERAKO SEME-ALABAK EUREN KARGURA DITUZTEN GURASO BAKARREKO FAMILIEN KOPURUA

2008ko dataz guraso bakarreko 65.826 familia zeuden EAEn, hau da, familia guztien % 8,3. Horrelako familia gehienetan emakumeak dira gurasoak, kasuen % 80tan emakumea da erreferentziazko pertsona.

Mendeko seme-alabak dituzten guraso bakarreko familien kopurua 26.246koa da, hau da, guraso bakarreko etxeen % 40 eta EAEko etxeen % 3.

2.2.5 ADINGABEEN ZAINTZA AITONA-AMONEN GAIN UZTEA

13 urte baino gutxiagoko umeak dituzten 10 etxetik ia 2k (% 19,40) aitona-amonak hartu ohi ditu seme-alabak zaintzeko. Noizean behin aitona-amonengana jotzen duten pertsonen ehunekoa batuta, % 37 izango dira adingabeak zaintzeko laguntza hori eskatzen duten etxeak. Bilobak zaintzeari normalean eskaintzen dioten batez besteko denbora ia 4 ordu eta erdi da.


2.2.6 13 URTETIK BEHERAKO ADINGABEEN ZAINZA ETXE-ZERBITZUAREN BITARTEZ

13 urte baino gutxiagoko umeak dituzten etxeen % 12,10ak etxe-zerbitzua erabiltzen du umeak zaintzeko, eta egunean 5 ordu inguru hartzen da horretarako batez beste. Umeak zaintzeko etxe-zerbitzuaren hileko batez besteko kostua 400 €-koa da.

2.3 POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA

2.3.1 POBREZIA INDIBIDUALAREN BANAKETA ETA ARRISKUA

POBREZIA ARRISKUA



Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei b

Pobreziari eta gizarte-desberdintasunei buruzko 2012ko inkestak argi uzten du pobreziak eragin handiagoa duela emakumeen artean gizonen artean baino. **Pobrezia-arriskuan dauden pertsonen % 75,5**, hau da bakarrik bizi ahal izateko diru-sarrera nahikorik gabe, **emakumezkoak dira**. Pobrezia-arriskuaren ehunekoa 4 aldiz handiagoa da emakumeen kasuan, gizonen kasuan baino. Horrela bada, pobrezia-arriskua nabarmenagoa da pertsona nagusia emakumezkoa den kasuetan, hau da, beharizan oinarritzkoenei aurre egiteko diru-sarrera nahikoak ez dituzten etxeetan. Etxekoen unitateko kide nagusia emakumea den kasuetan, % 28,1 ongizate-gabeziaren arriskuan daude, hau da, ongizatearen gutxieneko mailari eusteko ezinbestekoak diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikoak ez dituzten etzekoen unitateak dira; aldiz, kide nagusia gizona baldin bada, % 12 daude egoera horretan.

2.3.2 POBREZIA-ARRISKUAREN EGOEREN ETA ONGIZATE EGOEREN ERAGINA SEXUAREN ARABERA (ETXEKOEN UNITATEAREN EGOERA)

Mantentze-pobreziaren arriskuak (premia oinarritzkoenei aurre egiteko behar adina diru-sarrera nahikorik ez izatea) eragin handiagoa izaten du kide nagusia emakumezkoa den etxeko unitateetan. Kide nagusia emakumea duten etzekoen unitateekin loturiko pertsonen % 12,6 egoera horretan daude; aldiz, erreferentziako pertsona gizona dutenen kasuan, % 5,8 dira. Kolokatasun

orokorrari dagokionez, kide nagusia emakumea duten etxeen unitateetako pertsonen % 31,8 ongizaterik ezaren arriskuan dago eta kide nagusia gizona dutenen kasuan, % 16,8 dago egoera horretan.

Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2012

2.3.3 ETXEKOEN UNITATEKO KIDE NAGUSIAREN MANTENTZEKO ETA METATZEKO ARAZOEN BANAKETA ETA ERAGINA

Metatze- eta mantentze-pobreziaren arazoaren banaketa eta eragina, etxeoko pertsona nagusiaren sexuaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleak (ehunekotan)

	Emakumeak	Gizonak
Banaketa	36,2	63,8
Eragina	2,5	1,2

Metatze-pobrezia duten familia gehienak bikoteak eta seme-alabek osatzen dituzte (% 42,9), baina bigarren lekuan daude, % 31,3ko ehunekoarekin, guraso bakarria emakumea duten familiak; hala ere, biztanleriaren % 9,5 baino ez dute osatzen. Metatze-pobreziak bereziki familia mota jakin bat hartzen du eraginpean: seme-alabak dituen aita edo ama bakarria. Metatze-pobreziaren tasa % 5era iristen da seme-alabak dituzten amen artean % 3,6koa da seme-alabak dituzten aiten kasuan.


2012an, bakarrik bizi diren emakumeen % 45,1 ongizaterik ezaren arriskua izateko egoeran dago eta % 9,9 pobrezia-arriskuaren egoeran. Gizon bat bakarrik bizi den etxeetan, ongizaterik ezaren arriskuaren eragina emakumeen kasuan baino askoz ere txikiagoa da (% 28,1), baina 2012an pobrezia-arriskua emakumeena baino handiagoa izan da (% 11,3). Joerak antzekoak dira familiak aita edo ama batez eta seme-alabek osatuta badaude. Hori horrela izanik, ongizaterik ezeko arriskuaren eragina handiagoa da seme-alabak dituzten amak bizi diren etxeen unitateen kasuan (% 37,1), seme-alabak dituzten gizonen kasuarekin alderatuta (% 27,9). Dena dela, 2012. urtean pobrezia-arriskua handiagoa da kide nagusia gizona duten guraso bakarreko familien artean (% 20, eta emakumeen kasuan % 19,1).

Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta 2012

3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA

3.1 HEZKUNTZA-BALIABIDEAK

3.1.1 UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO IKASLEAK 2010/2011




Hezkuntza, hein handi batean, pertsonen gizarte-estatusa baldintzatzen duen baliabidea da; izan ere, eragina du lanbidean, eta, beraz, baita diru-sarreretan eta denboraren banaketan ere. Lehen etapan, derrigorrezko hezkuntzan, ikasgeletan mutilek eta neskek duten presentzia ez dago generoen araberako rolek baldintzatuta. 2010/2011 ikasturtean mutikoen eta neskatuen proportzioa antzekoa izan zen, parekotasunekoa. 117.193 ikasle matrikulatu ziren Lehen Hezkuntzan, eta haietako % 51,8 gizonekoa zen. Aldea errendimendu akademikoan sumatzen da; izan ere, neskek mutilek baino emaitza hobeak lortzen dituzte, oro har. Ikasle errepikatzaileen artean gizonen proportzioa handiagoa da emakumeena baino.

Hala ere, hezkuntzarako sarbidean diskriminaziorik ez dagoen arren (eskubide unibertsala eta derrigorrezkoa den aldetik), jakin badakigu bestelako diskriminazioak eta desberdintasunak gainjartzen zaizkiola genero-desberdintasunari eta, horren ondorioz, diskriminazio bikoitz edo hirukoitzeko egoerak ere sortzen dira, ikasleen etnia edo jatorrizko herrialdea aintzat hartuta.

EAEn ez dugu etniari buruzko daturik baina, ijito-etniari buruzko Estatuko azterlanen arabera, desberdintasunak izan badira bai eskolatzean, bai eskola uztean.

Jatorrizko herrialdeari dagokionez, honako taula honetan bereizketa ikus daiteke, modalitate bakoitzean.

3.1.2 IKASLE ATZERRITARRAK, SEXUAREN, JATORRIZKO HERRIALDEAREN ETA HEZKUNTZA MAILAREN ARABERA, 2012




Iturria: Informazio Sistemen Zerbitzua. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

Gizon nahiz emakume, ikasleen metaketa handiena Hego Amerikako herrialdeetan gertatzen dela nabarmendu behar dugu eta, bertan, emakumeen proportzioa handiagoa da gizonena baino. Asia eta Ozeaniako eta Afrika iparraldeko herrialdeetan emakumeen proportzioa txikiagoa da. Herrialde horietan, Helduen Hezkuntzan metatzen diren gizonen ehunekoari buruzko datua nabarmentzen da, irakaskuntza mota hori, oro har, feminizatua egoten baita. Ikasle atzerritarren datu orokorrak mailaren arabera aztertuz gero, fenomeno hori argi eta garbi ikusiko dugu: oro har, Helduen Hezkuntzan matrikulatutako pertsonen % 60 emakumeak dira, baina ikasle atzerritarren kolektiboari erreparatuta, fenomeno alderantzikatu egiten da eta gizonen proportzioa askoz ere handiagoa da Helduen Hezkuntzan (% 59).

Hala ere, sarbide unibertsala bermatzearen, etapa guztietan matrikulatutako ikasle atzerritarrei buruzko datuak egokiak diren jakin beharko genuke, betiere Euskadin bizi den adin eta nazionalitate horretako biztanleriari dagokionez, eta datu hori, gaur egun, ez dugu eskura.


Erdi-mailako LH, adarraren arabera

■ Gizonak ■ Emakumeak



Goi-mailako LH, adarraren arabera, > 150 ikasle


■ Gizonak ■ Emakumeak




Hala ere, **bigarren etapan, nesken eta mutilen arteko bereizketa-prozesua hasten da**, eta, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako espezialitateak aukeratzean, areagotu egiten da bereizketa hori. Lanbide Heziketan ez dago berdintasunik: erdi-mailako Lanbide Heziketan emakumeak % 38,4 baino gutxiago dira, eta % 40,6 goi-mailakoan. Generoen araberako rolen eragina oso handia da adarrak aukeratzekoan, eta generoen arteko aldea handitu egiten da. Hori horrela izanik, 2010/2011 ikasturtean, erdi-mailako Lanbide Heziketako 25 adarretatik bitan soilik betetzen zen parekotasun-printzipioa ikasgelen osaeran: Komunikazioa, Irudia eta Soinua adarrean eta Arte Grafikoak adarrean. Goi-mailako Lanbide Heziketan, ikasleen banaketari buruzko datuak nahiko antzekoak dira.

Erdi-mailako prestakuntzan honako hauek dira adar feminizatuak (gizonak % 20 baino gutxiago dira); **irudi pertsonala, osasuna, zerbitzu soziokulturalak, eta ehungintza, jantzigintza eta larrugintza**. Erdi-mailako LHko ikasleen % 26,45 adar horietan matrikulatuta dago.

Sarbidetutako matrikulatutako ikasleak



Unibertsitate aurreko zein unibertsitateko ikasketetan ere agerian jartzen da ikasleen generoaren araberako espezializazioa. Batxilergoko hautuak baldintzatzen du, printzipioz, unibertsitate-ikasketen aukera. Zientzia eta teknologian soilik betetzen da parekotasun-printzipioa. Izan ere, Arte plastikoak, Irudia eta Diseinua, eta Humanitateak eta Gizarte Zientziak ikasketetan, ikasleen %25-35 gizonetzkoak dira.



Hori horrela izanik, feminizazio nagusiak honako gradu hauetan gertatzen dira: Ingeles ikasketak, Hizkuntza modernoak eta kudeaketa, Biologia, Zuzendaritzako laguntza, Haur Hezkuntza eta Gizarte Lana; 10 ikaslelik 2 baino gutxiago dira, horietan guztietan, gizonak. Arkitekturaren eta Ingeniaritzan, emakumezko ikasleen proportzioa % 25ekoa da, eta titulazio batzuetan parekotasunetik hurbil egon arren, 18 titulazioetatik 9tan maskulinizazioa erabatekoa da, 2 emakume baino gutxiago baitago 10 ikasleko. Unibertsitateko ikasketen artean, diplomaturak dira bereziki emakumeek gehien hautatzen dituztenak. 2009/10 ikasturtean diplomatura ikasten ari zirenen artean, emakumeak % 70,9 ziren. Ingeniaritza teknikoan guztiz alderantzizkoa gertatzen da, 2009/10 ikasturtean matrikulatutako ikasleen % 74,2 gizonak ziren. Iturria:



FAMILIA TRANSMISIOA

2011.		Euskal Herria	AMA-AITA EUSKALDUNAK			
		guztira	biak	ama	aita	ez bata, ez bestea
Euskal Herria	guztira	2.648.998 100	489.129 100	154.998 100	133.416 100	1.871.455 100
Lehen hizkuntza	Euskara	407.841 15,4	399.619 81,7	5.161 3,3	3.061 2,3	
	Biak	128.822 4,9	37.713 7,7	58.027 37,4	28.884 21,6	4.198 0,2
	Beste hizkuntza bat	2.112.335 79,7	51.797 10,6	91.810 59,2	101.471 76,1	1.867.257 99,8

Iturria: Inkesta Soziolinguistikoa. Hizkuntza Politikako Sailburuordetza. 2011

2011ko Inkesta Soziolinguistikoa hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko **transmisioari** buruzko datu garrantzitsuak agertzen ziren: aldea atzematen da ama hizkuntzaren transmisio-mailari dagokionez, gurasoek bikote mistoa osatzen dutenean eta soilik ama denean euskalduna (euskara: % 3.3, bi hizkuntzak: % 37.4) edo soilik aita denean euskalduna (euskara: % 2.3, % 21.6); lehen kasuan transmisioa handiagoa da. Gurasoek transmititutako hizkuntza beste bat den kasuan soilik dute amek portzentajezko garrantzi handiagoa (% 76.1 eta % 59.2)

Datu horrek, hein batean, finkatu egiten du gaur egun oraindik ere emakumeek eta gizonen etxeko eremuan betetzen dituzten rol desberdinak seme-alaben heziketari eta zaintzari dagokienez, baina hala ere aldea ez da oso adierazgarria. Gainera, urteak joan, urteak etorri, aldea murrizten ari da. Datu horri erreparatuta, esan dezakegu aitek horrelako erantzukizunak gero eta gehiago hartzen dituztela beren gain, edo etxeko eremuan aiten presentzia gero eta handiagoa dela.

Transmisioaz gaindi, bada beste adierazle interesgarri bat: euskararen **erabilera** etxean, beste hizkuntza baten hein berean edo gehiago erabiltzen dutenen artean. 2011ko inkestaren arabera, amarekin edo aitarekin izandako erabilerak aztertuz gero, konturatuko gara amarekin erabilera handixeagoa dela (% 16.4) aitekin baino (% 15.9) EAeren eremuan.

Kasu honetan ere, etxeko eremuan rol-aldaketa gertatzen ari dela adieraz dezake bilakaera horrek, eremu soziolinguistikoari dagokionez behintzat.

Zenbait teoria eta azterlan kualitatibotan (zenbait tokiko eremukoak dira) jasotzen denez, genero-rolak garrantzi handia dute euskararen transmisioan eta euskararen erabilera sustatzeko jarreretan; emakumeen eta gizonen hizkuntza-erabileretan modu eta jarrera desberdinak atzematen direla ere aipatzen da eta, bereziki, nerabezaroan.

3.2 OSASUN-BALIABIDEAK

3.2.1 OSASUN ARAZOAK DITUEN BIZTANLERIA


Osasuna funtsezkoa da biztanleentzat. Azken 20 urteetan, osasun-arazoak zituzten pertsonen ehunekoak behera egin du, bai emakumeen artean, bai gizonen artean. Esate baterako, 1989. urtean emakumeen % 10ek eta gizonen % 7,8k osasun-arazoren bat zuten, eta 2009. urtean, berriz, bi puntu gutxiago dira osasun-arazoak dituzten emakumeak, eta puntu bat gutxiago, osasun-arazoak dituzten gizonak.

Evolución porcentaje de población con problemas de salud




3.2.2 KONTSULTETARA JOATEA ETA OSPITALERATZEAK

Kontsulta medikoetara joan diren biztanleak 2009




Ospitaleratzeen batez besteko egonaldia, egunak



Emakumeak osasun zerbitzuen erabiltzaile handiagoak izan ohi dira. Emakumeek gehiago erabiltzen dituzte batez ere osasun-zentroko edo ambulatorioko kontsultetan, baina ospitaleak erabili eta ospitalean egoteari dagokionez, gutxiago erabiltzen dituzte, gizonak baino gutxiago. Esaterako, 2009. urtean, emakumeen % 78,8 joan da azken urtean kontsulta medikoren bat egitera, eta ehuneko 5 gutxiago dira hori egin duten gizonak. 2009ko adierazleek erakusten dute, oro har, emakumeak denbora gutxiago egoten direla, batez beste, gizonak baino (6,72 egun eta 7,48 egun hurrenez hurren).

3.2.3 DROGAMENDEKOTASUNA


Kanabis-kontsumoaren ehunekoaren bilakaera



Drogen kontsumoa pertsonaren osasunari gehien eragiten dion elementuetako bat da. 2010eko datuen arabera, kanabisaren kontsumoa ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. Probatzeko kontsumoa, bizitzan zehar unerren batean egin dena, igo egin da 1992tik: urte hartan % 21,9k egin zuen horrelako kontsumoa, eta iaz, berriz, bizitanleen erdiak baino gehiagok. Kontsumoaren proportzioan bere horretan dirau generoen arteko aldeak: emakumeen % 27k adierazi zuen probatzeko kontsumitu zuela, eta gizonen % 41ek adierazi zuen hori. Iturria: ZIFRAK 2011

3.2.4 SEDENTARISMOA

Batez besteko denbora parte-hartzaile bakoitzeko




Sedentarisismoak pertsonen osasunari eragiten dio. Emakume sedentarioen ehunekoa gizon sedentarioen ehunekoa baino 8 puntu handiagoa da. 2008. urtean, txangoak eta paseoak egiten dituzten gizonak egunean 28 minutu gehiago eman zituzten batez beste horretan emakumeek baino. Datuak ez dira askorik aldatu 1993tik. 2008. urtean, gizon kirolariek kirolean ematen zuten denbora ordu bete eta 40 minutukoa zen, emakumeek ematen zutena baino 20 minutu gehiago. Iturria: ZIFRAK 2011




3.2.5 HBE - HAURDUNALDIAREN BORONDATEZKO ETENDURAK

HBE tasa



HBEak, adin-multzoen arabera




Emakumeekin lotutako alderdi polemikoenetako bat abortuarena da. Estatuko zein Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikek agerian jarri dute borondatez etendako haurdunaldiek gora egin dutela pixkana, 1995. urtetik. EAEn, zehazki, haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasa hirukoiztu baino gehiago egin da azken urteetan: 2,6koa zen 1995ean, eta 7,03koa, berriz, 2009an. Dena dela, autonomia-erkidegoen artean, haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasa txikienak dituzten erkidegoetako bat da EAE, 7,26 puntuko tasa du eta. Adin-taldeen arabera, adierazlerik altuena (12,64) 20 urtetik 24ra bitarteko emakumeei dagokie. 2009. urtean, haurdunaldiaren borondatezko etendura egiteko emandako arrazoi nagusia (kasuen % 92,3) haurdun zegoenaren osasun fisikoa edo psikikoa arriskuan egotea zen. Iturria: ZIFRAK 2011

3.3 KULTURA- ETA KIROL-BALIABIDEAK


3.3.1 KIROLA EGITEA

Egiten den kirol modalitatea



Emakumeek kirola egiteko duten arrazoi nagusiak hauek dira: lirain egoteko (emakumeen % 36) eta ongi pasatzeko (% 26). Gizonen artean, arrazoi nagusia ongi pasatzea da (% 50), eta lirain egotea bigarren lekuan dago (% 17). Emakumeen artean, hauek dira kirol mota nagusiak: gimnasia, aerobic, fitness eta yogak osatutako multzoa, eta ondoren, ibiltzea. Gizonen artean, gehien egiten den kirola futbola da, eta haren atzetik, ibiltzea. Iturria: ZIFRAK 2011.

Federatutako pertsonak modalitatearen arabera (> 3000 pertsona)



Kirola egitea federatuta: **Euskadin kiroletan federatutako pertsonen % 10 soilik dira emakumeak.** Lau kiroletan soilik dago parekotasuna: hockeyan, neguko kiroletan, hipikan eta boleibolean. Kirol bat oso feminizatua dago, gimnasia, eta gainerakoak, berriz, maskulinizatuak. 14 kiroletan, emakumeen federazio-fitxak ez dira iristen % 10era ere. Horien artean, hauek nabarmentzekoak dira, komunikabideetan duten oihartzuna dela eta: txirrindularitza (261 emakume federatu eta 6.935 gizon federatu) eta euskal pilota (151 emakume federatu eta 2.557 gizon federatu). Iturria: ZIFRAK 2011.

3.3.2 KULTURA-JARDUERAK

Oro har, kultura-jarduera guztiek dute sexuaren arabera banaketa nahiko orekatua.

Irakurketari dagokionez, normalean aisia-liburuak eta aldizkariak irakurtzen dituzten emakumeak gehiago dira, baina alderantziz gertatzen da egunkariak irakurtzeko orduan, gizonak emakumeak baino % 13 gehiago baitira.

Musika-jarduerari dagokionez, banaketa orekatua den arren, gizonen proportzioa handiagoa da ikuspegi guztietan, bai musika entzun eta erostean bai eta kontzertuetara joatean ere.

Emakumeen proportzioa nabarmen handiagoa da **antzerkira, lirikara eta dantzetara** joateko jardueretan, bereziki dantza-jardueretan, bertan nabaria dela generoen arteko desoreka.

3.3.3 HESI DIGITALA

2012ko datuen arabera, hamabost urtetik gorako emakumeen % 63,7 Interneteko konexioa duten etxeetan bizi da. Lau urte lehenago, 2007. urtean, % 48,8 baino ez zegoen egoera horretan.

Etxean Internet duen 15 urte eta gehiagoko EAeko biztanleria, sexuaren eta adinaren arabera eta Lurralde Historikoaren arabera (%) 2012 izeneko inkestan ez da bereizten adinaren aldagaia sexuaren arabera, baina hala ere, etxean internetera sarbidea duten biztanleen artean dagoen genero-arraila areagotu egingo dela pentsa daiteke urte gehiagoko biztanleen kasuan. Hona hemen datu bat: 15-24 urteko biztanleen % 93,1ek badu Internet etxean, baina 45 urte edo gehiagoko pertsonen kasuan, erdia baino pixka bat gehiago baino ez dira.

Egia esan teknologia berrien erabileran hesi digitala egon badagoela esan dezakegu eta, gainera, hesi digitalaren genero-aldea areagotu egiten da adinean aurrera egin ahala. Gazteen artean, hesi digitala ez da hain handia teknologia berrien sarbidean edo ezagutzan, baina bai teknologia horien erabileran. Adineko emakumeek «deskonektatuta» geratzeko arrisku handia dute, teknologia berriek lanerako, bizitza pertsonalerako eta gizarte-bizitzarako eskaintzen dituzten aukera eta potentzialtasunetatik deskonektatuta.



4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA


4.1 PARTE-HARTZEA ERAKUNDEETAN

4.2 PARTE-HARTZEA BESTE ORGANO BATZUETAN


4.1 PARTE-HARTZEA ERAKUNDEETAN

4.1.1 EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSAERA

Emakumeak eta Gizonak Legebiltzarreko taldeetan



Eusko Legebiltzarreko presentziaren bilakaera



Eusko Legebiltzarrean emakumeen presentzia % 44 da egungo legealdian; aurreko legealdian % 45,33 zen eta VIII.lean, aldiz, % 53,3. PSE-EE, Popularrak eta EH Bildu taldeek soilik betetzen dute parekotasun-printzipioa eta azken talde hori da gizon baino emakume gehiago dituen legebiltzarreko talde bakarra. Aipatu behar da UPD alderdiak ez duela emakumezko ordezkariarik legebiltzarrean. Legebiltzarrean ordezkari gehien dituen alderdiak, EAJ-PNV alderdiak ez du ordezkari-tza orekatua emakumeen eta gizonen artean.


Aipagarria da, era berean, Eusko Legebiltzarreko burua emakumezkoa dela, aurreko bi legegintzaldietan bezala.

Iturria: Bertan eginda, Eusko Legebiltzarrean webgunean oinarrituta.



4.1.2 BATZAR NAGUSIEN OSAERA

Batzar Nagusien osaera




Gizonen eta emakumeen parekotasun printzipioa hiru foru-erakundeetan betetzen den arren, emakumezko batzarkideen kopurua batean ere ez da gizonezko batzarkideen kopurua baino handiagoa. Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusietan emakumezko bana da buru, baina ez Arabakoetan.

Erakunde horietako botere betearazlea gizonen esku dago oraindik, hiru ahaldunak gizonak baitira.

Iturria: Bertan eginda, Batzar Nagusietako webguneetan oinarrituta.

4.1.3 EAEko UDALAK

Alkateen eta zinegotzien ehunekoak



Historian lehenengoz, mugetatik hurbil egon arren, EAEko udaletako zinegotzigoen osaerak parekotasun printzipioa betetzen du. Alkatetzekin ez da gauza bera gertatzen, desoreka handia baitago gizonen alde, alkateen % 77,06 gizonezkoak baitira.

2011ko maiatzaren 22ko azken hauteskundeetan, zerrenda guztien osaerak parekotasun zuzena zuen, ordezkariaren % 40. Hala ere, emakume gehienak leku zailetan zeuden, "leku ziurrak" izenekoetatik urrun.

Emakumezko alkatea duten udalerrri gehienak txikiak dira. EAEn 56 emakumezko alkate daude, eta horietako 31 2.500 biztanle baino gutxiagoko udaletan dabilta. EAEko hiriburu batek ere ez du inoiz emakumezko alkaterik izan, eta 2011ko azken hauteskundeen ondoren ere ez dauka. EUSTATen azken erroldaren arabera handienak diren 10 udalerrietako batek ere ez du emakumezko alkaterik.

Alkate horien alderdi politikoei dagokienez, aipatzekoa da Euskadiko Alderdi Sozialistak (PSE) eta Alderdi Popularrak (PP) ez dutela emakumezko alkaterik EAEn. Aldiz, emakumezko alkateen % 65,5 (35 guztira) Bildukoak dira, eta EAJk 16 emakumezko alkate ditu (guztizko kopuruaren % 28,57). Emakumezko gainerako alkateak, 5 guztira, talde independenteetakoak dira.



4.1.4 EUSKO JAURLARITZAKO GOI-KARGUDUNAK

Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, sexuaren arabera. 2013					
	Guztira /Abs.	Emakumeak		Gizonak	
		Abs.	%	Abs.	%
Sailburuak	9	4	% 44,44	5	% 55,56
Sailburuordeak / Idazkari nagusiak	28	7	% 25	21	% 75
Zuzendariak	104	39	% 37,5	65	% 62,5

Iturria: Bertan eginda, www.euskadi.net aztertu eta sailei galdetu ondoren (kontsultaren data: 2013ko otsaila)³

Eusko Jaurlaritzak 8 sail eta Lehendakaritza ditu gaur egun, eta 4 dira emakumezko sailburuak. Lehendakaritza saileko burua lehendakaria da. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak 28 Sailburuordera eta idazkaritza nagusi ditu eta horietako % 25en soilik da emakume bat buru; beraz, parte-hartze orekatuaren printzipioa ez da betetzen, argi eta garbi. Hiru Sailetan (Ogasuna eta Finantzak, Segurtasuna, eta Ingurumena eta Lurralde Politika) ez dago emakumezko sailburuorderik, eta ez dago sail bat bera ere emakumezko sailburuorde gehiago dituenik gizonetzkoak baino. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila da emakumezko eta gizonetzko goi-kargudunen kopuru berdina duen sail bakarra.


Zuzendaritzetara dagokienez, egungo Jaurlaritzak ez du betetzen emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatuaren printzipioa ere; izan ere, emakumezko zuzendariak % 37,5 dira eta gizonetzkoak, aldiz, % 62,5

³ Txosten hau egin dugunean, eta legealdi berriaren hasieran gaudenez, goi-kargudun guztiak izendatu gabe zeuden oraindik.

4.2 PARTE-HARTZEA BESTE ORGANO BATZUETAN

4.2.1 IBEXeko ENPRESEN ETA FINANTZA ERAKUNDEEN ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK

Administrazio Kontseiluak edo Zuzendaritza Nagusiak



IBEX 35 osatzen duten euskal enpresei dagokienez (BBVA, GAMESA eta IBERDROLA), datuek diote guztietan direla gizonetzkoak presidenteak, eta Administrazio Kontseiluetako % 85 baino gehiago gizonetzkoak direla.

Finantza-erakundeetan, erabaki-guneak ia erabat daude gizonetzkoen esku. Hala, Euskadiko finantza-erakunde nagusiek gizonetzkoak presidenteak dituzte. Era berean, zuzendaritza-batzordeetan ere oso emakume gutxi dago. BBK erakundeak du emakume gehien zuzendaritzan, baina hala ere ez du parekotasun-printzipioa betetzen. Beste muturrean daude BBVA, Ipar Kutxa eta Banco Guipuzcoano: erakunde horietan, ez dago emakumerik zuzendaritza-organoetan, edo bakarra dago.

4.2.2 UGAZABAK

Confebask, Cebek, Adegí eta Sea-ko presidenteak gizonetzkoak dira, eta horrek esan nahi du emakumeen ordezkartza % 0koa dela. Lau idazkari nagusiak aztertuta, Bizkaikoak bakarrik dauka emakume bat, eta horrek esan nahi du emakumeen ordezkartza % 25koa dela.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Komunikazio Gida

4.2.2 ENPRESA ETA LANBIDE ELKARTEAK

Hiru Lurralde Historikoetako elkargo profesionalak, sexuaren arabera

	Guztira			Emakumeak		Gizonak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
ARABA	28	6	% 21,42	28	% 78,58		
BIZKAIA	48	5	% 10,4	48	% 89,59		
GIPUZKOA	32	5	% 15,62	32	% 84,39		


Iturria: Bertan eginda, Eusko Jaurlaritzaren Komunikazio Gida oinarri hartuta (azken eguneratzea: 2011ko maiatza)

Elkargo profesionalak pertsonen interesak defendatzen dituzte, duten titulazioaren arabera. Guztira 108 elkargo daude, eta % 14,81etan bakarrik dira emakumezkoak burua. Bizkaia nabarmendu behar da, guztizko kopuruaren % 10,41 baino ez baitira emakumezkoak.

Aipatutako gidan aztertutako 19 enpresa-elkarteetatik 16tan (% 84,21) gizonezkoak dira buruak, eta 3tan bakarrik dira emakumezkoak elkarte horietako buru EAE guztian.

Gainera, merkataritza-ganberak, Bilboko Burtsa eta azokak ere aztertu dira, eta horietan guztietan (10) gizonezkoak dira buruak. Emakumeen eremu honetan duten presentzia erabat ezdeusa da.

4.2.3 KIROL-ARLOKO ORGANOAK



Kirol-arloko organoetan dauden gizonen ehunekoa (% 80) emakumeena (% 20) baino nahiko handiagoa da.

4 organo edo batzordeetan gizonak dira nagusi eta, gainera, horietako batean (Kirolaren Euskal Kontseiluan) ez dira betetzen legez ezarritako ordezkartza orekatuaren ehunekoa; aitzitik, beste bitan ehunekoa parekotasunerako joera dute. EAEko kirol-federazioen presidenteen % 96 gizonezkoak dira.



4.2.4 SINDIKATUAK

Sindikatu garrantzitsuenen Idazkaritza Nagusiak eta Batzorde Eragileak, sexuaren arabera. 2011

	Idazkari nagusia		Batzorde Eragilea				
	Emak.	Gizonak	Emakumeak		Gizonak	Guztira	
	Abs.	Abs.	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
ELA	0	1	4	36,4	7	63,6	11
LAB	1	0	6	60,0	5	50,0	10
UGT	0	1	3	30	7	70	10
CCOO	0	1	7	30,4	16	69,6	23

Iturria: Zifrak 2011

Euskadin gehiengoak duten sindikatu etako batzorde eragileen osieran ere gizonetzkoak dira nagusi. LAB da gobernuan emakumeen presentzia orekatua duen sindikatu bakarra.

Nekazaritzako sindikatuen artean, EHNE Konfederazioa da zuzendaritza-organoen osieran parekotasun printzipioa betetzen duen bakarra, 3 emakume eta 3 gizon baititu.

4.2.5 PARTE-HARTZEA UNIBERTSITATEETAN

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateetan (Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea) gizonetzkoak dira zuzendariak. Hiru idazkaritza nagusietatik bitan emakumeak dira buruak. Bestalde, emakumeek zuzendaritza-kontseiluetan duten ordezkariak txikia da: % 2 Deustuko Unibertsitatean, heren bat Euskal Herriko Unibertsitatean, eta % 37 Mondragon Unibertsitatean.

4.2.6 PARTE-HARTZEA INGURUMEN- ETA LURRALDEAREN ANTOLAMENDU-ARLOETAKO BATZORDE ETA KONTSEILUETAN

Gaur egun, Batzorde eta Kontseilu guztiak eratze-prozesuan daude. Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen kasuan, izendapenik egin gabe dagoen arren, gaur egun emakumeak % 45 dira eta gizonak % 55. 2012. urtean, INGURUMEN BATZORDEA: % 17 emakumeak. INGURUMENERAKO AHOLKU KONTSEILUA: % 36 emakumeak. NATURZAINZTA: % 18 emakumeak.

5. ERANTZUKIDETASUNEZKO GIZARTE-ANTOLAKUNTZA


5.1 DENBORAREN ERABILERA

5.1.1 ETXEKO LANAK EGITEN ETA PERTSONAK ZAINTZEN EMANDAKO DENBORA

EUSTATEk egindako Denbora-aurrekontuen inkestan (2008) azaldutakoaren arabera, emakumeek batez beste 3 ordu eta 33 minutu ematen dute etxeko lanak egiten, gizonek ematen dutenaren bikoitza baino gehiago (ordu 1 eta 29 minutu).

Etxean pertsonak (umeak eta mendeko pertsonak) zaintzeari dagokionez, batez beste 2 ordu eta 18 minutu ematen dituzte emakumeek egunean, eta gizonen batez besteko denbora ordu 1 eta 41 minutukoa da.

5.1.2 JARDUERA GUZTIETAN EMANDAKO DENBORA



Denboraren banaketa desberdina egiten dute emakumeek eta gizonek. Euskadin, 2008. urtean, etxeko lanaz eta etxeko pertsonen zaintzaz bestelako jardueretan denbora gehiago ematen zuten gizonek emakumeek baino. Azken 15 urteetan, generoen arteko aldea jarduera hauetan murriztu da gehien: lana eta prestakuntza eta etxeko lanetan. Baina aldeak handiak dira oraindik ere, emakumeek 2 ordu eta 6 minutu gehiago ematen baitituzte etxeko lanetan eta gizonek 17 minutu gehiago lana eta prestakuntzan.




5.1.3 EMAKUMEEN ETA GIZONEN JOAN-ETORRIAK, MODUA ETA MOTA

Sarbidea, erabilera, premia eta garraio mota desberdinak dira gizonen eta emakumeen artean genero-arrazoia direla-eta. Baliabideen erabilera orekatuagoa mugikortasun-arazo handienak dituzten pertsonen mesedetan izango da, lan-arrazoientatik zein eguneroko bizitzarekin lotutako gaiengatik.

Batez besteko lanegun batean, 6 urte baino gehiagoko herritarren % 89,5ek egun batez beste 3,05 joan-etorri egiten ditu. Emakumeen mugikortasuna (3,08) gizonena baino zertxobait handiagoa da (3,01).

Herritarrek joan-etorriak egin behar dituztenean, gehienetan oinez ibiltzen dira (guztirakoaren % 44,8). Gainera, automobila baino gehiago erabiltzen hasi da, gizonak autoa erabiltzeko joera handiagoa duten arren (gizonak % 44,8 eta emakumeak % 27,5). Mota, bizikleta eta autobusen zerbitzu bereziak erabiltzeari dagokionez, gizonak emakumeek baino gehiago erabiltzen dituzte. Oinez eta bizikletaz ibiltzea dira modu iraunkorrak eta, hain justu, modu horiek erabiltzeko ohitura hartu dute EAEko herritarrek, egin behar dituzten joan-etorri berri gehienetarako. Ildo beretik, emakumeak joan-etorri gutxiago egiten dituzte bizikletan gizonak baino (1,1 puntu gutxiago emakumeek).



Iturria: EAEko mugigarritasunaren azterketa, 2011.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila (Vitoria-Gasteiz, 2012)

Okupazioarekin loturiko edo derrigorrezko mugikortasuna da oraindik ere joan-etorriak eragiten dituen arrazoi nagusia (% 49,6). Laneko mugikortasunak % 37,3 osatzen du. Gizonen eta emakumeen arteko alderik handiena lanak eragindakoa da; gizonen kasuan handiagoa da (ehuneko 14 puntu). Emakumeen kasuan, etxeko erosketak egitea (% 8,2) (emakumeen ehuneko 8 puntu handiagoa da gizonena baino), etxeko gestioak eta hirugarrenei laguntzarekin loturiko jarduerak dute garrantzi handiena, gizonekin alderatuta. Horrek esan nahi du oraindik ere etxeko eta familia-unitateari laguntzeko jarduera gehienak emakumeen gain geratzen direla.

Bi kasuetan, aisialdia da joan-etorriak eragiten dituen bigarren arrazoi (% 23,4) eta, kasu horretan, kuota ia parekatu egiten da (emakumeen kasuan joan-etorriak % 23,3 dira eta, gizonen kasuan, % 23,4); ikasketen kasuan ere beste horrenbeste gertatzen da (% 12,3).

5.1.4 AISIA-JARDUERAK

Mutil gazteen ehunekoa neska gazteena baino handiagoa da aisia-jardueren artean honakoak aipatzean: musika entzutea, kirola egitea, etxean ordenagailuarekin entretenitzea, diskoteka eta dantza-aretoetara joatea, bideo-kontsolekin jolastea, mendira joatea, litroak edatea, kirol-ikuskizunetara joatea, joko-aretoetara joatea, cyber-era joatea.

Ematen du mutilen artean, oro har, kirol-jarduerak, informatikarekin zerikusia dutenak eta jaiarekin lotutako soziabilitatea dutenak nagusitzen direla.

Neska gazteen ehunekoa mutil gazteena baino handiagoa da aisia-jardueren artean honakoak aipatzean: lagunekin egotea, bikotekidearekin egotea, telebista, bideoak eta DVDak ikustea, taberna eta kafetegietara joatea, deskantsatu eta ezer ez egitea, familiarekin egotea, paseatu edo kalean egotea, irakurtzea, ikuskizunetara joatea, telefonoz hitz egitea edo SMSak bidaltzea, dendetan edo erosketetan aritzea, kultura-jarduera zehatzen bat egitea.

Nesken kasuan aipagarriak dira kultura-jarduera zehatzak, parekoen taldearekin, bikotekidearekin eta familiarekin lotutako soziabilitatea, ikus-entzunezkoen kontsumorako jarduerak, eta atsedenarekin lotutako beste jarduera lasaiago batzuk.

5.1.5 SEDENTARISMOA

“Impacto del cuidado informal en la salud y la calidad de vida de las personas cuidadoras: análisis de las desigualdades de género” azterlanari jarraiki, (Larrañaga I., Martín U., Bacigalupe A., Begiristain J.M., Valderrama M.J. eta Arregi B.), emakumezko zaintzaileek sedentarismo-tasa handiagoak aipatzen dituzte, bai eta lotarako ordu gutxiago eta atseden hartzeko denbora gutxiago dutela ere, betiere gizon zaintzaileekin alderatuta. Osasun mental txarra izateko arriskua 1,9 aldiz handiagoa da emakume zaintzaileengan zaintzen ez duten emakumeengan baino, eta ehuneko hori % 1,7koa da gizonezkoen kasuan.



5.2 ZAINTZARAKO ZERBITZUAK

5.2.1 0-2 URTEKO ADINGABEAK ZAINZeko LEKUAK

2008an 0-2 urteko 54.000 ume inguru zeuden eskolatzeko adinean, eta 34.000 leku inguru eskaini ziren; beraz, % 63koa izan zen adin-talde horretarako estaldura. 0 urteko umeentzat 4.000 leku baino gehiago eskaini ziren, baina aipatzekoa da adin horretan eskolatzeko moduko 13.000 ume baino gehiago daudela.

2006. urtean 0-5 urteko 3.500 adingabe inguru, hau da, adin horretako adingabeen % 2,4, ez ziren haurtzaindegira edo haur-eskolara joan inguruan lekurik ez zegoelako, egokitutako plazarik ez zegoelako, ordutegia egokia ez zelako edo garestia zelako. Adingabe horien % 43, ia 1.500 ume, ez zegoen eskolatuta inguruan lekurik ez zegoelako.

5.2.2 HAURTZAINDEGIAN EDO HAUR ESKOLAN LEKURIK LORTU EZ DUTEN ETXEKOEN UNITATEAK

2006. urtean 0-5 urteko 3.500 adingabe inguru, hau da, adin horretako adingabeen % 2,4, ez ziren haurtzaindegira edo haur-eskolara joan inguruan lekurik ez zegoelako, egokitutako plazarik ez zegoelako, ordutegia egokia ez zelako edo garestia zelako. Adingabe horien % 43, ia 1.500 ume, ez zegoen eskolatuta inguruan lekurik ez zegoelako.

5.2.3 FAMILIA ETA LANA UZTARTZEA

. Errealitatea ikusita, ezinbestekoa izan da lana eta familia uztartzearen gaia aztertzea. Uztartzea, zalantzarik gabe, erronka garrantzitsuenetako bat da lan-merkatua osatzen duten eta, era berean, beste pertsona batzuk zaindu behar dituzten pertsonentzat. Halaxe dago berretsita "EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa" izeneko txosten kualitatiboan. Datu kuantitatiboek diote 2009. urtean soldatapeko biztanleen % 16,7k zailtasunak zituela lan-ordutegia eta familia eta gizarteko gainerako beharrak egoki uztartzeko. Gainera, korrelazioa ikusi da lanera ez agertzearen eta uztartzeko arazoaren artean. Gauzak horrela aipatu behar da 2008an EAEko etxeen % 12,6k ekonomikoak ez diren arazoak dituela adingabeak edo adineko pertsonak zaintzearekin



lotuta, esaterako haurtzaindegian lekurik ez egotea, zaintzaileak kontratatzeko zailtasunak, arreta emateko gehiegizko karga... Kasuen % 8 problematika garrantzitsua direla esaten da.

Gogoan izan behar da emakume gehienak eremu publikoan sartzeak ekarri duen aldaketa sozialak ez diela berdin eragin familia-sistemako kide guztiei.

Emakumeen eta gizonen artean ez dago erantzukidetasun nahikorik etxeko gaiez artatzeko orduan, eta ondorioz generoen artean ezberdintasunak daude uztartzeko arazoekin lotuta. 2009an emakumeen % 21,1ek gehieneko lan-kargari egin behar dio aurre, lanekoari eta familiakoari. 25 eta 64 urte bitarteko emakumeen % 10,4k uneren batean lanen bat utzi dute familian lan gehiegi zutelako edo seme edo alabaren bat jaio zelako, eta horrek EAEko etxeen % 8,1 esan nahi du. 25 eta 64 urte bitarteko emakumeen % 5,4k uneren batean lana eten dute azken hiru urteetan familian lan gehiegi zutelako edo seme edo alabaren bat jaio zelako.

Mendetasun-egoeran dauden pertsonak gero eta gehiago izaki, testuinguru berriak erantzun egokiak eskatzen ditu. 2008ko Familiari buruzko Inkestaren arabera, desgaitasunen bat edo mugak izanik, laguntza etengabe behar duten pertsonen % 65 zuzenean familiak zaintzen du, % 17 kanpoko langile batek, % 10 Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuak eta % 4 Eguneko Zentroetan.

Uztartzea erronkatzat hartu behar da, gizarte osoak aurre egin beharreko erronkatzat: etxeko lanetan eta pertsonak zaintzeko zereginetan gizonak zer eginkizun bete behar duten, enpresak langileen familia-premietara egokitu beharko dute, eta erakundeek zerbitzu soziokomunitarioen garapenean zer eginkizun bete behar duten.



6. INDARKERIA

ADIERAZLEA	URTARRILA-ABENDUA 2012
Bikotekidea edo bikotekide ohia alde batera utzita, familia barruko indarkeriagatik biktimizatutako emakumeen kopurua, EAEn	923
Bikotekideak eta/edo bikotekide ohiak emakumeen kontra egindako genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, EAEn	793
Sexu-askatasunaren kontrako delituengatik biktimizatutako emakumeen kopurua, EAEn	213
Sexu-askatasunaren kontrako delituen biktima diren emakumeak, EAEn	210
Bikotekideak edo bikotekide ohiak hildako emakumeen kopurua, EAEn	2
Sexu-askatasunaren kontrako delituengatik biktimizatutako emakumeen kopurua	213
Genero-indarkeria dela-eta bizkartzaina duten emakumeen kopurua	61
Genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatu duten eta alokairu-erregimeneko etxebizitzak esleitzeko prozesuetan aktiboki parte hartzen ari diren emakumeen espediente-kopurua	315
Genero-indarkeriaren biktima diren eta salbuespena aurkeztu duten emakumeen espediente-kopurua	12
Genero-indarkeriaren biktima diren eta etxebizitza-zozketetan alokairuko etxebizitzaren esleipendun izan diren emakumeen espediente-kopurua	2
Genero-indarkeriaren biktimei alokairu-erregimenean egindako zuzeneko esleipen-kopurua	12
Lehen mailako arretan atzemandako kasu-kopurua	362
Ospitaleetan atzemandako kasu-kopurua	69

EAEn, 16 urte edo gehiagoko emakumeen % 12,5ek dio indarkeria matxista pairatu izan duela inoiz, eremuren batean (bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik, familia barruko genero-indarkeria, lanean edo gizartean, edo espazio publikoan).

Emakumeek emakume izateagatik pairatzen duten indarkeriaren arrazoi nagusia honako hau da: patriarkatuaren sustraiak ongi errotuta dituen gizarte batean berezkoak diren kulturaren arloko eta egiturazko desberdintasuna; horren ondorioz, pertsonen arteko harremanak ezartzen direnean nagusitasun- eta kontrol-egoerak gertatzen dira oraindik ere, bai eta errealitate konplexuagoak ere eta, kasu askotan, bikote-harremanetara ere zabaltzen dira.



3.- ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN SEXUAREN ARABERAKO ORDEZKARITZARI BURUZKO AZTERKETA

Txosten hau egitean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen osaera aztertu behar izan da, erakundearen berdintasuna norainokoa den eta erantzukizunak eta erabakiak hartzeko maila ezberdinetan arduraduna nor den jakitearren. Gauzak horrela, EAEko Administrazio Orokorreko funtzionarioen eta lan-kontratupeko langileen sexuaren arabera banaketa aztertu da kapitulu honetan.

Azterketa honek, bestalde, aukera ematen du genero-eraginari buruzko txostenaren egiturari beharrezkoa den edukietako bat betetzeko, hau da: emakume eta gizonen partaidetza araua egiteko prozesuan. Horri dagokionez aipatu behar da atal honetan aipatutako taldeak alde batera utzita, ez dela ikusi arau hau egiten parte hartu duen beste talderik.

Aztertu diren taldeak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako langileen banaketa, sexuaren arabera.
- Unibertsitateaz kanpoko irakasleen banaketa, sexuaren arabera
- Osasun-erakundeetako langileen banaketa, sexuaren arabera
- Segurtasun-kidegoen banaketa, sexuaren arabera Ertzaintza
- Justizia Administrazioa langileen banaketa, sexuaren arabera



**1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO
ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOETAKO LANGILEEN ETA GOI-
KARGUDUNEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.**

**1.1 Eusko Jaurlaritzako eta organismo autonomoetako goi-kargudunak,
sexuaren arabera.**

Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunak, sexuaren arabera. 2013					
	Guztira /Abs.	Emakumeak		Gizonak	
		Abs.	%	Abs.	%
Sailburuak	9	4	% 44,44	5	% 55,56
Sailburuordeak / Idazkari nagusiak	28	7	% 25	21	% 75
Zuzendariak	104	39	% 37,5	65	% 62,5

Iturria: Bertan eginda, www.euskadi.net aztertu eta sailei galdetu ondoren (kontsultaren data: 2013ko otsaila)⁴

Eusko Jaurlaritzak 8 sail eta Lehendakaritza ditu gaur egun, eta 4 dira emakumezko sailburuak. Lehendakaritza saileko burua lehendakaria da. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak 28 Sailburuordetza eta idazkaritza nagusi ditu eta horietako % 25en soilik da emakume bat buru; beraz, parte-hartze orekatuaren printzipioa ez da betetzen, argi eta garbi. Hiru Sailetan (Ogasuna eta Finantzak, Segurtasuna, eta Ingurumena eta Lurralde Politika) ez dago emakumezko sailburuorderik, eta ez dago sail bat bera ere emakumezko sailburuorde gehiago dituenik gizonezkoak baino. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila da emakumezko eta gizonezko goi-kargudunen kopuru berdina duen sail bakarra.

Zuzendaritzei dagokienez, egungo Jaurlaritzak ez du betetzen emakumeen eta gizonen ordezkarietza orekatuaren printzipioa ere; izan ere, emakumezko zuzendariak % 37,5 dira eta gizonezkoak, aldiz, % 62,5

⁴ Txosten hau egin dugunean, eta legealdi berriaren hasieran gaudenez, goi-kargudun guztiak izendatu gabe zeuden oraindik.

1.2 Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera.

FUNTZIONARIOAK. Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak. 2011

	A1		A2		C1		C2		E		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Karrerako funtzionarioak	510	410	192	180	217	337	263	1144	308	145	1490	221
Bitarteko funtzionarioak	299	560	68	82	96	237	70	295	77	75	610	124
GUZTIRA	809	970	260	262	313	574	333	1439	385	220	2100	346

LAN-KONTRATUPEKO LANGILEAK. Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak. 2011

	Goi-mailako tituluduna		Erdi-mailako tituluduna		Bestelako tituludunak		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	115	121	45	63	221	236	381	420
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	43	146	14	42	120	169	177	357
Behin-behinekoak	5	11	0	1	3	7	8	19
GUZTIRA	163	278	59	106	344	412	566	796

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila.

Ehunekoei dagokienez, Euskadiko Administrazio Orokorrearen zerbitzura dauden langileen % 61,52 emakumeak dira eta % 38,48 gizonak; horrek esan nahi du administrazioa gero eta feminizatuagoa dagoela. Administrazioko langileen artean 867 langile gehiago daude azken urtean eta horietatik 667 emakumeak izan dira eta 200 gizonak.

Aurreko urtearekin alderatuta, bitarteko funtzionario gutxiago daude eta karrerako funtzionario gehiago; fluxu-mugimendu hori 2010eko EPEaren ondorioa da, 2012an amaitu baita. 2012an lan-kontratupeko langileen kopuruak gora egin du urte horretan hainbat eskumen lortu direlako eta, bereziki, Lanbiderena, plantillan ia % 20ko hazkundera eragin baitu.

Administrazioko goi-mailetan (A1eta A2) gizon gehiagok lan egiten du emakumeek baino, baina azken urteotan alde hori murriztu egin da. Bestalde, orokorrean emakumeen lan-arloko ezegonkortasuna administrazioan gizonena baino nabarmen handiagoa dela: lan-arloko ezegonkortasuna duten administrazioko langileen (bitarteko funtzionarioak, eta aldi baterako eta

behin-behineko kontratupekoak) ia % 70 emakumezkoak dira. Nabarmentzekoa da C2 taldean gero eta emakume gehiago daudela, emakumeen gehiegizko ordezkaritza % 81,20ra iristen baita.

2- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASLEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

2.1 Irakasleak, taldearen eta sexuaren arabera: haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, helduen hezkuntza, hezkuntza berezia

Irakasleak, taldearen eta sexuaren arabera.					
EMATEN DITUZTEN MAILAK	EMAKUMEAK		GIZONEZKOAK		GUZTIRA
	Abs	%	Abs	%	Abs
GUZTIRA	26.617	72,89	9.899	27,11	36.516
Haur hezkuntza - lehen hezkuntza	15.717	85,50	2.666	14,50	18.383
Bigarren hezkuntza	9.356	59,14	6.463	40,86	15.819
Helduen hezkuntza	505	69,85	218	30,15	723
Irakaslanik gabea	1.039	65,30	512	34,70	1.591

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2011-2012.

Irakasleen osaerari dagokionez, emakume asko ari dira lanean unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, batez ere lehen eta bigarren hezkuntzan. Batez ere emakumezkoak dira alor honetan lanean dabiltzanak, irakaskuntza pribatuan zein irakaskuntza publikoan. Guztira 36.516 pertsona dabilta irakasle lanetan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, eta % 72,89 emakumezkoak dira. Emakumeen presentzia bereziki nabarmena da irakaskuntza-mota bitan, hau da, haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan batetik, eta hezkuntza berezian bestetik.

Gauzak horrela, aipatzekoa da haur-hezkuntza eta lehen hezkuntzaren eremua: bertako irakasleen % 14,50 baino ez dira gizonezkoak eta, ondorioz, ikasleek ia ez dute erreferentzia maskulinorik irakaskuntzaren maila horretan.

Lanbide-heziketari dagokionez, irakasle gehienak gizonezkoak izateak eragina du bai ikasleengan baita irakasleengan ere. Unibertsitate aurreko irakaskuntza osoan honetan bakarrik da gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa, ehuneko oso adierazgarriekin, joera alderantzikatzen dela.

Erabaki-guneetarako sarbideari dagokionez, emakumeen presentzia oso handia denez sektorean, errazagoa da emakumeak ikastetxeetako zuzendaritza-lanpostuetan egotea, eta datuek diote banaketa orekatua dela. Hezkuntza Sailak datozen 4 urteetarako ikastetxeetako zuzendaritza-lanpostuetarako egin dituen izendapenei buruzko azken datuen arabera (2009ko



uztailekoak), 2009an egin ziren 174 izendapenetatik 83 (% 47,7) emakumezkoak dira eta 91 (% 52,3) gizonezkoak.

3- OSASUN-ERAKUNDEETAKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

3.1 Osasun-erakundeetako osasun-langileak, taldearen eta sexuaren arabera.

Osasun-erakundeetako funtzionarioak eta estatutupeko langileak, taldearen eta sexuaren arabera. 2011										
	A1		A2		C1		C2		TOTAL	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Estatutupeko langile finkoa / Karrerako funtzionarioa	2.208	2.272	519	5.350	67	642	111	2.730	2.805	8.994
Estatutupeko aldi baterako langilea	310	569	69	946	9	78	11	338	399	1.931
GUZTIRA	2.518	2.841	588	6.296	76	720	122	3.068	3.204	10.925

Osasun-erakundeetako lan-kontratupeko langileak, taldearen eta sexuaren arabera. 2011									
	Goi-mailako titulazioa		Erdi-mailako titulazioa		Bestelako tituludunak		GUZTIRA		
	G	E	G	E	G	E	G	E	
Lan-kontratupeko langile finkoak	200	93	60	816	70	658	33	156	
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	1	2	0	4	0	4	1	10	
GUZTIRA	201	95	60	820	70	661	33	157	

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

EAEko osasun-langileen sexuaren araberako banaketa ez dago orekatuta, langileen % 77,86 emakumezkoak baitira. Emakumeen gehiegizko ordezkartza maila guztietan gertatzen da, A1 mailari dagokion kolektiboan izan ezik; izan ere, maila horretan parekotasun-printzipioa betetzen da. Emakumeek gehiegizko ordezkartza daukate, neurri handi batean, A2 taldeko



partaidetza ez delako orekatua. A2 taldean erizaintzan diplomatutako langileak daude batez ere, eta lan-merkatu horretako langile gehienak emakumezkoak izatea azaltzen du horrek. Aipatzekoa da, baita ere C2 maila. Prestakuntza-maila txikiena eskatzen da bertara sartzeko eta, ondorioz, ordainsari-maila txikiena ere badu. Bertako langileen % 96 emakumezkoak dira eta, beraz, argi dago segregazio bertikal izugarria dagoela.

3.2 Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, taldearen eta sexuaren arabera. Kudeaketa eta zerbitzuetako langileak.

Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, funtzionarioak eta estatutupeko langileak. 2011

	A1		A2		C1		C2		E		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Estatutupeko langile finkoa / Karrerako funtzionarioa	126	133	34	84	162	243	455	1464	810	721	1.587	2645
Estatutupeko aldi baterako langilea	45	48	12	18	28	46	64	244	93	282	242	638
GUZTIRA	171	181	46	102	190	289	519	1708	903	1.003	1.829	3.283

Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, lan-kontratupeko langileak. 2011

	Goi-mailako titulazioa		Erdi-mailako titulazioa		Bestelako tituludunak		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	14	12	16	26	244	423	274	461
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak				1		1		2
GUZTIRA	14	12	16	27	244	424	274	463

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila



Langile ez-sanitarioei dagokienez, generoen arteko desoreka osasun-langileena baino txikiagoa den arren, emakumeen ordezkartza guztizkoaren % 64,22koa da. Gehiegizko ordezkartza hori, batez ere, C2 taldeko ordezkartza orekatua ez delako gertatzen da, bertan % 76,70 baitira emakumezkoak.

4 ERTZAINZA.

4.1 Segurtasun-kidegoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera

Segurtasun-kidegoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera

ESKALAK	A		B		C		D		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Goi-mailako eskala										
Eskala exekutiboa			127	5					127	5
Inspektoreordetza- eskala					395	41			395	41
Oinarrizko eskala							6.55	820	6.55	827
							2		2	
GUZTIRA			127	5	395	41	6.55	820	7074	866
							2			

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarriila

Ertzaintzan, emakumeek plantillaren % 10,90 osatzen dute; 866 emakume daude 7.940 ertzainen artean.

Ehunekoa hain txikia izateak azalpen historikoa du: lehenengo sustapenean emakumeek debekatuta zeukaten Ertzaintzan sartzea, eta hurrengo sustapenetan emakumeen gehienezko kupoa % 15ekoa izango zela ezarri zen. Sustapen horiek jendetsuenak izan ziren, horietan sartu zen langile kopuru handiena, eta gainera emakumeak garai hartan zuen egoera kontuan hartuta, ulergarria da gaur egungo ehunekoa hain txikia izatea.

Emakumeak kategoria eta eskaletan duen banaketa Oinarrizko eskalan (agenteak) pilatzen da, % 11,12koa dela banaketa. Gaur egun, soilik 5 emakume daude eskala



exekutiboan, eta horrek esan nahi du emakumeen ordezkartza % 3,9koa dela. 2012. urtean 4 emakume sartu ziren eskala horretan, eta 26 gizon.

5 JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA

5.1 Justizia-administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera.

Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

FUNTZIONARIOAK	Titularra / jabea		Bitartekoa		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E
Auzitegiko medikua	15	24	6	7	21	31
Prozesu- eta administrazio-kudeaketa	113	597	53	292	166	889
Prozesu- eta administrazio-izapidetzea	134	372	33	174	167	546
Laguntza judiziala	142	163	30	114	172	277
GUZTIRA	404	1156	122	587	526	1743

Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

LAN-ESPARRUAN	Goi-mailako titulazioa		Erdi-mailako titulazioa		Bestelako tituludunak		GUZTIRA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	3	6	3	5	14	35	20	46
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	6	16	2	18	9	25	17	59
GUZTIRA	9	22	5	23	23	60	37	105

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

2013ko urtarrilean, Justizia Administrazioako funtzionarioak eta lan-kontratupekoak kontuan izanik 2411 langile zeuden, eta horietatik % 76,64 emakumeak dira; argi ikusten da justiziako langileen artean emakumeak direla nagusi.

Prozesu- eta administrazio-kudeaketan desoreka handia dago sexuaren araberako ordezkartzan, % 76,57 emakumeak baitira.

4.- GASTUAREN AZTERKETA. AURREKONTU-PROGRAMEN AZTERKETA.

Atal honetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera, eta/edo diskriminazio-egoera zehatzak indargabetzera, edo berariazko arazoak arintzera bideratutako helburuak dituzten aurrekontu-programa guztien azterketa laburpen moduan biltzen da. Halaber, helburu horiek lortzeko egin beharreko ekintzen kostu ekonomikoa laburbiltzen saiatu gara. Horretarako, aurrekontu-memoriak aztertu ditugu, horiek baitira, finean, aurrekontuen dokumentu-oinarria eta, politika publikoak ezartzean, Sail bakoitzaren helburuak dokumentu horietan biltzen baitira. Gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatu eta egon litezkeen desberdintasunak kendu edo murrizteko ekintzak biltzen dituzten programak baino ez ditugu sartu eta, bai eta ekintza horiek lortzeko erabiltzen den aurrekontu-partida ere.

OHARRA: Ezin dugu aipatu gabe utzi Sail bakoitzak, bere aurrekontu-memoriak aztertzean, hainbat interpretazio izan dituela kontuan eta, horren ondorioz, ez da irizpide bateraturik jarraitu ekintzak biltzeko garaian. Gauzak horrela, zenbait Sailek barne-baliabideekin gauzatuko diren ekintzak sartzearabaki du, hau da, administrazioaren beraren edo organismo autonomoetako eta erakunde publikoetako langileekin. Horrelako ekintzen artean, gobernantza-neurri asko sartu dituzte baina, benetan, ez dute eta ez dute izango aurrekontu-partidarik esleituta; hala nola, berdintasun-klausulak txertatzea, material jakin batzuen zabalkundea, estatistika-kontrola, Sailaren prestakuntza kudeatzea eta abar. Beste zenbait kasutan, berdintasunaren aldeko ekintzat jotzen da administrazioak aldizka egiten dituzten azterketa edo inkestatan sexuaren aldagaia txertatu izana, baina esan gabe doa ekintza horiek ez dutela berariazko aurrekontu-krediturik esleituta. Zalantzan jartzeko moduko beste interpretazio bat Berdintasun Planen inguruan gertatu dira; izan ere, zenbait Planek badituzte berariazko aurrekontu-partidak eta beste batzuk barne-baliabideekin bultzatuko dira baina, hala ere, bi kasu horiek berdintasunaren aldeko neurritzat hartu dira. Azkenik, txertatu diren beste zenbait ekintzek ez dute barne hartzen

berdintasuna lortzearen aldeko esku-hartzerik, ez helburuari dagokionez, ez ekintzaren definizioan ere.

Dena dela, Sail honek hurrengo edizioetarako irizpideak finkatzeko eta adosteko konpromisoa hartu du, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuekin berdintasunaren aldeko zer ekintza finantzatzen diren jakiteko.

Esanak esan, jarraian Sail bakoitzak aurkeztutako partidak azalduko ditugu; 4 taldetan banatu ditugu, helburuen arabera (ikus plantilla 9. atalean).

4.1 1. TALDEA. Helburu bakartzat emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea eta/edo berdintasuna sustatzea duten programak.

1. TALDEA: Helburu bakartzat emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea eta/edo berdintasuna sustatzea duten programak.				
Saila	Ekintza kop. 2012	Ekintza kop. 2013	Kreditua 2012	Kreditua 2013
Lehendakaritza (Emakunde)	1	1	5.233.997 €	6.073.000 €
Herrizaingoa (GIBLZ)	8		1.777.628 €	
1. TALDEA, GUZTIRA	9	1	7.011,625€	6.073.000 €

2012. urtean, Emakunderen eta GIBLZ Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren aurrekontu-programen helburuak berdintasuna sustatzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea ziren eta helburu horietara bideratutako aurrekontu-programak zituzten erakunde bakarrak ziren. 2013an, Emakundek bere gain hartu ditu GIBLZren funtzioak eta, hortaz, bai finantzaketa ere; hala ere, Emakunderen aurrekontua, guztira, ia milioi 1 euro (938.625 €) txikiagoa da ekitaldi honetarako (**% 13.39ko murrizketa aurreko ekitaldiarekin alderatuta**).

Aipatu behar dugu Lehendakaritza dela 2013rako aurrekontuan murrizketa handiena egin duen Saila (% 36,6). Emakunderen aurrekontua, guztira, 95.688.000 milioi euro da, hau da, Sailaren aurrekontu guztien % 6.34.



4.2 2. TALDEA. Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

2. TALDEA: Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	
Saila	Kreditua 2012
Lehendakaritza	45.746,02
Herrizaingo Saila	57.399,20
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila	2012an, Hezkuntza Sailak ez digu informaziorik eman txosten hau egiteko
Ekonomia eta Ogasun Saila	54.946,77
Justizia eta Herri Administrazio Saila	56.000
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	54.000
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	53.207,55
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	55.188
Osasun eta Kontsumo Saila	54.000
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	55.000
Kultura Saila	55.531,91
2. TALDEA, GUZTIRA	501.019,45€

2. TALDEA: Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	
Saila	Kreditua 2013
Lehendakaritza	106.320,51
Herri Administrazio eta Justizia Saila	55.000
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	57.429,38
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	55.188,00
Ogasun eta Finantza Saila	53.396,00
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	110.310,42
Segurtasun Saila	
Osasun Saila	59.000,00
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	105.870,73
2. TALDEA, GUZTIRA	602.515,04€

Sailkapen honetan, Eusko Jaurlaritzaren berdintasuneko unitate administratibo guztiak sartzen dira. Emakunderen 2011ko ekitaldiari buruzko gomendioei jarraituz,

beharrezkotzat jo da berdintasun-politikak sustatu eta koordinatzeko egitura horiek eta berdintasuna sustatzeko berariazko helburu edo/eta ekintzak dituzten programak bereiztea.

Berdintasuneko unitate administratiboek 602.515,04 euroko aurrekontua dute, hau da, gutxi gorabehera, iaz baino 100.000 euro gehiago; izan ere, 2013. urtean Hezkuntza Saileko unitateak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sartu dira eta iaz ez zeuden sartuta. Zenbateko horiek bat datoz 2012ko aurrekontuan bildutako soldatekin; izan ere, txosten hau idatzi dugunean I. kapitulua ez zegoen doituta baina, ziurrenik, zifra horiei eutsi egingo zaie, memoria ekonomikoen arabera administrazio nagusiaren zerbitzura dauden langileen soldatak izoztu egingo baitira.

Berdintasun-teknikariei dagozkien soldatak alde batera utzita, berdintasun-unitate batek ere ez du aurrekontu gehigarririk, Osasun Sailak izan ezik (2013rako 5.000 euro bideratu ditu).

Legealdi berri honetan Sailak berrantolatu egin ditugu. 2012an 12 Sail zeuden (2013an, berriz, 9) eta denek bazuten berdintasun-unitate bat, berdintasun-teknikari eta guzti. Gaur egun, 2013ko otsailean, Segurtasun Sailak ez du berdintasun-teknikaririk eta ez dakigu urtean zehar izango duen ere, edo funtzio horiek Saileko beste langileren batek hartuko dituen bere gain, bere lanez gain. Ingurumen eta Lurralde Politikako Saileko eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko unitateetan bina berdintasun-teknikari daude.

Bestalde, ez da berdintasun-unitaterik sortu berdintasun-unitateak arautzen dituen azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuan xedatutako organismo autonomo edo erakunde publikoetan.



4.3 3. TALDEA. Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.

3. TALDEA: Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.

Saila	Ekintza kop.	Kreditua 2012	Kreditu identifikag. gabeko ekintza kop.
Lehendakaritza			
Herrizaingo Saila	2	384.750	
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila			
Ekonomia eta Ogasun Saila	1	8.000	
Justizia eta Herri Administrazio Saila			
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila			
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila			
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	4		4
Osasun eta Kontsumo Saila	10		10
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	2	37.406	
Kultura Saila	5	44.500	1
3. TALDEA, GUZTIRA	24	475.656	15

3. TALDEA: Helburu edo ekintzetakoren bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.

Saila	Ekintza kop.	Kreditua 2013	Kreditu identifikag. gabeko ekintza kop.
Lehendakaritza	3	123.636,80	
Herri Administrazio eta Justizia Saila	1	1.640.000	
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	4	0	4
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	6	0	6
Ogasun eta Finantza Saila	0	0	
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	6	33.638,73	2
Segurtasun Saila	9	149,540	7
Osasun Saila	6	10.000	5
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	0	0	
3. TALDEA, GUZTIRA	35	1.903.604,23€	24



Sailkapen honetan berdintasuna sustatzeko, diskriminazioak indargabetzeko eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerrarazteko antzeman diren ekintzak sartu nahi izan dira. Ekintza horiek ez dute zertan berariaz agertu aurrekontu-programen memorietan berdintasuneko berariazko helburuei lotutako ekintza gisa. Izan ere, gehienetan, aurrekontu-programaren helburu orokorrek zerikusia duten helburuak dituzten ekintzak dira, ez dutenak zerikusirik berdintasunaren sustapenarekin.

Guztira 35 ekintza antzeman dira, eta horietatik 24ri, erdia baino gehiagori, ezin izan zaie aurrekonturik esleitu eta ezin izan da gastuaren aurreikuspen edo gutxi gorabeherako kalkulurik egin. Antzemandako ekintzen guztizko zenbatekoa 1.903.604,23 euro da, iaz baino 1.500.000 euro gehiago. Alabaina, alde hori ez da sortu aurrekontuaren diru-kopurua handitu delako, baizik eta Justizia Saileko doako laguntza juridikoak iaz 4. taldean sartu zuelako ekintza hori eta aurten 3. taldean sartu du. 1.640.000 euroko zenbateko hori gorabehera, horrelako ekintzetara bideratutako diru-kopurua ez da 250.000 eurora iristen eta, beraz, pentsa dezakegu ekintza horietako asko barne-baliabideekin gauzatuko direla.

Talde honi dagokion 1.903.604,23 euroko guztizko zenbatekoa Sail guztietako aurrekontuen % 0,021 baino ez da.



4.4 4. TALDEA. Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.

4. TALDEA: Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.

Saila	Ekintza kop.	Kreditua 2012	Kreditu identifikag. gabeko ekintza kop.
Lehendakaritza	2	118.931,09	
Herrizaingo Saila	1		1
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila			
Ekonomia eta Ogasun Saila	1		1
Justizia eta Herri Administrazio Saila	7	1.809.996	3
Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila	8		8
Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila	15	53.161,60	13
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila	19	1.389.062	13
Osasun eta Kontsumo Saila	21	4.002.800	9
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila	4	31.000	
Kultura Saila	5	22.500	2
4. TALDEA, GUZTIRA	83	7.427.450,69	50

4. TALDEA: Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.

Saila	Ekintza kop.	Kreditua 2013	Kreditu identifikag. gabeko ekintza kop.
Lehendakaritza	6	146.778,62	1
Herri Administrazio eta Justizia Saila	4	80.000	3
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	11	20.328	10
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	12	709.285	6
Ogasun eta Finantza Saila		0	
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	52	60.134,48	30
Segurtasun Saila			2
Osasun Saila	12	2.166.074,04	
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	13	111.000	8
4. TALDEA, GUZTIRA	107	3.273.274,14	38

Sailkapen honetan aurrekontu-programen memorietan horrela agertu ez arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten ekintzak, jarduerak edo berariazko partidak sartu nahi izan dira. Hau da, sailak berdintasunaren alde egiten dituen ekintzak dira, baina hainbat arrazoiren ondorioz ez dira aurrekontuan azaltzen.

Hala ere, generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko atalean aipatu den bezala, kasu batzuetan oso zaila da berdintasun-ekintzak laburbiltzea. Kasu askotan, zenbatekoen gutxi gorabeherako kalkuluak egin dira eta, beste zenbait kasutan, berdintasuna sustatzeko partidak bideratuko direla jakin arren, ezinezkoa izan da zenbatekoak kalkulatzeko.

Aurreko urtearekiko ia 4 milioi euroko aldea dago; alde batetik, Justizia Sailaren ekintzak eragin du alde hori, zeren aurten, 3. taldearen azterketak aipatu dugunez, ez baita talde honetan sartzen; bestetik, Osasun Sailaren murrizketak (ia 2 milioi euro) ere izan du eragina alde horretan, berdintasunaren aldeko ekintzen definizioa zehaztearen ondorioz.

Nolanahi ere, antzemandako 107 ekintzetarako 3.273.274,14 euroko aurrekontu-kreditua dago, hau da, Sailletako aurrekontuen guztizkoaren % 0.037.

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK:

AURREKONTUA SAILAREN ARABERA (milako €)	2013	%	2012	aldea
Lehendakaritza	95.688,00	% 1,10	151.020,00	-36,6
Herri Administrazio eta Justizia Saila	212.953,00	% 2,46	231.249,00	-7,9
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	396.312,00	% 4,57	531.381,00	-25,4
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	796.024,00	% 9,19	1.074.010,00	-25,9
Ogasun eta Finantza Saila	92.898,00	% 1,07	105.980,00	-12,3
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	2.630.443,00	% 30,35	2.925.028,00	-10,1
Segurtasun Saila	582.849,00	% 6,73	653.934,00	-10,9
Osasun Saila	3.263.193,00	% 37,65	3.406.549,00	-4,2
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	594.157,00	% 6,86	739.566,00	-19,7
Guztira	8.666.530,00	% 100	9.820.729,00	

Gasturako austeritate-mekanismoen ondorioz, Saisetako aurrekontuetan % 36,6ko murrizketak egitera ere iritsi da, Lehendakaritzaren kasuan, esaterako. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren aurrekontua laurden bat murriztu da aurreko urtekoaren aldean, eta horrek, zalantzarik gabe, eragina izango du gizarte-politikan, oro har.

Hezkuntzaren eta Osasunaren eremuak bereziki aipatu nahi ditugu, aurrekontuetan % 10eko murrizketa izan baitute.

BERDINTASUNERAKO AURREKONTUA SAILAREN AURREKONTUARI DAGOKIONEZ			
Saila	Sailaren aurrekontua	BERDINTASUNA 1,2,3,4 taldeak	Sailaren aurrekontuaren gaineko %-a
Lehendakaritza	95.688.000,00	6.448.735,9	% 6,74
Herri Administrazio eta Justizia Saila	212.953.000,00	1.725.500	% 0,81
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	396.312.000,00	77.757,38	% 0,02
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	796.024.000,00	764.473	% 0,10
Ogasun eta Finantza Saila	92.898.000,00	53.396	% 0,06
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	2.630.443.000,00	204.083,63	% 0,01
Segurtasun Saila	582.849.000,00	149.540	% 0,03
Osasun Saila	3.263.193.000,00	2.235.074	% 0,07
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	594.157.000,00	216.870,73	% 0,04
4. TALDEA, GUZTIRA	8.666.530.000	11.875.430,64	% 0,13

Aztertu ditugun lau taldeetako datuei erreparatuta, 2013. urtean berdintasunaren alde egingo diren ekintzek Sail guztietako aurrekontuaren guztirakoaren % 0,13 osatuko dutela ikusiko dugu. Zenbateko hori % 0,06ra jaisten da Emakunderen aurrekontua kanpoan utziz gero.

5.- DIRU-SARRERAREN AZTERKETA

EAEko zerga- eta finantza-errealitatea aztertzea ezinbestekoa da aurrekontua eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaineko eraginak aztertzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren finantzaketa-sistemaren ezaugarri nagusia da zerga-sistema osatzen duten zerga gehienak biltzeko gaitasuna duela. Foru-ogasunek kudeatu eta biltzen dituzte zerga-sistema osatzen duten zerga guztiak, Ekonomia Itunaren araudian emandako banaketari jarraituz, hau da, Autonomia Fiskala izenekoari jarraituz. Horrek esan nahi du Euskal Autonomia Erkidegoak zerga-sistemako oinarritzko zerga guztiak kudeatu, bildu eta diseinatzen dituela, murrizketa harmonizatuari lotuta. Horrela bada, lurralde historikoek nolabaiteko gaitasuna dute zergak arautzeko, baita zergok kudeatu eta biltzeko autonomia ere.

Hala ere, Eusko Legebiltzarrari dagokio zerga arloko koordinazio, harmonizazio eta lankidetzari buruzko arauak onestea.

Araudien ikuspegitik, zuzeneko zergei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoak berezko zerga hauek ditu: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ), Oinordetzen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Zeharkako zergei dagokienez, zerga handi bien (Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Zerga Bereziak) harmonizazio-maila ia erabatekoa da, zerga horien izaeratik eratorrita, Europar Batasun osoan ere harmonizatuta daudela. Gauzak horrela, foru-ogasunen eskumenak zergaren kudeaketaren alderdi zehatzen ingurukoak baino ez dira. Aldiz, bilketarako gaitasuna kontuan hartuta zeharkako zergen arteko hirugarrena (Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga) modu autonomoan arau dezakete, neurri handi batean, EAEko erakundeek.

GENEROAREN ERAGINA ZERGETAN

Itxuraz neutroa den arren, zerga guztiek dute generoen arteko desorekaren bat, esplizituki edo inplizituki agertzen dena, duen izaerarekin bat etorrita (Stotsky, 2005).

Generoaren araberako desoreka esplizitua erraz identifikatzeko modukoa da, ohiko moduan idatzita jasota baitago kodean edo zerga-araudietan. Generoaren araberako desoreka inplizitua honela adierazten da: zerga-sistemak gizonen eta emakumeen ongizatean eragiten duen moduan. Generoaren araberako desoreka inplizitua identifikatzea zailagoa izaten da; izan ere, horretarako, zerga-sistemak emakumeei eta gizonei nola eragiten dien aztertu behar baita.

Bereizketa esplizitua nabariago azaltzen da pertsona fisikoen gaineko zuzeneko zergetan. Desoreka inplizitu nabariena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren familia-mailako zergapetze guztietan ikusten da.

Zeharkako zergei dagokienez, ez dute generoen arteko desoreka espliziturik izaten, ondasun edo zerbitzuak eskuratzean edo ondasun eta eskubideak eskualdatzean sortzen delako zerga. Hala ere, badaude zerga horien desoreka azaltzen duten adibideak, hain zuzen ere emakumeek bakarrik eskuratutako produktuei ezartzen zaienean zerga, eta ez gizonek eta emakumeek bereizi gabe eskuratutako beste antzeko produktu batzuei.

Zuzeneko zergen eragina. PFEZ

PFEZ da geure zerga-sisteman genero-eragina nabariena azaltzen duen zerga, emakumeek eta gizonek zerga-aldian jasotzen dituzten errentei ezartzen dizkielako zergak. Generoen arteko desoreka inplizitu nabariena PFEZen familia-mailako zergapetze guztietan ikusten da (baterako tributazioaren kasuan). Eraitza da diru-sarrerak jasotzen dituen ezkontide bakarra duten ezkon-bikoteei laguntzen zaiela, zerga-arintzearen bitartez. Zerga-arintze hori handiagoa izango da emaztearen lan-errenta txikiagoa eta senarraren lan-errenta handiagoa den heinean. Hala ere, banakako zergapetzeetan ere egon daiteke generoen arteko desoreka, zergak abantailaren bat ematen badio ezkontideren bati duen egoera zibilaren ondorioz.

Familia-mota ezberdinei salbuetsitako gutxienekoak asimetriakoki aplikatzearen ondorioetako bat da PFEZak ez dituela modu homogeen zergapetzen familia guztiak, tratu mesedegarriagoak ematen baitizkie guraso biko familiei guraso bakarreko familiei baino —gehienetan (% 85 baino gehiago) emakumeak dira guraso bakarrak—, fiskalitate txikiagoa baitute.

PFEZek eragin ezberdina du soldatapeko gizonezko eta emakumezko langileengan, lan-merkatuan gizonek eta emakumeen duten banaketa ez delako simetrikoa, batez ere gizarte- eta ekonomia-egoera ezberdinak dituztelako eta familia barruko zaintza-lana ezberdin banatuta dagoelako.

Europako Batzordeak azken urteetan adierazi du bere lehentasunezko helburuetako bat "gizarte- eta zerga-eskubideak indibidualizatzea" dela, gizonek eta emakumeek subjektu independente gisa jardun ahal izateko lana bilatu eta lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko orduan, eta, horrela, sexuagatiko diskriminazio-tratua saihesteko. Gure zerga-sistema oztopoa da tratu-berdintasun hori lortzeko, eta herrialde kideei zerga-sistemak erreformatzeko eskatu zaie, banakako zerga pertsonalak ezartzearen mesedetan.

Zeharkako zergen eragina.

BEZa estatu-mailako zerga da, eta Estatuari dagozkio horri buruzko arauak ezartzeko eskumenak. Hala ere, genero-ikuspegitik ere azter daiteke, batez ere salbuetsitako zerga-egitateek eta hurrenez hurren % 7 eta % 4an murriztu eta txit murriztutako tasek eragindako zerga-gastuen bitartez.

Beste alde batetik, BEZaren izaera ez da oso mailakakoa, zuzenean dagoelako lotuta kontsumoarekin. Familietako aurrekontuan oinarritzko produktuen kontsumoa pisu erlatibo txikiagoa da errenta-mailetan gora egin ahala. Horrenbestez, kontsumoaren gaineko tributazioak eragin handiago du baliabide gutxiko pertsonengan eta aurrekontu gehiena familiako kontsumorako erabiltzen duten pertsonengan (horixe da emakumeen kasua). Erregresiboak dira, tasa berbera aplikatzen baitzaie produktu bera kontsumitzen duten pertsona guztiei, pertsonen arteko errenta-ezberdintasunak kontuan hartu gabe.

ZERGEN GENERO-ERAGINA EAeko AURREKONTUETAN

Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako **Euskal Ogasunari buruzko Urteko Txosten Bateratua 2010** txostenari jarraiki, PFEZ zergan baterako tributazioa egitearen ondoriozko zerga-gastua (hau da, diru-bilketan izandako galera) 190,852 milioi euro da.

Kasu gehienetan, baterako tributazioak zera esan nahi du, gizon bat etxetik kanpo lan egiten ez duen emaztearekin ezkondata dagoela eta emaztearen "gutxieneko pertsonala" senarraren zerga-oinarrian aplikatuta, zenbateko aldakor bat desgrabatzen duela; senarraren errenta-maila zenbat eta handiagoa izan, zenbateko aldakor hori orduan eta handiagoa izan da. Adibidez, 2003ko datuen arabera, 7.500 euro irabazten dituen gizon batek 20 euro desgrabatzen ditu emazteak diru-sarrerarik ez duelako; aldiz, 66.000 euro irabazten dituen beste batek 1.530 euro desgrabatzen ditu kontzeptu berdinarengatik.

Zer gizarte-onura dakar partida horrek? Esan gabe doa etxeko lana aintzatetsi egin behar dela. Baina hona hemen arazoa: nork ordaindu behar du? Eta, horretaz gain, nork egin behar du? Nork ordaindu behar duen galderari dagokionez, 66.000 euro irabazten dituen senarra duelako, bidezkoa al da emazteak desgrabatzen dituen 1.530 euro horiek aurrekontuaren kargura eta, beraz, zergapekoaren kargura egotea? Kontuan izan senar horrek ez duela soldatarik ordaintzen emaztearen lanarengatik eta, gainera, ez duela zergarik eta Gizarte Segurantzako kotizaziorik ere ordaintzen. Eta ez dugu ahaztu behar, gainera, emazte horrentzat zer ondorio izan ditzakeen bere senarrak desgrabatu ahal izatea berak ez duelako diru-sarrerarik. Itxuraz, emaztea ere onuradun dela pentsa daiteke, familia osoarentzat desgrabazioa delako baina emazteari oso garesti ateratzen zaio bizi osoan: Lehenik, mendekotasun ekonomikoaren katearekin lotuta geratzen delako. Bigarrenik, senarra falta denean, pobrezian geratuko delako.

Emakume bat etxetik kanpo lanera joan eta bere soldata irabazten duenean, senar-emazteen batera edo bereizita ordain ditzakete zergak. Bakoitzak bere aldetik egiten badu, senarrak ezin izango du emaztearen gutxieneko pertsonala kendu, emazteak berak kendu beharko baitu bere soldatetik. Emaztearen soldata txikiagoa izan ohi denez, desgrabazio hori ere txikiagoa izango da, edo baita ezdeusa ere. Zerga batera ordaintzen badute, ez da horrelakorik gertatuko baina emazteak ezin izango du PFEZan dagoen beste desgrabazio batez baliatu: 'lanaren errendimenduagatik desgrabazioa'. Izan ere, azken desgrabazio horrek errenten muga bat du eta, baterako deklarazioaren kasuan, bien soldatak hartzen dira kontuan. Mekanismo konplexu horien ondorioz, ezkondata dagoen emakume bat, gutxieneko soldata bat izanik, % 48 ordaintzera ere iritsi daiteke PFEZarekin eta Gizarte

Segurantzako kotizazioekin. 'Ezkontzagarriko penalizazioa' esaten zaio horri. (Maria Pazos, Generoen arteko desoreka errentaren gaineko zergan)

Baterako tributazioagarriko desgrabazioa, beraz, faktore negatiboa da, emazteak ekonomikoki senarren mendeko izaten jarraitzeko lagungarri baita. Emakume horiek ez dute kotizaziorik metatzen, ez eta lan-esperientziarik ere. Baterako tributazioan gastua ekitatiboa ez denez, hainbatek uste du horri eutsi egingo zaiola, ekonomiarentzat errentagarria delako hein batean. Baina hori ez da hala, ezta hurrik eman ere. Aitzitik, zerbitzu publikoetan aurrezten dela kontuan izanik ere, emakumeak etxeko lanetan espezializatzea ez da ez eraginkorra, ez produktiboa gaur egungo gizartean. Demagun emakume batek, prestakuntza-maila handia izan dezakeen emakume batek bizi osoko lanbide-errendimendua sakrifika dezakeela seme edo alaba bat, bi edo gehienez ere hiru zaintzeko, baina bere dedikazioaren benetako erabilgarritasun aldia hamar urte inguru izango da. Zerbitzu publiko gehiago izanez gero eta gizonak etxeko lanetan gehiago inplikaturiko balira, emakume horrek lanpostu kalifikatu bat izan zezakeen eta herrialdearen giza kapitala modu eraginkorragoan baliatzen lagunduko luke. (Maria Pazos)

Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaritzak badaki zerga guztiek generoen arteko desorekak dituztela eta, beraz, garrantzitsua dela generoaren ikuspegitik aztertzea. Hala ere, desoreka horren jakinaren gainean egon arren, sexuaren arabera bereizitako estatistika eta adierazlerik ez dagoenez, ezinezkoa da EAeko fiskalitatearen eta EAeren 2013. urterako aurrekontuetan zehaztutako diru-sarreraren inguruko azterketa sakona egitea. Uste dugu hurrengo ekitaldietan gai horri ekin beharko zaiola, aurrekontuak genero-ikuspegitik egiteko helburua izango duen proiektu baten barruan.

Hala ere, EUSTAT pertsona fisikoen errentari buruzko estatistika egiten hasi da, eta horrek aukera emango du hurrengo ekitaldietan zerga-egitateen aitorpenetan egon litezkeen asimetriak zabaltzeko, esaterako honako alderdi hauetan: errentak eskuratzea, murrizketa eta kenketak aplikatzea, hobariak, lanaren errentaren banaketa zergadunaren sexuaren arabera, etab.

Gainera, komeniko litzateke adierazle eta azterlanak egitea Administrazioaren bilketan lan-errenten eta enpresa-, lanbide- eta kapital-errenten bilketaren ehunekoa zein den jakiteko, bai eta bilketa horiek zertarako erabiltzen diren ere. Horrela, aberastasunaren banaketa bidezkoa den ala ez ikusi ahal izango litzateke.

BEZari dagokionez, zerga-egitate salbuetsiek eta murriztu eta txit murriztutako tasek (hurrenez hurren % 7 eta % 14koak) eragindako zerga-gastuak aztertzeko aukera emango duten adierazleak egin beharko dira.

6.- GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA

Lehenengo eta behin adierazi behar da oso zaila dela aurrekontuen legearen generoaren arabera eraginaren txostena egitea lege-aurreproiektuaren testua bera izan gabe. Izan ere, lege honek aukera ematen du zenbatekoetan doikuntzak eta aldaketak egiteko azken ordura arte, hau da, Gobernu Kontseiluak onetsi arte (2013ko martxoaren 12an) eta Legebiltzarrera heldu arte (martxoaren 14an), gainerako txostenak erantsi behar direla bertan, honakoa barne. Horregatik, aurrekontua aztertzeko garaian aurrekontu-memoriak kontuan hartu ditugu; memoria horiek Legearen artikuluko testuari atxikita daude eta politika publiko bakoitzerako diseinatutako programa bakoitzaren helburuak biltzen dituzte.

Zailtasun horretaz gain, txosten hau egiteko eta entregatzeko datan atzerapena ere izan zen, Sail gehienek ez baitzuten bete Ogasun eta Finantza Sailaren aurrekontuen zuzendaritzak eskatutako informazioa bidaltzeko epea. Izan ere, Gizarte Gaietako eta Politika Publikoetako Sailak baino ez du bete informazioa bidaltzeko jarritako epea, hau da, otsailaren 11.

Honako taula honetan, eskatutako informazioa Ogasun eta Finantza Sailera noiz bidali zuten azalduko dugu.

Saila	Entregatzeko epe-muga: otsailak 11
Lehendakaritza	Otsailak 13
Herri Administrazio eta Justizia Saila	Martxoak 4
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	Otsailak 21
Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	Otsailak 8
Ogasun eta Finantza Saila	Otsailak 8
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	Martxoak 1
Segurtasun Saila	Otsailak 21
Osasun Saila	Otsailak 19
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	Otsailak 14

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Herri Administrazio eta Justizia Sailaren kasuak bereziki aipatu behar ditugu; izan ere, txostenak aurrekontuen zuzendaritzak ezarritako epea kanpo aurkeztu dituzte baina, gainera, aurrekontuen egutegian finkatutako epea ere ez dute bete eta horren guztiaren ondorioz, txosten hau egiteko atzerapen handia izan dugu.

Atzerapen horrek generoaren eraginari buruzko txostenean ez ezik, aurrekontuak osatzeko prozeduraren beste hainbat fasetan ere ondorioak eragin ditu; esate baterako, dagokion aplikazioan datuak sartzeko fasean eta aplikazioa Emakundera igortzeko fasean. Izan ere, txosten hau Emakundera igorri behar dugu, Emakunden Berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoa behar bezala aplikatzen ote den egiaztatu eta txostena egin behar dutelako.

Zerbitzuen Zuzendaritzatik eta Aurrekontuen Zuzendaritzatik barkamena eskatzen diogu Emakunderi dokumentu hau berandu igortzeagatik eta, aldi berean, horrelakorik berriro ez gertatzeko konpromisoa hartzen dugu, dagozkion neurriak hartuko baititugu.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honako hau dio 19. artikuluan, **Generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzea:** "Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonen kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeke eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean".

Hau da, arauak eraginpean hartuko duen eremuan emakumeen eta gizonen gizarte-egoera zein den badakigularik —sexuren arabera izan daitezkeen desberdintasunak identifikatzearren—, proiektatu den jarduerak ondorio positiboak edo kontrakoak izan ditzakeen aztertu behar da, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeke eta horien arteko berdintasuna sustatzeko arautu edo esku hartu nahi den gizarte-testuinguruan. Horri dagokionez, Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen gizarte-testuinguruan EAEko herritar guztiak biltzen direla aipatu behar dugu eta Legearen

eraginpeko eremua multisektoriala dela, hau da, eremu guztiak hartzen dituela: hezkuntza, kultura, ekonomia, osasuna eta abar.

Gobernu osoaren jarduerak edo, bestela esateko, politika publikoek desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko izaten duten eraginaren berri izan nahi badugu, i) alde batetik, programa guzti-guztiak aztertu beharko genituzke dela programa horien onuradunen ikuspegitik begiratuta, dela programak zuzendutako egoten diren berariazko taldeen (gizon/emakumeak, neska/mutilak, berdintasuna sustatzea eta abar) ikuspegitik begiratuta, (ii) eta, bestetik, politika publiko (programa) horiek guztiek gizartean izan duten benetako eraginaren berri izan beharko genuke.

Alabaina, ez da erraza izaten gizartean aldaketak eragitea helburu duten politika publikoek (berdintasun-politikek, esaterako) gizartean zer nolako eragina izaten duten jakitea, horretarako denbora behar izaten baita, gizarte-aldaketak epe luzekoak izaten direlako. Horrekin loturik, 2012an Emakundek "Adierazle-sistema. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna" izeneko azterlana sustatu du eta, aztertu dituen adierazle estrategikoen bitartez, gure gizartea sakontasunez beha daiteke eta Berdintasun Planean eta Legean ezarritako helburuak betetzen ari ote diren jakin. Zehazki, berdintasun-politiken hartzaile diren kolektiboen egoera zertan aldatu den jakin daiteke, eta gizartean, oro har, emakumeen eta gizonen egoera zein den; bai eta zer eremutan lortzen ari diren aurrerapenak azkarren lortzen eta eragozpenak non diren handien.

Gure gizartean izandako benetako eraginaren berri izatea ahalbidetuko diguten adierazle horiek garatu eta ezarri bitartean, eta abiapuntutzat hartuta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak egiturazko eta kultura-arloko desberdintasun baten ondorio direla, eta politika publikoen bitartez esku hartu behar dela berdintasunaren alde egiteko eta desberdintasun horiek murrizteko edo kentzeko, Ogasun eta Finantza Sailean uste dugu soilik berdintasun-politiketara bideratutako gastuen azterketa labur bat egin behar dela. Baina, lehen esan dugunez, politika horien benetako eragina ezin da neurtu eta, halaber, ezin ditugu alde batera utzi berdintasunaren alde bideratzen diren baliabideak.

Horretarako, aurrekontu-programa guztiak aztertu ditugu, betiere berdintasun-politiken kudeaketa helburu badute eta/edo berdintasuna sustatzen badute, edo diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten neurriak, jarduerak edo ekintzak biltzen badituzte. Hori

guztia egiteko Eusko Jaurlaritzaren Sail guztien laguntza izan dugu; izan ere, lehen aldiz, 9. atalean eranskin gisa atxikitako plantilla behar bezala beteta helarazi baitigute Sail guztiek.

BERDINTASUNA SUSTATZERA BIDERATUTAKO EKINTZA ADIERAZGARRIENEN AZTERKETA

Atal honetan, Sail bakoitzak aurkeztutako aurrekontu-programetan bildutako ekintzetatik batzuk aipatuko ditugu. Aurrekontuan berariazko diru-izendapena duten ekintzak baino ez ditugu aipatuko edo, bestela, gutxi gorabeherako estimazioa egina dutenak. Izaera orokorragoko ekintzak alde batera utzi ditugu, gure ustez eta 4. atalean (Gastuaren azterketa) aipatu dugunari jarraiki, eztabaidatu eta aztertu beharreko irizpidea hartu delako. Dena den, 9. atalaren eranskinean ekintza guztiak kontsulta daitezke

- PLANAK EDO PROGRAMAK EGOKITZEA EDO HARTZEA

- ETS. II. Berdintasun Plana aurrera eramatea.
- II. Berdintasun Plana aurrera eramatea. Eusko Trenbideak – Ferrocarriles Vascos SAU.
- Hezkuntza-sisteman genero-indarkeriaren prebentziorako eta berdintasunerako Plan Estrategikoa bultzatzea.
- Kirolaren arloan berdintasuna lortzeko plan/programa bat indartzea eta koordinatzea.
- IHOBE Berdintasun Plana aurrera eramatea.
- Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia.
- Enpresan Berdintasun Plana egitea. Arabako Parke Teknologikoa.

- INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMENTZAKO LAGUNTZAK

- Tratu txarrak ematen dituztenak berrezitzeko 3 programa, genero-indarkeriaren delituetan gizartearentzako lanak egin ditzaten.
- Hitzarmena Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasunerako Ministerioarekin, tratu txarrak ematen dituztenak berrezitzeko programak burutzeko.

- PRESTAKUNTZA, SENTSIBILIZAZIOA ETA INFORMAZIOA

Sail bakoitzean berdintasunaren arloko koordinazioa izateaz gain:

- Irakasleen prestakuntza genero-berdintasunaren, baterako hezkuntzaren, genero-indarkeriaren prebentzioaren eta sexu-aniztasunaren arloan.
- "Berdintasunaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren aldeko hezkuntza" mintegia abiaraztea.
- Elkarbizitzaren, berdintasunaren eta genero-indarkeriaren prebentzioaren jardunaldiak. Hezkuntza.
- "Gazte Sexualitatearen arretarako erronka berriak" ikastaroa eta "genero-desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan". Kultura, gazteria eta kirola.
- "Sexu-aniztasuna" eta "Gazteak, sexismoa eta nortasun berriak" gidaliburuak egitea eta zabaltzea. Gazteriaren Euskal Behatokia.
- Migrazio-fenomenoari, kultura arteko elkarbizitzari eta aniztasun afektibo-sexualari nahiz genero-nortasunaren aniztasunari buruzko jardunaldia, Emakundek antolatu duen Berdintasun Foroaren esparruan.
- Elkarrekin loturiko ahalduntze-ekimenak ahalbidetzea, emakume etorkinei zuzenduta.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko modulu espezifikoak sartzea Gizarte Zerbitzuei buruzko I. Planaren esparruan garatutako prestakuntza-programetan.
- LGTB Orientazio eta Aholkularitza Zerbitzua.
- Berdintasuneko eta Bateratzeko Planak bultzatu eta garatzea. LANBIDE
- Landa-eremuko Emakumeen eguna ospatzea.
- Genero-indarkeriarekin loturi Ertzaintzak izaten duen jardueraren berri herritarrei jakinaraztea.
- Genero Indarkeriari buruzko jardunaldia antolatzea. Osasun Publikoko Zuzendaritza

- EGITURAK EDO ZERBITZUAK SORTZEA

- Berritzegune Nagusian Eskola Inklusiboaren (aniztasuna eta generoa) arduradunaren plaza sortzea.

- ESTATISTIKAK ETA AZTERKETAK EGITEA

- Ur-kiroletan generoak duen eraginaren azterketa.

- Zaintzaileei ematen zaien laguntza hobetzera bideratutako material teknikoak, prestakuntza-arlokoak eta hedapenerako materialak egitera bultzatzea.
- Arrantzaren sektorean emakumea erabat integratzeko egitasmoa gauzatzea.
- Gaueko aisialdiko eremuetan arriskuak eta kalteak murrizteko programak genero-ikuspegitik begiratuta azter daitezen sustatzea.
- Emakumeen berriarazko errealitatea ezagutzen laguntzeko ikerketak sustatzea.

- BERDINTASUNA EDUKI EDO IRIZPIDE MODUAN (ONARTZEKO, BALIOESTEKO EDO EGIKARITZEKO) TXERTATZEA HAUTAKETA-PROZESUETAN, DIRU-LAGUNTZETAN, HITZARMEN EDO PRESTAKUNTZA-JARDUERETAN ETAB.

- Garraiolarien elkarteetan kontratazioak egiteko laguntzak, sartzen den pertsona emakumea baldin bada.
- Ekonomia-enpresetan kolektibo jakin batzuk (indarkeriaren biktimak eta guraso bakarreko ama) hartzeko laguntza. Enplegua eta Gizarte Politikak
- Genero-indarkeriaren biktimak unibertsitateko ikasketak egiteko prezio publikoak ordaintzetik salbuestea. Unibertsitate Zuzendaritza
- Genero-indarkeriaren biktimak unibertsitatekoak ez diren ikasketak egiteko prezio publikoak ordaintzetik salbuestea.
 - 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa, irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaren bidez aldatua.
 - 7/2007 Legea, apirilaren 2koa, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena.
-



- 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onesten duena.
- 1/2007 Legegintzako Dekretua, irailaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 8/1996 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzena.
- 6/2011 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena.
- 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa.
- 464/1995 Dekretua, urriaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren arloko barne-kontrol ekonomikoa eta kontabilitatea garatzen dituena.

Arestiko araudiekin batera, Aurreproiektuaren edukiari neurri batean eragiten dioten lege- edo arau-xedapenen zerrenda luzea aipatu behar da. Hori horrela, atxikitako justifikazio-memorian zerrendatuta daude eta, horretara igortzen dugu.

E) Edukiaren azterketa: artikulua.

a) I. Titulua: *Euskal Autonomia Erkidegoaren 2013ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren onespena eta edukia.*

Aurreproiektuaren 3.artikuluari jasotako Erakunde Autonomoen zerrendan Lehiaren Euskal Agintaritzak ageri da, otsailaren 2ko 1/2012 Legearen bidez sortua, administrazio-izaera duen erakunde autonomo gisa, eta politika ekonomikoaren eta lehiaren defentsaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita.

Bestalde, proiektuaren 9. artikulua zenbait kontu-sail aurreikusten ditu, berme emateko eta birfinkatzeko eragiketetan erabiltzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko



Administrazioak aurrekontu-ekitaldian zehar erabili ahal izango ditu. Gai horri dagokionez, garrantzitsua iruditzen zaigu, etorkizunean neurri horiek garapen-arau egokietan egituratzeari begira, estatu-laguntzei buruzko Europako araubidearekin izan dezaken lotura azpimarratzea, tentuz jokatzeko, hala dagokionean.

Aurreproiektuak kontuan hartzen ditu, alde batetik, edozein motako bermeragiketak, euskal enpresen epe luzerako finantzazioa bideratzeko eragiketentzako berriazko funtsaren bidez. Eta, bestalde, elkarren bermerako sozietateek emandako bermeak eta euskal enpresei emandako maileguak birfinkatzea, funts propioak edo finantziarioa errazago lortzeko tresna gisa, bai eta banakako enpresaburu, autonomo nahiz enpresa txiki eta ertainentzako zenbait urtetako finantzazio-lerroak estaltzea helburu duten birfinkatze-eragiketak, zenbait premiei erantzuteko: galdagarrien premiak, epe laburrerako zorrak berritzea, epe laburrerako zorra epe ertainerako nahiz luzerako zor bihurtzea, eta 2013rako inbertsio-planen bizkortzea dakarten finantziari jarduerak, euskal enpresek finantziarioa lortzea sustatzeko programen bidez.

Europak estatu-laguntzak kontrolatzearen helburua da, sortze-itunetan jasota dagoen bezalaxe, gobernuen ekintzek merkatu bateratuko merkataritza eta lehia askea ez dutela eragotziko bermatzea. Esparru horretan, estatu-laguntza definitzen da herri-agintariak enpresei edo eragile ekonomikoak emandako edonolako abantaila, hautatze bidez, enpresa edo ekoizpen jakin batzuen alde eginez, lehia faltsutuz edo faltsutzeko aukera emanez. Hortaz, norbanakoei emandako diru-laguntzak, edo neurri orokorragoak, enpresa nahiz eragile ekonomiko guztien eskura jarriak, ez ditu Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren 87. artikulua estalitako (gaur egun, Europar Batasunaren Funtzionamendurako Itunaren 107. artikulua). Eta ez dira estatu-laguntzak izango. Dena dela, aztergai dugun proiektuan aurreikusitakoak nola zehaztuko diren oraindik ere definitu gabe dagoenean, ezin da baztertu neurri horiek estatu-laguntzat hartzea; izan ere, antzeko neurriak Europako Batzordearen berriazko jakinarazpenak eragin dituzte (Batzordearen jakinarazpena, Europako Erkidegoaren Itunaren 87. eta 88. artikulua berme gisa ematen diren estatu-laguntzei aplikatzeari buruzkoa; 2008/C 155/02). Eta litekeena da, Erkidegoko arauarekin bateragarriak direla



erabakitako kasuetan ere, jakinarazpen-araubide zorrotz baten mende egon behar izatea.

Artikulu horren lehen paragrafoak hau dio:

107. artikulua.

1. Tratatu honetan besterik xedatu ezik, estatu kideek emandako laguntzak edo estatuko funtsen bidez emandakoak, edozein modutakoak izanda ere, merkatu bateratuarekin bateraezinak izango dira estatu kideen arteko trukaketei eragiten dieten heinean, baldin eta, zenbait enpresa edo ekoizpenen alde eginez, lehia faltsutzen badute edo faltsutzeko modukoak badira.

(...)

Hala eta guztiz, debeku orokorra ezartzen duen arau horrentzat salbuespenak ezarri dira Itunetan bertan (esate baterako, 107. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan) eta Itun horiek garatzeko araudietan. Horrenbestez, salbuesitako kategoriak xedatu dira, eta berariazko hainbat arau: eskualdekoak, sektorialak, horizontalak, ingurumenekoak, zenbatekoak –“de minimis”-, ikerketa eta garapena sustatzeko, enpresa txiki eta ertainentzako... Eta, berariazko garaian, krisiari aurre egitekoak.

Zehazki, 2008ko udazkenean mundu-mailako krisi ekonomiko eta finantzarioa hasi zenetik, Batzordeak zenbait jakinarazpen hedatu ditu, estatuen laguntzak eta Europar Batasunaren Funtzionamenduaren Ituneko 107. artikuluko 3. paragrafoko b idatz-zatian xedatutako betekizunak bateratzeko irizpideei buruzko jarraibide zehatzak emanez. Horrenbestez, Europako barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira “estatu baten ekonomiaren nahasmendu larria konpontzea helburu duten neurriak”. Zehazki, 2009ko urtarrilaren 19an, jakinarazpen bat hedatu zuen Batzordeak: Egungo krisi ekonomiko eta finantzarioaren testuinguruan finantzazioa bideratzearen estatuek hartutako laguntza-neurriei aplikatzeko denbora-esparrua (DO C 16, 2009-1-22, 1. or., aurrerantzean “denbora-esparrua”). Dokumentu horretan, orain aurrekontuen Lege-



proiektuan bezala, enpresek finantzazioa eskuratzeko sustatzeko neurriak aurreikusten ziren.

Batzordeak erabaki zuen, denbora-esparruaren baitan, mailegu-bermeak diruz laguntzea, denboraldi mugatua, berariazko soluziobide egokia izan zitekeela, enpresek finantziazioa eskuratzeko, finantza-merkatuen aldakortasunak eta ikuspegi ekonomikoen ziurgabetasunak eragindako zailtasunak kontuan hartuta. Hortaz, berariaz aitortu zen finantzazio nahikoa eta eskuragarria ezinbesteko baldintza dela sektore pribatuan inbertsioa, hazkundera eta enplegua sustatzeko.

Merkatuko baldintzak zirela-eta, zenbait neurri 2011ko abenduaren 31 arte luzatu ziren, eta handik aurrera pixkanaka-pixkanaka estatu-laguntzei buruzko ohiko arauetara itzultzeko baldintzak xedatu ziren. Aldi berean, lehia eragingo zituzten ondorioak murriztu ziren, bereziki aplikatuko ziren murrizketak txikiagotuz, eta enpresa handientzat baldintza zorrotzagoak jarritz, enpresa txiki eta ertainek bete beharrekoak baino.

Gero zehaztu behar diren programetako aurrekontuko zuzkidura baino ez du aipatzen aurreikuspenak; beraz, programa horiek etorkizunean izan ditzaketen ildo nagusiak 9. artikuluan jasota badaude ere, ez dira zuzenean laguntzak aitortzen, eta ildo horretan, ezin diote oztoporik jarri estatu-laguntzak kontrolatzeko ikuspegitik. Eta, horren haritik, etorkizunean hartuko diren neurri zehatzek gaiari buruzko Europako araudia errespetatu beharko dute.

Hala eta guztiz, paragrafo honetan jasotako aurrekontu-sailak garatzeko eta gauzatzeko bideratuko diren neurriek estatu-laguntzei buruzko araudia zehatz-mehatz errespetatzea ezinbestekoa izateaz gain, komenigarria da neurriak zehazteko garaian adi egotea Batzordeak araubide horietarako xedatutakoari, Europako erakundeek une bakoitzean estatu-erakundearen esku utzitako aukera guztiak ahalik eta gehien baliatzeko.



b) II. Titulua: Gastuen egoera-orria.

Egungo egoera orokorra eta ekonomikoa aintzat hartuta, eta gastu publikoa murrizte aldera zein defizita murrizten laguntze aldera, Aurreproiektuak Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 Legean jasotako ordainsarien izozte-neurriak mantentzen ditu 2013ko ekitaldirako.

Funtzionario publikoen ordainsari-araubideari dagokionez, atxikitako memorian aipatu bezala, gogoratu beharra dago arlo honetako autonomia-araudiek duten lotura honako lege honen oinarrizko aginduekin: 7/2007 Legea, apirilaren 2koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena (21. artikulutik 30.era), autonomia-erkidegoen neurriak hartzeko gaitasuna mugatzen duena arlo horretan. Horrela, adibidez, lege-arau horretako 21. artikuluan xedatzen denez, *estatuko legeriaren arabera funtzionarioen oinarrizko ordainsarien zenbatekoak eta ordainsari osagarrien zenbateko orokorren gehikuntzak eta lan-kontratudun langileen soldata-masaren gehikuntzak aurrekontuei buruzko lege egokiaren bidez islatu behar dira aurrekontuko ekitaldi bakoitzean eta ezin izango da erabaki Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean urtero langileentzat finkatzen diren mugak gainditzen dituen soldata-masaren gehikuntza dakarren ordainsari-gehikuntzarik*. 23. artikulua, bestalde, ezartzen du oinarrizko ordainsariak (soldata eta hirurtekoak) *Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legean* ezartzen direla, eta 24. artikulua gehitzen du *funtzionarioen ordainsari osagarrien zenbatekoa eta egitura administrazio publiko bakoitzari dagokion legeak* ezarriko dituela.

17/2012 Legeak, abenduaren 27koak, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 22. bi artikuluan honako hau xedatzen du, *jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioa* hizpide hartuta, sektore publikoko langileen gastuei dagokienez: *2013 urtean sektore publikoko langileen ordainsariak ezingo dute igoerarik izan, 2012ko abenduaren 31n indarrean zeudenak erreferentziatzen hartuta, konparatutako bi aldiak* *homogeneoak izango direlarik, bai*



langileen kopuruari, bai haien antzintasunari erreparatuta, eta uztailaren 13ko 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako murrizketa aintzat hartu gabe. 2012ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei buruz edo 2012an irabazitako zenbatekoei buruz Lege honetan egindako aipamen guztiak ulertu behar dira ekainaren 29ko 2/2002 Legean, 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoan, adierazitakoak egin ostean, kontuan hartu gabe uztailaren 13ko 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuan, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzkoan, adierazitako abenduko aparteko ordainsaria edo haren baliokidea ezabatu dela.

Horren haritik, Aurreproiektuko 19. artikulua, langileen ordainsariei buruzkoak, indarrean dagoen 2012rako Aurrekontu Orokorren Legean adierazitako aurreikuspenei eusten die, eta 2013ko ekitaldirako zero igoera xedatzen du. Artikulu horren edukari buruz, oinarrizko araudiari dagokionez, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeaz gain, nahitaezkoa da 20/2012 Legegintzako Errege Dekretua aipatzea, bereziki eragiten baitie artikulu horren 11. paragrafoan araututako gaiei. Azken paragrafo horretan jasota daude zenbait neurri: borondatezko erretiroen primak, adinagatiko baimenak, aldi baterako ezintasun-egoeretako ordainsarien osagarriei buruzko alderdiak arautzeko baimena ematea Gobernuari. Azken horren aurrekari dira 6/2011 Legea, eta hura garatzen duen urtarrilaren 31ko 9/2012 Dekretua. Neurri horiek, betiere, bat datoz 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuaren I. Tituluan jasotakoekin.

Ordainsariei dagokienez, 19. artikulua 1. paragrafoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, Erakunde Autonomoetako, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako eta EAEko Sektore Publikoko Partzuergoetako langileei buruzkoak, xedatzen du 2012rako guztirako ordainsariek ezingo dutela igoerarik izan, 2011ko ekitaldirako ezarritakoak erreferentziatzat hartuta, adierazitako salbuespenetan izan ezik. Hala ere, azpimarratu behar da 5. paragrafoan eusten zaiela ekaineko eta abenduko aparteko ordainsariei. Errore bat dela uste dugu; izan ere, gauza nabaria da 2013ko urtarrilean aparteko ordainsari bat jaso dutela langileek.



Bestalde, aginduaren 10. paragrafoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko, Erakunde Autonomoetako, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako, Sozietate Publikoetako eta sektore publikoko Fundazioetako eta Partzuergoetako lan-kontratuko langileei buruzkoak ezartzen du 2012 urterako guztirako ordainsariek ezingo dutela inolako igoerarik izan 2011ko ekitaldirako ezarritakoen aldean, lan-kontratuko langileentzako aurreikusten diren salbuespenekin. Salbuespen horiek honako hauetan izan dezakete eratorria: lanpostuko edukietan izandako aldaketak, programa bakoitzari esleitutako unitate kopuruan izandako aldaketak, programari ezarritako helburuen betetze-maila edota lana antolatzeko sistemen aldaketak eta sailkapen profesionalean aldaketak. Era berean, 10. paragrafo berak ezartzen du lan-kontratuko langileriaren soldata-masak ezingo duela hazkunderik izan aurreko ekitaldikoaren aldean. Paragrafo horretan ere errore bat dagoela esan beharra dago: Lehenengo lerrokadan 2012 eta 2013 urteen aipamenak zuzenak dira; aitzitik, bigarren lerrokadan 2012 aipatzea ez da zuzena, eta haren orde 2013 jarri behar da.

21. artikuluak, Ertzaintzako langileen ordainsariei buruzkoak, kolektibo horretara hedatzen du aipatutako 19. artikuluan ezarritako eduki eta irizpideen aplikazioa.

Halaber, 23. artikuluak, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako, Sozietate Publikoetako eta Sektore Publikoko Fundazioetako zuzendarien ordainsariei buruzkoak, kolektibo horren ordainsarien zero hazkundera ezartzen du 2011ko abenduaren 31n indarrean daudenen aldean, adierazten diren salbuespenak salbuespen.

Era berean, zero hazkundera lehendakari, sailburu, goi-kargu eta abarrekoen ordainsariei aplikatzen zaie (19. artikulua, 12. paragrafoa) bai eta behin-behineko langileei ere (19. artikulua, 13. paragrafoa). Paragrafo horietan jasota dagoena da indarrean dagoen abenduaren 23ko 6/2011 Legean adierazitakoaren berdina. Aurreproiektuarekin batera aurkeztutako memorian ez da zehazten 12. paragrafoan aurreikusitako salbuespenei eman nahi zaien irismena. Dena dela, kolektibo horientzat



ere oinarrizko araudia kontuan hartu beharko da, batez ere 17/2012 Legeak, Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 22. artikuluan xedatutakoa (ordainsarien mugak, eta batez ere aseguru kolektiboei buruzkoak), Konstituzio Auzitegiaren 222/2006 Epaiak adierazitakoa aplikatu behar baitzaie.

Azkenik, 25. artikulua aurreikusten du, berriz ere, 6/2011 Legean xedatu bezalaxe, akordio, hitzarmen eta/edo itunak baliogabetuta geratuko direla, ordainsariei buruz aurreikusitako neurriak zuzen aplikatzeko. Horri erantsi behar zaio ildo berean doan bigarren paragrafo bat, lanaldiaren eta ordutegiaren alorreko aurreikuspenen eraginkortasunari buruzkoa; hain zuzen, 2/2012 Legeak, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, 71. xedapen gehigarrian adierazitako oinarrizko araudia.

26. artikuluari dagokionez, proiektuak berrikuntza bat dakar, 2012ko Aurrekontuen Legearekin alderatuta. Zehazki, adierazten du 2013ko ekitaldirako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetako ikastetxe publikoetako langileen ordainsariak murrizten baldin badira, ulertuko da IV. Eranskinean adierazitako modulu ekonomikoen zenbatekoak hauek izango direla: hezkuntza-itunetako langileen gastuei aplikatuko zaie Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mendeko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetako ikastetxe publikoetako langileen ordainsarietarako xedatutako murrizketa-portzentajea.

Dena dela, ez da horrelako xedapen bat Aurrekontuen Lege batean sartzeko den lehenengo aldia. Izan ere, 8/2010 Errege Dekretuak, maiatzaren 20koak, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak ezartzen dituenak, langile publikoen ordainsarietan soldata-masaren %5eko murrizketa xedatu zuen, eta horren ondoren, 3/2010 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontuen Legea aldatzekoak, zazpigarren xedapen gehigarrian aurreikusten zuen ikastetxe itunduetako moduluetan proportzio bereko murrizketa aplikatuko zela, haien nahitaezko erreferentzia irakasle funtzionarioen ordainsariak direla kontuan hartuta. Murrizketa hori buruz eztabaida ugari egin ziren ikastetxe itunduetan, eta hainbat salaketa ere jarri zituzten, baina bai EAeko Auzitegi



Nagusiak bai Auzitegi Gorenak erabaki zuten Estatuko Autonomia Erkidegoko Administrazioak arrazoi zuela langileen gastuen modulua murriztean.

c) III. Titulua: Diru-sarreraren egoera-orria; IV. Titulua: Gastua eta kontratazioa baimentzeko arauak; eta V. Titulua: Legebiltzarrari berri ematea.

Arestiko tituluen aginduak aurreko aurrekontu-legeetan jasotako antzeko aurreikuspenetara egokitzen dira eta ez dakarte ezelako berrikuntzarik txosten honek azter dezan.

e) Xedapen gehigarriak.

Aurreikusitako xedapen gehigarriek aurreko aurrekontu-legeetan jasotakoak errepikatzen dituzte neurri handi batean, aurrekontuen egikaritzearen araubide orokorrari dagozkion berezitasunak ezarriz, jarduketa bereziak baimenduz eta bazterreko kontuak arautuz.

Bosgarren xedapen gehigarriak adierazten du 2013ko aurrekontu-ekitaldi honetan zehar kontratu administratiboetan egindako edozein aldaketa interes publikoko arrazoiengatik egiten dela ulertuko dela, baldin eta haren xedea bada aurrekontu egonkortasunaren helburua lortzea.

Horren haritik, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginak 210. artikuluan xedatzen du Administrazioaren eskumena dela kontratuak aldatzea eta iraungitzea, interes publikoa dela medio. Dena dela, klausulen edo lizitazioen orrietan adierazi behar da, kasu bakoitzean egiaztatu beharrean gerta ez dadin Administrazioa, administrazio-kontratuak aldatzeko (105-108 artikulua) eta iraungitzeko (223-225 artikulua) prozeduretan adierazitakoari jarraiki.



Xedapen gehigarri horri erreparatuta, lehen paragrafoan akats bat dagoela ulertzen dugu; izan ere, kontratuaren aldaketa soilik aipatzen du, baina bistakoa da, bai xedapenaren tituluagatik, bai bigarren paragrafoan xedatutakoagatik, interes publikoko arrazoitzat hartzean aipatu behar direla bai kontratua aldatzea bai irautzea dakarten egoerak.

Seigarren xedapen gehigarria

316/2002 Dekretuak, abenduaren 30ekoak, 3.1.a) artikuluan adierazitako merkatuko errenta tasatua (660 €) aldatu eta 450 €-koa izango dela eta zenbateko horri eutsiko zaiola ezartzen du seigarren xedapen gehigarriak. Lehenik eta behin, deigarria da erregelamendu-mailako arau bat aldatzea lege-mailako arau baten bidez, horrek dakarren maila-harritzea dela-eta. Dena dela, ez da hala gertatzen, hurrengo lerrokadan xedatutako aurreikuspenari esker: Enplegu eta Gizarte Politika sailburuaren eskumena izango da errenta hori aldatzea. Azpimarratu behar da Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legeak Gobernuari esleitzen diola (ez sailburuei) erregelamenduetarako eskumena (16. artikulua). Horrenbestez, ezaugarri horiek dituen aurreikuspenak eskatuko luke gutxienezko irizpide batzuk xedatzea, sailburuak ahalmen hori egikaritzeko. Dena dela, aldaketa iraunkorra denez, azken xedapen batean adierazi beharko litzateke, baina ez da ulertzen erregelamendu bat lege baten bidez aldatzeko premia. Gure ustez, xede hori lor daiteke erregelamendua aldatuz, edo Aurreproiektuan adierazita, 2013ko ekitaldirako ondorioak dituela (edota biak batera).

Zortzigarren xedapen gehigarria

Xedapen horren bidez 2013ko ekitaldirako etxebizitza-prestazio osagarriaren gehieneko zenbatekoa 250 €-koa izatea xedatzen da, kontzeptu guztiak barne hartuta. Aurreikuspen hori bat dator Aurreproiektuan jasotako gastuaren euspenerako neurriekin, baina azalpen argiagoak emate aldera, muga hori duen araua zein den azaltzea komeni da.

Bederatzigarren xedapen gehigarriak funts bat ezartzen du abokatuek derrigorrez bete behar dituzten baina ordainsaririk ez duten jarduerak finantzatzeko. Izan ere, jarduera horiek ez datoz bat 110/2012 Dekretuan, ekainaren 19koan, Doako



Laguntza Juridikoari buruzkoan, aurreikusitako moduluekin. Ondorio horietarako aurreikusten da finantziazioa egingo dela abokatu-elkargoekin sinatuko diren lankidetzeta-hitzarmenen bidez.

Proiektuko hamargarren xedapen gehigarria

20/2012 Legegintzako Errege Dekretuaren 11. artikulua egokitu egin du funtzionario publikoen nahitaezko erretirorako adina, ohiko erretiro-adinarekin (65 urte) bat egiten zuena, eta 2013ko urtarriletik aurrera indarrean dauden ohiko erretiro-adin askotarikoen arabera izango da. Aldaketa horren oinarrian dago 27/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzea, egokitzea eta modernizatzea xede duena. Horregatik xedatzen du *Gizarte Segurantzaren Sistema Orokorreko langile funtzionarioen nahitaezko erretiroa hartzeko adina izango da, betiere, araubide horretako arauak xedatutakoa, ordaindutakoaren arabera erretiro-pentsioa eskuratzeko, adinagatiko murrizketa-koefizienterik gabe.*

Aldaketa horrek ez du eraginik zerbitzu aktiboan irauteko denbora luzatzeari dagokionez. Horrenbestez, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak 67.3 artikulua bigarren lerrokadan jasota dagoen arauketan ez da aldaketarik egin; hau da, zerbitzu aktiboan egotea luzatu daiteke 70 urte arte, eta administrazio publikoek erabaki eta arrazoitu beharko dute zerbitzu aktiboan egoteko luzapen-eskaerari ezezkoa ala baiezkoa ematea. Aukera hori gauzatuko da Estatutu hori garatzeko emango diren Funtzio Publikoko legeak ezarritakoaren arabera, eta gure kasuan Autonomia Erkidegoaren eskumena izango da.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoan ulertzen da EPOEren 67.artikuluak garatzen duela 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 38. artikulua bidez.

38. artikulua

Funtzionario publikoen nahitaezko erretiroa hirurogei eta bost urte betetzen dituztenean aldarrikatuko da ofizioz.



Aurreko lerrokadan xedatutakoa gorabehera, aldarrikapen hori ez da gertatuko zerbitzu aktiboa utzi arte, iraunaldia luzatzea erabakitako kasuetan (hirurogeita hamar urte arte, gehienez). Euskal Administrazio Publikoek emango dituzte eskubide hori gauzatzeko beharko diren prozedura-arauak.

Aurreko lerrokadan xedatutakotik salbuetsita daude erretirorako berariazko arauak dituzten kidegoetako eta eskaletako funtzionarioak.

Horren haritik, proiektuaren hamargarren xedapen gehigarriaren lehenengo paragrafoaren asmoa garbi ageri da. Paragrafo horrek antolamendu autonomikoan txertatzen du 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoa. Arau horrek oinarritzko izaera ere badu, azken xedapenetako laugarrenaren arabera. Beraz, lehen paragrafo horrek eragiten dio 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 38. artikulua lehen lerrokadan adierazitakoari, estatuko oinarritzko legedia jasotzean.

Proiektuaren hamargarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoari dagokionez, 2013ko ekitaldian ez da aplikatuko 6/1989 Legeak, uztailaren 6koak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, 38. artikulua 1. paragrafoaren bigarren lerrokadan xedatutako aurreikuspena, zerbitzu aktiboan luzapena eskatzeko aukerari buruzkoa. Aurreikuspen horretan ez du eraginik izango 20/2012 Legegintzako Errege Dekretuak. Legegile autonomikoaren erabakia izango litzateke, EPOEn jasotako oinarritzko legediak emandako garapen-eremuaren baitan.

Horregatik, ez dago inolako arazorik etete hori bera salbuesteko, legegile autonomikoak egoki iritzitakoari jarraiki, proiektuaren hamargarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoaren bigarren lerrokadaren bidez, jasotzen duen egoera zehatzerako, aukera horren babesean.

f) Xedapen indargabetzaileak.



Azken xedapenetako lehenengoak indargabetzen du 14/1994 Legeak, ekainaren 30ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak lehenengo xedapen gehigarriaren bidez ezarritakoa. Azken xedapen horrek sektore publikoko sozietate publiko, fundazio eta partzuergoei aplikatzen die lege horretan aurreikusitako ekonomia-kontrola eta kontabilitatea. Horrenbestez, erakunde horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Administrazioiko zuzenbide pribatuko erakunde publikoen pareko izango dira, ondorio horietarako.

Xedapen gehigarri horrek ez dauka inolako zentzurik, berariaz indargabetu ez bada ere, 14/1994 Legeak, ekainaren 30ekoak, 6. artikuluan xedatutakoa aldatu ondoren, martxoaren 1eko 6/2012 Legearen bidez. Azken lege horren laugarren eta bosgarren artikuluen bidez, sektore publikoko fundazioei enpresa-kontabilitate araubidea aplikatzen zitzaien, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei eta sozietate publikoei bezala, eta sektore publikoko partzuergoei kontabilitate publikoaren araubidea, erakunde autonomoei bezala. Aipatutako 6. artikulua Aurrekontuen Lege Aurreproiektuaren azken xedapenetako bigarrenaren bidez aldatzeak ez dakar berrikuntzarik.

Azken xedapenetako bigarrenak indargabetzen du martxoaren 1eko 6/2012 Legearen azken xedapenetako lehenengoa. Gobernuari eskatzen dio, legea indarrean jarri eta lau hilabeteko epea agortu aurretik 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa, eta ondorengo legeen bidez egindako aldaketak testu bakar batean bategin ditzan. Bistakoa da epe hori aspaldi gainditu zela, eta Gobernuak ez duela bete eskatutako zeregina. Ondorio horietarako adierazi behar da indargabetzea ez dela agian beharrezkoa, emandako epea gainditu baita. Dena dela, indargabetzea bat dator Aurreproiektuaren azken xedapenetako lehenengoaren bidez indargabetutako xedapenaren parekoa izanik.

F) Legeak aldatzea. Azken xedapenak.



Aurreproiektuak dakartzan legegintza berrikuntzak testuaren azken xedapenetan kokatzen dira, eta araudi-aldaketaren forma hartzen dute. Haien azterketa, arestian aipatutako dotrina-irizpideetatik abiatuak gauzatzen da, aurrekontu-arauaren mugak egiten dutenetatik, alegia. Horien bitartez bideratzen da aurreproiektuaren edukiaren ezinbesteko zatia ez diren xedapenak txertatu ahal izatea, baina lotura ekonomikoa edota aurrekontu-lotura nahikoa dutenak, testuan bertan sartu ahal izateko.

a) Azken xedapenetako bigarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen aldaketa.

14/1994 Legearen 6. artikulua aldaketak dakar 3 bis eta 3 ter paragrafoak ezabatzea. Paragrafo horiek erantsi zitzaizkion martxoaren 1eko 6/2012 Legeak, sektore publikoko fundazio eta partzuergoen kontabilitaterako eta barne-kontrolerako araubideari buruzkoak laugarren eta bosgarren artikuluetan xedatutakoaren bidez. Hala ere, ezabatze horrek ez dakar benetan inolako aldaketarik, artikulua bigarren paragrafoan partzuergoak barne hartuta baitaude; horrenbestez, kontabilitate-araubide publikoari atxikita daude, erakunde autonomoak bezala (horixe adierazten zuen 3 ter paragrafoak, hain zuzen). Fundazioak, berriz, 3. paragrafoan daude, eta enpresen kontabilitate-araubidera atxikita daude, sozietate publikoak bezala (horixe adierazten zuen 3 bis paragrafoak).

17. artikulua aldaketari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta instituzionala aipatu ordez Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa aipatzen du, eta kontrolatu beharreko subjektuen artean organoak sartzen ditu.

b) Azken xedapenetako hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bateratua



aldatzea; testu hori irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen.

Azken xedapenetako hirugarrenak aldatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasen eta prezio publikoen Legearen testu bategina, 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez irailaren 11n onetsia. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzien salaren 2009ko martxoaren 9ko epaia gogora ekartzen da, gero Auzitegi Gorenak berretsia, 2012ko maiatzaren 17ko epaiaren bidez. Biak 1359/2006 helegitean aintzat hartuak. Erabaki horietan Euskal Kirol Portuak emandako zenbait zerbitzu tasatzen dira, eta horren ondorioz, eta haiekin batera, zergak sortzeko lege-erreserbak eskatzen du xedapen horren bidez egindako lege-aldaketa. Memorian zehazten ez bada ere, suposatzen dugu 196. artikuluan 5.2 paragrafoan (atrakalekuak) kirol-portu sortu berrietarako aurreikusitako tarifei buruzko epaien ondoren, tarifa horiek izango dira 5.1 paragrafoan oro har xedatutakoak, eta 5.2 paragrafoaren idazketa berrian daudenak bat datozela Euskal Kirol Portuak eta antzeko sozietate kudeatzaileak ematen zituzten zerbitzuekin. Behar bada gauza bera esan daiteke 8. paragrafoan egindako aldaketaz. Hala ere, ez dugu loturarik aurkitu 9. paragrafoan egindako aldaketan aipatutako epaiekin, eta aparkatzeko tarifen igoera orokorra dakarte. Igoera hori Aurreproiektuarekin batera aurkeztutako memorian justifikatu beharko litzateke, labur-zehatz bada ere, Tasen eta Prezio Publikoen Legearen testu bateginaren 8. artikuluan jasotako baliokidetasun-printzipioa betetzen dela bermatzeko. Dena dela, egin nahi diren aldaketa guztien justifikazio zehaztua ezinbestekoa da, zerbitzuak 196. artikuluan adierazitako aurreikuspenen arabera direla, eta horrenbestez, EKren 134.7 artikuluan xedatutakoa ez dela urratzen egiaztatzeko.

III. ONDORIOA.

Azaldutakoa ikusita, eta proiektatutako xedapena lortu nahi diren helburuetara egokitzen dela, eta arauak prestatzean aplikatu beharreko legezkotasun-parametroak betetzen dituela, aldeko txostena egiten dugu, dokumentu honetan jasotako oharpenak



adierazita, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2013rako Aurrekontu Orokorren Lege Aurreproiektuaren testua aztertu ostean.

Hauxe da txostena, eta zuzenbidean hobeto oinarrituriko beste edozeinen mende geratzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 7a

Dokumentu elektronikoaren sinatzaileak

Izena	Saila	Kargua	Sinadura-data	Egoera
MARISA ETXEBARRIA KEREXETA	HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA	ZERBITZU JURIDIKO NAGUSIETAKO LEGELARIA	2013/03/07 16:40:39	Sinatuta
XABIER UNANUE ORTEGA	HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA	ZUZENDARIA	2013/03/07 17:16:40	Sinatuta

XI

INFORME DE CONTROL ECONÓMICO-NORMATIVO / KONTROL LEGE-EKONOMIKOKO BULEGOAREN TXOSTENA.

PROYECTO DE LEY por el que se aprueban los Presupuestos Generales de la
Comunidad Autónoma de Euskadi, para el ejercicio 2013.
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO 2013. URTEKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN
DITUENA LEGE PROIEKTUA.



INFORME DE CONTROL ECONÓMICO-NORMATIVO QUE EMITE LA OFICINA DE CONTROL ECONÓMICO EN RELACIÓN CON EL ANTEPROYECTO DE LEY POR EL QUE SE APRUEBAN LOS PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI PARA EL EJERCICIO 2013.

La Ley 14/1994, de 30 de junio, de control económico y contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, regula en el Capítulo IV del Título III el Control Económico Normativo, el cual tiene carácter preceptivo y se ejerce mediante la emisión del correspondiente informe de control por parte de la Oficina de Control Económico.

Teniendo presente la citada norma, lo dispuesto en la Sección 3ª del Capítulo III del Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el artículo 10 del 568/2009, de 20 de octubre, por el que se establece la estructura y funciones del Departamento de Economía y Hacienda, siempre de conformidad con lo establecido en la Disposición Transitoria del Decreto 20/2012, de 15 de diciembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, se emite el siguiente

INFORME

El presente anteproyecto de Ley constituye la expresión formal documental, en términos financieros y contables, del conjunto integrado de decisiones que constituyen el programa directivo de la actividad económica a realizar por la Comunidad Autónoma de Euskadi en 2013 (artículo 5.1 de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco cuyo texto refundido se aprobó por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, sin perjuicio de las posteriores modificaciones que se han realizado en el citado texto refundido).

Asimismo, el anteproyecto extiende su objeto a la regulación de cuestiones propias de la Hacienda General del País Vasco o relacionadas con ésta (artículo 6.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.). Por tratarse del proyecto de Ley que aprueba el programa directivo del Gobierno en materia económica para el año 2013, no se requiere la inclusión del anejo de financiación previsto en el artículo 57 de la Ley 7/1981, 30 de junio, de Gobierno.

El presente proyecto mantiene, en líneas generales, la estructura de la vigente Ley de Presupuestos, Ley 6/2011, de 23 de diciembre, por la que se aprobaron los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2012 (BOPV nº 247, de 23 de diciembre de 2011), manteniéndose asimismo la manera de abordar el principio de integridad presupuestaria ya que, al igual que el pasado ejercicio, se ha optado por una agrupación de los presupuestos de explotación y de capital de las entidades pertenecientes al sector público de la CAE que no sean la Administración General, de tal modo que los presupuestos de los organismos autónomos, de los entes públicos de derecho privado, de las sociedades públicas y de las fundaciones y consorcios del sector público, se han agrupado en artículos unitarios por naturaleza y entidades, con la única excepción del presupuesto consolidado del grupo EITB que conforma un artículo (artículo 8) independiente en el anteproyecto.

Se ha tenido en cuenta igualmente la previsión recogida en la nueva normativa de Régimen Presupuestario de Euskadi (aprobada "*Decreto legislativo 1/2011, de 24 de mayo, por el que se aprueba el texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi y se regula el régimen presupuestario aplicable a las Fundaciones y Consorcios del sector público de la CAE*") que determina la inexcusable inclusión, por mor del artículo 2 de la citada norma, de los presupuestos de las fundaciones y de los consorcios del sector público de la CAE, hasta hace dos años fuera del ámbito de aplicación objetivo de la Ley de Presupuestos Generales. Esto hace que ocho entidades de derecho privado (las fundaciones citadas en el artículo 6) y una de derecho público (el Consorcio Haurreskolak citado en el artículo 7), pero todas ellas pertenecientes al sector público de la CAE, pasen a engrosar los presupuestos generales de la Comunidad y, por ende, del articulado del anteproyecto de la Ley de presupuestos generales que los aprueba.

En el trámite actual examinaremos con especial atención aquellas variaciones más significativas que contiene el actual anteproyecto, debiéndonos remitir, en todo lo demás que resulta común con el ejercicio anterior, al informe OCE de fecha 24 de octubre de 2011 correspondiente a la norma presupuestaria del ejercicio 2012, actualmente en vigor.

En principio no resulta preceptivo el dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, como consecuencia de lo dispuesto en el artículo 3 de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, reguladora de dicho órgano consultivo, pero sí obra en el expediente remitido, además del informe jurídico departamental, el preceptivo Informe de Legalidad, elaborado por los servicios jurídicos de la Secretaría General de Régimen Jurídico del Departamento de Administración Pública y Justicia.

Antes de finalizar este apartado introductorio, procede señalar que en el artículo 1 del anteproyecto de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi se

encuentran incorporados nuevamente los Presupuestos del Parlamento Vasco, del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas y de la Agencia Vasca de Protección de Datos, todo ello de conformidad con las leyes conformadoras y reguladoras de dichos entes e instituciones.

Al objeto de dar cumplimiento al contenido esencial y necesario de una ley de presupuestos para que sea conceptuada como tal en virtud de la jurisprudencia del TC y de la normativa aplicable (de la que se da cumplida y amplia cuenta en la memoria y en los informes de legalidad que forman parte del expediente), el proyecto incorpora la información facilitada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas sobre los beneficios fiscales correspondientes a las aportaciones que efectúan las Diputaciones Forales como contribución a los gastos presupuestarios del País Vasco (consecuencia del artículo 5 del DL 1/2011, de 24 de mayo, ya citado). Esta cantidad es de 5.374,0 millones de €.

Del mismo modo, han de comentarse las novedades habidas tanto en la administración institucional en relación a los presupuestos del ejercicio anterior como en el las entidades del sector público de la CAE que han de formar parte de los presupuestos a partir del DL 1/2011. A ellas nos referiremos en el apartado dedicado a las magnitudes presupuestarias. Antes un pequeño comentario al proceso de elaboración de los presupuestos generales y de su reflejo en la ley que los aprueba que es, sustancialmente, el objeto del presente trámite de control económico-normativo.

I. PROCESO DE ELABORACION DE LA LEY DE PRESUPUESTOS GENERALES DE LA CAE PARA EL EJERCICIO 2013.

Como se sabe, el proceso de elaboración de los PP.GG. de la CAE supone el cumplimiento de determinadas formalidades y determinados contenidos que no pueden ser eludidos y sobre los que se construye el definitivo anteproyecto.

El marco jurídico para su elaboración, como se analizaba de forma extensa en nuestro informe del pasado ejercicio de fecha 24 de octubre de 2011, viene establecido por el artículo 44 del Estatuto de Autonomía para Euskadi, en los artículos 5 y 6 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y, sobre todo, el Título IV del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, de modo que han de considerarse, en principio, de obligado cumplimiento para la confección del anteproyecto que informamos (así lo entendió también el propio TC en su STC 3/2003, FJ6).

Habría que citar igualmente el artículo 29 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la CAE y los Órganos Forales de sus Territorios

Históricos, sin cuyo correcto concurso y cumplimiento resulta inviable la presentación siquiera de un proyecto de Presupuestos Generales por parte de la instituciones de la CAE.

En todo caso, en relación con la normativa citada debemos efectuar las precisiones siguientes:

- Procede subrayar que el antes citado Título IV referido al procedimiento de elaboración de los Presupuestos Generales no prevé de forma expresa la posibilidad, como la actual, de un procedimiento de elaboración de los Presupuestos Generales una vez iniciado el ejercicio presupuestario al que han de referirse dichos presupuestos. Esta posibilidad, enteramente plausible, sí se encuentra sin embargo expresamente contemplada en el artículo 134 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, dentro del Título IX referido al Régimen de Prórroga. Dicho artículo regula las normas de congruencia, al objeto de hacer un tránsito amable del presupuesto prorrogado, el cual ha resultado de aplicación durante los primeros meses del ejercicio, a los nuevos Presupuestos Generales que se aprueben para este mismo ejercicio.

Ello sin embargo, ha de concluirse señalando que el procedimiento de elaboración del Presupuesto recogido en el Título IV del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, al margen de las fechas y plazos establecidos en el mismo, sí será de entera aplicación en relación con la elaboración de los Presupuestos Generales de la CAE para el ejercicio 2013.

- Además de Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de relaciones entre las Instituciones Comunes de la CAE y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, procede mencionar igualmente la Ley 2/2007, de 23 de marzo, de Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la Financiación de los Presupuestos de la CAE, aplicable al periodo 2007-2011, la cual resulta de aplicación para 2013, en virtud de su prórroga. En ese sentido, los artículos 27 y 28 del anteproyecto recogen lo acordado a este respecto por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

En base a la normativa citada, un aspecto determinante del proceso de elaboración lo constituye el cumplimiento del artículo 58 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, dedicado a la necesidad de que los presupuestos se elaboren de conformidad con unas Directrices (económicas y técnicas), que aprobadas por el Gobierno se comunican a los Departamentos para que éstos elaboren sus estados de ingresos y gastos y los presupuestos de explotación y capital respectivos del sector público adscrito que resulten de su cumplimiento. En el caso que nos ocupa, es decir el ejercicio 2013, las Directrices se aprobaron por el Gobierno Vasco el 22 de enero de 2013 y, para lo que en el presente trámite interesa, cabe destacar someramente algunos aspectos que

fundamentan el proyecto presentado, recordando en todo caso que en las mismas se incluye un escenario macroeconómico 2013-2015, en el cual se recoge una previsión de decrecimiento del PIB del 1,1%, al igual que otras determinadas previsiones referidas al deflactor del PIB, empleo y tasa de paro.

Además, el documento de Directrices económicas aprobado en enero incluía entre las orientaciones de la política presupuestaria la consecución de cuatro logros; a saber: defensa de las políticas sociales, especialmente la sanidad, la educación y la lucha contra la exclusión social; la incentivación del empleo y la actividad económica; la proyección económica de Euskadi en el mundo; y garantizar la sostenibilidad de las finanzas públicas en el marco de la estabilidad presupuestaria. De los cuatro objetivos apuntados sólo el último de ellos es marcadamente económico cuantitativo y, por tanto, mensurable, debiendo comprobarse si los presupuestos que informamos ahora están alineados con el cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria.

Por ello, en relación con el nuevo marco de Estabilidad Presupuestaria cabe destacar los siguientes contenidos de las Directrices Económicas:

“Además de los requisitos de déficit y deuda, la normativa indicada siguiendo al marco europeo introduce una regla de gasto adicional, por la cual el gasto computable de cualquier administración no podrá superar la tasa de referencia del crecimiento del PIB a medio plazo de la economía española. El gasto computable se define como el gasto no financiero excluidos intereses, prestaciones por desempleo y transferencias a otras administraciones. Se precisa también que cuando se produzcan cambios normativos que alteren de forma permanente la recaudación, el gasto computable se modificará por un importe equivalente.

La fijación del objetivo de estabilidad y la determinación del presupuesto de cada administración tiene que observar por lo tanto una triple exigencia de cumplimiento del criterio de déficit, del de deuda y de la regla de gasto. Partiendo de sus previsiones de ingresos y de pago por intereses el gasto primario presupuestado no podrá crecer más allá de la tasa de referencia y, además, asegurándose que el déficit estructural, y en su caso la deuda, se reducen también conforme a los criterios expuestos”.

Vinculado a lo anterior, se incluye una referencia a Euskadi en el citado marco de estabilidad en los siguientes términos:

“Una vez conocidas las claves de la nueva legislación hay que referirse al singular marco normativo de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La legislación en materia de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera establece que su aplicación al País Vasco se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley del Concierto Económico. Esta Ley configura un sector público vasco con autonomía fiscal y financiera y relaciones bilaterales con el Estado, que también alcanzan a la estabilidad presupuestaria, estableciendo que corresponde a la Comisión Mixta del Concierto el acordar los compromisos de colaboración y coordinación en materia de estabilidad presupuestaria”.

Por último, en relación con el ajuste fiscal las Directrices señalan:

“Los objetivos de estabilidad 2013-2015 en % del PIB se fijan para el conjunto de las Comunidades Autónomas en -0,7, -0,1 y +0,2. En relación con la Comunidad Autónoma de Euskadi aún no se ha suscrito un acuerdo con el Estado, ante lo cual se va a considerar como objetivo de déficit para 2013 una necesidad de financiación del 0,7% del PIB.

La agregación del objetivo del déficit y la previsión de ingresos, realizada a partir de las previsiones económicas para 2013, obliga a plantear una reducción en los Presupuestos de 2013 y a una política de austeridad para poder llevar a cabo los objetivos del Gobierno Vasco”.

En lo que hace a las directrices presupuestarias crediticias, es decir, ligadas a los gastos presupuestarios, el documento de enero establecía seis directrices que se referían al modo de presupuestar, es decir, a la norma que informamos:

PRIMERA: Gastos de personal

El cálculo de los gastos de personal para el presupuesto 2013 será realizado por el Departamento de Hacienda y Finanzas con el criterio de no incremento de las retribuciones del personal al servicio del sector público.

Además, con el objetivo de optimizar la gestión de los gastos de personal se tomarán medidas en la Administración General, Organismos Autónomos y demás Entidades del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tendentes a la contención del mismo, en cuanto a la cobertura de puestos vacantes, sustituciones y contratación de personal temporal.

No se incrementará la plantilla presupuestaria con respecto al total agregado de las plazas existentes al 31 de diciembre de 2012.

SEGUNDA: Gastos de funcionamiento y Transferencias corrientes

Las transferencias a entidades de la administración institucional se calcularán teniendo en cuenta, en la parte que financien gastos de personal, las limitaciones recogidas en el apartado anterior.

Los Departamentos, Organismos Autónomos y demás Entidades del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, examinarán sus políticas de gasto corriente, tomando decisiones que posibiliten una reducción significativa del mismo, priorizando la consecución de los objetivos estratégicos anteriormente enumerados.

TERCERA: Inversión pública

La inversión pública se adecuará para priorizar el cumplimiento del objetivo de preservar los servicios públicos básicos.

CUARTA: Gastos financieros y Disminución de Pasivos Financieros

Los intereses y la amortización de la Deuda Pública se presupuestarán por el coste real estimado.

QUINTA: Adecuación de las estructuras de dirección de Administración General

Se adoptarán medidas para reducir en 2013 las estructuras de dirección en un 20% en la Administración General

SEXTA. No creación de nuevas entidades del sector público

No se contemplará la creación de nuevos OAAA, Entes Públicos de Derecho Privado, Sociedades Públicas, Fundaciones y Consorcios.

A continuación resulta procedente contrastar las citadas directrices con la plasmación que las mismas han tenido en el proyecto, incluyendo en el presente informe la información contenida al respecto en la memoria explicativa del proyecto de presupuestos (tomo 1):

“La situación presupuestaria para este ejercicio va a suponer una disminución de recursos de 1.132,5 millones de euros en relación al ejercicio 2012, en términos absolutos, y de un 10,8% en términos porcentuales, suponiendo unos recursos de 9.316,7 millones de euros. Esta reducción de recursos se produce por las disminuciones que se dan en tres grandes apartados del ingreso. En un primer lugar, las aportaciones de las Diputaciones Forales disminuyen en 680 millones de euros, en un segundo lugar, la variación del endeudamiento bruto se ve reducida en 335 millones de euros, y por último, la cifra del resto de ingresos se ve reducida en 117,5 millones de euros debido a la desaparición de operaciones extraordinarias.

El presupuesto preserva las grandes líneas de gasto social del Gobierno Vasco, especialmente los servicios de salud, la educación y la atención a familias en situación precaria. Se ha discriminado de forma positiva a este bloque de políticas públicas a la hora de establecer las priorizaciones de gasto del Gobierno Vasco. Tras esta discriminación positiva dentro de las políticas de gasto social del Gobierno, se plantean disminuciones para el resto de actuaciones de políticas públicas de una manera más acentuada para poder así acomodarse a este escenario

marzo, ya que, en virtud de los artículos cuarto y quinto de esta última, a las fundaciones del sector público se les aplicaba el régimen de contabilidad empresarial, al igual que a los entes públicos de derecho privado y a las sociedades públicas, y a los consorcios del sector público el régimen de contabilidad pública, al igual que a los organismos autónomos. Ahora bien, si tenemos en cuenta que no se ha producido una derogación expresa de la misma, nada empece a que se efectúe una derogación expresa de aquella Disposición Adicional Primera de la Ley 14/1994, en aras de una mayor seguridad jurídica respecto de la propuesta de regulación que ahora se plantea.

2. Las **Disposiciones Finales** del Proyecto merecen los siguientes comentarios.

2.1 La Disposición Final primera incluye una autorización al Gobierno para que en un plazo no superior a cuatro meses refunda en un solo texto la Ley 14/1994, de 30 de junio, de Control Económico y Contabilidad de la CAE y las modificaciones introducidas en la misma por otras leyes posteriores. Esta autorización es coherente con lo dispuesto en la Disposición derogatoria segunda del proyecto que deroga la Disposición Final primera de la Ley 6/2012, de 1 de marzo, la cual también planteaba una autorización al gobierno en un sentido similar (también el informe de legalidad presenta objeciones sobre la virtualidad de la Disposición derogatoria segunda, dado que el plazo previsto inicialmente ha sido superado ampliamente sin que el Gobierno haya cumplido con la tarea encomendada).

2.2 Para facilitar esa tarea refundidora se ha dado nueva redacción al artículo 6 de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la CAE, cuyo contenido principal es la regulación del régimen de contabilidad que ha de aplicarse a cada una de las entidades que conforman el Sector Público de la CAE. Se advierte, en todo caso, que a efectos de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la CAE el sector público no es equiparable al establecido en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, por lo que al objeto de ofrecer más claridad al texto propuesto se propone la siguiente precisión en el apartado 4 del nuevo artículo 6:

4. Las demás entidades del sector público de la Comunidad Autónoma que formen de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en los términos que se establecen en el párrafo 1 de este artículo, estarán sujetas(sigue igual).

Se modifica igualmente el párrafo 1 (*no primero*) del artículo 17 la Ley de Control Económico y Contabilidad de la CAE, para precisar que las entidades del Sector Público de la CAE serán objeto de control económico-financiero. Ello será, añadimos desde esta Oficina de Control Económico, sin perjuicio de que otras modalidades de control económico que se puedan realizar, por ejemplo, en el ámbito subvencional.

2.3. La Disposición final tercera modifica el artículo 196 del Texto Refundido de la Ley Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, como consecuencia de sendas sentencias tanto de la sala de lo contencioso-administrativo del TSJ del País Vasco y del Tribunal Supremo, relativo a la consideración como tasas del cobro por ciertos servicios prestados por Euskal Kirol Portua (EKP).

Siendo lo expuesto cuanto cabe informar en relación con el anteproyecto examinado, se emite el presente informe para su incorporación al expediente tramitado.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de marzo de 2013

Fdo.: Jon Iñaki Usategi

Vº Bº:

CONTROL ECONÓMICO NORMATIVO

Fdo.: Javier Losa Ziganda

**DIRECTOR DE LA OFICINA DE
CONTROL ECONÓMICO**

Firmantes del documento electrónico

Nombre	Departamento	Cargo	Fecha de la firma	Estado
JON IÑAKI USATEGI DIAZ DE OTALORA	HACIENDA Y FINANZAS	RESPONSABLE CONTROL ECONÓMICO NORMATIVO	12/03/2013 13:19:52	Firmado
FRANCISCO DE JAVIER LOSA ZIGANDA	HACIENDA Y FINANZAS	DIRECTOR/A	12/03/2013 13:25:06	Firmado



**KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAK EGINDAKO EKONOMIA- ETA ARAUDI-
KONTROLERAKO TXOSTENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN 2013ko
EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORRAK ONESTEN DITUEN LEGE-
AURREPROIEKTUARI BURUZKOA.**

Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legeak ekonomia- eta araudi-kontrola arautzen du III. tituluko IV. kapituluan. Derrigorrezko izaera du, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenaren bidez gauzatzen da.

Kontuan izanik aipatutako arau hori, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluko 3. atalean xedaturikoa eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta eginkizunak ezartzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoa, eta betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat, honako txosten hau ematen da:

TXOSTENA

Lege-aurreproiektu hau Euskal Autonomia Erkidegoak 2013an egin behar duen jarduera ekonomikoaren zuzendaritzarako programa eratzen duten erabakien multzoaren agiri bidezko adierazpen formal da, finantzei eta kontabilitateari dagokienez (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 5.1 artikulua; lege horren testuategina azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsi zen, baina harrezkero aldaketak egin dira testuateginean).

Aurreproiektuaren xede da, halaber, Euskadiko Ogasun Nagusiari dagozkion edo harekin zerikusia duten gaiak arautzea (Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuateginaren 6.2 artikulua). Ekonomia-arloan Jaurlaritzak zuzendaritzarako 2013rako duen programa onesten duen lege-proiektua denez, ez da beharrezkoa Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 57. artikuluan aurreikusitako finantzaketa-eranskina jasotzea.

Proiektu honek, oro har, mantendu egiten du gaur egun indarrean dagoen Aurrekontu Legearen egitura (6/2011 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012.

urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen; 247. zenbakiko EHAA, 2011ko abenduaren 23koa). Aurrekontu-osotasunaren printzipioari ekiteko modua ere mantendu egin da; izan ere, aurreko ekitaldian bezala, Administrazio Orokorrekoak ez diren EAeko sektore publikoko erakundeen ustiapen- eta kapital-aurrekontuak taldekatu dira eta, horrela, organismo autonomoen, zuzenbide pribatuko ente publikoen, sozietate publikoen, fundazioan eta partzuergoen aurrekontuak banakako artikuluetan taldekatu dira izaera eta erakundeka. Salbuespen bakarra EITB taldearen aurrekontu bateratua izan da, artikulua independentea dela aurreproiektuan (8. artikulua).

Kontuan hartu da, era berean, Euskadiko aurrekontu-araubideari buruzko araudi berrian (*"1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta EAeko sektore publikoko fundazio eta partzuergoerik aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena"*) jasotako aurreikuspena; arau horren 2. artikuluan hala ezarrita, nahitaez sartu behar dira EAeko sektore publikoko fundazioen eta partzuergoen aurrekontuak, orain dela bi urte arte Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen aplikazio eremu objektibotik kanpo egon direnak. Horren ondorioz, zuzenbide pribatuko zortzi erakunde (6. artikuluan aipatutako fundazioak) eta zuzenbide publikoko erakunde bat (7. artikuluan aipatutako Haurreskolak partzuergoa), guztiak direla EAeko sektore publikokoak, autonomia-erkidegoko aurrekontu orokorretan islatuko dira eta, ondorioz, aurrekontuok onesten dituen Aurrekontu Orokorren lege-aurreproiektuan.

Izapide honetan arretaz aztertuko ditugu aurreproiektuak dituen aldaketa garrantzitsuenak. Aurreko ekitaldiarekin bat datorren gainerako guztian Kontrol Ekonomikoko Bulegoak gaur egun indarrean dagoen 2012ko aurrekontu-arauari buruz 2011ko urriaren 24an egindako txostenari eutsiko diogu.

Hasiera batean ez da nahitaezkoa Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, kontsulta-organo hori arautzen duen azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren ondorioz. Alabaina, bidalitako espedientean, Sailaren txosten juridikoaz gain, legezkotasunari buruzko txostena ere ageri da, Herri Administrazio eta Justizia Saileko Araubide Juridikoaren Idazkaritza Nagusiko zerbitzu juridikoek egina.

Sarrera atala amaitu baino lehen, adierazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren aurreproiektuaren 1. artikuluan, Euskal Legebiltzarraren aurrekontuak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiarenak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoarenak ere txertatuta daudela, betiere aipatutako erakunde eta instituzioen egituratze eta arautze legeekin bat.

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziari jarraituz eta aplikatu beharreko araudiari jarraituz (zabal azaldu dira espediente osatzen duten memorian eta legezkotasunari buruzko txostenetan) aurrekontu-legeak izan behar duen funtsezko eta beharrezko edukia betetzearren,

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuko gastuetan laguntzeko foru-aldundiek egindako ekarpenei dagozkien zerga-onurei buruz Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak emandako informazioa azaltzen da proiektuan (dagoeneko aipatu den maiatzaren 24ko 1/2011 LDren 5. artikulua onduz). Zenbateko hori 5.374,0 milioi eurokoa da.

Era berean, aurreko ekitaldiko aurrekontuen inguruan administrazio instituzionalean egondako berrikuntzak aipatu behar dira, bai eta 1/2011 LDz geroztik aurrekontua osatzen duten EAEko sektore publikoko erakundeetan egondako berrikuntzak ere. Aurrekontuko muntei buruzko atalean aipatuko ditugu. Lehenik eta behin, aurrekontu orokorrak egiteko prozesuari eta aurrekontuek onesten dituzten legean duten islari buruzko iruzkin txiki bat egingo da, horixe dela, funtsean, ekonomia- eta araudi-kontrolaren izapide honen helburua.

I. E.A.E.REN 2013ko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORREN LEGEA EGITEKO PROZESUA.

Jakina den bezala, EAEko Aurrekontu Orokorrak egiteko prozesuan nahitaez bete behar dira zenbait formalitate eta eduki. Saihestezinak dira, eta horien gainean eraikitzen da behin betiko aurreproiektua.

Aurrekontuak egiteko esparru juridikoa, aurreko ekitaldiko gure txostenean, 2011ko urriaren 24koan, zabal aztertu zen bezala, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 44. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 5. eta 6. artikuluetan eta, batez ere, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren IV. tituluaren ezarrita dago. Beraz, xedapen horiek nahitaez bete beharrezkotzat jo behar dira, funtsean, txosten honetan aztergai dugun aurreproiektua egiteko (halaxe ulertu zuen KAK berak 3/2003 FJ6 epaian).

Aipatu behar litzateke, era berean, Autonomia Elkarte Osorako erakundeetan eta bertako kondairea-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeetan arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 29. artikulua. Bada, hori behar bezala bete ezean bideraezina izango litzateke EAEko erakundeek Aurrekontu Orokorrei buruzko proiekturik aurkeztea.

Nolanahi ere, aipatutako araudiari dagokionez ohar hauek egin behar ditugu:

- Azpimarratu beharra dago goian aipaturiko IV. tituluak, Aurrekontu Orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak, ez duela berariaz aurreikusten orain esku artean daukagun aukera, hots, Aurrekontu Orokorrak egiteko prozedurari ekitea aurrekontu horiei dagokien aurrekontu-ekitaldia hasitakoan. Aukera hori erabat onargarria da eta beren-beregi aurreikusita dago Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 134. artikuluan, luzapenaren araubidez diharduen IX. tituluaren barruan, hain zuzen ere.

Artikulu horrek kongruentzia-arauak ezartzen ditu, iraganbide leuna egin ahal izateko ekitaldi honetako lehenengo hilabeteetan aplikagarria izan den aurrekontu luzatutik ekitaldi honetarako onartuko diren Aurrekontu Orokor berrietara.

Hala ere, esan behar da Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren IV. tituluan Aurrekontua egiteko jasorik dagoen prozedura, bertan ezarritako datak eta epeak gorabehera, oso-osorik aplikagarria izango dela EAeko 2013ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak egiterakoan.

- Autonomia Elkarte Osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeaz gainera, martxoaren 23ko 2/2007 Legea ere aipatu behar da, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa, 2013an aplikagarria baita, indarraldia luzatuta. Ildo horretan, aurreproiektuaren 27. eta 28. artikuluetan jaso da Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak horri buruz erabakitakoa.

Aipatutako arauetan oinarrituta, Aurrekontua egiteko prozesu honetan alderdi erabakigarria da Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bateginaren 58. artikulua betetzea. Bertan ezartzen da aurrekontuak jarraibide (ekonomiko eta tekniko) jakin batzuen arabera egin behar direla. Jarraibide horiek Jaurlaritzak onetsi behar ditu, eta Sailei jakinarazten zaizkie, diru-sarrera eta gastuen egoera-orriak eta atxikitako sektore publikoaren ustiapen- eta kapital-aurrekontuak egin ditzaten. Aztergai dugun kasuan, hau da, 2013ko ekitaldian, Eusko Jaurlaritzak 2013ko urtarrilaren 22an onetsi zituen jarraibideak, eta, izapide honetan interesatzen zaigunerako, azaletik bada ere azpimarratu egin behar dira aurkeztutako proiektuaren oinarri diren alderdi batzuk, betiere gogoan edukita jarraibideetan 2013-2015 bitarteko eszenatoki makroekonomikoa aztertu dela; bertan aurreikusten da BPGd-ak % 1,1 egingo duela behera eta antzeko aurreikuspenak daude BPGd-aren deflatoreari, enpleguari eta langabezia-tasari buruz.

Gainera, urtarrilean onetsitako jarraibide ekonomikoen agirian lau lorpen aipatzen ziren aurrekontu-politikarako orientabideen artean, alegia: gizarte-politikak babestea, bereziki osasuna, hezkuntza eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka; enplegua eta ekonomia-jarduera bultzatzea; Euskadik munduan izan behar duen proiektzio ekonomikoa; eta finantza publikoen jasangarritasuna bermatzea aurrekontu-egonkortasunaren esparruan. Aipatutako lau helburuetatik azkenak bakarrik dauka izaera ekonomiko kuantitatibo nabaria eta, ondorioz, neurgarria. Bada, txostenean aztertzen gabiltzan aurrekontuak aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzearekin bat datozen egiaztatu behar da.

Horregatik, aurrekontu-egonkortasunaren esparru berria dela-eta, azpimarratzekoak dira jarraibide ekonomikoetako eduki hauek:

“Defizitaren eta zorraren arloko betekizunez gain, Europako esparruari jarraituz adierazitako araudiak gastu gehigarriaren erregela gehitzen du, eta haren arabera, gastu konputagarrien hazkundeak ezingo du gainditu Espainiako ekonomiaren epe ertainerako BPGd-aren erreferentziako hazkunde-tasa. Gastu kontagarria honela definitzen da: finantzaz besteko gastua, interesak, langabeziagatiko prestazioak eta beste administrazio batzuetarako transferentzia salbuetsita. Hau ere zehazten da: zerga-bilketa etenik gabe aldatzen duten arau arloko aldaketak gertatzen direnean, gastu kontagarria baliokide den zenbatekoan aldatuko da.

Egonkortasun arloko helburua finkatzeak eta administrazio bakoitzaren aurrekontua zehazteak, beraz, hiru eskakizun hauek betetzea zaindu behar du: defizitaren irizpidea, zorraren irizpidea eta gastu-erregelaren irizpidea. Aurreikuspenetatik abiatuta (diru-sarrerak eta interesengatiko ordainketak), aurrekontuko gastu primarioa ez da hazi ahal izango erreferentziako tasatik harago, eta, gainera, ziurtatu beharko da egiturazko defizita eta, behar izanez gero, zorra azaldutako irizpideen arabera murriztuko direla”.

Aurrekoari loturik, Euskadiren aipamena dago egonkortasunaren esparruan:

“Legedi berriaren gakoak ezagutu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoak duen arau-esparru berezia ere aipatu behar da. Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Jasangarritasunaren arloko legediak ezartzen du legedi hori Euskadin ere aplikatuko dela, baina horrek ez dio kalterik egingo Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoari. Lege horrek zerga- eta finantza-autonomia duen euskal sektore publiko bat egituratzen du, Estatuarekiko alde biko harremanak dituen, aurrekontu-egonkortasunari dagokionez ere bai, eta ezartzen du Batzorde Mistoari dagokiola «lankidetz- eta koordinazio-konpromisoak erabakitzea aurrekontu-egonkortasunaren arloan”.

Azkenik, zerga-doikuntza dela-eta jarraibideek honako hau diote:

“2013-2015eko egonkortasun arloko helburuak, BPGd-aren %tan, honela finkatu dira autonomia-erkidegoen multzorako: 0,7, -0,1 eta +0,2. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, oraindik ez da sinatu akordiorik Estatuarekin; hori dela eta, 2013rako defizit arloko helburuztat BPGd-aren % 0,7ko finantziazio-beharrizana hartuko da.

2013rako aurreikuspen ekonomikoen arabera defizitaren helburua eta diru-sarreraren aurreikuspena eransteak honetara behartzen gaitu: 2013rako aurrekontuetan murrizketa bat ezartzera eta Eusko Jaurlaritzaren helburuak betetzeko austeritate-politika bat eramatera”.

Aurrekontu-kredituaren gaineko jarraibideak aurrekontuko gastuei lotuta daude. Horiei dagokienez, urtarrileko agirian sei jarraibide ezarri ziren aurrekontua egiteko moduari buruzkoak, hau da, gure txostenean hizpide dugun arauari buruzkoak:

LEHENENGOA: Langile-gastuak

2013ko aurrekonturako langile-gastuen kalkulua Ogasun eta Finantza Sailak egingo du, irizpide honekin: igoerarik ez izatea sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarrietan.

Gainera, langile-gastu horien kudeaketa optimizatzeko helburuz, neurri batzuk hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta erakunde autonomoetan Sektore Publikoko gainerako erakundeetan, langile-gastuari eusteari begira, lanpostu hutsak betetzeari, ordezkapenak egiteari eta aldi baterako langilea kontratatzeari dagokienez.

Aurrekontu-plantilla ez da handituko, 2012ko abenduaren 31n dauden lanpostuen guztizko agregatuarekin alderatuz.

BIGARRENA: Funtzionamenduko gastuak eta transferentzia arruntak

Administrazio instituzionaleko erakundeentzako transferentziak kalkulatzeko, aurreko ataleko mugak hartuko dira kontuan, transferentziok langile-gastuak finantzatzen dituzten zatian.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko sailek, erakunde autonomoek eta gainerako erakundeek gastu arruntari buruzko politikak aztertu, eta erabakiak hartuko dituzte, gastu arruntak nabarmen murrizte aldera, lehenetasuna emanda lehenago adierazitako helburu estrategikoak betetzeari.

HIRUGARRENA: Inbertsio publikoa

Egokitu egingo da inbertsio publikoa, euskal zerbitzu publikoak zaintzeko helburua betetzea lehenesteari begira.

LAUGARRENA: Finantza-gastuak eta finantza-pasiboen txikiagotzea

Zor Publikoaren interesen eta amortizazioaren aurrekontua zenbatetsitako kostu errealaeren arabera egingo da.

BOSGARRENA: Administrazio Orokorreko zuzendaritza-egiturak egokitzea

Neurriak hartuko dira Administrazio Orokorreko zuzendaritza-egiturak % 20 murrizteko 2013an.

SEIGARRENA. Sektore publikoko erakunde berririk ez sortzea

Ezin izango da organismo autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko, sozietate publiko, fundazio edo partzuergo berririk sortu.

Ondoren jarraibide horiek proiektuan izan duten islarekin alderatu behar dira, eta horretarako txosten honetara ekarriko dugu aurrekontuen proiektuko azalpen-memorian (1. liburukia) horri buruz dagoen informazioa:

“Ekitaldi honetarako aurrekontuak 1.132,5 milioi euro gutxiago izango ditu 2012ko ekitaldiaren aldean kopuru absolutuetan, eta % 10,8ko beherakada ehunekotan; guztira 9.316,7 milioi euro izango dira. Diru-sarreraren hiru atal handitan izandako murrizketek eragin dute baliabide gutxiago egotea. Lehenik, Foru Aldundien ekarpenak 680 milioi euro gutxiago izan dira; bigarrenik, zorpetze gordinaren aldaketa 335 milioi euro murriztu da, eta azkenik, gainontzeko diru-sarrerak 117,5 milioi euro murriztu dira aparteko eragiketarako desagertzean.

Eusko Jaurlaritzaren gizarte-gastuaren ildo nagusiei eutsiko die aurrekontuak, bereziki, osasunari, hezkuntzari eta egoera larrian dauden familientzako arretari. Politika publiko horiek diskriminazio positiboa jaso dute Eusko Jaurlaritzaren gastu-lehenetasunak finkatzeko orduan. Jaurlaritzaren gizarte-gastuaren politiken barruko diskriminazio positibo horren ostean, politika publikoen gainerako jarduketek murrizketa are nabarmenagoak izango dituzte agertokira egokitu ahal izateko.

Gastu-atal guztietan izan dira gastu-murrizketak. Gastu-murrizketa txikiena I. eta II. kapituluetan izan da; zehazki, 1.917,9 milioi euroko gastua duen I. kapitulua % 2,2 murriztu da, eta II.a, 3.064,9 milioi eurokoa duena, % 4,4. Horien murrizketa txikiagoa da kapitulu horietan biltzen baitira Eusko Jaurlaritzaren gizarte-politika nagusiak, funtsean Osakidetzaren funtzionamendu-gastuak zein euskal hezkuntza-sistemaren ohiko funtzionamendua. IV. kapituluan % 14,2ko murrizketa izan da; hala, 2.815,2 milioi euro izango ditu ekitaldion. Nolanahi ere, kapitulu horrek aurrekontuaren batez besteko murrizketa baino

handiagoa izan arren, nabarmendu beharra dago gizarte-bazterkeriari aurre egiteko partidek ez dutela murrizketarik izan.

Kapital-gastuak zehazteko orduan, bestalde, oinarrizko zerbitzu publikoetara bideratutako gastua lehenetsi da. Aurrekontuaren murrizketarik handiena, dena den, kapitulu horietan izan da; horrela bada, VI. kapitulua % 19,5 murriztu da, eta 493,1 milioi eurokoa izango da; halere, kontuan hartu behar dugu abiadura handiko trenaren eragina barnean hartzen duela, azken hori administrazio zentralak finantzatua izanik. Kapital-transferentziek % 42ko murrizketa izan dute, eta 461,8 milioi eurokoak dira aurrekontuan.

Gastuaren VIII. kapituluak % 29,5eko murrizketa izan du; 116 milioi eurokoa da. Aurreko ekitaldiaren aldean gastu-kapitulu honetan beherakada handia izan bada ere, aurreko kapituluetan bezala hemen ere lehenetsi dira ekintza-ildo jakin batzuk. Horregatik, hain zuzen, ildo zehatz batzuk ezarriko dira enpresa-sektorea krisiaren aurrean babesteko tresnak eduki ahal izateko.

Kapitulukako azterketa amaitzearen, zorraren amortizazioak % 18ko igoera izan du (199,9 milioi eurokoa da); hala, zorraren zerbitzua aurreko ekitaldiko mailan mantendu da (247,9 milioi euro).

Aurrekontua sailen arabera aztertuz gero, gizarte-politikaren oinarri diren sailak aurrekontuan sendotu direla ikusiko dugu, baita bertan duten garrantzi erlatiboa handitu dela ere; hala, gastu osoaren % 71,7 bereganatuko dute 2013an (% 70,9 2012an). Bereziki nabarmendu beharra dago Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren hazkunde txikia, baita Osasun Sailaren garrantzi erlatiboaren hazkundera ere; Eusko Jaurlaritzaren gastuaren % 35 hartuko du (% 32,6 aurreko ekitaldian)."

Aurrekontuen legea eta Gobernu Kontseiluan aztertu aurreko izapideak egiteko prozesu-unea gainbegiratuta, aurreko ekitaldiarekin alderatu behar da aurrekontuko munten eta berrikuntza nagusien inguruan.

II. AURREKONTUKO MUNTAK

1) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2013rako Aurrekontuko gastuen zenbatekoa, ordainketa-kredituei dagokienez, guztira **9.316.657.000,-** eurokoa da. Sortutako konpromiso-kredituak **1.067.552.942,-** eurokoak dira. Bestalde, Aurrekontuko diru-sarreraren zenbatekoa ere aurrekoaren berdina da: **9.316.657.000** euro.

2013ko ekitaldirako proiektuan adierazitako ordainketa-kredituen zenbateko osoak *gutxiagotzea* izango du 2012rako hasierako aurrekontuarekiko; gutxiagotze hori, balio absolutuetan, **1.132.510.000,-** eurokoa izango da, hau da, **-% 10,84** Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legean adierazitako zenbatekoarekin alderatuta. Bestalde, konpromiso-kredituen zenbateko osoak % 26,33ko *kenkuntza* izango du.

2) EHUrako aurrekontu-zuzkidura **287.950.754,-** eurokoa da, **% 13,06 txikiagoa** 2012koarekin alderatuta, eta horren banakapena Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legean aurreikusitako egiturari oinarrituta egin da; bertan, euskal unibertsitateko langileei dagozkien soldata-osagarrien finantzaketa ere barneratu da.

- Ekarpen arrunta: 241.446.000 € (238.446.000 € eragiketa arruntetarako eta 3.000.000 € kapital-eragiketarako)

- Programa-kontratueterako ekarpen osagarria: 25.389.896,- €
- Inbertsio eta azpiegituretarako urte anitzeko programa: 7.971.469,- €
- Banakako lansari osagarriak finantzatzeko kredituak: 16.143.389,- €

3) Aurrekontuetan erakunde autonomo administratiboei (HABE, POLIZIA IKASTEGIA, IVAP, EUSTAT, EMAKUNDE, OSALAN, KONTSUMOBIDE, LANBIDE, LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZA) dagozkien gastuen zenbatekoak, ordainketa-kredituak eta konpromiso-kredituak direla eta, honako hauek dira, hurrenez hurren:

Erakunde autonomoak	Ordainketa-kredituak	Konpromiso-kredituak
HABE	39.100.000,- €	22.510.000,- €
Polizia Ikastegia	11.630.000,- €	5.451.000,- €
HAEE	21.731.000,- €	753.100,- €
EUSTAT	12.101.000,- €	4.710.000,- €
EMAKUNDE	6.543.000,- €	1.352.316,- €
OSALAN	15.035.000,- €	2.133.333,- €
KONTSUMOBIDE	6.555.000,- €	1.009.643,- €
Lanbide	586.259.000,- €	44.013.073,- €
Lehiaren Euskal Agintaritza	1.158.000,- €	0,- €
<i>Guztira</i>	700.112.000,- €	81.932.465,- €

Aipatutako erakunde autonomoei zuzendutako aurrekontuetako diru-sarrerak erakunde horietako bakoitzari esleitutako ordainketa-kredituen guztizko zenbateko bera dute; diru-sarreretan Diruzaintzako geldikinak ere barneratuko dira (horien zenbatekoa proiektuan adierazi da).

Aipatzekoa da aurten lehenengoz sartu dela aurrekontuen inguruko legean, eta erakunde autonomo gisa, "Lehiaren Euskal Agintaritza".

Aurreko ekitaldiko datuen aldean erakunde autonomiadunen ordainketa-kredituen guztizko zenbatekoa % 22,35 txikiagoa da, eta horren ildotik azpimarragarria da Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuari esleitutako ordainketa-kredituen jaitsiera, 193.990.00,- € gutxiago jaso baitu.

Era berean, bigarren aldiz sartu dira EAEko sektore publikoko partzuergo bakarraren (Haurreskolak) aurrekontuak, 55.211.000,- €-ko ordainketa-kredituekin.

4) Proiektuaren 4. artikuluan onesten dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoen ustiapen- eta kapital-aurrekontuetarako zuzkidurak, bai eta 2013ko gerorako konpromisoak ere, beheko taulan ageri den bezala:

Zuzenbide pribatuko erakunde publikoak	Ustiapen-aurrekontua	Kapital-aurrekontua	Gerorako konpromisoak
EITB	109.353.959,- €	1.000.000,- €	
EEE	89.624.474,- €	172.559.544,- €	
Osakidetza	2.399.683.425,- €	41.433.093,- €	12.172,960,- €
Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzekeko Agentzia	963.035,- €	29.411,- €	
Euskal Trenbide Sarea	50.367.306,- €	49.662.892,- €	
Uraren Euskal Agentzia	22.973.519,- €	10.709.641,- €	
Finantzen Euskal Institutua	2.451.554,- €	250.307.067,- €	
Etxepare Euskal Institutua	1.980.000,- €	20.000,- €	
Lankidetzaren Euskal Agentzia	32.325.630,- €	0,00,- €	8.088.000,- €
Guztira	2.709.722.902,- €	525.721.648,- €	20.260.960,- €

Ikus daitekeenez, 2012ko ekitaldiaren aldean ustiapen-aurrekontuak kasu guztietan murriztu dira balio absolututan, baina ez da gauza bera gertatu kapital-aurrekontuekin; izan ere horietariko batzuk handitu egin dira, esate baterako EEErena (apur bat) eta, batez ere, Finantzen Euskal Institutuarena.

5) EAEko sektore publikoko fundazioen ustiapen- eta kapital-aurrekontuak jaso dira 6. artikuluan, eta honako hauek dira fundazioentzat jarritako ustiapen- eta kapital-aurrekontuak, baita 2013ko gerorako konpromisoak ere:

	Ustiapena	Kapitala	Konpromisoak
MUSIKENE Fundazioa	8.627.000	31.308	
TRENBIDEAREN EUSKAL MUSEOA Fundazioa	508.227	0	
BIO Eusko Fundazioa	18.889.293	368.311	
Hazi Fundazioa	16.042.016	2.596.591	
ELIKA Fundazioa	629.304	0	
EHko GAZTE ORKESTRA Fundazioa	261.000	0	
EUSKADI KIROLA Fundazioa	1.586.000	0	

CNIE Fundazioa	572.300	27.700	
----------------	---------	--------	--

Aurreko ekitaldiaren aldean, 2012 Fundazioari zegozkion zuzkiduren onespena falta da, hura iraungitzeko baimena eman baitzen Gobernu Kontseiluaren 2012ko abenduaren 4ko erabakiaren bidez. Bestalde, "Centro Nacional de Investigación en Envejecimiento" CNIE Fundazioarentzako zuzkidura berriak erantsi dira, fundazio hori eratzeko baimena eman baitzen Gobernu Kontseiluaren 2012ko irailaren 25eko erabakiaren bidez. Ohartarazi behar da, halaber, Kalitatea Fundazioari izena aldatu zaiola eta orain Hazi Fundazioa dela.

5) Sozietate publiko guztietarako 547.786.683,- eta 177.436.164,- euroko zuzkidurak ipini dira ustiapen- eta kapital-aurrekontuetan (2012ko aurrekontuan baino % 35,62 eta % 38,86 gutxiago, hurrenez hurren). Halaber, gerorako konpromisoengatik kredituen zenbatekoa 73.402.489,- eurokoa izango da. Banakapena I. eranskinean azaltzen dena da, eta hemen ez da koadrorik kopiatu.

6) Aurreko guztia gorabehera, aurreproiektuaren kapitulu bat egin da berariaz Euskal Irrati Telebista erakunde publikoaren eta irrati- eta telebista-zerbitzu publikoak kudeatzeko sozietate publikoen aurrekontu bateraturako. Bertan 121.687.598,- euroko ustiapen-aurrekontua jarri da, eta 4.000.000,- euroko kapital-aurrekontua (aurreko ekitaldian 165.622.628,- € eta 8.000.000,- € jarri ziren, hurrenez hurren).

III. BERMEAK ETA ZORPETZEA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo, horrela balegokio, Euskal Finantza Erakundeak, edozelako izaerako eragiketengatik, 2013ko ekitaldian laga beharreko bermeei dagokienez, honako gehieneko zenbateko hau ezartzen du 9. artikulua: 400.000.000.- € (zenbateko hori aurreko aldian abenduaren 23ko 6/2011 Legeak hasiera batean ezarri zuenaren parekoa da).

Alabaina, 1. idatz-zati horren bigarren atalak ezer gutxi gehitzen dio lehenagoko aurreikuspenari, 400.000.000 euroko aurreikuspen horretan sartutzat jo behar delako edozein berme-emate, bermearen modalitatea eta xedea edozein izanda ere (tartean, EAEko enpresei epe luzeko finantzaketa ahalbidetzea). Horregatik guztiagatik, Kontrol Ekonomikoko Bulego honek proposatzen du 9. artikuluko 1. idatz-zatiaren bigarren atala kendu egin dadila, ez diolako ezer eransten 1. idatz-zatiaren hasierako atalean ezarritakoari eta, gainera, 50.000.000,- euroko zenbatekoarekin mantenduko balitz gehiegi zurrunduko lukeelako sistema, handiegi edo txikiegi bihurtuz aipatutako zenbatekoen esparruan mugitzeko.

Beste alde batetik, aurten kendu egin da laguntzak ematea ahalbidetu lezakeen laguntza-programaren erreferentzia, baina berariazko aipamena kendu izanak ez du derrigorrez esan nahi aukera hori baztertu denik. Horregatik, Kontrol Ekonomikoko Bulego honek aurreko urteetan aipatu izan duenez, aintzat hartu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legeak, zioen adierazpenean bertan, aurreratzen duela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen abalak eta bestelako bermeak, *“lege honetan diru-laguntza eta laguntzen inguruan erabili dugun kontzeptu zabalaren barruan ondo egokitzen badira ere, aparte araututa daude, eta, horregatik, arau honen esparrutik kanpo uztea erabaki dugu. Baina, hala eta guztiz ere, abalak eta bermeak jasotzekoak direnek diru-laguntzak lortzeko baldintza orokorrak bete beharko dituzte, lege honetako 50. atalean zehaztuta daudenak, alegia. Administrazioak ere, bermeak sustapen-tresna modura erabili nahi dituenean, 49. atalean jasotako hatsapen orokorrak bete beharko ditu, bermeak zer-nolakoak diren kontuan hartu, eta hatsapenekin bateragarriak baldin badira, behintzat”*. Eta halaxe jaso da lege horren 48.6 artikuluan, han ezarrita baitago VI. Idazpuruan (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioaren laguntzen eta diru-laguntzen erregimena) xedatutakoa ez zaiela ezarriko Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioak ematen dituen abal eta bestelako bermeei, horiek arau espezifikoak dituzte eta, 50. artikuluan xedatutakoa izan ezik, laguntzen onuradunei dagokienez eta 49. artikuluan 1. paragrafoan ezarritako printzipioei dagokienez (publizitatea, konkurrentzia eta objektibitatea), halakoak bete egin beharko baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek bermeak baliatzen dituztenean sustapen-tresnatzat, baldin eta bateragarriak badira emango diren bermeen izaerarekin.

Birfidantzamendu-eragiketetarako, EBSei eta Luzarori dagozkienak barne, 600 milioi euroko muga jarri da. Proiektuaren 9.2 artikuluan horren bigarren paragrafoan aurkitu dugu alderdirik garrantzitsuena: birfinantzamendu-eragiketeta horiek finantza-estaldura eman ahal izango diete banakako enpresaburuentzako, autonomoentzako eta ETEentzako urte anitzeko finantzaketa-lerroei ere (eremu subjektibo horixe mugatu da), 2013an zehar (denbora-eremua) gertatzen diren zirkulatuzailearen beharrianak asetzeko, epe laburrerako zorra berritu eta epe ertain eta luzerako zor bihurtzeko eta, halakorik bada, haien inbertsio-planak azkartuko dituzten finantza-jarduketak egiteko (eremu objektiboa), EAEko enpresei finantzabideak eskuratzen laguntzeko programen bitartez. Hala, balizko finantzaketa horren xedea mugatzen duen arau-aurreikuspenak neurri handian aurrez erabakitzen du *“laguntza-programak”* egongo direla; horiek aldeztu aurretik onetsi egin beharko dira tresna juridiko egokiaren bidez. Espedientean dagoen memorian azpimarratu egiten da aurreikuspen hori bat datorrela jarraibide ekonomikoetan ezarritakoekin, EAEko enpresa-ehunari laguntzeko zenbait neurriren antolaketa jaso baita haietan.

2. Autonomia-erkidegoko Administrazioaren zorpetze-eragiketak mugatzeko sistema bat ezartzen du 10. artikulua. Ondorioz, ekitaldiaren amaieran, formalizatutako zorpetzearen saldoa ezin izango da izan ekitaldiaren hasierako saldoa baino handiagoa, 672.867.666,- euro baino gehiago handituz.

Zuzenbide pribatuko erakundeen kanpo-zorpetzea dela eta, hasierako saldoa gehi 225.000.000,- euro izango da ekitaldiaren amaierako zorpetze-saldoaren muga.

Ekonomia- eta finantza-ikuspegitik, espedientean dagoen memorian jada esandakoa da garrantzitsua. Memoriak dioenez, 2013ko ekitaldian zorpetzearen baliabidea nabarmen murriztuko da 2012ko ekitaldiaren aldean, kontuan izanik, 2013ko ekitaldiko aurrekontuak egiteko jarraibide ekonomikoaren arabera, BPGd-aren % 0,7ko defizita hartu dela ekitaldi honetako helburutzat. Hala eta guztiz ere, garrantzi handia du 10. artikulua horri erantsitako 4. idatz-zatian xedatu denak: zorpetze-eragiketarako ezarritako gehieneko mugek ez dute ezertan eragotziko *Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 62.b) artikuluan xedatutakoaren babesean adostutako Zorpetze Programa* (aztergai dugun proiektuan jasotakoa baino aipamen osoagoa, nabari denez).

Hori dela eta, gogora ekarri behar da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2002 Lege Organikoaren azken xedapenatariko hirugarrenaren 2. idatz-zatia. Bertan ezarrita dagoenez, foru araubidea dela medio, lege horretan xedatutakoaren aplikazioak ez du eragotzi behar Ekonomia Itunari buruzko Legearen xedatutakoa. Beraz, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren baitan hartuko dira defizitaren inguruko neurriak, hasieran ezarritako gehieneko muga laxotu edo, alderantziz, muga hori beheratu egingo dutenak. Horrenbestez, Batzorde Mistoan hartzen diren erabakiak nagusituko dira, eta hartara malgutasun handiagoa emango zaio sistemari eta orain proposatzen dena bezalako idatz-zatirik ez eranstek ekarriko lukeen zurruntasuna saihestuko da, zurruntasun horrek Batzorde Mistoaren baitan hartzen diren erabakien eraginkortasuna zapuztuko bailuke.

Aurrekontu Orokorrei buruzko aurreko legearekin alderatuta, kendu egin da bertan zegoen aurreikuspen bat, hauxe zioena: *1. eta 2. paragrafoetan aurreikusitako gehieneko zenbatekoei ere ez zaizkie egotziko "Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikokoak izatera pasatzen diren edo sektore publiko horretako erakunde batekin bat egiten duten erakundeek hartutako zorpetzeak"*.

Ez da justifikatu idatz-zati hori kendu izanaren arrazoia, baina Kontrol Ekonomikoko Bulego honek ondokoa zioen joan den ekitaldiko txostenean: *"Memorian ez dira aztertzen horrelako eragiketa batek hurrengo ekitaldietako zorpetze-tartean izan litzakeen eraginak. Ez baita aurreikusten 2013tik aurrerako ekitaldiek (ordurako aurretiaz ziren erakundeek azken*

zenbatekoa zein fusionatutako/txertatuko erakunde berriek hartutako zorpetzea gehitzetik eratorritako zenbatekoa izango dituztenak) hasteko izango duten hasierako zorpetze-mailak orain 2012rako aurreikusten den zorpetze-maila bera ahalbidetu ahal izango duenik, ordurako zorpetze bateratu handia izango baitute. Beraz, ez dakigu eragiketa zehatzen batean dabiltzan pentsatzen”.

Beste aldetik, idatz-zati berri bat erantsi da eta bertan ezarri da ez direla zorpetze-mugetan egotziko altxortegiko beharrian iragankorretarako kreditu-eragiketak, gehienez urtebeteko epea badute. Esan beharra dago arau-aurreikuspen hori, 2012ko Aurrekontuei buruzko Legean ez bazegoen ere, aurreko urteetan jaso izan dela, eta hala egiazta daiteke, adibidez, 2011rako Aurrekontu Orokorrek onetsi zituen abenduaren 23ko 5/2010 Legean.

III. GASTUEN EGOERA-ORRIA

Atal honetan jarraian adierazitako oharra egin behar dira eta, era berean, egin diren zenbait aldaketa aipatu behar dira. Hona hemen:

1. Kreditu handigarriei buruzko III. Eranskinetik kendu egin da, inolako justifikaziorik gabe, honako hauek duten kreditu handigarri gisa duten katalogazioa: “lan-kontratuko langileei ordaintzeko kredituak, baldin eta indarrean dagoen araubideari jarraiki erabakitako soldata-gehikuntzaren ondorioz kredituok gehitu behar badira” (2. atala). Ezin dugu zehaztu katalogazio hori kentzeak zer esan nahi duen: aipatutako kredituak aurreko atalean sartzen direla ala alor horretan ez dela soldata-gehikuntzarik egongo 2013an.

Proiektuan atal berri bat sartu da Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak ezartzen dituen diru-laguntzak, hau da, ardurapeko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko diru-laguntzak eta familia eta lana uztartzen laguntzeko diru-laguntzak kitatzera bideratutako kredituak handigarritzat jo ahal izateko, diru-laguntza horien izaera edozein dela ere (lehenengoak eskubide subjektiboa dira eta bigarrenak, aldiz, diru-laguntzazkoak). Ardurapeko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko diru-laguntzei dagokienean, kontuan hartuta proiektuan jasotako kredituek murrizketa gogorra jasan dutela are beharrezkoagoa da horiek handigarri gisa katalogatzea, nahiz eta hasieratik eginiko gehiegizko murrizketak ez dien benetan gogoan hartzen diren aurreikuspenei zertan erantzun. Ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuak arautzen dituen familia eta lana uztartzeko diru-laguntzei dagokienean, esan beharra dago berariaz aipatzen direla proiektuaren zazpigarren Xedapen Gehigarrian: 2013an % 7ko murrizketa pairatuko dute. Hala ere, planteatutako murrizketa gorabehera litekeenaenez 2013rako esleitutako kredituak nahikoa ez izatea, horiek handigarritzat jotzeak erraztu egingo du hasieran esleitutako zenbatekoa gerora areagotu ahal izatea, hala erabakitzen baldin bada behintzat.

2. Aurrekontu-plantillei buruzko 13. artikulua ez du aldaketarik jasango, beraz, plantillaren hazkundera zero izango da. Hori bateragarria da aurrekontu-plantilla 2012ko abenduaren 31n zeuden lanpostuen guztizko agregatuarekin alderatuta haziko ez dela adierazten duten Jarraibide Ekonomikoetan xedatutakoarekin.

Nolanahi ere, bidezkoa da Kontrol Ekonomikoko Bulego honek 2011ko urriaren 24ko txostenean 6. atalari buruz egin zuen oharra txosten honetan jasotzea: *“Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren iritziz, alde batera utzita 2012rako aurrekontua Administrazio orokorraren eta bere erakunde autonomoen plantillak izoztuta egin dela, arestian esan dugun bezala ezin dela zalantzarik gabe egiaztatu, egia da horientzat ez dagoela muga hain irmo eta zorrotzik, eta hainbesteko bermea ematen duenik, EAEko sektore publiko osorako aurreikusitakoaren aldean. Hori dela eta, salbuespeneko arau indargabetzaile bat ezarri da ekitaldi honetarako 1/2011 LDren 22. artikuluan esandakoaren harira (kredituak bakarrik dira mugatzaileak, eta ez EAEko sektore publikoko atal honetako langile-zuzkidurak, funtzionarioak izan ezik). Eduki hori ondo uler daiteke gastuari eusteko ikuspegitik, baina KEB honek uste du helburu bera lortuko litzatekeela paragrafo honen 2. atala leunduz eta lehenengoa kenduz. Horrela bada, honako hau testu orekatuagoa izango litzateke: “6. Zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, sozietate publikoen, partzuergoen eta fundazioen langile-zuzkiduretan 2011ko abenduaren 31n indarrean dauden zuzkiduren ginetik egiten den edozein aldaketa, baldin eta erakunde horien aurrekontua lege honen aplikazio-eremuan sartuta badago, artikulua honek aipatzen dituen arauekin bat etorri baimendu beharko da”. Horrela, printzipioz, bateratu egingo litzateke EAEko sektore publiko osorako tratua.*

Ohar hori 2012an onartu zen, eta bere horretan mantenduko da aurtengo ekitaldirako ere.

3. 14. artikuluan berariazko arauketa egin da langileriaren arloko kredituetarako aurrekontu-diziplinaren alorrean. Aurrekontu Erregimenaren Legearen 66.3.a) artikulua erregimen loteslea ezartzen du, artikulua eta atal mailan, langileriaren gastuetarako, oro har.

Agindu horrek, KEBek azken bi ekitaldietako lege-testuari buruz egindako txostenean azaldu zen bezala, gehiago mugatzen du Aurrekontu Erregimenaren Legearen 66.3.a) artikulua ezarritako erregimen loteslea langileria-gastuetarako (artikulu eta atal mailan aurreikusten duela oro har), beheragoko maila batean kokatzen duela gastu-kontzeptu hauetarako:

- CAC 122-Funtzionarioak ordeztzen dituzten langileen lansariak, 123-Lan-pilaketaren ondoriozko bitarteko funtzionarioen lansariak, 131-Aldi baterako lan-kontratudun langileen lansariak, 132-Lan-kontratudun langileak ordeztzen dituzten langileen lansariak, 161-Kalte-ordainak, Gizarte-prestazioak, eta 162- Bestelako gizarte-gastuak: Erregimen berriaren ondorioz, berariazko aurrekontu-aldaketak egin beharko dira dagozkien kredituetan, aipatu diren CAC guztien azpikontzeptuak osatzen dituzten aurrekontu-partidetako kredituak batzean ondorioztatu den gastu-zenbateko handiagoari ekin ahal izateko. Salbuespena izango da 16111 azpikontzeptua, ez baita batugaia izango CAC 161 izeneko kasuan, jarraian ikusiko dugun bezala.

- 16111 azpikontzeptua – Pentsioen sistema osagarriko ekarpenak: Bere kreditua bakarrik erabiliko du. Beraz, ezin izango du krediturik hartu beste partidetatik gastu handiagoari aurre egiteko, eta behar duten beste partida batzuk ere ezin izango dute bertatik krediturik hartu (ez baitago besteren batekin lotuta), ez bada dagokion aurrekontu-aldaketaren bitartez.

Gainerakoan, ez da aldatu I. kapituluko kredituei aplikatu beharreko transferentzien erregimena ez bere izaera handigarria, aurreproiektuaren 11. artikuluan eta III. eranskinean azaltzen denaren arabera.

4. 16. artikuluan aparteko lotura-mailarekin ageri dira enplegu-, prestakuntza- eta gizarteratze-programei dagozkien kredituak, baina eragiketa arruntak zein kapital-eragiketak egiteko transferentzietarako eta diru-laguntzetarako kredituei lotuta ulertu beharko dira.

5. Salbuespen gisa, zehaztaperen bat gehitu zaio 17. artikuluari (aurrekontu-aldaketak). Haren bidez aurrekontuen arloan eskumena duen sailari ahalmena ematen zaio beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak baimentzeko, are beste programa batzuk sortuz ere, aurrekontu egitura ekitaldian zehar onartzen diren egiturazko eta eginkizuneko dekretuetatik ondorioztatzen den behin betiko antolaketa-konfiguraziora egokitzeko.

6. Administrazioaren zerbitzura diharduen langileriaren ordainsarien hazkunderari buruzko 19. artikulua (oraingo ekitaldian ere ez da justizia-administrazioaren zerbitzura diharduen langileriari buruzko aipamenik egiten) ez du aldaketa esanguratsurik jasotzen, eta berriro xedatzen du *soldata 2012ko abenduaren 31n indarrean ziren ordainsarien zenbatekoan izozteko printzipioa*. Horretarako Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 2ko 7/2007 Legean zein Estatuko 2013ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legean jasotako estatuko oinarrizko araudia hartzen du oinarri, espedienteko legezketasun-txostenak jasotzen duen bezalaxe.

Honako proiektu honek duen berrikuntzetako bat ekaineko eta abenduko aparteko ordainsariak hartzeko erregimenari dagokio, izan ere, honako 19. artikuluko 5. atalak xedatzen duenez, horien ordainketa 2013. urteko aparteko ordainsariei buruzko neurrien gaineko abenduaren 28ko 19/2012 Legean jasotakoaren arabera egingo da.

Halaber, legezketasun-txostenak proiektuaren 19. artikuluko 11. atala aztertzen du atal honetan araututako gaiengan (borondatezko erretiro-hobariak, adinarengatiko baimenak, aldi baterako ezintasunagatiko ordainketa-osagarriak) berariazko eragina duen 20/2012 Errege Dekretu-Legea aipatze aldera. Nolanahi ere, borondatezko erretiroei dagokienean, horien etenaldi-epea 2013 ekitaldi osora mugatu da, nahiz eta aipatu berri dugun Legeak ez duen amaiera-datarik xedatzen etenaldi horren kasurako.

Halaber, proiektuak baztertu egin du errelebo-kontratuei berariaz eginiko edozein aipamen, beraz, ez dagoenez justifikazio nahikorik, kontrol-organo honek ezin du bereizi

ezabatze hori Gizarte Segurantza eguneratzeari, egokitzeari eta berriztatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen ondoriozkoa den ala ez. Lege horren lehenengo Xedapen Gehigarriak hizpide dugun arloan aldatu zuen Langileen Estatutua.

Era berean, beste aldaketa batzuk ere egon dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta, izan ere, justifikazio nahikorik gabe aldatu dira gizarte segurantzaren babes-ekintzaren borondatezko hobekuntzei edo gaixotasun arruntagatiko aldi baterako ezintasun-egoeren gizarte-aurreikuspenetarako erregimenari dagozkion xedapenak. Proiektuak ulertzen zaila den xedapen bat jasotzen du joan den ekitaldian erabakitako etenaldiari dagokionean, izan ere, osagarri horiek ordaintzeko bete beharreko baldintzak, betekizunak eta portzentajeak “arauz” araupetzeko (zirkular bat ez da nahikoa) eskumena ematen dio Gobernuari akordio, hitzarmen edo itun ezberdinetan osagai horiek arautzen dituzten artikuluen eta klausulen edukia eta aplikagarria den gainerako araudia kontuan hartuta. Ez dirudi, dena den, aipatutako atal hori ezin hobeki araututa dagoenik, bertatik ondorioztatzen dena gobernu-arauketa hori egun egon dauden akordioak, hitzarmenak edo itunak kontuan hartuta egin behar dela baita.

7. Akordioak bertan behera uzteari buruzko 21. artikulua berariaz jasotzen du aipatutako etenaldiak “partzialki” eragiten diela lanaldiaren eta ordutegiaren arloan egindako xedapenei, eta legezketasun-txostenaren arabera, haren oinarri juridikoa Estatuko 2012ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 29ko Legearen Hirurogeita hamaikagarren Xedapen Gehigarrian bilatu behar da. Hala ere, aipatu behar da txosten hau egiterakoan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako funtzionario, estatutupeko eta lan-kontratuko langileek 2013ko ekitaldian izango duten urteko lanaldia ezartzen duen martxoaren 5eko 173/2013 Dekretua argitaratu dela.

Ondoriozta dezakegu aipatutako Dekretuaren eremuak ez duela lanaldiari buruzko zehaztapenik eskatzen, bere azken Xedapenean ezarritakoaren arabera argitaratu eta biharamunean (2012ko martxoaren 13a) sartuko baita indarrean, beraz, eremu horretan ez da akordio-etenaldien aurreikuspenik behar, guztia ere Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 48. eta 50. artikulua aldatu zituen aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu-Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zailtasun handiagoa dago aipatutako Dekretuan jasotzen ez den langileriarekiko (sozietate publikoak, fundazioak eta sektore publikoko partzuergoak) hitzarmenen, akordioen eta itunen etenaldia luzatzeko orduan, eta arlo horretantxe hartzen du birtualtasun osoa etenaldi partzialak. Nolanahi ere, Kontrol Ekonomikoko Bulego honek uste du 2. atal hau modu egokiagoan idaztea lagungarria litzatekeela proposatutako idazkerak ekar ditzakeen interpretazio-arazoak saihesteko.

IV.- ITUNPEKO IKASTETXEEN GASTUEI AURRE EGITEKO EKONOMIA-MODULUA

Espedientean jasotako memoriak behar bezala adierazten duen legez, proiektuaren 26. artikulua ezartzen du moduluak aldatu egin daitezkeela ikastetxe publikoetako langileriaren ordainsarien aldaketen ondorioz. Hala ere, atal berria gehitu da honako kontuak zehazte aldera:

- Zenbatekoaren aldaketa sare publikoko ordainsarien murrizketa-kasuetara mugatu beharko da.

- Aipatutako atalak hizpide dituen ikastetxe publikoak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bakarrik kudeatu ahalko ditu.

- Gainera, aldaketarik egonez gero ekonomia-moduluen zenbateko berriak finkatzeko eskudun organoa zein den ere zehazten da.

V.- DIRU-SARREREN EGOERA-ORRIA

1. Diru-sarreraren III. tituluak foru-aldundien ekarpenak biltzen ditu. Horren arabera, 2013rako ekarpen orokorra **7.815.695.690,-** eurokoa izango da. Zenbateko hori **% 8,0** txikiagotu da 2013ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren Legean gordailatutakoarekin alderatuz.

28. artikuluan lurralde historiko bakoitzeko ekarpen-koefizienteak jasotzen dira: Arabak: **% 16,23**, Bizkaiak: **% 50,75**, eta Gipuzkoak: **33,02%**.

			2 Zeharkako zergak Impuestos indirectos	3 Tasak eta salneur. Tasas, prec.públ.	4 Transf. arruntak Transfe. corrientes	5 Ondare sarrerak Ingresos patrimon.	6 Inb. err. besterentz Enaj.inver reales	7 Kapital transf. Transfe. capital	8 F-aktiboen gutxitzea Dism.acti. financie.	9 F-pasiboen gehikuntza Aumento de Pasi.Fin.
5	EAEko SEKTORE PUBLIKOAREN PARTZUERGOAK CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE									
00250	Haurreskolak Partzuergoa Consortio Haurreskolak	55.211		12.461	40.494					2.256
	GUZTIRA TOTAL	55.211		12.461	40.494					2.256



www.euskadi.net/presupuestos

2013

**EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOAREN
AURREKONTU
OROKORRAK**

PRESUPUESTOS
GENERALES
DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA
DE EUSKADI

TEMÁTICA GENERAL



GAI OROKORRAK

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

GAI OROKORRAK

1

TEMÁTICA GENERAL

ARGIBIDE MEMORIA

Ekonomia eta Aurrekontu Politikaren inguruko orientazioak
Politika Publikoak
Enplegua Berpizteko Plana
Lege-Proiektuaren Testu Artikulatuari buruzko iruzkinak
Erakunde-egitura eta Aurrekontu-egitura

MEMORIA EXPLICATIVA

- Orientaciones de Política Económica y Presupuestaria
- Políticas Públicas
- Plan de Reactivación del Empleo
- Comentarios al Texto Articulado del Proyecto de Ley
- Estructura Institucional y Estructura Presupuestaria

2013

PROIEKTUA
PROYECTO

**EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOAREN
AURREKONTU
OROKORRAK**

PRESUPUESTOS
GENERALES
DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA
DE EUSKADI

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

Argibide Memoria Memoria Explicativa

1 Alea
Tomo 1

Aurkibidea / Índice :

I.	EKONOMIA ETA AURREKONTU POLITIKAREN INGURUKO ORIENTAZIOAK..... 1 <i>ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA</i>	1
II.	POLITIKA PUBLIKOAK 17 <i>POLÍTICAS PÚBLICAS</i>	17
-	ADMINISTRAZIO OROKORRAREN AURREKONTUEN LABURPENAK 53 <i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL</i>	53
-	ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN ETA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN AURREKONTU BATERATUEN LABURPENAK 63 <i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS CONSOLIDADOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS Y DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i>	63
-	ENPRESA- ETA FUNDAZIO-SEKTORE PUBLIKOEN (ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAK, SOZIETATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK) AURREKONTU BATERATUEN LABURPENAK 69 <i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS CONSOLIDADOS DEL SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL Y FUNDACIONAL (ENTES PÚBLICOS DE DERECHO PRIVADO, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS)</i>	69
III.	ADMINISTRAZIO OROKORRAREN AURREKONTU-SALDOAREN ETA KONTABILITATE NAZIONALAREN SALDOAREN ARTEKO BALIOKIDETASUNA..... 85 <i>EQUIVALENCIA ENTRE EL SALDO DEL PRESUPUESTO DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL Y EL SALDO DE CONTABILIDAD NACIONAL</i>	85
IV.	LEGE EGITASMOAREN TESTU ARTIKULATUARI BURUZKO IRUZKINAK 93 <i>COMENTARIOS AL TEXTO ARTICULADO DEL PROYECTO DE LEY</i>	93
V.	ENPLEGUA BERPIZTEKO PLANA 109 <i>PLAN DE REACTIVACIÓN DEL EMPLEO</i>	109
VI.	EAEKO ARLO PUBLIKOKO ENTITATEEN ZERRENDA 129 <i>RELACIÓN DE ENTIDADES DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i>	129
VII.	ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN ETA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN AURREKONTU-EGITURAK 133 <i>ESTRUCTURAS PRESUPUESTARIAS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS Y DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i>	133
-	EGITURA ORGANIKOEN ZERRENDA..... 135 <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ORGÁNICAS</i>	135
-	EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: GASTUA 153 <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-GASTO</i>	153
-	EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: SARRERA 175 <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-INGRESO</i>	175
-	EGITURA FUNTZIONALEN ZERRENDA..... 195 <i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS FUNCIONALES</i>	195



**I. EKONOMIA ETA AURREKONTU POLITIKAREN
INGURUKO ORIENTAZIOAK**
***ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y
PRESUPUESTARIA***

EKONOMIARI ETA AURREKONTUARI BURUZKO POLITIKA: EGOERA ETA ORIENTABIDEAK

2013ko aurrekontua zailtasun handiko testuinguru batean kokatuta dago. Euskadik aurrekaririk gabeko erronka bat du aurrean atzeraldi luze eta sakon baten ondorioz; izan ere, horrek zerga-bilketan eragin negatiboa du eta, aldi berean, herritarren premiak handitzen ditu, oso zailtasun handiko egoerak eraginda.

Berez konplexuak diren arazo horiei, halaber, finantza-merkatuek defizit eta zor publikoaren aurrean duten sentiberatasun handiak dakartzan betebeharrak gehitu behar dizkiegu; ondorioz, Europako Erkidegoak finantza-egonkortasuneko helburuak lehenetsi ditu, horrek eztabaida handia eraginagatik ere. Helburu horiek direla-eta, Euskadik murriztu beharko du defizita 2013an. Egonkortasuneko helburuak gehenez BPGd-aren %1,5eko defizita eskatzen zuen 2012an, baina 2013an defizit hori %0,7ra murriztu beharko da.

Azken batean, gero eta baliabide gutxiago daude gero eta premia handiagoei erantzuteko. Eta egoera zail horretan ezinbestekoa da lehenetasun eta irizpide argiak finkatzea. Hala, lehenetasun argi bat izan du 2013ko aurrekontuak: ezinbesteko zerbitzu eta prestazio publikoak bermatzea, bereziki osasuna, hezkuntza eta egoera larrian dauden familientzako arreta. Horrenbestez, politika horiek diskriminazio positiboa izan dute Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuan.

Neurri horiek aurrekontuaren zati handia hartuko dute; hortaz, murrizketa gainontzeko jarduketetara bideratu behar da, eta ondorioz, beste partida batzuetan murrizketa handia izango da; inbertsioan eta diru-laguntzetan, esate baterako. Nolanahi ere, aurrekontuetan enpresa-sarea, eta bereziki ETEak eta autonomoak, babesteko neurriak ere biltzen dira, atzeraldira itzultzen ari garen eta finantzaketa-arazo larriak dauden une honetan. Halaber, enplegua zuzenean sortzeko neurriak ere ezarriko dituzte eta, bereziki, gazteek eta epe luzeko langabeek lana aurkitzeko aukerak sortzera bideratutakoak.

Aurrekontuak, premiazko jarduerak ez ezik, ekonomia-politikarako eredu propioa eduki beharra ere islatu behar du, Euskadi berriro eramateko hazkunde ekonomikoaren eta enpleguaren bidera. Hazkunde horrek, gainera, bateragarria izan beharko du gizarte-ekitatearekin eta gure ongizate-ereduaren jasangarritasunarekin.

1. 2013ko aurrekontuaren testuinguru ekonomikoa

POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA: CONTEXTO Y ORIENTACIONES

El presupuesto 2013 se enmarca en un contexto de enormes dificultades. Euskadi afronta un reto sin precedentes derivado de una prolongada y profunda recesión que afecta negativamente a la recaudación fiscal y, al mismo tiempo, aumenta las necesidades de la ciudadanía, generando situaciones de extrema dificultad.

A esta problemática, ya de por sí particularmente compleja, se añaden las obligaciones derivadas de la alta sensibilidad de los mercados financieros ante el déficit y la deuda pública, que ha llevado a la Comunidad Europea a priorizar, no sin controversia, los objetivos de estabilidad financiera; objetivos que, por sí solos, implican que Euskadi tendrá que reducir su déficit en 2013. Mientras en 2012 el objetivo de estabilidad se traducía en un déficit máximo del 1,5% del PIB, en 2013 el déficit deberá reducirse hasta el 0,7%.

En definitiva, un volumen creciente de necesidades debe afrontarse con unos menores recursos. Y en esta compleja situación el establecimiento de prioridades y criterios claros resulta esencial. Así, el presupuesto de 2013 ha partido de una prioridad clara: garantizar los servicios y prestaciones públicas esenciales, especialmente los servicios de salud, la educación y la atención a familias en situación precaria. Por lo tanto, se ha discriminado de forma positiva a este bloque de políticas dentro del presupuesto del Gobierno Vasco.

Al representar estas partidas un amplio porcentaje del presupuesto, necesariamente se traslada la reducción al resto de actuaciones, generándose una fuerte disminución de otras partidas como las destinadas a inversión y subvenciones. No obstante, los presupuestos contemplan también medidas de apoyo al tejido empresarial, y en particular a las pymes y autónomos, en un momento de vuelta a la recesión y de graves problemas de financiación. Asimismo, incluye medidas orientadas a la creación directa de empleo y, en particular, al acceso a una primera oportunidad laboral para los jóvenes y los parados de larga duración.

Además de las actuaciones urgentes, el presupuesto se hace eco de la necesidad de desarrollar un modelo propio de política económica que lleve de nuevo a Euskadi a la senda del crecimiento económico y del empleo; un crecimiento compatible con la equidad social y la sostenibilidad de nuestro modelo de bienestar.

1. Entorno económico en el que se contextualiza el presupuesto 2013

Euskal ekonomiaren uzkurduraren ondorioz bizi dugun atzeraldi larria du ezaugarri nagusia 2013rako aurrekontua egiteko unean dagoen egoera ekonomikoak (bigarren atzeraldia da lau urteko epean). La bi urtez izandako susperraldi arinaren ostean, jarduera ekonomikoaren beherakada areagotu egin da 2012an, urtetik urterako tasa $-1,7\%$ iritsita. Euskal ekonomiak inoiz ez ditu halako bi atzeraldi handi hain jarraian izan.

Inguruan dugun egoera ere ez da batere pozgarria. Munduko ekonomiari dagokionez, hazkundearen dezelerazioa gertatu da, baina leku guztietan ez du eragin bera eduki. Hala, eragina nozitu badute ere, garapen bidean dauden ekonomien hazkunde-erritmoa oraindik ere handiagoa da herrialde aurreratuena baino (adibidez, Txinak, Indiak eta Brasilek $7,8\%$, $4,9\%$ eta $1,5\%$ hazkundera izan dute, hurrenez hurren).

Munduko hazkundearen moteltzea ziurgabetasun handiko egoera batean gertatu da; besteak beste, eurogunek finantza-merkatuen tentsioen eta zor subiranoaren tentsioen aurrean izandako krisiaren garapenagatik eta Amerikako Estatu Batuetako aurrekontu-murrizketengatik; hala, bada, 2013ko martxoaren 1eko aurrekontuak «bahitzeko» agindua eman dute bertan, eta ondorioz, gastu publikoaren 85.000 milioi dolarreko murrizketa (63.910 milioi euro) aktibatu da, zeinak, ziur aski, puntu erdi baino gehiago galaraziko dion AEBko hazkunde ekonomikoaren tasari, eta 750.000 enplegu inguru galtzea ekarriko duen.

Finantza-asalduek eta horiek sortzen duten ziurtasun-faltak Europako herrialdeei haztea eragotzi diete, batez ere, Espainiari eta hurbilen ditugun beste herrialdeei. 2012an bai Espainiako ekonomiak bai euroguneko ekonomiak atzeraldia izan dute ($1,8\%$ eta $0,9\%$ beherakadak, hurrenez hurren, laugarren hiruhilekoan). Frantziako ekonomia geraldian dago, eta Alemaniako ekonomiaren jarduera-erritmoa moteldu egin da. Espainiako ekonomiaren dezelerazioa barne-eskariaren osagai guztiak uzkurto direlako gertatu da, kanpoko sektorearen ekarpena positiboa izan baitzen, batez ere inportazioek behera egin zutelako.

Agertoki makroekonomikoak prestatzea are konplexuagoa izaten da ziklo-aldaketako eta ziurtasun-falta handiko uneetan, eta oraingo une hau horrelako unea da, hain zuzen ere. Hala da, ziurtasun-falta faktore garrantzitsua da egungo dezelerazioan, ez baitago argi zor subiranoaren krisiak nolako garapena izango duen. Horri gehitu behar diogu kontsolidazio fiskalak hazkundera azkenean izango duen eraginaren gaineko ziurgabetasuna; izan ere, defizit publikoa murrizteko helburuz egiturazko doikuntza handiak eta jarraituak egitea kaltegarria izan daiteke hazkundera helburuak lortzeko, bai eta helburu fiskalak erdiesteko ere, hazkunde potentzial txikiko egoera honetan; horrela iradokitzen dute, esaterako, NDFren ikerketen emaitzek, zeinek adierazten baitute hasiera batean espero izandakoak baino handiagoak izan direla murrizketa fiskalek BPGd-aren gainean epe laburrera izandako ondorio biderkatzaileak.

La elaboración de los Presupuestos para 2013 se encuadra en un contexto económico marcado por la grave recesión que vivimos por la contracción de la economía vasca, lo que supone la segunda recesión en cuatro años. Tras la leve recuperación experimentada durante casi dos años, a lo largo de 2012 la actividad económica fue intensificando su caída hasta el $-1,7\%$ en tasa interanual. Nunca antes la economía vasca había tenido dos recesiones tan seguidas y de tal magnitud.

La situación en el entorno tampoco es optimista. En lo que se refiere a la economía mundial, ésta ha experimentado una desaceleración del crecimiento, que no ha afectado a todas las áreas geográficas por igual. Así, aunque las economías emergentes también se han visto afectadas, su ritmo de crecimiento continúa siendo más elevado que el de las economías avanzadas (así, China, India y Brasil crecen a ritmos del $7,8\%$, $4,9\%$ y $1,5\%$, respectivamente).

La ralentización del crecimiento mundial se ha producido en un contexto de fuertes incertidumbres, derivadas, entre otros factores, del desarrollo de la crisis en la zona euro, ante las tensiones de los mercados financieros y la deuda soberana, y de los recortes presupuestarios en Estados Unidos, que, hasta el momento, se han traducido en la orden del “secuestro” de los Presupuestos de 1 de Marzo de 2013, que activa una reducción de gasto público de 85.000 millones de dólares (63.910 millones de euros), que previsiblemente lastrará en más de medio punto la tasa de crecimiento económico de EEUU y supondrá una pérdida de unos 750.000 empleos.

Las turbulencias financieras y la incertidumbre que generan han entorpecido el crecimiento de todos los países europeos y, en particular, el de España y los países de nuestro entorno inmediato. En 2012 tanto la economía española como la de la zona euro han entrado en recesión (con caídas del $1,8\%$ y del $0,9\%$ en el cuarto trimestre respectivamente), con una economía francesa estancada y un descenso del ritmo de actividad de la economía alemana. La desaceleración de la economía española se debe a la contracción de todos los componentes de la demanda interna, ya que la aportación del sector exterior fue positiva especialmente por la caída de las importaciones.

La complejidad en la elaboración de escenarios macroeconómicos se acentúa en momentos de cambio de ciclo o de elevada incertidumbre como el actual. En efecto, la incertidumbre es un factor importante en la actual desaceleración, ya que continúan las incógnitas sobre el desarrollo de la crisis de la deuda soberana. A ello hay que sumar la incertidumbre sobre el impacto final de la consolidación fiscal en el crecimiento, ya que en un período caracterizado por un crecimiento potencial reducido, la implementación de ajustes estructurales intensos y sostenidos con el objetivo de reducir el déficit público puede ser contraproducente de cara a conseguir objetivos de crecimiento e incluso los propios objetivos fiscales, como sugieren, por ejemplo, los resultados de las investigaciones del FMI que indican que los efectos multiplicadores de los recortes fiscales sobre el PIB a corto plazo han sido mayores a los inicialmente esperados.

Datozen urteetarako aurreikuspenak nabarmen beherantz ari dira zuzentzen Europar Batasuneko herrialdeentzat oro har lehendik aurreikusita zegoen hazkunde ekonomikoa. Beherantzko zuzenketa hori bereziki sakona izaten ari da 2013. urterako, eta Batasuneko herrialde guztietan gertatu da.

Europako Batzordearen aurreikuspenen arabera, Europar Batasuneko ekonomiak ez du ia hazkunderik izango 2013an (%0,1), eta hazkunde apala izango du 2014an (%0,6). Euroguneak, bestalde, %0,3ko beherakada izango du 2013an, eta %1,4ko hazkundea 2014an. Espainiak, berriz, BPG-aren %1,4ko beherakada izan du 2012an, eta neurri berean murriztuko da 2013an. Europako Batzordearen iritziz 2014ra arte ez du Espainiak hazkunderik izango (%0,8).

Ingurunearen bilakaera aurreikusi horrek baldintzatu egiten ditu Euskal Autonomia Erkidegoaren datozen ekitaldietarako aurreikuspen ekonomikoa. Gure inguruak ez du azken urteotako erritmoak berdintzeko behar besteko dinamismorik; hori dela-eta, epe ertainerako agertokia ere ez da oso baikorra.

Las previsiones para los próximos años están corrigiendo significativamente a la baja el crecimiento económico que se había pronosticado anteriormente para el conjunto de los países de la Unión Europea. Esta corrección a la baja está siendo especialmente profunda para el año 2013 y se ha producido en todos los países de la Unión.

Según las previsiones de la Comisión Europea, la economía de la Unión Europea se mantendrá prácticamente plana en 2013 (+ 0,1%) y crecerá moderadamente (+ 0,6%) en 2014. La zona del euro, por su parte, decrecerá en 2013 (- 0,3%) y registrará un crecimiento medio del 1,4% en 2014. España, por su parte, ha cerrado el año 2012 con una caída del PIB del 1,4%; caída que se repetirá, en la misma tasa, en 2013. La Comisión Europea estima que no será hasta 2014 cuándo España pueda crecer un exiguo 0,8%.

Esta evolución esperada del entorno condiciona las previsiones económicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi para los próximos ejercicios. Nuestro entorno no mostrará el dinamismo necesario para igualar los ritmos del pasado reciente, por lo que el escenario a medio plazo tampoco es muy optimista.

2013-2015 AGERTOKI MAKROEKONOMIKOA

ESCENARIO MACROECONÓMICO 2013-2015

	2011	2012	2013	2014	2015
EAEko BPGd	0,6	-1,1	-1,1	1,2	1,5
PIB CAE					
Azken barne-kontsumoa	0,3	-1,2	-1,3	0,2	1,0
Consumo final interior					
Etxeguneen kontsumoa	0,6	-0,9	-1,1	0,1	1,0
Consumo hogares					
Administrazio publikoen kontsumoa	-0,8	-2,1	-1,9	0,7	0,8
Consumo AAPP					
Kapital-eraketa gordina	-1,5	-4,3	-3,3	1,3	2,0
Formación bruta de capital					
Barneko eskaria	-0,1	-1,9	-1,7	0,6	1,3
Demanda Interior					
Kanpoko eskariaren ekarpena	0,7	0,9	0,7	0,6	0,2
Aportación demanda externa					
BPGd deflatorea	1,6	1,1	1,6	2,0	2,5
Deflactor PIB					
Enplegua	-0,6	-2,4	-2,0	0,7	1,0
Empleo					
Langabezia-tasa (batez bestekoa)	10,9	12,1	13,5	12,4	10,9
Tasa de Paro (media)					

Euskal ekonomiak bere ingurunearen antzeko ibilbide bati jarraituko dio, eta, 2013an, jardueraren beherapena 2012koaren antzekoa izango da, nahiz eta zertxobait txikiagoa (%1,1 txikiagoa). Ekonomiarako bultzada atzerritik etorriko dela itxaroten da, ingurune ekonomien ahultasuna gorabehera, zeren eta barneko eskariak balio negatiboak izango baititu, dela kapitalaren eraketa gordinean, enpresa eta familien igurikimenak okertzeagatik, dela barneko kontsumoan. Kontsumo pribatuak behera egingo du, langabeziaren igoeragatik, familien erosteko ahalmena murriztu delako eta kontsumitzaileen konfiantza okertu delako, testuinguru txar batean (aberastasunaren beherapena –higiezin-aberastasuna zein aberastasun finantzarioa–, eta finantza-murriztapen handiak). Enpleguak behera egiten jarraituko du (-%2,0ko urteko tasa); hori dela-eta, 2013an 19.000 bat lanpostu galtzea eta langabezia-tasa %13,5era igoetzea aurreikusten da.

Aurreikuspenen arabera, 2014. urtera arte ez gara krisialditik aterako. Urte horretan barneko kontsumoa gelditu egingo da, eta kapitalaren eraketa gordina gora egiten hasiko da, eta horrek bide emango du enplegua sortzeko eta langabezia-tasa murrizteko. Jardueraren abiatze hori, ziur aski, leuna izango da; izan ere, BPGd-aren hazkunde aurreikusia %2tik beherakoa izango da epe ertainean; hori dela-eta, denbora gehiago beharko da krisialdian galduko den enplegua berreskuratzeko.

2. Aurrekontu-egoera: aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna

2013ko aurrekontuak bat etorri behar du azaldutako egoera ekonomikoarekin; izan ere, aurrekontu-egonkortasuna bermatu behar zaio sektore publikoari, lagungarri izan dadin ekonomiaren hazkunderako eta Jaurilaritzaren helburuak lortzeko. Arrazionaltasun ekonomikorako eskakizun orokor horrek esan nahi du uztartu egin behar direla kontsolidazio fiskalaren prozesua eta hazkunderako igurikimenak; izan ere, 2012an atzeraldira itzultzeak erakutsi duenez -Nazioarteko Diru Funtsak berriki egindako azterketek horrela iradoki dute-, muturreko austeritate-politikak ondorio negargarriak izaten ari dira.

Baina, are arrazionaltasun hori kontuan hartuta, ez daiteke saihestu arrazionaltasun hori gaur egun mugatuta dagoela lege-esparru zehatz, konplexu eta berri baten bidez, hau da, aurrekontu-egonkortasuna eta finantza publikoen jasangarritasuna bermatzera zuzendutako esparru baten bidez. Legedi horrek Europako diru-batasunaren sorreraren esperientzian du jatorria, Egonkortasun eta Hazkunderako Egiune (EHE) delakoaren bidez, baina munta handiko aldaketa jasan du European zein Estatuan, EHE berritzeagatik eta gobernu arteko izaera duen zerga-itun berri bat abian jartzeagatik. Horrek guztiak, lehenik eta behin, Konstituzioaren erreforma eragin zuen, eta, geroago, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Lege Organiko berria onartzea; erreforma horiek, hain zuzen ere, aldaketa handiak eragiten ari dira administrazio publikoen aurrekontu-politiketan.

La economía vasca seguirá una trayectoria similar a la de su entorno, con una caída de su actividad, en 2013, similar a la de 2012, aunque ligeramente menor (-1,1%). Se espera que el impulso a la economía provenga del exterior, a pesar de la debilidad de las economías del entorno, ya que la demanda interna registrará valores negativos, tanto en la formación bruta de capital, por el empeoramiento de las expectativas de empresas y familias, como en el consumo interior. El consumo privado caerá por el aumento del desempleo, la reducción del poder adquisitivo de las familias y el empeoramiento de la confianza de los consumidores, en un contexto de disminución de riqueza, tanto inmobiliaria como financiera, y de fuertes restricciones financieras. El empleo seguirá cayendo a una tasa anual del -2,0%, por lo que se prevé una destrucción de unos 19.000 puestos de trabajo en 2013 y un aumento de la tasa de paro hasta el 13,5%.

La previsión relativa a la salida de la crisis se retrasa hasta el año 2014, en el que se estima que el consumo interno se estancará y la formación bruta de capital empezará a crecer, lo que podría permitir la creación de empleo y la reducción de la tasa de paro. Pero este despegue de la actividad será previsiblemente suave ya que el crecimiento esperado del PIB en el medio plazo será inferior al 2%, por lo que se necesitará más tiempo para la recuperación del empleo destruido durante la crisis.

2. Contexto presupuestario: estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera

El Presupuesto de 2013 debe ser coherente con el escenario económico descrito, de manera que se garantice la estabilidad presupuestaria del sector público y se potencie su contribución al crecimiento de la economía y al logro de los objetivos del Gobierno. Ese requerimiento general de racionalidad económica supone acomparar el proceso de consolidación fiscal a las expectativas de crecimiento, porque como la vuelta a la recesión de 2012 ha demostrado y estudios recientes del FMI han sugerido, las políticas de austeridad a ultranza están teniendo unos efectos devastadores.

Pero aún teniendo presente dicha racionalidad tampoco se puede obviar que en el momento actual la misma se ve constreñida por un preciso, complejo y renovado marco legal dirigido a garantizar la estabilidad presupuestaria y la sostenibilidad de las finanzas públicas. Esta legislación, que tuvo su origen en la experiencia de la creación de la unión monetaria europea con el llamado Pacto de Estabilidad y Crecimiento (PEC), ha experimentado un cambio de enjundia tanto en Europa como en el Estado, por la renovación del PEC, por el lanzamiento de un nuevo Pacto Fiscal de carácter intergubernamental, que condujo a una reforma de la Constitución y luego por la aprobación de una nueva Ley Orgánica de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera; reformas todas ellas que están ocasionando cambios importantes en las políticas presupuestarias del conjunto de las Administraciones Públicas.

Izan ere, EHEren birformulazioan izan diren aurrerapenen eta Zerga Itunaren beraren harira, konstituzio-erreforma bat gertatu zen Estatuan, eta erreforma horrek ezarri du Estatu eta autonomia-erkidegoak ezingo direla erori Europar Batasunak ezarritako mugak gainditzen dituen egiturazko defizit batean; toki-erakundeek, berriz, aurrekontu orekatuak eduki beharko dituzte. Zehazten du orobat lege organiko batek finkatuko dituela egiturazko defizit horren gehieneko muga, administrazio publikoen artean izango duen banaketa eta muga hori kalkulatzeko metodologia eta prozedura.

Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Jasangarritasunaren arloko indarreko legedian jasotzen dira EHEk eta Zerga Itunak zehaztutako esparruaren baldintzak, hau da, gorago aipatuak izan diren kontzeptu, prozedura eta metodoak; aldi berean, gogortu egiten dira egiturazko defizitari buruzko betekizunak, zeina zero izango baita, salbu eta epe ertainerako ondorioak dituzten egiturazko erreformetan; kasu horretan, BPGd-aren %0,4ra mugatzen da administrazio publikoetarako. Bakarrik salbuespenezko inguruabarrak gertatzen direnean, hala nola hondamendiak, larrialdiak eta atzerapena, onartu ahal izango da egiturazko defizita, betiere hura zuzentzeko konpromisoarekin. Era berean zehazten du defizita betetzera zuzendutako doikuntza urteko % 0,8ko murrizketa izango dela, eta hori Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatuko dela, 2012ko urtarrilaren 1ean dagoen egiturazko defizitaren arabera.

Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Jasangarritasunaren esparru berriaren bigarren alderdi aipagarria, autonomia-erkidegoentzat zuzenean ondorioak dituen, zor publikoarena da, Europako legediak sartutako aldaketekin bat etorriz. Europaren %60ko helburuak (zor publikoa/BPGd ratorako) banaketa bertikal argia du: %44 Estaturako, %12 autonomia-erkidegoetarako eta %3 tokiko erakundeetarako. Autonomia-erkidegoen zorra, gainera, ez da BPGd-aren %13 baino handiagoa izango. Gorteetara bidaltzen diren zor arloko helburuek, egonkortasun arlokoekin batera, kontuan izango dute helburua lortzeari begirako murrizketa, eta, beraz, administrazio bakoitzaren gastu guztizkoak (finantza-gastua eta finantzaz bestekoa) ezingo du gainditi Espainiako ekonomiaren hazkunde erreala. Gainera, Espainiako ekonomiaren hazkunde erreala izanez gero (gutxienez %2) edo urtean enplegua sortuz gero, zorra/BPGd ratioa ehuneko bi puntu murriztuko da urtero gutxienez.

Defizitaren eta zorraren arloko betekizunez gain, Europako esparruari jarraituz adierazitako araudiak gastu gehigarriaren erregela gehitzen du, eta haren arabera, gastu konputagarrien hazkundeak ezingo du gainditi Espainiako ekonomiaren epe ertainerako BPGd-aren erreferentziako hazkunde-tasa. Gastu kontagarria honela definitzen da: finantzaz besteko aurrekontu-gastua, interesak, langabeziagatiko prestazioak eta beste administrazio batzuetarako transferentziak salbuetsita. Hau ere zehazten da: zerga-bilketa etenik gabe aldatzen duten arau arloko aldaketak gertatzen direnean, gastu kontagarria baliokide den zenbatekoan aldatuko da.

Efectivamente, al hilo de los progresos en la reformulación del PEC y del propio nacimiento del Pacto Fiscal, se produjo en el Estado una reforma constitucional que establece que el Estado y las Comunidades Autónomas no podrán incurrir en un déficit estructural que supere los establecidos por la Unión Europea, mientras que las Entidades Locales deberán presentar equilibrio presupuestario. Determina igualmente que una ley orgánica fijará el límite máximo de dicho déficit estructural, su distribución entre las distintas administraciones públicas y la metodología y procedimiento para su cálculo.

En la vigente legislación en materia de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera se recogen los términos del marco dibujado por el PEC y el Pacto Fiscal, esto es, los conceptos, procedimientos y métodos que han sido mencionados más arriba, al tiempo que endurece los requerimientos relativos al déficit estructural, que será cero, salvo en el supuesto de reformas estructurales con efectos a medio plazo, en cuyo caso se limita al 0,4% del PIB para el conjunto de las administraciones públicas. Sólo cuando concurren circunstancias excepcionales, tales como catástrofes, emergencias o recesión, se podrá registrar déficit estructural con el consiguiente compromiso de corrección. Así mismo, determina que el ajuste dirigido a su cumplimiento sea de una reducción del 0,8% anual, que se distribuirá entre Estado y las Comunidades Autónomas (CCAA) en función del déficit estructural existente a 1 de enero de 2012.

El segundo aspecto importante del nuevo marco de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera que tiene consecuencias directas para las CCAA es el de la deuda pública, en consonancia con los cambios introducidos por la legislación europea. Aquí el objetivo europeo del 60% (para el ratio deuda pública/PIB) tiene una distribución vertical clara: 44% para el Estado, 13% para las CCAA y 3% para los Entes Locales. Y, además, la deuda de cada una de las CCAA no podrá superar el 13% de su PIB. Los objetivos de deuda remitidos a las Cortes, junto a los de estabilidad, tendrán en cuenta la reducción hacia la consecución del objetivo de modo que el crecimiento del gasto total financiero y no financiero de cada administración no podrá superar el crecimiento real de la economía española. Además, en caso de crecimiento real de la economía española sea de al menos el 2% o de generación de empleo anual, el ratio deuda/PIB se reducirá anualmente en un mínimo de dos puntos porcentuales.

Además de los requisitos de déficit y deuda, la normativa indicada siguiendo al marco europeo introduce una regla de gasto adicional, por la cual el gasto computable de cualquier administración no podrá superar la tasa de referencia del crecimiento del PIB a medio plazo de la economía española. El gasto computable se define como el gasto presupuestario no financiero excluidos intereses, prestaciones por desempleo y transferencias a otras administraciones. Se precisa también que cuando se produzcan cambios normativos que alteren de forma permanente la recaudación, el gasto computable se modificará por un importe equivalente.

Egonkortasun arloko helburua finkatzeak eta administrazio bakoitzaren aurrekontua zehazteak, beraz, hiru eskakizun hauek betetzen direla zaindu behar du: defizitaren irizpidea, zorraren irizpidea eta gastu-erregelaren irizpidea. Aurreikuspenetatik abiatuta (diru-sarrerak eta interesengatiko ordainketak), aurrekontuko gastu primarioa ez da hazi ahal izango erreferentziako tasatik harago, eta, gainera, ziurtatu behar da egiturazko defizita eta, behar izanez gero, zorra azaldutako irizpideen arabera murriztuko direla.

Azken batean, helburuak betetzeko bidezidorra zorrotza da guztiz, hainbat irizpide sartzen baitira jokoan: zorrari, defizitari eta gastuaren hedapenari buruzko muga zurrunak. Gastu-erregela epe ertainerako BPGd potentzialaren mugari lotzen zaio, eta hori gehiegizko zorrarekin gastuaren hazkunde erreala murrizten da, deflaktorearen osagaia deskontatuta. Eta, azkenik, defizitaren ondorio den doiketak potentziala baino bi puntu inguru txikiagoa den hazkundera ere ekar lezake.

Legedi berriaren gakoak ezagutu ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoak duen arau-esparru berezia ere aipatu behar da. Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Jasangarritasunaren arloko legediak ezartzen du legedi hori Euskadin ere aplikatuko dela, baina horrek ez dio kalterik egingo Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoari. Lege horrek zerga- eta finantza-autonomia duen euskal sektore publiko bat egituratzen du, Estatuarekiko alde biko harremanak dituena, aurrekontu-egonkortasunari dagokionez ere bai, eta ezartzen du Batzorde Mistoari dagokiola «lankidetzak- eta koordinazio-konpromisoak erabakitzea aurrekontu-egonkortasunaren arloan».

Horrelako aurreikuspenak aplikatzean esperientzia luzea dago aurretik ere, egonkortasun arloko helburuak akordio bidez zehaztu baitira; azken akordioa, hain zuzen ere, 2012. urtera mugatu zen salbuespenez, atzerapen ekonomikoko aldi berri baten hasiera sumatu zenean.

Egonkortasun eta Hazkunderako Egiunetik eratorritako aurrekontu-egonkortasuneko europar konpromisoen ondorioz, herri-administrazio guztiek, 2010eko ekitalditik, doikuntza fiskal handia egin behar izan dute aurrekontuak prestatzeko garaian. Ekitaldi horretan, funtzionamenduko gastu eta diru-laguntza jakin batzuk (30 milioi euroko murrizketa) eta farmazia arloko gastua (34 milioiko murrizketa) doitzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak 3/2010 Legea onartu zuen, defizit publikoa murrizteko ezohiko neurriak hartzeko maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretua Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko. Lege horren bidez, hain zuzen ere, soldata-masa %5 murriztu zen 2010ko gainerako hilabeteetan.

2011rako aurrekontuetan ere hainbat neurri hartu ziren, hala nola soldata izoztea eta funtzionamenduko gastuak eta diru-laguntzak doitzea, betiere 2010ean egindakoaren bidetik. Ekitaldi hartan gastuari eusteko beste neurri batzuk ere hartu ziren.

La fijación del objetivo de estabilidad y la determinación del presupuesto de cada administración tiene que observar, por lo tanto, una triple exigencia de cumplimiento del criterio de déficit, del de deuda y de la regla de gasto. Partiendo de sus previsiones de ingresos y de pago por intereses el gasto primario presupuestado no podrá crecer más allá de la tasa de referencia y, además, asegurándose que el déficit estructural, y en su caso la deuda, se reducen también conforme a los criterios expuestos.

En definitiva, la senda hacia el cumplimiento de los objetivos es enormemente exigente por el juego de los distintos criterios de deuda, de déficit y de límites estrictos a la expansión del gasto. La regla de gasto se ciñe al límite del PIB potencial a medio plazo, que con deuda excesiva se reduce al crecimiento real del mismo descontando el componente del deflactor; y finalmente, el ajuste derivado del déficit podría suponer también un crecimiento del gasto en torno a dos puntos menor que el potencial.

Una vez conocidas las claves de la nueva legislación hay que referirse al singular marco normativo de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La legislación en materia de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera establece que su aplicación al País Vasco se entenderá sin perjuicio de lo dispuesto en la Ley del Concierto Económico. Esta Ley configura un sector público vasco con autonomía fiscal y financiera y relaciones bilaterales con el Estado, que también alcanzan a la estabilidad presupuestaria, estableciendo que corresponde a la Comisión Mixta del Concierto “el acordar los compromisos de colaboración y coordinación en materia de estabilidad presupuestaria”.

En aplicación de tales previsiones existe ya una larga experiencia de determinación mediante acuerdo de los objetivos de estabilidad, el último de los cuales se circunscribió con carácter extraordinario al año 2012, al constatarse el inicio de una nueva etapa de recesión económica.

Los compromisos europeos de estabilidad presupuestaria derivados del Pacto de Estabilidad y Crecimiento han impuesto un fuerte ajuste fiscal a todas las administraciones públicas en la elaboración de los presupuestos desde el ejercicio 2010. En dicho ejercicio, junto a ajustes de determinados gastos de funcionamiento y subvenciones por importe de 30 millones de euros y de unos 34 millones en el gasto farmacéutico, el Gobierno Vasco aplicó la Ley 3/2010 de aplicación en la Comunidad Autónoma de Euskadi del Real Decreto Ley 8/2010 de 20 de mayo, por el que se adoptaban medidas extraordinarias para la reducción del déficit público y por la que se reducía la masa salarial en un 5% en lo quedaba de 2010.

En los Presupuestos para 2011 se adoptaron un conjunto de medidas como la congelación de los salarios y el ajuste de los gastos de funcionamiento y subvenciones, en la línea de lo realizado en 2010. A lo largo del ejercicio se tomaron medidas adicionales de contención del gasto.

2012an langileriaren arloko gastuei eusteko ahalegina neurri-multzo zabal baten bidez gauzatu zen, hala nola: abenduko aparteko ordainsariak etetea, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuaren eraginez; borondatezko erretiroagatik sariak, txanda-kontratuak eta ordutegi-baimen jakin batzuk etetea; aldi baterako ezintasunengatik konpentsazioak murriztea, eta enplegatu publikoen gizarte-aurreikuspen osagarriko planetara ekarpenik ez egitea. Ospitalez kanpoko farmazia gastua ere murriztu egin zen, alde batetik, printzipio aktiboaren bidezko botika-agindua aplikatuz eta, bestetik, sendagai generikoen kontsumoa handituz. Era berean, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzako Gastuak Osatzeko Prestazioa % 7 murriztu ziren.

2013-2015eko hirurtekoko egonkortasun-helburuak, BPGd-aren ehunekotan adieraziak, honela finkatu dira autonomia-erkidegoetarako: -0,7, -0,1 eta +0,2. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, oraindik ez da sinatu akordioarik Estatuarekin; hori dela-eta, 2013rako defizit arloko helburutzat BPGd-aren %0,7ko finantziazio-beharrizana hartuko da.

2013rako aurreikuspen ekonomikoaren arabera defizitaren helburua eta diru-sarreraren aurreikuspena eransteak honetara behartzen gaitu: 2013rako aurrekontuetan murrizketa bat ezartzera eta Eusko Jaurlaritzaren helburuak betetzeko austeritate-politika bat eramatera.

3. Ekonomia- eta Aurrekontu-politikaren orientabideak 2013an

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren 2013rako Aurrekontuetan nahitaez azaldu behar dira Euskadik bizi duen krisi-egoera eta horrek ekonomian eta gizartean izandako eraginak. Baina, beste alde batetik, oraintsu onetsi den Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko Lege Organikoak egonkortasunaren alorrean ezartzen dituen betekizun berriak ere hartu behar dira aintzat aurrekontuetan. Horrenbestez, 2013ko aurrekontuekin honako lau helburu handi hauek lortu nahi izango dira: (1) Gizarte-politikak babestea, bereziki osasuna, hezkuntza eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka; (2) Enplegua eta ekonomia-jarduera bultzatzea; (3) Euskadik munduan izan behar duen proiektzio ekonomikoa; eta (4) Finantza publikoen jasangarritasuna bermatzea aurrekontu-egonkortasunaren esparruan.

1. Gizarte-politikak babestea, bereziki osasuna, hezkuntza eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borroka.

Herritarrentzako funtsezko zerbitzuak eta prestazio publikoak bermatzeak du lehentasuna aurrekontu honetan. Ikuspegi horretatik, honako hauek lehenetsiko dira: osasuna, hezkuntza, egoera larrian dauden familientzako arreta eta gizarte-babeseko gure sarea osatzen duen guztia.

En 2012 el esfuerzo de contención en los gastos de personal se llevó a cabo mediante una amplia batería de medidas como: la suspensión de la paga extraordinaria de diciembre debido al Real Decreto Ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria, suspensión de primas de jubilación voluntaria, de contratos de relevo, de determinados permisos horarios, reducción de las compensaciones por incapacidad transitoria y no aportación a planes de previsión social complementaria de los empleados públicos. El gasto farmacéutico extrahospitalario se ha reducido mediante la aplicación de la prescripción por principio activo y el aumento del consumo de genéricos. A su vez, la Renta de Garantía de Ingresos y la Prestación Complementaria de Vivienda se redujeron en una cuantía del 7%.

Los objetivos de estabilidad para el trienio 2013-2015, en % del PIB, se fijan para el conjunto de las Comunidades Autónomas en -0,7, -0,1 y +0,2 respectivamente. En relación con la Comunidad Autónoma de Euskadi aún no se ha suscrito un acuerdo con el Estado, ante lo cual se va a considerar como objetivo de déficit para 2013 una necesidad de financiación del 0,7% del PIB.

La agregación del objetivo del déficit y la previsión de ingresos, realizada a partir de las previsiones económicas para 2013, obliga a plantear una reducción en los Presupuestos de 2013 y a una política de austeridad para poder llevar a cabo los objetivos del Gobierno Vasco.

3. Orientaciones de la política económica y presupuestaria en 2013

Los Presupuestos de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para 2013 deben afrontar la situación de crisis que atraviesa Euskadi y sus consecuencias económicas y sociales. Pero, por otro lado, deben atender también las nuevas exigencias que en materia de estabilidad presupuestaria impone la recientemente aprobada Ley Orgánica de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera. Consecuentemente, los Presupuestos de 2013 estarán orientados al logro de los siguientes cuatro grandes objetivos: (1) Defensa de las políticas sociales, especialmente la sanidad, educación y la lucha contra la exclusión social; (2) Incentivar el empleo y la actividad económica; (3) La proyección económica de Euskadi en el mundo; y (4) Garantizar la sostenibilidad de las finanzas públicas en el marco de la estabilidad presupuestaria.

1. Defensa de las políticas sociales, especialmente la sanidad, educación y la lucha contra la exclusión social

Garantizar los servicios y prestaciones públicas esenciales para la ciudadanía es prioritario en este presupuesto. Desde esta perspectiva, se priorizan los servicios de salud, la educación, la atención a las familias en situación precaria y todo lo que conforma nuestra red de protección social.

Krisiak ez du eragin bera pertsona guztiengan. Talde batzuek arreta handiagoa behar dute, eta berariazko laguntza eta zerbitzuak behar dituzte bazterkerian ez bizitzeko. Aurrekontu honen lehentasuna da ongizatearen euskal sarea eta sare hori bideragarri egiten duten balioak babestea.

Osasun-politikak eta osasun-sistema garatzea gure gizartearen bizi-kalitatearen eta ongizatearen funtsezko oinarriak dira. Adineko pertsonen proportzioa gero eta handiagoa da, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak ere gero eta gehiago dira, eta osasun-zerbitzuen eskaria gero eta zorrotzagoa da. Horrenbestez, osasun-sistemaren jasangarritasuna bermatzeko, ezinbestekoa da pertsonak izatea osasun-sistemaren ardatz nagusia. Estrategia horrek hainbat ekimen izango ditu eta aipatzekoak dira, besteak beste, honako hauek: gaixoak bere osasuna zaintzeko duen erantzukizuna bultzatzea, osasun-arreta gaixoaren ezaugarrien eta tipologiaren arabera hobetzea, hartara osasun-arreta pertsonalizatua izatea sustatuz, osasuna sustatzea eta gaixotasuna prebenitzea osasunerako onak diren ohiturak bultzatuz.

Gure osasun-sistemaren jasangarritasuna bermatzeko, lehentasuna izango du gaixoari erabateko arreta emateak, lehen mailako arretak arazoak konpontzeko gaitasun handiagoa izateak osasun-arazo gehienetan eta ohiko ospitaleratzearen orde besterik ez beste alternatiba batzuk ezartzeak. Gainera, sendagaiak zentzuz erabiltzeko estrategiek ekarpen positiboa egingo diote sistemaren jasangarritasunari.

Aurrekontu honetan, era berean, herritarren zerbitzurako hezkuntza-politikaren alde egin da. Gizarte gero eta zuzenago, solidarioago eta kohesionatuagoa lortu nahi da, balioetan oinarritutako hezkuntza-sistema izango duena, haur-hezkuntzatik hasi eta unibertsitate arte, bakea eta bizikidetzak bultzatuz.

Ikasleen erabateko garapena bermatzeko duen bikaintasuneko hezkuntza-sistema sustatzeko ekimenak egingo dira, gaitasunetan oinarritutako ikaskuntza bultzatuz eta sistema eleanitzaren alde eginez (euskara izango delarik ardatz nagusia), ikasketak amaitzean ikasleek komunikatzeko gaitasun nahikoa izan dezaten euskaraz, gaztelaniaz eta beste hizkuntza batean (ingelesez). Euskadiko ekoizpen-sistemaren beharrezanean erantzuteko moduko sistema bultzatuko da lanbide-heziketan eta unibertsitatean.

Lehentasuna izango dute, era berean, arrazoia edozein dela ere bazterkeria-egoerak bizitzeko aukera handiagoa duten pertsonen beharrezanean erantzuteko helburua duten jarduerak, esaterako, honako hauek: oinarritzeko errenta, diru-sarrerak bermatzeko legearen eremuan, eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eta etxebizitzarako soroospenak, laguntzeko aparteko diru-laguntza gisa. Gainera, erraztasunak emango dira gizarte-bazterkeriako egoerak bizi dituzten pertsonetarik ahalik eta gehien lan-merkatuan txertatzeko, egoera hori ez dadin kroniko eta itzulezin bihurtu.

2. Enplegua eta jarduera ekonomikoa sustatzea

La crisis no está afectando a todas las personas por igual, por lo que hay colectivos que precisan de una mayor atención y de servicios y ayudas específicas para no caer en la exclusión. Es prioridad de este presupuesto preservar la red vasca de bienestar y los valores que la sostienen.

El desarrollo de las políticas de salud y el sistema de salud son pilares fundamentales de la calidad de vida y del bienestar de nuestra sociedad. Una población caracterizada por una proporción cada vez mayor de personas mayores y con enfermedades crónicas y cada vez más exigente en la demanda de servicios de salud, requiere, para asegurar la sostenibilidad del sistema sanitario, situar a las personas como eje central del sistema de salud. Esta estrategia va a contar con distintas iniciativas, entre las que es posible destacar el fomento de la corresponsabilidad del paciente en el cuidado de su salud, la mejora de la atención sanitaria en función de las características y tipologías del paciente, potenciando así la personalización de la atención sanitaria, la promoción de la salud y la prevención de la enfermedad fomentando hábitos saludables.

Para garantizar la sostenibilidad de nuestro sistema de salud es prioritario que se facilite una atención integral del paciente, que la atención primaria tenga mayor capacidad de resolución en la mayoría de los problemas de salud y que se implanten alternativas a la hospitalización tradicional. Además, las estrategias de uso racional de medicamento, contribuirán de forma positiva a la sostenibilidad del sistema.

Desde este presupuesto se apuesta también por la política educativa al servicio de los ciudadanos, consiguiendo una sociedad cada vez más justa, solidaria y cohesionada y con un sistema educativo anclado en valores, desde la etapa infantil hasta la universitaria, que fomenta la paz y la convivencia.

Se llevarán a cabo iniciativas que promuevan un sistema educativo de excelencia que garantice el desarrollo integral del alumnado, promoviendo el aprendizaje basado en competencias, apostando por un sistema plurilingüe, con el euskera como eje central, para que el alumnado tenga una competencia comunicativa suficiente en euskera, castellano y una tercera lengua (inglés) al finalizar sus estudios. Se promoverá un sistema de formación profesional y universitaria que responda a las necesidades del sistema productivo de Euskadi.

Así mismo, tienen prioridad actuaciones cuya finalidad es atender las necesidades de las personas que por diversas razones son más vulnerables a sufrir situaciones de exclusión, entre las que son reseñables la renta básica, en el marco de la Ley de garantía de ingresos, y las ayudas de emergencia social y subsidios a la vivienda, como subvención asistencial y de carácter extraordinario. Además, se va a facilitar la incorporación al mercado de trabajo del mayor número posible de personas afectadas por situaciones de exclusión social, con el objetivo de evitar que su situación sea crónica e irreversible.

2. Incentivar el empleo y la actividad económica

Aurrekontuek enpresa-sarea babesteko neurriak bildu behar dituzte, atzeraldira itzultzen ari garen eta finantzaketa-arazo larriak dauden une honetan.

Enplegua zuzenean sortzeko neurriak ere azalduko dituzte eta, bereziki, lana lehenengoz aurkitzeko aukerak gazteentzat eta langabezialdi luzeko langabeentzat. Arreta berezia ipini behar da gazteekin, horien langabezia-tasa Euskadiko batez bestekoa baino nabarmen handiagoa baita. Hori dela-eta, 30 urte baino gutxiagoko pertsonentzako kontratu berriak aktibatze programak bat abiaraziko da, eta autoenplegua bultzatuko da EAEko gazteen artean.

Era berean, gure sare ekonomikoaren finantza-arloa estutzea saihestearren, enpresa txiki eta ertainak eta autonomoak finantzatzeko programa bat ere jarriko da abian; programa horrek, besteak beste, jarduera batzuk jasoko ditu arlo hauetan: zirkulatuzailearen finantzaketa, eta abal eta mikrokredituen programak, bai eta aurrezte pribatua euskal enpresa-sare osora bideratuko duten politikak ere.

Aurrekontuan txertatu diren jarduera-ildo horien xedea da Enplegua eta Ekonomia Berpizteko Plana gauzatzen laguntzea.

Euskal gizarteak, premiazko jardueraz gain, ekonomia-politikarako eredu propioa ere izan behar du, Euskadi berriro eramateko hazkunde ekonomikoaren eta enpleguaren bidera. Hazkunde horrek, gainera, bateragarria izan beharko du gizarte-ekitatearekin eta gure ongizate-ereduaren jasangarritasunarekin.

Helburu bi lortu nahi dira horrela, batetik, egungo ekonomia- eta finantza-krisirako erantzuna eskaintzea, eta, bestetik, epe luzerako enplegua sortuko dela bermatuko duen garapen ekonomiko iraunkorra lortzeko oinarriak ezartzea.

Egungo egoera eta krisitik arrakastaz irteteko beharra kontuan hartuta, Euskadik ezinbestekoa du aldi batean zuen industria-izaera berreskuratzea eta ekoizpen-ekonomia ausarki babestea, Europar Batasunaren 2020 Estrategia erreferente hartuta. Industria- eta lehiakortasun-politikari laguntzea izango da ekonomia berpizteko prozesu honetan lehentasuna izango duten bost jarduera-esparruetako bat, honako hauekin batera: ekintzaileei laguntzea; nazioartekotzearen eta Euskadi markaren aldeko apustua egitea; berrikuntza bultzatzea, eta enplegua sustatzea.

Industria-politika hedatuz, modernizatzen eta irauten lagunduko zaie enpresei, bereziki funtsean manufaktura-arlokoak diren enpresei, industria aldetik gero eta helduagoak diren sektoreetan sartuta daudela. Orobat, sektore eragile, iraunkor eta interesgarrietan (EAErentzat interesa duten sektoreetan) enpresa berriak sustatu eta sortzea babestuko da, eta Euskadiko enpresa eragileak babestuko dira. Izan ere, horiexek dira eragindako eta kalitatezko enplegu gehien sortzen dutenak, eta euskal ekonomia nazioartekotzeko aukerak handitzen dituztenak. Era berean, ez da ahaztu behar ezinbestekoa dela enpresa txiki eta ertainei (ETE) eta autonomoei ere laguntzea.

Los presupuestos deben contemplar medidas de apoyo al tejido empresarial en un momento de vuelta a la recesión y de graves problemas de financiación.

También contemplarán medidas orientadas a la creación directa de empleo y, en particular, al acceso a una primera oportunidad laboral para los jóvenes y los parados de larga duración. El colectivo de jóvenes debe ser objeto de especial atención porque su tasa de paro es sensiblemente superior a la media de Euskadi, y por ello, se pondrá en marcha un programa para activar nuevos contratos de personas menores de 30 años y se fomentará el autoempleo entre la juventud vasca.

Asimismo y con el objetivo de evitar el estrangulamiento financiero de nuestro tejido económico, se articularán acciones para la puesta en marcha un Programa de Financiación de pymes y Autónomos, que contemple actuaciones en materia de financiación del circulante, programas de avales y microcréditos, así como políticas que canalicen el ahorro privado hacia el tejido empresarial vasco en su conjunto.

Estas líneas de actuación incorporadas al presupuesto tendrán como fin dar cobertura a la formulación del Plan por la Reactivación Económica y el Empleo.

Además de las actuaciones urgentes, la sociedad vasca debe contar con un modelo propio de política económica que lleve de nuevo a Euskadi a la senda del crecimiento económico y del empleo, un crecimiento compatible con la equidad social y la sostenibilidad de nuestro modelo de bienestar.

Se plantea un doble objetivo al pretender tanto ofrecer una respuesta a la actual crisis económica y financiera como asentar las bases de un desarrollo económico sostenido que garantice la creación de empleo a largo plazo.

Las circunstancias actuales y la necesidad de afrontar con éxito la salida de la crisis demandan de Euskadi la recuperación de su espíritu industrial y un decidido apoyo a la economía productiva que tenga como referente la Estrategia 2020 de la UE. El apoyo a la política industrial y de competitividad será una de las cinco áreas de actuación prioritaria en este proceso de reactivación económica, junto al apoyo a emprendedores, la apuesta por la internacionalización y la marca Euskadi, el impulso de la innovación y la promoción del empleo.

El despliegue de la política industrial supondrá ayudar a las empresas en su modernización y sostenimiento, especialmente a las empresas básicamente manufactureras, integradas en sectores industrialmente cada vez más maduros. Así mismo, se apoyará la promoción y creación de nuevas empresas en sectores tractores, sostenibles y de interés para la CAPV y se apoyará a las empresas tractoras de Euskadi, por ser las generadoras de mayor empleo inducido y de calidad, y las que aumentan las posibilidades de internacionalización de la economía vasca. Todo ello sin olvidar el necesario apoyo a las pymes y autónomos.

Halaber, Euskadin kultura ekintzaile handia egoteak aukera eman digu nazioartean gizarte aurreratua eta lehiakorra izateko. Kultura ekintzaile hori mantendu eta garatzea gure ekonomiaren aktibo handia da, eta lehiarako abantaila handia.

Ekintzailetzaren eremu horretan, bultzatu egingo da Euskadi lurralde ekintzailea izatea eta munduko eskualde ekintzaileenekin harremanetan egotea; horretarako, berriazko ekimenak garatuko dira Euskadi lurralde azkar, dinamiko eta ekintzaile egingo duten enpresa-proiektu berrietan buru izateko gai diren profesionalak erakarri eta atxikitzeko.

Industria-sektorea indartzea eta nazioartekotzea babestea erabakigarriak izango dira ekonomia berreskuratzeko, baina gure ekonomia- eta gizarte-sareak nahitaezko duen eraldaketarako oinarritzeko gakoak, hurrengo hamarkadetan, enpresek eta gizarteak jakintza sortzeko eta berritzeko duten gaitasuna izango da.

Euskadin eta munduko gainerako lekuetan sortutako jakintza ekonomia- eta gizarte-balio bihurtzeko gaitasuna izango da hori, eta arreta berezia ipiniko da industria-sektorean lehiarako eragin handiena duten eremuetan.

Jakintza, eta balioa berrikuntzaren bitartez sortzeko gaitasuna pertsonengan daude. Hori guztia dela-eta, ezinbestekoa da ditugun unibertsitate, teknologia-korporazio, Ikerketa Kooperatiboko Zentro eta antzekoak eraldatzea, lidergoan lehiatu ahal izan dezagun Europan.

3. Euskadik munduan izan behar duen proiektzio ekonomikoa

Arestian aipatu diren industria-sektorea indartzeko eta ekintzaileei laguntzeko jarduerak ez ezik, Euskadi kanpora ateratzea ere, hau da, nazioarteko agertokietan duen balioa erakustea, erabakigarria izango da egunero merkatu zabalago batean aurrerapen ekonomikoak egiteko ditugun aukerarako.

Beharizan saihestezina da nazioartekotzea, eta ez ekonomiarako bakarrik, bai eta euskal gizarte osoarentzat ere. Hori dela-eta, nazioartekotzea ez da ulertu behar barneko eskariaren beherakada konpentsatzeko defentsa-erantzuntzat, baizik eta gure enpresen estrategia proaktibotzat. Era berean, ez da hartu behar estrategia soilik ekonomikotzat, baizik eta herri-estrategiatzat.

Así mismo, la existencia de una importante cultura emprendedora en Euskadi nos ha permitido llegar a ser una sociedad avanzada y competitiva en el ámbito internacional. Mantener y desarrollar esta cultura emprendedora representa un gran activo de nuestra economía y una gran ventaja competitiva.

En este ámbito del emprendimiento, se impulsará el posicionamiento de Euskadi como territorio emprendedor y conectado con las regiones más emprendedoras del mundo, desarrollando iniciativas específicas para retener y atraer profesionales capaces de liderar nuevos proyectos empresariales que hagan de Euskadi un territorio inteligente, dinámico y emprendedor.

Si bien reforzar el sector industrial junto al apoyo del emprendimiento y la internacionalización serán determinantes para la recuperación económica, las claves fundamentales en la necesaria transformación de nuestro tejido económico y social durante las próximas décadas serán la capacidad de generar conocimiento y la capacidad de innovar de las empresas y la sociedad.

La capacidad de convertir conocimiento generado en Euskadi y en el resto del mundo en valor económico y social, poniendo el acento en los ámbitos de mayor impacto competitivo en el sector industrial.

El conocimiento y su potencial de creación de valor a través de la innovación reside en las personas. Es, por tanto, necesario abordar una transformación de nuestras universidades, corporaciones tecnológicas, CICs, etc. para pasar a competir en posiciones de liderazgo en Europa.

3. La proyección económica de Euskadi en el mundo

Además del citado fortalecimiento del sector industrial y el apoyo a emprendedores, la salida de Euskadi al exterior, su puesta en valor en escenarios internacionales, contribuirá decisivamente a nuestras posibilidades de progreso económico en un mercado cada día más abierto.

La internacionalización es una necesidad ineludible no sólo para la economía sino para el conjunto de la sociedad vasca. Por ello la internacionalización no debe entenderse como una respuesta defensiva para compensar el descenso de la demanda interna, sino como una estrategia proactiva de nuestras empresas. Tampoco debe entenderse como una estrategia exclusivamente económica sino como una estrategia de País.

Helburua da presentzia eta tamaina irabaztea merkatu globalean, dela alderdi ekonomikotik, dela ikuspegi instituzional, politiko eta sozialetik. Horretarako ezinbestekoa da erakundeek eta enpresek «diplomazia ekonomikoko» estrategia bat bultzatzea, «Basque Country» herri-marka indartzeko, atzerrian herrialde fidagarri, betetzaille eta lehiakor gisa dugun irudia sendotuz. Komunikazio-elementuen aniztasuna oinarri hartuta eraiki beharko da herri-marka hori, eta malgutasun nahikoa izan beharko du hainbat eremutan garatzeko: turismoan, gure enpresak nazioartekotzean, berrikuntzarako edo talentua erakartzeko sareetan, etab.

4. Finantza publikoen jasangarritasuna bermatzea aurrekontu-egonkortasunaren alorrean.

2013an, Euskadik aurrekontuen egonkortasunari buruz hartuak dituen konpromisoak betetzen jarraituko du, eta, hori dela-eta, ez dira etengo finantza publikoen jasangarritasunerako beharrezko diren kontsolidazio fiskaleko politikak. Aipatu ditugun lehentasunei heldu ahal izateko eta gastua ekonomiari bultzada berria ematen gehien lagun dezaketen partidetan eta gizarte-zerbitzuen babesari zuzendutakoetan bildu ahal izateko, austeritate-politika bat ezarri da.

Sektore publiko osoan gastuaren austeritatea ezartzeko eta produktibitatea hobetzeko mekanismoak ezarriko dira. Helburu izango da zerbitzu publikoa eskaintzen jarraitzea, eta bereizi egin behar da, beraz, gizarteari zerbitzua eskaintzea zerbitzu hori ekoizteko erabiltzen den baliabide-bolumenetik. 2013ko aurrekonturako langile-gastuen kalkulua irizpide honekin egin da: igoerarik ez izatea sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarrietan.

Gainera, langile-gastu horien kudeaketa optimizatzeke helburuz, neurri batzuk hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta erakunde autonomoetan Sektore Publikoko gainerako erakundeetan, langile-gastuari eusteari begira, lanpostu hutsak betetzeari, ordezkapenak egiteari eta aldi baterako langilea kontratatzeari dagokienez. Aurrekontu-plantilla ez da handituko, 2012ko abenduaren 31n dauden lanpostuen guztizko agregatuarekin alderatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko sailek, erakunde autonomoek eta gainerako erakundeek gastu arruntari buruzko politikak aztertu, eta erabakiak hartuko dituzte, gastu arruntak nabarmen murrizte aldera, lehentasuna emanda lehenago adierazitako helburu estrategikoak betetzeari.

Inbertsio publikoa egokitu egin da, euskal zerbitzu publikoak zaintzeko helburua betetzea lehenesteari begira.

2013ko aurrekontuak Administrazio Orokorreko zuzendaritza-egiturak egokitzea hartu du kontuan. Neurriak hartuko dira Administrazio Orokorreko zuzendaritza-egiturak %20 murrizteko 2013an.

El objetivo es ganar presencia y dimensión en el mercado global, tanto desde una dimensión económica como institucional, política y social. Para ello es imprescindible que instituciones y empresas impulsemos una estrategia compartida de “diplomacia económica” para fortalecer la marca país (“Basque Country”), reforzando nuestra imagen exterior como país fiable, cumplidor y competitivo. Esta marca-país deberá construirse desde una pluralidad de elementos comunicacionales, con la suficiente flexibilidad para su desarrollo en diferentes ámbitos: turismo, internacionalización de nuestras empresas, cooperación internacional, redes de innovación o captación de talento.

4. Garantizar la sostenibilidad de las finanzas públicas en el marco de la estabilidad presupuestaria.

Euskadi va a seguir cumpliendo en 2013 sus compromisos con la estabilidad presupuestaria, por lo que se va a continuar con la política de consolidación fiscal necesaria para la sostenibilidad de las finanzas públicas. Para que puedan abordarse las prioridades que hemos citado y para que el gasto pueda concentrarse en las partidas que más puedan contribuir al relanzamiento de la economía y en las dedicadas a la defensa de los servicios sociales se ha implementado una política de austeridad.

Se implementarán mecanismos de austeridad en el gasto y de mejora en la productividad del conjunto del sector público. Se ha de trabajar en el objetivo del mantenimiento de la prestación del servicio público, desligando la prestación del servicio a la sociedad del volumen de los recursos empleados para su producción. El cálculo de los gastos de personal para el presupuesto 2013 se ha realizado con el criterio de no incremento de las retribuciones del personal al servicio del sector público.

Además, con el objetivo de optimizar la gestión de los gastos de personal, se tomarán medidas en la Administración General, Organismos Autónomos y demás Entidades del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi tendentes a la contención del mismo, en cuanto a la cobertura de puestos vacantes, sustituciones y contratación de personal temporal. No se incrementará la plantilla presupuestaria con respecto al total agregado de plazas existentes a 31 de diciembre de 2012.

Los Departamentos, Organismos Autónomos y demás Entidades del Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi examinarán sus políticas de gasto corriente, tomando decisiones que posibiliten una reducción significativa del mismo, priorizando la consecución de los objetivos estratégicos anteriormente enumerados.

La inversión pública se ha adecuado al cumplimiento del objetivo de preservar los servicios públicos básicos.

El presupuesto 2013 considera la adecuación de las estructuras de dirección de Administración General. Se adoptarán medidas para reducir, en 2013, las estructuras de dirección en un 20% en la Administración General.

Ez dago aurreikusita organismo autonomo, zuzenbide pribatuko erakunde publiko, sozietate publiko, fundazio edo partzuergo berririk sortzea 2013ko aurrekontuan.

4. 2013ko Aurrekontu Orokorren ezaugarriak

Ekitaldi honetarako aurrekontuak 1.132,5 milioi euro gutxiago izango ditu 2012ko ekitaldiaren aldean kopuru absolutuetan, eta %10,8ko beherakada ehunekotan; guztira 9.316,7 milioi euro izango dira. Diru-sarreren hiru atal handitan izandako murrizketek eragin dute baliabide gutxiago egotea. Lehenik, Foru Aldundien ekarpenak 680 milioi euro gutxiago izan dira; bigarrenik, zorpetze gordinaren aldaketa 335 milioi euro murriztu da, eta azkenik, gainontzeko diru-sarrerak 117,5 milioi euro murriztu dira aparteko eragiketak gutxitzean.

Eusko Jaurlaritzaren gizarte-gastuaren ildo nagusiei eutsiko die aurrekontuak, bereziki, osasunari, hezkuntzari eta egoera larrian dauden familientzako arretari. Politika publiko horiek diskriminazio positiboa jaso dute Eusko Jaurlaritzaren gastu-lehentasunak finkatzeko orduan. Jaurlaritzaren gizarte-gastuaren politikaren barruko diskriminazio positibo horren ostean, politika publikoen gainerako jarduketek murrizketa are nabarmenagoak izango dituzte gastu-ahalmen txikiagoko agertokira egokitu ahal izateko.

Gastu-atal guztietan izan dira gastu-murrizketak. Gastu-murrizketa txikiena I. eta II. kapituluetan izan da; zehazki, 1.912,9 milioi euroko gastua duen I. kapitulua %2,5 murriztu da, eta II.a, 3.064,9 milioi eurokoa duena, %4,4. Horien murrizketa txikiagoa da kapitulu horietan biltzen baitira Eusko Jaurlaritzaren gizarte-politika nagusiak, funtsean Osakidetzaren funtzionamendu-gastuak zein euskal hezkuntza-sistemaren ohiko funtzionamendua. IV. kapituluan %14,4ko murrizketa izan da; hala, 2.810 milioi euro izango ditu ekitaldion. Nolanahi ere, kapitulu horrek aurrekontuaren batez besteko murrizketa baino handiagoa izan arren, nabarmendu beharra dago gizarte-bazterkeriari aurre egiteko partidek ez dutela murrizketarik izan.

Kapital-gastuak zehazteko orduan, bestalde, oinarritzko zerbitzu publikoetara bideratutako gastua lehenetsi da. Aurrekontuaren murrizketarik handiena, dena den, kapitulu horietan izan da; horrela bada, VI. kapitulua %19,5 murriztu da, eta 493,1 milioi eurokoa izango da; halere, kontuan hartu behar dugu abiadura handiko trenaren eragina barnean hartzen duela, azken hori administrazio zentralak finantzatua izanik. Kapital-transferentziek %40,8ko murrizketa izan dute, eta 471,8 milioi eurokoak dira aurrekontuan.

No se contempla, en el presupuesto 2013, la creación de nuevos Organismos Autónomos, Entes Públicos de Derecho Privado, Sociedades Públicas, Fundaciones y Consorcios.

4. Características de los presupuestos generales de 2013

La situación presupuestaria para este ejercicio va a suponer una disminución de recursos de 1.132,5 millones de euros en relación al ejercicio 2012, en términos absolutos, y de un 10,8% en términos porcentuales, suponiendo unos recursos de 9.316,7 millones de euros. Esta reducción de recursos se produce por las disminuciones que se dan en tres grandes apartados del ingreso. En un primer lugar, las aportaciones de las Diputaciones Forales disminuyen en 680 millones de euros, en un segundo lugar, la variación del endeudamiento bruto se ve reducida en 335 millones de euros, y por último, la cifra del resto de ingresos se ve reducida en 117,5 millones de euros debido a la disminución de operaciones extraordinarias.

El presupuesto preserva las grandes líneas de gasto social del Gobierno Vasco, especialmente los servicios de salud, la educación y la atención a familias en situación precaria. Se ha discriminado de forma positiva a este bloque de políticas públicas a la hora de establecer las prioridades de gasto del Gobierno Vasco. Tras esta discriminación positiva dentro de las políticas de gasto social del Gobierno, se plantean disminuciones para el resto de actuaciones de políticas públicas de una manera más acentuada para poder así acomodarse a este escenario de menos capacidad de gasto.

Las disminuciones de gasto se han materializado en todos los capítulos de gasto. Los capítulos I y II son los capítulos que presentan una menor reducción de gastos, concretamente el capítulo I, con un gasto de 1.912,9 millones de euros, se reduce en un 2,5% y el II, con un volumen de gasto de 3.064,9 millones de euros, se reduce en un 4,4%. Estas menores disminuciones son debidas a que en los gastos que soportan estos capítulos, es donde se asientan las principales políticas sociales del Gobierno Vasco, básicamente, los gastos de funcionamiento del Servio Vasco de Salud Osakidetza, así como el funcionamiento ordinario del sistema educativo vasco. El capítulo IV presenta una reducción del 14,4%, pasando a contar con 2.810 millones de euros. Si bien es cierto, que dentro de este capítulo, hay que destacar que a pesar de sufrir una disminución por encima de la reducción media del presupuesto, aquellas partidas del capítulo destinadas a la lucha contra la exclusión social no presentan disminución alguna.

Por otro lado, el planteamiento de los gastos de capital ha sido el de priorizar aquellos que tengan destino a los servicios públicos básicos. No obstante, la mayor disminución del presupuesto se materializa en estos capítulos, disminuyendo el capítulo VI un 19,5%, pasando a suponer 493,1 millones de euros, teniendo en cuenta que se incluye el efecto del tren de alta velocidad, que se financia por parte de la administración central. Las transferencias de capital, presentan una disminución del 40,8% alcanzando la cifra en el presupuesto de 471,8 millones de euros.

Gastuaren VIII. kapituluak %29,5eko murrizketa izan du; 116 milioi eurokoa da. Aurreko ekitaldiaren aldean gastu-kapitulu honetan beherakada handia izan bada ere, aurreko kapituluetan bezala hemen ere lehenetsi dira ekintza-ildo jakin batzuk. Horregatik, hain zuzen, ildo zehatz batzuk ezarriko dira enpresa-sektorea krisiaren aurrean babesteko tresnak eduki ahal izateko.

Kapitulukako azterketa amaitzearren, zorraren amortizazioak %18ko igoera izan du (199,9 milioi eurokoa da); hala, zorraren zerbitzua aurreko ekitaldiko mailan mantendu da (247,9 milioi euro).

Aurrekontua sailen arabera aztertuz gero, gizarte-politikaren oinarri diren sailak aurrekontuan sendotu direla ikusiko dugu, baita bertan duten garrantzi erlatiboa handitu dela ere; hala, gastu osoaren %71,7 bereganatuko dute 2013an (%70,9 2012an). Bereziki nabarmendu beharra dago Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren hazkunde txikia, baita Osasun Sailaren garrantzi erlatiboaren hazkundera ere; Eusko Jaurlaritzaren gastuaren %35 hartuko du (%32,6 2012ko ekitaldian).

El capítulo VIII de gasto presenta una disminución del 29,5%, alcanzando los 116 millones de euros. Si bien es cierto que la caída respecto al ejercicio anterior es muy acentuada en este capítulo de gasto, ocurre lo mismo que en los capítulos anteriores, en los que se he priorizado determinadas líneas de acción en el mismo. Es por esto, que se contará con líneas específicas que permitan poder tener herramientas de apoyo al sector empresarial frente a la crisis.

Para concluir el análisis por capítulos, indicar que la amortización de la deuda sufre un incremento de un 18%, suponiendo 199,9 millones de euros, manteniéndose el servicio de la deuda en niveles del ejercicio anterior (247,9 millones de euros).

Si analizamos el presupuesto por Departamentos, se constata que aquellos que constituyen la base de la política social, no sólo se consolidan en el presupuesto, sino que aumenta su importancia relativa en el mismo, pasando a representar un 71,7% del total del gasto en 2013, frente a un 70,9% en 2012. Destaca especialmente el ligero incremento del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, y el incremento del peso relativo del Departamento de Salud, que pasa a representar el 35% del gasto del Gobierno Vasco, frente al 32,6% del ejercicio 2012.



II. POLITIKA PUBLIKOAK
POLÍTICAS PÚBLICAS



POLITIKA PUBLIKOAK

Politika publikoen atala aurkeztu da gastuen aurrekontuaren sailkapen funtzionalaren arabera, egitura normalizatuari erantzuten baitio. Aurrekontuaren bidez Jaurlaritzak lortu nahi dituen helburu eta lehentasunen ikuspegia ematen du sailkapen horrek, baita helburu horiek lortzeko aurreikusitako jardueren ikuspegia ere. Labur esanda, ekitaldian garatu nahi dituen politika publikoei esleitutako baliabideak biltzen ditu

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuko gastuak, 2013rako, 27 eginkizun edo gastu-politiketan adierazi dira eta,aldi berean, gastuaren 9 talde edo arlo funtzional handitan daude sailkatuta. Haien garrantzi ekonomikoagatik, hauek azpimarratu beharra dago: izaera sozialeko ondasun publikoen produkzioa (gastu osoaren %64,5), eta, hortik oso atzera, izaera ekonomikoko ondasun publikoen produkzioa (%8,4), gizartearen segurtasuna, babeseta sustapena (%7,7) eta babes zibila eta herritarren babeseta (%6,1).

Ondoko koadroan xehetasun handiagoz ikus daitezke gastu-politikaren guztizkoa, politika bakoitzari dagozkion baliabideak eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta zenbatekoek izan duten bilakaera.

POLÍTICAS PÚBLICAS

El apartado de políticas públicas se presenta de acuerdo con la clasificación funcional del presupuesto de gastos, que responde a una estructura normalizada. Esta clasificación permite ofrecer una visión de los objetivos y prioridades que persigue el Gobierno con el presupuesto, así como de las actuaciones previstas para alcanzar tales objetivos. En definitiva, recoge los recursos asignados a las diferentes políticas públicas que se implementarán en el ejercicio.

Los gastos presupuestados del Gobierno Vasco para 2013 se asignan a 27 funciones o políticas de gasto agrupadas en 9 grandes grupos funcionales o áreas de gasto. Por su importancia económica destacan: la producción de bienes públicos de carácter social (64,5% del gasto total), seguido a gran distancia por la producción de bienes públicos de carácter económico (el 8,4%), la seguridad, protección y promoción social (un 7,7%) y la protección civil y seguridad ciudadana (un 6,1%).

En el cuadro siguiente se puede observar con mayor detalle el conjunto de políticas de gasto con los recursos destinados a cada una de ellas, así como su evolución en comparación con el ejercicio anterior.

MILA

MILES

FUNTZIO TALDEA/FUNTZIOA GRUPO FUNCIONAL/FUNCIÓN	2013	Guztizkoaren araberako % % s/total	2012	Guztizkoaren araberako % % s/total	2013/2012 hazkunderen % % Incremento 2011/ 2010
0 Zor publikoa 0 Deuda Pública	442.065,7	4,7	419.612,0	4,0	5,4%
01 Zor publikoa 01 Deuda Pública	442.065,7	4,7	419.612,0	4,0	5,4%
1 Zerbitzu orokorrak 1 Servicios de carácter general	427.284,8	4,6	469.786,0	4,5	-9,0%
11 Goi Zuzendaritza, autonomia- erkidegoa eta gobernu 11 Alta Dirección Comunidad Autónoma y Gobierno	48.837,5	0,5	53.099,0	0,5	-8,0%
12 Administrazio Orokorra 12 Administración General	182.239,2	2,0	191.776,0	1,8	-5,0%
13 Kanpo Harremanak 13 Relaciones Exteriores	39.839,7	0,4	60.616,2	0,6	-34,3%
14 Justizia 14 Justicia	156.368,4	1,7	164.294,7	1,6	-4,8%
2 Babes Zibila eta Herritarren Segurtasuna 2 Protección Civil y Seguridad Ciudadana	572.010,7	6,1	640.409,8	6,1	-10,7%
22 Segurtasuna eta Babes Zibila 22 Seguridad y Protección Civil	572.010,7	6,1	640.409,8	6,1	-10,7%
3 Segurtasuna, Babeseta eta Gizarte Sustapena 3 Seguridad, Protección y Promoción Social	716.535,3	7,7	941.931,4	9,0	-23,9%
31 Segurtasuna eta Babes Soziala 31 Seguridad y protección social	448.830,1	4,8	470.064,5	4,5	-4,5%
32 Gizarte Sustapena 32 Promoción Social	267.705,2	2,9	471.866,9	4,5	-43,3%

FUNTZIO TALDEA/FUNTZIOA GRUPO FUNCIONAL/FUNCIÓN	2013	Guztizkoaren araberako % % s/total	2012	Guztizkoaren araberako % % s/total	2013/2012 hazkundearen % % Incremento 2011/ 2010
4 Izaera sozialeko ondasun publikoen produkzioa 4 Producción de bienes públicos de carácter social	6.013.653,1	64,5	6.519.210,9	62,4	-7,8%
41 Osasuna 41 Sanidad	3.257.273,4	35,0	3.399.651,2	32,5	-4,2%
42 Hezkuntza 42 Educación	2.338.912,4	25,1	2.570.111,6	24,6	-9,0%
43 Etxebizitza eta Hirigintza 43 Vivienda y Urbanismo	95.957,0	1,0	153.207,3	1,5	-37,4%
44 Erkidegoko Ongizatea 44 Bienestar Comunitario	41.327,5	0,4	59.366,4	0,6	-30,4%
45 Kultura 45 Cultura	168.067,2	1,8	213.680,8	2,0	-21,3%
46 Erkidegoko bestelako zerbitzuak 46 Otros servicios comunitarios	12.192,8	0,1	13.153,5	0,1	-7,3%
47 Euskara sustatzea 47 Promoción del Euskera	99.922,9	1,1	110.040,0	1,1	-9,2%
5 Izaera ekonomikoko ondasun publikoen produkzioa 5 Producción de bienes públicos de carácter económico	778.621,4	8,4	1.018.756,8	9,7	-23,6%
51 Oinarrizko azpiegiturak 51 Infraestructuras Básicas	554.792,0	6,0	681.161,1	6,5	-18,6%
52 Komunikazioak 52 Comunicaciones	16.454,5	0,2	41.485,1	0,4	-60,3%
54 Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua 54 Investigación científica, técnica y aplicada	194.410,3	2,1	280.952,2	2,7	-30,8%
55 Oinarrizko informazioa eta estatistika- informazioa 55 Información básica y estadística	12.964,6	0,1	15.185,4	0,1	-14,6%
6. Erregulazio ekonomiko orokorra 6. Regulación económica de carácter general	37.955,5	0,4	41.521,9	0,4	-8,6%
61 Erregulazio ekonomikoa 61 Regulación económica	26.736,5	0,3	29.664,9	0,3	-9,9%
63 Finantza-erregulazioa 63 Regulación financiera	11.219,0	0,1	11.857,1	0,1	-5,4%
7 Ekoizpen-sektoreen erregulazio ekonomikoa 7 Regulación económica sectores productivos	253.608,6	2,7	320.377,3	3,1	-20,8%
71 Nekazaritza, Abeltzaintza 71 Agricultura, Ganadería	96.596,9	1,0	121.848,1	1,2	-20,7%
72 Industria 72 Industria	108.361,0	1,2	118.618,2	1,1	-8,6%
73 Energia 73 Energía	804,2	0,0	2.971,2	0,0	-72,9%
75 Turismoa 75 Turismo	9.090,0	0,1	20.427,5	0,2	-55,5%
76 Merkataritza 76 Comercio	38.756,5	0,4	56.512,3	0,5	-31,4%
9 Finantza-harremanak bestelako herri- administrazioekin 9 Relaciones Financieras con otras Administraciones Pública	74.921,9	0,8	77.560,9	0,7	-3,4%
91 Finantza-harremanak euskal sektore publikoarekin 91 Relaciones Financieras con el Sector Público Vasco	74.921,9	0,8	77.560,9	0,7	-3,4%
GUZTIRA TOTAL	9.316.657,0	100,0	10.449.167,0	100,00	-10,8%

Ondoren gastu-politika esanguratsuenak aztertuko ditugu

A continuación se comentan las políticas de gasto más significativas.

Kanpo Harremanak

Eusko Jaurlaritzaren ekintza politikoaren eta proiektzio publikoaren ardatz nagusi bat da kanpo-ekintza. Munduan barrena dauden euskal herritar eta kolektibitateek justifikatzen dute, baita gure enpresa eta unibertsitateen nazioartekotzeak eta garapenerako laguntza-konpromisoak ere, beste zenbait faktoreren artean. Azken batean, Euskadi kanporantz proiektatzea.

Euskadiren kanpo-presentzia bi jardun-ildo handiren inguruan egituratzen da, Kanpo Ekintza eta Garapenerako Lankidetzak, eta 2013an 7,5 eta 32,3 milioi euro bideratu dira horietara, hurrenez hurren.

Kanpo Ekintzari dagokionez, jada ezarritako jardun-ildo geografiko nagusiak atxikiko dira, Europar Batasuna, aldebakarreko eta aldebiko Kanpo Harremanak eta mugaz gaindiko politika, Eusko Jaurlaritzak atzerrian dituen Ordezkaritza Ofizialak atxikita egungo kokapenen egokitasuna aztertzen dugun bitartean.

Kanpo-esparru horretan Europa da gure ekintza politikoaren lehen erreferentzia, eta garrantzi handia du Euskadiren parte-hartzeak europar sare osoan eta Europaren etorkizunari buruzko debategan. Mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzari dagokionez, Akitania-Euskadi Euroeskualdea eta Pirinioetako Lan Erkidegoarekin egitekoak diren jardunak bultzatuko ditugu.

Kanpo Ekintzak 2013rako dituen helburuen artean dago, halaber, euskal diasporarekin dauden loturak bultzatzea, ez soilik lotura kultural eta historikoko tresna gisa, baita proiektzio-elementu gisa ere erakunde- eta enpresa-alarrean.

Beste jardun-ildoari dagokionez —Garapenerako Lankidetzak— Eusko Jaurlaritzak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez, bere konpromiso historikoari eutsiko dio gobernu-ekintza horrekin. Osorik beteko ditu hartutako konpromisoak eta proiektuetarako lehia askeko prozedurak deituko ditu 2013an. Ikuspegi estrukturalago batetik jardunez, garapenerako lankidetzari eusten dieten tresna juridiko eta kudeaketa-tresnak aztertuko ditugu, eta emaitzak ikusita, dagozkion egokitzapenak egingo ditugu, kasuan kasu.

Justizia

2013ko aurrekontuan Justiziara bideratuko den zenbatekoa 156,4 milioi euro izango da, bi aurrekontu-arlo handiri esleituta: “Justizia Administrazioa” 126,3 milioi euroekin eta “Justizia” 30,1 milioirekin.

Relaciones Exteriores

La acción exterior constituye un eje central de la acción política y de la proyección pública del Gobierno Vasco. Está justificada por la presencia de ciudadanos y colectividades vascas en el mundo, por la internacionalización de nuestras empresas y universidades y por el compromiso de ayuda al desarrollo, entre otros factores. En definitiva, proyectar Euskadi hacia el exterior

La presencia exterior de Euskadi se estructura en torno a dos grandes líneas de actuación, la Acción Exterior y la Cooperación al Desarrollo, a las que se destinan en 2013 un total de 7,5 y 32,3 millones de euros respectivamente.

En lo que se refiere a la Acción Exterior, se mantendrán las principales líneas de actuación geográficas ya establecidas, la Unión Europea, las Relaciones Exteriores de carácter multilateral y bilateral y la política transfronteriza, manteniendo las Delegaciones Oficiales del Gobierno Vasco en el exterior mientras se analiza la idoneidad de sus actuales ubicaciones.

En este marco exterior Europa constituye el primer referente de nuestra acción política y tiene significativa importancia la participación activa de Euskadi en todo el entramado europeo y en el debate sobre el futuro de Europa. En cuanto a la cooperación transfronteriza e interregional se impulsará la Euroregión Aquitania-Euskadi y las actuaciones con la Comunidad de trabajo de los Pirineos.

Es objetivo también de la Acción Exterior en 2013, reforzar los vínculos existentes con la diáspora vasca, ya que representan un factor estratégico, no sólo como instrumento de vinculación cultural e histórica sino como elemento de proyección institucional y empresarial.

En lo que se refiere a la otra línea de actuación —la Cooperación para el Desarrollo— el Gobierno Vasco, a través de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo, mantiene su histórico compromiso con esta acción de gobierno. Cumplirá en su totalidad con los compromisos adquiridos y convocará en 2013 procedimientos de libre concurrencia para proyectos. Desde una perspectiva más estructural se procederá a un análisis de los instrumentos jurídicos y de gestión que sostienen la cooperación para el desarrollo con el objeto de, a la vista de los resultados, promover, en su caso, las oportunas adaptaciones.

Justicia

El importe dedicado a Justicia en el presupuesto 2013 asciende a 156,4 millones de euros, asignados a dos grandes áreas presupuestarias: “Administración de Justicia” con 126,3 millones de euros y “Justicia” con 30,1 millones.

“Justizia Administrazioaren” helburua, batez ere, Justiziaren Administrazioa modernizatzea da, epaitegiei, fiskaltzari eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeari baliabide material, teknologiko eta pertsonal eraginkorrenak eta onenak ematen zaizkielarik. Honako hauek ere programaren helburuak dira: lan-arriskuen prebentzioa, langileen beharrezko hizkuntza- prestakuntza eta gaikuntza eta, Bulego Judizial Fiskalaren konfigurazio berria.

EAEko justizia-administrazioa modernizazio-prozesuan dago 2010. urteaz geroztik, eta Bulego Judizial eta Fiskal Berria izenarekin ezaguna da antolamendu-aldaketa. Eginkizun berriak nahiz Auzitegi eta Epaitegietako egungo baliabide materialak eta giza baliabideak bi elementuren inguruan berrantolatuko dira: Zuzeneko Laguntzarako Prozesu Unitateak, epaile eta magistratuei zuzeneko laguntza eskaintzen dietenak haien eginkizunetan, eta organo judizial konkretu batean integratuta ez dauden Prozesu Zerbitzu Erkideak, prozesu-legeen aplikazioaren ondoriozko jardunetan kudeaketa- eta laguntza-lan bateratuak beren gain hartzen dituztenak, horien buru idazkari judizial bat dagoela.

Bulego Judizial Berria ezarrita dago jada barruti judizial txiki guztietan, eta ezartzen hasiko dira Gasteizen, Barakaldon eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundearen. Esperientziak erakusten duenez, ezarpenean izaten ari den pixkanakako aurrerapenarekin batera kudeaketa eragingarriagoa ere ageri zaigu, eta horren adierazgarri da, esaterako, ezarri den barruti judizialean emandako dokumentuek izan duten gehikuntza.

Teknologia berriak zerbitzu erkideetan oinarritutako bulegoen antolaketarekin, kudeaketa-protokoloak ebaluaketa- eta hobekuntza-adierazleekin eta prestakuntza-politika langileen hazten ari den euskalduntzearekin bateratzea lagungarria izango da nahi den modernizazioa gauzatzeko.

“Justizia” arloaren 30,1 milioiak honako hauetara daude bideratuta lehenetasunez: justiziaren alorreko gizarte-premiak asetzera eta gatazken konponbide judizialari alternatiboak diren baliabideak artikulatzera. Azpimarratzekoak dira atal honetan adingabeen arretra, familia-elkargunez arduratzea eta doako aholkularitza juridikoa baliabiderik gabeko pertsonen justizia baliatu ahalko dutela bermatzeko.

Adingabeen Epaitegiek emandako neurriak betearaztearen alorrean Euskadik duen eskumen eksklusiboaren bidez egikaritzen da adingabe arau-hausleen arretra EAEn: barneratze-neurriak eta erregimen irekiko neurriak (tratamendu ambulatorioa, eguneko zentro batera bertaratzea, gizarte- eta hezkuntza-arloko zereginak...) 2013an hobekuntzak egingo dira Ibaiondoko Adingabeen Zentroan (Zumarraga) eta “IV. Gazte Justizia Plana” abiaraziko da, sailen arteko ikuspegi batetik aztertuko dena, gazteak beren barneratzealdian eragindako kalteaz jabe daitezzen eta prestakuntza-prozesu egoki baten bidez gizarteratze-bidean aurrera egin dezaten.

El objeto de “Administración de Justicia” es, fundamentalmente, la modernización de la Administración de Justicia dotando a los juzgados, fiscalías y al Instituto Vasco de Medicina Legal de los mejores y más eficaces medios materiales, tecnológicos y personales. También es objeto de esta área la prevención de riesgos laborales, la necesaria capacitación formativa y lingüística del personal y la nueva configuración de la oficina judicial y fiscal.

La administración de justicia en la CAE se encuentra en proceso de modernización desde el año 2010, cambio organizativo conocido como Nueva Oficina Judicial y Fiscal. Las nuevas funciones, así como los recursos materiales y humanos de los actuales Juzgados y Tribunales se reorganizan en torno a dos elementos: las Unidades Procesales de Apoyo Directo (UPAD), que asisten directamente a jueces y magistrados en las funciones que les son propias, y los Servicios Comunes Procesales que no están integrados en un órgano judicial concreto y asumen labores centralizadas de gestión y apoyo en actuaciones derivadas de la aplicación de las leyes procesales y a cuyo frente hay un secretario judicial.

La Nueva Oficina Judicial ya se ha implantado en todos los partidos judiciales menores y en 2013 comenzará su implantación en Vitoria-Gasteiz, Barakaldo y en el Instituto Vasco de Medicina Legal. La experiencia demuestra que este paulatino avance en su implantación va acompañado de una gestión más eficiente, que se manifiesta, por ejemplo, en el incremento del número de documentos emitidos en aquellos partidos judiciales donde ha sido implantada.

El hecho de aunar las nuevas tecnologías con la organización de las oficinas basadas en servicios comunes, los protocolos de gestión con indicadores de evaluación y mejora, la política de formación y la creciente euskaldunización del personal, contribuye a hacer realidad la modernidad pretendida.

Los 30,1 millones de euros del área “Justicia” van destinados prioritariamente a la atención de las necesidades sociales en el ámbito de la justicia y a la articulación de medios alternativos a la resolución judicial de los conflictos. Destaca en este capítulo la atención a menores infractores, la asunción de los puntos de encuentro familiar y la asistencia jurídica gratuita para garantizar el acceso a la justicia de las personas sin recursos.

La atención a menores infractores en la CAE se canaliza a través de la competencia exclusiva en materia de ejecución en el País Vasco de las medidas dictadas por los Juzgados de Menores: medidas de internamiento y medidas de régimen abierto (tratamiento ambulatorio, asistencia a un centro de día, tareas socioeducativas...). En 2013 se acometerán mejoras en las instalaciones del Centro de menores de Ibaiondo (Zumarraga) y se pondrá en marcha el “IV Plan de Justicia Juvenil” que será abordado desde una perspectiva interdepartamental con el objetivo de que los menores, durante el período de internamiento, tomen conciencia del daño ocasionado y puedan, mediante un adecuado proceso formativo, avanzar hacia su reinserción social.

Justizia-arloan ere doako laguntza juridikoa bermatzen da ofiziozko txandaren eta atxilotuari edota presoari abokatuen laguntza eskaintzearen alorrean (2011n guztira 48.632 gai artatu ziren, 2010eko kopurua gaindituta, orduan 46.784 gai izan baitziren). 2013an aldatuko da doako laguntza juridikoari buruzko ekainaren 19ko 110/2012 Dekretu berria, auzitan aritzeko baliabide ekonomikorik ez duten herritarrei zerbitzu eta arreta hobea emango zaiela bermatzeko.

2013an abokatuen jardunak artatzeko funts bat zuzkitzea dago iragarrita, Administrazioen eta Kidego Profesionalen kopartaidetzaren bidez erantzuteko indarrean dagoen dekretuak behar bezala konpondu ez dituen egoerei erantzuteko.

Apustu argia egiten da bitartekaritzaren alde, gizarte-gatazken etengabeko judicializazioarekiko eredu alternatibo gisa, eta horretarako eguneko bitartekaritza-tresna eta -zerbitzuak sendotuko dira, eta hura ezartzea ahalbidetuko da oraindik ezarrita ez dagoen esparruetan. EAEn ditugun Justiziarekiko Lankidetzaren Zerbitzuen artean, guztiak ere Eusko Jaurlaritzaren Herri Administrazioa eta Justizia Sailaren mendeko, Bitartekaritza Judizialeko Zerbitzuak organo judizialen eta herritarren esku uzten du auzibidearekiko metodo alternatibo bat epaitegi eta auzietara iristen diren gatazka konpontzeko.

Segurtasuna eta Babes Zibila

Babes Zibileko eta Herritarren Segurtasuneko politikak 572 milioi euro izango ditu guztira 2013an, eta zati handiena, 552,5 milioi euro, polizia autonomoa mantentzera bideratuko da, eta diru-kopuru txikiagoak, aldiz, Babes Zibilera eta Bide Segurtasunera, 4,4 eta 10,4 milioi euroekin, hurrenez hurren.

Segurtasun publikoak, ikuspegi integral batetik begirata, bermatzen du egunetik egunera segurtasun handiagoa eskatzen duten herritarrek beren eskubide eta askatasunak erabat baliatu ahalko dituztela, traba egin diezaieketen arriskuak albat gehien murriztuta betiere.

Euskal herritarren artean izandako delitu eta hutsegiteen kopurua %3,4 hazi da 2012an, eta delitu tipologia berri baten aurrean gaude orain (informatikoak, monetarioak, ingurumenaren aurkako delituak edo antolatutako talde kriminalak protagonista dituztenak), eta horiek ere erantzun bizkor eta eraginkorrak behar dituzte.

Euskadi errealtate berri bat ari da bizitzen ETAre jarduera terroristaren behin betiko etetearen iragarpenaren ondoren, aspalditxotik ezezaguna izan den bake politiko eta gizarte-bakeko egoera. Jarduera terroristak euskal polizia-eredua baldintzatu egin du hasieratik. Testuinguru horretan aukera berriak zabaltzen zaizkio Ertzaintzari XXI. mendean bere jatorrietara, herritarrekiko gertutasun eta hurbiltasunera, itzul dadin, horrela bere prebentzio-eraginkortasuna hobetuta gizarte-aldaketek eskatzen dituzten erronka berrien aurrean.

Desde el área de justicia también se garantiza la prestación de asistencia jurídica gratuita en materia de turno de oficio y asistencia letrada al detenido y/o preso (en 2011 se atendieron un total de 48.632 asuntos, cifra superior a la de 2010 con 46.784). En 2013 se procederá a la modificación del reciente Decreto 110/2012, de 19 de junio, de asistencia jurídica gratuita, a fin de garantizar un mejor servicio y atención a la ciudadanía que carece de recursos económicos para litigar.

En 2013, se contempla la dotación de un Fondo para la atención de actuaciones letradas destinado a dar respuesta por la vía de la coparticipación financiera de la Administración y de los Colegios Profesionales, a situaciones que el Decreto en vigor no ha resuelto adecuadamente.

Se realiza una clara apuesta por la mediación como modelo alternativo a la judicialización permanente de los conflictos sociales para lo que se consolidarán los instrumentos y servicios de mediación existentes y se propiciará su implantación en los ámbitos en que aún no esté instaurada. Entre los Servicios de Cooperación con la Justicia existentes en la CAE, todos ellos dependientes del Departamento de Administración Pública y Justicia del Gobierno Vasco, el Servicio de Mediación Intrajudicial pone a disposición de los órganos judiciales y de la ciudadanía un método alternativo a la vía judicial para la resolución de los conflictos que llegan a Juzgados y Tribunales.

Seguridad y Protección Civil

La política de Protección Civil y Seguridad Ciudadana cuenta en 2013 con un total de 572 millones de euros, destinados en su gran mayoría, 552,5 millones de euros, al mantenimiento de la policía autónoma, y cantidades menores a Protección civil y Seguridad Vial con 4,4 y 10,4 millones de euros respectivamente.

La seguridad pública, desde una perspectiva integral, garantiza que la ciudadanía, que demanda cada día una mayor seguridad, disfrute del pleno ejercicio de sus derechos y libertades, reduciendo en lo posible los riesgos y peligros que los pudieran perturbar.

El número de delitos y faltas entre la población vasca ha aumentado en 2012 un 3,4% y se asiste a una nueva tipología de delitos (informáticos, monetarios, delitos contra el medio ambiente o los protagonizados por bandas criminales organizadas) que requieren, asimismo, de respuestas rápidas y eficaces.

Euskadi está viviendo una nueva realidad tras el anuncio del cese definitivo de la actividad terrorista de ETA, una situación de paz social y política desconocida desde hace años. La actividad terrorista ha condicionado el modelo policial vasco desde su inicio. En este contexto se abren nuevas oportunidades para que la Ertzaintza del siglo XXI vuelva a sus orígenes de cercanía y de proximidad con la ciudadanía, mejorando con ello su eficacia preventiva ante los nuevos retos que los cambios sociales reclaman.

Testuinguru horretan, hiru dira legegintzaldi honetan ezarri beharreko segurtasun publikoko politikaren oinarri diren zutabe estrategikoak. Gertutasun eta hurbiltasun handiagoa segurtasun-zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonetara. Modu eraginkor eta efizienteagoan erabiltzea prebentziora eta delituaren jazarpenean berehalako erantzuna ematera bideratutako giza baliabide eta baliabide teknologikoak. Eta lankidetzaren handiagoa gizarte-eragile eta agente instituzional eta polizial guztien artean.

Ertzaintza testuinguru horretara egokitzeko "Ertzaintzaren Plan Estrategikoa: 2016rako Ikuspegia" lantzea dago aurreikusita, eta helburutzat ditu herritarren segurtasuna bultzatzea prebentzioko eta partaidetzako ikuspegi proaktiboarekin, informazioa eta ikerketa eta kudeaketa-eredu berri bat ezartzea.

2013an Euskadiko kaleetan poliziaren presentzia gehitzearen alde egingo dugu, eta Ertzaintzaren dibisioen egungo egitura eta ertzainen zeregin burokratiko eta administratiboa murriztearen alde, oinezko patruilen presentzia bereziki indartzeko.

Arkauteko Polizia eta Larrialdien Euskal Akademia, 2013an 8,2 milioi jasoko dituen, jakintzaren kudeaketako zeharkako zentro gisa eratuko da, herritarren segurtasunaren esparruan zein babes zibilaren eta bide-segurtasunaren esparruan ere.

2013ko bide-segurtasuneko jardunek Nazio Batuen Batzarraren Bide Segurtasunerako Ekintza Hamarkada Munduko Planaren jarraibideei eta 2011-2020 aldiaren bide-segurtasuneko europar espazio bat garatzeko Europako Batzordearen komunikazioari jarraituko diete.

EBren bide-segurtasunerako orientazio berriek %50 gutxitu nahi dituzte, progresiboki, errepideko heriotzak 2020ko ikuspegiarako. Europar legeen ildo horri jarraiki, "Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoa" bat landuko da, segurtasun-estandarrik bigarren mailako bide eta landa-bideetara zabalduz.

Babes zibilaren arloan, Eusko Jaurlaritzak, larrialdi guztietarako "sarrera-ate" gisa "112" europar telefono-zenbaki erkidea hartuta, Larrialdiei Aurre egiteko Euskal Sistema kudeatzen du, Euskadin dauzkan baliabideen erabilera arrazionala segurtatzen duena, herritarren eta haien ondasunen bizia eta komunitatearen ondarea arriskuan jartzen duen edozein gertakariri erantzuteko. SOS Deiak 112 larrialdien koordinazio-zentroen kudeaketa indartuko du eta larrialdiaren esparruan esku hartzen duten kanpo-agente guztien koordinazioa eraginkorra bultzatuko du, prebentzio-fasean (plangintza, prestakuntza eta zabalkuntza) zein esku-hartze fasean eta gorabeherak konpontzeko fasean.

2011n Larrialdien Koordinazio Zentroak kudeatutako deiak 1.246.207 izan ziren, hau da, %1eko gehikuntza izan zuten iazkoekin alderatuta.

En este contexto, tres son los pilares estratégicos que sustentan la política de seguridad pública a implantar en esta legislatura. Una mayor cercanía y proximidad a las personas que solicitan los servicios de seguridad. Un uso más eficaz y eficiente de los recursos humanos y tecnológicos orientados a la prevención y a la inmediatez de respuesta en la persecución del delito. Y, una mayor colaboración entre todos los agentes sociales, institucionales y policiales.

Para adecuar la Ertzaintza a este contexto se prevé elaborar el "Plan Estratégico de la Ertzaintza. Horizonte 2016", cuyos objetivos son impulsar la seguridad ciudadana con enfoque proactivo de prevención y participación, la información e investigación y la implantación de un nuevo modelo de gestión

En 2013 se aboga por incrementar la presencia policial en las calles de Euskadi y por reducir la actual estructura de divisiones de la Ertzaintza y sus tareas burocráticas y administrativas para reforzar especialmente la presencia de patrullas a pie.

La Academia Vasca de Policía y Emergencias de Arkaute, a la que en 2013 se destinan 8,2 millones de euros, se configurará como centro transversal de gestión del conocimiento tanto en el ámbito de seguridad ciudadana como de protección civil y seguridad vial.

Las actuaciones de seguridad vial en 2013 seguirán las directrices del Plan Mundial Decenio de Acción para la Seguridad Vial de la Asamblea de las Naciones Unidas y la comunicación de la Comisión Europea para el desarrollo de un espacio europeo de seguridad vial en el periodo 2011-2020.

Las nuevas orientaciones de seguridad vial de la UE pretenden reducir en un 50%, de forma progresiva, las muertes en carretera para el horizonte 2020. Siguiendo esta línea de legislación europea, se elaborará el "Plan Estratégico de Seguridad Vial", ampliando los estándares de seguridad a vías secundarias y rurales.

En el área de protección civil, el Gobierno Vasco, partiendo de la adopción del teléfono común europeo "112", como "puerta de entrada" para todas las emergencias, gestiona el Sistema Vasco de Atención de Emergencias, que asegura la utilización racional de los recursos de los que Euskadi dispone, para dar respuesta a cualquier evento que ponga en peligro la vida de los ciudadanos y sus bienes, así como el patrimonio comunitario. Reforzará para ello la gestión de los centros de coordinación de emergencias SOS Deiak 112 e impulsará la coordinación eficaz de todos los agentes externos intervinientes en el ámbito de la emergencia, tanto en fase de prevención (planificación, formación y difusión) como en la fase de intervención y resolución de los incidentes.

Las llamadas gestionadas por los Centros de Coordinación de Emergencias en 2011 ascendieron a 1.246.207 lo que supone un incremento del 1% respecto al año anterior.

"112 Alderantziz EBren ekimenaren" filosofia ezarriko da, herritarri emango zaion zuzeneko informazio pertsonalizatuko politika bat, herritarra bera eraginpean har dezaketen arrisku eta mehatxuei buruzkoa.

2013an, Polizia eta Larrialdien Euskal Akademiarekin batera, aurrera jarraituko dute prestakuntza-programek, enplegatu publikoentzat zein larrialdien esparruan laguntzen duten erakunde pribatu eta boluntarioentzat.

Segurtasuna eta babes soziala

Goi-mailako irakaskuntzari dagokionez, Unibertsitateak 301,8 milioi euroko aurrekontua izango du, eta bertatik 293 milioi Euskal Herriko Unibertsitaterako ohiko ekarpena egiteko izango dira. Unibertsitate publikoan egindako inbertsioari esker, alde batetik, titulazio-mapa sendotuko da Europako Esparruarekin harmonizatuta eta ikasketak amaitu dituzten enplegagarritasuna ardatz izanik, eta Master eta Doktorego Nazioarteko Eskola abiaraziko da; eta, bestetik, UPV/EHUri ikerketa-bokazioa finkatzeko ezinbestekoak dituen baliabideak esleituko zaizkio eta Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarean agente ikertzaile nagusiaren posizioa berretsiko du. Ekitaldi honetan, Ikerketa-talde finkatuen urte anitzeko finantzaketarekin hartutako konpromisoa nabarmenduko dugu, baita Nazioarteko Bikaintasun Campusarekin ere, jakintzaren transferentzian nodo den aldetik, eremu fokalizatu estrategikoetan.

Urte anitzeko ekarpenaren eta bost programa-kontratu bitartez, Unibertsitate Planak helburu hirukoitza bete nahi du: lehenik, bikaintasuneko irakaskuntza-jarduera berritzailea indartzea, irakaskuntzaren hiru zikloetan eleaniztasuna finkatuta. Bigarrenik, "unibertsitatearen hirugarren xedeari" laguntzen dio, hau da, gizarte-erantzukizunari eta euskal kultura sustatzeari. Eta azkenik, hirugarren helburua EAEko sare sozioekonomiko eta produktiboarekiko jakintza-transferentzia eta oinarritzko ikerketa indartzea da, jakintzaren gizartean oinarritzen den eredu ekonomikoaren trakzio-elementu den aldetik.

Jakintza gizartean behar bezala zabaltzeko prozesuan arrailak sailhestu behar dira eta gizarte-kohesioak izan behar du xede. Hezkuntza-sustapenaren eremuan lantzen da ekitate-politika hori eta guztira 120 milioi euroko aurrekontua du; funtsean, unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko bekak eta diru-laguntzak emateko izango da, baita jangela eta eskola-garraiorako ere.

Balioetan oinarritutako hezkuntza hezkuntza-prozesu integralean txertatuta dago eta 2013an indartu egingo da; izan ere, 2011ko abenduaren 30ean EAEko unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren arloko hogeitabat erakundek "Bizikidetzarako hezkuntzaren aldeko konpromisoa" sinatu zuten, etorkizuneko belaunaldiak askatasunean eta Giza Eskubideekiko begirune zorrotzean heztea xede izanik. Konpromiso horretaz gain, berdintasunarekin eta genero-indarkeriaren prebentzioarekin inplikaturako gara, tratu txarren kasuak izan daitezkeela adieraz dezaketen gertaera guztiei arreta emanez, baita teknologien erabilera kaltegarriaren prebentzioarekin ere.

Etxebizitza eta Hirigintza

Euskadiko etxebizitzaren eta hirigintzaren arloko politikarako 96 milioi euroko aurrekontua izango da. Horietatik 188,7 milioi etxebizitzarako izango dira, eta 4 milioi euro lurralde-antolamendurako.

En el capítulo de la enseñanza superior, se transfiere a las Universidades 301,8 millones de euros, de los que 293 millones corresponden a la aportación ordinaria a la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. La inversión realizada en la universidad pública permitirá, por una parte, afianzar el mapa de titulaciones armonizado con el Espacio Europeo y centrado en la empleabilidad de sus egresados, así como poner en marcha la Escuela internacional de Master y Doctorado, y por otra, dotar a la UPV/EHU de los recursos necesarios para consolidar su vocación investigadora y afirmar su posición como principal agente investigador en la Red Vasca de Ciencia y Tecnología, destacando en este ejercicio el compromiso adquirido en la financiación plurianual de los Grupos de investigación consolidados, así como con el Campus de Excelencia Internacional, como nodo de transferencia del conocimiento en ámbitos focalizados estratégicos.

El Plan Universitario, a través de la aportación plurianual y de sus cinco contratos programa, persigue el triple objetivo de impulsar, por una parte, una actividad docente innovadora de excelencia consolidando el plurilingüismo en los tres ciclos de enseñanzas. En segundo lugar, contribuye a la "tercera misión de la universidad", a su responsabilidad social y al fomento de la cultura vasca. Finalmente, el tercer objetivo consiste en impulsar la investigación básica y la transferencia de conocimiento al tejido socioeconómico y productivo vasco, como elemento tractor del modelo económico basado en la sociedad del conocimiento.

La adecuada extensión del conocimiento en la sociedad debe realizarse evitando brechas y buscando la cohesión social. El ámbito de Promoción educativa se encarga de atender esta política de equidad con un total de 120 millones de euros, dedicados fundamentalmente a becas y ayudas universitarias y no universitarias, así como del servicio de comedores y transporte escolar.

La educación en valores forma parte del proceso educativo integral y se refuerza en 2013 con el "Compromiso por la educación para la convivencia", firmado el 30 de diciembre de 2011 por una veintena de instituciones vascas de la educación universitaria y no universitaria, que busca educar en libertad y desde el respeto riguroso de los Derechos Humanos a las generaciones que constituyen el futuro, así como con la implicación en la igualdad y prevención de la violencia de género, en la atención a cualquier incidencia que pueda apuntar a un caso de maltrato, y en la prevención del uso perjudicial de las tecnologías.

Vivienda y Urbanismo

La política de vivienda y urbanismo en Euskadi dispondrá de 96 millones de euros. De ellos, 188,7 millones se destinan a Vivienda y 4 millones de euros a Ordenación territorial.

2013. urtea 2010-2013ko Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailearen indarraldiaren azken urtea da. Plan hori indarrean dagoen arren, plana idatzi zenean bizi genuen testuinguru makroekonomikoa larriagotu egin da, ekonomian eta finantzetan krisialdi sakona gertatu baita eta, beraz, planaren helburuak desnaturalizatu egin dira.

Orain arte garatu izan den etxebizitza-politika etxebizitza-merkatuaren distortsio larriak zuzentzera eta egoera horri erantzutera bideratzen zen. Etxebizitzaren eskaera gero eta handiagoa izaki, egoera horrek espekulazio izugarria eragin zuen eta, horren ondorioz, jende asko (gazteak, bereziki) etxebizitza bat lortzeko aukerarik gabe geratu zen. Hori horrela izanik, ezin zuten bizitza-proiektu independentea garatu, nahiz eta diru-sarrera finkoak izan.

Gaur egun, bada oraindik egoera horretan dagoen jendea eta eskaera bat ere badago, baina bi kolektibo berri sortu dira aurrezki-erakundeek kreditua atzera bota izanaren eta langabeziaren gorakadaren ondorioz. Lehen kolektiboa: diru-sarrerak eta etxebizitza bat esleitura izan arren, BOE bat erosteko adina kreditu lortzen ez dutenak. Bigarren kolektiboa: diru-sarrerarik ez dutenez, hipotekak eta alokairuak ordaindu ezin dituztelako etxerik gabe geratzen direnak.

Errealitate berri hau ikusita, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikak eta etxebizitza-parkea egoera berri horiei ere erantzutera bideratu behar dira, alokairu soziala indartzeko politiken bitartez. Horretarako, etxebizitza-parkea sortzeko ereduak aldatu behar da, baita etxebizitzak kudeatzeko ereduak ere, helburu berriak kontuan izanik eta, funtsean, alokairuko etxebizitzaren ereduak izan beharko du ardatz, epe ertain-luzera.

2013. urtean, etxebizitzaren arloko lehen erronka nagusia, beraz, alokairuko parkearen presentzia areagotzea da, etxebizitza-premiei erantzuteko formula den aldetik eta, aldi berean, lurralde-oreka ere lortu behar da, etxebizitza-premia handiena duten eremu geografikoetan ahalegin handiagoa eginez. 2013. urtean sustatuko diren babes publikoko etxebizitza berrien %25 alokairuko erregimenekoak izango dira eta, aurreikuspenen arabera, 2013ko amaieran alokairu babestuaren parkean 19.000 etxebizitza egongo dira.

Era berean, Bizigune programaren bitartez alokairu babestura bideratutako diren etxebizitza partikularak 5.400 izango dira. Programa horretan hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzen dira etxebizitza librea lortzeko adina baliabide ez duten pertsonak erabili ditzaten; Alokabide Alokairuko etxebizitzaren Sozietate Publikoak kudeatzen du programa eta 2013. urtean 57,7 milioi euroko aurrekontua izango du alokairuko etxebizitza babestuaren alokairua kudeatzeko. Alokairuko etxebizitzaren parkea etxea utzarazi dieten pertsonak ere erabili ahal izango dute; VISESA erosteko aukera ematen duen alokairuaren formula abiaraziko da eta formula berriak ere ezarriko dira, alokairuko etxebizitzaren eskaintza handiagoa izan dadin. Horretarako, agente ekonomiko eta finantzarioen esku dauden etxebizitzaren stockera jo beharko da.

El año 2013 coincide con el último año de vigencia del Plan Director de Vivienda y Regeneración Urbana 2010-2013. Si bien este Plan está vigente en el tiempo, el escenario macroeconómico que presidió su elaboración, con una profunda crisis económica y financiera, no ha hecho más que agravarse, lo que ha desnaturalizado los objetivos del mismo.

La política de vivienda que se ha venido desarrollando estaba destinada a corregir y dar respuesta a las graves distorsiones del mercado de vivienda. Una creciente demanda de vivienda y la especulación que se generó en torno a ella, dejó fuera de toda posibilidad de acceso a la vivienda a muchas personas, generalmente jóvenes, que aún teniendo ingresos fijos, no podían llevar adelante un proyecto de vida independiente.

En la actualidad, sigue habiendo personas en esta situación y existe una demanda, pero han aparecido dos nuevos colectivos como consecuencia de la retirada del crédito por parte de las entidades de ahorro y el aumento del desempleo. El primer colectivo es el de quienes, teniendo ingresos y una vivienda adjudicada, no consiguen el crédito necesario para una vivienda de VPO. El segundo colectivo es el de los que por su falta de ingresos no pueden hacer frente a sus hipotecas y alquileres y se quedan sin hogar.

Esta nueva realidad hace necesario orientar las políticas de vivienda y el parque de viviendas del Gobierno Vasco a atender también estas situaciones mediante políticas de alquiler social. Para ello es preciso cambiar el modelo de generación del parque de viviendas y el de gestión de las mismas a los nuevos objetivos, básicamente a un modelo de vivienda en alquiler a medio largo plazo.

El primer gran reto de vivienda en 2013, por tanto, consiste en incrementar la presencia del parque de alquiler como fórmula de resolución de necesidades de vivienda al mismo tiempo que se buscará un equilibrio territorial, enfatizando los esfuerzos en aquellas zonas geográficas con mayores necesidades de vivienda. El 25% de las nuevas viviendas de protección pública que se promuevan en 2013, será en régimen de alquiler y se prevé que a finales de 2013 el parque de alquiler protegido sea de 19.000 viviendas.

Así mismo, el número de viviendas de particulares movilizadas hacia el alquiler protegido, a través del programa Bizigune alcanzará las 5.400 viviendas. Este programa, que moviliza viviendas vacías hacia su uso por personas cuyos recursos no son suficientes para acceder a una vivienda libre, es gestionado por la Sociedad pública de viviendas en alquiler Alokabide que dispone de 57,7 millones de euros en 2013 y es la encargada de la gestión del alquiler de vivienda protegida en alquiler. El parque de viviendas en alquiler también será destinado a personas que hayan sido desahuciadas y se pondrá en marcha la fórmula de alquiler con opción de compra en VISESA, además de implantarse nuevas formulas que permitan incrementar la oferta de viviendas en alquiler actuando sobre el stock de viviendas en manos de agentes económicos y financieros.

Bigarrenik, eraikitako ondarea birgaitzeko politika berria berregin eta zuzendu nahi da, higiezinaren energia-eraginkortasuna hobetuz eta hiriguneak biziberrituz; hori eginda, gizarte- eta ekonomia-arloak suspertu eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetuko da.

Hori horrela izanik, 2013. urteari begira, 15.000 etxebizitza birgaitzeko laguntzak ematea aurreikusi da; gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen teknikoa arautzen duen azaroaren 21eko 241/2012 Dekretua (2006ko Lurzoruari buruzko Legean jada aipatzen zen aspaldiko helburua zen) ere indarrean hasiko denez, etxegintza errotik eraldatuko da eta eraikinak birgaitzearekin lotutako Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoa biderkatu egingo da.

Hirugarrenik, lurzorua kudeatzeko politika aktiboa egingo da, lurzorua eskuratzeko aukera erraztuko duten mekanismoak garatzearen eta etxebizitza babestuen eraikitze bidezko izapideak arintzearen. 2013ko ekitaldian 750 etxebizitzarako lurzorua eskuratu, urbanizatu eta birpartzelatzea aurreikusi da.

Laugarrenik, Euskadiko hirigintzaren eta plangintzaren arloko politikarako 4 milioi euroko aurrekontua izango da. Lurralde-politikak lurraldearen erabilerak epe luzera antolatze baliagarri izan behar du eta honako elementu hauek aintzat hartu behar ditu: Natura Gune Babestuak, plangintza hidrolögikoa, demografiaren bilakaera, jendearen eta salgaien mugikortasuna, garraio-azpiegiturak, intermodalitatea eta zentro logistikoak. Horretarako, Lurralde Antolamendua Gidalerroak berraztertzen hasiko da lurralde-antolamenduko tresnetan (esaterako, Lurraldearen Arloko Planak eta Lurraldeko Zati Planak) izan diren aurrerabideak eta aldaketak biltzearen. Zehazki, honako hauek izapidetze-fasean daude: Araba Erdialdeko, Mungia, Gernika-Muxikako eta Donostia eta Tolosaldeko Lurraldeko Zati Planak, eta Nekazaritza eta basogintza antolatze arloko plana eta Bi isurialdetako (kantauriarra eta meditarreneoa) ibaiak eta errekek antolatze arloko plana.

Eusko Jaurlaritza Florentzian sinatutako Paisaiaren Europako Hitzarmenari atxiki zitzaion 2009. urtean eta, horren ondorioz, paisaiaren tratamendua babestuta eta araututa dago lurraldearen arloko politikan eta plangintzan. 2013rako helburu estrategikoa Euskal Herriko Unibertsitatean UNESCO katedra bat lortzea izango da, lurraldeari, paisaiari eta ondareari buruz; horretarako, UNESCO Etxearekin lankidetzan ari gara.

Lurzoruaren eta hirigintzaren arloan, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatu ote daitekeen aztertuko da, Lurralde Desjabetzeko Epaimahaien idazkaritza eskainiko da eta birgaitze integratuko areen deklarazioek eragindako zereginak beteko dira. Ildo beretik, Pasaia badi biziberritzeko beharrezkoak diren lanei bereziki erreparatuko diegu.

Ingurumena zaintzea

En segundo lugar, se pretende reformular y liderar una nueva política de rehabilitación del patrimonio edificado, que incorpore la mejora de la eficiencia energética de los inmuebles y la regeneración de espacios urbanos, con lo que se propiciará una recuperación socio-económica y mejor calidad de vida de sus habitantes.

Así, de cara a 2013, se prevé apoyar la rehabilitación de 15.000 viviendas, lo que unido a la entrada en vigor del Decreto 241/2012, de 21 de noviembre, por el que se regula la inspección técnica de edificios en la Comunidad Autónoma del País Vasco, una vieja aspiración ya contenida en la ley de Suelo de 2006, transformará profundamente el subsector de la edificación residencial multiplicando la actividad económica asociada a la rehabilitación de edificios de la Comunidad Autónoma.

En tercer lugar, se realizará una política activa de gestión de suelo, con el fin de desarrollar mecanismos que favorezcan la obtención de suelo y agilicen los trámites pertinentes para la edificación de vivienda protegida. A lo largo de 2013 está prevista la obtención, urbanización y parcelación de suelo para 750 viviendas.

En cuarto lugar, la política de planificación y urbanismo en Euskadi dispondrá de 4 millones de euros. Una política territorial que sirva para ordenar los usos del territorio a largo plazo y tenga en cuenta los espacios naturales protegidos, la planificación hidrológica, la evolución de la demografía, la movilidad de personas y mercancías, las infraestructuras del transporte, la intermodalidad y los centros logísticos. A este efecto, se procederá a iniciar la revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio a fin de recoger los avances y modificaciones operadas en instrumentos de ordenación territorial como los Planes Territoriales Sectoriales y los Planes Territoriales Parciales. Concretamente, están en fase de tramitación los Planes Territoriales Parciales de Álava Central, de Mungia, de Gernika-Muxika y de Donostia y Tolosaldea, así como los Planes Territoriales Sectoriales Agroforestal y de Ríos y Arroyo de las dos cuencas (cantábrica y mediterránea).

La adhesión del Gobierno Vasco al Convenio Europeo del Paisaje de Florencia en el año 2009 convierte el tratamiento del paisaje en objeto de protección y regulación en el marco de la planificación y la política territorial. Un objetivo estratégico para 2013 será la obtención de una Cátedra UNESCO en territorio, paisaje y patrimonio en la Universidad del País Vasco, para lo cual se trabaja en colaboración con UNESCO Etxea.

En materia de suelo y urbanismo se analizará la oportunidad de modificar la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, se proporcionará la secretaría de los Jurados Territoriales de Expropiación y se realizarán las labores derivadas de las declaraciones de áreas de rehabilitación integrada. En este sentido, se prestará una especial atención a los trabajos necesarios para la regeneración de la bahía de Pasaia.

Protección del Medio Ambiente

Eusko Jaurlaritzak 2013. urtean garatuko duen ingurumen-politikarako 27 milioi euroko aurrekontua izango da eta 2011-2014ko Ingurumen Esparru Programaren esparruan gauzatuko da.

Lehen helburu estrategikoa sinplifikazioari ekitea da, ingurumen-arloarekin lotura duten baimen eta prozeduren administrazio-kudeaketa sinplifikatzea, hain zuzen ere. Aldi berean, helburu horrekin batera ingurumen-administrazioaren berezko baliabideak berrantolatuko dira, administrazio-prozedurak arintzeko.

Ingurumen-arloko lege-esparruan indarrean dagoen antolamendua 3/98 Legean oinarritzen da, Euskal Herriko ingurumena babesteko lege orokorrean. Hortaz, gure bigarren helburu estrategikoa honako hau izango da: lege-antolamendu hori eguneratzen hastea ahalbidetuko diguten oinarriak finkatzea.

“Dibertsitate biologikoaren galera etetea; ekosistemak zaharberritzea eta lurzoruen artifizializazioa mugatzea” ere ingurumen-politikaren beste helburu estrategiko bat da. Helburu hori lortzeko, biodibertsitatearen arloko ikerketa sustatuko da eta arriskuan dauden espezieen katalogoa eguneratuko da.

Foru Aldundiekin koordinatuta, Batasunaren garrantziko lekuen mugak egokitzen jarraituko dugu, BGL (Batasunaren Garrantziko Leku) izendatutako guneak KBE (Kontserbazio Bereziko Eremu) bihurtzeko lanei eutsiko diegu, Natura 2000 Sarearen eremuan.

“Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea” helburua hainbat jardunetan oinarritzen da; hain zuzen ere, birziklatutako materialaren erabilera sustatzeko jardunetan, eta hondakinen produkzioan eta kudeaketan inplikaturako jarduera guztiak behar bezala kudeatzea ahalbidetuko duten zereginekin jarraitzeko jardunetan. Horretaz gain, EAE osorako Hondakinak Kudeatzeko Plan bat egingo da inplikaturako agente eta administrazio guztiekin eta Hiri Hondakinak Koordinatzeko Organoarekin lankidetzan, eta hondakinen sorreraren prebentzioa izango da oinarriko irizpidea.

Merkatuan ingurumen-jardunak bultzatzeari dagokionez, ekodiseinua sustatzearen eta EMAS (Eco-Management and Audit Scheme) ziurtagiria duten enpresen kopurua handitzearen alde egingo dugu. Azken alderdi hori lehen helburu estrategikoarekin (Ingurumen Administrazioa sinplifikatu eta arintzea) estu-estu loturik garatuko da.

La política medioambiental que el Gobierno Vasco desarrollará en 2013 cuenta con un presupuesto de 27 millones de euros y se llevará a cabo en el marco del Programa Marco Ambiental 2011-2014.

El primer objetivo estratégico es abordar la simplificación en la gestión administrativa de las distintas autorizaciones y procedimientos de carácter ambiental. En paralelo, dicho objetivo va a estar acompañado de una reordenación de los recursos propios de la administración ambiental al objeto de agilizar los procedimientos administrativos.

La vigente ordenación del marco legal en materia de medio ambiente descansa en la Ley 3/98, General de Protección del medio ambiente del País Vasco. Nuestro segundo objetivo estratégico, por tanto, será sentar las bases que permitan comenzar con los trabajos de actualización de dicho ordenamiento legal.

“Detener la pérdida de la diversidad biológica, restaurar los ecosistemas y limitar la artificialización del suelo” es otro de los objetivos estratégicos de la política medioambiental. Para su consecución se fomentará la investigación en materia de biodiversidad y se actualizará el catálogo de especies amenazadas

Se continuará adecuando, en coordinación con las Diputaciones Forales, las delimitaciones de los lugares de importancia comunitaria, así como la conversión de las zonas declaradas LIC (Lugares de Importancia comunitaria) en lugares ZEC (Zonas de Especial Conservación) en el ámbito de la Red Natura 2000.

“Fomentar el uso eficiente de los recursos y el consumo responsable” se sustenta en actuaciones para promocionar la utilización de material reciclado, continuar con las labores que permitan una correcta gestión de todas aquellas actividades implicadas en la producción y gestión de residuos. Además, se elaborará un Plan de Gestión de Residuos para toda la CAPV en colaboración con los agentes y administraciones implicadas y el Órgano de Coordinación de Residuos Urbanos (OCRU), teniendo como criterio base la prevención de su generación.

En cuanto al impulso de actuaciones medioambientales en el mercado, se apuesta por promover el ecodiseño y aumentar el número de empresas con certificación EMAS (Eco-Management and Audit Scheme). Este último aspecto se desarrollará en íntima relación con el primer objetivo estratégico, tendente a simplificar y agilizar la Administración Ambiental.

Ingurumen-arloko beste erronka bat erantzunkidetasuna da, agente ekonomikoen, zientifiko-teknologikoen eta sozialen erantzunkidetasuna, hain zuzen, sektore horretan enplegu-politikei eta ekonomia berdeko politikei laguntzearen, bereziki, lankidetzaren publiko-privatuaren bitartez. Hori horrela izanik, kontratazio publiko berdea bultzatuko da Administrazio Publikoaren traxzio eta ekintza eredugarritik hasita, edo EAeko ingurumen-arloko azpisektoreekin lankidetzan jardungo dugu beste merkatu batzuetan ere indar daitezkeen; izan ere, helburu estrategiko horiek alde batera utzi ezinezkoak dira eta gure gobernu-ekintzaren osagarri izango dira, betiere tartean sartutako Sail guztien laguntzarekin.

Beste helburu estrategiko bat "Inguru garbi eta osasungarria bermatzea" da; horrek esan nahi du Airearen kalitatea zaindu eta kontrolatzeko sarea optimizatu behar dela eta Erkidegoko araudian eskatzen den ingurumen-babeseko maila lortzera bideratutako enpresei diru-laguntzak ematen jarraitu behar dugula.

Ildo beretik, EAEn berotegi-efektua eragiten duten gas-isurketak eta klima-aldaketaren efektuak gutxitzeko lanean jarraituko dugu. Horretarako, gainerako politika publiko guztietan ingurumen-aldagaia txertatzea bultzatuko dugu, baita agente zientifiko-teknologikoekin eta enpresekin lankidetzan jardutea ere, teknologia garbien ikerketan, garapenean eta aplikazioan. Halaber, klima-aldaketaren inpaktuari eta EAEn kalteberatasunari buruzko ikerketak bultzatuko ditugu.

Bukatzeko, ingurumen-hezkuntzaren arloari dagokionez, arloa zabaltzeaz gain, Aztertu, TXINBADIA eta Eskolako Agenda 21 programekin aurrera jarraituko dugu.

Kultura

Kultura-politikarako aurrekontua 168,1 milioi euro izango da 2013an, eta gizarte-hedabideak (batez ere autonomiako irrati eta telebista, EITB) mantentzeko programa da gastu gehien hartzen duena, guztira 109,1 milioi euro. Kultura sustatzeko 28,5 milioi euro daude, ondare historiko artistikorako 19,8 milioi euro eta kirol-arlorako 7,5 milioi euro.

Kultura sustatzearen eremuan, eta euskal kulturaren eta arteen adierazpide guztiak (musika, dantza, antzerkia, liburuak eta literatura, arte plastikoak eta ikus-entzunezkoak) sustatzeko, hiru jardun-ardatz garrantzitsu ezarri dira.

Otra de las apuestas en materia de medio ambiente, es la corresponsabilización de los agentes económicos, científico-tecnológicos y sociales, al objeto de contribuir en políticas de economía verde y de empleo en este sector, en particular a través de la colaboración público-privada. Así, impulsar la contratación pública verde desde la tracción y acción ejemplarizante de la Administración Pública o colaborar con los distintos subsectores ambientales vascos para apoyar su impulso en otros mercados, deben ser ineludibles objetivos estratégicos que completen nuestra acción de Gobierno, en colaboración con los distintos Departamentos afectados.

Otro objetivo estratégico es "Garantizar un entorno limpio y saludable" lo que conlleva optimizar la Red de Vigilancia y Control de la Calidad del Aire y la continuidad de subvenciones a empresas encaminadas a alcanzar el nivel de protección del medio ambiente que requiere la normativa comunitaria.

En esta línea se seguirá trabajando en mitigar las emisiones de gases de efecto invernadero y minimizar los efectos del cambio climático de la CAPV. Para ello, se impulsará la integración de la variable ambiental en el resto de políticas públicas y la colaboración con agentes científico-tecnológicos y empresas en la investigación, desarrollo y aplicación de tecnologías limpias. Así mismo, se apoyará la investigación sobre los impactos del cambio climático y la vulnerabilidad de la CAPV.

Por último, y en materia de educación ambiental, además de su extensión, se continuará con los programas Aztertu, TXINBADIA y la Agenda escolar 21.

Cultura

El presupuesto destinado a la política cultural en 2013 asciende a 168,1 millones de euros, siendo el sostenimiento de los medios de comunicación social, fundamentalmente la radio y televisión autonómica (EITB), la cuantía más significativa y a la que se destinan un total de 109,1 millones de euros. A la promoción de la cultura se destinan 28,5 millones de euros, al patrimonio histórico artístico 19,8 millones de euros y al área de deportes 7,5 millones de euros.

En el ámbito de la Promoción cultural y al objeto de promover las diferentes expresiones de la cultura y artes vascas (música, danza, teatro, libro y literatura, artes plásticas y audiovisuales) se abordarán tres importantes ejes de actuación.

Lehenik, azpiegitura, erakunde eta ekitaldi jakin batzuei eustea eta babesa ematea; hain zuzen ere, gizartean oso errotuta daudelako, sektorearen barruan trakzio-jarduerak izateagatik balio handia dutelako eta nazioartean proiektio handia dutelako kulturaren ez ezik, merkataritzan, turismoan eta enpleguan ere eragina duten azpiegitura, erakunde eta ekitaldiei. Gure hiriek eta gure herriak nazioartean duten irudia definitzen duten erakunde, toki eta ekitaldiak dira. 2013. urtean honako hauei laguntzen jarraituko dugu: Guggenheim Bilbao museoari, Donostiako Zinemaldiari, Tabakalera Kultura Garaikideko Nazioarteko Zentroari, Arte Ederren Museoari, Artium, Catedral de Santa María, ABAO-OLBERi, Musika Hamabostaldiari, Jazzaldiei, antzerkiaren eta dantzaren arloko jaialdiei eta abarri.

Euskara eta euskal kultura kanpoan sustatu eta zabaltzeko Etxepare Euskal Institutuari 2 milioi euro esleitu zaizkio.

Gure kultura-panoraman funtsezkoak dira, halaber, kultura-industriak. Literatura-argitalpenak, ikus-entzunezko industria eta musika dira gure sorkuntza-industria nagusiak. Legealdi honetan, beste bi sektore gehitu nahi dizkiogu zerrenda horri; izan ere, gure herrian garrantzi handia lortzen ari baitira azkenaldian: diseinua eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak.

Sektore horietan guztietan negozio-ereduak errotik aldatzen ari dira. Une honetan, digitalizazioa aukeratzat hartzen da sorkuntzarekin, sarbidearekin eta zabalkundearekin lotutako alderdietan, baina mehatxutzat, ordea, produktioaren, banaketaren eta salmentaren eremuetan. Politika publikoen bitartez sorkuntza-industriek aro digitala aukeratzat, ez mehatxutzat hartzea lortu behar da, laguntza, babesa eta bultzada emanda.

Hirugarren alderdi garrantzitsua kultura-sorkuntza da. Euskadin, kulturaren eta gizartearen arloko bizitzan garrantzi handia izan dute artistek eta sortzaileek, banakako sortzaile moduan, kolektibo moduan edo sorkuntzarako gune-espazio moduan. Euskadi sortzailearen proiektuan funtsezko agenteak dira. Ildo beretik, "sorkuntza-fabriken", zentroen sare bat indartzea eta zabaltzea oso garrantzitsua da, hainbat diziplinaren arteko sormenaren katalizatzaile diren aldetik.

Ondare Historikoaren eremuko jardunak euskal kultura-ondarearen babesa, ikerketa, sustapena eta zabalkundea garatzera bideratuta daude (arkitektura, arkeologia, etnografia eta artea). Artxiboen Euskal Sistema, Museoen Euskal Sistema eta Liburutegien Sistema ere oso garrantzitsuak dira. Gastu-partida handien artean, Museo Guggenheim Fundazioari 3,3 milioi euroko ekarpena egitea aurreikusitua da.

Kirolaren eremuan, goi-mailako kirolari bultzada eman nahi zaio Euskadi Kirola Fundazioaren bitartez (2013. urtean 0,9 milioi euro jasoko ditu).

Euskara sustatzea

En primer lugar el mantenimiento y apoyo a las infraestructuras, instituciones y eventos que, por su arraigo social, su valor como actividades tractoras dentro del sector y su proyección internacional, inciden no sólo en la cultura sino en el comercio, el turismo y el empleo. Son instituciones, lugares y eventos definitorios de la imagen internacional de nuestras ciudades y de nuestro país. En 2013 se continuará apoyando al Guggenheim Bilbao, Festival Internacional de Cine de San Sebastián, Centro Internacional de Cultura Contemporánea (Tabacalera), Museo de Bellas Artes, Artium, Catedral de Santa María, ABAO, Quincena Musical, festivales de jazz, festivales de teatro, de danza...

La promoción y difusión del euskera y de la cultura vasca en el exterior se refuerza con la financiación del Etxepare Euskal Institutua que dispondrá de 2 millones de euros.

Otro aspecto clave en nuestro panorama cultural es el de las industrias culturales. La edición literaria, la industria audiovisual y la música son nuestras industrias creativas fundamentales. A lo largo de la legislatura se pretende aflorar a esta lista dos sectores creativos de gran importancia, que están tomando relevancia en nuestro país: el diseño y las tecnologías de información y comunicación.

Todas ellas sufren una radical transformación de sus modelos de negocio. En este momento, lo digital es una oportunidad en los aspectos creativos, de acceso y de difusión, pero una amenaza en los ámbitos de producción, distribución y venta. Las políticas públicas deben ayudar, acompañar y empujar a que las industrias creativas consigan que la era digital resulte una oportunidad y no una amenaza.

El tercer aspecto importante es el de la creación cultural. Si algo ha marcado en Euskadi la vida cultural y social es la importancia de los artistas y los creadores, como creadores individuales, como colectivos o como espacios núcleos de creación. Son agentes fundamentales en el proyecto de Euskadi creativa. En este sentido apoyar y expandir una red de centros, de "fábricas de creación", como catalizadores de creatividad entre diferentes disciplinas, es realmente importante.

Las actuaciones en el ámbito del Patrimonio Histórico están dirigidas a desarrollar la protección, investigación, fomento y difusión del patrimonio cultural vasco (arquitectónico, arqueológico, etnográfico y artístico). Es importante señalar la relevancia del Sistema Vasco de Archivos, Sistema Vasco de Museos y Sistema de Bibliotecas. Entre las partidas de gasto más significativas destacan la aportación a la Fundación Museo Guggenheim 3,3 millones de euros.

En el ámbito del deporte destaca el impulso del deporte de alto nivel a través de la Fundación Euskadi Kirola Fundazioa que recibe en 2013 0,9 millones de euros.

Promoción del Euskera

Hizkuntza-politikaren ardatza euskararen erabilera sustatzea da; politika horrek zeharkako dimentsioa izaki, Jaurilaritza osoa hartzen du eraginpean eta, beraz, sail guztietan euskara sustatzearekin zuzenean loturiko ekintzak biltzen ditu. Politika horretarako 99,9 milioi euro daude eta hiru alor nagusitan egituratzen da: hizkuntza-politika, Administrazio Publikoaren hizkuntza-normalizazioa eta hezkuntza-sistema euskalduntzea.

Euskara sustatzea ezinbestekoa da gure gizartearen kohesioa eta ongizatea lortzeko. EAEko herritarren hizkuntza-eskubideak betetzen direla zaintzeaz gain, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko lanak etengabea izan behar du.

Garatuko den hizkuntza-politikak zeharkakotasun-printzipioa bete behar du ezinbestean, dela administrazioan, dela gizartearen eta politikaren eremuetan, eta, azken batean, baita gizarte- eta kultura-bizitzako eremu guztietan ere. Ahalik eta adostasun-maila handienean oinarritu behar du, horixe baita, finean, politikaren eraginkortasuna eta iraunkortasuna agerian uzten duen adierazlea.

HABE organismo autonomoak 29,2 milioi euro izango ditu eta EAEko helduen alfabetatze eta euskalduntzean jardungo du, funtsean, bere 103 euskaltegietan; 2011/2012 ikasturtean 35.132 euskara-ikasle izan dituzte euskaltegietan.

2013. urtean, euskararen irakaskuntzan hobekuntzak ezartzen jarraituko dugu HABEtik, material didaktikoak sortu eta argitaratuta eta teknologia berriak baliatuta. IKASTEN plataforma hobetzen jarraituko dugu, irakasleei eta ikasleei begira, baita IKASBIL ere, hau da, euskara ikasteko hainbat material eta baliabide (ariketak, azterketak, audioak, bideoak, irrati-nobelak, txisteak, errezetak...) biltzen dituen plataforma. IKASBILen dokumentu-basea indartu egin da 2012an, audioko, irakurtzeko eta bideoa 350 dokumentu txertatu baitira, eta 2013. urtean aplikazio berri bat txertatuko da, mintzamen lantzeko.

Administrazio Publikoaren hizkuntza-normalizaziorako 13 milioi euroko aurrekontua dago eta IVAP Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak egikaritu du. Hona hemen IVAPen jardun garrantzitsuenak: administrazioko dokumentuen normalizazioa eta administrazio-hizkuntza finkatzea euskaraz, administrazioko euskara zabaltzen lagunduko duten argitalpenak egitea, EAEko administrazio publikoetan lan egiten duten langileen hizkuntza-gaitasuna ebaluatzea, eta Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bitartez, horrek dakartzan zeregin guztiak.

Azkenik, hezkuntza-sistema euskalduntzeko 44,1 milioi euro bideratu dira irakasleak euskalduntzeko IRALE programara, eskola-eremuan euskararen erabilera sustatzeko NOLEGA programara eta euskarazko material didaktikoa egiteko pizgarriak ematen dituen EIMA programara.

La política lingüística, que toma como eje la promoción del uso del euskera, posee una dimensión transversal que abarca al conjunto del Gobierno, por lo que se contemplan acciones directamente relacionadas con la promoción del euskera en la totalidad de los departamentos. Esta política recibe 99,9 millones de euros y se articula a través de tres grandes áreas: política lingüística, normalización lingüística de la Administración Pública y euskaldunización del sistema educativo.

La promoción del euskera es un elemento necesario para la cohesión y el bienestar de nuestra sociedad. Además de velar por el cumplimiento de los derechos lingüísticos de la ciudadanía vasca, es necesario realizar una labor permanente de promoción del conocimiento y del uso del euskera.

El principio de transversalidad es una característica necesaria de la política lingüística a desarrollar, tanto en la administración como en los ámbitos social y político, y, en definitiva en los más diversos ámbitos de la vida social y cultural. Debe apoyarse en la búsqueda continua del mayor consenso posible, que, en definitiva, es el indicador que muestra su efectividad y sostenibilidad.

El Organismo Autónomo HABE, con 29,2 millones de euros, facilitará la alfabetización y euskaldunización de adultos en la CAE fundamentalmente a través de los 103 euskaltegis existentes, en los que durante el curso 2011/2012 han realizado estudios de aprendizaje de euskera 35.132 personas.

En 2013, continúa la mejora en la enseñanza del euskera desde HABE a través de la creación y publicación de materiales didácticos y el aprovechamiento de las nuevas tecnologías. Continuará la mejora de las plataformas IKASTEN, dirigida tanto al profesorado como al alumnado, e IKASBIL que reúne diversos materiales y recursos para aprender euskera (ejercicios, exámenes, audios, vídeos, radio-novelas, chistes, recetas...). La base de documentos de IKASBIL ha sido reforzada en 2012 con la inclusión de 350 documentos de audio, lectura y video y en 2013 se implantará una nueva aplicación para ejercitar la expresión oral.

La normalización lingüística es ejecutada por el Organismo Autónomo – Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP), con un presupuesto de 13 millones de euros. Entre sus actuaciones, son reseñables la normalización de los documentos administrativos y fijación del lenguaje administrativo en euskera, la realización de publicaciones que contribuyan a la difusión del euskera administrativo, la evaluación de la aptitud lingüística del personal al servicio de las administraciones públicas vascas y, a través del Servicio Oficial de Traductores, todas las labores que el mismo conlleva.

Por último, a las labores de euskaldunización del sistema educativo se destina un total de 44,1 millones de euros, destinados al programa IRALE de euskaldunización del profesorado, al programa NOLEGA de promoción del uso del euskera en el ámbito escolar y al programa EIMA de incentivación a la elaboración de material didáctico en euskera.

Ezin dugu aipatu gabe utzi euskara-tituluak arrazionalizatzeko egiten ari den esfortzua, baita hezkuntza-sistemaren maila guztietan (bigarren hezkuntzatik doktorego-ikasketetaraino) hizkuntza-gaitasunaren maila jakin batzuk onartu izana ere, betiere Europako Erreferentzi Marko Bateratuarekin loturik. Prozesu horietan guztietan ikerketako, kontrasteko eta egokitzeko zeregina etengabea izaten da, Euskadiko egoera soziolinguistiko konplexu eta aldakorren berezitasunak kontuan izanik.

Oinarrizko azpiegiturak eta garraio-azpiegiturak

Oinarrizko azpiegitura eta garraio-azpiegiturretako politikarako aurrekontua 554,8 milioi euro da 2013. urtean; horietatik 30 milioi euro eremu hidrologikora bideratuko dira eta gainerakoa, 524,8 milioi euro, garraio-azpiegiturretara. Euskal Y-a egitea izango da inbertsiorik garrantzitsuen (guztira 378,5 milioi euro).

Uraren Euskal Agentziak gauzatzen duen Euskadiko ur-politika oso baldintzatua dago Europako araudiarekin, gero eta zorrotzagoa baita eta, horren ondorioz, azken urteotan ingurune urtarraren babes modu integralean kudeatu da. Eremu horretan, 2013an politika hidrauliko adostua lortu nahi da eskumenak dituzten erakunde guztien artean, ura natura-baliabide partekatua den aldetik.

2013. urterako helburua ur-eskaera betetzea da, bai kantitatearen aldetik, baita kalitatearen aldetik ere, eta horrekin batera, sistema urtarrak egoera onean izatea lortu behar da, lehorreek eta uholdeek eragindako ondorioak arintzeaz gain.

Uholdeak eta lehorreak eragiten dituen klima-gertaera negatiboak kudeatzea eta gertaera horiek herritarrengan eragiten dituzten arriskuak minimizatzea lehentasunezko kontuak dira Jaurlaritzarentzat. Eremu horretan, honako proiektu hauek dira aipagarri: Urumea ibaiaren inguruan (Hernani, Astigarraga eta Donostia), Nerbioi ibaiaren inguruan (Basauri), Gobelas ibaiaren inguruan (Getxo) eta Gasteizko hegoaldeko ibaien inguruan gauzatzen ari direnak.

Gaur egun, Euskadiko biztanle-dentsitatea 300 biztanle/km² da; horrek esan nahi du dentsitate handiena duen eta metropolitarra ez den EBko eskualdea dela, eta gizarte garatu guztietan bezalaxe, mugikortasun-eskaerak gero eta handiagoak dira. Gure garraio-sistema ibilgailu pribatuetan eta errepedezko trafikoan, batik bat, oinarritzen da. Testuinguru horretan, konexio intermodaleko proiektu iraunkorren alde egin dugu, garraio kolektiboko sistema integratu bat lortzearen (trena, aireportuak, kaiak eta autobus-geltokiak), betiere eraginkortasuna areagotzeko eta horien erabilera sustatzeko; arreta berezia emango diegu kudeaketa-sistema bateratuei, instalazio komunei, txartel bakarrari eta tarifak eta ordutegiak koordinatzeari, horiek baitira sistemaren eraginkortasun globala ahalbidetuko duten faktoreak.

Cabe mencionar el esfuerzo que se está realizando en torno a la racionalización de los títulos de euskera, así como el reconocimiento de determinados niveles de competencia lingüística en los niveles del sistema educativo, desde la enseñanza secundaria hasta los estudios de doctorado, todo ello en relación con el Marco Unificado de Referencia Europeo. Se trata de procesos que requieren una labor de investigación, contraste y adecuación permanente teniendo en cuenta las especificidades de la compleja y cambiante situación sociolingüística de Euskadi.

Infraestructuras básicas y transportes

La dotación presupuestaria para la política de Infraestructuras básicas y de transportes en 2013 asciende a 554,8 millones de euros, de los cuales se destinan al ámbito hidrológico 30 millones de euros y el resto, 524,8 millones de euros, a infraestructuras del transporte, siendo la construcción de la Y vasca la inversión más significativa y a la que se destinan un total de 378,5 millones de euros.

La política de aguas en Euskadi, llevada a cabo por la Agencia Vasca del Agua, está condicionada por una normativa europea cada vez más exigente, lo que ha derivado a lo largo de los últimos años en una gestión integral de la protección del medio acuático. En este ámbito se aboga en 2013, por una política hidráulica consensuada entre las diferentes instituciones competentes al ser el agua un recurso natural compartido.

Es objetivo para este 2013 compatibilizar la satisfacción de la demanda de agua, tanto en cantidad como en calidad con la consecución de un buen estado de los sistemas acuáticos además de mitigar los efectos producidos por sequías e inundaciones.

La gestión de episodios climatológicos adversos que provocan inundaciones y sequías y la minimización de los riesgos que provocan en la población son cuestiones prioritarias para este gobierno. En este ámbito son reseñables los proyectos que se llevan a cabo en las zonas del Urumea (Hernani, Astigarraga y Donostia), del Nervión (Basauri), del Gobelas (Getxo) y de los ríos del sur de Vitoria-Gasteiz.

En la actualidad Euskadi cuenta con una densidad de población de 300 habitantes/km², que la sitúa como la región no metropolitana más densa de la UE y como en todas las sociedades desarrolladas, las demandas de movilidad son cada vez mayores y con un sistema de transporte que descansa mayoritariamente sobre los vehículos privados y el tránsito por carretera. Es en este contexto donde apostamos por proyectos sostenibles de conexión intermodal que posibiliten un sistema integrado de transporte colectivo (ferroviario, aeropuertos, puertos y terminales de autobuses), que aumente su eficacia y el atractivo de su uso, con especial atención a sistemas de gestión unificados, instalaciones comunes, billete único, coordinación tarifaria y de horarios, que en definitiva faciliten la eficacia global del sistema.

Eremu horretan ezinbestekoa da Arabako eta Bizkaiko Garraio Agintaritzak sortzea; hartara, Gipuzkoako Lurralde Agintaritzarekin batera, intermodalitatearen, txartel bakarraren eta garraio publikoa ahalbidetzearen ildoan lan egingo dute. Garraio Iraunkorraren Gidaplan berria idatziko da, 2020. urtera bitarteko ikuspegiarekin.

Era berean, Arku Atlantikoa indartu nahi da, Europako garraioaren funtsezko ardatz den aldetik. Horretarako, estrategia bat ezarriko da bi maila geografikotan: bata orokorra, Arku Atlantikoko eskualde europar guztiei dagokiena; eta, bestea zehatzagoa, Akitaniarekin. Akitaniaren eremu horretan, gaur egun zerbitzuak ematen dituzten tren-operadoreen tren-eskaintza hobetzeko lan egingo dugu. Salgaien korridore atlantikoa aktibatzearekin eta plataforma logistikoak garatzearekin lotutako alderdi guztiei bereziki erreparatuko diegu; Akitania-Euskadi Plataforma Logistikoaren filosofia berreskuratuko dugu eta CFAEFFIPLAT proiektuan oinarrituko gara. Proiektu horretan, gobernu autonomoak, eskualdeak eta logistikaren eta garraioaren arloko bestelako eragileak biltzen ditu eta Eusko Jauriaritza da buru, Europar Batasunaren finantzaketarekin.

Garraio-azpiegituren eremuan lehenetsitako helburuak betetzeko, honako hauek bultzatzeko jardunak gauzatuko ditugu: Euskal Trenbide Sare Berria; aldiriko tren-sarea; metro-lineak zabaltzea; tranbia-programa garatzea; hiru aireportuak sustatu eta sendotzea; Bilboko, Pasaiaiko eta Bermeoko portuak indartzea; eta Euskadiko arrantza-portuen, kirol-portuen eta portu nautikoen mantentzea.

Euskal Trenbide Sare Berria egitea funtsezko proiektua da Eusko Jauriaritzarentzat eta bultzada handia emango dio proiektuari; Estatuko Administrazio Orokorrekin sinatutako hitzarmenari jarraiki, Bergaratik Astigarragara bitarteko obrak garatuko dira. Halaber, hiru hiriburuak lotzeko proiektua eta Astigarraga-Lezo-Irun zatietako proiektuak indartuko dira.

Trenei dagokionez, Bilboko eta Donostialdeko metroaren lineetako obrek aurrera jarraituko dute, Bilboko tranbia Zabalburu aldera luzatzeko aukera aztertuko da eta Bilboko metroaren 4. eta 5. lineen proiektuei ere eutsi egingo zaie.

2. lineako lanekin ere aurrera egingo da Santurtzi-Kabiezes zatian eta Urbinagako aldageltokiaren proiektuko lanei bultzada emango zaie.

Aireportuen eremuan, politika aktiboa garatzeko asmoa dugu eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru aireportuetan partaidetza-kuota handiagoak izango ditugu, hiru terminalak modu integratuan kudeatuta, betiere osagarritasunean eta espezializazioan oinarrituta. Portu-azpiegituren kudeaketari dagokionez, Bilboko eta Pasaiaiko portuen elkarren arteko osagarritasuna indartzeko politikak garatuko ditugu eta portu horiekin lotutako gune logistikoak balioa emango diegu.

Resulta esencial en este ámbito la creación de las Autoridades del Transporte de Álava y Bizkaia para que, junto a la existente Autoridad de Transporte de Gipuzkoa, trabajen en la línea de la intermodalidad, el billete único y la facilidad del transporte público. Se redactará un nuevo Plan Director del Transporte sostenible que abarque una perspectiva hasta 2020.

Así mismo, se pretende potenciar el Arco Atlántico como eje fundamental de transportes europeo. Para ello, se establecerá una estrategia a dos niveles geográficos, uno general que hace referencia al conjunto de regiones europeas del Arco Atlántico y otro más específico, con Aquitania, ámbito en el cual se trabajará en la mejora de la oferta ferroviaria de los operadores actualmente prestatarios de servicios. Se prestará especial atención a todo lo relacionado con la activación del corredor atlántico de mercancías y el desarrollo de plataformas logísticas, recuperando la filosofía de la Plataforma Logística Aquitania-Euskadi, apoyándose en el proyecto CFAEFFIPLAT, que, liderado por el Gobierno Vasco y financiado por la Unión Europea, engloba a Gobiernos autónomos, regiones y otros actores en el campo de la logística y el transporte.

Para lograr los objetivos priorizados en el ámbito de infraestructuras del transporte se llevarán a cabo actuaciones que darán impulso a la Nueva Red Ferroviaria Vasca, a la red ferroviaria de cercanías, a la ampliación de las diferentes líneas de metro, al desarrollo del programa tranviario, a la promoción y consolidación de los tres aeropuertos, a la potenciación de los puertos de Bilbao, Pasajes y Bermeo y al mantenimiento de los puertos pesqueros y náutico-deportivos de Euskadi.

La construcción de la Nueva Red Ferroviaria Vasca, proyecto esencial para el Gobierno Vasco, recibirá un fuerte impulso y en virtud del acuerdo firmado con la Administración General del Estado, se desarrollarán las obras entre Bergara y Astigarraga. Asimismo se impulsarán los proyectos de conexión a las tres capitales y los proyectos de los tramos Astigarraga-Lezo-Irun.

En el ámbito ferroviario se dará continuidad a las obras de las líneas metropolitanas de Bilbao y Donostialdea, al estudio de prolongación del tranvía de Bilbao hacia Zabálburu y a los proyectos de las líneas 4 y 5 del ferrocarril metropolitano de Bilbao.

También se dará continuidad a la construcción de la línea 2 en su tramo Santurtzi-Kabiezes e impulsarán los trabajos del proyecto del intercambiador de Urbinaga.

En el ámbito aeroportuario se apuesta por desarrollar una política activa, asumiendo mayores cotas de participación en los tres aeropuertos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a partir de una gestión integrada de las tres terminales, basada en la complementariedad y especialización. Referente a la gestión de las infraestructuras portuarias, se desarrollarán políticas que potencien la complementariedad de los puertos de Bilbao y Pasajes así como la puesta en valor de los espacios logísticos relacionados con ellos.

Ikerketa Zientifiko, Tekniko eta Aplikatua

Ikerketa-politikako gastuaren zenbatekoa 194,4 milioi euro da 2013an. Politika horren jardunak Euskadiko hazkunde ekonomikoa, enplegua eta ongizatea suspertzera bideratuta daude; suspertze hori lortzeko, etorkizuneko garapenaren bultzatzaile nagusi gisa jakintza eta berrikuntza bermatzen dituen hazkunde-eredua erabiliko da.

Ikerketa-politika hainbat programatan bildutako jardunen bitartez egikaritzen da: Teknologia (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila), Ikerketa (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila), Berrikuntza Funtza (Lehendakaritza Saila, horri dagokio zientzia, teknologia eta berrikuntzarako politika definitzea eta koordinatzea), eta, azkenik, nekazaritza eta arrantzaren alorreko ikerketa eta garapena (Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila).

Politika horren zenbateko ekonomikoa handiena Teknologiaren arloan dago: 111,2 milioi euro. Jardun horien helburua berrikuntza teknologikoa merkatura bideratzea eta Euskadik azken hiru hamarkadetan I+G+Ban egindako inbertsio jarraituari balioa ematea da.

Jardunak hainbat programaren bitartez bideratzen dira batez ere. Programa horiek Etorrek eta Etorgai dira, eta 53,6 milioi euro esleitu zaizkie. Etorrek programaren onuradunak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean bilduta dauden agente zientifiko/teknologikoak dira, eta ikerketa-proiektuak diruz laguntzen ditu, erreferentziatzko edo nazioarteko lankidetzaren maila handia duten zentroetan goi-mailako prestakuntza aurreikusten duten proiektuak, hain zuzen ere. Etorgai programaren onuradunak enpresen partzuergoak dira (gehienez 3 enpresa), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteekin lankidetzan jardunda. Programa horrek trakzio-efektua eragiten du ekonomian, sektore estrategikoetan industria-ikerketako proiektu integratuak babesten dituelako eta enpresen, zentro teknologikoen eta unibertsitateen arteko lankidetzaren publiko/privatua sustatzen duelako.

2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren arabera, ondoren aipatuko diren lehentasunezko fokalizazio-arloak dira ikerketan inbertsioak egiteko sektore estrategikoak. Lehenik eta behin fokalizazio-merkatu gisa honako hauek ditugu: zahartzea, energia, garraioa eta mugikortasuna eta mundu digitala, baita zientziaren industria ere (Espalazio bidezko neutroi-iturria. ESS Bilbao proiektua. Bigarrenik, zeharkako gaitasunetan datzen fokalizazioa dugu: aurreko merkatuak sustatzen laguntzen dute, eta, besteak beste, biozientziak, nanozientziak eta fabrikazio aurreratua nabarmentzen dira horietan.

Investigación Científica, Técnica y Aplicada

El gasto en política de investigación para 2013 alcanza los 194,4 millones de euros. Sus actuaciones se dirigen a revitalizar el crecimiento económico, el empleo y el bienestar de Euskadi a través de un modelo de crecimiento que consolida como impulsores centrales del desarrollo futuro, el conocimiento y la innovación.

La política de investigación se ejecuta mediante actuaciones agrupadas en diversos programas: Tecnología (Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad), Investigación (Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura), Fondo de Innovación (Departamento de Presidencia, a quien compete la definición y coordinación de la política de ciencia, tecnología e innovación) y finalmente Investigación y desarrollo agropesquero (Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad).

La mayor dotación económica de esta política se centra en el área de Tecnología que cuenta con 111,2 millones de euros. El objetivo de estas actuaciones es orientar la innovación tecnológica al mercado y poner en valor la inversión sostenida en I+D+i que el País Vasco ha realizado durante las tres últimas décadas.

Las actuaciones se canalizan fundamentalmente a través de diversos programas como Etorrek y Etorgai a los que se asignan 53,6 millones de euros. Etorrek tiene como beneficiarios a los agentes científico-tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación y subvenciona proyectos de investigación que contemplan formación de alto nivel en centros de referencia o tienen un importante grado de cooperación internacional. Etorgai tiene como beneficiarios a consorcios de empresas (mínimo 3 empresas) en colaboración con los agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación. Se trata de un programa con efecto tractor sobre la economía al apoyar proyectos integrados de investigación industrial en sectores estratégicos y fomentar la colaboración público-privada entre empresas, centros tecnológicos y universidades.

Son sectores estratégicos de inversión en investigación según el Plan de Ciencia, Tecnología e innovación 2015 las siguientes áreas prioritarias de focalización. En primer lugar, como mercados de focalización: envejecimiento, energía, transporte y movilidad y mundo digital, así como la industria de la ciencia (Fuente de neutrones por espalación. Proyecto ESS Bilbao). En segundo lugar, la focalización en capacidades transversales, que sirven para impulsar el desarrollo de los mercados anteriores, entre las que destacan las biociencias, las nanociencias y la fabricación avanzada.

Euskadin agente kopuru handia dago zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren eremuan. Agente horiek guztiak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean biltzearen helburua sarean lan egiten duen eta osagarri gisa eta modu koordinatuan euskal enpresa-sareari eskaintza teknologiko integrala eskaintzeko gai den azpiegitura garatzea da.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sare horren ahalmen zientifiko/teknologikoen hobekuntza Saiotek eta Emaitek laguntza-programetan oinarritzen da batez ere. Programa horiek 26,1 milioi euroko zenbatekoa dute. Zehazki, Saiotek programaren bitartez, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agenteen jardun-planetan bildutako jarduerak finantzatzeko dira, eta Emaitek programaren bitartez, aldiz, interes estrategikoa duten nazioarteko proiektuak eta interes bereziko funtsezko ikerketa-proiektuak —hainbat Teknologia Zentzoren artean egindakoak— bultzatzen dituzten ekintzak diruz laguntzen dira.

Teknologiaren alorreko beste laguntza-programa bat Gaitek programa da: produktu berriak garatzeko I+G+Bko jarduerak biltzen dituzten proiektuei laguntzeko. Horien hartzaileak edozein motatako enpresak dira, baita fundazioak eta enpresa-elkarteak ere.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren ikerketa-arloaren helburua (guztira 33,2 milioi euro) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemak Europako Ikerketa Esparruaren sare dinamikoenetan parte har dezan lortzea da. 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren ildo estrategikoetan etorkizuneko gaitasuna ikertzaileak prestatuz bermatzeak duen garrantzia biltzen da.

Ikerketa-arloan giza kapitala osatzen laguntzeko asmoz, 12,5 milioi erabiltzen dira ikertzaileak prestatzeko beka-programarako eta 2,3 milioi euro doktoeren hobekuntzarako bekarako; horren guztiaren helburua goi-mailako prestakuntza indartzea izanik, prestakuntza hori herrialdeko erronkei euskarria ematen dieten eremuetara bideratuz, doktore kopurua handituz eta sortze-gaitasunen garapena ahalbidetuz. Beste laguntza garrantzitsu bat ikerketa-taldeetara bideratzen dena da: 5,8 milioi euro. Laguntza horren helburua jakintzaren sorrera, berrikuntza eta ikerketaren emaitzen transferentzia sustatzea da, Europako ikerketa-esparruan erabat integratzeko.

En el País Vasco coexiste un elevado número de agentes en el ámbito de la ciencia, tecnología e innovación. La agrupación de todos ellos en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación tiene por finalidad desarrollar una infraestructura que trabaje en red y sea capaz de ofrecer una oferta tecnológica integral de forma complementaria y coordinada al tejido empresarial vasco.

La mejora de las capacidades científico-tecnológicas de esta Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación se apoya fundamentalmente en los programas de ayudas Saiotek y Emaitek que cuentan con 26,1 millones de euros. Concretamente, desde Saiotek se financian las actividades incluidas en los planes de actuación de los agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación y desde Emaitek se subvencionan acciones que impulsen proyectos internacionales de interés estratégico y proyectos de investigación fundamental de especial interés realizados entre varios Centros Tecnológicos.

Otro de los programas de ayudas en el área de tecnología es el programa Gaitek de ayuda a proyectos que incluyan actividades de I+D+i para desarrollar nuevos productos. Sus destinatarios son todo tipo de empresas además de fundaciones y asociaciones de empresas.

Desde el área de Investigación del Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura, con un total de 33,2 millones de euros, se pretende lograr la participación del Sistema Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación en las redes más dinámicas del Espacio Europeo de Investigación. El Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2015 recoge entre sus líneas estratégicas la importancia de asegurar el talento futuro mediante la formación de investigadores.

Con la finalidad de contribuir a formar capital humano en el área de investigación, se dedica un total de 12,5 millones de euros al programa de becas de formación de investigadores y 2,3 millones de euros a becas de perfeccionamiento de doctores, con lo que se trata de reforzar la formación de alto nivel orientándola hacia los ámbitos que dan soporte a las apuestas de país, incrementando el número de doctores y favoreciendo el desarrollo de capacidades creativas. Otra ayuda importante es la dirigida a Grupos de investigación por importe de 5,8 millones de euros, cuya finalidad es potenciar la creación de conocimiento, la innovación y la transferencia de resultados de la investigación para conseguir la plena integración en el Espacio europeo de investigación.

Ikerketa-erakundeak prestatzeko bekez, doktoreen hobekuntzarako bekez edo ikerketa-taldeentzako laguntzez gain, ikerketa-arloa hainbat jardunekin indartzen da, zientzialariak eta teknologoak Euskadira erakartzera bideratuta dauden jardunekin hain zuzen ere. Jardun horiek Ikerbasque Fundazioarekin sinatutako Hitzarmen baten bitartez gauzatzen dira, zenbatekoa 8,8 milioi euro izanik. Ikerbasque Eusko Jaurlaritzak 2007an sortu zuen erakunde garrantzitsu bat da, EAEn Zientzia sortzeko erakundea. Bost urteko ibilbidea duen erakunde horrek agerian jarri du Zientziaren eta I+G+Baren aldeko erronkaren errentagarritasuna. Nazioarteko zientzialarien kontratazioan Fundazioak inbertitutako euro bakoitzeko kanpotik bi euro itzultzea lortu da, I+G+Bko proiektuak Euskadin finantzatzeko, eta kontratatutako 190 ikerlariek, 24 herrialdeetatik etorritakoek, mila artikulutik gora argitaratu dituzte nazioarteko argitalpenetan.

Berrikuntza Funtsaren jatorria Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren 2007ko urtarrilaren 18ko Erabakia da, Funtsa eratzea onartu zuen Erabakia. 200 milioi euroko zenbatekoa ezarri zen 2007-2012 bosturtekorako (40 milioi urtean); zenbateko horren %85 Eusko Jaurlaritzak finantzatu du, eta %15 Foru Aldundiek. Funts horrek 33 milioi euroko zenbatekoa du 2013an. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluari dagokio Berrikuntza Funtsekin finantzatu beharreko jarduerak eta berrikuntza-proiektuak zehaztea. Kontseilu hori erakunde arteko organoa da, eta gauzatu behar duen lanean Innobasqueren (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) laguntza du. Agentzia horrek sistemaren ikuspegi zabala ematen du eta nazioarteko adituen eta agente gailenen partaidetza bideratzen du.

Berrikuntza Funtsaren baliabideak, funtsean, Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak (BERC), Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (CIC), ikerketa estrategikorako proiektuak eta Innobasque Berrikuntzaren Euskal Agentziaren jardura finantzatzeko erabiltzen dira.

Nekazaritza eta arrantzen alorreko ikerketaren eta garapenaren arloaren helburua (17 milioi euro) sektorean teknologia eta berrikuntza txertatzea da, eta horretarako, berezko ikerketa-erakundeak ditu, hala nola, Neiker eta Azti —Tecnalia taldeko kideak—, baita beste ikerketa-zentro sektorial batzuk ere, hala nola Euskal Herriko Unibertsitatea, Lea Artibai Ikastetxea eta Tecnalia R&I.

Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundeak (Neiker) 7,5 milioi euro jaso ditu 2013an; honako arlo hauetan gauzatzen du bere ikerketa-jarduna: landareen produkzioaren eta babesaren arloan, animalien produkzioaren eta sanitarearen arloan, bioteknologiaren arloan, ekologiaren arloan eta baliabide naturalen arloan, baita ingurumen-kalitatearen arloan ere. Azti (3,3 milioi euro jasotzen ditu) itsasoaren eta elikagaien ikerketan aditua den zentroa da, jardun-sektore horietan lehiakortasuna hobetzeko eta gizartearen garatzeko helburua duena.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza

Además de las becas de formación de investigadores, las de perfeccionamiento de doctores o las ayudas a grupos de investigación, el área de investigación se refuerza con una serie de actuaciones encaminadas a atraer científicos y tecnólogos al País Vasco a través del Convenio con la Fundación Ikerbasque, por un importe de 8,8 millones de euros. Ikerbasque, creada por el Gobierno Vasco en 2007, es una importante entidad generadora de Ciencia en la CAE. En sus cinco años de trayectoria ha puesto de manifiesto la rentabilidad de la apuesta por la Ciencia y la I+D+i. Por cada euro invertido por la Fundación en la contratación de científicos internacionales se ha obtenido un retorno de dos euros desde el exterior para financiar proyectos de I+D+i en el País Vasco y los 190 investigadores contratados, procedentes de 24 países, han publicado más de un millar de artículos en publicaciones internacionales.

El Fondo de Innovación tiene su origen en el Acuerdo de 18 de enero de 2007 del Consejo Vasco de Finanzas por el que se aprobó su constitución. Se estableció una cantidad total de 200 millones de euros para todo el quinquenio 2007-2012 (40 millones al año) financiados en un 85% por el Gobierno Vasco y en un 15% por las Diputaciones Forales. Este Fondo cuenta en 2013 con 33 millones de euros. La determinación de las actividades y proyectos de innovación a financiar por este Fondo corresponde al Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, órgano interinstitucional que cuenta en el desarrollo de su labor con el apoyo de Innobasque, Agencia Vasca de Innovación, que aporta una amplia perspectiva del sistema y canaliza la participación de expertos y agentes destacados en el ámbito internacional.

Los recursos del Fondo de Innovación se dedican fundamentalmente a financiar los Centros de Investigación Básica y de Excelencia (BERC), los Centros de Investigación Cooperativa (CIC), los proyectos de Investigación estratégica y la actividad de la Agencia Vasca de Innovación-Innobasque.

El área de investigación y desarrollo agropesquero, con un total de 17 millones de euros, pretende incorporar tecnología e innovación al sector y para ello cuenta con entidades de investigación propias como Neiker y Azti, miembros del grupo Tecnalia, así como otros centros de investigación de carácter sectorial como la Universidad del País Vasco, Lea Artibai Ikastetxea y Tecnalia R&I.

Neiker, Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, que recibe en 2013 un total de 7,5 millones de euros, centra su actuación investigadora en las áreas de producción y protección vegetal, producción y sanidad animal, biotecnología, ecología y recursos naturales, además de calidad ambiental. Azti, que recibe 3,3 millones de euros, es un centro tecnológico experto en investigación marina y alimentaria cuyo objetivo es el desarrollo social y mejora de la competitividad en estos sectores de actuación.

Agricultura, Ganadería y Pesca

Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren arloko politikako gastua 96,6 milioi euro da 2013an. Horren helburua da nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako jarduerak garatzea produkzio-eredu iraunkor bati jarraiki, ingurumena zaintzeko, landako eta kostako inguruetak natura- eta kultura-ondarea mantentzeko, eta produktu osasungarriak eta kalitatezkoak eskaintzeko kontsumitzaileari.

Produkzio-sektorearen lehiakortasuna eta sektore horrek nekazaritzako elikagaien katean duen zeregina indartzearen aldeko apustua egiten da, sektore horren balio erantsia areagotzeko. Horretarako, neurri batzuk hartuko dira, hala nola, nekazaritzako elikagaien katean parte hartzen dutenen artean kontratuak egitea sustatuko da, eskaintza antolatuko da sektore horrek duen botere negoziatzailea areagotzeko eta enpresa-lankidetzak handituko da landa- eta arrantza-alorreko sareen eta elkarteen, unibertsitatearen eta berrikuntza-zentroen (AZTI nahiz NEIKER) bitartez.

Tokiko produktuari eta Euskadi markari (kalitate-berme gisa, ziurtagiria eta jatorria dituen) lotutako elikagaien industriaren garapena babesten da. Merkataritza-bide laburrak eta hurbiltasun-ekimenen sustapena bultzatzen dira, baita baso-sektorearen berrindartzea ere, baso-biomasa energia-baliabide gisa erabil dadin sustatuz, zuraren erabilerari zirkuitu berriak bilatuz eta kudeaketa partekatuko irudiak sustatuz mendietan.

Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena deitutako programan (78,7 milioi euro izango ditu) Erkidegoaren laguntzen kudeaketa biltzen da, Nekazaritza Bermearen Espainiako Funtsarena (43,8 milioi euro) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsarena (14,8 milioi) eta Arrantzaren Europako Funtsarena (4,8 milioi euro). Politika horren helburuak eta jardunak Nekazaritzako Politika Bateratuan (NPB) biltzen dira; 2014-2020ko aldian sektoreak gauzatuko duen jarduna ezartzen du, eta landa-garapenaren nahiz elikagaien balio-katearen lehiakortasuna hobetzearen aldeko apustu irmoa egiten du, baita familia-nekazaritza babestearen aldeko apustua eta familia-nekazaritza eskala-ekonomia handiagoetara, produkzio-eredua haztea eta eraginkorra izatea eragingo dutenetara, berregituratzearen aldekoa ere. Era berean, eremu horretan produkzio-sektoreei laguntzeko, plan sektorialak landuko ditugu (esnetarako eta haragitarako behia, txerria, patata, erremolatxa...), eta aholkularitza-zerbitzuak ezarriko dira ustiapenentzat. Halaber, diru-laguntzak emango zaizkie sektorearen egituraketari eta kohesioari mesede egiten dieten langile-elkartei eta nekazaritza-sindikatuari. Lehentasuna ematen diogu gazteek nekazaritza-sektorean parte hartzea lortzeari; horretarako, GAZTENEK Planaren ildoak lantzen ditugu.

Landa-garapenaren alorrean, zeregin garrantzitsua du HAZI fundazio publikoak, prestakuntzako, laneratzeko eta sustapeneko eta garapeneko jarduerak gauzatzen baititu bi helburu nagusirekin: sektorea profesionalizatzea eta biztanleria gehitzea eta finkatzea landako eta kostako inguruetan. Horretarako, 9,2 milioi euroko ekarpena izango du.

El gasto en política de agricultura, ganadería y pesca para 2013 alcanza los 96,6 millones de euros. Su objetivo es lograr que las actividades agrícolas, ganaderas y pesqueras se desarrollen según un modelo de producción sostenible, cada vez más respetuoso con el medio ambiente, capaz de garantizar la preservación del patrimonio natural y cultural de las zonas rurales y litorales, y capaz de ofrecer al consumidor productos sanos y de calidad.

Se apuesta por reforzar la competitividad del sector productor y su papel en la cadena agroalimentaria con el objetivo de incrementar su valor añadido. Para ello se tomarán una serie de medidas entre las que figuran el fomento del establecimiento de contratos entre los distintos participantes de la cadena agroalimentaria, la vertebración de la oferta para incrementar su poder negociador y el aumento de la cooperación empresarial a través de las redes y asociaciones rurales y pesqueras, la universidad y los Centros de innovación, tanto AZTI como NEIKER.

Se apoya el desarrollo de la industria alimentaria vinculada al producto local y a la marca Euskadi como garantía de calidad con certificación y origen. Se fomentan los canales cortos de comercialización y promoción de las iniciativas de cercanía, así como el relanzamiento del sector forestal potenciando la utilización de la biomasa forestal como recurso energético, buscando nuevos circuitos a la utilización de la madera y potenciando figuras de gestión compartida en los montes.

El programa Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral que dispondrá de 78,7 millones de euros, incluye la gestión de las ayudas comunitarias del FEAGA (43,8 millones de euros) FEADER 14,8 (millones) y FEP 4,8 (millones de euros). Sus objetivos y actuaciones se inscriben en la Política Agraria Común (PAC) que marca la actuación del sector para el periodo 2014-2020, apostando con fuerza tanto por el desarrollo rural y la mejora de la competitividad de la cadena de valor alimentaria, como por el apoyo a la agricultura familiar y su reestructuración hacia mayores economías de escala que aporten crecimiento y eficiencia al modelo productivo. También en este ámbito, se apoyará a los sectores productivos mediante planes sectoriales (vacuno de leche y carne, porcino, patata, remolacha,...), a la vez que se darán ayudas a los servicios de asesoramiento a las explotaciones y se subvencionará a las asociaciones profesionales y sindicatos agrarios que favorecen la estructuración y cohesión del sector. La incorporación de jóvenes al sector agrario es una prioridad que está siendo abordada a través de las líneas del Plan GAZTENEK.

En el ámbito del desarrollo rural, juega un importante papel la fundación pública HAZI que realiza actividades formativas, de inserción y de promoción y desarrollo con un doble objetivo: la profesionalización del sector y el incremento y fijación de la población en el medio rural y litoral con una aportación de 9,2 millones de euros.

Arrantzaren eta akuikulturaren alorrean, uretako baliabideen ustiapen egoki bat bermatzea da helburua, beharrezko iraunkortasun-baldintzak sortuko dituen ekonomiar, gizarteari eta ingurumenari dagokienez. Horretara bideratuta dagoen gastua 8,9 milioi eurokoa izango da eta merkataritza- eta arrantza-egiturak hobetzeko erabiliko da aurrekontuetako zuzkidura nagusia. 2013an, Arrantza Politika Erkidera begira (2014-2020) eta, zehatzago, Itsas eta Arrantzaren Europako Funtzari dagokionez (2014-2020), hainbat ekintza ezarriko dira, arrantza arduratsua eta ingurumenari dagokionez iraunkorra dena lortzera bideratutako ekintzak, hain zuzen ere. Programa horren arabera, oso garrantzitsua da uretako baliabide bizien eta akuikulturaren ustiapen iraunkorra.

Elikagaien Sustapena eta Kalitatearen ekintzek 9 milioi euro dituzte 2013an nekazaritzaren eta elikagaien sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko. Horretarako, berrikuntza sustatuko da, eta eskari eta joera berriei erantzuna emango zaie ziurtatutako kalitateko produktuekin, hau da, produktu osasungarri eta seguruekin. Programa garrantzitsua LEHIATU da (4,2 milioi euro), Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzarena eta Arrantzaren Europako Funtsekin finantzatzen dena. Nekazaritzaren eta elikagaien sektoreko produktuen eta arrantzako eta akuikulturako produktuen eraldatzean eta merkaturatzean inbertsioak egiteko laguntzak ematen dituen.

Industria

Industria-politikarako 108,4 milioi euroko zenbatekoa esleitu da. Lehiakortasun-eraldaketarako Sozietateak (SPRI), eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak administratzen dute zenbateko hori. SPRI Sozietatea enpresen garapenerako agentzia da, Eusko Jaurlaritzak 1981ean sortu zuena Euskadiko enpresen sareari laguntza eta bultzada emateko, beren lehiakortasuna sustatuz eta merkatu globalean duten posizioa hobetuz.

Krisialditik ateratzeko, Euskadik bere industria-espirtua berreskuratu behar du eta EB 2020 Estrategia erreferente izango duen produkzio-ekonomiar lagundu behar dio irmoki. Industria-politika hedatuz, modernizatzen eta irauten lagunduko zaie enpresei, bereziki funtsean manufaktura-arlokoak diren enpresei, industria aldetik gero eta helduagoak diren sektoreetan sartuta daudela.

Eusko Jaurlaritzak garatutako industria-politika Enpresen Lehiakortasuna Sustatzeko 2010-2013 Planean ezarritako hiru ardatzetan dago oinarrituta: ekonomia irekia; ekonomia berritzailea, ekintzailea eta teknologikoki aurreratua, eta ekonomia iraunkorra. Ekonomia irekia lortzeko enpresak eta gizarte kanpora irekitzea bultzatzea dakar. Euskadi ekonomia berritzailea, ekintzailea eta teknologikoki aurreratua izan dadin lortzeko, jakintzaren sorreran jardun behar da, sormenean, baita lankidetzan ere, jakintza atzeraelikatze mekanismo den aldetik. Eta azkenik, helburua ekonomia iraunkorra izatea baldin bada, etorkizuneko belaunaldien bizitza-kalitatea arriskuan jarri gabe, hazkunde ekonomikoa eta enplegu-sorrera bermatzen duen eredu berri bat garatu behar da.

En materia de Pesca y acuicultura, el objetivo principal es asegurar una explotación de los recursos acuáticos en condiciones de sostenibilidad económica, social y medioambiental. El gasto destinado para ello ascenderá a 8,9 millones de euros y la principal dotación presupuestaria está destinada a la mejora de las estructuras comerciales y pesqueras. En 2013, con vistas a la Política Pesquera Común (2014-2020) y más concretamente en lo concerniente al Fondo Europeo Marítimo y de Pesca FEMP (2014-2020) se procederá a implantar una serie de acciones encaminadas a un escenario de pesca responsable y sostenible ambientalmente. Este programa considera muy relevante la explotación sostenible de los recursos acuáticos vivos y de la acuicultura.

Las actividades de Promoción y Calidad Alimentaria disponen en 2013 de 9 millones de euros para impulsar la competitividad del sector agroalimentario, mediante el apoyo a la innovación y atendiendo a las nuevas demandas y tendencias con productos de calidad certificada, saludables y seguros. El programa más importante es LEHIATU con 4,2 millones de euros, cofinanciado con fondos FEADER y FEP, que otorga ayudas a la realización de inversiones en la transformación y la comercialización de productos agroalimentarios y de la pesca y acuicultura.

Industria

A política industrial se dedica un importe de 108,4 millones de euros. En su administración intervienen la Sociedad para la transformación competitiva. SPRI y el propio Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad. La Sociedad SPRI es la agencia de desarrollo empresarial que el Gobierno Vasco creó en 1981 con el objetivo de dar apoyo e impulso al tejido empresarial vasco, fomentando su competitividad y su posicionamiento en el mercado global.

La salida de la crisis demanda de Euskadi la recuperación de su espíritu industrial y un decidido apoyo a la economía productiva que tenga como referente la Estrategia 2020 de la UE. El despliegue de la política industrial supondrá ayudar a las empresas en su modernización y sostenimiento, especialmente a las empresas básicamente manufactureras, integradas en sectores industrialmente cada vez más maduros.

La política industrial desarrollada por el Gobierno Vasco se sustenta en los tres ejes del Plan de Competitividad Empresarial 2010-2013: economía abierta, economía innovadora, emprendedora y tecnológicamente avanzada y economía sostenible. Lograr una economía abierta implica impulsar la apertura al exterior de las empresas y la sociedad. Conseguir hacer de Euskadi una economía innovadora, emprendedora y tecnológicamente avanzada pasa por actuar sobre la generación de conocimiento, sobre la creatividad y la cooperación en cuanto mecanismo para retroalimentar el conocimiento. Y por último, aspirar a ser una economía sostenible supone avanzar en un nuevo modelo que garantice el crecimiento económico y la generación de empleo sin comprometer la calidad de vida de las generaciones futuras.

Industria-jardun garrantzitsuenen artean SPRILUR Sozietatearen jarduerak daude (SPRIIn txertatuta dago). Sozietate horren helburu soziala Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua eta industria-eraikuntzak sustatzera bideratuta dago, bai zuzenean bai xede bera duten beste sozietate batzuen bitartez. Industria-azpiegitura horien kudeaketa hiru jardun-ildoren bitartez bideratzen da: berezko poligonoen bitartez (42 industria-arlo), Aldundiekin eta Udalekin edo Industrialdeak programarekin partaidetutako sozietateen (19 sozietate maioritario, 5 minoritario eta 67 industria-arlo) eta proiektu estrategiko eta aktibo berezien bitartez.

Eusko Jaurlaritzaren industria-eremuaren eskaintzak ia 700.000 metro karratu biltzen ditu jada. 1982az geroztik, 4 milioi metro karratutik gora jarri dira merkatuan, eta epe luzera, 2015. urtetik aurrera, aurreikusten da zifra hori 5,8 milioira hurbilduko dela.

Ekintzaileei laguntzearen arloan, 2,7 milioi euroko laguntzak sustatu ditu SPRIk. Hainbat jardun dira, hala nola Ekintzaile laguntzak, enpresa-produktu berriei, industria-berritzaileak direnei, finantza-babesa ematekoak edo lotutako zerbitzuei emandakoak edo enpresa-transmisioari eta ekintzailetzari emandako laguntzak, bitarteko Agenteen (SPRIren erakunde kolaboratzaileak) laguntzaren bitartez enpresa-transmisioari laguntzera bideratuta daudenak, baita barneko ekintzailetzarako laguntzak ere; laguntza horien helburua enpresei laguntzea izanik, berritzaileak diren enpresa-proiektu berriak sortzeko bideak emango dituzten ideiak sortzen laguntzea, hain zuzen ere. Horrez gain, ekintzailetza Euskal Ekintzailetza Zerbitzu berriarekin indartzen da; zerbitzu horrek Euskadiko ekintzaile-sarea zein den jakitea ahalbidetzen du (zer agente dauden, zer ekimen eta laguntza proposatzen dituzten, kanpoko kontsultoreak, eta abar) eta "Euskadi Enprende" zigiluak bermatutako kalitatea ematen du.

Beste jardun-eremu garrantzitsu bat Berrikuntzaren eta lehiakortasun-estrategiaren eremua da. Gaur egun, nagusi dugun lehiakortasun-eredua dela-eta, Euskadin erreferente diren ekonomia lider guztiek berrikuntza ezartzen dute beren garapen-estrategietako mami-elementu gisa.

Berrikuntza hedatzearen ondorioz, enpresek jakin behar dute berritzeko premia dagoela, enpresen arteko lankidetzaren ahalbidetu behar dela, elkarren arteko lankidetzaren lortzeko eta proiektu berritzaileak ezartzeko aukera eman behar dela. Horretarako, enpresen arteko lankidetzaren industria-politikaren oinarriko estrategietako bat da, eta lankidetzaren hori 11 kluster sektorialen eta 9 aurreklusterren bitartez gauzatzen da Euskadin. 90eko hamarkadaren hasieratik aurrera daude klusterrak. Orduz geroztik, euskal industria-sektore garrantzitsuenek sektore-erakundeak sortu dituzte, eta erakunde horiek sektoreko enpresen arteko eta enpresen eta hirugarrenen arteko lankidetzaren teknika eta komertziala sustatzen duten agenteak dira.

Entre las actuaciones industriales más relevantes se encuentran las actividades de la Sociedad SPRILUR (integrada en SPRI). Su objeto social está dirigido a la promoción del suelo y edificaciones industriales en la Comunidad Autónoma de Euskadi, bien directamente o a través de otras sociedades con idéntico objeto. La gestión de estas infraestructuras industriales se canaliza a través de tres líneas de actuación: polígonos propios (42 áreas industriales), sociedades participadas con Diputaciones y Ayuntamientos o programa Industrialdeak (19 sociedades mayoritarias, 5 minoritarias y 67 áreas industriales) y proyectos estratégicos y activos especiales.

La oferta de espacio industrial del Gobierno vasco alcanza ya casi los 700.000 metros cuadrados de superficie. Desde 1982 se ha puesto en el mercado más de 4 millones de metros cuadrados y a largo plazo, superado el año 2015, está previsto que esta cifra se acerque a los 5,8 millones.

En el área de apoyo a emprendedores, se impulsan desde SPRI ayudas por importe de 2,7 millones de euros. Se trata de diversas actuaciones como las ayudas Ekintzaile de apoyo financiero para nuevos proyectos empresariales de carácter innovador industrial o de servicios conexos o las ayudas a la transmisión empresarial y el emprendimiento, que están dirigidas a apoyar la transmisión empresarial mediante el acompañamiento de Agentes intermedios (entidades colaboradoras de SPRI), así como las ayudas al intraemprendimiento cuya finalidad es apoyar a las empresas en la generación de ideas que den lugar a nuevos proyectos empresariales de carácter innovador. Además, el emprendimiento se refuerza con el nuevo Servicio Vasco de Emprendimiento, que posibilita el conocimiento del entramado emprendedor de Euskadi (qué agentes hay, qué iniciativas y ayudas proponen, consultores externos, etc.) y aporta la calidad avalada por el sello "Euskadi Enprende".

Otro ámbito importante de actuación es el de Innovación y estrategia de competitividad. En estos momentos, el modelo competitivo imperante hace que todas las economías líderes a nivel mundial, referentes para Euskadi, establezcan la innovación como elemento nuclear de sus estrategias de desarrollo.

La extensión de la innovación implica hacer conscientes a las empresas de la necesidad de innovar, facilitar la cooperación entre ellas con este fin y posibilitar la implantación de proyectos innovadores. Para ello, la cooperación empresarial es una de las estrategias básicas de política industrial, que se materializa en Euskadi a través de la existencia de 11 cluster sectoriales y 9 preclusters. La existencia de los clusters se remonta a principios de la década de los 90. Desde entonces, los principales sectores industriales vascos han ido creando unas organizaciones sectoriales, que se han convertido en agentes que promueven la colaboración técnica y comercial entre las empresas del sector y de ellas con terceros.

2013an kluster eta aurrekluster sektorialeiei emandako laguntzek (2,8 milioi euro) klusterren arteko lankidetzapolitikari jarraitutasuna ematen diete, eta politika horrek eskala handiago batean lan egitea ahalbidetzen du, sektore desberdinetako enpresen arteko lankidetzaproiektuak sustatzeko, sinergiak sortzearren eta negozio-aukerak aprobetxatzearren. Helburua zera da, ekonomia-jarduera osatzen duten balio-kateak klusterizatzea, esate baterako, enpresa traktoreak ETEen sarera eramatea berrikuntzari eta nazioartekotzeari dagokionez.

Arabako, Bizkaiko eta Donostiako Teknologia Parkeek eta Garaia Berrikuntza Guneak osatzen duten Parke Teknologikoen Sarean parte hartzen du SPRI sozietateak. Euskadiko lehen Teknologia Parkea, hots, Bizkaiko Teknologia Parkea (Espainian eratu zen lehen Parkea) sortu zenetik, hau da, 1985. urtetik gaur egun arte garapen teknologikoa eta berrikuntza lortzen laguntzen duten agente proaktibo gisa bermatu dira. Jakintza- eta teknologia-fluxua sustatzen dute agenteen artean eta Zientzia-Teknologia-Enpresa sistemaren elementu egituratzaileak eta I+G+Baren hazkundearen azeleratzaileak dira.

Era berean, berrikuntza enpresa-sarera hedatzen laguntzen da sentsibilizazio-neurrien eta berrikuntzaren inguruko prestakuntzaren eta trebakuntzaren bitartez; +Innova programari dagozkion laguntzak nabarmenduz. Laguntza horiek hainbat helburu lortzera bideratuta daude; alde batetik, euskal enpresetan lehiakortasun- eta berrikuntza-ibilbideak egitera eta garatzera, kontsultoretza adituaren laguntza dutela; bestetik, merkatuan berrikuntza bikaineko proiektuak garatzera, antolamenduan berrikuntza lortzera edo estrategia birplanteatzera.

Energia

Energia Politikaren helburua honako hau dela: EAEk — energia-kontsumo handia eta baliabide natural oso gutxi izanik— nahikoa energia izatea kantitateari, kalitateari eta denborari dagokienez, kostu lehiakorrek eta ingurumenerako modu iraunkorrek. Politika horren protagonista Energiaren Euskal Erakundea (EEE) da, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren mendeko Energia Agentzia gisa, eta bere aurrekontua 168 milioi eurokoa izango da.

2020. urterako, energia-politikan jarraitu behar den estrategia “Euskadiko energia-estrategia, 2020 (3E2020)” deitutakoan biltzen da. 3E2020 terminoa “20-20-20 Planetik” dator. Plan hori Euroganberak onartu zuen 2008ko abenduan, eta 2020. urtean lortu behar diren 3 oinarritzko helburu betetzea dakar berekin: berotegi-efektuko gasen emisioak %20 murriztea, energia primarioaren kontsumoa %20 murriztea eta energia berriztagarrien azken kontsumoa %20 izatea. EAEk ez du legegintza-eskumen loteslerik Europako helburuak betetzeko, baina zuzentarauaren transposizioa betetzen lagundu behar du.

En 2013 las ayudas a clusters y preclusters sectoriales con 2,8 millones de euros dan continuidad a una política de cooperación interclusters que permite el trabajo a una escala superior para impulsar proyectos de cooperación entre empresas de diferentes sectores a fin de generar sinergias y aprovechar oportunidades de negocio. Se pretende una clusterización de las cadenas de valor que conforman la actividad económica, por ejemplo el arrastre de empresas tractoras sobre el tejido pyme en materia de innovación e internacionalización.

La sociedad SPRI participa en la Red de Parques Tecnológicos compuesta por los Parques Tecnológicos de Álava, Bizkaia y San Sebastián y el Polo de Innovación Garaia. Desde que se creara el primer Parque Tecnológico de Euskadi, el de Bizkaia en el año 1985, que también fue el primer Parque constituido en España, hasta la actualidad, se han consolidado como agentes proactivos que contribuyen al desarrollo tecnológico y la innovación. Estimulan el flujo de conocimiento y tecnología entre los distintos agentes y se han convertido en elementos vertebradores del sistema Ciencia-Tecnología-Empresa y aceleradores del crecimiento de la I+D+i.

También se contribuye a la extensión de la innovación al tejido empresarial a través de diversas medidas de sensibilización, formación y capacitación en innovación, destacando las ayudas correspondientes al programa +Innova dirigidas a la elaboración y desarrollo de itinerarios de competitividad e innovación en las empresas vascas con apoyo de consultoría experta, al desarrollo de proyectos de innovación excelente en el mercado, a la innovación en organización o el replanteamiento estratégico.

Energía

El objetivo de la política energética es garantizar que la CAE, con un alto consumo energético y escasos recursos naturales, disponga de energía suficiente en cantidad, calidad y tiempo, a un coste competitivo y de forma sostenible para el medioambiente. Esta política es protagonizada por el Ente Vasco de la Energía (EVE) como Agencia Energética dependiente del Departamento de Desarrollo Económico y Competitividad, con un presupuesto de 168 millones de euros.

La estrategia a seguir en política energética, en el horizonte 2020, se plasma en la “Estrategia energética de Euskadi 2020 (3E2020)”. El término 3E2020 deriva del “Plan 20-20-20”, aprobado por la Eurocámara en diciembre de 2008 y conlleva el cumplimiento de 3 objetivos básicos a alcanzar en 2020: un 20% de reducción de las emisiones de gases de efecto invernadero, un 20% de reducción del consumo de energía primaria y un consumo final de energías renovables del 20%. Si bien es cierto que la CAE no tiene competencias legislativas vinculantes para cumplir los objetivos europeos, sí debe contribuir al cumplimiento de la transposición de la directiva.

Energia primarioaren kontsumoa %20 murrizteko 2020an, Estatuak bere Energiaren Aurrezpenerako eta Eraginkortasunerako 2011-2020 Planean hainbat jardun ezartzen ditu sektore kontsumitzaileen arabera. Plan horren ezarpena autonomia-erkidegoetan gauzatuko da IDAErekin (Energia Dibertsifikazio eta Aurrezterako Institutua) hitzarmenak sinatuz. Hitzarmen horien esparruan, EEEK laguntzak jarriko ditu abian energia-eraginkortasuna sustatzeko. Laguntza horiek sektore kontsumitzaileen arabera biltzen dira; sektore horiek honako hauek izanik: eraikuntza eta ekipamendua (energia-auditoriak, eraikinen inguratzaile berritzaile energia-birgaitzea, barruko argiak,...), garraioa (garraibideen zentzuzko erabilera, floten berritzea,...), energiaren eta zerbitzu publikoen eraldaketa (kanpoko argiteriaren instalazioak, hondakin-uren arazketa eta gezatzea,...). Eraikin publikoetako jardunak energia-efizientziarako laguntzen Programa bidez indartzen dira.

Energia-politikaren alorreko beste jardun garrantzi bat energia berriztagarrien (hidraulikoa, eolikoa, eguzki-energia, geotermikoa, biomasa eta itsas energia) bultzadarekin lotuta dagoena da. 2020. urterako aurreikusitako helburua da energia berriztagarrien aprobetxamendua %87 igotzea; horrek esan nahi du berriztagarrien kuota %14 izango dela azken kontsumoari dagokionez.

Energia berriztagarrietan egindako inbertsioetarako laguntza-programak bultzatzen du energia berriztagarria aprobetxatzeko instalazioak egitea, hala nola tenperatura baxuko eguzki-instalazio termikoak ura berotzeko, klimatizaziorako edo igerilekuetarako, edo elkartruke geotermikoaren instalazioak berokuntzarako edo etxeko ur beroa produzitzeko, besteak beste. 2012an, 853 proiektu aurkeztu ziren; horietatik 779 sorkuntza termikokoak izan ziren, eta 74 sorkuntza elektrikokoak.

Biomasa-hondakinaren aprobetxamenduari dagozkien instalazioek 2 milioi euroko laguntzak jaso dituzte. Biomasa nabarmentzen da berriztagarrien eskariaren mixean, eta elektrizitatea sortzeko nahiz azken kontsumorako erabiltzen da erabilera termikoen bitartez. Biomatatik abiatutako sorkuntza elektrikoa papergintzarako kogenerazio-sistemetan eta zabortegeko biogasaren eta hiri-hondakinaren energia-aprobetxamenduan oinarritzen da.

Sektore eolikoak indar handia du industrian, eta jarduera hori gauzatzen duten 100 enpresa inguru daude (aerosorgailuen eta osagaien fabrikatzaileak, zerbitzu-enpresak, zentro teknologikoak eta abar). 2012an, EAEko Administrazioak parke eoliko "esperimentalak" eraikitzea bultzatu zuen aerosorgailuak egiten dituzten euskal enpresek lankidetzan; horrez gain, miniparkeak ezartzeko azterlanak egin zituen tokiko administrazioarekin lankidetzan.

Para reducir un 20% el consumo de energía primaria en 2020, el Estado establece en su Plan de Ahorro y Eficiencia Energética 2011-2020 una serie de actuaciones por sectores consumidores, cuya implantación se instrumenta a nivel de comunidades autónomas a través de convenios con el IDAE (Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía). En el marco de estos convenios, desde el EVE se pondrán en marcha ayudas para impulsar la eficiencia energética. Estas ayudas se agrupan por sectores consumidores, que son: edificación y equipamiento (auditorías energéticas, rehabilitación energética de la envolvente térmica de edificios, iluminación interior,...), transporte (uso racional de los medios de transporte, renovación de flotas,...), transformación de la energía y servicios públicos (instalaciones de alumbrado público exterior, depuración de aguas residuales y desalación,...). Las actuaciones en edificios públicos se refuerzan a través del Programa de ayudas a la eficiencia energética.

Otra importante actuación en política energética es la relacionada con el impulso de las energías renovables: hidráulica, eólica, solar geotérmica, biomasa y marina. El escenario objetivo previsto para 2020 implica un incremento de aprovechamiento de energías renovables del 87%, lo que significa una cuota de renovables en consumo final del 14%.

El Programa de ayudas a inversiones en energías renovables promueve la realización de instalaciones de aprovechamiento de energía renovable, como pueden ser instalaciones solares térmicas de baja temperatura para el calentamiento de agua, climatización o piscinas o instalaciones de intercambio geotérmico para calefacción o producción de agua caliente sanitaria, entre otras. El número total de proyectos presentados en 2012 fue de 853, de los cuales 779 correspondieron a generación térmica y 74 a generación eléctrica.

Las instalaciones correspondientes a aprovechamiento de residuos de biomasa reciben ayudas por 2 millones de euros. La biomasa destaca en el mix de demanda renovable y es utilizada tanto para generar electricidad como para consumo final mediante usos térmicos. La generación eléctrica a partir de biomasa se centra en sistemas de cogeneración para la industria papelera y en el aprovechamiento energético de residuos urbanos y biogás de vertedero.

El sector eólico tiene un importante peso industrial con unas 100 empresas (fabricantes de aerogeneradores y componentes, empresas de servicios, centros tecnológicos, etc.) dedicadas a esta actividad. En 2012, se impulsó desde la Administración de la CAE la construcción de parques eólicos "experimentales" en colaboración con empresas vascas fabricantes de aerogeneradores, además de desarrollar estudios, en colaboración con la administración local, para la implantación de miniparques eólicos.

Energia-alorrean ikerketa gauzatzearen aldeko apustua 20 milioi euroko zuzkidurarekin gauzatzen da. Zenbateko hori I+G+Bko proiektuetarako eta garapen teknologikoaren proiektu berezi traktoreak garatzeko erabiliko da. Proiektu berezi horiek honako hauek dira: azpiegitura teknologiko berezia itsas energian, Biscay Marine Energy Platform (BIMEP) deitutakoan, sare adimendunetako sektorearen dinamizazioa, ibilgailu elektrikoa eta gas naturalaren esplorazioa Araban.

Euskal Herriak oinarritzko abiapuntu sendoa du, gutxi gorabehera 350 enpresa dituelako energian espezializatutako profil handiarekin. Enpresa-masa hori energia-eremuan esperientzia duen eta gaituta dagoen sare zientifiko/teknologikoak osatzen du. Sare horretan parte hartzen dute Tecnalia eta IK4 teknologia-korporazioek, CICek (Ikerketa Kooperatiboko Zentroa), EnergiGunek (energia-biltegitratzearen oinarritzko ikerketara bideratua), Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU), Deustukoak, Mondragon Unibertsitateak eta Tecnuneak, baita enpresa-talde nagusien I+Gko hamar bat unitatek ere.

15,4 milioi euroko inbertsioa bideratu da Armintzan (Bizkaia) dagoen Biscay Marine Energy Platform (BIMEP) proiektura. Plataforma berria lehenengo "off shore" plataforma da (itsasoan, itsasaldetik urrun). Mutrikuko marea-energiako planta energia elektrikoa sortzeko olatuen energia aprobetxatzen duen Europako lehen plana komertziala da. Plataforma hori sare elektriko orokorrera lotuta dago, eta elektrizitatea sortzen du, elektrizitate hori sarera zuzenean injeztatzen da kontsumorako erabiltzeko.

Beste proiektu traktore garrantzitsu bat ibilgailu elektrikoa sartzea da. Helburua zera da, 2020. urtean zirkulazioan dauden 41.000 ibilgailu elektrikoko parkea izatea Euskadin, ibilgailuak kargatzeko 7.000-13.000 gunek osatzen duten sarea duela. Gaur egun ibilgailuak kargatzeko 100 gunetik gora daude hiru herrialdeetan, eta 2012an ibilgailu elektrikoa alokatzeko lehen zerbitzua inauguratu zen.

Mercedsekiko eta Repsolekiko lankidetzak publiko/pribatua funtsezkoa da proiektua hau garatzeko. Mercedsekiko lankidetzaren ondorioz, serieko lehen furgoneta, mundu osoan lehena, egin da Mercedsek Gasteizen duen faktorian, eta Repsolekin elkartuta IBIL sortu da, ibilgailu elektrikoak kargatzeko kudeatzaile gisa jarduten duen enpresa. Ibilgailuak kargatzeko guneen azpiegitura IBIL bidez jartzearen aldeko apusturako 2 milioiko inbertsioa egin da. IBIL REPSOLen eta EEERen artean, %50ean, sortutako sozietatea da.

Sare adimendunen garapena energia-sektorearen beste proiektu traktore bat da. Sare horiek hornidura elektrikoaren kalitatea hobetzen dute, urrutiko zerbitzuak ematea eta gorabeheren iraupena murriztea ahalbidetzen dutelako, eta, gainera, erabiltzaileek beren datuak denbora errealean jakin ditzaketelako, kontsumoa kontrolatzeko. Euskadin ekimen aitzindari bat garatzen ari dira Eusko Jaurlaritzak, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) bitartez, eta Iberdrola, Bidelek Sareak erakundearen sorrerarekin, 1.100 transformazio-zentro baino gehiago egokituko baitira, horiei abangoardiako ekipo elektronikoak txertatuz, eta 410.000 biztanleri zerbitzua ematen dieten 230.000 kontagailu baino gehiago berrituko baitira Bilbo eta Portugaleteko zonan.

La apuesta por la investigación en materia de energía se materializa con una dotación de 20 millones de euros dirigidos a proyectos de I+D+i y al desarrollo de proyectos singulares tractores del desarrollo tecnológico, que son: la infraestructura tecnológica singular en energía marina denominado Biscay Marine Energy Platform (BIMEP), la dinamización del sector en redes inteligentes, el vehículo eléctrico y la exploración de gas natural en Álava.

El País Vasco cuenta con una sólida base de partida, ya que existen alrededor de 350 empresas con elevado perfil de especialización en energía. Esta masa empresarial se completa con una red científico-tecnológica experimentada y cualificada en el ámbito energético de la que forman parte las corporaciones tecnológicas Tecnalia e IK4, el CIC (Centro de Investigación Cooperativa) EnergiGune, enfocado a la investigación básica en almacenamiento de energía, las Universidades del País Vasco (UPV-EHU), Deusto, Mondragón y Tecnun, así como una decena de unidades de I+D de los principales grupos empresariales.

Se destina una inversión de 15,4 millones de euros al proyecto Biscay Marine Energy Platform (BIMEP), situado en Armintza (Bizkaia). La nueva plataforma es la primera plataforma "off shore" (en el mar, alejada de la costa). La planta maremotriz de Mutriku es la primera planta europea comercial que aprovecha la energía de las olas para generar energía eléctrica. Esta plataforma se encuentra conectada a la red eléctrica general y produce electricidad que inyecta directamente a la red para su consumo.

Otro importante proyecto tractor es la introducción del vehículo eléctrico. Se pretende que en 2020 haya en Euskadi un parque de 41.000 vehículos eléctricos en circulación asistido de una red de recarga de entre 7.000 y 13.000 puntos. En la actualidad existen más de 100 puntos de recarga repartidos por los tres territorios y en 2012 se inauguró el primer servicio de alquiler de vehículo eléctrico.

1	3	1	2		Garapen Lankidetzak Cooperación al Desarrollo
1	4				JUSTIZIA JUSTICIA
1	4	1			Justizia Justicia
1	4	1	1		Justizi Administrazioa Administración de Justicia
1	4	1	2		Justizia Justicia
2					HERRI BABESA ETA HERRITARREN SEGURTASUNA PROTECCIÓN CIVIL Y SEGURIDAD CIUDADANA
2	2				HERRI SEGURTASUNA ETA BABESA SEGURIDAD Y PROTECCIÓN CIVIL
2	2	1			Segurtasun eta Herri Babeseko Adm.Orokorra Admón. General de Seguridad y Protección Civil
2	2	1	1		Segurtasuna. Egitura eta Laguntza Estructura y Apoyo de Seguridad
2	2	2			Segurtasuna Seguridad
2	2	2	1		Trafikoa Tráfico
2	2	2	3		Ertzaintza Zerbitzuan Ertzaintza en Servicio
2	2	2	4		Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Academia Vasca de Policía y Emergencias
2	2	3			Herri Babesa Protección Civil
2	2	3	1		Larrialdiei aurre egitea Atención de Emergencias
3					GIZARTE SEGURTASUNA, BABESA ETA SUSTAPENA SEGURIDAD, PROTECCIÓN Y PROMOCIÓN SOCIAL
3	1				GIZARTE SEGURTASUNA ETA BABESA SEGURIDAD Y PROTECCIÓN SOCIAL
3	1	1			Administrazio Orokorra, Segurtasuna Administración General, Seguridad
3	1	1	1		Enplegua eta Gizarte Polit. Egitura eta Laguntza Estructura y Apoyo de Empleo y Políticas Sociales
3	1	1	2		Lana Trabajo
3	1	1	3		Laneko Segurtasuna eta Osasunbidea Seguridad y Salud Laborales
3	1	2			Gizarte Ekintza Acción Social
3	1	2	1		Gizarteratzea Inclusión Social
3	1	2	2		Inmigrazioa Inmigración
3	1	2	3		Gizarte Zerbitzuak Servicios Sociales
3	1	2	4		Familia eta Komunitate Politika Política Familiar y Comunitaria
3	1	3			Lan Harremanak Relaciones Laborales
3	1	3	1		Gizarte Solaskidetzaren Garapena Desarrollo de la Interlocución Social

FUNTZIO TALDEA GRUPO FUNCIONAL	FUNTZIOA FUNCION	AZPIFUNTZIOA SUBFUNCION	PROGRAMA PROGRAMA	AZPIPROGRAMA SUBPROGRAMA	
3	2				GIZARTE SUSTAPENA <i>PROMOCIÓN SOCIAL</i>
3	2	1			Enplegu Sustapena <i>Promoción del Empleo</i>
3	2	1	1		Enplegua <i>Empleo</i>
3	2	1	2		Gizarte Ekonomia <i>Economía Social</i>
3	2	1	3		Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua <i>Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi</i>
3	2	2			Gizarte eta Kultur Sustapena <i>Promoción Socio-Cultural</i>
3	2	2	1		Emakumeen Aukera Berdintasuna Sustatzea <i>Promoción de Igualdad Oportunidades para la Mujer</i>
3	2	2	2		Gazteria <i>Juventud</i>
3	2	2	3		Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea <i>Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer</i>
3	2	3			Aratu Gabeko Lanbide Heziketa <i>Formación Profesional no reglada</i>
3	2	3	1		Prestakuntza <i>Formación</i>
4					IZAERA SOZIALEKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA PRODUCCIÓN DE BIENES PÚBLICOS DE CARÁCTER SOCIAL
4	1				OSASUNA <i>SANIDAD</i>
4	1	1			Osasuna <i>Sanidad</i>
4	1	1	1		Osasuna. Egitura eta Laguntza <i>Estructura y Apoyo de Salud</i>
4	1	1	2		Osasun Finantzaketa eta Kontratazioa <i>Financiación y Contratación Sanitaria</i>
4	1	1	3		Osasun Publikoa <i>Salud Pública</i>
4	1	1	4		Osasun Ezagutzaren Kudeaketa eta Ebaluazioa <i>Gestión del Conocimiento y Evaluación Sanitaria</i>
4	1	1	5		Farmazia <i>Farmacia</i>
4	1	1	6		Drogamendekotasunak <i>Drogodependencias</i>
4	2				HEZKUNTZA <i>EDUCACIÓN</i>
4	2	1			Hezkuntzako Administrazio Orokorra <i>Administración General de Educación</i>
4	2	1	1		Hezkuntza. Egitura eta Laguntza <i>Estructura y Apoyo de Educación</i>
4	2	2			Irakaskuntza <i>Enseñanza</i>
4	2	2	1		Haur eta Lehen Hezkuntza <i>Educación Infantil y Primaria</i>
4	2	2	2		Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa <i>Educación Secundaria y Formación Profesional</i>
4	2	2	3		Unibertsitateko Irakaskuntza <i>Enseñanza Universitaria</i>
4	2	2	4		Araubide Bereziko Irakaskuntzak <i>Enseñanzas de Régimen Especial</i>
4	2	2	5		Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prest <i>Innovación Educ. y Form. Perman. del Profesorado</i>
4	2	2	6		Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza <i>Aprendizaje Permanente y Ed. Personas Adultas EPA</i>
4	2	3			Hezkuntza Sustapena <i>Promoción Educativa</i>

FUNTZIO TALDEA GRUPO FUNCIONAL	FUNTZIOA FUNCION	AZPIFUNTZIOA SUBFUNCION	PROGRAMA PROGRAMA	AZPIPROGRAMA SUBPROGRAMA	
4	2	3	1		Hezkuntza Sustapena <i>Promoción Educativa</i>
4	2	4			Kirol Irakaskuntzak <i>Enseñanzas Deportivas</i>
4	3				ETXEBIZITZA ETA HIRIGINTZA <i>VIVIENDA Y URBANISMO</i>
4	3	1			Etxebizitza eta Hirigintza <i>Vivienda y urbanismo</i>
4	3	1	2		Etxebizitza <i>Vivienda</i>
4	3	1	3		Lurralde Antolamendua <i>Ordenación Territorial</i>
4	4				GIZARTE ONGIZATEA <i>BIENESTAR COMUNITARIO</i>
4	4	2			Ingurumenaren Babesa <i>Protección del Medio Ambiente</i>
4	4	2	0		Ingurumena eta Lurralde Pol. Egitura eta Laguntza <i>Estructura y Apoyo de Medio Ambiente y Pol.Territ</i>
4	4	2	1		Ingurumenaren Babesa <i>Protección del Medio Ambiente</i>
4	4	3			Gizarte Ongizateko Beste Zerbitzu Batzuk <i>Otros Servicios de Bienestar Comunitario</i>
4	4	3	1		Kontsumoa <i>Consumo</i>
4	4	3	2		Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua <i>Kontsumobide-Instituto Vasco de Consumo</i>
4	5				KULTURA <i>CULTURA</i>
4	5	1			Kultura <i>Cultura</i>
4	5	1	1		Hizk. Pol./Kultura. Egitura eta Laguntza <i>Estructura y Apoyo de Polit. Ling. y Cultura</i>
4	5	1	2		Kirolak <i>Deportes</i>
4	5	1	3		Kulturaren Sustapena <i>Promoción de la Cultura</i>
4	5	1	4		Ondare Historiko Artistikoa <i>Patrimonio Histórico Artístico</i>
4	5	1	5		Gizarte Hedabideak <i>Medios de Comunicación Social</i>
4	6				KOMUNITATE ETA GIZARTE ZERBITZUAK <i>OTROS SERVICIOS COMUNITARIOS Y SOCIALES</i>
4	6	1			Herritarren Parte Hartzea <i>Participación Ciudadana</i>
4	6	1	1		Hauteskundeak <i>Procesos Electorales</i>
4	6	2			Bestelako komunitate gaiak <i>Asuntos comunitarios</i>
4	6	2	1		Justizia eta Giza Eskubideak <i>Justicia y Derechos Humanos</i>
4	7				EUSKARAREN SUSTAPENA <i>PROMOCIÓN DEL EUSKERA</i>
4	7	1			Euskararen Sustapena <i>Promoción del Euskera</i>
4	7	1	1		Hizkuntza Politika <i>Política Lingüística</i>
4	7	1	2		Administrazio Publikoaren Hizkuntza Normalkuntza <i>Normalización Lingüística de la Admón. Pública</i>
4	7	1	3		Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erak <i>Inst. Alfabetización y Reeskaldunización Adulto</i>
4	7	1	4		Euskalduntzea eta Hizkuntza Normalkuntza <i>Euskaldunización y Normalización Lingüística</i>

FUNTZIO TALDEA GRUPO FUNCIONAL	FUNTZIOA FUNCION	AZPIFUNTZIOA SUBFUNCION	PROGRAMA PROGRAMA	AZPIPROGRAMA SUBPROGRAMA	
4	7	1	5		Hezkuntza Sistemaren Euskalduntzea <i>Euskaldunización del Sistema Educativo</i>
5					EKONOMIAZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA PRODUCCIÓN BIENES PÚBLICOS DE CARÁCTER ECONÓMICO
5	1				OINARRIZKO AZPIEGITURAK ETA GARRAIOA <i>INFRAESTRUCTURAS BÁSICAS Y TRANSPORTES</i>
5	1	1			Herrilan eta Garraioetako Adm. Orok. <i>Administración General de Obras Públicas y Trans.</i>
5	1	2			Baliabide Hidraulikoak <i>Recursos Hidráulicos</i>
5	1	2	1		Uraren Plangintza eta Administrazioa <i>Planificación y Administración Hidráulica</i>
5	1	3			Trenbide-garraioaren Azpiegitura <i>Infraestructura del Transporte Ferroviario</i>
5	1	3	1		Trenbideak <i>Ferrocarriles</i>
5	1	3	3		Bilboko Hiri Trenbidea (BHT) <i>Ferrocarril Metropolitano Bilbao (FMB)</i>
5	1	3	4		EAE-KO Trenbide Sare Berria-Berezko Finantzazioa <i>Nueva Red Ferroviaria en la CAE-Finan. Propia</i>
5	1	3	5		EAE-KO Trenbide Sare Berria-Kudeaketa Kredituak <i>Nueva Red Ferroviaria en la CAE-Créditos Gestión</i>
5	1	4			Bide Azpiegitura eta Lurreko Garraioa <i>Infraestructura Viaria y Transporte Terrestre</i>
5	1	4	1		Bide-azpiegituren Plangintza eta Sustapena <i>Planificación y Fomento de Infraestructura Viaria</i>
5	1	4	2		Garraioaren Antolamendua <i>Ordenación del Transporte</i>
5	1	5			Portuak eta Itsas Garraioa <i>Puertos y Transporte Marítimo</i>
5	1	5	1		Portu eta Aireportuak <i>Puertos y Aeropuertos</i>
5	2				KOMUNIKAZIOAK <i>COMUNICACIONES</i>
5	2	1			Komunikazioak <i>Comunicaciones</i>
5	2	1	1		Euskadi Informazioaren Gizartean Plana <i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información</i>
5	3				NEKAZARITZAKO AZPIEGITURAK <i>INFRAESTRUCTURAS AGRARIAS</i>
5	3	1			Nekazaritzako azpiegiturak <i>Infraestructuras Agrarias</i>
5	4				IKERKETA ZIENTIFIKOA, TEKNIKOA ETA APLIKATUA <i>INVESTIGACIÓN CIENTÍFICA, TÉCNICA Y APLICADA</i>
5	4	1			Ikerketa Zientifikoa, Teknikoa eta Aplikatua <i>Investigación científica, técnica y aplicada</i>
5	4	1	1		Nekazaritza eta Arrantza Alorreko Iker. eta Garap <i>Investigación y Desarrollo Agropesquero</i>
5	4	1	2		Ikerketa <i>Investigación</i>
5	4	1	3		Teknologia <i>Tecnología</i>
5	4	1	4		Berrikuntzarako Funtza <i>Fondo de Innovación</i>
5	5				OINARRIZKO INFORMAZIOA ETA ESTADISTIKOA <i>INFORMACIÓN BÁSICA Y ESTADÍSTICA</i>
5	5	1			Oinarrizko Informazioa eta Estatistikoa <i>Información Básica y Estadística</i>
5	5	1	1		Estatistika <i>Estadística</i>
5	5	1	2		Meteorologia eta Klimatologia <i>Meteorología y Climatología</i>

FUNTZIO TALDEA GRUPO FUNCIONAL	FUNTZIOA FUNCION	AZPIFUNTZIOA SUBFUNCION	PROGRAMA PROGRAMA	AZPIPROGRAMA SUBPROGRAMA	
5	5	1	3		Estatistikako Eragiketa eta Argitalpen Ofizialak <i>Operaciones y Publicaciones Estadísticas Oficiales</i>
6					EKONOMIA-ARAUKETA OROKORRA REGULACIÓN ECONÓMICA DE CARÁCTER GENERAL
6	1				EKONOMIA-ARAUKETA <i>REGULACIÓN ECONÓMICA</i>
6	1	1			Ekonomi Arauketa <i>Regulación Económica</i>
6	1	1	0		Ogasuna eta Finantzak. Egitura eta Laguntza <i>Estructura y Apoyo de Hacienda y Finanzas</i>
6	1	1	1		Ekonomia eta Gastu Publikoa <i>Economía y Gasto Público</i>
6	1	1	2		Zerga-politika <i>Política Fiscal</i>
6	1	1	3		Joko eta Ikuskizunak <i>Juego y Espectáculos</i>
6	1	1	4		Ondare eta Kontratazioa <i>Patrimonio y Contratación</i>
6	1	1	5		Lehiaren Euskal Agintaritza <i>Autoridad Vasca de la Competencia</i>
6	3				FINANTZA-ARAUKETA REGULACIÓN FINANCIERA
6	3	1			Finantza-arauketa <i>Regulación Financiera</i>
6	3	1	1		Finantza-Politika <i>Política Financiera</i>
7					EKOIZPEN-SEKTOREEN ARAUTZE EKONOMIKOA REGULACIÓN ECONÓMICA DE SECTORES PRODUCTIVOS
7	1				NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA <i>AGRICULTURA, GANADERÍA Y PESCA</i>
7	1	1			Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza <i>Agricultura, Ganadería y Pesca</i>
7	1	1	1		Nekazaritza, eta Landaren eta Itsasertzen gar. <i>Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral</i>
7	1	1	2		Arrantza <i>Pesca</i>
7	1	1	3		Elikagaien Sustapena eta Kalitatea <i>Promoción y Calidad Alimentaria</i>
7	2				INDUSTRIA INDUSTRIA
7	2	1			Industria <i>Industria</i>
7	2	1	1		Ekon. Garapena eta Lehiakor. Egitura eta Laguntza <i>Estructura y Apoyo de Desarrollo Económico y Comp</i>
7	2	1	2		Industria Garapena eta Ekintzaileen Laguntza <i>Desarrollo Industrial y Apoyo a Emprendedores</i>
7	2	1	3		Industria Segurtasuna <i>Seguridad Industrial</i>
7	2	1	4		Berrikuntza eta Lehiakortasun Estrategia <i>Innovación y Estrategia de Competitividad</i>
7	3				ENERGIA ENERGÍA
7	3	1			Energia <i>Energía</i>
7	3	1	1		Energia eta Meatze Politika eta Garapena <i>Política y Desarrollo Energético y Minero</i>
7	4				MEATZARITZA MINERÍA
7	4	1			Meatzaritza <i>Minería</i>
7	5				TURISMOA TURISMO

FUNTZIO TALDEA GRUPO FUNCIONAL	FUNTZIOA FUNCION	AZPIFUNTZIOA SUBFUNCION	PROGRAMA PROGRAMA	AZPIPROGRAMA SUBPROGRAMA	
7	5	1			Turismoa <i>Turismo</i>
7	5	1	1		Turismoa <i>Turismo</i>
7	6				MERKATARITZA <i>COMERCIO</i>
7	6	1			Merkataritza <i>Comercio</i>
7	6	1	2		Barne Merkataritza <i>Comercio Interior</i>
7	6	1	3		Nazioartekotzea <i>Internacionalización</i>
9					BESTE ADM. PUBLIKO BATZUEKIKO FINANTZA-HARREMANAK RELACIONES FINANCIERAS CON OTRAS ADMONES. PUBLICA
9	1				EUSKAL ALOR PUBLIKOAREKIKO FINANTZA-HARREMANAK <i>RELACIONES FINANCIERAS CON EL SECTOR PUBLICO VASC</i>
9	1	1			Euskal Alor Publikoarekiko finantza-harremanak <i>Relaciones Financieras con el Sector Público Vasc</i>
9	1	1	1		Foru Aldundien Ekarpinak <i>Aportaciones de las Diputaciones Forales</i>
9	1	1	9		Bestelako Finantza-harr.,Euskal Alor Publikoareki <i>Otras Relaciones Financieras con Sec. Públi. Vasc</i>
9	2				ESPAINAKO ALOR PUBLIKOAREKIKO FINANTZA-HARREMANAK <i>RELACIONES FINANCIERAS CON SECTOR PÚBLICO ESPAÑOL</i>
9	2	1			Espainiako Alor Publikoarekiko finantza-harremana <i>Relaciones Financieras con Sector Público Español</i>
9	2	1	1		Espainiako Alor Publikoarekiko finantza-harremana <i>Relaciones Financieras con Sector Público Español</i>
9	3				ATZERRIKO ALOR PUBLIKOAREKIKO FIANTZA-HARREMANAK <i>RELACIONES FINANCIERAS CON SECTOR PÚBLICO EXTERIO</i>
9	3	1			Europako Batasunarekiko finantza-harremanak <i>Relaciones Financieras con la Unión Europea</i>
9	3	1	1		Europako Batasunarekiko finantza-harremanak <i>Relaciones Financieras con la Unión Europea</i>
9	3	9			Atzerriko beste Alor Publiko batetiko finantza-ha <i>Relaciones Financieras con otro Sec. Pú. Exterior</i>
9	3	9	9		Atzerriko beste Alor Publiko batekiko finantza-ha <i>Relaciones Financieras con otro Sec. Pú. Exterior</i>



www.euskadi.net/presupuestos

2013

**EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOAREN
AURREKONTU
OROKORRAK**

PRESUPUESTOS
GENERALES
DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA
DE EUSKADI

TEMÁTICA GENERAL

1

GAI OROKORRAK

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

2013

PROIEKTUA
PROYECTO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

GAI OROKORRAK



TEMÁTICA GENERAL

EKONOMIA- ETA FINANTZA-TXOSTENA • INFORME ECONÓMICO-FINANCIERO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

2013

PROIEKTUA
PROYECTO

**EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOAREN
AURREKONTU
OROKORRAK**

PRESUPUESTOS
GENERALES
DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA
DE EUSKADI

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

Ekonomia- eta Finantza-txostena *Informe Económico-Financiero*

2 Alea
Tomo 2

Aurkibidea / Índice :

1.	EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA.....	1
	<i>LA COYUNTURA ECONÓMICA EN SÍNTESIS</i>	
2.	EAE-KO EKONOMIA 2011KO BIGARREN HIRUHILEKOA.....	9
	<i>LA ECONOMÍA VASCA EN EL SEGUNDO TRIMESTRE DE 2011</i>	
2.1.	EAEko Ekonomiaren Testuingurua.....	11
	<i>Contexto de la Economía Vasca</i>	
2.2.	Ekoiizpena eta Eskaria.....	19
	<i>Producción y Demanda</i>	
2.2.1.	Ekoiizpen jarduera.....	23
	<i>Actividad Productiva</i>	
2.2.2.	Eskariaren osagaiak.....	29
	<i>Agregados de la demanda</i>	
2.2.3.	Kanpo saldoa eta lehiakortasuna.....	35
	<i>Saldo exterior y competitividad</i>	
2.2.4.	Lan merkatua.....	43
	<i>Mercado de trabajo</i>	
2.2.5.	Prezioak, kostuak eta soldatak.....	51
	<i>Precios, costes y salarios</i>	
2.2.6.	Arlo publikoa.....	59
	<i>Sector público</i>	
2.2.7.	Finantza arloa.....	65
	<i>Sector financiero</i>	
2.2.8.	Kreditu Sistema.....	73
	<i>Sistema Crediticio</i>	
3.	EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK.....	79
	<i>PREDICCIONES ECONÓMICAS PARA EL PAÍS VASCO Y SU ENTORNO</i>	
3.1.	Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak.....	81
	<i>Panel de predicciones para el entorno exterior</i>	
3.2.	EAErako aurreikuspenak epe laburrean.....	91
	<i>Predicciones a corto plazo para la economía vasca</i>	

2013

Proiektua
Proyecto

Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak
Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi



1. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA
LA COYUNTURA ECONÓMICA EN SÍNTESIS

2012ko hirugarren hiruilekoan, EAEko ekonomiak urte arteko jaitsiera erritmoa areagotu zuen eta $-1,3\%$ ko tasa bat jaso zuen, dagoeneko hiru hiruilekoz jarraian beherakadak bilduz. Aurreko hiruilekoaren aldean, estimatu den balioak ($-0,4\%$) aurreko emaitza berdindu du eta laugarren datu negatibo jarraitua da. Beheranzko erritmoan leuntze arina hauteman den arren, gogoratu behar da BEZ zergaren tipoak irailetik aurrera igo zirelako iragarpenak hainbat erosketa uztaileta eta abuztura aurreratzea eragin zuela. Beraz, oso litekeena da laugarren hiruilekoan EAEko ekonomiaren narriadura areagotzea, bereziki kontsumo pribatuarena. Hala ere, konpentsazio txiki bat lortuko da kanpo eskariaren ekarpena apur bat handiagoa izango delako, inportatutako ondasunak, proportzioz, gehiago murriztuko direlako.

En el tercer trimestre de 2012, la economía vasca acentuó su caída interanual y registró una tasa del $-1,3\%$, con la que encadena ya tres trimestres de descensos. Respecto al trimestre anterior, el valor estimado ($-0,4\%$) iguala el dato precedente y anota su cuarto signo negativo consecutivo. A pesar de que se aprecia una ligera suavización en el ritmo de caída, conviene recordar que el anuncio del aumento de los tipos del IVA a partir de septiembre favoreció el adelantamiento de algunas compras a los meses de julio y agosto. Por ello, es muy probable que en el cuarto trimestre se agudice el deterioro de la economía vasca, en especial de su consumo privado, aunque ello tendrá una ligera compensación por una mayor aportación de la demanda externa, al reducirse en mayor proporción las cantidades de bienes importados.

EAEko ekonomia. BPGren bilakaera

Economía vasca. Evolución del PIB

Urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.
Urte arteko aldakuntza tasak.

Serie corregida de estacionalidad y de calendario.
Tasas de variación interanual.



Iturria: Eustat.

Fuente: Eustat

Alderaketak eginez, EAEko ekonomiak Europako batez bestearena ($-0,4\%$) baino emaitza txarragoa jaso zuen, baina Espainiarena ($-1,6\%$) baino zertxobait hobea. Hala eta guztiz ere, azken urtebetearen bilakaera modu zehatzago batean aztertzen denean, agerian geratzen da EAEko BPGak izan duen moteltzea Europako gainontzeko herrialdeenaren antzekoa izan dela. Izan ere, erritmo galera EAEn 1,9 puntukoa izan da ($0,6\%$ tik $-1,3\%$ ra) azken urtebetean eta Europar Batasunean, berriz, 1,8 puntura iritsi da moteltzea. Orobat, Alemaniak ere antzeko neurrian leundu du bere hazkundea (1,8 puntu), baina herrialde horrek ez ditu tasa positiboak galdu azken hiruilekoetan.

En términos comparativos, la economía vasca obtuvo un resultado ($-0,4\%$) sensiblemente peor al de la media europea, aunque algo mejor ($-1,6\%$) que el conjunto de España. Sin embargo, un análisis más detallado de la evolución en el último año sugiere que la desaceleración sufrida por el PIB vasco es similar a la del resto de países europeos. Así, la pérdida de ritmo en Euskadi ha sido de 1,9 puntos en el último año (ha pasado del $0,6\%$ al $-1,3\%$), mientras que en la Unión Europea la moderación ha alcanzado los 1,8 puntos. Igualmente, Alemania también ha suavizado su crecimiento en un orden similar (1,8 puntos), aunque este país no ha abandonado las tasas positivas en ningún trimestre.

Barne Productu Gordina

Urte arteko aldakuntza tasak

Producto Interior Bruto

Tasas de variación interanual

	2010	2011	2011		2012			
			III	IV	I	II	III	
Europar Batasuna 27	2,1	1,5	1,4	0,8	0,1	-0,3	-0,4	Unión Europea 27
EAE	0,3	0,6	0,6	0,2	-0,3	-0,9	-1,3	País Vasco
Espainia	-0,3	0,4	0,6	0,0	-0,7	-1,4	-1,6	España
Alemania	4,2	3,0	2,7	1,9	1,2	1,0	0,9	Alemania
Frantzia	1,7	1,7	1,5	1,2	0,2	0,1	0,0	Francia
Italia	1,8	0,4	0,4	-0,5	-1,4	-2,4	-2,4	Italia
Erresuma Batua	1,8	0,9	0,7	0,9	0,2	-0,3	0,0	Reino Unido
AEB	2,4	1,8	1,6	2,0	2,4	2,1	2,6	Estados Unidos
Japonia	4,7	-0,6	-0,5	0,0	3,3	4,0	0,5	Japón
Txina	10,4	9,2	9,7	9,1	8,1	7,6	7,4	China
India	10,8	7,1	7,5	6,2	5,2	3,9	3,2	India
Errusia	4,3	4,3	5,3	4,9	4,5	4,2	3,4	Rusia
Brasil	7,5	2,7	2,3	1,4	0,7	0,4	1,0	Brasil

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

Nota: Series corregidas de estacionalidad y efecto calendario.

Fuente: FMI, The Economist, OCDE, Eustat y Eurostat.

Beste herrialde garatu batzuk europar ekonomiek bizi duten moteltze horretatik aldendu dira. Hain zuzen ere, AEBek beste urrats bat eman zuten suspertzeko joeran, bertako BPGa %2,6 gehituz urte arteko tasan. Eraitza hori azken urteetako baliorik gorena da. Kontsumo pribatuaren hazkunde egonkorra eta inbertsioaren bultzada sendoa daude gorakada berri horren atzetan. Japoniak, berriz, ezin izan zituen urteko lehen erdian lortu zituen eraitza bikainak berritu eta %0,5 baino ez zen hazi. Bilakaera horien ondorioz, zazpi herrialde garatuaren multzoa %1,4 hazi zen hirugarren hiruhilekoan. Tasa hori nahiko egonkorra da eta bakarrik lehen bi hiruhilekoetan lortu zen eraitza handiago bat, Japonia berriro eraikitze bultzadari esker.

Azaleratzen ari diren herrialdeetan ere hazkunde erritmoa moteldu dela hautematen da, baina gehienek urte arteko aldakuntza tasa garrantzitsuak lortu zituzten oraindik. Esate baterako, Txinak %7,4ko gehikuntza tasa jaso zuen, hots, aurreko hiruhilekoan baino bi hamarren bakarrik gutxiago. Beraz, badirudi apaltzeko joera amaitzen ari dela ekonomia horretan. Erritmo galera biziagoa izan da Indian eta Errusian (%3,2 eta %3,4, hurrenez hurren), nahiz eta ezuste handiena Brasilek eman zuen, aurreikuspenek bestela iragarri zuten arren, hirugarren hiruhilekoan ezin izan zuelako %1,0 gaintu.

Otros países desarrollados se han desmarcado de esa desaceleración de los países europeos, de manera que Estados Unidos dio otro paso en su tendencia a la recuperación, al incrementar su PIB un 2,6% en tasa interanual, el mayor avance de los dos últimos años. La estabilidad en el crecimiento del consumo privado y el fuerte impulso de la inversión se encuentran detrás de este renovado impulso. Por su parte, Japón no pudo repetir los excelentes resultados de la primera mitad del año y tan solo alcanzó un 0,5% de crecimiento. Como resultado de estas evoluciones, el conjunto de los siete países más desarrollados alcanzó un crecimiento del 1,4%, un valor relativamente estable que tan solo había aumentado temporalmente gracias al impulso de reconstrucción de Japón en los dos primeros trimestres del año.

En los países emergentes también se aprecia un menor impulso, aunque la mayoría de ellos todavía consigue tasas de variación interanual importantes. Así, China registró un incremento del 7,4%, tan solo dos décimas por debajo del valor precedente, con lo que parece estar llegando al final de su proceso de desaceleración. Más acusada ha sido la moderación en India y Rusia (3,2% y 3,4%, respectivamente), aunque la mayor sorpresa la protagonizó Brasil, que, en contra de las previsiones, tampoco en el tercer trimestre pudo superar el 1,0%.

Munduko ekonomia. BPGren eta nazioarteko merkataritzaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

Economía mundial. Evolución del PIB y del comercio internacional
Tasa de variación interanual

Munduko BPG



PIB mundial

Nazioarteko merkataritza indizea: 2005eko I=100




Índice de comercio internacional. 1º trimestre 2005 = 100

Zazpi ekonomia garatu nagusien BPG



PIB de las siete mayores economías desarrolladas

Txina, India, Errusia eta Brasileko BPG



PIB de China, India, Rusia y Brasil

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eurostat, ELGE, The Economist eta Munduko Merkataritza Antolakundearen datuak erabili.

Fuente: Dirección de Economía y Planificación con datos del Eurostat, OCDE, The Economist y de la Organización Mundial del Comercio.

Oro har, munduko ekonomiak berriro jaso zuen aurreko hiruhilekoko baina gehikuntza tasa txikiago bat eta horrek eragina izan zuen nazioarteko merkataritzaren bilakaeran, termino nominaletan eta dolarretan neurtuta %4,2 egin zuelako behera. Hala eta guztiz ere, termino errealetan aurrerapen txiki bat lortu zen (%1,4), nahiz eta aurreko epealdietakoa baino askoz apalagoa izan zen. Hala balio nominaletan nola errealetan, Europako salmenten bilakaera munduko batez bestea baino okerragoa izan zen. Dena dela, bizitasunaren galera hori Europar Batasunean bertan gertatu da, eremu horretatik kanpo egin diren salmentek bilakaera ona izan zutelako, bereziki bolumenean (%4,9). Europako diruaren balio galera eta merkatu berriak bilatzeko beharra dira kanpoko bultzada horren arrazoi batzuk.

En conjunto, la economía mundial volvió a registrar un incremento inferior al del trimestre anterior y esto tuvo su reflejo en la evolución del comercio internacional, que se contrajo un 4,2% en términos nominales y valorado en dólares. No obstante, en términos reales sí se produjo un ligero avance (1,4%), aunque sensiblemente menor a los de los periodos anteriores. Tanto en valores nominales como reales, la evolución de las ventas europeas fue sensiblemente peor que la media mundial. Sin embargo, esta pérdida de dinamismo está concentrada en la propia Unión Europea, puesto que las ventas fuera del territorio evolucionaron favorablemente, especialmente en volumen (4,9%). La pérdida de valor de la moneda europea y la necesidad de buscar mercados alternativos son algunas de las razones de ese impulso exterior.

Petrolioaren prezioaren eta truke tasaren bilakaera

Evolución del precio del petróleo y del tipo de cambio

Brent upelaren prezioa eurotan

Precio del barril tipo Brent en euros

Dolarrak euroko

Dólares por euro



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Fuente: Ministerio de Economía y Hacienda.

Moteltzeko testuinguru nahiko orokor horretan, EAEko ekonomiak %1,3 gutxitu zuen bere barne produktu gordina urte arteko tasan, aurreko hiruhilabeteko narriadura erritmoari lau hamarren gehituz. Osagai handien arabera, barne eskariak hamarren batzutan murriztu zuen jaitsiera, bere tasa %-2,1ean kokatu arte. Hobekuntza txiki hori kontsumo pribatua gutxiago jaitsi zelako gertatu zen, BEZak irailean izango zuen igoera saihesteko erosketa batzuk aurreratu zirelako. Orobat, kapital eraketa gordinaren beherakada leundu izanak ere lagundu zuen, nahiz eta osagai horrek oraindik bilakaera negatiboena erakusten duen. Administrazio publikoetako kontsumoak, berriz, uzkurdura erritmoa areagotu zuen %-3,0 jaso arte, arlo publikoan ezartzen ari diren langileak eta funtzionamenduko gastuak murrizteko politiken ondorioz.

BPGaren gehikuntzari egin zion ekarpen positibo bakarra kanpo arlotik etorri zen berrito, esportazioek hirugarren hiruhilekoan atzerakada garrantzitsua pairatu zuten arren. Hain zuzen ere, Eustaten estimazioak %-7,7an kokatzen du kanpora (atzerriera eta Estatuko gainontzeko erkidegoetara) bidalitako esportazio nominalen urte arteko tasa. Halaber, estatistika erakundeak, Aduanetako sailaren datuak erabilita, %-9,7an kokatu du atzerrian saldutako ondasunen salmenta nominala. Dena dela, ekarpen positiboa inportazioen beherakada biziaren eskutik iritsi zen, kanpo saldoa aurreko urtekoa bezain negatiboa ez izatea ahalbidetu duelako.

En este contexto de desaceleración bastante generalizada, la economía vasca redujo un 1,3% su PIB en tasa interanual, añadiendo cuatro décimas al ritmo de deterioro del trimestre anterior. Por grandes componentes, la demanda interna redujo su caída algunas décimas, hasta situar su tasa en el -2,1%. Esta ligera mejora se explica por un menor descenso del consumo privado, gracias al adelanto de algunas compras para evitar la subida del IVA de septiembre, y por una suavización en la caída de la formación bruta de capital, aunque este componente sigue ofreciendo la evolución más negativa. Por su parte, el consumo de las administraciones públicas aceleró su ritmo de contracción hasta el -3,0%, en línea con las políticas de recortes de personal y de gastos de funcionamiento que se están aplicando en el sector público.

La única contribución positiva al incremento del PIB provino, una vez más, del sector exterior, a pesar de que las exportaciones sufrieron un importante retroceso en el tercer trimestre. Efectivamente, la estimación del Eustat sitúa en el -7,7% la tasa interanual de las exportaciones nominales al exterior (extranjero y resto del Estado). Además, el instituto de estadística, con datos de Aduanas, sitúa en el -9,7% la variación de las ventas nominales de bienes al extranjero. Con todo, la contribución positiva vino del fuerte descenso de las importaciones, que permite un saldo exterior total menos negativo que el de hace un año.

EAEko ekonomiaren aldagai nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak

Economía vasca: Principales variables económicas
Tasas de variación interanual

	2010	2011	2011		2012			
			III	IV	I	II	III	
BPG erreala	0,3	0,6	0,6	0,2	-0,3	-0,9	-1,3	PIB real
Enplegua	-0,9	-0,6	-0,7	-1,3	-1,7	-2,3	-2,7	Empleo
Ekoizkortasun irabaziak	1,2	1,2	1,3	1,5	1,4	1,4	1,4	Ganancias de productividad
Langabezia tasa	9,2	10,8	10,6	11,2	12,1	11,9	11,8	Tasa de paro
Kontsumo prezioen indizea	1,7	3,1	2,9	2,7	2,0	1,9	2,5	IPC

Iturria: Eustat eta INE.

Fuente: Eustat e INE.

Eskaintzaren ikuspegitik, nekazaritzaz bestelako arlo guztiek beren balio erantsia gutxitu zuten aurreko urteko epealdi beraren aldean. Bereziki azpimarragarria da zerbitzu eta jaitziera tasa (%-0,5), 2009ko amaieratik jaso duen lehena delako. Hala merkatuko zerbitzuek nola besteek tasa negatiboak izan zituzten, baina azken hauetako jaitziera handiagoa izan zen (%-1,5). Beherakada hori 1995. urtetik, une horretan hasi baitzen serie historikoa, gertatu den bigarrena da eta alde handiz gaitu du 2011ko laugarren hiruhilekoan izan zuena (alegia, %-0,3). Horrek agerian uzten du arlo publikoan oso doikuntza gogorak egiten ari direla.

Eraikuntzak oso nabarmen murriztu zuen bere jardueraren berritza (%-5,7), baina puntu erdi batean gutxitu zuen jaitziera aurreko emaitzaren aldean. Industria, berriz, %2,7 jaitzi zen, aurreko tasetatik oso hurbil. Badirudi sektoreak hondoa jo duela oso maila negatibo batean, baina 2009ko narriadurara (%-12,7) iritsi gabe.

Ekoizpenaren jaitziera eragina utzi zuen enpleguaren galeran, urte arteko tasa %-2,7an kokatu baitzen, azken hamaika hiruhilekoetako okerrena delarik. Beraz, azken urtebetean 26.000 lanpostu galdu dira. Ekoizpenaren eta enpleguaren beharrek horiei lotutako produktibitate irabaziak %1,4ra iritsi ziren, aurreko balioetatik hurbil. Enpleguaren beharrek garrantzitsu horrek puntu bat baino zertxobait gehiago igoarazi zuen langabezia tasa urtebete bat lehenago zegoenaren aldean. Hala ere, jende askok lan merkatua utzi duenez, langabezia tasa zertxobait jaitzi da aurreko bi hiruhilekoetako emaitzen aldean. Azkenik, BEZaren tipoak igo izanak kontsumoko prezioen gorakada orokorra eragin zuen hirugarren hiruhilekoan, %2,5 arte, eta hurrengo hilekoetan inflazioa are gorago kokatu zen.

Datozen hiruhilekoetan BPGaren hiruhilabetekako bilakaeran aldaketa bat gertatuko dela espero da eta une horretan hasiko da ekonomiaren susperraldia. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren oraingo aurreikuspenak 2012ko laugarren hiruhilekoaren eta 2013ko lehenaren artean kokatzen du oraingo atzeraldiaren punturik baxuena, bi hiruhilekoetan espero den urte arteko tasa %-1,6 delarik. Susperraldia astiro mamituko dela aurreikusten da eta ez da hazkunde positiborik espero 2013ko hiruhilekoetan.

Por el lado de la oferta, todos los sectores no agrícolas redujeron su valor añadido respecto al mismo periodo del año precedente. Especialmente reseñable es el descenso del sector servicios (-0,5%), el primero que registra desde finales de 2009. Tanto los servicios de mercado como los que no se comercializan registraron tasas negativas, si bien la intensidad fue superior en estos últimos (-1,5%). Esta caída es la segunda que se produce desde 1995, año en el que se inicia la serie trimestral, y supera ampliamente la del cuarto trimestre de 2011 (-0,3%). Con ello se demuestra la intensidad con que se están llevando a cabo los ajustes en el sector público.

La construcción registró de nuevo un fuerte descenso en su actividad (-5,7%), aunque moderó en medio punto la caída del trimestre anterior. Por su parte, la industria bajó un 2,7% y se mantuvo muy cerca de la tasa precedente, en una evolución que parece estar tocado fondo en unos niveles muy negativos, pero lejos de la caída del año 2009 que fue del -12,7%.

El descenso de la producción se reflejó en una intensificación de la pérdida de empleo, cuya tasa interanual se situó en el -2,7%, la mayor de los últimos once trimestres, que deja un saldo de 26.000 puestos de trabajo perdidos en el último año. Las ganancias de productividad asociadas a esa menor actividad y empleo se situaron en el 1,4%, en línea con los valores precedentes. Ese importante descenso del empleo elevó la tasa de paro algo más de un punto respecto a la existente un año antes, aunque el fuerte abandono del mercado laboral ha permitido un ligero descenso de la tasa de paro en relación a los dos trimestres anteriores. Por último, la subida de tipos del IVA propició un incremento general de los precios de consumo del tercer trimestre hasta el 2,5%, pero que supera esa cifra en los meses siguientes.

Se espera que en los próximos trimestres se produzca un cambio de giro en la evolución trimestral del PIB, a partir del cual se inicie un proceso de recuperación de la economía. La previsión actual de la Dirección de Economía y Planificación sitúa entre el cuarto trimestre de 2012 y el primero de 2013 el punto más bajo de la actual recesión, con un valor interanual en ambos trimestres del -1,6%. Se anticipa una recuperación lenta y no se esperan crecimientos positivos en ninguno de los trimestres de 2013.

EAEko ekonomia. 2012 eta 2013ko aurreikuspenak **Economía vasca. Predicciones para 2012 y 2013**
 Urte arteko aldakuntza tasak Tasas de variación interanual

	2012		2013				2013	
	IV	2012	I	II	III	IV		
BPG erreala	-1,6	-1,1	-1,6	-1,4	-1,0	-0,3	-1,1	PIB real
BPGren deflatoea	1,1	1,1	1,2	1,4	1,8	2,1	1,6	Deflactor del PIB
Enplegua	-2,9	-2,4	-2,8	-2,2	-1,9	-1,0	-2,0	Empleo
Langabezia tasa	12,0	12,0	12,3	12,6	12,9	12,9	12,7	Tasa de paro

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Fuente: Dirección de Economía y Planificación.

Susperraldiaren gakoa kanpo arloan egongo da, barne eskariaren osagai guztiek balio negatiboak izango dituztelako aurreikuspen honetan kontuan hartu diren hiruhileko guztietan. Aldagaien beherakadak leunduko diren arren, urteko batez bestean ez da diferentzia handirik espero 2012ko emaitzen aldean. Inbertsioak bakarrik murriztuko du bere jaitsiera nabarmen, %-3,3an kokatu arte. Sektoreka, balio erantsi gordina guztietan gutxituko dela aurreikusten da, baina industriak eta eraikuntzak jaitsierak leunduko dituzte.


BPGaren murrizketa 2013an eta 2012an antzekoa izango den arren, lanpostu gutxiago galduko direla espero da, berriro asko izango badira ere (%-2,0). Hala ere, langabezia tasa %13,0ra hurbilduko da aurtengo bigarren erdian. Azkenik, prezioek gora egingo dutela aurreikusten da, EAEko eta Europako ekonomiak suspertuko diren heinean.

La clave de la recuperación se encontrará en el sector exterior, puesto que todos los componentes de la demanda interna obtendrán valores negativos a lo largo del periodo tenido en cuenta en esta previsión. Aunque las variables suavizarán sus caídas, en media anual no se esperan diferencias importantes respecto a 2012. Tan solo la inversión moderará de forma apreciable su descenso, hasta el -3,3%. Por sectores, se anticipan pérdidas de valor añadido bruto en todos ellos, aunque la industria y la construcción atemperarán sus caídas.

A pesar de que la caída del PIB en 2013 será similar a la de 2012, se prevé un menor deterioro del empleo, aunque volverá a ser importante (-2,0%). No obstante, la tasa de paro podría acercarse al 13,0% en la segunda mitad del presente año. Por último, se espera un repunte de los precios a medida que las economías vasca y europea vayan recuperándose.



2. EAE-KO EKONOMIA 2011KO BIGARREN HIRUHILEKOA
LA ECONOMÍA VASCA EN EL SEGUNDO TRIMESTRE
DE 2011



2.1. EAEko Ekonomiaren Testuingurua
Contexto de la Economía Vasca



2012. urtean zehar, munduko ekonomiaren hazkundera motelduz joan zen, 2011ko amaieran agertu ziren ahultasunak areagotu zirelako, Eurogunea atzeraldian dagoelako eta garapen bidean dauden ekonomien jarduerak indarra galdu duelako. Eurogunean bizi den krisiak eragin negatiboak izan ditu mundu osoko jardueran eta ekonomia eragileen konfiantzan. Hori horrela izanda, munduko ekonomiaren gehikuntza tasa gutxiago hazi zen 2012ko hirugarren hiruilekoan eta %2,7aren inguruan kokatu zen.

A lo largo del año 2012, el crecimiento de la economía mundial se ha ido moderando, debido a que las debilidades aparecidas a finales de 2011 se han recrudecido, por la recesión en la zona del euro y la ralentización de la actividad en las economías emergentes. La crisis en la zona del euro ha provocado efectos negativos en la actividad y en la confianza de los agentes a nivel mundial. Así, la economía mundial se ha desacelerado durante el tercer trimestre de 2012 y creció a una tasa interanual del orden del 2,7%.


Munduko ekonomia. BPG

Urte arteko aldakuntza tasak

Economía mundial: PIB


Tasas de variación interanual

ELGE




OCDE

Europar Batasuna 27




Unión Europea 27

Txina



China

India



India

Iturria: Eurostat, ELGE, NDF eta The Economist.

Fuente: Eurostat, OCDE, FMI y The Economist.

Azaleratzen ari diren herrialdeen artean, Txinak bere hazkunde erritmoa moteldu du azken hiruhilekoetan. Izan ere, herrialde hartako BPGak %7,4ko aldakuntza jaso zuen. Hala eta guztiz ere, egonkortzeko joera hauteman da erritmoan, aurreko balioa baino bi hamarren gutxiago bakarrik hazi delako. Txinako hazkundearen barne eskariaren hobekuntzan oinarritu da, etxegintzan eta azpiegiturretan eginiko inbertsioak gora egin duelako. Inflazioak beheranzko joerari jarraipena eman dio eta abenduan %2,5ean kokatu zen Txinako KPI indizea. Joera hori inportatu ziren oinarritzko produktuen salneurriaren beherakada biziak ahalbidetu zuen, nahiz eta urte amaieran gorakada bat bizi zen. Indiari dagokionez, hazkundearen azken urteetako batez bestea baino txikiagoa izan da. Enpresen inbertsioa eta industriaren ekoizpena ahuldu dira eta politika ekonomikoak ziurgabetasun handiak piztu ditu. Kontsumoak ere bizitasun apalagoa erakutsi du eta egoera horri esportazioen jaitsiera gehitu behar zaio, kanpo merkatuek okerrera egin dutelako. Aurreko guztiaren ondorioz, Indiako BPGaren hazkundearen %3,2 izan zen 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Jarduera moteldu bazen ere, prezioak maila altuan daude eta urrian %9,6 igo ziren.

AEBetan, ekonomiaren jarduera %2,6ko erritmoan hazi da uztailetik irailera doan epealdian. Inbertsioak barne eskariaren hazkundearen gidatu du eta kontsumitzaileen konfiantzak nabarmen egin du hobera aurreko urteko mailaren aldean. Kanpo eskariaren ikuspegitik, hala esportazioek nola inportazioek moteltze garrantzitsua nozitu dute. Lan merkatuak protagonismoa bereganatu du berriro, urtearen erdialdeko hilabeteetan galgatzea erakutsi eta gero. Lanpostuak sortzeko orduan azken hilabeteetan lortu den erritmoa %1,5aren apur bat gainera kokatu da. Tasa hori esanguratsua da eta langabezia tasa hamarren batzuk beheratzea ahalbidetu du. Beste aldetik, inflazioak %2,0aren inguruko mailan jarraitzen du. Hain zuzen ere, azaroan prezioen indize orokorraren aldakuntza tasa %1,8an kokatu zen.

Japoniak moteltze garrantzitsua pairatu zuen hazkunde tasan 2012ko hirugarren hiruhilekoan. Aldakuntza tasa %0,5ean geratu zen, lehen sei hilekoan lortu zuen batez bestea baino hiru puntu luze beherago. Herrialdea berreraikitzeke neurriek baino eragin gehiago izan dute barne eskariaren ahultasunak eta munduko ekonomiaren egoera geldoak, kanpo merkataritzaren indarra galgatzea ekarri dutelako. Halaber, yenaren sendotasunak ere esportazioen bilakaera kaltetu du. Barne eskariari dagokionez, automobilak erostera zuzendutako diru laguntza publikoak urratsez urrats kendu izanak kontsumo pribatuari kalte egin dio. Beste aldetik, enpresa manufakturgarile handien konfiantzak behera egin du. Eskariaren jaitsierak prezioen beherakada ekarri du eta, horren ondorioz, azken hilabeteetan %-0,4an egon da KPIaren urte arteko tasa. Lan merkatuari dagokionez, langabezia tasak %4,2an jarraitu zuen iazko hirugarren hiruhilekoan. Balio hori zertxobait gutxitu da azaroan.

Dentro de los países emergentes, China ha sufrido en los últimos trimestres una ralentización en su crecimiento. De hecho su PIB registró una variación del 7,4%. Con todo, se aprecia una estabilización en el ritmo, puesto que tan solo ha reducido en dos décimas su valor precedente. El avance chino se ha basado en una mejora de la demanda interior motivada, a su vez, por una mayor inversión residencial y en infraestructuras. La inflación ha continuado con su senda de descenso y así en diciembre el IPC chino se cifró en el 2,5%. Esta tendencia se ha visto favorecida por una intensa caída del precio de los productos básicos importados, aunque se produjo un repunte a finales de año. Respecto a India, el crecimiento también ha sido inferior al ritmo medio de los últimos años. La inversión empresarial y la producción industrial se han debilitado y la política económica está impregnada de grandes incertidumbres. El consumo también ha dado muestras de un menor dinamismo y a esta situación se le ha unido la reducción de las exportaciones ante el deterioro de las condiciones exteriores. Con todo ello, el crecimiento del PIB indio fue del 3,2% en el tercer trimestre de 2012. A pesar de la desaceleración de la actividad, el nivel de precios se ha mantenido elevado y en octubre creció un 9,6%.

En Estados Unidos la actividad económica ha avanzado a un ritmo de 2,6 % entre los meses de julio a septiembre. La inversión productiva ha liderado el crecimiento de la demanda interna y la confianza de los consumidores ha mejorado ostensiblemente con respecto al año anterior. Por el lado de la demanda externa, tanto las exportaciones como las importaciones se han ralentizado significativamente. El mercado de trabajo vuelve a tomar protagonismo tras un freno en los meses centrales del año. El ritmo de creación de empleos observado en los últimos meses se sitúa ligeramente por encima del 1,5%, un valor que empieza a ser importante y que ha permitido reducir algunas décimas la tasa de paro. Por otra parte, la inflación se mantuvo en niveles en torno al 2,0%. Concretamente en noviembre, el índice general de precios se situó en el 1,8%.

Japón ha sufrido una importante desaceleración de su tasa de crecimiento en el tercer trimestre del año. Su variación ha sido de 0,5%, más de tres puntos de diferencia con respecto a la media registrada en el primer semestre. Sobre las medidas de reconstrucción del país han predominado los efectos de la débil demanda interna y la delicada situación económica mundial, que ha implicado una pérdida de vigor del comercio exterior. Además, las exportaciones también se han visto perjudicadas por la fortaleza del yen. Respecto a la demanda interior, la progresiva supresión de subvenciones públicas destinadas a la adquisición de automóviles ha deteriorado el consumo privado. Por otra parte, ha descendido la confianza de las grandes empresas manufactureras. La caída de la demanda ha provocado el descenso del nivel de precios y, en consecuencia, en los últimos meses se ha mantenido en el nivel de -0,4%. Respecto al mercado laboral, la tasa de desempleo se ha mantenido en el tercer trimestre del año en el 4,2%. Ese valor se ha reducido ligeramente en el mes de noviembre.

Ingurunekeo ekonomien aldagai nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak

Principales variables económicas del entorno
Tasas de crecimiento interanual

	2010	2011	2011				2012				
			III	IV	I	II	III	Urtia Oct.	Azaroa Nov.		
BPG erreala											PIB real
AEB	2,4	1,8	1,6	2,0	2,4	2,1	2,6	---	---		EE. UU.
Japonia	4,7	-0,6	-0,5	0,0	3,3	4,0	0,5	---	---		Japón
Europar Batasuna 27	2,1	1,5	1,4	0,8	0,1	-0,3	-0,4	---	---		Unión Europea 27
Alemania	4,2	3,0	2,7	1,9	1,2	1,0	0,9	---	---		Alemania
Frantzia	1,7	1,7	1,5	1,2	0,2	0,1	0,0	---	---		Francia
Erresuma Batua	1,8	0,9	0,7	0,9	0,2	-0,3	0,0	---	---		Reino Unido
Inflazioa											Inflación
AEB	2,4	3,3	3,8	3,3	2,8	1,8	1,7	2,2	1,8		EE. UU.
Japonia	-0,7	-0,3	0,1	-0,3	0,3	0,2	-0,4	-0,4	-0,2		Japón
Europar Batasuna 27	2,1	3,1	3,1	3,2	2,9	2,6	2,6	2,6	2,4		Unión Europea 27
Alemania	1,2	2,5	2,7	2,7	2,4	2,1	2,1	2,1	1,9		Alemania
Frantzia	1,7	2,3	2,3	2,6	2,6	2,3	2,3	2,1	1,6		Francia
Erresuma Batua	3,3	4,5	4,7	4,7	3,5	2,7	2,4	2,7	2,7		Reino Unido
Langabezia tasa											Tasa de paro
AEB	9,6	8,9	9,1	8,7	8,3	8,2	8,1	7,9	7,7		EE. UU.
Japonia	5,1	4,6	4,4	4,5	4,6	4,4	4,2	4,2	4,1		Japón
Europar Batasuna 27	9,7	9,7	9,7	10,0	10,2	10,4	10,6	10,7	10,7		Unión Europea 27
Alemania	7,1	5,9	5,8	5,7	5,6	5,5	5,4	5,4	5,4		Alemania
Frantzia	9,8	9,7	9,6	9,8	10,0	10,2	10,3	10,4	10,5		Francia
Erresuma Batua	7,8	8,0	8,3	8,3	8,2	7,9	7,8	---	---		Reino Unido

Iturria: Eurostat, BEA eta Japoniako Bankua

Fuente: Eurostat, BEA y Banco de Japón

Europar Batasunak %0,4ko narriadura pairatu zuen hirugarren hiru hilabeteko aurreko urteko epealdi beraren aldean. Eurogunean, ekoizpena %0,6 jaitsi zen, batez ere politika arduradunek zor subiranoaren krisia kudeatzeko orduan erakutsi duten gaitasunean eta egoera onbidertzeko hartu zituzten neurrietan konfiantza galdu zelako. Familien kontsumoak, enpresen inbertsioak eta arlo publikoaren gastuak nabarmen egin zuten behera modu orokor batean moneta batasuna osatzen duten herrialde guztietan. Halaber, barne produktu gordinaren hazkundeak emaitza txarrenak Europako periferia osatzen duten herrialdeetan jaso zituen.

Bizitasun handiena erakutsi duten europar herrialdeei dagokionez, Alemaniak %0,9ra galgatu zuen bere hazkunde tasa, munduko merkataritzak, baina batez ere Euroguneko beste ekonomia batzuetatik iritsitako eskariak, bizitasuna galdu zuelako. Ekipamendura bideratutako ondasunen eskaria ahuldu zen eta, horren ondorioz, inbertitzeko egitasmoetan beherezko zuzenketa bat egin da. Frantzia, ekonomiaren hazkundeak ez zuen inolako aldaketarik izan (%0,0), iazko lehen seihilekoan bizi zen geldotasunean sakonduz. Kontsumo pribatua oso bizkor narriatu zen, langabeziaren gorakada biziaren ondorioz.

La Unión Europea sufrió un deterioro del 0,4% en el tercer trimestre con respecto al mismo periodo del año anterior. En la zona del euro, la producción cayó hasta el 0,6%, debido, principalmente, a la pérdida de confianza en la capacidad de los responsables políticos a la hora de gestionar la crisis de la deuda soberana y en las medidas tomadas para resolver la situación. El consumo de los hogares, la inversión empresarial y el gasto del sector público se contrajeron significativamente y de forma global en los países que constituyen la unión monetaria. Los peores registros de crecimiento del PIB han correspondido a los países que conforman la periferia de Europa.

Respecto a los países europeos con mayor dinamismo, Alemania desaceleró su crecimiento hasta el 0,9%, por el efecto de la reducción del comercio mundial, sobre todo de la demanda proveniente de otras economías de la zona del euro. La demanda de bienes de equipo se debilitó y, así, se ha producido una revisión a la baja de los proyectos de inversión. En Francia, el crecimiento económico no registró ninguna variación (0,0%), profundizando en la apatía vivida en el primer semestre del año. El consumo privado se deterioró considerablemente ante una rápida escalada del desempleo.

Europar Batasuneko arazo behinenetako bat langabezia tasa da eta aldagai horretan ikusten dira herrialdeen arteko diferentzia azpimarragarriak. Azaroan, lanik gabe zeuden langileen ehunekoa %10,7 izan zen. Herrialdeen arteko aldeak nabarmentzeko orduan, bi muturretako kasuak aipatu behar dira. Mutur batean, Espainia dago, %26,6ko tasa batekin, eta beste muturrean, Austria, %4,5eko tasa apal batekin. Inflazioari dagokionez, prezioen egonkortasuna orokorra izan zen Europar Batasunean (%2,4), baina herrialde batzuetan gorakada txiki bat hauteman da, energiaren prezioak eta zeharkako zergak igo direlako.

Espainiako ekonomiak bere jaitsiera areagotu zuen hirugarren hiru hilabetean eta urte arteko tasan narriadura %-1,6an kokatu zen. Eraitza horren eragilea nazio eskariaren beherakada handiagoa izan zen, barne produktu gordinaren hazkunderari ekarpen negatiboagoa egin ziolako. Barne eskaria osatzen duten atal ia guztiek atzeraldi sakoneko ibilbidea marraztu zuten. Salbuespenak bi izan ziren: aktibo finko inmaterialetan eginiko inbertsioa, nabarmen egin baitzuen hobera, eta familien kontsumoa, BEZaren iraileko igoera saihesteko erosketen batzuk aurreratu zirelako. Beste aldetik, kanpo eskariak egonkor mantendu zuen hazkunderari egin zion ekarpena, esportazioen gehikuntzak inportazioen jaitsiera apalagoa konpentsatu zuelako.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriaren jarduerak narriadura gutxitu zuen aurreko hiru hilabetearen aldean. Portaera onena erakutsi zuen industria adarra manufaktura izan ziren. Eraikuntzari eta zerbitzuei dagokionez, sektore horietan jarduerak eta balio erantsi gordinak okertze esanguratsua pairatu zuten. Zerbitzuen kasuan, administrazio publikoaren, osasunaren, hezkuntzaren eta finantza eta aseguru jardueren erritmo galera nabarmendu behar da.

Espainiako lan merkatuak jaitsiera moteldu zuen lehen arloan eta industriar lanpostu gutxiago galdu zirelako eta zerbitzuetan egonkortasuna bizi zelako. Hala eta guztiz ere, lan merkatuaren egoera txarra islatuta geratu da galdu diren lanaldi osoko 789.000 lanpostuetan. Inflazioari dagokionez, prezioen indize orokorra oso bizkor igo zen irailean eta urrian, BEZaren gehikuntzaren ondorioz. Azaroan, adierazle hori moteltzen hasi zen eta %2,9an kokatu zen urte arteko tasa.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioak azaroa arte argitaratu dituen datuek erakusten dute Estatuaren finantzazio beharra, defizita kontabilitate nazionalen terminoetan, 45.910 milioi eurokoa izan zela. BPG estimatuaren terminoetan, Estatuaren defizita aldagai horren %4,37aren balioa izan zen.

La tasa de paro se ha configurado como uno de los principales problemas de la Unión Europea y es donde las diferencias entre países resultan más destacables. En el mes de noviembre, el porcentaje de trabajadores en situación de desempleo quedó registrado en el 10,7%. Entre la heterogeneidad por países destacan en ambos extremos España, con una tasa de 26,6% y Austria con un 4,5%. Respecto a la inflación, la estabilidad de precios fue la tónica general en la Unión Europea (2,4%), aunque en algunos países se ha apreciado un ligero repunte debido a la subida de los precios de la energía y de los impuestos indirectos.

Las partidas con variaciones más significativas son las siguientes:

(mila eurotan)

(miles de euros)

Azalpena Descripción	2013	2012	Aldea Diferencia	%
INDUSTRIA GARAPENA ETA EKINTZAILEEN LAGUNTZA DESARROLLO INDUSTRIAL Y APOYO A EMPRENDEDORES				
SPRIren kapitalaren handitzea Ampliación capital SPRI	0,0	2.100,0	(2.100,0)	(100,0)
Gauzatu Gauzatu	15.576,9	12.167,7	3.409,2	28,00
Finantzen Euskal Institutuari Zuzkidura Dotación al Instituto Vasco de Finanzas	25.000,0	0,0	25.000,0	100,0
SOCADE SOCADE	10.000,0	0,0	10.000,0	100,0
Enpresentzako Kredituak Créditos a empresas	25.000,0	0,0	25.000,0	100,0
EZTEN Arrisku Kapitala EZTEN Capital Riesgo	0,0	26.200,0	(26.200,0)	(100,0)
TEKNOLOGIA TECNOLOGÍA				
Tecnologia-funtsen ekarpena Fondos Tecnológicos	0,0	14.068,0	(14.068,0)	(100,0)
GAINONTZEKOA RESTO	16.263,0	20.463,7	(4.201,0)	(20,5)
GUZTIRA TOTAL	91.839,9	74.999,4	16.840,5	22,5



Sarreren Laburpenak
Resúmenes de Ingresos



Administrazio Orokorra
Administración General

SEK.,PROGR. ETA KAPIT.EN ARABERAKO LABP. - SARRERA
RESUMEN POR SECCIÓN; PROGRAMA Y CAPÍTULO - INGRESO

ORGANIKOA / ORGANICA

EKONOMIKOA / ECONOMICA

FUNTZIONALA / FUNCIONAL

03 Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

03 Desarrollo Económico y Competitividad

MILA / MILES

SEKZIOA SECCION	PROGRAMA PROGRAMA		GUZTIRA TOTAL	KAPITULUAK CAPITULOS								
				2 Zeharkako zergak Impuestos indirectos	3 Tasak eta salneur. Tasas, prec.públ.	4 Transf. arruntak Transfe. corrientes	5 Ondare sarrerak Ingresos patrimon.	6 Inb. err. besterentz Enaj.inver reales	7 Kapital transf. Transfe. capital	8 F-aktiboen gutxitzea Dism.acti. financie.	9 F-pasiboen gehikuntza Aumento de Pasi.Fin.	
03		Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna <i>Desarrollo Económico y Competitividad</i>										
03	5411	Nekaz.lk.Garap. <i>Inves.D.Agrope.</i>	1.140								1.140	
03	5413	Teknologia <i>Tecnologia</i>	561		561							
03	7111	Nekaz.,Lan.l-g. <i>Agricult. D.R.L</i>	43		43							
03	7112	Arrantza <i>Pesca</i>	350		350							
03	7113	Elika.Sus.Kali. <i>Prom.Cal.Agroa.</i>	92		92							
03	7211	Egi/Lag. Ek.G/L <i>Est.Apo.D.Econ.</i>	220		218		2					
03	7212	In.Gar.Ekin.Lg <i>Des.Ind.Ap.Emp.</i>	2.656		151		5				2.500	
03	7213	Industria Segurtasuna <i>Seguridad Industrial</i>	3.000		3.000							
03	7311	En.Mea.Pol.Gar <i>Pol. D. Ener.Mi</i>	40.252		252		40.000					
03	7511	Turismoa <i>Turismo</i>	376		176						200	
03	7612	Barne Merkataritza <i>Comercio Interior</i>	131		130		1					
03	7613	Nazioartekotzea <i>Internacionalización</i>	6.214		201		8				6.005	
		GUZTIRA TOTAL	55.034		5.174		40.016				9.845	



www.euskadi.net/presupuestos

2013

**EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOAREN
AURREKONTU
OROKORRAK**

PRESUPUESTOS
GENERALES
DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA
DE EUSKADI

ADMINISTRACIÓN GENERAL

4a

ADMINISTRAZIO OROKORRA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

2013

PROIEKTUA
PROYECTO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORRAK

PRESUPUESTOS GENERALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

ADMINISTRAZIO OROKORRA



ADMINISTRACIÓN GENERAL

SEKZIOAK

SECCIONES

Enplegua eta Gizarte Politikak 04 Empleo y Políticas Sociales
Ogasuna eta Finantzak 05 Hacienda y Finanzas

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

2013

PROIEKTUA
PROYECTO

**EUSKAL
AUTONOMIA
ERKIDEGOAREN
AURREKONTU
OROKORRAK**

PRESUPUESTOS
GENERALES
DE LA COMUNIDAD
AUTÓNOMA
DE EUSKADI

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS

04tik 05era bitarteko Sekzioak *Secciones 04 a 05*

4b Alea
Tomo 4b

Aurkibidea / Índice :

-	04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK.....	1
	<i>04 EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES</i>	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak	3
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	73
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	3111 Enplegua eta Gizarte Polit. Egitura eta Laguntza	75
	<i>Estructura y Apoyo de Empleo y Políticas Sociales</i>	
	3112 Lana.....	81
	<i>Trabajo</i>	
	3121 Gizarteratzea.....	85
	<i>Inclusión Social</i>	
	3122 Inmigrazioa.....	87
	<i>Inmigración</i>	
	3123 Gizarte Zerbitzuak.....	93
	<i>Servicios Sociales</i>	
	3124 Familia eta Komunitate Politika.....	99
	<i>Política Familiar y Comunitaria</i>	
	3211 Enplegua.....	107
	<i>Empleo</i>	
	3212 Gizarte Ekonomia.....	109
	<i>Economía Social</i>	
	3231 Prestakuntza.....	113
	<i>Formación</i>	
	4312 Etxebizitza.....	115
	<i>Vivienda</i>	
-	Diru-sarrereren egoera	129
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	3111 Enplegua eta Gizarte Polit. Egitura eta Laguntza	131
	<i>Estructura y Apoyo de Empleo y Políticas Sociales</i>	
	3112 Lana.....	133
	<i>Trabajo</i>	
	3121 Gizarteratzea.....	135
	<i>Inclusión Social</i>	
	3122 Inmigrazioa.....	137
	<i>Inmigración</i>	
	3123 Gizarte Zerbitzuak.....	139
	<i>Servicios Sociales</i>	
	3124 Familia eta Komunitate Politika.....	141
	<i>Política Familiar y Comunitaria</i>	
	3211 Enplegua.....	143
	<i>Empleo</i>	
	3212 Gizarte Ekonomia.....	145
	<i>Economía Social</i>	
	3231 Prestakuntza.....	147
	<i>Formación</i>	
	4312 Etxebizitza.....	149
	<i>Vivienda</i>	

-	Gastuen Laburpenak.....	153
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarrerren Laburpenak	173
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	
-	05 OGASUNA ETA FINANTZAK.....	177
	05 HACIENDA Y FINANZAS	
-	Sekzioaren eta Programen Memoriak.....	179
	<i>Memorias de la Sección y de los Programas</i>	
-	Gastuen egoera.....	261
	<i>El Estado de Gastos</i>	
	1212 Zerbitzu Orokorrak.....	263
	<i>Servicios Generales</i>	
	1214 Informatika eta Telekomunikazioak.....	269
	<i>Informática y Telecomunicaciones</i>	
	5211 Euskadi Informazioaren Gizartean Plana.....	273
	<i>Plan Euskadi en la Sociedad de la Información</i>	
	5511 Estatistika.....	275
	<i>Estadística</i>	
	6110 Ogasuna eta Finantzak. Egitura eta Laguntza.....	277
	<i>Estructura y Apoyo de Hacienda y Finanzas</i>	
	6111 Ekonomia eta Gastu Publikoa	281
	<i>Economía y Gasto Público</i>	
	6112 Zerga-politika.....	287
	<i>Política Fiscal</i>	
	6114 Ondare eta Kontratazioa	291
	<i>Patrimonio y Contratación</i>	
	6115 Lehiaren Euskal Agintaritza	295
	<i>Autoridad Vasca de la Competencia</i>	
	6311 Finantza-Politika.....	297
	<i>Política Financiera</i>	
-	Diru-sarrerren egoera.....	301
	<i>El Estado de Ingresos</i>	
	1212 Zerbitzu Orokorrak.....	303
	<i>Servicios Generales</i>	
	1214 Informatika eta Telekomunikazioak.....	305
	<i>Informática y Telecomunicaciones</i>	
	6111 Ekonomia eta Gastu Publikoa	307
	<i>Economía y Gasto Público</i>	
	6112 Zerga-politika.....	309
	<i>Política Fiscal</i>	
	6114 Ondare eta Kontratazioa	311
	<i>Patrimonio y Contratación</i>	
	6311 Finantza-Politika.....	313
	<i>Política Financiera</i>	
-	Gastuen Laburpenak.....	315
	<i>Resúmenes de Gastos</i>	
-	Sarrerren Laburpenak	335
	<i>Resúmenes de Ingresos</i>	



04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK
04 EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES





Sekzioaren eta Programen Memoriak
Memorias de la Sección y de los Programas



ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK

EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

SARRERA

2013ko ekitaldian atzeraldia izango dugu nagusi; urte gutxitan bigarren atzeraldia izango dugu eta, horren ondorioz, Euskadiko milaka pertsonari eragiten dion egoera latza bizitzen ari gara eta lanpostu-galera areagotu egin da. Testuinguru horretan, egoera ekonomiko beltz honek herritarrengan eragiten dituen ondorio negatiboak leuntzen lagutzeko ahalegina egingo du Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak. Horretarako, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila hiru sailburuordetzatan antolatu da, honako gai hauen arabera: Enplegua eta Lana, Gizarte Politikak, eta Etxebizitza; zuzendaritzatan eta erakunde publikotan egituratuta daude eta azken helburua giza eskubideen defentsa eta sustapena lortzea dute, pertsonen duintasunaren defentsa, herritarren ongizatea eta bizikaltatea hobetzea, bai eta elkartasuna eta gizarte-justizia sustatzea ere.

EAEko gizartearen kohesio-maila inguruko autonomia-erkidegoetan eta gizarteetan baino handiagoa izaki, azken urteotan maila horri eustea lortzen ari gara krisialdian egonda ere eta, bereziki, azken hamarkadatan Euskadin sortu eta finkatu diren gizarte-zerbitzu, baliabide eta prestazioei esker. Egoera hori izan arren, ez dugu ahaztu behar gaur egun milaka pertsona daudela zailtasun-egoeran eta kohesio hori urratzeko arriskua egon badagoela, egoera horrek irauten badu. Gizarte-kohesioaren mailari eusteko funtsezko tresnak honako hauek dira: lehenik, diru-sarrera nahikoak eta egonkorak izatea eta, ohiko moduan, lanaren truke, pentsioetatik edo diru-sarrerak bermatzeko laguntza publikoetatik lortzen dira, norberaren egoeraren arabera. Bigarrenik, erantzukizun publikoko gizarte-babeseke sare bat izatea, erakundeak buru direla eta agente sozialekin eta zibilekin lankidetzan. Eta hirugarrenik, herritarren bizi-proiektuak gauzatzeko aukera emango duen etxebizitza bat izatea.

LANA ETA ENPLEGUA

Enpleguaren eta lanaren arloko politikari dagokionez, agente ekonomikoekiko eta lan-arloko agenteekiko akordioa eta gizarte-elkarrizketa abiapuntu hartuta, Sailaren eta Lanbideren baliabide guztiak enplegua sortzera eta enpleguari eustera bideratzea da helburu orokorra, bai eta krisialdi ekonomikoaren edo beste gizarte-egoera batzuen ondorioz eguneroko bizitzan zailtasun larriak pairatzen ari diren pertsonen zerbitzura ere.

Enpresaren eremuan, Eusko Jaurlaritzaren Biziberritze ekonomikoko eta enplegua sortzeko plana abiarazten lagunduko du Sailak eta, bereziki, gazteak eta egoera txarrean dauden pertsonak laneratzera bideratutako ekintzei emango die garrantzia.

INTRODUCCIÓN

El ejercicio de 2013 viene marcado por una segunda recesión económica en un corto período de años, lo que ha acentuado la pérdida de puestos de trabajo y ha aumentado las situaciones de dificultad que afectan a miles de personas en Euskadi. En este contexto, el Departamento de Empleo y Políticas Sociales volcará sus esfuerzos en ayudar a paliar los efectos de esta adversa situación económica sobre la ciudadanía. A tal fin, el Departamento de Empleo y Políticas Sociales se articula en tres viceconsejerías que asumen, respectivamente, las materias de Empleo y Trabajo, de Políticas Sociales y de Vivienda que, estructuradas en sus correspondientes direcciones y entidades públicas, tienen como objetivo final lograr la defensa y promoción de los derechos humanos, la defensa de la dignidad de las personas, la mejora del bienestar y la calidad de vida de los ciudadanos y ciudadanas y la promoción de la solidaridad y la justicia social.

En los últimos años, los niveles de cohesión de la sociedad vasca, que son superiores a los de comunidades y sociedades de nuestro entorno, se mantienen a pesar de la crisis y gracias, sobre todo, a las prestaciones, recursos y servicios sociales que se han creado y consolidado en Euskadi a lo largo de las últimas décadas. Esto no oculta que, en la actualidad, hay miles de personas en situaciones de dificultad y que hay un riesgo cierto de que esa cohesión se quiebre si persiste esta situación. Los instrumentos esenciales para mantener los niveles de cohesión social son, en primer lugar, el acceso a unos ingresos económicos suficientes y estables, normalmente procedentes del trabajo, de las pensiones o de ayudas públicas de garantías de ingresos, dependiendo de las circunstancias personales. En segundo lugar, la existencia de una red de apoyo social de responsabilidad pública, liderada por las instituciones y en colaboración con los agentes sociales y civiles. Y en tercer lugar, el acceso a una vivienda que posibilite los diferentes proyectos de vida de la ciudadanía.

TRABAJO Y EMPLEO

En política de empleo y trabajo, el objetivo general es, desde el diálogo social y el acuerdo con los agentes económicos y laborales, poner todos los recursos del Departamento y de Lanbide al servicio de la generación y el mantenimiento del empleo, al servicio de las personas que, a causa de la crisis económica o de otras situaciones sociales, están sufriendo graves dificultades en su vida diaria.

En el ámbito de la empresa, el Departamento ayudará a la puesta en marcha del plan de reactivación económica y del empleo del Gobierno Vasco con especial atención a las acciones destinadas a la inserción laboral de la juventud y de las personas más desfavorecidas.

Ekimen horrekin batera, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak ahal duen guztia egingo du gizarte-elkarrizketa berreskuratzeko eta akordioak lortzeko, nahiz eta gutxienezkoak izan, krisi ekonomikoak enpleguan eragin dituen efektuen kontrako neurriak aplikatzea ahalbidetzarren.

Eta zehatzago esateko, hona hemen Sail honen helburuak: gizarte-elkarrizketako mahai sendo bat eratuz bideratutako negoziazioak areagotzea, lan-erreformaren ondorioei —bereziki, ultrajarduerari— aurre egitea, Lan Harremanen Kontseilua eta Ekonomia eta Gizarte Kontseilua indartzea, gizarte-ekonomia sustatzea, enplegu inklusiboa indartzea gizarte-desabantailan dauden pertsonen alde, jardun ekintzaileak ahalbidetzea gazteei (prestakuntza, nazioartekotzea eta gizarte-berrikuntza barnean hartuta), lanbide-prestakuntzari loturiko praktiketako kontratuak sustatzea, eta Laneko Ikuskatzailetzaren eta Osalanen egitura eta ekintza hobetzea.

Euskadin enpleguaren eta lehiakortasunaren mailari eusteko eta maila hori hobetzeko, pertsonen kualifikazioa hobetzera bideratutako politika guztiak indartu behar dira; horregatik, Lanbide enplegu-sistema moderno, eraginkor, adostu eta integratu bihurtzea lortu nahi du Sailak, beste agente batzuekin sarean lan egingo duena eskaera optimizatzeko eta arreta pertsonalizatua emateko.

Horren ondorioz, honako programa hauek lehenetsiko dira: enpleguan zuzeneko eragina duten programak eta euskal enpresen premiekin loturik daudenak, gazteei eta lana lortzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboari arreta emateko berariazko programak, enpresen egiazko premiekin loturiko prestakuntza, eta programa berritzaileak enpresen eta pertsonen arteko bitartekotzari, erakartzeari eta bilaketari dagokienez.

GIZARTE POLITIKAK

Gizarte-zerbitzuak ongizate-estatuaren laugarren zutabe dira; horrek esan nahi du herritarrei gizarte-zerbitzu horietarako sarbidea izateko eskubidea bermatuko dien arau-esparrua sortu behar dela eta baliabideak modu jakin batera diseinatu behar direla, hau da, pertsonen premiei erantzuteko moduan. Horretaz gain, sistemak ekonomikoki iraunkorra izan behar du denboran.

Gaur egun, gai horri buruzko legeen artean honako hauek dira nagusi: Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea, eta Familiei Laguntzeko Legea. Lege horietako xedapen asko oraindik garatu gabe daude: prestazio-zorrotz; zerbitzu-mapa; erakunde pribatuen, merkataritza-erakundeen eta irabazi-asmorik gabekoen parte-hartzea sistemaren kudeaketan; erabiltzaileen parte-hartzea zerbitzuen finantzaketan eta abar.

Junto a esta iniciativa, el Departamento de Empleo y Políticas Sociales hará los esfuerzos que estén en su mano para recuperar el diálogo social y alcanzar acuerdos, aunque sean mínimos, que permitan aplicar medidas contra los efectos de la crisis económica sobre el empleo.

De forma más concreta, son objetivo de este Departamento: intensificar las negociaciones orientadas a constituir una mesa fuerte de diálogo social, abordar las consecuencias de la reforma laboral -especialmente la ultratractividad-, impulsar el Consejo de Relaciones Laborales y el Consejo Económico y Social, fomentar la economía social, apoyar el empleo inclusivo a favor de las personas en desventaja social, facilitar las actuaciones emprendedoras para jóvenes que incluyan formación, internacionalización e innovación social, promocionar los contratos en prácticas vinculados a la formación profesional y mejorar la estructura y la acción de la Inspección de Trabajo y de Osalan.

El mantenimiento y la mejora del empleo y de la competitividad en Euskadi, exige fortalecer todas las políticas dirigidas a la mejora de la cualificación de las personas; por eso, es objetivo de este Departamento convertir Lanbide en un sistema de empleo moderno, eficaz, consensuado e integrado con otros agentes, que trabaje en red para optimizar la demanda y dar una atención personalizada.

En consecuencia, se priorizarán los programas con impacto directo en el empleo y ligados a las necesidades de las empresas vascas, los programas específicos de atención a jóvenes y a colectivos con especiales dificultades de acceso al trabajo, la formación vinculada a las necesidades reales de las empresas y los programas innovadores en la búsqueda, captación e intermediación entre las empresas y las personas.

POLÍTICAS SOCIALES

Los servicios sociales constituyen el cuarto pilar del estado de bienestar, esto implica la necesidad de crear un marco normativo que garantice el derecho de la ciudadanía a acceder a esos servicios sociales, requiere diseñar los recursos de tal manera que den solución a las necesidades de las personas y exige que el sistema sea económicamente sostenible en el tiempo.

En la actualidad, el armazón legislativo en relación a esta materia viene dado por la Ley de Servicios Sociales, la Ley para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, y la Ley de Apoyo a las Familias. Muchas de las disposiciones de este armazón están aún por desarrollar: la cartera de prestaciones, el mapa de servicios, la participación de las entidades privadas, mercantiles y no lucrativas en la gestión del sistema, la participación de las personas usuarias en la financiación de los servicios, etc.

Ekitaldi honetan, zerbitzu-zorroa garatzeko lanei ekingo diegu baliabideen kudeaketaren erantzukizun publikoaren gordailuzainekin—funtsean, Foru Aldundiekin eta Udalekin— koordinatuta, eta egun eskuragarri dauden baliabideekin eta etorkizun hurbilenerako aurreikusitako baliabideekin bat etorrira. Baliabideetarako sarbidea izateko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek behar besteko babes-maila izan dezaten bermatzea izango da gure lehentasuna, hiru Lurralde Historikoetan eta udalerriz guztietan.

Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren eraginpeko berriazko kolektiboek dagokionez, premia-egoerei aurre egiteko diru-laguntzen politikari emango zaio lehentasuna; GLL Gizarte Larrialdietarako Laguntzen sistema egokitu da; seme-alabak dituzten familientzako laguntzen dekretua aldatuko da eta errenta-irizpideak sartuko dira zenbatekoak finkatzeko garaien; Familiei Laguntzeko Planean, Boluntarioei buruzko Planean eta Immigrazioaren, Herritarren eta Kultura arteko Bizikidetasunaren III. Planean aurreikusitako jardunei ekingo zaie; eta berdintasunaren aldeko eta genero-nortasunak eragindako diskriminazioaren aurkako neurriak abiaraziko dira. Eta eremu sozio-sanitarioan, Osasun Sailarekin lanean hasiko gara zerbitzuen eta baliabideen zorroa definitzeko.

ETXEBIZITZA

Etxebizitza-politikak krisi ekonomikoaren ondoriozko gizarte-larrialdiko egoerei, batik bat, aurre egitera bideratu behar dira. Urtetan, etxebizitza-eskaera oso handia izan da eta espekulazio izugarria sortu zen etxebizitzaren inguruan; horren ondorioz, jende askok eta, bereziki, gazteek ez dute etxebizitza bat lortzeko aukerarik nahiz eta diru-sarrera finkoak izan, diru-sarrera horiek ez direlako nahikoak bizi-proiektu independentea gauzatzeko.

Orain, ordea, errealitatea oso bestelako da. Bada oraindik egoera horretan dagoen jendea eta eskaera ere bada oraindik, baina, kredituak lortzeko zailtasunen eta langabeziaren gorakadaren ondorioz, bi kolektibo berri sortu dira: diru-sarrerak izanik, etxebizitza publiko bat esleituta dutenak baina babes ofizialeko etxebizitza bat erosteko adina kreditu ere lortzen ez duten pertsonak sartzen dira lehen kolektiboan; bigarrenean, aldiz, diru-sarrerarik ez dutenez, hipotekak eta alokairuak ordaindu ezin dituztelako etxerik gabe geratzen ari diren pertsonak. Errealitate berria izaki, gizarte-politikaren xede bihurtu behar da errealitate hori.

Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-parkea eta etxebizitza-politikak egoera horiek konpontzera ere bideratu behar dira, gizarte-alokairuko ereduen bitartez. Horretarako, etxebizitza-parkea sortzeko eredu eta etxebizitza horiek kudeatzeko eredu aldatu beharko dira helburu berrietara egokitzeko, hau da, funtsean, alokairuko etxebizitzara.

Durante este ejercicio se abordarán los trabajos para desarrollar la cartera de servicios en coordinación con los depositarios de la responsabilidad pública de la gestión de los recursos -básicamente Diputaciones Forales y Ayuntamientos- y en coherencia con los recursos disponibles en la actualidad y los previstos para el futuro más cercano. La prioridad es garantizar que todas las personas que cumplan los requisitos de acceso pueden tener un nivel suficiente de protección en los tres Territorios Históricos y en los diferentes municipios.

Con respecto a colectivos específicos objeto de la Viceconsejería de Políticas Sociales, se priorizará la política de subvenciones a la atención de las situaciones de necesidad, se ajustará el sistema de Ayudas de Emergencia Social, AES, se modificará el decreto de Ayudas a Familias con Hijos e Hijas para incluir criterios de renta a la hora de establecer las cuantías, se abordarán las actuaciones previstas en el Plan de Apoyo a la Familia y del Voluntariado, de Tercer Plan de Inmigración, Ciudadanía y Convivencia Intercultural y se pondrán en práctica medidas por la igualdad y no discriminación por motivos de identidad de género. Y en el ámbito socio-sanitario se iniciarán los trabajos con el Departamento de Salud para definir una cartera de servicios y recursos.

VIVIENDA

Las políticas de vivienda han de orientarse, prioritariamente, a la atención de situaciones de emergencia social derivadas de la crisis económica. Durante años, la creciente demanda de viviendas y la enorme especulación que se generó en torno a ellas, dejó fuera de toda posibilidad de acceder a una vivienda a muchas personas, normalmente jóvenes, que, aun teniendo unos ingresos fijos, estos no les permitían llevar adelante su proyecto de vida independiente.

Ahora la realidad es distinta. Sigue habiendo personas en esta situación y existe una demanda en ese sentido, pero han aparecido dos colectivos nuevos como consecuencia de la dificultad de acceso al crédito y por el aumento del desempleo; el primero lo forman quienes teniendo ingresos y una vivienda pública adjudicada, ni siquiera consiguen el crédito suficiente para una vivienda de VPO; el segundo colectivo lo forman las personas que, por falta de ingresos no puede hacer frente a sus hipotecas y alquileres y se quedan sin hogar. Es una realidad nueva que ha de ser objeto de la política social.

Es por ello que es necesario orientar las políticas de vivienda y el parque de viviendas del Gobierno Vasco a atender también estas situaciones mediante modelos del alquiler social. Para ello será preciso cambiar el modelo de generación del parque de viviendas y el de gestión de las mismas a los nuevos objetivos, básicamente, la vivienda de alquiler.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak jada eraikita dagoenari gizarte-errendimendu handiagoa lortzera bideratuko du ahalegin nagusia. Horretarako, eskaera indartu eta sustatuko da egungo etxebizitza-stocka okupatu, alokatu eta, behar izanez gero, saltzeko; lurraldearen aldagaia eta eskaeraren aniztasuna ere kontuan izango dira erabilgarri dauden baliabideak errentagarri egitearren.

Hiri-eraberritzeari eta birgaitzeari ere bultzada emango zaio, egungo etxebizitza-parkea hobetzeko iraunkortasunarekin eta energia aurreztearekin loturiko irizpideak txertatuta.

Hori guztia Etxebizitzaren Plan Zuzentzaile berrian bilduko da, ekonomiaren eta gizartearen egoera berrira egokitutako plan berrian. Eta legegintza-eremuan, aurreko legegintzaldian aurkeztutako testuan oinarritutako Etxebizitzari buruzko Lege-proiektua aurkeztuko da.

El mayor esfuerzo del Departamento de Empleo y Políticas Sociales se centrará en obtener el mayor rendimiento social a lo ya edificado. Para ello, se impulsará y estimulará la demanda para ocupar, alquilar, y si es preciso vender, el stock de vivienda actual; se tendrá también en cuenta la variable territorial y la diversidad de la demanda para rentabilizar los recursos disponibles.

También se dará un impulso a la rehabilitación y la regeneración urbana con el objetivo de mejorar el parque de viviendas existentes con la introducción de criterios de sostenibilidad y ahorro energético.

Todo ello irá incluido en un nuevo Plan Director de Vivienda adaptado a la nueva situación económica y social. Y En el ámbito legislativo se abordará la presentación del proyecto de Ley de Vivienda a partir del texto presentado en la pasada legislatura.

PROGRAMA	PROGRAMA
3111 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK. EGITURA ETA LAGUNTZA	3111 ESTRUCTURA Y APOYO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK</u>	<u>04 EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES</u>
KABINETE ETA KOMUNIKAZIO ZUZENDARIA ETA ZERBITZU ZUZENDARIA	DIRECTOR DE GABINETE Y COMUNICACIÓN Y DIRECTOR DE SERVICIOS

MEMORIA

Egiturari eta laguntzari buruzko programa Zerbitzu Zuzendaritza eta Kabinetearen Zuzendaritzaren bitartez garatzen da, eta zuzendaritza horiek Saileko Zuzendaritzei laguntzen die beren helburuak gauzatu ahal izateko.

Programa hau laguntza-zerbitzuen azpiegitura bat garatzea, barne-antolamendua hobetzea eta beste Sail batzuekin koordinatzea erraztuko duen organo horizontal baten moduan eratu da, Sailaren esparruetako politikak eraginkortasunez aplikatzea ahalbidetuko duen ingurune egoki bat sortze aldera.

Kabinetearen Zuzendaritzak, Sailaren programaren jarraipena egiteaz gain, sailburuak Eusko Legebiltzarrarekin, Arartekoarekin eta bestelako administrazioekin dituen kanpo-harremanak gidatzen ditu, biltzarrak, ekitaldiak, mintegiak, gizarte-arloko komunikabideekiko harremanak eta publizitate-kanpainak koordinatzen ditu, eta Sailaren argitalpenak kudeatzen ditu, baita argitalpen horien banaketa ere.

Organo hori arduratzen da honako arlo hauetaz: langileak, kudeaketa eta aurrekontu-kontrola, kontratazioa, hizkuntza-normalizazioa, euskaraz komunikatzea erraztuko duten planen kudeaketa eginez, eta Sailari laguntza orokorra ematea (estatistika-organoa, informatika, genero-berdintasuna, liburutegia, eta abar); era berean, aholkularitza juridikoko zereginak egiten ditu, eta Sailaren eskumeneko arloetako araubidea garatzeko arduraduna da.

Programa honek, besteak beste, honako zerbitzuok jasotzen ditu bere baitan:

- Zerbitzu juridikoa: gai juridikoei buruzko aholkatzelanak eta kudeaketa.

El programa de estructura y apoyo se desarrolla a través de la Dirección de Servicios y de la Dirección del Gabinete y Comunicación que prestan apoyo a las Direcciones del Departamento para que puedan llevar a cabo sus objetivos.

Este programa está concebido como un órgano que facilite el desarrollo de una infraestructura de servicios de apoyo, la mejora de la organización interna y la coordinación con otros Departamentos, para la creación de un entorno adecuado que suponga la aplicación eficaz de las políticas de las distintas áreas del Departamento.

La Dirección del Gabinete y Comunicación, además del seguimiento del programa del Departamento, gestiona las relaciones externas del Consejero con el Parlamento Vasco, Ararteko y otras administraciones, coordina la celebración de Congresos, Jornadas y seminarios del Departamento; las relaciones con los medios de comunicación social y las campañas de publicidad; gestiona las publicaciones del departamento, así como su distribución.

La Dirección de Servicios es el órgano responsable de las materias de personal, gestión y control presupuestario, contratación, normalización lingüística realizando la gestión de los planes que faciliten la comunicación en euskera y de apoyo general al Departamento (órgano estadístico, informática, igualdad de género, biblioteca, etc.) así mismo, realiza funciones de asesoramiento jurídico y es la responsable del desarrollo normativo en materias de competencia del Departamento.

Este programa contempla entre otros los siguientes servicios:

- Servicios jurídicos: Asesoría y gestión de los asuntos jurídicos.

- Kudeaketa ekonomikoa: aurrekontua lantzea eta haren jarraipena eta kontrola egitea. Aldez aurreko kontuhartzea eta kudeaketa-arlo desberdinei informazioa ematea.
- Kontratazio: Sailaren eskumenekoak diren administrazio-kontratazioko espedienteak izapidetzea, formalizatzea eta ebaztea.
- Antolamendua eta informatika: prozedurak definitu, ezarri, auditore-lanak egin, etengabe hobetu eta, beharrezkotzat jotzen denean, prozesuak mekanizatzea.
- Gestión económica: elaborar el presupuesto y realizar el seguimiento y control del mismo. Intervención previa y suministro de información a las distintas áreas de gestión.
- Contratación: Tramitación, formalización y resolución de expedientes de contratación administrativa que competen al Departamento.
- Organización e informática: apoyo en la definición, implantación, auditoria y mejora continua de los procesos incluyendo, en su caso, la mecanización de los procedimientos resultantes.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. SAILAREN KANPO-HARREMANAK, HEDABIDEEKIKO HARREMANAK ETA ARGITALPEN PLANA PRESTATU ETA KUDEATZEA</p> <p>1. Sailaren programaren jarraipena egitea.</p> <p>2. Sailburuak Eusko Legebiltzarrean egin beharreko agerraldiei buruzko aholkuak eta argibideak ematea, eta oro har, Eusko Legebiltzarreko harremanak eramatea.</p> <p>3. Arartekoarekiko harremana.</p> <p>4. Herritarrei argibideak ematea eta haien eskakizunei erantzutea, gaitutako komunikazio-bideen bitartez.</p> <p>5. Sailak antolatutako biltzarrak, jardunaldiak eta mintegiak koordinatzea.</p> <p>6. Sailak garatzen dituen informazio-kanpainak eta jardueren zabalkundea, eta gizarte-hedabideekiko harremanak.</p> <p>7. Sailaren argitalpenak kudeatzea: hautaketa, argitalpena eta zabalkundea.</p> <p>8. Sailaren azterketa-, ikerketa- eta ebaluazio-programak, zabalkundeari buruzko barne-txostenak eta ikerketarako laguntzak aukeratu eta garatzea.</p> <p>9. Kanpo-laguntzak kudeatzea, Sailaren jarduerari lotutako gaien aholkularitza zein kontsultoretzarako.</p>	<p>12</p> <p>48</p> <p>24</p> <p>12</p> <p>12</p> <p>12</p> <p>10</p> <p>12</p> <p>8</p>	<p>1. RELACIONES EXTERNAS DEL DEPARTAMENTO, RELACIÓN CON LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL Y ELABORACIÓN Y GESTIÓN DEL PLAN DE PUBLICACIONES</p> <p>1. Seguimiento del programa del Departamento.</p> <p>2. Establecer y asesorar las comparecencias del Consejero ante el Parlamento Vasco y, en general, el mantenimiento de las relaciones con el Parlamento Vasco u otras administraciones.</p> <p>3. Relación con el Ararteko.</p> <p>4. Información a la ciudadanía y respuesta a sus demandas a través de los diferentes canales de comunicación habilitados.</p> <p>5. Coordinación de congresos, jornadas, certámenes y seminarios organizados por el Departamento.</p> <p>6. Campañas de información y difusión de las actividades que lleva a cabo el Departamento y relación con los medios de comunicación social.</p> <p>7. Gestión de las publicaciones del Departamento: elección, edición y difusión de las mismas.</p> <p>8. Elección y desarrollo de los programas de estudio, investigación y evaluación del Departamento, así como los informes internos de difusión o las ayudas a la investigación.</p> <p>9. Gestión de las asistencias externas para el asesoramiento o consultoría de asuntos relacionados con la actividad del Departamento.</p>
<p>2. LAGUNTZA JURIDIKOA</p> <p>1. Xedapen orokorrak eta jarraibideak egitea.</p> <p>2. Irizpen eta txosten juridikoak prestatzea.</p>	<p>15</p> <p>90</p>	<p>2. ASESORÍA JURÍDICA</p> <p>1. Elaboración de disposiciones de carácter general e instrucciones.</p> <p>2. Emisión de dictámenes e informes jurídicos.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>3. Lege-gaiei buruzko txostenak.</p> <p>3. AURREKONTUEN AURRE-PROIEKTUA PRESTATU, KUDEATU ETA BETETZEN DELA BEGIRATZEA</p> <p>1. Aurrekontuen aurre-proiektua prestatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurreko urteko helburuak betetzeari buruzko txostena. - Aurrekontu-beharrei buruzko txostena. - Legeko artikulua aztertzea. <p>2. Kudeaketa eta aurrekontua zer-nola betetzen den begiratzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Aurrekontuak betearazteko txostenak, hamabostean behin. <p>4. GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA</p> <p>1. Administrazio-egoera ezberdinen eta langileen ordainsarien kudeatzea, bai eta Sailaren lanpostuen zerrenda egokitzea ere.</p> <p>2. Lan egutegiaren betetze maila kontrolatzea.</p> <p>2. Prestakuntza: lanpostu bakoitzari esleitutako eginkizunak gauzatzeko prozesua hobetzeko prestakuntza-plana ezartzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntza-ekintzen eskaintza eta baimenak. <p>5. ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOAREN KUDEAKETA</p> <p>1. Kontratu Txikiak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Espedienteak izapidetzea. <p>2. Administrazio kontratuak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Txostenak egin eta espedienteak izapidetzea. - Kontratu-gorabeherak eta -aldaketak ebaztea. - Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumenekoak beraren aurrean kudeatzea. <p>6. SAILEKO ZERBITZUAK INFORMATIZATZEA ETA PLAN INFORMATIKOA GARATZEA</p>	<p>120</p> <p>1</p> <p>12</p> <p>1</p> <p>24</p> <p>1.500</p> <p>12</p> <p>12</p> <p>120</p> <p>54</p> <p>48</p> <p>5</p>	<p>3. Informes sobre cuestiones legales.</p> <p>3. ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE PRESUPUESTOS, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DE SU EJECUCIÓN</p> <p>1. Elaboración del Anteproyecto de Presupuestos.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informe de cumplimiento objetivos año anterior. - Informe sobre necesidades presupuestarias. - Análisis del articulado de la Ley. <p>2. Gestión y Seguimiento de ejecución presupuestaria.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informes quincenales de ejecución presupuestaria. <p>4. GESTIÓN DE RECURSOS HUMANOS</p> <p>1. Gestión de los diferentes situaciones administrativas y retribuciones del personal, así como la adecuación de la relación de puestos de trabajo del Departamento.</p> <p>2. Control de cumplimiento del calendario laboral.</p> <p>3. Formación: establecer el plan de formación para mejorar el desempeño de las tareas atribuidas a cada puesto de trabajo.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oferta y autorizaciones de las acciones de formación. <p>5. GESTION DE LA CONTRATACIÓN ADMINISTRATIVA</p> <p>1. Contratos Menores.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Tramitar expedientes. <p>2. Contratos Administrativos.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Informar y tramitar los expedientes. - Resolver incidencias y modificaciones contractuales. - Gestionar ante la Comisión Central de Contratación los que son de su competencia. <p>6. INFORMATIZACIÓN DE LOS SERVICIOS DEL DEPARTAMENTO Y DESARROLLO DEL PLAN INFORMÁTICO</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Ekipamendu informatikoa mantentzea, informatika inbentarioa kudeatzea eta gaurkotzea, eta erabiltzaileari laguntzea.	54	1. Mantenimiento del equipamiento informático, gestión y actualización de su inventario, y apoyo al usuario.
2. Interneteko aplikazioen kanpoko erabiltzaileei euskarria ematea (ezbeharrak, irekierak, laguntzak, etab...).	364	2. Soporte a los usuarios externos de aplicaciones Internet (Siniestralidad, aperturas, ayudas, etc.).
3. Garapen berriak, lehendik dauden jarraipena egitea eta ustiapeneko aplikazioen mantenimendua.	6	3. Nuevos desarrollos, seguimiento de los existentes y mantenimiento de aplicaciones en explotación.
4. Saileko erabiltzaileei eta EJIEk eskaintzen dituen zerbitzuei dagozkienetan sarea kudeatzea.	24	4. Gestión de la Red en lo referente a Servidores Departamentales y servicios que presta EJIE.
5. Hardware eta Software erostea.		5. Adquisiciones de Hardware y Software.
7. ESTADISTIKA ERAGIKETAK		7. OPERACIONES ESTADÍSTICAS
1. Euskal Estatistika Planari dagozkienetan Sailaren eginbeharrak garatzea.		1. Desarrollo del Plan Vasco de Estadística en lo que compete al Departamento.
- Estatistikak.	5	- Estadísticas.
- Txosten analitiko orokorrak.	1	- Informes analíticos generales.
- Zabalkunderako barne-txostenak.	5	- Informes internos de difusión.
8. SAILEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA		8. FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL DEPARTAMENTO
1. Langileentzako euskara-ikastaroak, bai prestakuntza arruntekoak bai birziklatzekoak.	50	1. Cursos de euskera para los trabajadores/as tanto de formación ordinaria como de reciclaje.
2. Euskara planaren ezarpenak ekarriko dituen ekintzak: birziklatze,trebakuntza eta bestelako ikastaroak.	18	2. Actividades relacionadas con el Plan de Euskera: cursillos de habilitación, reciclaje y otros.
3. Dokumentuak itzultzea (euskara/gaztelania).	54	3. Traducción de documentos (euskera/ castellano).
9. SAILAREN BERDINTASUN POLITIKAK SUSTATU ETA KOORDINATZEA		9. IMPULSAR Y COORDINAR LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD DEL DEPARTAMENTO
1. Sailaren urteroko Berdintasun Plana egitea.	1	1. Elaboración del Plan para la Igualdad anual del Departamento.
2. Sailaren urteroko Berdintasun Planaren jarraipena eta emaitzen ebaluazioa.		2. Seguimiento y evaluación de resultados anual del Plan de Igualdad del Departamento.
3. Atxikitako zuzendaritzei eta erakundeei berdintasun gaietan aholkularitza emateko saioak.	20	3. Sesiones de asesoramiento en las distintas Direcciones y Entes adscritos en materia de igualdad.
4. Sailaren Berdintasunerako Lantalde Teknikoaren koordinazioa.		4. Coordinación del Grupo Técnico Departamental (GTD) para la Igualdad del Departamento.
5. Solaskidetza tekniko eta partaidetza berdintasunaren arloan dauden egitura tekniko guztietan, sailen artean eta erakundeen artean.		5. Interlocución técnica y participación en todas las estructuras técnicas existentes en materia de igualdad a nivel interdepartamental e interinstitucional.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> - Sail arteko Lantalde Teknikoa. - Erakunde arteko Lantalde Teknikoa. - Eusko Jaurlaritzako Berdintasun Unitateen Sarea. <p>6. Genero-eraginari buruzko txostenak egiteko aholkularitza.</p> <p>7. Komunikazioak, txostenak eta berdintasun-arloan ebatzitako kontsultak.</p> <p>10. DOKUMENTAZIO ZERBITZUAREN KUDEAKETA</p> <p>1. Sailarentzat interesgarria den informazio juridikoaren eguneroko laburpena.</p>	<p>6</p> <p>2</p> <p>8</p> <p>10</p> <p>60</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Grupo Técnico Interdepartamental. - Grupo Técnico Interinstitucional. - Red Unidades de Igualdad de Gobierno Vasco. <p>6. Asesoramientos en la elaboración de Informes de impacto de género.</p> <p>7. Comunicaciones, informaciones, y consultas resueltas en materia de igualdad.</p> <p>10. GESTIÓN DEL SERVICIO DE DOCUMENTACIÓN</p> <p>1. Resumen diario sobre información jurídica de interés para el Departamento.</p>

PROGRAMA
3112 LANA
ARDURADUNA
04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARIA

PROGRAMA
3112 TRABAJO
RESPONSABLE
04 EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
DIRECTOR DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

MEMORIA

Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzak Lan Agintaritzak gisa laneko eta lan-arriskuen prebentzioko arloan indarreko araudiaren arabera dagozkion eskumenak betetzera zuzenduko du bere jarduera ekitaldi honetan. Era berean, gizarte-elkarrizketa bultzatuko du gizarte-harremanak garatzeko eta administrazio-kudeaketa eta herritarrekin komunikazioa hobetzen jarraituko du. Ondorioz, 2013.ean Zuzendaritza honek bere jarduera honako ekintza hauetara bideratuko du:

- Enpresetako lan-baldintzak lan arloko legeekin bat datozela zaintzea, Administrazioaren eta administratuen arteko segurtasun juridikoa bermatuz.
- Enplegua Erregulatzeko Espedienteak izapidetzea betiere enpresako zuzendaritzaren eta langileen ordezkariaren arteko akordioa bultzatuz.
- Lantoki pribatu zein publikoetako lan-segurtasuna eta -osasuna kontrolatzea, istripu kopurua gutxitzeko eta prebentzioaren arloan kultura bat sortzeko.
- Lanaren esparruan eragile sozialekin elkarrizketa erraza sustatzea lan-harreman baketsuak lortzeko. Laneko gatazka kolektiboetan bitartekotzaren bidez alderdientzako konponbide egokiak bultzatzea.
- Hauteskunde Sindikaletako Batzordearen jarduera indartzea.
- Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzaren eta lurralde-ordezkaritzen kudeaketa hobetzea, zerbitzuaren prestazioaren kalitate- eta eraginkortasun-maila igotzeko.

La Dirección de Trabajo y Seguridad Social centrará su actividad, en el presente ejercicio, en ejecutar las competencias que como Autoridad Laboral le corresponden según la normativa vigente en materia laboral y en la de prevención de riesgos laborales. Igualmente potenciará el diálogo social para el desarrollo de las relaciones laborales y proseguirá con la mejora en la gestión administrativa y en la comunicación con la ciudadanía. En consecuencia, esta Dirección dirigirá su actividad a la realización, durante 2013, de las acciones que a continuación se señalan:

- Tutelar que las condiciones de trabajo en las empresas sean acordes a la legislación en materia laboral, garantizando la seguridad jurídica en las relaciones Administración-Administrados/as.
- Tramitar los Expedientes de Regulación de Empleo impulsando en todo momento el Acuerdo entre la dirección de la empresa y la representación de las y los trabajadores.
- Controlar la seguridad y salud laboral en los centros de trabajo, tanto privados como públicos, para reducir la siniestralidad y generar una cultura en materia preventiva.
- Promover un diálogo fluido con los agentes sociales en el ámbito laboral a fin de conseguir unas relaciones laborales pacíficas. Impulsar, a través de la intermediación en los conflictos colectivos de trabajo, soluciones válidas para las partes en los mismos.
- Potenciar la actuación del Comité de Elecciones Sindicales.
- Introducir nuevos procedimientos administrativos en la gestión de la Dirección de Trabajo y Seguridad Social y de las Delegaciones Territoriales para lograr mayores niveles de calidad y eficiencia en la prestación del servicio.

- Egoera soziolaboralaren estatistikak eta bilakaera-datuak argitaratzea, baita gai horri buruzko monografikoak ere.
- Estatistika eta informatika-produktuak hobetzea, herritarrekiko komunikazioa errazagoa izan dadin.

- Publicar estadísticas y datos de evolución de la situación sociolaboral, así como monográficos sobre esta materia.
- Mejorar los productos estadísticos e informáticos para lograr una intercomunicación más fluida con la ciudadanía.

Lan Ikuskaritzaren transferentzia eskuratuta, geure eskumenak garatuko ditugu gure Autonomia Erkidegoko langileen bitartez. Horrek esan nahi du gure kudeaketa-eredu berria Ikuskaritzaren jarduna autonomia-erkidegoko errealitate sozioekonomikora egokituko dela.

Asumida la transferencia de Inspección de Trabajo, se desarrollarán las competencias propias a través de un personal perteneciente a esta Comunidad. Ello conllevará un nuevo modelo de gestión, en el que se adaptará la actuación de la Inspección a la realidad socioeconómica de la Comunidad.

Bestalde, langileek euren lanpostuetan duten segurtasuna, higieena eta osasuna sustatzeari buruz OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundeak egiten dituen jardun guztiak bateratzeko eskuduntzak transferitzea aurreikusi da.

En otro orden de cosas, se contemplan las transferencias al Organismo Autónomo Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral - OSALAN con la finalidad de integrar todas las actividades del Instituto que se refieren a la promoción de la seguridad, higiene y salud de las y los trabajadores en el puesto de trabajo.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>1. EAEko LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO ERAKUNDEA</p> <p>1. OSALAN Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeari bere funtzioak betetzeko beharrezko aurrekontu zuzkidurak transferitzea.</p> <p>2. LANEKO IKUSKARITZA</p> <p>1. Goi-mailako koordinazioa eta zuzendaritza eskuratzea eta Laneko Ikuskaritzaren funtzionamendua zaintzea Autonomia Erkidegoaren eremuan.</p> <p>2. Lan Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren Antolamenduaren eta Funtzionamenduaren arloan sinatutako lankidetzahitzarmenean azaldutako akordioak garatzea sustatzea.</p> <p>3. LAN-ANTOLAMENDUA ETA LAN-HARREMANAK</p> <p>1. Lan Administrazioako Agintaritzaren zereginak gauzatzea.</p> <p>- Enplegu-erregulazioko espedienteak izapidetu eta ebaztea.</p> <p>- Lan-arloko zehapen-espedienteak izapidetu eta ebaztea.</p>	<p></p> <p></p> <p></p> <p></p> <p>2.750</p> <p>1.050</p>	<p>1. INSTITUTO VASCO DE SEGURIDAD Y SALUD LABORAL</p> <p>1. Transferir al Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laboral - OSALAN las dotaciones presupuestarias necesarias para el ejercicio de sus funciones.</p> <p>2. INSPECCIÓN TRABAJO</p> <p>1. Ostentar la dirección y coordinación superior y velar por el funcionamiento de la Inspección de Trabajo en el ámbito de la Comunidad Autónoma.</p> <p>2. Impulsar el desarrollo de los acuerdos contemplados en el Convenio de colaboración entre el Ministerio de Trabajo y el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco en materia de Organización y Funcionamiento de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social en la Comunidad Autónoma del País Vasco.</p> <p>3. ORDENACIÓN LABORAL Y RELACIONES LABORALES</p> <p>1. Ejercer las funciones de Autoridad Laboral.</p> <p>- Tramitar y resolver los expedientes de regulación de empleo.</p> <p>- Tramitar y resolver los expedientes de sanciones en el orden laboral.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"> - Ezinbesteko zerbitzuen espedienteak izapidetu eta ebaztea. 	65	<ul style="list-style-type: none"> - Tramitar y resolver expedientes de servicios esenciales.
<ul style="list-style-type: none"> - Banakako adiskidetzeeen espedienteak izapidetu eta ebaztea. 	30.000	<ul style="list-style-type: none"> - Tramitar y resolver expedientes de conciliaciones individuales.
<ul style="list-style-type: none"> - Lan-gatazketan bitartekotza egitea: bilerak gizarte-eragileekin, baita enpresa, eta langileekin ere. 	65	<ul style="list-style-type: none"> - Intermediar en conflictos laborales: reuniones con los agentes sociales, así como con las empresas y las y los trabajadores.
<p>2. Honako erregistro hauen hasierako inskripzioa eta aldaketak egitea:</p>		<p>2. Inscripción inicial y modificaciones en los Registros de:</p>
<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaburuen eta sindikatuen elkarteak. 	50	<ul style="list-style-type: none"> - Asociaciones Empresariales y Sindicales.
<ul style="list-style-type: none"> - Enpresen eta sindikatuen elkarteen ziurtagiriak. 	300	<ul style="list-style-type: none"> - Certificados Asociaciones Empresariales y Sindicales.
<ul style="list-style-type: none"> - Hitzarmen kolektiboak. 	250	<ul style="list-style-type: none"> - Convenios Colectivos.
<ul style="list-style-type: none"> - Aldi baterako Laneko Enpresak. 	20	<ul style="list-style-type: none"> - Empresas de Trabajo Temporal.
<ul style="list-style-type: none"> - Eraikuntzaren Sektoreko Enpresa Akreditatuen Erregistroa. 	1.200	<ul style="list-style-type: none"> - Registro de Empresas Acreditadas en el Sector de la Construcción.
<ul style="list-style-type: none"> - Prebentzio-zerbitzu gisa akreditatutako erakundeen eta auditoriak egiteko baimendutako pertsona edo erakundeen Erregistroko lehengo inskripzioa eta aldaketak. 	150	<ul style="list-style-type: none"> - Inscripción inicial y modificaciones en el Registro de entidades acreditadas como servicios de prevención y de personas o entidades autorizadas de auditoría.
<ul style="list-style-type: none"> - Lantokien irekiera. 	12.000	<ul style="list-style-type: none"> - Aperturas de Centros de Trabajo.
<ul style="list-style-type: none"> - Amianto arriskua duten enpresak. 	50	<ul style="list-style-type: none"> - Empresas con riesgo de amianto.
<p>4. LAN-EZBEHARRAK</p>		<p>4. SINIESTRALIDAD LABORAL</p>
<p>1. OSALANen Kontseilu Nagusian parte hartzea.</p>		<p>1. Participar en el Consejo General de OSALAN-Servicio Vasco de Seguridad y Salud Laborales.</p>
<p>OSALANeko Kontseilu Orokorren bileretara joatea lan-agintaritzza gisa.</p>	6	<p>Asistir en calidad de Autoridad laboral a las reuniones del Consejo General de OSALAN.</p>
<ul style="list-style-type: none"> - OSALANen eta Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaitzaren jarduerak koordinatzea lan-agintaritzza gisa. 	1	<ul style="list-style-type: none"> - Coordinar como Autoridad laboral las actuaciones de OSALAN y la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.
<ul style="list-style-type: none"> - Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren helburuak ezartzea 2013.urterako. 	1	<ul style="list-style-type: none"> - Establecer los objetivos para 2013 de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social.
<ul style="list-style-type: none"> - 2013. urterako helburuen betearazpenaren jarraipena eta kontrola egitea. Bilerak. 	40	<ul style="list-style-type: none"> - Efectuar el seguimiento y control de la ejecución de los Objetivos 2013. Reuniones.
<p>2. Lan Administrazioiko Agintaritzaren zereginak gauzatzea.</p>		<p>2. Ejercer las funciones de autoridad laboral.</p>
<ul style="list-style-type: none"> - IGATT – Istripu parteen erregistroa. 	100.000	<ul style="list-style-type: none"> - IGATT.- Registro de partes de accidente.
<p>3. Ikuskapenak egitea eta zigorrak ezartzea.</p>		<p>3. Inspección y actuaciones sancionadoras.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
- Ikuskapenak.	26.500	- Inspecciones.
- Arau-haustea.	800	- Infracciones.
4. Laneko istripuen eta osasunaren prebentzioa bultzatzea.		4. Impulso de la prevención de los Accidentes y salud Laborales.
EEAEn jarduerari dagokionez, 11 bilera egin dira 2012. urtean, eta 1.148 ebazpen-erabaki hartu dira. Horietatik gehienak (823) zehapen-espedienteak gauzatzean emandako premiamendu-erabakien kontrako erreklamazioetatik eratorri dira. Bestalde, 2012an ekonomia eta administrazio alorretako 2.237 erreklamazio ipini dira eta, beraz, izapidetzeke dauden erreklamazioen kopurua areagotu egin da. Zalantzarik gabe, 2012ko balantzeari eragin dio Epaitegiaren jarduna hurrengo atalean aipatuko diren zehapen-arloko araudi-aldaketetara moldatzeko premiak, izan ere, lan horretarako ezohiko baliabide-kopuru bat bideratu behar izan da.

Epaitegiaren kudeaketarako aplikazio informatikoari ebaluazio jarraitua egiteko estrategiari eutsi zaio eta, ebaluazio horren fruitu, aplikazioa aldatu da gaur egun zirkulazioaren arloan indarrean dagoen araudira, hots, 18/2009 Legeak zehapen-arloan egindako aldaketetatik eratorritakora, moldatzeko.

Ekonomia Itunean arautzen diren koordinazio eta lankidetzarako batzordeei laguntzeko, honako jardura hauek burutu dira:

Estatuko Administrazioak bidalitako arauzko proiektuak aztertu dira baita dagozkion txostenak prestatu ere, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeari emandako laguntza gisa.

Koordinazio-lanak egin dira foru-aldundien eta Estatuko Administrazioaren arteko harremanetan, batez ere Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekin (AEAT). Gainera, zenbait bileretan parte hartu da eta bitartekotza egin da foru-ogasunetako langileek beste administrazioek antolatutako bileretan, mintegietan edo prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko.

Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordearen kontsultak ebaztean parte hartu da: 4 izan dira 2012an.

Araugintza Koordinatu eta Ebaluatze Batzordeari egindako jakinarazpenen erregistroa, Ekonomia Ituneko 29.2 artikuluari lotuta (eragiketen bolumenaren proportzioa aldatzea): 28 izan dira 2012an.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoari laguntza eman zaio.

En cuanto al Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi (TEAE), se ha mantenido un contacto permanente con los centros implicados en la comunicación de los expedientes objeto de las reclamaciones y se han mejorado los procesos con el objetivo de optimizar los recursos empleados y mejorar los plazos y la calidad del procedimiento. Se ha incrementado el número de accesos telemáticos a la información del expediente gestionada por esos otros centros con el fin de que ésta sea consultada o extraída por parte de personal del Tribunal.

Se ha trabajado en el mantenimiento de la página Web específica relacionada con el TEAE en la que se contiene datos sobre el funcionamiento y normativa del propio Tribunal así como formularios tipo para la presentación de reclamaciones.

En lo que a la actividad del TEAE se refiere, durante el año 2012 se han efectuado 11 sesiones en las que se han adoptado 1.148 acuerdos resolutorios, de los que la mayoría (823) derivan de reclamaciones contra providencias de apremio emitidas en ejecución de expedientes sancionadores. Por otro lado, este año 2012 han sido interpuestas 2.237 reclamaciones económico-administrativas por lo que, consecuentemente, el número de reclamaciones pendientes de tramitación se ha incrementado. Sin duda, el balance de 2012 se ha visto afectado por la necesidad de adaptación de la actividad del Tribunal a las modificaciones normativas en materia sancionadora referidas en el siguiente apartado, cometido que ha requerido una dedicación extraordinaria de recursos.

Se mantiene la estrategia de evaluación continua de la aplicación informática de gestión del Tribunal y producto de esta evaluación, se ha modificado la aplicación con la finalidad de adaptarla a la normativa vigente en materia de tráfico, derivada de las modificaciones operadas por la Ley 18/2009, en materia sancionadora.

En apoyo a las Comisiones de coordinación y colaboración reguladas en el Concierto Económico se han efectuado las siguientes actividades:

Se han analizado los proyectos normativos remitidos por la Administración del Estado y elaborado los correspondientes informes como apoyo a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa.

Se han realizado labores de coordinación en las relaciones de las Diputaciones Forales con la Administración del Estado, en especial con la Agencia Estatal de Administración Tributaria (AEAT), participando además en reuniones y mediando para la participación de personal de las Haciendas Forales en reuniones, seminarios o cursos organizados por otras administraciones.

Participación en la resolución de consultas de la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa: 4 en 2012

Registro de comunicaciones a la Comisión de Coordinación y Evaluación Normativa en relación con el artículo 29.2 del Concierto Económico (cambio de la proporción de volumen de operaciones): 28 en 2012.

Apoyo a la Comisión Mixta del Concierto Económico.

Ekonomia Itunean jasotzen diren batzorde guztien eginkizunak hobeto betetzeko helburuz eskatu diren edo beharrezkotzat jo diren txosten, azterlan eta analisi guztiak prestatu dira.

Finantza Politika eta Erakundeen Baliabideen Zuzendaritzaren ogasunaren alorrean honako jarduerok dira aipagarriak:

2012rako behin-behineko kupoaren zatiak ordaindu dira eta 2011ko Kupoak kitatu da. Era berean, foru aldundien ekarpenak efektiboak izateko ezarritako epeak kalkulatu eta kudeatu dira.

Azken hiruhilekoan, Herri Diru-bideen Euskal Kontseiluak onartu zuen foru aldundiek 2013an Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharko dizkioten ekarpenen behin-behineko proposamena, baliabideen banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru aldundien ekarpenak zehazteko metodologiaren arabera.

Kontabilitate-oharpenak egin dira laurogei aurrekontu-partidatan. Hauek, Eusko Jaurlaritzak ondoren adierazten diren zioengatik sortutako diru-sarrerak jasotzen dituzte: EBtik eta Estatutik eratorritako fondoak, Foru Aldundien ekarpenak eta bestelako berezko diru-sarrerak.

Itundutako zergengatik foru aldundiek bildutako zergei jarraipena egin zaie hileroko txostena eginda.

Estatuko zerga-bilketa osoaren urteko segimendua egin da. Horren bitartez, zerga-administrazio bakoitzak eskuratutako emaitzak aztertu dira, bai eta EAEk Estatuan duen pisu erlatibo ere.

Kalkulatu eta kudeatu egin dira honako finantza isuriak: BEZaren egokitzapenetik, fabrikatzearen gaineko zerga berezien egokitzapenetatik eta kupotik eratorriak.

Kalkulatu eta kudeatu dira honako hauetatik eratorritako finantza isuriak: Foru Aldundien arteko egokitzapenak eta Egokitzapenerako Funtz Orokorren ekarpenak.

Euskal Autonomia Erkidegoak hainbat eskumenetan gastuak egotzi edo diru-sarrerak hartzeko bidezketasunari buruz irizpen batzuk prestatu dira.

Harremanak izan dira Europako Batzordearekin, Administrazio Zentralarekin eta Gipuzkoako Ur Kontsultazioarekin, autonomia-erkidegoak kudeatutako erkidegoko erabakien artean oraindik itxi ez den bakarrean sartutako 3 proiektuen azken saldoaren kobrantza kudeatzeko. Horri dagokionez, 2011ko uztailean jaso da Kohesio Funtzarekin batera finantzatzutako zenbatekoa likidatzeko proposamena.

Se han elaborado todos aquellos informes, estudios y análisis que han sido requeridos o se han considerado necesarios para un mejor cumplimiento de las funciones de las distintas comisiones contempladas en el Concierto Económico.

Dentro del ámbito de hacienda de la Dirección de Política Financiera y Recursos Institucionales, cabe destacar las siguientes actuaciones:

Se han realizado los pagos de los plazos del cupo provisional para 2012, así como la liquidación del Cupo para 2011. Asimismo, se han calculado y gestionado los plazos establecidos para hacer efectivas las Aportaciones de las Diputaciones Forales.

En el último trimestre se acordó, en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, la propuesta provisional de Aportaciones de las Diputaciones Forales a la Comunidad Autónoma del País Vasco para el año 2013, de acuerdo con la metodología de distribución de recursos y de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los Presupuestos de la CAPV.

Se han formalizado anotaciones contables en ochenta partidas presupuestarias, que reflejan los ingresos devengados por el Gobierno Vasco por los conceptos siguientes: fondos procedentes de la UE y del Estado, Aportaciones de las Diputaciones Forales y otros ingresos propios.

Se ha efectuado el seguimiento de la recaudación tributaria de las Diputaciones Forales por tributos concertados con un informe mensual.

Con carácter anual se ha realizado el seguimiento de la recaudación tributaria total del Estado, en el que se analizan los resultados obtenidos por cada una de las administraciones tributarias, así como el peso relativo de la CAPV en el conjunto del Estado.

Se han calculado y gestionado los flujos financieros procedentes del ajuste IVA, de los ajustes de los impuestos especiales de fabricación y del cupo.

Se han calculado y gestionado los flujos financieros procedentes de los ajustes entre las Diputaciones Forales y de las Aportaciones del fondo General de Ajuste.

Se han elaborado dictámenes sobre la procedencia o no de imputaciones de gastos o percepciones de ingresos por esta Comunidad Autónoma referentes a distintas áreas competenciales.

Se han seguido manteniendo contactos con la Comisión Europea, la Administración Central y el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa para la gestión del cobro del saldo final de los 3 proyectos incluidos en la única Decisión comunitaria, entre las gestionadas por la Comunidad Autónoma, que aún no ha sido cerrada y para la que en julio de 2011 se ha recibido la propuesta de liquidación del importe cofinanciado por el Fondo de Cohesión.

Udal Sektore Publikoko erakundeen 2009ko ekitaldietako kitapenei dagozkien datuak argitaratu dira eta 2010. urteari dagokiona egiten ari da.

Inbertsio Publikoari Finantza Laguntza Emateko 2007-2011 aldirako Esparru Planaren baitan dauden erakundeetako proiektuen jarraipena egin da, foru-aldundien proiektuak Eusko Jaurlaritzarekin batera finantzatzeagatik ordainketak eginez.

Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Azpiegituren 2007-2011 aldirako Funtsaren baitan dauden erakundeetako proiektuen jarraipena egin da, foru-aldundien proiektuak Eusko Jaurlaritzarekin batera finantzatzeagatik ordainketak eginez.

Beharrezkotzat hartu diren txosten, azterlan eta azterketak egin dira, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzerakoan foru aldundiek egin beharreko ekarpenak zehazteko eta baliabideak banatzeko 2012-2016 denboraldirako metodologia finkatuko duen hurrengo legearen euskarri izan daitezten.

Udalen lege-aurreproiektuarekin lotutako txosten, azterlan eta azterketak egin dira.

Finantza Politika eta Erakundeen Baliabideen Zuzendaritzaren finantzen alorrean honako jarduera hauek adierazi behar dira:

Diruzaintza kudeatu da, Urteko Planari eta hiruhilabeteko aurrekontuei jarraiki.

Jaurlaritzaren, erakundeen eta sozietate publikoen aktibo eta pasiboaren eragiketen baldintzak zehazten dituen zirkular bi egin dira, bata bigarren hiruhilekorako eta bestea bigarren seihilekorako, horiek negoziatu ondoren, eta Jaurlaritzaren sail ororen finantza-hitzarmen guztien baldintzak ikuskatu dira. Sozietate publikoen zorpetze-eragiketen baldintzak ikuskatu eta, egokia izan denean, baimendu egin dira.

Aseguru-bitartekaritzaren arloari dagokionez, Zuzendaritza honek kudeatzen duen Aseguru-bitartekarien, Berraseguru-artekarien eta haien goi-kargudunen Administrazio Erregistro Berezian 12 aseguru-bitartekariren inskripzio-idazpenak egin eta beste 19renak ezeztatu dira.

Aplikazio informatiko bat abian jarri da, Aseguru-bitartekariak urteko Dokumentazio Estatistiko Kontablea Zuzendaritza honetara urtero bidaltzeko duten eginbeharra betetzen laguntzeko. Dokumentazio hori telematikoki bidali ahalko dute.

Se han publicado los datos referentes a las liquidaciones del ejercicio 2009 de las entidades del Sector Público Municipal y se encuentra en proceso de elaboración el correspondiente a 2010.

Se ha hecho un seguimiento de los proyectos de las distintas instituciones incluidos en el Plan Marco de Apoyo Financiero a la Inversión Pública, para el período 2007-2011, realizando los pagos por la cofinanciación correspondiente al Gobierno Vasco de los proyectos de las Diputaciones Forales.

Se ha hecho un seguimiento de los proyectos de las distintas instituciones incluidas en el Fondo de Infraestructuras Sanitarias y de Servicios Sociales 2007-2011, realizando los pagos por la cofinanciación correspondiente al Gobierno Vasco de los proyectos de las Diputaciones Forales.

Se han realizado informes, estudios y análisis considerados necesarios como documentación soporte para la próxima Ley de Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al período 2012-2016.

Se han realizado informes, estudios y análisis en relación con el anteproyecto de Ley Municipal.

Dentro del área de finanzas de la Dirección de Política Financiera y Recursos Institucionales procede reflejar las siguientes actuaciones:

Se ha realizado la gestión de la Tesorería, de acuerdo con el Plan Anual y los Presupuestos Trimestrales.

Se han emitido, tras su negociación, dos circulares fijando las condiciones de las operaciones de activo y pasivo del Gobierno, Organismos y Sociedades Públicas, una para el segundo trimestre y otra para el segundo semestre del ejercicio y se han supervisado las condiciones de todos los Convenios Financieros de los distintos Departamentos del Gobierno. Se han supervisado las condiciones y autorizado, en su caso, las operaciones de endeudamiento de las Sociedades Públicas.

En el área de mediación de seguros, en el Registro Administrativo Especial de Mediadores de Seguros, Corredores de Reaseguros y de sus altos cargos, que gestiona esta Dirección, se han realizado los asientos de inscripción de 12 mediadores de seguros y la cancelación de otros 19.

Se ha puesto en marcha una aplicación informática para facilitar que los mediadores de seguros cumplan con la obligación anual de envío, a esta Dirección, de la Documentación Estadístico Contable anual, de manera telemática.

Web orri bat prestatu da, aseguru-bitartekaritzako jarduera gauzatu nahi duten pertsona fisiko zein juridikoentzat, beren egoitza soziala eta jarduera-eremua Euskal Autonomia Erkidegoan duten heinean. Horretarako, azalpen-testuak eta normalizatutako txantiloak prestatu dira, euskaraz eta gaztelaniaz, hainbat izapide egin ahal izateko: inskripzio- eta ezeztapen-eskaerak, partaidetzak eskualdatzeko baimena, ziurtagiriak eta erregistroko datuak aldatzeko jakinarazpen-agiriak.

Horrez gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Aseguru-bitartekarien, Berraseguru-artekarien eta haien goikargudunen Administrazio Erregistro Berezia sortu eta arautzen duen Dekretuaren zirriborroa egin da. Dekretu horretan arautzen dira kontabilitate-eginbeharrak eta estatistika eta kontabilitate-informazioa emateko eginbeharra, bai eta arlo horretan aplikatzeko zehapen-prozedura ere.

Postontzi elektronikoko berezi bat sortu da (mediadoresdeseguros@ej-gv.es), aseguru-bitartekaritzarekin lotutako kontsultak eta jakinarazpenak ebatzi eta erantzuteko.

Era berean, erregistro autonomikoko datuak Aseguruen Zuzendaritza Orokorrak (AZO) gaitutako informazio-puntu bakarrera iraulita, komunikazio automatikoa izatea lortu da eta, horrela, aipatutako puntu horretan eskura daitezke erregistratutako bitartekarien oinarrizko datuak.

Bilketa-jarduerak zuzendu eta kontrolatzeaz gainera, hainbat jarraibide bidali zaizkio, idatziz, C02/020/2011 "Zuzenbide publikoko sarrerak premiamendu bidetiko diru-bilketa kudeatzeko eginkizunak burutzeko, laguntzakoak eta osagarriak diren zerbitzuak" Zerbitzu Kontratuaren esleipendunari. Kontratu hori diru-bilketa exekutiboko protokoloei buruzkoa da, errekurtsoen, zatikatu beharreko zenbatekoen, kobraezinen izapideen, bahitura-jardueren eta bide exekutiboan zatikapenak ematearen arloetan.

Hiru foru-aldundietan datuak emateari buruzko zergen arloko foru-araudia aldatzea lortu ondoren, hasi dira exekuzio-aldiko zordunen soldaten bahiketak, Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoko Zuzendaritzarekiko koordinazioan, Elkarreaginkortasun Interfazea izenekoaren bidez. Azken horrek nomina- eta soldata-ordaintzaileen datuak jakiteko bidea ematen du. Aplikazio horri berari esker zordunen egoitza fiskaletako datuetara jo daiteke eta, horrela, premiamendu-erabakien eskubidearekin bat datorren jakinarazpena egin daiteke.

Txostenak egin eta zirkularrak bidali zaizkie sailtako zerbitzu-zuzendaritzetara, Ekonomia Lankidetzako Erakundearekin batera, diru-laguntzak itzultzeko orduan kobraezinak diren zordunen egoeretan erantzukizun subsidiarioa besteratzeari buruzkoak.

Administrazioaren Ordainketa eta Kobruen Sistema Integrala (SIPCA) izeneko tresna informatikoan hobekuntzak egin dira. Tresna hori exekuzio-aldiako diru-sarreraren bilketa kudeatzeko erabiltzen da.

Se ha elaborado una página Web dirigida a aquellas personas, tanto físicas como jurídicas, que pretendan realizar la actividad de mediación de seguros y, cuyo domicilio social y ámbito de actuación sea la Comunidad Autónoma del País Vasco. A estos efectos, se han confeccionado, en euskera y castellano, textos explicativos y plantillas normalizadas para tramitar las solicitudes de inscripción, cancelación, autorización para transmisión de participaciones, certificaciones y comunicación de modificación de datos registrales.

Se ha elaborado un borrador de Decreto por el que se crea y regula el Registro Administrativo Especial de Mediadores de Seguros, Corredores de Reaseguros y de sus altos cargos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como las obligaciones contables y deber de información estadístico-contable, además del procedimiento sancionador aplicable en este ámbito.

Se ha creado un buzón de correo electrónico específico (mediadoresdeseguros@ej-gv.es), en las que se resuelven y contestan las consultas y comunicaciones relacionadas con la mediación de seguros.

Asimismo, se ha logrado la comunicación automática, mediante vuelco de los datos registrales del registro autonómico al Punto Único de información habilitado por la Dirección General de Seguros (DGS), donde se puede acceder a los datos básicos de los distintos mediadores registrados.

Además de la dirección y control de actuaciones recaudatorias, se han dictado varias instrucciones escritas al adjudicatario del Contrato de Servicios C02/020/2011 "Servicios complementarios y de colaboración y asistencia en la realización de las labores de gestión recaudatoria en vía de apremio de ingresos de derecho público" sobre protocolos de recaudación ejecutiva en materia de recursos, importes a fraccionar, tramitación de fallidos, actuaciones de embargo y concesión de fraccionamientos en ejecutiva.

Tras lograr la modificación de la normativa foral tributaria en materia de cesión de datos de las tres diputaciones, en coordinación con la Dirección de Innovación y Administración Electrónica (DIAE) se han iniciado los embargos de sueldos de deudores en periodo ejecutivo, a través de la aplicación denominada Interfaz de Interoperabilidad que permite conocer los datos de pagadores de nóminas y salarios. Esa misma aplicación ha permitido acceder a los datos de los domicilios fiscales de los deudores, lo que permite una notificación conforme a derecho de las providencias de apremio.

Se han elaborado informes y publicado circulares a todas las Direcciones de Servicios de los distintos departamentos, conjuntamente con la OCE, sobre derivación de responsabilidad subsidiaria en los supuestos de deudores fallidos en materia de reversiones de subvenciones y ayudas.

Se han implementado mejoras en la herramienta informática Sistema integral de pagos y cobros de la Administración SIPCA, utilizada para la gestión recaudatoria de los ingresos en periodo ejecutivo.

Exekuzio-aldiako zorren konpentsaziorako erabiltzen den sistema hobetu da, eta sail guztietara bidali dira hirugarrenak blokeatzeko irizpideak, konpentsazioko ebazpen administratiboak emateko orduan jarraitu beharreko jardute-protokolo batekin batera.

Merkatu-ikuskapenaren arloan, 8 txosten egin dira martxoaren 9ko 159/1999 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Baloreak Kontratatzeko Zentroen araubide juridikoa ezartzeko denak, xedatutakoaren arabera eratorritako eskumenei buruz. Dekretu horrek honako hau agintzen du: "Balore-burtsetako sozietate artezkariek urteko aurrekontu balioetsi bat gertatuko dute. Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dagokion urteko abenduaren 1a baino lehen onartu beharko du aurrekontu hori".

C42 aplikazio informatikoa sortu da, urrutiko ikuskapenerako, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeetako dokumentazio estatistiko-kontablea egiteko.

Baimentzeko espedienteen ebazpenak egin dira administratiboki aurreikusitako kasuetan, baita erregistro ofizialetan dagozkien inskribapenak egin ere.

Eusko Legebiltzarrak lege hauek onartu eta EHAAN argitaratu dira: 11/2012 Legea, ekainaren 14koa, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrezki-kutxena; eta 5/2012 Legea, otsailaren 23koa, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeena.

Orobat onartu da Ogasun eta Finantzetako sailburuordearen Instrukzioa, 2012ko uztailaren 26koa. Horren bidez onartu dira 5/2012 Legearen, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen, hainbat artikuluri buruzko interpretazio-irizpideak.

2012ko uztailaren 5ean antolatu eta kudeatzen hasi da ezohiko finantzazio-ildo berria, enpresa txiki eta ertainentzako eta autonomoentzako berme publikoarekin.

Berriro eguneratu da partaidetza-maileguak finantzatzeko Luzaro KFE sozietatearekin egindako hitzarmena.

Elkargi EBB, Luzaro KFE eta Oinarri EBB finantzazio-sozietateei laguntzeko ohiko ekintzekin jarraitu da (diru-laguntzak emateko eta birfinkatzeko hitzarmenen bitartez), EAEko enpresa txiki eta ertainentzako finantziazioa hobetze aldera.

Se ha mejorado la sistemática de compensaciones de deudas en periodo ejecutivo y se ha circularizado a todos los departamentos los criterios de bloqueos de terceros, con un protocolo de actuaciones de cara a dictar resoluciones administrativas de compensación.

En el área de supervisión de mercados se han emitido 8 informes en relación con las competencias derivadas del Decreto 159/1999, de 9 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los Centros de Contratación de Valores de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que establece que "las Sociedades Rectoras de las Bolsas de Valores elaborarán un presupuesto estimativo anual, que deberá ser sometido a la aprobación del Departamento de Hacienda y Administración Pública antes del uno de diciembre de cada año".

Se ha implementado la aplicación informática, de supervisión a distancia, C42 de documentación estadístico contable de las Entidades de Previsión Social Voluntaria.

Se han realizado las resoluciones de los expedientes de autorización en los casos previstos administrativamente, las inscripciones correspondientes en los Registros Oficiales.

Se han aprobado en el Parlamento Vasco y publicado en el BOPV: el 14 de junio la Ley 11/2012 de Cajas de Ahorros de la Comunidad Autónoma de Euskadi y el 23 de febrero la Ley 5/2012 sobre Entidades de Previsión Social Voluntaria.

Asimismo, se ha aprobado la Instrucción de la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas, de 26 de julio de 2012, por la que se aprueban criterios interpretativos sobre diversos artículos de la Ley 5/2012 sobre Entidades de Previsión Social Voluntaria.

Se ha instrumentado el pasado 5 de julio de 2012 y comenzado a gestionar la nueva línea de Financiación Extraordinaria con garantía pública para Pymes y autónomos.

Se ha actualizado el convenio con Luzaro EFC SA para la financiación de préstamos participativos.

Se han continuado las acciones de apoyo (vía Convenios subvencionales y de Reafianzamiento) a distintas sociedades financieras (Elkargi, S.G.R., Luzaro, EFC y Oinarri, S.G.R) con el fin de mejorar la financiación a las pequeñas y medianas empresas de Euskadi

Industria Sailarekin batera prestatu da 127/2012 Dekretua, uztailaren 10ekoa, enpresak finantzatzeko abal publikoak emateko ezohiko programa bat garatzeko dena. Dekretu hori aplikatuz, Finantzetako Zuzendaritzak bermeen formalizazioak izapidetzeaz gainera, 5 txosten egin ditu, Industria eta Energiako sailburuordeak ebazpen bidez bermea baimendu aurretik. Txosten horiek gai hauek jorratzen dituzte: azaroaren 8ko 8/1996 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko finantzei buruzkoak, bere 37. artikuluan xedatzen duen muga ez xahutzea, eragiketen ezaugarri ekonomikoak eta finantzei dagozkienak, eta enpresa eskatzaileak exekuzio-aldian Euskal Autonomia Erkidegoarekiko zorrik ez izatea. Era berean, 2011ri dagokion ezohiko programa aplikatuz (125/2011 Dekretua, ekainaren 14koa), 2012an zehar 63 berme-dokumentu formalizatu dira finantza-erakundeen aurrean, autonomia-erkidego honetako Administrazioaren izenean. Berme-dokumentu horiek aipatutako programaren 15 enpresa onuradunei dagozkie.

2012. urtean Finantzen Euskal Institutuak parte hartu du, Eusko Jaurlaritzako finantza-agentzia gisara, Arrisku Kapitalaren Ezten Funtsean, eta hitzarmena sinatu du Socaderekin (Euskadiko Garapen Kapitaleko Sozietatea), euskal enpresen inbertsio estrategikoak sustatzeko. Gainera, 217/2010 Dekretuak zientzia- eta teknologia-inbertsioak egiteko garatutako Programari dagozkion maileguak eman dira, baita Socaderekin sinatutako hitzarmenaren kargurakoak ere.

ONDAREA ETA KONTRATAZIOA, BALIABIDE OROKORRAK, ETA INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIOETAKO ATALA

Ondare arloari dagokionez, honako hauek dira jarduerarik aipagarrienak:

Euskadiko Ondarean sartuta dauden edo sartu behar diren ondasun higiezinaren eta horien gaineko eskubideen kudeaketa, esaterako eskuratzeko, alokairuak, atxikipenak, besterentzeak, lagapenak, etab.

Atal honetako jarduera zehatzen artean, nabarmentzekoa da bukatu direla aurreko ekitaldian irekitako bost espedienteak, alegia, dituzten eskumenak gauzatzeko beharrezkoak ez diren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titulartasuneko higiezinak besterentzekoak. Horietatik hiruk higiezinaren esleipena ekarri dute, enkante publiko bidez; gainerako biak hutsik geratu ziren, zegokien enkantean eskaintzailerik ez egoteagatik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zordunek eskaintako ondasun edo eskubideak atzeratutako kuoten ordainketa-berme gisara nahikoa diren balioetsi da, bai eta atzerapenak eman ondoren formalizatutako berme errealak onartu ere.

Se ha elaborado, conjuntamente con el Departamento de Industria, el Decreto 127/2012, de 10 de julio, por el que se desarrolla un programa extraordinario de concesión de avales públicos para la financiación empresarial, y en aplicación del mismo además de tramitar las formalizaciones de avales, la Dirección de Finanzas ha emitido, con carácter previo a la resolución del Viceconsejero de Industria y Energía autorizando el aval, 5 informes relativos al no agotamiento del límite establecido en el artículo 37 de la Ley 8/1996, de 8 de noviembre, de finanzas de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a las características económico-financieras de las operaciones y la no existencia de deudas de la empresa solicitante con la Administración de la Comunidad autónoma de Euskadi en periodo ejecutivo. Asimismo, en aplicación del programa extraordinario correspondiente a 2011 –Decreto 125/2011, de 14 de junio– se han formalizado a lo largo de 2012, en nombre de la Administración de esta Comunidad Autónoma, 63 documentos de aval ante entidades financieras, correspondientes a 15 empresas beneficiarias del referido programa.

A lo largo de este año, el Instituto Vasco de Finanzas, como agencia financiera del Gobierno Vasco, ha tomado una participación en Ezten Fondo Capital Riesgo y ha formalizado un Convenio con Socade para el fomento de las inversiones estratégicas de las empresas vascas. Además, se han concedido préstamos correspondientes al Programa para la realización de inversiones científico-tecnológicas desarrollado por el Decreto 217/2010, y también préstamos con cargo al Convenio firmado con Socade.

ÁREA DE PATRIMONIO Y CONTRATACIÓN, RECURSOS GENERALES E INFORMÁTICA Y TELECOMUNICACIONES

Dentro del área de Patrimonio, cabe citar las siguientes actuaciones:

Gestión de los bienes inmuebles y derechos sobre los mismos, incluidos o a incluir en el Patrimonio de Euskadi, tales como adquisiciones, arrendamientos, adscripciones, enajenaciones, cesiones, etc.

Como realizaciones concretas en este apartado cabe destacar la finalización de los cinco expedientes abiertos en el ejercicio anterior para la enajenación de aquellos inmuebles titularidad de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi que no sean necesarios para el ejercicio de sus competencias. De ellos solo tres han dado lugar a la adjudicación del inmueble en pública subasta, en tanto que los dos restantes se declararon desiertos por falta de postores en la correspondiente subasta.

Valoración de suficiencia de bienes o derechos, ofrecidos por deudores de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en garantía del pago de cuotas aplazadas, así como la correspondiente aceptación de las garantías reales formalizadas tras la concesión de los aplazamientos.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zordunei lotuta EAEko Merkataritza Arloko Epaitegietan izan diren lehiaketa-prozedurak sustatu eta haien jarraipena egin da, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Auzibide Zuzendaritzarekin lankidetzan.

Aholkularitza eman eta txostenak egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak parte hartzen duen sozietateak, fundazioak eta gainerako erakundeak sortzeari, iraungitzeari, aldatzeari, horietan parte hartzeari eta administratzeari dagokionez, besteak beste, erakunde horiek Administrazioko Sektore Publikoan integratuta dauden edo ez axola gabe

Euskal Autonomia Erkidegoko ondarean integratutako ondasun eta eskubideetan hirugarrenek eragindako kalteengatiko erreklamazioak izapidetu eta haien jarraipena egin da, Administrazioaren interesak defendatzeko egokiak diren zigor-arloko zein arlo zibileko ekintzak gauzatzuz.

Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzan izapidetutako espedienteetan Administrazioaren alde aitortutako diru-sarrerak kudeatu dira.

Arriskuen eta aseguruaren arloan, arrisku pertsonalak, ondarearenak, erantzukizun zibilekoak eta ibilgailuenak barne hartzen dituen kontratu globalak (indarrean dagoenak) estalitako ezbeharren espedienteak aztertzen, kudeatzen eta izapidetzen jarraitu da.

2012ko ekitaldi honetan, hasierako kontratua luzatzea negoziatu eta adostu da, eta murrizketa garrantzitsuak lortu dira ordaindu beharreko primetan, baina estaldurak mantenduta.

Aipamen berezia merezi du Eusko Jaurlaritzako sailek garatu edota sustatutako prestakuntza-, hezkuntza- eta lankidetzaprogrametara atxikitako ikasle, bekadun eta partaideen arrisku-aseguruari dagokion kontratukudeaketak. Izan ere, sinatu den kontratuak estaldurak hobetzen ditu, batetik, aseguraturako kapitalaren berme garrantzitsuak eta osasun-laguntzaren hedakuntza barne hartzen dituelako eta, bestetik, kontratuaren primak % 4ko murriztu dituelako.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratuak babesten dituen ezbeharrek kudeatzeko lanean, arlo hauetan jardun da: enplegu-politikak, gizarteratze-politikak eta beka sektorialak.

Azkenik, urte osoan zehar hainbat lan-bilera antolatu dira bitartekaritza-konpainiekin, aseguruaren merkatuaren eta ezbehar-tasaren etengabeko jarraipena egiteko, bai eta aholkuak bilatzeko ere, arrisku-estalduraren arloko etorkizuneko kontratuetan sartu beharreko klausulei dagokionez.

Kontratazio arloari dagokionez, honako hauek dira jarduerarik aipagarrienak:

Impulso y seguimiento de los procedimientos concursales seguidos en los Juzgados de lo Mercantil del País Vasco respecto de deudores de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en coordinación con la Dirección de lo Contencioso del Departamento de Administración Pública y Justicia.

Asesoramiento e informes relativos a la creación, extinción, modificación, participación, administración, etc. de sociedades, fundaciones y demás entes en los que participa la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, estén o no integrados en el Sector Público de ella.

Tramitación y seguimiento de las reclamaciones por daños causados por terceros en los bienes y derechos integrados en el patrimonio de Euskadi, ejerciendo las acciones penales y civiles que procedan en defensa de los intereses de la Administración.

Gestión de los ingresos reconocidos a favor de la Administración en expedientes tramitados en la Dirección de Patrimonio y Contratación.

En el ámbito de riesgos y seguros se ha continuado con el análisis, gestión y tramitación de los expedientes de siniestros cubiertos por el Contrato global y vigente que abarca la cobertura de riesgos personales, patrimoniales, de responsabilidad civil y vehículos, concretados en siete pólizas.

En este ejercicio 2012 se ha negociado y acordado la primera prórroga del contrato inicial, lográndose importantes reducciones en las primas a pagar manteniendo las coberturas.

Especial mención merece la gestión contractual relativa al aseguramiento de los riesgos de alumnos, becarios y participantes acogidos a los diferentes programas de formación, educación y colaboración desarrollados y/o promovidos por Departamentos del Gobierno Vasco, que ha culminado en la suscripción de un contrato que, respecto del anteriormente vigente comporta, además de una mejora de coberturas al incorporar ex novo importantes garantías en capital asegurado y la extensión de la asistencia sanitaria, una reducción del 4% en las primas del contrato.

En la gestión de los siniestros amparados por el contrato señalado en el párrafo anterior se ha actuado en los siguientes ámbitos: políticas de empleo, políticas de integración y becas sectoriales.

Finalmente, a lo largo de todo el año se han mantenido numerosas reuniones de trabajo con las compañías Mediadoras para hacer un seguimiento permanente del mercado asegurador y de la siniestralidad, así como para recabar asesoramiento sobre clausulado idóneo a incluir en las futuras contrataciones en el ámbito de la cobertura de riesgos.

Dentro del área de Contratación, cabe citar las siguientes actuaciones:

Kontratazio publikorako enpresen sailkapen-sistemaren jarraipen eta kudeaketa.

Kontratuen eta Kontratisten Erregistroaren kudeaketa, eta enpresen sailkapena, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeari laguntza teknikoa emanda eskumenen eremu honetan.

Kontratazio Batzorde Nagusiak arreta osoa jarri du garrantzi ekonomiko handiena duten espedienteetan.

Kontratazio publiko elektronikoaren erabilera sendotzeko bidezko ekintzak sustatu dira Eusko Jaurlaritzako sail guztietan eta bere mendeko erakundeetan.

Kontratazio publiko elektronikoaren inguruko hedapen- eta prestakuntza-ekintzak egiten jarraitu da enpresen eremuan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sektore publikoan beste kontratazio-araubide bat ezartzeko dekretu-proiektu bat egin da. Horrela bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak kontratazio publikoari buruz ezartzen duen araubideari egokitu zaio.

Hau da, arlo honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratu Errekurtsuen Administrazio Organoaren (KEAO) jarduera-eremua:

Kontratazio-arloko errekurtsio berezia, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, azaroaren 14koak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina (SPKLTB) onartzen duenak, 40. eta 49. artikuluen artean xedatutakoari dagokiona.

Uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetako kontratazio-prozedurei buruzko urriaren 30eko 31/2007 Legearen 101etik 108ra bitarteko artikuluetan aurreikusten diren kontratuen esleipeneko eta deuseztasuneko auzietako prozeduretan aurkezten diren erreklamazioak ebaztea.

SPKLTBko 37. artikulutik 39.era xedatutako kontratu-deuseztasuneko kasu bereziak.

31/2007 Legearen 1909tik 111ra bitarteko artikuluetan aurreikusitako deuseztasuneko auziak.

Jende guztia sartzeko moduko kontratuen erregistroa sortu da, kontratu guztien bizitza jakiteko beharrezko erregistroekin.

Arrakastaz ezarri da Administrazio honen eta hiru foru-aldundien, Zerga Agentziaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren artean datuak telematikoki eskualdatzeko elkarreragintza.

Kontratazio espedienteen kudeaketa, kontratisten erregistroa, enpresen sailkapena eta lizitazio elektronikoa aplikazioen eguneraketak garatzea.

Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren alorrean honako jarduerok dira aipagarriak:

Seguimiento y gestión del sistema de clasificación empresarial para la contratación pública.

Gestión del Registro de Contratos y de Contratistas y la clasificación de empresas, dando soporte técnico a la Junta Asesora de la Contratación Administrativa en este ámbito material de competencias.

La Comisión Central de Contratación se ha centrado en los expedientes de mayor importancia económica.

Se han impulsado las acciones pertinentes dirigidas a la consolidación del uso de la contratación pública electrónica en todos los Departamentos del Gobierno Vasco y sus Organismos dependientes.

Se ha continuado con las acciones de difusión y formación en la contratación pública electrónica en el ámbito de las empresas.

Se ha elaborado un proyecto de Decreto por el que se establece un nuevo régimen de la contratación en el Sector Público de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, adaptado a la regulación que sobre contratación pública establece la Ley 30/2007, de 30 de octubre de Contratos del Sector Público.

En esta área el ámbito de actuación del Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi (OARC/KEAO) es el siguiente:

Recurso especial en materia de contratación de los artículos 40 a 49 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, que aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCS).

Resolver las reclamaciones en los procedimientos de adjudicación de los contratos y de la cuestión de nulidad, previstas en los artículos 101 a 108 de la Ley 31/2007, de 30 de octubre, sobre procedimientos de contratación en los sectores del agua, la energía, los transportes y los servicios postales.

Supuestos especiales de nulidad contractual de los artículos 37 a 39 del TRLCS.

La cuestión de nulidad de los artículos 109 a 111 de la Ley 31/2007.

Se ha creado un registro de contratos de acceso universal, con los registros necesarios para conocer la vida de cada uno de los contratos.

Se ha implantado con éxito la interoperabilidad para transmisión de datos telemáticamente entre esta Administración y las tres Diputaciones Forales, la Agencia Tributaria y la Tesorería General de la Seguridad social.

Desarrollo de las actualizaciones de las aplicaciones de gestión de expedientes de contratación; registro de contratistas; clasificación de empresas y licitación electrónica.

Dentro del área de la Dirección de Recursos Generales, cabe destacar las siguientes actuaciones:

Politikak, arauak eta sistemak koordinatu eta gauzatea bere izaeratik Administrazioan ohikoak eta erabilera orokorrekoak (hau da, kudeaketa zentralizatuko baliabideak) diren ondasun mugikorak, zerbitzuak eta hornigaiak normalizatu eta homologatzeko.

Bulego Teknikoak obrako proiektuak idatzi ditu, eta, gainera, proiektu horiek formulatzeko kontratuen jarduketara administratiboak egin ditu, kudeaketa zentralizatuko eraikinetako obrak zuzendu ditu, eta eskatutako beharrezkoen arabera instalazioak abian jarri ditu.

2012an, euskal Administrazio Publikoak bere eginkizunak modu eraginkorragoan gauzatzeko bidea eman duten obrak diseinatu eta gauzatu dira, eta hornikuntzarako zein azpiegiturak eta ekipamenduak mantentzeko kontratuak sinatu dira. Horrela, jarduerak zentralizatuz eta koordinatuz, gastua gehiago arrazionalizatzea eta jarduna eraginkorrago izatea lortu da, besteak beste, honako ekintza hauen bidez: Donostian EAEko Administrazioaren egoitza izan daitekeena diseinatzea, hobekuntzak Gasteizko eraikinetako sarbideetan, Bilbon sozietate publikoak lekuz aldatzea eta bilera-guneetan erreformak egitea, hornikuntza elektrikoko puntuen kontratazioak Lakuan, lantokien lekualdaketak, aurre hartzeko eta zuzentzeko mantentze-lanak eta Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko Legea betetzen dela kontrolatzea.

Baliabide Orokorren Zuzendaritzako gainerako zerbitzuek (Erosketak, Inprenta, Argitalpenak, Parke Mugikorra, Biblioteka, Posta, etab.) beren eginkizunekin jarraitu dute, hots, hainbat sailei beren ohiko jarduera egiteko beharrezko zerbitzuak ematen. Hala, bada, hainbat material eskuratu dira, prestazio askotarikoak ziurtatzeko 100 enpresa baino gehiago kontratatu dira, posta- eta mezularitza-zerbitzuen kopuru handi bat kudeatu da, eta argitalpenak saldu dira online salmentaren bidez. Orobat, biblioteka-zerbitzu zentrala arrazionalizatu da, hainbat liburutegi bateratuz.

Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren alorrean honako jarduerok dira aipagarriak:

2012an Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzako Administrazio Sare Korporatiboaren (RCA) informazio- eta komunikazio-sistemen euskarri-zerbitzuak kudeatzen jarraitu du, EJE sozietate publikoaren jardueren bidez, dauden azpiegituren kudeaketa eta erabilera optimizatuz, behar denean azpiegitura berriak sortuz eta erabiltzaileen arretarako sostengua emanez, beren lantokietan eskura jarri zaizkien teknologia-baliabideak behar bezala erabil dezaten.

Establecimiento, coordinación y ejecución de las políticas, normas y sistemas para la normalización y homologación de los bienes muebles, servicios y suministros que por su naturaleza resulten comunes y de utilización generalizada por la Administración, es decir, recursos de gestión centralizada.

Redacción por la Oficina Técnica, de los proyectos de obras; ejecución de los actos administrativos preparatorios de los contratos para su formalización; dirección de las obras de los edificios de gestión centralizada y puesta en marcha las instalaciones de acuerdo a las necesidades requeridas.

A lo largo de 2012, se han diseñado y ejecutado obras, se han contratado suministros y mantenimientos de infraestructuras y equipamientos que han permitido que la Administración Pública vasca llevara a cabo sus funciones de la forma más efectiva, centralizando y coordinando actuaciones que han permitido una mayor racionalización del gasto y una actuación más eficiente (diseño de la posible sede de la Administración de la CAE en Donostia, mejoras en la accesibilidad en edificios de Vitoria-Gasteiz, reubicaciones de sociedades públicas y reformas de espacios de reuniones en Bilbao, contrataciones de puntos de suministro eléctrico en Lakua, traslados de puestos de trabajo, múltiples actuaciones de mantenimiento preventivo y correctivo, seguimiento y control de cumplimiento de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales...).

Por otro lado, el resto de servicios de la Dirección de Recursos Generales – Compras, Imprenta, Publicaciones, Parque Móvil, Biblioteca, Correspondencia,... –han continuado ejerciendo sus funciones para suministrar a los diferentes departamentos los servicios necesarios para el desarrollo de la actividad habitual. En este sentido, se han realizado múltiples adquisiciones de material, se han contratado más de 100 empresas para el aseguramiento de diversas prestaciones, se han gestionado un gran número de servicios de correspondencia y mensajería, se han vendido publicaciones a través de la venta “on line”. Y se ha racionalizado el servicio central de biblioteca procediendo a la fusión de diversas bibliotecas.

Dentro del área de la Dirección Informática y Telecomunicaciones (DIT), cabe destacar las siguientes actuaciones:

A través de las actuaciones de la Sociedad Pública EJE, a lo largo del ejercicio 2012 la Dirección de Informática y Telecomunicaciones (DIT) ha seguido gestionando la prestación de servicios de soporte de sistemas de información y comunicaciones de la Red Corporativa Administrativa del Gobierno Vasco, mediante un uso optimizado de la gestión y operación de las infraestructuras disponibles o creando infraestructuras nuevas en su caso, así como dando el soporte de atención a los usuarios necesario para la correcta utilización de los recursos tecnológicos puestos a su disposición en sus puestos de trabajo.

Ekoiaren arloan, zerbitzu honek eremu hauetan izan du bilakaera, nagusiki: azpiegitura finkatzen, plangintzatan aurreikusitako prozesuak kudeatzen ("SAP" sistemarekin bateratzea) eta reporting eta laguntzen sistemak finkatzeko gertaerak kudeatzen. Bilakaera egon da, orobat, "Bitacora" sistema txertatzearen bidez, "TMART" ezartzearen bidez eta blackouten kudeaketan.

Negozioen jarraitasunerako plana aldatu da, bere ITIL bertsioan jarraitasun- eta eskuragarritasun-prozesuak txertatzeko.

Laguntza- eta mantentze-zerbitzuei dagokienez, fitxategi-zerbitzua aldatu da, moten eta ezaugarrien arabera saillapena berregituratu eta gertaera larrien kudeaketa-hobekuntza ezarri baita.

Sistemen arloan, proiektu korporatiboetarako software produktu berriak jartzeaz gainera ("SAP" sistema EIZU langileen kudeaketa-proiekturako, "Hadoop" teknologia fitxategiak integratzeko eta "Oracle Coherence" aplikazio batzuetako datuen tratamendua hobetzeko), software korporatiboa egokitu eta aldatu da (migrazioa egin da). Beste teknologia-proiektu aipagarri batzuk ere gauzatu dira, hala nola: Lanbide Sare Korporatiboan integratzeko Ekintza Plana prestatu da, PLATEA-Integrazioa zabaldu da fitxategien tratamendurekin eta tratamenduari buruzko hiru urterako Plan bat prestatu da, eta Euskal Sarea eta JASO sareak zabaldu dira Negozio Jarraitasunerako Plan bat emateko.

Proiektuen eta laguntza teknikoaren arloan, sailtako informazio-sistemen euskarri diren sistema informatikoak zuzentzeko, bilakatzeko eta moldatzeko mantentze-lanak egin dira, batetik.

Bestetik, errezeta elektronikoaren "e-errezeta" proiektua garatu eta ezarri da, eta EAEko farmazietara eramaten hasi da. Halaber, Administrazio Elektronikorako Plataforma Teknologikoa mantentzeko eta hobetzeko lanak egin dira, eta proiektu berriak gertatu dira horren osagai guztietarako, Kontratazio Publiko Elektronikorako sistemari egindako mantentze- eta hobekuntza-lanak eta Eusko Jaurlaritzako Biblioteken Bateratze proiektua ezarri izana ahaztu gabe.

Ikus-entzunezko seinalea garraiatu eta hedatzeko zerbitzua iristen dela bermatzeko, Informatika eta Teknologia Zuzendaritzak 2012an zehar bi arlo hauetan jardun du: zentroetan telekomunikazioko 148 ekipamendu instalatzen, eta haiei euskarria ematen dieten azpiegitura fisikoak prestatzen.

Tetra Sareari dagokionez, 280 terminal berri ireki dira (Metro Bilbao eta ETSn, besteak beste).

Landa-guneetan banda zabala jartzeko proiektuaren baitan, 2012an 284 erabilzaile berriak alta eman dute, eta 230 terminalek diru-laguntza jaso dute.

En el área de producción este servicio ha evolucionado en el ámbito de la consolidación de la infraestructura, en el del gestor de procesos planificados (integración con "SAP") así como en la gestión de eventos con la consolidación de sistemas de "reporting" y de ayudas. La evolución se ha dado, asimismo, tanto en la integración de "Bitacora" e implantación de "TMART" como en la gestión de "blackouts".

El plan de continuidad de negocio ha evolucionado para implantar los procesos de Continuidad y de Disponibilidad en su versión ITIL.

Y respecto a los servicios de asistencia y mantenimiento, se ha evolucionado el servicio de ficheros con una reestructuración de tipologías y características, y se ha implantado la mejora de gestión de incidencias graves.

En el área de sistemas junto con la implantación de nuevos productos software para proyectos corporativos ("SAP" para el proyecto de Gestión de Personal EIZU, tecnología "Hadoop" para la integración de ficheros y "Oracle Coherence" para mejorar el rendimiento en el tratamiento de datos de algunas aplicaciones), se ha realizado la adecuación y migración de software corporativo junto con la materialización de varios proyectos tecnológicos, entre los que destacamos, entre otros, el Plan de acción para la integración de Lanbide en la Red Corporativa, la ampliación de PLATEA-integración con tratamiento de ficheros, el desarrollo de un Plan a 3 años sobre el tratamiento, y la extensión de las redes JASO y Euskal Sarea para dotarles de un Plan de Continuidad de Negocio.

En el área de proyectos y asistencia técnica, por un lado, se ha realizado el mantenimiento correctivo, evolutivo y adaptativo de los sistemas informáticos soporte de los Sistemas de Información departamentales.

Por otro, se ha desarrollado e implantado el proyecto de Receta Electrónica "e-errezeta" y se ha iniciado el despliegue en las farmacias de la CAPV. Asimismo, se ha realizado el mantenimiento y mejora de la Plataforma Tecnológica para la Administración Electrónica y se han realizado nuevos proyectos para cada uno de sus componentes, sin olvidarse del mantenimiento y mejora del sistema de Contratación Pública Electrónica junto con la implantación del proyecto de Fusión de Bibliotecas del Gobierno Vasco.

La DIT, al objeto de garantizar la prestación del servicio de transporte y difusión de la señal audiovisual ha realizado a lo largo del 2012 actuaciones en dos campos: instalación en los centros de 148 nuevos equipamientos de telecomunicaciones y actuaciones llevadas a cabo en las infraestructuras físicas que dan soporte a las anteriores.

En cuanto al despliegue de la Red Tetra, se han dado de alta 280 terminales nuevos (Metro Bilbao y ETS entre otros).

Bestalde, Kupoan mantendu egiten da osasun arloan eta Gizarte Segurantzako gizarte zerbitzuetan transferitutako funtzio eta zerbitzuak finantzatzen dituzten diru-sarrerengatik aurreko bosturtekoan ezarritako konpentsazioa. Diru-sarrera horiek lehenago Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren transferentziak bezala jasotzen ziren. Konpentsazio hau 29/2007 Legearen 6.Bi artikulua arautzen du.

Por otra parte, se mantiene la compensación en el cupo establecida en el quinquenio anterior, por los ingresos que financian las funciones y servicios traspasados en materia sanitaria y de servicios sociales de la Seguridad Social, que anteriormente se recibían como transferencias de la Tesorería General de la Seguridad Social. Esta compensación se regula en el artículo 6.Dos de la Ley 29/2007, de 25 de octubre.

Salbuespen bezala, 2007ko ekitaldirako behin-behineko kupo gehitu egiten da Ertzaintzaren 20. promozio kideek prestakuntza aldi eman duten urte horren denborari dagokion zenbatekoaz, 2007-2011rako Kupoa zehazteko Metodologiaren Xedapen Iragankor Bakarrean ezartzen denari jarraituz.

Excepcionalmente para el ejercicio 2007 se incrementa el cupo provisional en el importe que corresponda a la parte del año en que los efectivos de la 20ª promoción de la Policía Autónoma han permanecido en periodo de formación, según se establece en la Disposición Transitoria Única de la Metodología de señalamiento del Cupo para 2007-2011.

Kupoaren Metodologiaren Lehenengo Xedapen Gehigarriak 1997-2001 bosturtekoan lehen aldiz ezarritako Konpentsazio Finantzarioen jadanekotasunari eusten dio, finantza neutraltasuna ziurtatzeko Fabrikazio Zerga Bereziak adostu ondoren.

La Disposición Adicional Primera de la Metodología de Cupo mantiene la vigencia de las Compensaciones Financieras establecidas por primera vez en el quinquenio 1997-2001, para asegurar la neutralidad financiera tras la concertación de los Impuestos Especiales de Fabricación.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2007ko uztailearen 30ean onartutako 2007rako behin-behineko konpentsazio finantzarioak ondorengo hauek dira:

Las compensaciones financieras provisionales para 2007 aprobadas por la Comisión Mixta del Concierto Económico el 30 de julio de 2007 son las siguientes:

2007ko BEHIN-BEHINEKO KONPENTSAZIO FINANTZARIOAK (*)

COMPENSACIONES FINANCIERAS PROVISIONALES 2007 (*)

(Mila eurotan)

(Miles de euros)

Alkohola, edari deribatuak eta tarteko produktuak Alcohol, bebidas derivadas y prod.intermedios	(9.407,94)
Garagardoa Cerveza	(2.609,16)
Hidrokarburoak Hidrocarburos	(37.334,38)
Tabakoa Tabaco	121.710,09

(*)Zeinu negatiboa duten konpentsazioak Estatuaren aldekoak dira eta zeinu positiboa dutenak, berriz, EAEren aldekoak.

(*)Las compensaciones de signo negativo son a favor del Estado y las de signo positivo a favor del País Vasco.

Bosturtekoaren hurrengo urteetarako behin-behineko Kupo likidoak

Cupos líquidos provisionales de los años siguientes del quinquenio

Urriaren 25eko 29/2007 Legean jasotako metodologiari jarraiki, hurrengo urteetako Kupo likidoak kalkulatzeko, 2007 urterako Kupo likidotik abiatu gara. Kupo hori indize bat erabiliz eguneratu da, indizea honako hau da: Estatuaren aldetik itunpeko zergengatiko sarreraren bilteta aurreikuspenaren eta bosturtekoaren oinarri-urterako aurreikuspenaren arteko koefizientea (autonomia elkartearen esku utzi ahal diren sarrerak bazter utzita, hots, Kupo likidoari dagokion eta bosturtekoaren oinarri-urterako aurreikuspenetan aipatzen den ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontuaren I. eta II. atalburuetan jasotako diru-sarrerak bazter utzita).

Según la metodología contenida en la Ley 29/2007, de 25 de octubre, para calcular los Cupos líquidos de los años siguientes se parte del Cupo líquido para 2007, procediendo a su actualización por aplicación de un índice definido como el cociente entre la previsión de ingresos del Estado por tributos concertados, excluidos los tributos cedidos en su totalidad a las Comunidades Autónomas, que figuren en los capítulos I y II del Presupuesto de Ingresos del Estado del ejercicio al que se refiere el Cupo líquido y la misma previsión para el año base del quinquenio.

Horrezaz gain, oinarri-urtearen ondorengo ekitaldietako Kupoak kalkulatzeko, kontuan hartuko da eskura daitezkeen aginpide berrien finantzaketa. Horrek Kupo gutxiagotzea ekarriko du berekin.

Adicionalmente, para el cálculo de los Cupos de los ejercicios siguientes al año base, se tendrá en cuenta la financiación de las nuevas competencias que se produzcan, con el consiguiente efecto de minoración de Cupo.

Gainera, eta autonomia erkidego guztiei transferitutako kudeaketa gaitan Estatu Administrazioak aparteko aurrekontuko finantzazioarekin jarduketari berriak bere gain har baditzaen ere, 2007-2011 bosturtekoarako Kupo zehazteko Metodologiak atal berri bat sartu du bere 11. artikuluan. Bertan ezarrita dago Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak izango dela Euskal Autonomia Erkidegoari, hala behar bada, dagozkion aparteko aurrekontuko zuzkidura horietan parte hartze finantzarioa zehaztuko duena.

Además, en previsión de que la Administración del Estado asuma nuevas actuaciones con financiación presupuestaria extraordinaria en materias con gestión transferida a todas las Comunidades Autónomas, la Metodología de señalamiento del Cupo para el quinquenio 2007-2011 introduce un nuevo apartado en su artículo 11 en el que se establece que será la Comisión Mixta del Concierto Económico la que determine la participación financiera en dichas dotaciones presupuestarias extraordinarias que, en su caso, corresponda al País Vasco.

Kupoen behin-betiko kitapena

Kupo likidoen behin-betiko kitapenak Estatuak jasotako bilketa erreala ezagutu eta gero burutuko dira. Bilketa horri esker, behin-betiko eguneratze-indizearen balorea ezagutu ahal izango da. 2007-2011rako Kupoaren Metodologian zehaztutakoaren arabera, behin-betiko kitapena Kupo likidoari dagokion ekitaldiaren hurrengo urteko maiatzean burutuko da.

Aurreko Bosturteko Legeetan ezartzen ziren bezala, Legean ere ezartzen da bosturtekoaren oinarria den urterako behin-behineko Kupo kitatzeko kontuan hartuko direla honako hauek: Estatuak oinarria den urtean jasotako zerga-bilketa likido erreala eta Estatuaren Sarrera Aurrekontuan urte horretarako jasotzen den zerga-bilketa aurreikuspenaren arteko eguneratze indizearen balio erreala.

Beste xedapen batzuk

29/2007 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarriak ezartzen duenez, Mendekotasunaren Autonomia eta Arretarako Sistema konfiguratzeko, Hezkuntzaren Lege Organikoa garatzeko eta osasuna finantzatzeko 2005eko irailaren 10ean eginiko Presidenteentzako Konferentzian adostutako izaera finantzarioko xedapenak Euskal Herriari aplikatzea Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren erabakietan aurreikusitakoa aplikatuz zehaztuko da.

Honi buruz Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2007ko uztailaren 30ean erabaki zuen Mendekotasunaren Autonomia eta Arretarako Sistemaren (SAADen) hitzartutako mailaren aparte finantzazioan, Hezkuntzaren Lege Organikoa garapenean eta osasuna finantzatzeko hitzartutako neurrietan Euskal Herriko parte hartzea Estatu mailara eramangoak edo Estatu mailakotzat jotako neurri horietarako urtero ezarri daitezkeen aurrekontuko zuzkidurei egozpen indizea aplikatzaren ondorioz ateratzen den zenbatekoaz Kupoari kenduz zehaztuko dela.

SAADen bermatzen duen gutxienezko mailari dagokionez, prestazioa jasotzeko eskubidea duten onuradunen kopuruaren arabera zehaztuko den Euskal Herriari dagokion finantzaketa Kupo ordaintzeko epeetan eginiko konpentsazio bat bezala gauzatuko da.

Beste aldetik, laugarren eta bosgarren xedapen gehigarriek administrazio bien adostasuna eskatzen dute, zerga-araubidean edo estatu eta gainontzeko erakundeen arteko zerga erregimenaren inguruko eskualdaketak gauzatzen badira, besteak beste.

Hain zuzen ere, bosgarren xedapen gehigarriak aurreikusten du, Estatuaren zergak lagatzeko erregimena erreformatuz gero edo Estatu Aurrekontu Orokorrek nabarmen aldatuz gero, autonomia-erkidegoen edo toki-erakundeen finantzaketa-sistema erreformatzearen ondorioz, Ekonomia Itunaren Batzorde Misto batzartu egingo dela, oinarritzko urtearen kupo likidoa edo/eta horren eguneratze-indizea berrikusi behar diren aztertzeko eta, hala badagokio, zehazteko. Hori eginez gero erreforma egiten den urtetik aurrera izango ditu ondoreak berrikuspenak.

Liquidación definitiva de los Cupos

Las liquidaciones definitivas de los Cupos líquidos se realizarán una vez conocida la recaudación realmente obtenida por el Estado, que permita obtener el valor real del índice de actualización definitivo. Según se dispone en la metodología del Cupo para 2007-2011, la liquidación definitiva se efectuará en el mes de mayo del ejercicio siguiente al que se refiera el Cupo líquido.

Al igual que en las anteriores Leyes Quinquenales, se establece que, excepcionalmente, el Cupo provisional del año base del quinquenio se liquidará considerando el valor real del índice de actualización que se deduzca de la recaudación líquida realmente obtenida por el Estado en el año base, respecto a la previsión de recaudación para ese mismo ejercicio que figure en el Presupuesto de Ingresos del Estado.

Otras disposiciones

La disposición adicional tercera de la Ley 29/2007 establece que la aplicación al País Vasco de las disposiciones de carácter financiero para la configuración del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia, el desarrollo de la Ley Orgánica de Educación y las acordadas en la Conferencia de Presidentes celebrada el 10 de septiembre de 2005 para la financiación de la sanidad, se determinará por aplicación de lo previsto en los Acuerdos de la Comisión Mixta del Concierto Económico.

A este respecto, la Comisión Mixta del Concierto Económico acordó el 30 de julio de 2007 que la participación del País Vasco en la financiación extraordinaria del nivel acordado del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD), el desarrollo de la Ley Orgánica de Educación y las medidas acordadas para la financiación de la sanidad, se determinará por minoración en el Cupo del importe que resulte por aplicación del índice de imputación a las dotaciones presupuestarias que anualmente se destinen a estas medidas, elevadas o consideradas a nivel estatal.

En lo que se refiere al nivel mínimo de protección garantizado del SAAD, la financiación correspondiente al País Vasco, que se determinará en función del número de beneficiarios con derecho a prestación, se instrumentará como una compensación en los plazos de pago del cupo.

Por otro lado, las disposiciones adicionales cuarta y quinta remiten a la necesidad de acuerdos entre ambas administraciones, en los supuestos de reforma del régimen tributario o del régimen de cesión de tributos del Estado respectivamente.

En concreto, la Disposición Adicional Quinta prevé que, en el caso de que se produzca una reforma del régimen de cesión de tributos del Estado o una modificación sustancial en los Presupuestos Generales del Estado como consecuencia de la reforma del sistema de financiación de las Comunidades Autónomas o de los Entes Locales, se reunirá la Comisión Mixta del Concierto Económico para analizar y determinar, si procede, la revisión del cupo líquido del año base y/o del índice de actualización del mismo, surtiendo en su caso la revisión efectos a partir del año en que se produzca dicha reforma.

Abenduaren 18ko 22/2009 Legearen bitartez erregimen komuneke autonomia-erkidegoen finantzaketa-sistema berri bat onetsi zuen Estatuak, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera izan zituela ondorioak. Hala ere, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak ez da oraindik batzartu aipatutako xedapenean aurreikusitakoa betetzeko.

Bukatzeko, aurreko bosturteko legeetan bezala, Erabakiak bere Azken Xedapenetako lehenengoan aurreikusten du, Xedapena indarrean dagoen aldi hurrengo ekitaldietako Kupa zehazteko metodologia arautzeko Lege berririk onartzen ez bada, 2007-2011 bosturtekorako onartutako metodologia erabiliko dela 2012ko ekitaldiko eta ondorengo ekitaldietako Kupa likidoak behin-behinekoz zehazteko.

Por ley 22/2009, de 18 de diciembre el Estado aprobó un nuevo sistema de financiación de las Comunidades Autónomas de régimen común con efectos desde el 1 de enero de 2009, sin que hasta la fecha se haya reunido la Comisión Mixta del Concerto Económico con el objetivo de dar cumplimiento a lo previsto en la mencionada disposición.

Por último, como en las leyes quinquenales anteriores, el acuerdo prevé, en la Disposición Final Primera, que si transcurrido el plazo de vigencia de la misma no se hubiera aprobado una nueva Ley reguladora de la metodología de señalamiento del Cupo para los ejercicios siguientes, se aplicará la metodología acordada para el quinquenio 2007-2011, en el señalamiento provisional de los Cupos líquidos del ejercicio 2012 y siguientes.

**1.2. 2007-2011 URTEETAKO EKITALDIEI APLIKA DAKIEKEEN ETA
EAEren AURREKONTUAK FINANTZATZEKO FORU
ALDUNDIEK EGIN BEHAR DITUZTEN EKARPENAK
ZEHAZTEKO METODOLOGIA**

***METODOLOGÍA DE DETERMINACIÓN DE LAS
APORTACIONES DE LAS DIPUTACIONES FORALES A LA
FINANCIACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS DE LA CAPV PARA
LOS EJERCICIOS 2007-2011***

Azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 22. artikulua, bere zortzigarren atalean honela ezartzen du: "Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, eskuartearen banakuntzarako eta Kondaira-Lurralde bakoitzak Autonomia-Elkartearen diruegitamu-gastutarako egin beharreko ekarketak zehazteko hiru ekonomia-urtetarako gutxienez indarrean egongo den araupidetza ontzat emango du, Kontseiluaren iritziz indarraldi hori urtebetera edo bi urtetara mugatzea aholkagarri egin dezaten zer-nolakoak izatea gertatzen bada salbu". Halaber, "Jaurkiturak, lehen esandako eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak ontzat emandako araupidetza barne izan dezan Lege-Egitasmoa bidaliko dio Legebiltzarrari, horren onarpen-eske".

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2007ko urtarrilaren 18an egindako bileran, Baliabideen Banaketarako eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko foru aldundien ekarpenak zehazteko metodologia, 2007-2011 aldiari aplikatzeko dena, adostu zuen. Akordio hori Eusko Legebiltzarrak, martxoaren 23ko 2/2007 Legearen bitartez, onartu zuen.

Azken xedapen bakarrak dio, salbuesenez, metodologia horren indarraldia amaitu eta gero, hurrengo ekitaldietarako baliabideen banaketarako eta ekarpenak zehazteko beste lege arautzaile berririk oraindik aldarrikatu ez bada, metodologia hori berori aplikatuko dela oso-osorik 2012ko eta hurrengo ekitaldietan.

Indarrean dagoen metodologia oro har eusten dio 1985etik aplikatu den sistemari, diru-baliabideak banatzeko barne-sistemari egonkortasun handia eman dion sistemari hain zuzen. Ildo horretatik, oinarrizko printzipioak errespetatzen ditu eta aldatu edo egokitu ditu Estatuarekiko finantza-harremanetan egon diren aldaketek, eskarmentuak edota denborak igarotzek gomendatu dituzten aldeak.

Ekarpenei buruzko Legearen metodologia lau oinarrizko ataletan banatzen da, zazpi xedapen gehigarrietan, Xedapen Iragankor Bakarrean eta Azken Xedapen Bakarrean.

1.2.1. Banaketa bertikalerako eredua

Martxoaren 23ko 2/2007 Legearen testuaren I. Kapituluan banaketa bertikala egiten da. Honen arabera, erakunde erkideen karga orokorren sostengurako lurralde historikoek egin beharreko ekarpenak zehazten dira.

Banaketa bertikalerako eredua zehazten duten elementuak honako hauek dira:

a) Banaketari loturiko diru-sarrerak (R)

Banaketa bertikalerako ereduak, Ekonomia Itunaren kudeaketak eragindako diru-sarreratan, banaketari lotuta dauden diru-sarreratan hain zuzen, du oinarria, hona diru-sarrerak:

El artículo 22 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, en su apartado octavo, establece que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas aprobará la metodología de distribución de recursos y la determinación de las aportaciones de cada Territorio Histórico a los gastos presupuestarios de la Comunidad Autónoma con vigencia para períodos mínimos de tres años presupuestarios, salvo que ocurran circunstancias excepcionales a juicio del Consejo, que aconsejen su vigencia para uno y dos ejercicios. Asimismo, el Gobierno elevará al Parlamento, para su aprobación, el correspondiente proyecto de Ley que incorporará la metodología antes citada que hubiere acordado el Consejo Vasco de Finanzas Públicas.

El Consejo Vasco de Finanzas Públicas acordó, en sesión celebrada el 18 de enero de 2007, la metodología de distribución de recursos y de determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2007-2011. Dicho acuerdo fue aprobado por el Parlamento Vasco por la Ley 2/2007, de 23 de marzo.

La Disposición Final Única recoge que, excepcionalmente, si transcurrido el plazo de vigencia de la metodología anterior no se hubiera promulgado una nueva ley reguladora de la distribución de recursos y determinación de aportaciones para los ejercicios siguientes, la metodología anterior será de aplicación en todos sus términos para el ejercicio 2012 y siguientes.

La vigente metodología mantiene en sus grandes líneas el sistema aplicado desde 1985 y que ha procurado una gran estabilidad al sistema interno de distribución de recursos. En este sentido, respeta los mismos principios básicos y modifica o adapta aquellos aspectos que los cambios en el marco de las relaciones financieras con el Estado, la experiencia o el propio transcurso del tiempo han aconsejado.

La metodología de la Ley de Aportaciones se estructura en cuatro apartados básicos, siete Disposiciones Adicionales, una Disposición Transitoria y una Disposición Final.

1.2.1. Modelo de distribución vertical

En el Capítulo I del texto de la Ley 2/2007, de 23 de marzo, se efectúa la distribución vertical, que consiste en la determinación de las Aportaciones de los Territorios Históricos al sostenimiento de las cargas generales de las Instituciones Comunes.

Los elementos que definen el modelo de distribución vertical son los que se detallan a continuación:

a) Ingresos sujetos a reparto (R)

El modelo de distribución vertical tiene como base los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico afectos al reparto, que son los siguientes:

- Indarreko ekitaldian itundutako zergengatik bilketatik datozen diru-sarrerak, zerga horiek noiz sortu diren kontuan hartu gabe, hots:

a) Itundutako zuzeneko zergak.

b) Itundutako zeharkako zergak.

c) Jokoaren gaineko zerga itunduak.

d) Epez kanpo aurkeztearren ezarritako gainordaina, aldi exekutiboko gainordaina, berandutze-interesak eta itundutako zergei dagozkien zergapeko egitateengatik sartutako diru-zehapenak.

- Ekitaldi bakoitzeko itundutako diru-sarrera fiskalen ondorioz foru-aldundien alde sortutako interes likidoak.

Borondatezko aldian, zerga-zorraren ordainketa ondasunen eta eskubideen ematearen bidez onartzen denean, kitatutako zorraren zenbatekoa ekitaldiko eskudirutako diru-bilketarekin batera sartuko da.

Ondasun eta eskubide hauek premiamendu bidez biltzea dela eta, ondasun eta eskubide horien besterentzea eta esleipena egin ondoren Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak baloratuko ditu, diru-bilketan sar daitezten.

b) Aplikatu beharreko kenketak (D)

Banaketa-gai diren diru-sarrerei Kupoaren metodologiatik datozen kenkariak aplikatuko zaizkie:

a) Estatuari Kupo likido gisa ordaindu beharreko kopurua eta, hala dagokionean, kupoa zehazteko aurreikusitako konpentsazioak direla-eta Estatuaren alderako den zenbatekoa.

b) Zeinu negatiboarekin, indarreko Kupoa zehazteko metodologian aurreikusitako konpentsazioak direla-eta Euskal Herriaren alderako den zenbatekoa.

c) Ertzaintzaren plantilla handitzeko, Kupoa zehazteko metodologian 2002ko urtarrilaren 1etik aurrera aurreikusitako finantzaketaren zenbatekoa.

d) Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren eginkizunek eta zerbitzuek ezohiko finantzaketa jaso dezaten Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak Kupotik gutxitzea erabaki dezan zenbatekoa.

Diru-kopuru horiek, indarreko Euskadiko Kupo zehazteko metodologian xedatutakoa ekitaldi bakoitzean behin-behinean aplikatuzetik sortutakoak izango dira.

Halaber, artikulua honetan zehaztutako kenkarien behin-behiko likidaziotik sortutako kopuruak, likidazio hori zein ekitaldian egin den kontuan hartuta, ekitaldi horretan kontatuko dira.

- Los ingresos procedentes de la recaudación por tributos concertados durante el ejercicio en curso, independientemente del año de su devengo o generación, que son los siguientes:

a) Los impuestos directos concertados.

b) Los impuestos indirectos concertados.

c) Los tributos concertados sobre el juego.

d) Los recargos por declaración extemporánea, los recargos del período ejecutivo, los intereses de demora, y las sanciones pecuniarias ingresadas por hechos imposables referidos a los tributos concertados.

- Los intereses líquidos devengados a favor de las Diputaciones Forales, por razón de ingresos fiscales concertados durante cada ejercicio.

Cuando en período voluntario se admita el pago de la deuda tributaria mediante la entrega de bienes y derechos, el importe de la deuda cancelada se integrará con la recaudación en efectivo del ejercicio.

En los supuestos de recaudación en vía de apremio de estos bienes y derechos, será cuando se realice la enajenación o adjudicación de dichos bienes y derechos cuando el Consejo Vasco de Finanzas Públicas procederá a su valoración, al objeto de que se incorporen a la recaudación.

b) Deducciones a aplicar (D)

A los ingresos sujetos a reparto se les aplicarán las deducciones procedentes de la metodología del Cupo:

a) La cantidad a pagar como Cupo líquido al Estado y, en su caso, el importe que resulte a favor del Estado por las Compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del Cupo vigente.

b) Con signo negativo el importe que, en su caso resulte a favor del País Vasco por las compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del Cupo vigente.

c) El importe de la financiación de las ampliaciones de plantilla de la Policía Autónoma a partir del 1 de enero de 2002 previstas en la metodología de señalamiento del Cupo.

d) El importe que la Comisión Mixta del Concierto Económico acuerde minorar del Cupo para la financiación extraordinaria de funciones y servicios de competencia del País Vasco.

Estas cantidades serán las resultantes de la aplicación en cada ejercicio, con carácter provisional, de lo estipulado en la metodología vigente de señalamiento del Cupo del País Vasco.

Asimismo, los importes que se deriven de la liquidación definitiva de las deducciones definidas en el presente artículo se computarán en el ejercicio en que se realice dicha liquidación.

Bestalde, martxoaren 23ko 2/2007 Legean aurreikusita dago, Estatutik EAeko Administrazioa zerbitzu edo funtzio berriak eskualdatuz gero, kenketa berri bat egingo dela, izan ere, eskualdaketa berriak Estatuari ordaindu beharreko Kupo likidoan eragindako gutxipenaren zenbateko bera kenduko da.

c) Bestelako gutxitzeak (P)

Era berean, itunpeko diru-sarreraren bilketatik, Jaurlaritzak ekonomia-plangintza, sustapen eta garapenerako politikak burutzeko behar duen kopurua gutxituko da, eta, LHLren 22.3 atalean zehaztutakoa betez, Autonomia Erkidegoaren egonkortasun politikoa eta ekonomikoa bermatzeko neurriak hartuko dira.

Halaber, Jaurlaritzaren proposamenez, politika hauek gauzatzeko Administrazio eskuduna denez gero, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak kenkari honen kopurua Hirugarren Xedapen Gehigarrian aipaturako interes orokorreko proiektuak finantzatzeko ados dezan aukera gehitzen da.

2013ko kopurua horrelako proiektuetara bideratuko da.

d) Foru-aldundien ekarpen orokorra

Banaketa bertikalerako kontuan hartu beharreko elementuak aztertuta, banatu beharreko baliabideen guztizkoa formula honen bidez zehaztu daiteke:

$$\text{Banatzeko baliabideak} = R - (D+P).$$

Hona hemen letra horien esanahia:

R: Ekonomia Itunaren kudeaketatik sortu eta banaketa-gai diren diru-sarrerak dira.

D: Kupoaren metodologiatik sortutako kenkariak dira.

P: Kenkari berezia da.

Horren ondorioz, erakunde erkideen karga orokorren sostengurako foru aldundiek egin behar duten Ekarpene Orokorra kalkulatzeko xedez, banaketa-oinarriari, horrela definituta, banaketa bertikalaren koefizientea aplikatuko zaio. Koefiziente hau % 70,04 izango da 2007-2011 bosturtekoan.

e) Ekarpene bereziak

Ekarpene Orokorraz gain, foru aldundiek Autonomia Erkidegoko erakunde erkideei Ekarpeneak egingo dizkiete, honako kontzeptu hauengatik:

a) Ertzaintza handitzea finantzatzeko, 2.1.c) artikuluan zehaztutako kenkariaren zenbatekoaren beste.

Por otra parte, la Ley 2/2007, de 23 de marzo, prevé que, en el caso de que se produzcan nuevos traspasos de servicios y funciones, desde la Administración Central del Estado a la CAPV, se procederá a efectuar una deducción adicional por el mismo importe que la minoración en el Cupo líquido a pagar al Estado a que la nueva transferencia de lugar.

c) Otras minoraciones (P)

De igual forma, se minorará una cantidad para la realización por parte del Gobierno Vasco de las políticas de planificación, promoción y desarrollo económico, así como la adopción de medidas tendentes a asegurar la estabilidad política y económica de la Comunidad Autónoma, según lo dispuesto en el artículo 22.3 de la Ley 27/1983.

Asimismo, se mantiene la posibilidad de que a propuesta del Gobierno Vasco, como Administración competente para la realización de estas políticas, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas pueda acordar destinar el importe de esta deducción a la financiación de proyectos de interés general a los que se refiere la Disposición Adicional Tercera.

El importe correspondiente a 2013 se destinará a este tipo de proyectos.

d) Aportación General de las Diputaciones Forales

Analizados los elementos a tener en cuenta para la distribución vertical, se puede definir el total de recursos a distribuir según la fórmula siguiente:

$$\text{Recursos a distribuir} = R - (D + P)$$

donde:

R: Son los ingresos derivados de la gestión del Concierto Económico sujetos a reparto.

D: Son las deducciones procedentes de la metodología del Cupo.

P: Es la deducción especial.

En consecuencia, la Aportación General de las Diputaciones Forales al sostenimiento de las cargas generales de las instituciones comunes se determinará por la aplicación a la base de reparto así definida del coeficiente de distribución vertical, fijado para el quinquenio 2007-2011 en el 70,04%.

e) Aportaciones Específicas

Además de la Aportación General, las Diputaciones Forales efectuarán Aportaciones Específicas a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma por los conceptos siguientes:

a) Financiación de las ampliaciones de la Policía Autónoma, por el importe de la deducción definida en el artículo 2.1.c).

b) Euskal Herriaren eskumeneko eginkizun eta zerbitzuak aparte finantzatzeko, eskumenak egikaritzea erakunde erkideei dagokienean, 2.1.d) artikuluan zehaztutako kenkariaren zenbatekoagatik.

c) Jaurilaritzak LHL (27/1983 Legea) delakoaren 22.3 artikuluan jasotako politikak eta funtzioak bete ditzan laguntzeko, Ekarpen Orokorra kalkulatzeko erabili den kenkariaren besteko zenbatekoagatik.

b) Financiación extraordinaria de funciones y servicios de competencia del País Vasco, cuando el ejercicio de las competencias corresponda a las instituciones comunes, por el importe de la deducción definida en el artículo 2.1.d).

c) Contribución a la realización por parte del Gobierno de las políticas y funciones recogidas en el art. 22.3 de la LTH (Ley 27/1983), por idéntico importe a la deducción aplicada en el cálculo de la Aportación General.

Era berean, martxoaren 23ko 2/2007 Legearen 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, legea indarrean dagoen bitartean Estatuari ordaindu beharreko Kupo Likidoari eragiten dioten EAEren erakunde amankomunentzako eskualdaketa berriak izanez gero, horiek finantzatzeko ekarpen berezi bat egingo da.

Igualmente, la Ley 2/2007, de 23 de marzo, prevé en su artículo 9 que, en el caso de que durante su período de aplicación se transfieran a la CAPV nuevas competencias con incidencia en el Cupo a pagar al Estado, cuya competencia corresponda a las Instituciones Comunes, se efectuará una aportación específica para la financiación de los nuevos servicios y funciones.

1.2.2. Banaketa horizontalerako eredia

Eredu honi jarraiki banaketa horizontala egiten da, hau da, Ekarpen Orokorretarako Lurralde Historiko bakoitzak eman beharreko ehunekoa zehazten da.

Horretarako, aurreko legeetan jasotako eredu matematikoa mantentzen da. Eredu horrek elkarbanatutako arrisku-sistema bat dakar berarekin. Finantza-harremanak erakunde arteko bi mailen artean gertatzen dira, aldebiko harreman moduan: EAEko erakunde erkideak, alde batetik, Lurralde Historikoetako Foru-Organoen multzoa, bestetik.

Beraz, foru aldundiek euren Ekarpenak zehaztu ondoren, koefiziente horizontalak deiturikoen arabera finantzatu beharko dituzte. Koefiziente horiek lurralde historiko bakoitzak ekarpenak egiteko duen gaitasunaren arabera zehazten dira, funtsean, errentaren proportzio zuzenean; eta gaitasun hori lurralde historiko bakoitzak egindako ahalegin fiskalaren eta Autonomia Erkidego osoko batez besteko ahalegin fiskalaren arteko erlazioaren alderantzizko proportzioan neurtuko da halaberrez, hala ezartzen da-eta 27/1983 Legearen 22. artikuluko seigarren atalean.

Koefiziente horien %70 lurralde historiko bakoitzaren errenta erlatiboaren arabera kalkulatu da eta beste %30 lurralde bakoitzak egindako zerga-ahalegin erlatiboaren alderantzizko funtzioaren arabera, zerga-ahalegina dirua biltzeko ahalmenaren arabera neurtzen da.

Lurralde historiko bakoitzak Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde erkideei egin beharreko ekarpena aurretik zehaztutako ekarpen orokor eta berariazkoen zenbatekoari lurralde historikoaren koefiziente horizontala ezarri kalkulatu da.

1.2.2. Modelo de distribución horizontal

En este modelo se efectúa la distribución horizontal, es decir, la asignación a cada Territorio Histórico del porcentaje que, sobre el conjunto de Aportaciones le corresponde.

Para ello, se mantiene el modelo matemático recogido en las leyes anteriores, que supone un sistema de riesgo compartido. Las relaciones financieras se producen de manera bilateral entre los dos niveles interinstitucionales: las instituciones comunes de la CAPV por un lado y el conjunto de los Órganos Forales de los Territorios Históricos por otro.

Por tanto, una vez definidas las Aportaciones, las Diputaciones Forales contribuirán a su financiación atendiendo a los denominados coeficientes horizontales. Estos se calculan en función de la capacidad de contribución de cada Territorio Histórico, básicamente en proporción directa a la renta, y ponderándose en forma inversamente proporcional la relación entre el esfuerzo fiscal de cada Territorio Histórico y el esfuerzo fiscal medio en el conjunto de la Comunidad Autónoma, tal y como se señala en el artículo 22, apartado Sexto de la Ley 27/1983.

De acuerdo con la Ley 2/2007, de 23 de marzo, los coeficientes se calculan atendiendo en un 70% a la renta relativa de cada Territorio Histórico y en un 30% a la inversa del esfuerzo fiscal relativo de cada Territorio Histórico ponderado por la capacidad recaudatoria del mismo.

La Aportación de cada Territorio Histórico a las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma, se obtendrá por aplicación del coeficiente horizontal correspondiente al Territorio Histórico al importe de las Aportaciones General y Específicas definidas anteriormente.

2007-2011 bosturterako banaketa horizontaletarako ereduaren aldaketarik aipagarriena da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kudeaketa propioaren diru-bilketa hiru foru-aldundien artean banatzea. Egokitzapen hori aurretik dauden beste egokitzapen batzuei batzen zaie: Fabrikazioko Zerga Bereziengatikoko diru-bilketari eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentengatikoko diru-bilketari. Beraz, zerga horiengatikoko diru-bilketa hiru foru-aldundien artean banatuko da, aipatutako koefiziente horizontalen arabera.

Azkenik, beste finantza-fluxu batzuk arautzeko koefiziente horizontalen aplikazioa ere ezartzen da, hala nola: Estatuari ordaindu beharreko Kupo likidoa, indarreko Kupoa zehazteko metodologian aurreikusitako konpentsazioak, Balio Erantsiaren gaineko Zergagatikoko diru-bilketaren Egokitzapena lurralde historikoen arabera banatzea eta Fabrikazioko Zerga Bereziengatikoko diru-bilketaren Egokitzapenak (Ekonomia-Iltunaren 53. eta 54. artikuluetan aurreikusiak).

1.2.3. Egokitzapenerako Funts Orokorra

Egokitzapenerako Funts Orokor berriak aurreko bi bosturtekoetan zegoen Elkartasuneko Funtsa ordezkatzeko du.

Egokitzapenerako Funts Orokorren xedea da, alde batetik, arauen artean edo kudeaketa egiteko moduan dauden ezberdintasunetatik sortutako arrazoiak salbu, eta funtsa egin beharreko ekarpena kendu ondoren, lurralde historiko bakoitzak Euskadiko diru-bilketa osoan izango duen parte-hartze erlatiboa bere koefiziente horizontalaren % 99ra iritsiko dela bermatzea eta, bestetik, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren iritziz funts horrekin erantzun behar den ohiz kanpoko beste edozein gorabeherari erantzutea.

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak urtero ezarriko ditu, batetik, Funts horren zenbatekoa kalkulatzeko metodoa eta, bestetik, erakundearen arteko banaketa, bai beren behin-behineko zein behin-betiko kalkulua egiteko. Zenbateko horrek ezin izango du gainditu banatu beharreko baliabideen % 1.

Erakunde erkideek egingo duten ekarpena euren koefiziente bertikalaren (% 70,04) arabera izango da. Gainerakoa foru aldundiei egokitu zaie, bakoitzari bere koefiziente horizontalaren arabera.

Baldin eta, kalkulua egiten delarik, Funtsaren onuradun ez den foru-aldundiren batentzat ondorioztatzen den ekarpenak haren benetako diru-bilketaren eta haren koefizientearen % 99 Euskal Autonomia Erkidegoko guztizko diru-bilketari aplikatzearen ondorioaren arteko aldearen zenbatekoa gainditzeko badu, foru-aldundi horren ekarpena alde horren zenbatekoan finkatuko da. Funtsaren onuradun ez izanik, kasu horretan ez dagoen foru-aldundiak gainerako zenbatekoa hartuko du bere gain, foru-aldundien multzoaren ekarpena osatu arte, baina muga batekin, hau da, guztizko ekarpenaren zenbatekoak ez du gaindituko benetako diru-bilketaren eta koefiziente horizontala Euskal Autonomia Erkidegoko diru-bilketari aplikatzearen arteko aldea.

La modificación más significativa del modelo de distribución horizontal de recursos para el quinquenio 2007-2011 es la distribución de la recaudación de gestión propia del Impuesto sobre el Valor Añadido entre las Diputaciones Forales. Este ajuste se suma a los ya existentes a la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación y por el Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos. Por tanto, la recaudación por estos impuestos se distribuirá entre las Diputaciones Forales de acuerdo a los coeficientes horizontales.

Por último también se establece la aplicación de los coeficientes horizontales para regular otros flujos financieros como son: el Cupo Líquido a pagar al Estado, las compensaciones previstas en la vigente metodología de señalamiento del Cupo, la distribución por territorios históricos del Ajuste a la recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido y los Ajustes a la recaudación por los Impuestos Especiales de Fabricación previstos en los artículos 53 y 54 del Concierto Económico.

1.2.3. Fondo General de Ajuste

El nuevo Fondo General de Ajuste sustituye al Fondo de Solidaridad existente en los dos quinquenios anteriores.

El objeto del Fondo General de Ajuste es asegurar que, salvo causas derivadas de diferencias normativas o de gestión, la participación relativa en la recaudación total del País Vasco por cada territorio histórico, una vez deducida su contribución al propio Fondo, alcance el 99% de su coeficiente horizontal, así como cualquier circunstancia de carácter extraordinario que a juicio del Consejo Vasco de Finanzas Públicas deba atenderse con dicho Fondo.

El Consejo Vasco de Finanzas Públicas será el que establezca anualmente el importe de dicho Fondo, cuyo máximo se fija en el 1% de los recursos a distribuir, y su distribución institucional, tanto para su cálculo provisional como definitivo.

La contribución de las Instituciones Comunes se realizará en función de su coeficiente vertical (70,04%). El resto corresponderá a las Diputaciones Forales de acuerdo a sus respectivos coeficientes horizontales.

En el supuesto de que, realizado el cálculo, la contribución que resulte para alguna Diputación Foral no beneficiaria del Fondo supere el importe de la diferencia entre su recaudación real y el resultado de aplicar el 99% de su coeficiente horizontal a la recaudación total del País Vasco, su contribución quedará fijada en el importe de dicha diferencia. La Diputación Foral que no siendo beneficiaria del Fondo no se encuentre en este supuesto, asumirá el importe restante hasta completar la contribución del conjunto de las Diputaciones Forales, con el límite de que el importe de su contribución total no supere la diferencia entre su recaudación real y el resultado de aplicar su coeficiente horizontal a la recaudación total del País Vasco.

Metodologian sartu egin da nola jokatu behar den baldin eta bi lurralde historiko Egokitzapenerako Funts Orokorra jotzeko baldintzak bete arren Funtsaren gehieneko zenbatekoa nahikoa ez bada bermatutako % 99 bi lurraldeok lor dezaten. Egoera honetan, Funtsaren banaketa, aipatutako bi lurraldeon ekarpena kenduta, esandako % 99 lortzeko horietako bakoitzak behar duen besteko proportzioan egingo dela ezartzen da.

1.2.4. Ekarpnen egiteko modua

Martxoaren 23ko 2/2007 Legearen IV. Kapituluaren ekarpnen egiteko modua zehazten da, epeei eta kontuan hartu beharreko beste hainbat alderdi praktikori dagokienez. Ildo honetatik jarraiki, Lurralde Historikoen Legearen (LHL) 25.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Ekarpnen sei epe berdinetan egingo dira urtero, beti ere honako hilabete hauetako baten lehenengo hamabostaldian: otsaila, apirila, ekaina, uztaila, urria eta azaroa.

Era berean, martxoaren 23ko 2/2007 Legeak ekarpnen ordaintzeko jardunbidea arautzen du. Gauzak horrela, ekitaldi bakoitzeko ekarpnen hasierako kalkulua egiteko Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien aurrekontu orokorretarako onartutako diru-sarreraren aurreikuspena aplikatuko da.

Ekitaldia amaitu aurretik, eta azken epea ordaintzerakoan, hau da, azaroaren lehenengo hamabostaldian, aurrelikidazio bat egiten da ekitaldiaren itxierarako aurreikusitako diru-bilketari buruzko balioespenaren arabera, ekitaldian zehar ordaindutako hasierako Ekarpnen behin-betikotara ahalik eta gehien egoki daitezen, izan ere, azken hauek ekitaldia itxi arte ezin baitira kalkulatu.

Behin-betiko likidazioa ondorengo ekitaldiko otsailean egiten da; horretarako, honako hauek hartzen dira kontuan: Ekarpnei dagokien ekitaldian izandako diru-bilketaren benetako datuak, hasierako kalkuluetan erabilitako eguneratze-indizeen benetako baloreak, Kupoaren behin-behineko isurien eta konpentsazio finantzarioen benetako zenbatekoak.

Likidazio honen ondoriozko Ekarpnen behin-betikotzat jotzen dira dagokien ekitaldirako.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2007/2011 bosturteko Kupo zehazteko metodologian, urriaren 25eko 29/2007 Legeak onartu zuenean, aurreikusten da ekitaldi bakoitzeko Kupo eta Konpentsazioen likidazioa hurrengo ekitaldiko maiatzaren egingo dela. Izan ere, ekitaldi bakoitzeko maiatzaren aurreko ekitaldiko Ekarpnen behin-betikoz kitatuta daudenez gero, haien ondorioa, martxoaren 23ko 2/2007 Legeko 13. artikuluan arautzen dena, uneko ekitaldiko Ekarpnenetan jasotzen da.

Halaber, kapitulu honetan foru aldundien arteko egokitzapenen behin-behineko kalkulua eta likidazioa arautzen dira, eta baita Egokitzapenerako Funts Orokorra.

1.2.5. Xedapen Gehigarriak

Se incluye en la metodología la operativa que debe aplicarse en el supuesto en que, cumpliendo dos territorios los requisitos para acceder al Fondo General de Ajuste, el importe máximo de éste no sea suficiente para situar a ambos en la garantía del 99%. En este caso, se estipula que la distribución, excluida la contribución de dichos territorios, se realizará de forma proporcional al importe que cada uno de ellos necesite para alcanzar dicho 99%.

1.2.4. Operativa de las Aportaciones

El Capítulo IV de la Ley 2/2007, de 23 de marzo, determina la operativa de las Aportaciones en lo relativo a la fijación de plazos y demás aspectos a tener en cuenta en su aplicación práctica. A este respecto, la LTH señala en su artículo 25.1 que las Aportaciones se harán efectivas en seis plazos iguales, dentro de la primera quincena de los meses de febrero, abril, junio, julio, octubre y noviembre de cada año.

Igualmente, la Ley 2/2007, de 23 de marzo, regula la mecánica a seguir para el pago de las Aportaciones, estableciendo que para el cálculo inicial de las Aportaciones de cada ejercicio se aplicará la previsión de ingresos aprobada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas a los efectos de la elaboración de los Presupuestos Generales del Gobierno Vasco y de las Diputaciones Forales.

Antes de la finalización de cada ejercicio y en el momento del pago del último plazo, es decir, en la primera quincena del mes de noviembre se efectúa una preliquidación en base a una estimación de cierre de la recaudación, con el objeto de que las Aportaciones iniciales pagadas durante el ejercicio se adecuen lo más posible a las definitivas, que no podrán calcularse hasta que esté cerrado el ejercicio al que se refieren.

La liquidación definitiva se realiza dentro del mes de febrero del ejercicio siguiente, para lo cual se consideran los datos reales de recaudación obtenida durante el ejercicio al que se refieren las Aportaciones, los valores reales de los índices de actualización utilizados en el cálculo inicial, así como los importes efectivos de los flujos provisionales de Cupo y de las compensaciones.

Las Aportaciones resultantes de esta liquidación se consideran definitivas para el ejercicio.

En la metodología de determinación de cupo del País Vasco para el quinquenio 2007/2011, aprobada por la Ley 29/2007, de 25 de octubre, se prevé que la liquidación del Cupo y de las Compensaciones de cada ejercicio se efectuará en el mes de mayo del ejercicio siguiente. Puesto que en el mes de mayo de cada ejercicio las Aportaciones del ejercicio anterior están ya definitivamente liquidadas, su efecto, regulado en el artículo 13 de la Ley 2/2007, de 23 de marzo, se refleja en las Aportaciones del ejercicio en curso.

Asimismo, se regulan en este capítulo el cálculo provisional y la liquidación de los Ajustes a la recaudación entre las Diputaciones Forales, así como del Fondo General de Ajuste.

1.2.5. Disposiciones Adicionales

Martxoaren 23ko 2/2007 Legeak zazpi xedapen gehigarri du:

- Lehenengoa: Aurreikusten da egoera jakin batzuegatik (aldaketak Ekonomia Itunean...) baliabide banaketa-ereduan eta ekarpenak zehazteko ereduan ere funtsezko aldaketak sartu behar badira, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak dagozkion aldaketak proposatu ahal izango dituela, ondorengo lege batek onar ditzan.
- Bigarrena: Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluari ahalmena ematen zaio Euskadiko herri-erakundeen aurrekontuen egonkortasunari buruzko helburuak erabakitzeke eta, halaber, erakunde hauen finantzajardura koordinatu eta bateratzeko gaietan azaroaren 25eko 27/1983 Legeak jadanik esleitu zitzaizkionak jasotzen dira.
- Hirugarrena: Aurreikusten da Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak eskumena izan dezala, baliabide-esleipen handia behar duten eta EAEko erakunde guztiengan eragina duten egitasmoak finantzatzeko modua adosteko.
- Laugarrena: Foru organoei gomendioak ematen zaizkie beren menpeko toki-erakundeen finantzaketa kalkulatu eta zehazteko.
- Bosgarrena: Europako erkidegoetako egitura-funtsetatik etorritako eskualdaketen titulartasunari buruzko irizpidea.
- Seigarrena: foru erakundetan ekonomiako eta finantzetako desorekak agertuz gero Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak haiek zuzentzeko beharrezko neurriak hartzeko aurreikuspena.
- Zazpigarrena: 2002-2006 bosturtekoan onartutako Ertzaintzaren plantillaren handitzei dagokien finantzaketa zehazteko berariazko araubidea.

1.2.6. Xedapen Iragankorra

2007 ekitaldirako, Herri-Dirubideen Euskal Kontseilua ahalduz ematen da, Estatuaren finantza-akordioak ikusita, Kupotik gutxitutako osasun-arloko aparteko berariazko izaerari buruz erabaki dezan.

1.2.7. Azken Xedapen

Salbuespenez, metodologia honen indarraldia amaitu eta gero, hurrengo ekitaldietarako baliabideen banaketarako eta ekarpenak zehazteko beste lege arautzaile berririk oraindik aldarrikatu ez bada, metodologia hau berau aplikatuko da oso-osorik 2012ko eta hurrengo ekitaldietan.

La Ley 2/2007, de 23 de marzo incluye siete Disposiciones Adicionales:


- Primera: Previsión de que si por diversas circunstancias (cambios en el Concierto Económico...) fuera necesario introducir alteraciones en el modelo de distribución y determinación de las Aportaciones, el Consejo Vasco de Finanzas Públicas podrá proponer las modificaciones pertinentes para su posterior aprobación por ley.
- Segunda: Se asigna al Consejo Vasco de Finanzas Públicas la función de acordar los objetivos de estabilidad presupuestaria de las Instituciones Públicas del País Vasco y se recogen asimismo aquellas que en materia de coordinación y armonización de la actividad financiera de estas instituciones ya le asignaba la Ley 27/1983, de 25 de noviembre.
- Tercera: Previsión para que el Consejo Vasco de Finanzas Públicas pueda acordar la forma de financiar aquellos proyectos que precisen una asignación de recursos muy importante y afecten al conjunto de las instituciones del País Vasco.
- Cuarta: Recomendación a los Órganos Forales en relación con el cálculo y determinación de la financiación de los Entes Locales de ellas dependientes.
- Quinta: Consideración en relación a la titularidad de las transferencias procedentes de los Fondos Estructurales de las Comunidades Europeas.
- Sexta: Previsión para que en caso de desequilibrios económico-financieros de las instituciones forales el Consejo Vasco de Finanzas Públicas adopte las medidas necesarias para su corrección.
- Séptima: Régimen específico para la determinación de la financiación correspondiente a las ampliaciones de la plantilla de la Policía Autónoma aprobadas en el quinquenio 2002-2006.

1.2.6. Disposición Transitoria

Para el ejercicio 2007, se faculta al Consejo Vasco de Finanzas Públicas para que, a la vista de los acuerdos financieros con el Estado, decida sobre el carácter específico de la financiación extraordinaria en materia sanitaria minorada del Cupo.

1.2.7. Disposición Final

Excepcionalmente, si transcurrido el plazo de vigencia de la presente metodología no se hubiera promulgado una nueva ley reguladora de la distribución de recursos y determinación de aportaciones para los ejercicios siguientes, la presente metodología será de aplicación en todos sus términos para el ejercicio 2012 y siguientes.



**2. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN
ARTEAN ITUNDUTAKO ZERGEN BIDEZKO
BALIABIDEEN BANAKETA EREDUA 2013rako**

***MODELO DE REPARTO PARA 2013 DE LOS RECURSOS
POR TRIBUTOS CONCERTADOS ENTRE EL GOBIERNO
VASCO Y LAS DIPUTACIONES FORALES***

“Indarrean dagoen legeria aplikatuz eta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak 2012ko urriaren 23an izandako bileran eginiko aurreikuspenak abiapuntu harturik kalkulatzeko da Foru Aldundiek 2013an egin behar duten Ekarpen Orokorra banaketa eredu bertikalaren arabera.”

“Aplicando la legislación vigente y a partir de las previsiones aprobadas por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, en sesión celebrada el día 23 de octubre de 2012, se calcula la Aportación General y las aportaciones específicas de las Diputaciones Forales para 2013, según el modelo de distribución vertical.”



2.1. 2013rako DIRU-BILKETA AURREIKUSPENAK
PREVISIONES DE RECAUDACIÓN PARA 2013

2.1. 2013rako diru-bilketaren aurreikuspena

2013rako diru-bilketaren aurreikuspena egiteko, joan den urrian onartu baitzuen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2012ko ekitaldiaren itxierarako aurreikusitako diru-bilketa hartu zen abiapuntutzat, eta, gainera, zenbait faktore hartu ziren kontuan, foru-aldundiek itundutako zergen bitartez 2013. urtean bildu zezaketenaren aurreikuspenean eragina izan zezaketen neurrian.

- EAEko ekonomiak etorkizunean izan dezakeen bilakaera.
- Zergei buruzko foru-arauen aldaketak.
- Diru-bilketaren unean uneko egokitzapenak.

Egun, jakina da zenbat bildu zen benetan 2012. urtean; horregatik, 2013rako diru-bilketaren aurreikuspena 2012an benetan bildutakoarekin alderatuko dugu. Nolanahi ere, benetako itxieran ez da ia aldaketarik izan itxierarako aurreikusitako guztizko zenbatekoarekin alderatuta, eta kontuan hartu ziren faktoreetan ere ez da aldaketa aipagarririk gertatu.

Ekonomiak etorkizunean izan dezakeen bilakaerari dagokionez, Aurrekontu Orokorrei erantsitako Ekonomia eta Finantza Txostenari lotzen gataizkio.

2013. URTERAKO AURREIKUSITAKO ARAU BERRIAK

2013rako aurreikuspenak zehaztean, lurralde historikoen aurreko urteetan onartutako arau-neurrien biltze-ondorioak baino ez ziren kontuan hartu. Hain zuzen ere, 2011n eta 2012an, zerga-neurri hauek onetsi ziren, besteak beste:

- PFEZren kuota diferentzial garbian eragina izanik: Murrizketak, hala gizarte-aurreikuspeneko sistemetan egindako ekarpenengatik kenkariaren urteko mugan, nola ohiko etxebizitza erosteagatik eta adinagatik gehienez ken zitezkeen zenbatekoetan. Gainera, aldaketak aurrezki-errentaren zerga-ordainketan, tarte berriak tarifa orokorrean Gipuzkoako Lurralde Historikoan, eta ondorengoengatik kenketa berria Bizkaiko eta Arabako lurralde historikoetan.
- Sozietateen gaineko zergaren kuota diferentzial garbian eragina izanik: Kenketa handitzea enplegua sortzeagatik, murrizketa egitea kenketen aplikazio-mugan eta muga berria oinarri negatiboak konpentsatzeko.
- Gipuzkoan, Aberastasunaren eta Fortuna Handien Gaineko Zergaren onarpena; bi berrikuntza nagusi ditu ondareari buruzko aurreko zerga indargabetuaren aldean: bai jarduera ekonomikoei atxikitako eskubide eta ondasunei bai entitateen partaidetzei buruzko salbuespena kentzea, eta PFEZgatik zein ondarearen gaineko zergagatik batera egin beharreko ordainketan muga bat ezartzen zuen babes fiskala desagerraraztea.

2.1. Previsión de recaudación para 2013

Para elaborar la previsión de recaudación para 2013 aprobada por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas en octubre pasado, se partió de la recaudación prevista al cierre de 2012, y además se tuvieron en cuenta varios factores que básicamente podían incidir en la previsión de recaudación por tributos concertados de las Diputaciones Forales durante el año 2013:

- Evolución futura de la situación económica vasca.
- Cambios en la normativa foral tributaria.
- Ajustes puntuales en la recaudación.

A día de hoy, ya resultan conocidos los datos de recaudación real de 2012, por lo que compararemos la previsión de recaudación de 2013 con la recaudación real de 2012. En todo caso, el cierre real no ha diferido apenas del importe total previsto para el cierre y los factores que se tuvieron en cuenta tampoco se han alterado significativamente.

En lo relativo a la evolución futura de la economía, nos remitimos al Informe Económico Financiero que acompaña a los Presupuestos Generales.

NOVEDADES NORMATIVAS PREVISTAS PARA 2013

En la fijación de las previsiones para 2013 únicamente se tuvieron en cuenta los efectos recaudatorios derivados de medidas normativas aprobadas por los Territorios Históricos en años anteriores. En efecto, en 2011 y 2012 se aprobaron, entre otras, las siguientes medidas tributarias:

- Con incidencia en la Cuota Diferencial Neta del IRPF: Reducciones del límite anual deducible por aportaciones a sistemas de previsión social y de las cantidades máximas a deducir por adquisición de vivienda habitual y por edad. También cambios en la tributación de la renta del ahorro, nuevos tramos en la tarifa general en el Territorio Histórico de Gipuzkoa y nueva deducción por descendientes en los Territorios Históricos de Bizkaia y Álava.
- Con incidencia en la Cuota Diferencial Neta del IS: Aumento de la deducción por creación de empleo, reducción en el límite de aplicación de deducciones y nuevo límite para la compensación de bases negativas.
- En Gipuzkoa, aprobación del Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas, que respecto al derogado impuesto sobre patrimonio, incorpora principalmente dos novedades: eliminación de la exención sobre bienes y derechos afectos a actividades económicas y sobre participaciones de entidades y supresión del escudo fiscal que imponía un límite en el pago conjunto por impuesto sobre patrimonio e IRPF.

Estatuan ere gertatu da erreforma garrantzitsu asko zerga-esparruan, 2012. urtean, diru gehiago biltzeko. Haietako asko Euskadin aplikatu beharrekoak dira, foru-lurraldeek ez baitute arauak emateko autonomiarik esparru horietan. Hona hemen 2013ko diru-bilketan eragina izango duten erreforma garrantzitsuenetako batzuk:

- 2012ko irailaren 1etik aurrera, BEZa igotzea.
- 2012ko uztailaren 15etik aurrera, aldaketak sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatuen kalkuluan.
- 2012ko irailaren 1etik aurrera, lanbide-jardueren errendimenduen atxikipen-portzentajea handitzea PFEZn.
- 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, karga berezi bat sortzea PFEZn, estatuaren loteria eta apustuetarako. Karga hori hiru lurralde historikoetan ere onetsi da.
- 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, baliogabetuta gelditzen da hidrokarbuo jakin batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga, eta bi tarte berri sortu dira hidrokarbuoen kontsumoa zergapetzen duen zerga bereziaren barruan. Gainera, zerga-tasa bat ezartzen da gas naturalerako, eta energia elektrikoa ekoizteko hidrokarbuoetarako eta bioerregaietarako salbuespenak kentzen dira.
- Sozietateak, 2013. urtean, balantzeak eguneratzeko prozedurara bildu ahal izango dira, sozietateen gaineko zergan egindako erreforma bati esker. 2013rako diru-bilketaren aurreikuspenak finkatu ondoren hartu dute neurri hori EAEko hiru lurralde historikoek; horregatik, ez dago jasota diru-bilketan izango duen eragina.

Estatuak, zeuden zergak aldatzeaz gain, beste batzuk ere sortu ditu; besteak beste, jasangarritasun energetikoarekin zerikusia duten batzuk, eta banku-gordailuen gaineko zerga, ahaztu gabe 2011 sortu zuen zerga, joko-jardueren gainekoa. Zerga horiek hitzartu beharrekoak dira.

PFEZ

2012. urtearen hasieran, atxikipen-taula berriak ezarri ziren, eta 20.000 eurotik beherako zerga-oinarriko zergapekoei eragin zieten, aurreko urtean indarrean egon zen 400 euroko kenketa desagertzearen ondorioz. Neurrien eraginak, ordea, ezin izan zuen eragotzi diru-bilketak behera egin zezan lanaren etekinei lotutako atxikipenei dagokienez (-% 1,0), lanpostuak galdu egin baitziren, eta soldatak ez baitziren aldatu.

2013an, ez da aldaketarik espero lan pertsonalaren kontraprestazioen gainean egindako atxikipenen bilketan, atxikipenei funtsean eragiten dieten aldagaiek bilakaera ahula izatea aurreikusten baita:

También a nivel estatal se han producido de manera profusa en 2012 reformas importantes en el ámbito fiscal con el objetivo de elevar la recaudación. Muchas de ellas son de aplicación en Euskadi por no tener autonomía normativa en dichos ámbitos los territorios forales. He aquí algunas de las reformas más importantes, que repercutirán en la recaudación de 2013:

- Con efectos desde el 1 de septiembre de 2012, aumento en la imposición del IVA.
- Con efectos desde el 15 de julio de 2012, modificaciones en el cálculo de los pagos fraccionados en el impuesto sobre sociedades.
- Con efectos desde el 1 de septiembre de 2012, incremento del porcentaje de retención de los rendimientos de actividades profesionales en el IRPF.
- Con efectos 1 de enero de 2013 se crea un gravamen especial en el IRPF para las loterías y apuestas del estado. Este gravamen también ha sido aprobado en los tres territorios históricos.
- A partir del 1 de enero de 2013, queda derogado el Impuesto sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos y se crean dos nuevos tramos dentro del impuesto especial que grava el consumo de hidrocarburos. Además, se establece un tipo impositivo al gas natural y se eliminan las exenciones a los biocarburantes y a los hidrocarburos destinados a producción de energía eléctrica.
- Las sociedades podrán acogerse en 2013 al procedimiento de actualización de balances, gracias a una reforma del Impuesto sobre Sociedades. Esta medida ha sido adoptada en los tres territorios históricos de la C.A. del País Vasco con posterioridad a la fijación de las previsiones de recaudación 2013 por lo que sus efectos recaudatorios no están incluidos.

Además de reformar la imposición existente, el Estado ha creado nuevas figuras tributarias como las relacionadas con la sostenibilidad energética y el impuesto sobre depósitos bancarios, a añadir al impuesto sobre actividades de juego creado en 2011. Estas figuras tributarias deben ser objeto de concertación.

IRPF

El 2012 se inició con unas nuevas tablas de retenciones, que afectaron a aquellos contribuyentes con bases imponibles inferiores a 20.000 euros, al desaparecer la deducción de 400 euros que estuvo vigente el año anterior. Su incidencia no ha podido sin embargo evitar el descenso recaudatorio en concepto de retenciones por rendimientos del trabajo (-1,0%), ante la destrucción de empleo y la contención salarial.

Se estima que a lo largo de 2013 se produzca un estancamiento recaudatorio de estas retenciones practicadas sobre las contraprestaciones del trabajo personal, habida cuenta de la previsible débil evolución de las variables que básicamente las determinan:

- 2013an, EAeko BPGd-aren hazkunde nominala %0,5 ingurukoa izan liteke.
- 2012an, enplegu asko galdu zen, eta egoerak, zalantzarik gabe, bere horretan jarraituko du 2013an, nahiz eta ziur ez jakin zenbaterainoko larritasunarekin.
- Bere horretan atxiki dira soldatak 2012an, nabarmen; horren adierazgarri, lehendabiziko aldiz azken urteetan, itundutako soldata-igoera urteko batez besteko inflazioaren azpitik egon zen. Aurreikustekoa da egoerak bere horretan jarraitzea 2013an.

Hitz batean, 2013ko ekitaldian Euskal Autonomia Erkidegoan 4.421.000 mila euro inguru biltzea espero da; hau da, %0,4 besterik ez da handituko bildutakoa 2012an bildu zenarekin alderatuta.

Kapital higigarriaren etekinengatiko atxikipenei dagokienez, 2012ko urtarrilaren 1ean jarri zen indarrean tasaren igoera, %19tik %21era, eta 2012ko diru-bilketa nabarmen igo zen: %11,0; Bizkaiaren kasuan, hazkunde hori bi digitukoa izan zen. Hala ere, kontuan hartu behar da bilketa oso apala izan zela 2011n, bitan jarraian %15 jaitsi ondoren.

Ez da batere erraza aurreikustea zenbat bilduko den atal honetan 2013an, enpresa handiek ez baitute jokabide argirik izan 2012an: batzuek ez zuten dibidendurik banatu; beste batzuek, berriz, gainditu egin zuten azken urteetako dibidendu-maila; eta beste batzuek, azkenik, berehalako zerga-zigorrik gabeko ordainketa-moduen alde egin zuten, akzio erabat ordainduak ematearen alde adibidez.

Euskal Autonomia Erkidego osorako, 515.000 mila euro inguruko diru-bilketa aurreikusten da 2013rako, kapital higigarrien etekinengatiko atxikipenei dagokienez. Zenbateko hori erdibana kontabilizatuko da PFEZren eta Sozietateen gaineko Zergaren artean, eta %6,5eko urte arteko tasa egiten du, foru-aldundiek 2009an kontabilizatu zuten bilketa baino pixka bat txikiagoa.

EAEn, zerga-atal gutxitan handitu da bildutakoa itxitako azken ekitaldietan, eta atal horietako bat da kapital higiezinaren etekinengatiko atxikipenetatik biltzen dena.

Hiri-higiezinaren errentamendu eta azpierreantamenduetatik etekinei lotutako aitorpenak 2012an kontabilizatzen hasi ziren, aurreko %19a alde batera utzi eta %21eko tasa ezarrita, eta diru-bilketa hori ere neurritz handitu zen urte horretan. Higiezinaren merkatuko salmentek behera egiteak alokairuetan dinamismo handiagoa egotea ekarri beharko zukeen; hala ere, ez da igoera aipagarri ikusten haietan, eta prezioen mailak ere ez du eskaera handiegirik erakusten; horregatik, 2013an, aurreko urteko diru-bilketa bera espero da, ia, 176.000 mila euro ingurura iristeraino, eta bildutako hori foru-aldundiek erdibana kontabilizatu dute PFEZren eta Sozietateen gaineko Zergaren artean.

- El crecimiento nominal del PIB vasco en 2013 podría situarse en el entorno del 0,5%.

• Durante 2012 se registró una importante destrucción de empleo, situación que se seguirá produciendo con seguridad en 2013 aunque con incertidumbre en cuanto a su intensidad.

• La contención salarial ha sido patente en el 2012 hasta el punto de que el incremento salarial pactado se situó por primera vez en los últimos años por debajo de la inflación media del año. Este comportamiento es previsible se mantenga en 2013.

En definitiva, se estima en la Comunidad Autónoma de Euskadi una recaudación para el ejercicio 2013 de unos 4.421.000 miles de euros, lo que supone un exiguo aumento del 0,4% respecto a la recaudación obtenida en 2012.

En cuanto a las retenciones por Rendimientos del Capital Mobiliario, el 1 de enero de 2012 entró en vigor una subida del tipo del 19% al 21% y la recaudación en 2012 se disparó con un incremento del 11,0%, con aumento de dos dígitos en el caso de Bizkaia, aunque sobre el nivel tan bajo al que se había llegado en 2011 después de dos caídas consecutivas del 15%.

No resulta nada fácil prever la recaudación de este apartado para 2013, habida cuenta del errático comportamiento que han tenido durante 2012 las grandes empresas, ya que mientras algunas de ellas han renunciado a repartir dividendos, otras superaron el nivel de dividendos de los últimos años y finalmente otras optaron por formas de retribución sin penalización fiscal inmediata, como la entrega de acciones liberadas.

Se estima para el conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi que la recaudación por Retenciones sobre los Rendimientos del Capital Mobiliario en el año 2013 ronde en torno a los 515.000 miles de euros, importe que se contabilizará a mitades entre el IRPF y el I. Sociedades y que supone una tasa interanual del 6,5% y una recaudación ligeramente inferior a la que contabilizaron las Diputaciones Forales en 2009.

La recaudación proveniente de las retenciones por Rendimientos del Capital Inmobiliario, es uno de los pocos apartados tributarios que a nivel de la CAPV ha conseguido ver crecer su recaudación en los últimos ejercicios cerrados.

También en 2012, en el que se comenzó a contabilizar declaraciones por rendimientos procedentes del arrendamiento o subarrendamiento de inmuebles urbanos, gravadas al tipo del 21% frente al 19% anterior, esta recaudación crece moderadamente. Aún cuando la caída de ventas en el mercado inmobiliario debiera derivar a un mayor dinamismo de los alquileres, no se detecta un repunte significativo en los mismos, cuyo nivel de precios tampoco refleja una demanda excesiva, por lo que para 2013 se espera prácticamente repetir la recaudación de 2012 hasta llegar a unos 176.000 miles de euros, cuya recaudación las Diputaciones Forales contabilizarán a partes iguales entre IRPF e I. Sociedades.

Ondare-irabaziengatik atxikipenen bidez bildutakoa asko handitu da 2012ko ekitaldian: %36,1; atxikipen horien bidez, inbertsio kolektiboko instituzioetako partaidetzen edo akzioen transmisioan sortutako irabaziak zergapetzen dira, %21eko tasa erabilita 2012ko urtarrilaren 1az geroztik.

Finantza-merkatuak oraindik ez dira lasaitu, oso asaldatuta egon baitira azken ekitaldietan, eta nabaritu egin da hori zerga-atxikipena egiten zaien finantza-produktuen emaitzetan. Testuinguru horretan, eta 2012an atal honetan bildu denari esker aurreko lau ekitaldietako atzeraldia gainditzen hasi ondoren, 2013an emaitza hori errepikatzea aurreikusi da; hau da, emaitza 40.200 mila eurokoa izatea PFEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta Egoiliar Ez direnen Errentaren gaineko Zerga direla-eta egindako atxikipenengatik. Atxikipenok erdibana kontabilizatuko dituzte foru-aldundiek aipatutako lehen bi zergen artean.

Enpresaburuek eta profesionalek egindako ordainketa zatikatuen ondorioz biltzen den diru-kopurua etengabe eta poliki-poliki gutxitzen ari da azken urteetan, eta hala jarraitu du 2012an, nahiz eta, Estatuaren ekimenez, urte horretako irailaren 1az geroztik zerga-tasa portzentajezko 6 puntutan handitu zen, %21eraino iritsita, abokatu, arkitekto, aholkulari eta beste zenbait jarduera profesionaletan diharduten autonomoen eta langileen atxikipenei nahiz literatura-, arte- edo zientzia-lanak egitearen ondoriozko diru-sarrereri aplikatzekoa den tasari dagokionez.

Hala bada, arau-neurri horren bidez, 2013. urtea amaitu arte indarrean egongo denez, 149.750 mila euro inguru biltzea espero da; hau da, ozta-ozta 2012an bildutakoa baino %1,2 gutxiago.

2012an, PFEZren kuota diferentzial garbian kontabilizatu beharreko diru-bilketak hobera egin zuen, nagusiki 2011ko Errentaren kanpainen lortutako emaitzaren ondorioz, zergaren tarifak eta kenketak eguneratzeari lotutako berrikuntza txiki batzuk eginda, zertxobait handitu baitziren itzulketak, eta gehiago sarrerak: %11 inguru.

Askoz hobekuntza handiagoa aurreikusten da 2013rako PFEZren kuota diferentzial garbiaren bilketan, 2012ko Errentan lurralde historikoei onartutako zerga-neurri garrantzitsuak aplikatzearen ondorioz, kuotako kenketak eta oinarriko murrizketak mugatzen dituztelako. Izan ere, 400 euroko kenketa guztiz desagertzeaz gain, zergapekoaren sarrera-maila edozein izanda ere, gutxitu egin da banakoek gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenetarako muga kengarria, eta urteko beste muga bateratu bat ezarri da sistema horietara egindako ekarpenetarako, hala nola beste muga bat zerga-oinarrien arabera 65 edo 75 urtetik gorakoei. Honako hauek ere ezarri dira: progresibotasuna aurrezki-oinarriari aplikatu beharreko tasan; adin-muga jaitea gaztearen definizioaren barruan sartzeko zerga-ondorioetarako; eta muga kuantitatiboak murriztea ohiko etxebizitza erosteagatik kenketan.

La recaudación proveniente de las retenciones por Ganancias Patrimoniales, con las que se gravan las ganancias generadas en la transmisión de acciones o participaciones en las Instituciones de Inversión Colectiva, a un tipo del 21% a partir del 1 de enero de 2012, logra un excelente aumento recaudatorio del 36,1% en dicho ejercicio.

No acaba de llegar la tranquilidad a los mercados financieros, muy convulsos en los últimos ejercicios, lo que se ha reflejado en los resultados de los productos financieros objeto de retención fiscal. En este contexto y después de que en 2012 la recaudación de este apartado se esté recuperando del retroceso soportado en los cuatro ejercicios anteriores, se ha previsto para 2013 repetir este resultado, esto es, 40.200 miles de euros en concepto de retenciones a cuenta por IRPF, I. Sociedades e I. sobre Renta No Residentes, que las Diputaciones Forales contabilizarán a mitades entre los dos primeros impuestos citados.

La recaudación por los Pagos fraccionados, realizados por Empresarios y Profesionales, lleva tiempo sufriendo un constante y lento deterioro que continuó en 2012 a pesar de que a partir del 1 de septiembre de dicho año el tipo impositivo se incrementó, a iniciativa del Estado, en 6 puntos porcentuales hasta alcanzar el 21%, el tipo aplicable a las retenciones de autónomos y trabajadores dedicados a actividades profesionales como abogados, arquitectos, consultores, así como a ingresos derivados de la elaboración de obras literarias, artísticas o científicas.

Así pues, con esta medida normativa, que en un principio estará en vigor hasta finales de 2013 se espera obtener una recaudación de unos 149.750 miles de euros, es decir, apenas un 1,2% inferior a la recaudación de 2012.

En 2012, la recaudación a contabilizar en la Cuota diferencial neta del IRPF se cerró con una mejoría, básicamente como consecuencia del resultado de la campaña de la Renta-11 que, con pequeñas novedades relativas a la actualización de las tarifas del impuesto y las deducciones, ha registrado un ligero aumento de las devoluciones y un mayor incremento, en torno al 11%, de los ingresos.

Mucho mayor es la mejoría prevista para 2013 en la recaudación de la Cuota diferencial neta del IRPF, derivada de la aplicación en la Renta-12 de significativas medidas tributarias aprobadas por los Territorios Históricos, que limitan tanto las deducciones en cuota como las reducciones en base. En efecto, además de la desaparición total de la deducción de los 400 euros, sea cual sea el nivel de ingresos del contribuyente, se ha reducido el límite deducible para las aportaciones individuales a sistemas de previsión social, se ha establecido un nuevo límite conjunto anual para las aportaciones a dichos sistemas y un límite en función de las bases imponibles para las deducciones a mayores de 65 o de 75 años. También se adopta la progresividad en el tipo aplicable a la base del ahorro, la rebaja de la edad límite para entrar en la definición de joven a efectos fiscales y la reducción en los límites cuantitativos en la deducción por adquisición de vivienda habitual.

Hortaz, atal honetako emaitza negatiboa %10,3 gutxitzea espero da, 2013an neurri horiek aplikatzearen ondorioz, kontrako beste neurri batzuek hein batean soilik konpentsatzen dituztelako; adibidez, tarifaren deflaktazioa; zerga-ordainketa bateratuagatiko murrizketa eguneratzea; kenketa orokorra eta kenketa pertsonalak nahiz familia-kenketak; hala nola 7 urtera igotzea etxebizitzarako aurrezki-kontuak gauzatzeko epea.

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

Zerga honen barruan, PFEZn gertatzen den bezala, kapital higigarrien etekinengatiko, kapital higiezinen etekinengatiko eta ondarezko irabaziengatiko atxikipenetatik eratorritako bilketaren %50 hartzen da. atxikipen-tasa %18tik %19ra igo zen 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera, eta %21era 2012ko eta 2013ko ekitaldietarako.

Dena dela, sozietateen gaineko zergaren atal garrantzitsuena kuota diferentzial garbia da. Kuota horrekin biltzen dena zergaren gutzitzkoaren %70 inguru hartzen du, eta honako hauek jasotzen ditu:

- Urteko autoliquidazioak, zergaren foru-arauen mende dauden enpresen ordainketa bakarra:

- Zergak foru-aldundiei soilik ordaintzen dizkieten erakundeak, honako hauengatik:

- * EAEn helbideratuta egoteagatik eta 7 milioi euro baino gutxiago fakturatzeagatik.

- * Eragiketak foru-lurraldean baino ez egiteagatik, edozein izanik ere haien helbidea eta fakturatutakoaren kopurua.

- Zergak bi administrazioetan batera ordaintzen dituzten erakundeak, eragiketen bolumenaren arabera ordaindu ere, helbidea foru-lurraldean badute, eragiketa guztien %75 edo gehiago lurralde erkidean egiten dituztenean izan ezik.

- Araubide erkidearen peko sozietateak apirilean, urrian eta abenduan egin ohi dituzten konturako ordainketak, eragiketa-bolumenaren arabekoak.

Sozietateen gaineko zergan, kuota diferentzial garbiagatik bildutakoak nabarmen egin du atzera 2012. urtean: %7,2. Ehuneko hori handiagoa izan zitekeen, araubide erkidearen peko sozietateek egindako konturako ordainketen ondorioz izandako sarrerek bestelako joera izan balute. Konturako ordainketen eboluzio positibo hori Estatuak bata bestearen ondoren egindako arau-erreformen ondorioz gertatu da, erreforma horiek berekin ekarri baitzituzten, beste zenbait aldaketarekin batera, enpresa handietarako tasak igotzea eta zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa mugatzea.

Por tanto, con la aplicación en 2013 de estas medidas, sólo en parte compensadas por otras de signo contrario, como la deflactación de la tarifa, la actualización de la reducción por tributación conjunta, la deducción general y las deducciones personales y familiares, así como la ampliación a 7 años del plazo de materialización de las cuentas ahorro-vivienda, se espera una reducción del 10,3% en la negatividad de este apartado.

I. SOCIEDADES

Dentro de este impuesto, al igual que sucede en el IRPF, se incluye el 50% de la recaudación proveniente de las retenciones por los Rendimientos del Capital Mobiliario, Rendimientos del Capital Inmobiliario y Ganancias Patrimoniales, cuyo tipo de retención se elevó del 18% al 19% a partir del 1 de enero de 2010 y al 21% para los ejercicios de 2012 y 2013.

Ahora bien, el apartado más importante del I. Sociedades es la Cuota diferencial neta, cuya recaudación suele suponer en torno al 70% del total del impuesto, y en la que se recogen:

- Las autoliquidaciones anuales, único pago de las empresas sujetas a la normativa foral del impuesto:

- Entidades que tributan exclusivamente a las Diputaciones Forales, por:

- * Estar domiciliadas en el País Vasco y facturar menos de 7 millones de euros.

- * Realizar únicamente operaciones en territorio foral, cualquiera que sea su domicilio y cifra de facturación.

- Entidades que tributan conjuntamente a ambas administraciones, en proporción al volumen de operaciones, cuando estén domiciliadas en territorio foral, excepto que realicen en territorio común el 75% o más de sus operaciones totales.

- Los pagos a cuenta que continúan realizando las sociedades bajo normativa común, según el volumen de operaciones, en los meses de abril, octubre y diciembre.

La recaudación por Cuota diferencial neta en el impuesto sobre sociedades ha experimentado en 2012 un retroceso importante del 7,2%, que incluso podía haber sido mayor sino hubiese sido por el buen comportamiento de los ingresos de los pagos a cuenta de las sociedades bajo normativa común. Esta positiva evolución de los pagos a cuenta se ha producido como consecuencia de las sucesivas reformas normativas estatales que supusieron, entre otros cambios, la elevación de los tipos para las grandes empresas ó la limitación en la compensación de bases imponibles negativas.

2012ko ekitaldiari dagozkion autoliquidazioak aurkezten direnean, ez da jada nabarituko aurreko ekitaldietan finkatutako arau-aldaketan eragina; bai, ordea, lurralde historikoek 2012an onartutako neurriena (zerga-oinarrien konpentsazio-muga berria eta kenketen aplikazio-muga jaistea), eta, horrenbestez, haien eragina 2013ko uztailan aurkezten diren autoliquidazioetan agertuko da.

Arau-aldaketak oraindik nabarituko dira araubide erkidearen peko sozietateen konturako ordainketetan, baina sozietate horiek 2012. urteari dagozkion likidazioak aurkezten dituztenean, sartutako lehen erreformen aplikazioaren ondorioz egindako zenbateko handiagoko konturako ordainketak kenduko dira.

Gainera, 2013. urtean zergaren kuota diferentzial garbia biltzean, enpresen emaitza-kontuen egoera ahula nabarituko da, ia ahaztuta baitauzkate beste ekitaldi batzuetako ezohiko emaitza atipikoak, eta finantza-emaitzek okerrera egiteak eta minusbalioak agertzeak eraginda baitaude.

Beraz, 2013rako espero denaren arabera, kuota diferentzial garbiagatik biltzen dena 2012an bildutako zenbatekoaren azpitik geratuko da, portzentajezko ia hamar puntu.

Emaitza horrek ez ditu barruan hartzen balantzeak eguneratzeagatik kargaren emaitzak, 2013rako aurreikuspenak zehaztu ondoren onartu baitzen karga hori.

Sozietateen gaineko Zergan biltze-ahalmen handiena duen atalerako kalkulaturako jaitsiera neurri batean konpentsatuko da gainerako osagaien joera hobearen ondorioz, eta urte arteko -%5,4ko tasa egokituko zaio zerga osoari.

Hala bada, Sozietateen gaineko Zergaren diru-bilketa bateratua, 2013ko abenduaren 31n, 1.070.600 mila euro ingurukoa izango da. Zenbateko hori azken bi urteetako bakoitzean bildutakoa baino txikiagoa da.

BEZ

Arauen ikuspuntutik, kontuan hartu behar da Estatuak 2012ko uztailan onartu zuela zerga-tasen igoera, 2012ko irailaren 1etik aurrerako eraginarekin. Igoera hori 2013. urte osoan aplikatuz gero, nabarmen igo daiteke zerga honekin bildutakoa.

Izan ere, BEZaren erreformak portzentajezko 3 puntu handitu zuen tasa orokorra, eta 2 puntu, berriz, murriztua. Gainera, ondasun eta zerbitzu batzuk tasa murriztuaren pean egotetik tasa orokorraren pean egotera aldatu ziren. Zerga-tasak honela geratu ziren:

- Tasarik murriztuena: %4.
- Tasa murriztua: %10.
- Tasa orokorra: %21.

Cuando se presenten las autoliquidaciones correspondientes al ejercicio de 2012, ya no acusarán el impacto de cambios normativos consolidados en ejercicios anteriores, pero sí se verán afectadas por las medidas aprobadas por los Territorios Históricos en 2012 (nuevo límite compensación bases imponibles y reducción límite aplicación deducciones) y que por tanto, proyectarán sus efectos en las autoliquidaciones que se presenten en julio de 2013.

Todavía se dejarán sentir los cambios normativos en los pagos a cuenta en las sociedades bajo normativa común, si bien cuando estas sociedades presenten las liquidaciones relativas a 2012 se deducirán los pagos a cuenta realizados por un mayor importe en aplicación de las primeras reformas introducidas.

Además, en la recaudación de la Cuota diferencial neta del impuesto a lo largo de 2013 se dejará sentir la débil situación de las cuentas de resultados empresariales, que ya tienen casi olvidados los resultados atípicos extraordinarios de otros ejercicios, y que se ven afectadas por el empeoramiento de los resultados financieros y el afloramiento de minusvalías.

Por consiguiente, se contempla que en 2013 la recaudación por la Cuota diferencial neta se quede casi diez puntos porcentuales por debajo del importe recaudado en 2012.

Este resultado no incluye los resultados del gravamen por actualización de balances aprobado con posterioridad a la fijación de las previsiones para 2013.

El descenso estimado para el apartado de mayor capacidad recaudatoria del I. Sociedades se verá compensado parcialmente por el mejor comportamiento del resto de sus componentes, hasta registrar una tasa interanual de -5,4% para el total del mismo.

Así pues, la recaudación consolidada por el I. Sociedades al 31 de diciembre de 2013 se situará en torno a los 1.070.600 miles de euros, una cifra que está por debajo de lo recaudado en cada uno de los dos últimos años.

IVA

Desde el punto de vista normativo, la aplicación durante todo 2013 de la subida de tipos impositivos aprobada por el Estado en julio de 2012 pero con efectos desde 1 de septiembre de 2012, puede suponer un aumento significativo de la recaudación por este impuesto.

En efecto, la reforma operada en el IVA incrementó en 3 puntos porcentuales el tipo general y en 2 puntos el reducido. Además, algunos bienes y servicios pasaron de estar sometidos a tipo reducido a estarlo a tipo general. Así quedaron establecidos los tipos impositivos:

- Tipo superreducido: 4%.
- Tipo reducido: 10%.
- Tipo general: 21%.

Beraz, igoeratik salbuesita geratu zen tasarik txikiena, premia biziko ondasun eta zerbitzuak zergapetzen dituen, hala nola ogia, esnea, frutak, liburuak, medikamentuak eta etxebizitza babestuak, horiek guztiak EBko estatu kideek adostuak.

Etxebizitza berria erosteari %4ko zerga ezarri bazitzaion ere, aldi batez eta salbuespen moduan, %10 ezarriko zaio 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, eta horrek ere eragina izango du ekitaldi honetako diru-bilketan.

Tasen igoeraren lehen ondorioak 2012. urtearen amaieran nabaritu ziren, baina ez ziren nahikoa izan BEZak urtean zehar izandako bilakaera txarra konpentsatzeko. Eta hala, foru-aldundien kudeaketa propioa BEZarekin bildutakoak urte arteko -% 4,4ko tasarekin itxi zuen 2012. urtea.

2013. urteari begira, kontsumoak eta esportazioek neurri batean edo guztiz ezeztatu dezakete arau-erreformen ondorioz diru-bilketan aurreikus daitekeen hazkundea.

Eta hala, sarrera gordinei dagokienez, antzeko bilakaera espero da 2013. urterako, zergaren mendeko amaieragastuaren bilakaera funtsean baldintzatzen duten aldagai ekonomikoak kontuan hartuta:

- EAEko BPGd-aren benetako hazkundea -%1,1 izatea espero da, eta balio-deflaktorea handixeagoa izatea (%1,6); horregatik, espero den BPGd nominala %0,5 izango litzateke.
- Azken barne-kontsumoak aurreko ekitaldikoaren antzeko balio negatiboetan jarraituko du (-%1,2 aurreikusi da 2012rako eta -%1,3, berriz, 2013rako).

Halaber, beste faktore batzuen portaerek ere eraginak izango dituzte 2013an foru-aldundiek jasotako eskaerei aurre egiteko zenbat itzultze egin behar dituzten eta, batez ere, itzultze horien zenbatekoak ezartzean:

- EAEko enpresen esportazioen erritmoak eragina izaten jarraituko du bilketan; izan ere, nazioarteko merkataritzak, oro har, eta euskal produktuen bezero izan ohi diren herrialdeen jardura ekonomikoak, bereziki, beheraka jarraitzen duten heinean, kanporako salmentak ere gutxitu egingo baitira, bai eta, ondorioz, BEZarengatik itzulketak ere.
- Bestalde, 2013rako aurreikusi da Zerga Agentziari transferitza hirugarren eta azken ordainketa partziala, hots, Arabako Foru Aldundiak, Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak Rover kasuko BEZaz den bezainbatean emandako ebazpen bat betetzearren, 2009an eta 2010ean partida banatan ordaindu eta kontabilizatu zuen guztizko zenbatekoarena. Beraz, 2013an itzuli eta kontabilizatuko da, Auzitegi Gorenaren epaiari jarraiki.

Hitz batean, 2013rako aurreikuspena da foru-aldundiek 3.171.500 mila euro biltzea BEZaren kudeaketa propioagatik; hau da, 2012an baino %7,1 gehiago.

Por lo tanto, quedó exento de subida el tipo más bajo, que afecta a bienes y servicios de primera necesidad, tales como pan, leche, frutas, libros, medicamentos y viviendas protegidas, todos ellos consensuados por los estados miembros de la UE.

La compra de vivienda nueva que temporalmente y de manera excepcional estuvo gravada al 4%, pasa a partir del 1-1-2013 a estar sometida al 10%, lo que también va a incidir en la recaudación de este ejercicio.

Los primeros efectos de la subida de tipos se dejaron ya sentir a finales de 2012, sin embargo, no fueron tan intensos como para contrarrestar la mala evolución que arrastraba la recaudación por IVA a lo largo del año. Así, la recaudación por IVA de gestión propia de las Diputaciones Forales cerró 2012 con una tasa interanual del -4,4%.

De cara a 2013, el aumento recaudatorio previsible motivado por las reformas normativas puede verse revertido parcial o totalmente por el comportamiento del consumo y las exportaciones.

Así, en lo que se refiere a los ingresos brutos, se espera para 2013 una evolución similar, de las variables económicas que básicamente condicionan la evolución del gasto final sujeto al impuesto:

- Un crecimiento real del PIB vasco estimado del -1,1% y un deflactor de valor algo superior (1,6%), por lo que el PIB nominal estimado sería del 0,5%.
- Un consumo final interior que continuará en valores negativos similares a los del ejercicio anterior (-1,2% previsto para 2012 y -1,3% para 2013).

Asimismo, hay otros factores cuyo comportamiento incidirá a lo largo de 2013, en el número y sobre todo en el importe de las devoluciones que las Diputaciones Forales realizarán para hacer frente a las peticiones recibidas:

- Continuará incidiendo en la recaudación el ritmo que sigan las exportaciones de las empresas vascas, ya que en la medida en que se intensifique el deterioro del comercio internacional, en general, y de la actividad económica en los países habitualmente clientes de los productos vascos, en particular, disminuirán las ventas al exterior y, por consiguiente, las devoluciones por IVA.
- Por otra parte, está previsto para 2013 la transferencia a la Agencia Tributaria del tercer y último pago parcial del importe total que, en relación con el IVA del caso Rover, la Diputación Foral de Álava ingresó y contabilizó en sendas partidas en los años 2009 y 2010 en cumplimiento de una resolución de la Junta Arbitral del Concierto Económico y que en 2013 devolverá y contabilizará como tal en virtud de la sentencia del Tribunal Supremo.

En definitiva, se prevé para 2013 que las Diputaciones Forales ingresen 3.171.500 miles de euros por su gestión propia de IVA, esto es, un 7,1% más que en el año 2012.

Barne-egokitzapena BEZagatik bildutakoari aplikatu ondoren, horretan Ekarpenei buruzko 2/2007 Legean xedatutakoaren arabera jokatzuz, eta foru-aldundi bakoitzak bere kudeaketa propioaren barruan bilketa oso moduan edo itzulketa moduan kontabilizatuta, egokitzapena nolakoa den, positiboa edo negatiboa, kudeaketa propioaren bidez egindako bilketa ekitaldiko koefiziente horizontaletara banatuta geratuko da.

Bestalde, Ekonomia Ituneko Batzorde Mistoak onartutako prozedurari jarraiki, Estatuko Administrazioak amaitutako hiru hilabetez kontabilizatutako diru-bilketari egiten zaio BEZaren egokitzapena. Jakina, foru-aldundientzako zerga-sarrera horren aurreikuspenaren iturburutzat hartzen dira egokitzapenaren xede diren BEZaren ataletarako Estatuko Aurrekontu Orokorren proiektuan agertzen diren zenbatekoak.

Nolanahi ere, autonomia-erkidegoak finantzatzeko indarreko sistemaren arabera, 2011tik aurrera, hauxe jasotzen da Estatuko Aurrekontu Proiektuan: araubide komuneko autonomia-erkidego guztiek BEZagatik bilketa likidoaren %50ean parte hartzea.

Era berean, 2004. urteaz geroztik, Estatuaren aurrekontu-sarrerak murriztuta agertzen dira tokiko korporazioek, tokiko finantzaketa-sisteman oinarrituta, jasotzen duten partaidetzaren ondorioz.

Horrek esan nahi du 2013. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorretan ez direla Estatuko Ogasunarentzako sarreratzat agertuko lurralde-administrazioei lagatuko zenbatekoak; kopuru horiek, guztira, proiektuan agertzen denaren arabera, eta BEZari dagokionez, 26.385.000 mila euro izango dira.

Hortaz, lurralde-administrazioei lagatuko zenbatekoa BEZeko Barne Eragiketarako partidan jaso ondoren, Estatuko Ogasunaren datuen bilakaera lortzen da, irizpide homogeneoen arabera:

(milaka eurotan)

KONTZEPTUA CONCEPTO	2012ko AURREIKUS. PREVISIÓN 2012	2013ko AURREIKUS. PRESUPUESTO 2013	%
INPORTAZIOAK IMPORTACIONES	8.850.000	9.610.000	8,6
BARNE ERAGIKETAK OPERACIONES INTERIORES	39.443.000	45.047.000	14,2
GUZTIRA TOTAL	48.293.000	54.657.000	13,2

2013rako aurreikusi den BEZ-egokitzapenaren ondoriozko emaitza bat dator Estatuko ogasun-bilketan zergaren osagai bietarako aurreikusitako bilakaerarekin, eta foru-aldundien artean banatzen da 2012ko urriaren 23an egindako bileran Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2013ko ekitaldirako onartu zituen koefiziente horizontalen arabera:

Tras la aplicación del ajuste interno a la recaudación por IVA, según lo dispuesto en la Ley 2/2007, de Aportaciones, que cada Diputación Foral lo contabilizará dentro de su gestión propia como recaudación íntegra o como devolución, según sea el ajuste positivo o negativo, la recaudación por gestión propia quedará distribuida a coeficientes horizontales del ejercicio.

Por otro lado, de acuerdo con el procedimiento aprobado por la Comisión Mixta de Concierto Económico, el Ajuste IVA se practica sobre la recaudación contabilizada por la Administración del Estado por trimestres vencidos. Lógicamente, la previsión de este ingreso tributario para las Diputaciones Forales se deriva de los importes que figuren en el proyecto de Presupuestos Generales del Estado para los apartados del IVA objeto de ajuste.

Ahora bien, en base al vigente sistema de Financiación de las Comunidades Autónomas, desde 2011 en el Proyecto de Presupuestos del Estado se contempla la participación de todas las CC.AA. de régimen común en el 50% de la recaudación líquida por el IVA.

Asimismo, a partir de 2004, los ingresos presupuestarios del Estado aparecen minorados por la participación que reciben las Corporaciones Locales en base al sistema de financiación local.

Esto supone que en los Presupuestos Generales del Estado para 2013 no figuran como ingresos para la Hacienda estatal los importes cedidos a las administraciones territoriales que, según consta en el Proyecto ascenderán, respecto al IVA, a 26.385.000 miles de euros.

Por tanto, una vez integrado en la partida del IVA Operaciones Interiores el importe cedido a las administraciones territoriales, se obtiene la evolución de los datos de la Hacienda estatal en términos homogéneos:

(en miles de euros)

La previsión de Ajuste IVA para 2013 arroja un resultado acorde con la evolución prevista en la recaudación de la Hacienda estatal para los dos componentes del impuesto y se reparte entre las Diputaciones Forales según los coeficientes horizontales aprobados para el ejercicio de 2013 por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas del 23 de octubre de 2012:

(eurotan) (en euros)

ARABA/ÁLAVA	% 16,23%	197.941.080
BIZKAIA	% 50,75%	618.947.000
GIPUZKOA	% 33,02%	402.711.920
	% 100,00%	1.219.600.000

FABRIKAZIO ZERGA BEREZIAK

Zerga hauek 1997an itundu zirenetik, foru-aldundien kudeaketa propioaren bidez guztira bildutakoa etengabe hazi zen 2007. urtera arte, eta hurrengo ekitalditik aurrera beheranzko joera izan zuen, 2010. urtean baino eten ez zena. Joera horrek 2011. urtean izan zuen unerik okerrera. 2012an, suspertze txiki bat gertatu zen, eta espero da suspertze hori azkarxeagoa izatea 2013an.

2012. urteko itxierako aurreikuspen-kopuruak kontuan hartuta, fabrikazio-zerga berezietan %6,7ko urte arteko hazkundera aurreikusten zen 2013rako; haien arabera, hazkunde handia izango zen hidrokarburoen gaineko zerga berezian, apalagoa elektrizitatearen gainekoan, atzera egingo zen tabako-moten gaineko zerga berezian, eta gainerako zergak beren horretan geratuko ziren. Hala ere, 2013ko bilketa-aurreikuspena 2012ko benetako bilketarekin alderatuta, bildutakoa ez litzateke hain azkar handituko, %4,1 baizik, eta hazkunde horren banaketa, zergaz zerga, honako hau izango litzateke:

Hidrokarburoen kontsumoa zergapetzen duen zerga bereziari dagokionez, gasolina eta gasolioen kontsumo fisiko txikiagoak eragiten dion arren, kontsumoa halakoa izatea normala baita krisi-garai honetan eta prezioen goranzko joera ikusita, bildutakoa %9,8 inguru handituko da. Dena dela, hazkunde horren erdia inguru zergaren tarte berrietatik etorriko da, aurtengo urtarrilaren 1ean hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmenten gaineko zerga berezia desagertu ondoren, eta beste erdia, berriz, bioerregaiei zero tasa kentzetik, eta gaur egun, gasaren mesedegarri, indarrean dauden salbuespen gehien-gehien amaietatik.

Tabako-moten gaineko zerga bereziari dagokionez, bestalde, nahiz eta urte osoan nabarituko den puru, zigarreta eta biltzeko tabakorako gutxieneko tasa 2012ko uztailan indarrean jarri izana, kalkuluen arabera %9,4 gutxituko da bilketa, zigarretei aplikatzekoa den gutxieneko tasa irailaren 1az geroztik jaistearren eta kontsumoan aurreikustekoa den jaitsieraren ondorioz.

Bilketan garrantzi txikiena alkoholaren eta garagardoaren kontsumoa zergapetzen duten zergek dute, eta bi zerga horiei dagokienez, 2013an haien bilketa-maila berriz ere murriztuko dela espero da.

I. ESPECIALES DE FABRICACIÓN

Desde la concertación de estos tributos en 1997, su recaudación total por la gestión propia de las Diputaciones Forales ha crecido ininterrumpidamente hasta 2007, pero a partir del ejercicio siguiente se inició una tendencia a la baja, sólo interrumpida en 2010, que alcanzó su nivel más bajo en 2011. En 2012 se produjo una ligera recuperación que se espera se prolongue a mayor ritmo en 2013.

Con las cifras de previsión de cierre de 2012, el incremento interanual previsto para 2013 en los impuestos especiales de fabricación era del 6,7%, con un gran avance del IE sobre Hidrocarburos y más moderado, del IE sobre Electricidad, un retroceso en el IE sobre Labores del Tabaco y un estancamiento en el resto de los impuestos. Sin embargo, comparando la previsión de recaudación de 2013 con la recaudación efectiva de 2012 la intensidad del aumento recaudatorio sería menor, del 4,1% y su variación impuesto por impuesto sería la siguiente:

El impuesto especial que grava el consumo de hidrocarburos, a pesar de verse incidido por el menor consumo físico de gasolinas y gasóleos, propio de una época de crisis y de precios al alza, verá incrementada su recaudación en torno a un 9,8%. Ahora bien, en torno a la mitad de este aumento provendrá de los nuevos tramos del Impuesto tras la desaparición a partir del 1 de enero de este año del I.E. sobre Ventas Minoristas de Determinados Hidrocarburos, y la otra mitad procederá del fin del tipo cero en los biocarburantes y del fin de gran parte de las exenciones actualmente en vigor, de las que se beneficia el gas.

El I.E. sobre Labores del Tabaco, por su parte, pese a que trasladará a todo el año la entrada en vigor en julio de 2012 de un tipo mínimo para cigarros, cigarrillos y tabaco de liar, la reducción del tipo mínimo aplicable a los cigarrillos, a partir del 1 de septiembre, y la previsible caída del consumo llevarán a un retroceso recaudatorio que se estima del 9,4%.

En cuanto a los dos impuestos de menor entidad recaudatoria, los que gravan el consumo de alcohol y el de cerveza se estima que en 2013 acusarán nuevas reducciones en sus niveles de recaudación.

Azkenik, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaz den bezainbatean, 2013ko ekitaldian bildutakoak urte arteko %0,5eko hazkundea izatea espero da, tarifa elektrikoak segur aski igotzearen eta kontsumoak, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, antzeko jaitsiera izatearen ondorioz.

Zerga horietan guztietan, 1.450.900 mila euro biltzea aurreikusten da, guztira, eta diru horren barne-egokitzapena egingo da foru-aldundien artean, 2013an indarrean zeuden koefiziente horizontalen arabera.

Administrazio zentralak 2013rako prestatu dituen aurrekontu orokorren proiektua ezagutu ondoren, hartako kopuruetan oinarrituta eta aldeaz aurretik lurralde-administrazioei lagatako zenbatekoak jaso ostean, fabrikazio-zerga berezietan lotuta 2013rako egin beharreko egokitzapenak kalkulatu ahal izan ziren.

Hala bada, Estatuko Administrazioari 2013ko abendurako aurreikusten zaion bilketan, zerga horien kudeaketa propioagatik Nafarroarako aurreikusitako bilketa kontuan hartuta, dagozkion egokitzapenak egiten dira.

Lortutako emaitza hau izan zen:

(eurotan)

Zerga berezien 2013ko egokitzapenak Ajustes IIEE 2013	
Alkohola, E. Deribatua eta B. Produktuak/ Alcohol, B. Derivadas y P. Intermedios	38.500.000
Hidrokarburoak Hidrocarburos	(222.100.000)
Tabako-motak Labores del Tabaco	78.400.000
Garagardoa Cerveza	15.800.000
EGOKITZAPENAK, GUZTIRA TOTAL AJUSTES	(89.400.000)

Azken emaitza da foru-aldundiek hurrengo ekitaldian zehar 89.400 mila euro inguru transferituko dizkiotela Zerga Agentziari fabrikazio-zerga bereziengatik egokitzapen moduan; hortaz, 2013an kontabilizatu beharreko guztizko bilketa, kudeaketa propioa eta egokitzapenak jasota, 1.361.500 mila eurokoa izango da, aurreko ekitaldian bildutakoa baino %4,7 handiagoa.

GAINONTZEKO ZERGAK

Finalmente, para el I.E. sobre Electricidad en el ejercicio de 2013 se prevé un incremento interanual recaudatorio del 0,5%, basado en las probables subidas de sus tarifas y en un similar descenso del consumo respecto al ejercicio anterior.

El importe total recaudatorio previsto para el conjunto de estos impuestos se elevará a 1.450.900 miles de euros, que se ajustarán internamente entre las Diputaciones Forales según los coeficientes horizontales vigentes en 2013.

Una vez conocido el Proyecto de Presupuestos Generales de la Administración Central para 2013, en base a las cifras que en el mismo figuraban, previa incorporación de los importes cedidos a las administraciones territoriales, pudieron calcularse los Ajustes por Impuestos Especiales de Fabricación para el año 2013.

Así pues, a la recaudación prevista para la Administración del Estado a diciembre de 2013, con la incorporación de la previsión recaudatoria de Navarra por la gestión propia de estos impuestos, se le practican los ajustes correspondientes.

El resultado al que se llegó es el siguiente:

(en euros)

El resultado final es que a lo largo del próximo ejercicio las Diputaciones Forales transferirán a la Agencia Tributaria del orden de 89.400 miles de euros como Ajustes por I.I.E.E. Fabricación, por lo tanto, la recaudación total, gestión propia más ajustes, a contabilizar en 2013, ascenderá a 1.361.500 miles de euros, un 4,7% superior a lo recaudado en el ejercicio anterior.

RESTO DE IMPUESTOS

Gainerako zergei dagokienez, oro har, 2012. urtearen itxierarako aurreikusitako bilketa ia bera 2013an ere gertatzea aurreikusi zen, EAeko ekonomiak 2012ko azken hiletan hondoa jo zezakeela adierazten zuten kalkuluetan oinarrituta. Gaur egun, 2012an zenbat bildu zen jakinda, zerga horien bilakaera ez da eredu jakin baten araberakoa.

Eta hala, Egoiliar Ez direnen Errentaren gaineko Zergak bere bilketaren ehuneko handia berreskuratzea espero da, 2012an azken zortzi urteetako emaitzarik txarrena izan ondoren.

Gainerako zuzeneko zergetan (ondarearen gaineko zerga edo aberastasunaren eta fortuna handien gainekoa, eta oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga), berriz, 2012an baino gutxiago bilduko da.

Ez du ematen 2013.a urte egokia izan daitekeenik gora egiten has daitezen egintza juridiko dokumentatuen eta ondare-eskualdaketen gaineko zergen bidez bildutako kopuru eskasak, jarduera ekonomikoaz dagoen ikuspegia txarra delako, neurrian bada ere, eta higiezinen merkatuan oraindik ere bereziki txarra izaten jarraitzen duelako. Merkatu horretan, ordea, etxebizitza berrien erosketan BEZa igo izanak erabilitako etxebizitzaren erosketan susper dezake, eta, gainera, kontuan hartzen badugu 2012. urtea oso bilketa-maila txar batekin itxi zela, 1996an baino gutxiago bilduta, bilketan %22,8 behera eginda eta, gainera, aurreko urtean, 2011. urtean, jaitsiera %43,1ekoa izanda, ez da zentzugabekeria espero izatea biltzen dena %3,8 handituko dela.

2012. urtearen itxieran, garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziagatik bildutakoak -%29,9ko tasa izan zuen. 2013rako, ibilgailuen salmenta handitzea espero da Plan Pive delakoa berriz abian jartzeak sustatuta; horrenbestez, bilketa %8,6 susper daiteke.

2013. URTERAKO AURREIKUSITAKO EMAITZA

Aurreko urteetan erabakitako arau-aldaketek 2013an eragina izango dutelako ustean oinarrituta, espero da foru-aldundiek itundutako zergen bidez guztira 11.825.700 mila euro bilduko dituztela 2013an; hau da, %3,7 edo 417.476 mila euro gehiago aurreko ekitaldiko bilketan baino.

Bai zuzeneko zergetan bai zeharkakoetan bilketak aurrera egitea aurreikusi da, baina zeharkako zergak izango direla nagusi. Izan ere, BEZaren tasen igoeraren eraginari esker, Zerga Agentziarekin egindako doiketen ondoren, %6,8 haz liteke. Sarreraren 3. kapituluaren ere igoera aipagarri bat jasotzen da, %5,2koa.

En cuanto al resto de los impuestos, en general, se había previsto que en 2013 repitiesen prácticamente la recaudación prevista para el cierre de 2012, en base a unas estimaciones que apuntaban a que la economía vasca pudiera tocar fondo en los últimos meses de 2012. A día de hoy con la recaudación de 2012 conocida, la evolución de estos impuestos no sigue un patrón establecido.

Así, se espera que el I. sobre Renta No Residentes recupere un porcentaje importante de su recaudación tras registrar en 2012 el peor resultado de los últimos ocho años.

El resto de impuestos directos (Impuesto sobre Patrimonio ó sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas e Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones), por el contrario, se situarán por debajo de la recaudación de 2012.

